


PATXI

(UMEZURTZ BATEN GORA-BEERAK)



Zubiri'tar Iñaki
Euskerazaintzakoa

PATXI
(UMEZURTZ BATEN GORA-BEERAK)

Zubiri'tar Iñaki
Euskerazaintzakoa

Bilbao'ko Udalaren eta Bizkai'ko Foru Aldundiaren Laguntzaz
“Euskerazaleak” Alkarteak argitaratua

UMEZURTZTEGIA.....	9
KANDELAKADEA.....	17
JAURTIKETEA.....	25
PIOKANELA.....	37
“EROSLEA” IKASTETXEA.....	49
TOMAS ETA BOK.....	55
IKASTAROEN GARAPENA.....	71
SOIÑIZTIA.....	83
DENDA-MUTIL.....	91
NORABARIK.....	111
PERUTXU JAUNA.....	117
ARRIBILLAREN ANTZERA.....	145
BAITUTA.....	161
EZUSTEKO IKERPENA.....	171
ITSASOAN.....	177
GAIZKANE.....	199
ZORION, BIDAIDE BAKANA.....	223
ITSASORA BARRIRO.....	239
IPANEMA'KO ATSOA.....	245
JOAO SOUZA DE ARAUJO JAUNA.....	251
XINGUREUTARREN ERRIAN.....	283
URRE-BILLARIAK.....	301
BAKE-ITUNA.....	313
ETXERAKO BIDEGITEA.....	323
AMESEN ONDAPENA.....	331
IPANEMA'KO ATSOA BARRIRO.....	335
IZEKOREN AZKENA.....	339
ANTXIÑAKO EZAGUNAK.....	343
AZKEN BIDEGITEA.....	349

Irakurgai barri bat eskuratu dausku aspaldiko urteetan idazle ugari biurtu jakun gure Zubiri'tar Iñaki jaunak.

Argitaratu dauzan elebarri guztiak dira oso irakurgarriak, eta gaur aurkezten dogun elebarri au, Patxi idazpurua daroan elebarria be, oso irakurgarria da.

Baiña baiezen au ziurtatzeko, jakingarri batzuk agertuko doguz.

Elebarri mota

Askotariko elebarriak argitaratzen dabez idazleak. Izan be, idatz-tankera au oso ugaria dogu aspaldiko urteetan, batez be Ego-Ameriketan. Euskal-elertian be geien erabilten dan mota da.

Patxi elebarria, asiera baten giro-elebarriaren antzekoa da, "realista" deritxon tankerakoa. Ori bururatzen dau umezurtz baten bizitzak eta txarto erabilli diran umeen edestiak, Dickens'en Oliver Twist edo Pereda'en Sotileza edo olakoak. Baiña Patxi ume zigortua izan arren, elebarria txera onekoa da eta norki nagusia bera beti agertzen zuzentasunaren aldeze, naizta, bear-izanak eraginda, zuzentasunaren aurka jokatu sarritan.

Beste ikuspegi batetik begiratu ezkeru, elebarri katolikua dala esan bear: Giza-jokabiderako irakatsi ederrak daukaz, beti Eleizearen jokabideak kontuan dauzala, eta azkenean agertzen dan Mirentxu'ren misiolaritzak ori ziurtatzen dau.

Jazokizun edo "abentura" giroko elebarri lez artu leike, Patxi'ren bizitza luzean jazokizunak alkarren atzean doazelako.

Edeslea

Idazlea bera ez da bein be agertzen elebarrian, baiña Patxi norki nagusia da edesle eta idazlea batera dator Patxi'ren pentsakerakaz, ez, osteru, bere egiteakaz, beragan egiteak eta pentsakerak batera ezin joan diralako.

Bizitz-edestia da ba elebarria eta gaiñera Patxi'k berak diño une baten bere bizitzea idazten asten dala, orretarako, bere ingurukoak onua emoten dautsoela.

Eragiña (ritmoa)

Elebarri onetan jazoerak ugari agertzen dira eta elebarria bera naikoa luzea izan arren, ez da iñoz astirik izaten geldi egoteko, gauzak aurrera doaz eta bizkor joan be.

I.S.B.N.: 84-88464-01-0

Depósito Legal: BI-2189-93

Fotocomposición e Impresión:
FLASH Composition, S.L.
Ercilla, 11 - 1.º dcha.
48009 BILBAO

Gauza batzuk bear ba'da azkarregi jazoten dirala dirudi, esaterako Gaizkane'ren eriotza, baiña bizkortasun orrek irakurlearen egarriari eusten dautso, beti irakur-gurea geratzen dala.

Esaterako, Brasil'eko jazoerak, oso irakurgarriak dira baiña aritik pizka bat alboratuta dagozen lez, luze biurtzen dira.

Eragiña elebarri onetan bizkorra eta bardintsua da, oso egokia.

Aria

Elebarrietan irakurlearentzat garrantzi aundikoa da aria ondo eta bide errezetik eroatea, aritik kanpo iñoz be ibilli barik. Dana dala, elebarririk ospetsuenetan be izaten dira aritik kanporako ekiñaldiak, Kijote elebarriaren barruan esaterako, beste elebarri txiki batzuk dagoz.

Patxi elebarriak ipuin labur bat edesten dau baiña beste toki askotan esaten da ipuñiak edo edestiak kontatzen dirala baiña iñoz edestu barik.

Brasil'eko jazokizunak ariaren barruan ete dagoz? Baietz uste dot. Bizitzako lau urte dira naizta urte orreitan Patxi'ren etxekoen bizitzea albo baten geratu.

Zeazketak

Elebarriak eragin astitsua daukanean, idazleak aukera ona izaten dau norkiak eta tokiak zeaztuteko, baiña eragin bizkorra dauan elebarri batek ez dau ainbeste aukera emoten.

Dana dala, elebarrian ba-dira zeazketak, laburrak izan arren oso egokiak, bai norkienak eta bai tokienak: Umezurtztegia, jazkiak, orduko illeta-motak, epaitegia prospegrafi edo norki-zeazketa onak dira Asentzirena, Gaizkane'rena, Ivoti Nuk'ena, Joao'rena, Amaro'rena... eta bide onetatik jarraituz esan bear da baita, zeazketak berbaz egin ez arren elebarriaren joanean ederto agertzen dirala norkien berezitasuna, norkiak ondo "karakterizatuta" dagozala. Ori balio aundia da elebarrietan. Ez da aiztu bear, gaiñera, elebarri onetan norkiak asko be asko dirala eta oso ezagun egiten dira amaitu baiño len.

Norkiak

Norki nagusia, esan bearrik ez dago, Patxi bera da. Ondo zaintzen dau beti norki nagusi edo "protagonista" izatea.

Baiña bere inguruan norki asko agiri dira, bakoitza bere lekuan ondo kokatuta: Lekaimeak, senideak, umeen zapaltzailleak, giro bardiñeko arloteak, epailariak, Piokanela eta Asentzi, saltzailleak, baserritarrak Markiña'n, txinelak, irakasleak, ertzaiñak, lege-gizonak, salatariak, itxas-gizonak, inditarrak eta onein zapaltzaille diran "arrotzak"...

Norkiak sortzeko eta euren berezitasunak asmatzeko, irudimen aundia agertzen dau idazleak.

Tokia

Patxi bera Markiña'ko semea dala bere bizitza Bilbao'n igaroten dauala dirudi, naizta ori iñoz agertu ez. Idazleak ez dau tokia agertzen, ortik irakurleak atera ez dagian etxeak eta norkiak zeintzuk diran. Gizarte-azterketa egiteko bide egokia da ori.

Oñarrizko tokia uri bat da, Bilbao izan daiteke. Eta uri onetan agertzen diran tokiak Alde zarra, Erdikale (Artekalle?), azoka aundia, Barrenkale, Zabalbide, Goikale... Beste toki batzuk, Markiñaldeko Iragoikoa, eta uri barruan edo inguruan meatoki bat, ikastetxea alde zarrean bertan, kafetegiak, jatetxeak, ertzaindegia, Markesenea, kaia ta Mendigarai itxas-ontzia. Beste toki zabal bat elebarri onetan Ego-Amerika da eta emen itxas-ontzian uri askotara doa Patxi, Argentinan, Brasilen... Eta Brasilen elebarriaren zati on bat igaroten da, inditarrakak artu-emonak bideratzen. Mexiko'ra be eltzen da.

Aldia

Idazleak berenberegiz ezkutzaten dau elebarria zein alditan kokatzen dan. Une batez auxe diño: 19. . urtean jazo zala. Zergaitik ezkutatzeko ori? Tokia aztertzean esana, gizarte azterketa egikeran nor nor dan igartea eziña izan daiten.

Elebarriaren aldi osoa, gizaldi onen barruan dago eta Patxi'ren bizitza osoa artzen dau. Olan dala, irurogei ta amar bat urte.

Irailaren amabostagarren egunean jaio zan, gizaldi onetan, eta sei urtekoa da umezurtzen etxera daroenean, Lenengo ikasketak eta batxillerra, amaika urte ebazala amaitu eban umezurtz etxeko egotaldia, eta urte orretan amaitu zan Francotarren gudea. Orduan, amazortzi urtekoa zan 1938'an. 1920'an jaioa izan bear. Beste amaika urte igaro ondoren, oraindiño janarien urritasuna dago. 30 urtekoa zala Ameriketa'ra joan zan eta zortzi urte itxasoan egin ondoren ezkontzeko etxeratu zan.

Brasil'eko oianetan, inditarrak inguruan ebazala, iru urte igaro ebazan.

Ikusten dan lez, idazleak ondo zeaztuten dau aldia eta beti aurrera doanaren bidekoa izan arren, noizean bein lenagoko aldietara biurtzen da, jazoriko gauzak idazteko, batez be Patxi'ri eta bere lagunai jazorikoak. Ori geien agertzen da azkenerantza, bere lengo adiskideen bizitza edesten danean.

Alkar-izketea

Elebarrietan garrantzi aundia emoten jako alkar-izketeari. Eragiña bizkorra dala esan dogu eta orretarako alkar-izketak be ezin izan luze-luzeak, baiña asko ta zeatzak bai.

Irakatsiak

Zubiri'ren elebarriak beti izaten dira gizartea obetzeko eta jokabiderako irakatsiak zabaltzeko eta oraingo onetan be argi dago elburu ori. Irakatsi onek beti izaten dira len esan dogun lez, katoliku jokabidearen barrukoak.

Zeintzuk diran? Errez konturatuko da irakurlea, argi agiri diralako, baiña nik oneixek aitatuko neukez:

Umezurtzak zelan ezi bear diran, aita eta ama izateak bizitzarako daukan garrantzia, inditarrakazko artu-emonak zelakoak izan bear daben, mendekua ta parkamena. Bere barruko jokerea mendekua egitekoa izan arren, parkamena emoten dau, gogoratu Ipanema'ko atsoari egindakoa. Beste batzutan irakatsia jazoeretan dago, esaterako, Toribio bere lagunaren jokabide txarra.

Euskerea

Bizkaiera apaindua darabil eta errez jarraitzen da edestia, baiña irakurleai noizean bein zer-pentsau emongo dautso.

Amaitzeko

Elebarri oso ederra, errez irakurtekoa, irakatsi aundikoa, zentzunez beterik alde guztietan agertzen dana.

Irakurleak aurkezpen au irakurri begi elebarria asi baiño lenago eta dana irakurri ondoren barrero irakurten ba'dau, lagungarri izango jako. Eskerrrik asko.

Olazar'tar Martin'ek

Atzerantz begiraten dodanean, umetaroko oroitzik zaarrena, erriko umezurtztegian emon neban aspaldia da. Norbaitek gomutarik urrutiena gogora dakarrenean, laiño-artean agertuko yako. Orobat niri, bost urteko ume nintzaneko oroitz ezabatsua yatorr gogora, eta izan be, gomuta zoragarria niretzat.

Erregeen eguna izan zan. Umezurtztegian, nire adiñeko mutikoen etxe andi bateko beekaldeko soruan lo egiten genduan. Goiko etxe-mailla bitan gu baiño zaarragoak kokatzen ziran. Lenengo maillan, zazpi urtetik amaikarartekoak, eta bigarrean adin onetatik amabost artekoak. Azken adin onetara elduta, mutikoen umezurtzegia izten eben euren esku izateko. Baiña ekidan edeskiaren ariari.

Aurreko gabeen, urtero oi eban lez, zorro andia eroiala, Sor Ane'k gutariko bakotxari oe-ondoko soruan, jostaillu bana izten euskun. Burrugarik sortu ez zeiten, egokigun jostailluan norberaren izena agertzen zan. Eun bat mutikok lo egiten genduan txikien aretoan, berrogei ta amar oeko erreskada bitan. Goiz aretan, nire lagunnen pozezko didarrek iratzarri ninduen, eta eguna gogoratutik, arin baten jagi, eta jantzi aurretik nire jostailluaren billa asi nintzan, eta izan be, laster aurkitun neban "Patxi" izenpean. Latazko tren luze areri giltza eragiten yakonean, suge luzearen antzera abiatan asten zan. Errege-eguna zoragarria gertatu yatan, izan be, nire bakartasuna ia aztu egiteraiño.

Urrengo egunean, eragillea autsi zan, baiña orduan lokarri batatz batetik bestera ne-roian. Ez naz gogoratzen zertan amaitu zan nire trena baiña aspaldi zoragarria emon neban. Gau aretan gu oeratuta gero, Sor Ane'k oiko azken osteratxua lo-gelan zear egiten ebanean, nire oeburu-ondoan gelditu zan, eta,

– Aizu, Patxi –esan eustan–, pozik al-zagoz Erregeek ekarri dautsuen jostailluaz...?

– Bai, Sor Ane –erantzun neutsan– pozik nago.

– Non dago trena...?

Oepetik atara neban eta erakutsi neutsan. Orduan burutapen batek jota,

– Sor Ane –itaundu neutsan– noiz igaroko dira Erregeak oster...?

– Urtean bein datoz, Patxi.

– Ez al-dagikiezu esan, sarriago etorri dakidazala...?

Irribarre egin eustan Sor Ane'k, eta bekokian musu bat jarten eustala, urrundu baiño len,

– Begira, Patxi –esan eustan maitetsu–, urtean bein etorri oi dira, baiña zeuk nai

dozun ezkeru, urtean birritan etorri dakizuzala eskatuko dautset, baiña ez dakit jaramonik egingo ete dausten...

– Zeuk eskatzekotan, Sor Ane, etorriko dira.

Billoak laztandu eustazan, eta joan zan oiko ikerraldiari jarraitzeko. Gau aretan kartoizko kutxari besarkatura, loak artu ninduan, eta ames egin neban tren andi bateko gidaria nintzala, eta neuk aginduta, lurralde zoragarriaren zear nindaroala...

Ez neban beste etxerik ezagutu umezurtztegia baiño, eta nire benetako bizi-lekutzat neban. Egunak astiro samar erraikioren alkarri, gora-beera andi barik. Orduan, ume txiki-kiene saillekoa nintzan. Goiz guztietan, gure taldeko arduradun eta jagolea zan Sor Ane, joale bat astinduz lo-gelan zear igaroten zan aldarrika: “Egunon emon dagitsuela Jaungoikoak” “Baita zeuri be” erantzuten geutsan. Jarraian, arin baten jagi, jantzi, lo-arkondarea burkopera sartu, eta garbi-gelara joan oi gintzazan. Areto andia zan berau, irolak alde batera eta konketak bestaldera jarrita. Emen lekaime bat begirari genduan, eta izan be, jagole zorrotza zan. Bere ustez garbiketea azalekoa ba’zan, beste busti-aldi bat egitera beartzen ginduzan, aurpegia ta belarriak batez be, dizdiratsuak agertu arte. Jarraian jatokira giñoazan. Areto andi ta garbi au, Sor Ane’ren zaintzapean, bere menpeko lekaimeek garbi ta txukun iraunerazoten eben. Emen dana garbi ta dizdiratsua ikusten zan, sorutik sabairaiño, eta azpiko arlastak goiko argiak birremoten ebezan, eguzki txiki-kiene antzera. Garbi ta dizdikorra zan jatokia, baiña zoritxarrez janaria ez zan aren batekoa, ez urrik emon be... ! Gosaria katillu bete kafesne ta opil txiki batekoa zan. Opiltxua aurregunekoa, eta On Liandro’k umezurtztegiko arduraduna iñoanez, ogi egin-barria osasunerako kaltegarria izanik, aurregunekoa emoten euskun, eta askotan araiñegunekoa, izan be. Dalako opiltxua baltzarana zan, eta mamifia serraunts-itxurekoa. Ari agin-sartzerik ez egoan ezkeru, zopa eginda, eta kafesneaz aia biurturik, papar-lepo bitartera sartzen genduan. Nik ez dakit kafesnea zerez zan egiña, baiña baietz egingo neuke, txikoriaz ondua edo apaindua zala... !

Gosalduta gero, ume txikiak areto andi batera gindaroezan, eta emen, Sor Ane’ren zuzendaritzapean, bost lekaimeko talde batek jagoten ginduzan. Bakotxak ogei umeko talde bana artzen eban, eta guztitariko abestiak irakatsiz gaiñera, aspertzen asten gintzazanean, ipuiñak edesten edo irakurten euskuezan. Besteetan artaziakaz paper zaarrak ebagiten genduzan, edo onein bidez irudiak egiten irakasten euskuen. Sor Ane batetik bestera ebillen talde guztiak ikertuz, eta bidebatez gauza barriak guri erakutsiz. Neguan eta eguraldi txarra zanean, aterpean giarduan, eta ona zanean lekorean. Bagenduzan emen jolaskiak, esaterako, zibo, lerragune, dendunagak etab. Jarduketa oneik zugaitz urtetsuz ederturiko landa zabal baten egiten ziran, eta beti irrikan gengoan eguraldia ona izan zeiten. Eguberdian, joale-jote batek bazkaltzera dei egiten euskun. Otordu au, gosariarekin aren baten egoan: suku urtsu baten ostean, indiaba, garbantzu edo txilistazko lapikokoa, eta neurritsu izatera ikasi gengian, burrunzalikada bana, besterik ez, salokeriaren ziltzapean jausi ez geintezan, urrean. Amaitzeko, sasoiko igali-ale bana, baiña zoritxarrez, sagarra edo madaria akasduna zan.

Jarraian, jolas-aretora edo kanpora goizean lez, eta zortziretan joale-joteak apaltze-

ra dei egiten euskun. Otordu au eguberdikoa baiño makal edo belaxkagoa zan. Zoritxarrez, etxeko janariaren arazoa Sor Brigida’k erabillen, eta au gure urdailletzaz ez zan bear beste arduratzen. Sor Ane’ren ardurapean egon ba’litz, beste kuku batek joko euskun. Dana-dala, bala-bala ebillen, gure erriko udalak ez ebala diru asko emoten gure zaintzarako, eta umezurtztegiko laguntza-batzordeak txarto ikusten eban bere burua, urteko domuari aurre egiteko. Egoera onetan, beraz, ezin asko itxaron.

Apalduta gero, oeratu egiten gintzazan, eta Sor Ane’k otoi laburra esanik, argiak amatatzen ziran, eta isiltasun osoan loak artzen ginduzan. Gabero, lo-gelatik urten baiño len, Sor Ane oera urreratzen yatan, eta bekokian musu samurra emoten eustan. Ez nekian zergaitik, baiña lekaime onek maitasun ezoituaz bereizten ninduan. Geroagoko egun baten jakingo neban orren zergaitia.

Jaiegunetan, ikerleak etorkiguzan. Umezurtztegian gengoanok mota bikoak gintzazan. Benetako umezurtzak, eta bearrizan gorriak eraginda, semeren bat ara sartzen eben guraso ezeukiak. Eskubidea eben oneik, dalako semea ikertzeko jaiegunetan, ikeraretoan edo kanpoan eguraldi ona zanean. Olan ba, baratz edo egurastegiko aukietan jesarrita ikusi zeitekezan guraso-semeak. Ni ikustera ez etorren iñor, eta onek naigabetzen ninduan benetan.

Igande baten egurastegian zear norabarik niñoala, bere gurasoekin aulki baten jesarrita, alboko oean lo egiten eban Martintxu nire adiskidea ikusi neban. Gurasoen erdian jesarrita, gozopil bat jaten eban arein begikada maitekorrak lagunduta. Gose gorriak eraginda, jateari emotsan buru-belarri, eta ez ninduan ikusi. Aren ondotik igarota gero, une batez gelditu nintzan, eta atzerantza so egin neban. Gurasoek maite-maite begiztazten eben semea, arein aurpegiatan zoriona ikusi zeitekeala. Gero, aurrera jarraitu neban oiñazezko sentipen batek menperatuta. Zergaitik ez yatordan iñor ikustera...? Bapatean biotz-ikara batek artuta, leio baten pean egoan txokora joanda, negar mingotsari emon neutsan.

Malkoak mara-mara eridazala, leiotik mintzo batek,

– Zer zabiz or negarrez...? –esan eustan– Txukatu egizuz malkuok eta zatoz neugana.

Sor Ane zan, eta leiotik keiñu maitetsuz beragana joateko adierazoten eustan. Joan nintzakion, eta aulki baten bere ondoan jesarrita gero,

– Aizu, Patxi –esan eustan eztitsu, oi eban lez– ona sartu zintzazanetik, gaur lenengoz ikusi zaitut negarrez. Zer jazo da orren naigabeturik negar egin dagizun...?

Asiera baten, ezin barbarik esan, eta zeozer baretu nintzanean zotiñek etendako mintzoz,

—Zergaitik niri ba... –esan neutsan– ez yatort iñor ikustera, Martintxu’ri lez...?

– Begira, Patxi, orreik Martintxu’ren gurasoak dira, eta noiz edo noiz semea ikustera datoz.

– Martintxu’k gurasoak izanik, zergaitik dago emen...?

– Etxe onetan bitariko umeak dagoz: zeu lez umezurtzak diranak, eta bearrizan utsaz ona dakarrezan guraso ezeukien semeak.

– Neuk ba, gurasoak izatea gura izango neuke, Martintxuk lez. Esan, Sor Ane, zergaitik ez yatort iñor ikustera...? Ez dot gurasorik izan-ala...?

– Jaioten diran ume guztiak badabez gurasoak. Zeuk be izan zenduzan.

– Eta zergaitik ez datoz ni ikustera...? Ez ete nabe maite...?

Sor Ane'k itxura bakanaz begiztatu ninduan, eta gero billoak lastantzen eustazala,

– Egunen baten esan bearko neutsun, baiña arazoa agertu dan ezkerro, oba da orain bertan jakin dagizula.

Isildu zan Sor Ane une batez, eta gero,

– Nik ez nebazan ezagutu zure gurasoak –jarraitu eban– baiña bein baten urte biko umea zintzazala, etxe onetara ekarri zinduezan. Zure gurasoak tren-ezbea baten il ziran zu bakarrik itzita. Auzokoen etxe baten laga zinduezan txango bat egiteko, eta etxera biurtzen ziranean ezbea ori zala-ta il ziran. Biok alkarren ondoan idoro ebezan, eta dirudianez, eriotza bapatean etorri yaken. Ez eben diru askorik laga, eta aurrezturiko diru urria, obitegi ta eleizkizunetan urtu zan. Azterketa zeatzak egin arren, artu zengiezan senitartekorik agertu ez ziranez, arazoa udalaren eskuetan ipiñi zan, eta onek erriko umezurtztegira sartu zeintezala erabagi eban. Olan ba, urte biko gitxi gora-beera izanik, ona ekarri zinduezan, eta nire zaintzapean itzi. Gogoan dot eguna... Negar baten zengozan zure amatxuri etsi-etsian deika, eta noizbait, nekeak artuta, nire besoetan lo geratu zintzakidazan... Arrezkerro, nire ardurapean izan zaitut beti, eta nire aldetik, ama baten utsa beteteko aalegindu naz, baiña ori eziña da, Patxi, eziña da...

Itz oneki esatean, Sor Ane'ri begiak malkoz laiñotu yakozan, eta zapiñoaz txukatu ebazan, baita neureak be, aurpegian beera negar-arpulu lodiak eridazan-eta. Gero, barruko biotz-ikara garaiturik,

– Ez negarrik egin, Patxi –jarraitu eban–, egunen baten zure gurasoekin batuko zara-ta. Bitartean, zerutik zure alde eskatuz izango dozuz.

Nire naigabearekin naastuta, ordurarte iñoiz ez izandako poztasun bakana oartzen neban... Neuk be, maite-maite izango ninduen gurasoak izan nebazan, eta sentipen onek aintzaz bete ninduan. Gero, jakingura andipean,

– Aizu, Sor Ane –itaundu neutsan– zelan eritxen nire gurasoai ...

– Ez naz gogoratzen orain, Patxi, niretzat zu zintzakidazan beñena eta enparauak ez eustan ardura andirik emoten. Baiña bidezkoa deritxat zuretzat garrantzitsua daitenik. Zatoz nirekin, beraz, idaztegiara.

Au esanik, eskuari eutsita, arlastaz estalitako igarobide luzean zear ate nagusiraiño eroan ninduan. Onen alde baten idaztegia egoan, areto andi ta txukuna berau. Igandea zanez, utsik egoan, eta apaletan jarrita, idazti-lerrokadak ikusi zeitekezan. Apal batera joanda, aztertu ondoren, liburu bat artu, eta orriak iraultzen asi zan. Alako baten, atzamarra izen baten ondoan gelditu yakon, eta,

– Emen dagoz, Patxi –esan eustan–, zurekiko gora-beerak. Prantzisko dozu izena, eta 19..'ko Irailla'ren 15'ganean erri onetan jaio zintzazan Larrabide kalean... Ona emen zure gurasoak nortzuk ziran... aita Beresibar'tar Prantzisko, eta ama Urizar'tar Miren, biok Markiñakoak. Zu, beraz, Beresibar eta Urizar'tar Prantzisko zaitugu; augaitik, etxe

onetara sartu zintzazanean, Patxi izenaz ezagutu izan zara. Zer deritxazu zure izenari, Patxi...?

Iñoiz ez ezagaturiko arrotasunak menperatu ninduan, besteak lez nintzala jakitean, eta zarrastada andipean Sor Ane besarkatu neban, auxe niñotsala:

– Pozik nago, Sor Ane, iñoizkorik zoriontsuen, izan be.

– Ikusi dagikezunez –irribarrez esan eustan–, orain sei urteko mutikoa zara, eta etxe onetan ikastaroa datorren illean asten danez, Urrilla da-ta, irakurten eta idazten ikasiko dozu.

Ez yat, edozelan be, aztuko eguna. Naigabez asi, eta zorionez gaiñezka amaitu zan egun gogaingarria. Gau aretan oeratu nintzanean, nire gurasoen izenak gogora yatordezan. Izenen ederra... ! Ez egoan umezurtztegian areik baizen ederrak. Eta gaiñera, urren-go illean irakurten eta idazten ikasiko neuke. Sor Ane zan ona... ! Amatzat izan neban, egizkoa il yatanetik, eta sentipen ezkutu batek baiñostan, umezurtz guztien artean bere kutuna nintzala.

Jazokizun onek nire bizierea gainbera aldatu eban, eta beste mutikoekiko arremonak, ikuspegi barritik begiratzen asi nintzan. Illak izan arren, gurasoak izan nebazan, eta ez edozeiñetakoak. Oarpen onek zoriontsuago biurtu ninduan, eta nire buruarekiko uste ona sendotu eustan. Aurrerantzean, lagunenez eztenkadai banekian zelan aurre egin, bai orixe... !

Bein baten, igarobide zabaletik niñoala, Sor Ane emakume zaar batekin ikusi neban. Nik ulertzen ez neban berbetea erabiltzen, eta jakingureak artuta, alkarri iñotsoela adi-adi entzun neban; ezin, baiña, itz bat bera be ulertu. Gau aretan, jatokitik lo-gelara abiatzen gintzazala, berbeta ari buruz jakitea erabagi neban. Oi eban lez, oeratu gintzazanean, Sor Ane'k oiko azken azterketa egiten ebala, nire aldetik igarotetan, abopeka dei egin neutsan, eta urreratu yatanean,

– Sor Ane –esan neutsan–, gauza bat jakin gura dot...

– Ixo, Patxi, badakizu isillaldia dogula orain, eta geisorik ezean, ez dozu itauntzerik. Zeozer jakin gura ba' dozu, biar goizeko solasunean itaundu ta kitto.

– Bai, Sor Ane.

Biamonean, gosari-osteko jolasaldian, Sor Ane'gana joanda, auxe itaundu neutsan:

– Zelako berbetea erabilten zenduan atzo arratsaldean emakume zaar arekin...? Aalegindu banintzan be, ez neban ezer ulertu.

– Ikustera etorri yatan emakume zaarra nire ama zan, eta erabilten genduan berbetea euskerea.

– Zer da ori...?

– Gure izkuntza da, Patxi, Bizkai'ko ta Euzkadi'ko erri askotan itz egiten dana. Gurean beti darabilgu euskerea, eta antxiña-antxiñatik datorkigun gure mintzaira da.

– Gurea ba'da, zergaitik irakasten daskue emen beste bat...?

Irribarre egi eustan Sor Ane'k une batez, eta gero,

– Begira, Patxi –esan eustan–, txikiegia zara orren zergaitia ulertzeko, baiña gaur leku guztietan, gurea ez dan izkuntza erabilten da, gaztelera edo erderea, izan be.

– Eta nire guraso ziranak, euskeraz egiten eben, . . ?

– Ezin ziur jakin ori, baiña markifarrak ziran aldetik, baietz esango neuke.

Une batez isillik geratu nintzan, eta bapatean dana argi ikusi neban: nik nire gurasoen berbetea ikasi gura neban. Zein eskintza ori baiño obarik nire gurasoi egin...? Orduan mintzo erabetiz,

– Sor Ane... –eskatu neutsan– euskeraz egiten, ez daustazu irakatsiko...? Begira... nire gurasoen alde zerbait egin gura izango neuke. Ara... lengo egunean zeruan dagozala esan zeustan, eta olan izanik, nire gora-beera guztien barri izango dabe ... Arein poza, euren berbetea ikasten nabillela jakin dagienean... !

Itxura bakanaz begiztatu ninduan Sor Ane'k. Une aretan solasaldia amaitu zan, eta oi genduan lez, talde txikitari inguruka jesarrira, lekaiameek abesten eta otoi egiten irakatsi euskuen.

Andik egun batzutara ikastaro barria asi zan, eta ni sei urteko izanik, lenengo ikaste-mailla asi bear izan neban; liburu batzuk emon eustezan baita idaztekoa be, au da, arkatx, luma, arbeltxu, eta onetan idazteko arbel-zotza. Irakurten eta idazten ikasiz gaiñera, kristau-ikasbidea irakasten euskuen, zazpi urte beteta gero, Lenengo Jaunartzea egi-tearren.

Ikastaroa asi ta laster, bein baten Sor Ane'k esan eustan:

– Patxi, etxe onen batzordetik, euskerea irakasteko baimena lortu dot. Asiera baten, eta ezetza artzeko zorian nintzala, batzordeko Jaun aberats bat eta etxe onetako kapellaua euskerearen alde azaldu dira, eta noizbait, nire eskaerea aintzakotzat artu izan da, baldintza batz, eta auxe alegia: gogokoentzat bakarrik, au da, iñori indarrak ez egi-tekotan. Onen ondorioz, amabost mutiko inguru euskerea ikasteko gerturik dagoz, zeu tartekoa izanik. Zer deritxazu orreri, Patxi...?

– Oba ez, Sor Ane... ! –didar egin neban– Noiz asiko gara...?

– Biar bertatik, eta nerai izango nozue irakasle.

Niretzat egun zorionsu ta gogoangarria izan zan, euskera-ikasketak asi nebazanean. Asiera baten, ez genduan aurrerapen andirik egiten, baiña aldiaren bidean, bein baten Sor Ane'k euskeraz iñoskuna ulertzeko banintzala nor oartu nintzan, eta iru illabete barik, polito egiten neban euskeraz, baita nire lagunek be. Sor Ane'k inguruka jesarri-erazoten ginduzan, eta ikusten genduzan gauzak, euskeraz esaten euskuzan, eta gero, aditzaz josten irakatsi. Nekatuta ikusten ginduzanean, abestiak erakusten euskuzan. Zoragarriak ziran benetan, antxiñako euskal eresiak. Onek arrakasta itzela lortu eban, eta luzaro barik gure adoreak kutsututa, bigarren euskal-taldea eratu bear izan eben beste lekaiame baten ardurapean.

Euskeraz polito egin genduzanean, Sor Ane gure aberriko ipuin zaarrak edesten asi yakuzan, eta geuk abo-zabalik entzuten genduzan ekintza zauskagarri areik. Izan be, aspaldi zoragarria azaldu zan, eta joaleak euskal-irakaskintza iragarten ebanean, txalo ta oiuka Sor Ane'ren inguruan jesarten gintzazan. Ikastaroa arin baten amaitu zan, eta laster bigarren maillako ikasketak asi bear izan nebazan.

Orduan, zazpi urteko nintzan, eta ikastaro aretan Lenengo Jaunartzea egokidan ez-

kero, bearrezko gertuera asi zan. Oiko oitureari jarraituz, gertakizun au erderaz egiten zan, baiña gure euskal-taldeak au be euskeraz izan zeiten gura eban, eta Sor Ane'ren eta etxeko kapellauaren bidez, ostera be gure naia jaritsi genduan. Ikastaro aretan euskal kristau-ikasbideari esker, euskeraz parra-parra egiten genduan, eta nik beintzat, erderaz baizen ondo egiten neban.

Aldiaren joanean udabarria etorri zan, eta onekin batean Jaunartzearen eguna. Zerbait egun aurretik Sor Ane'k auxe esan eustan:

– Datorren asteko Egubenean Jauna artuko dozu, Patxi, eta eskatu egiozu zintzo, on, eta garbi gorde zagizala. Begira, laztana, mutiko on eta benetakoa zara, baiña akats bat badozu, eta ez txikia. Ara... beti norki nagusizat agertzea, edo buruzagi izatea ereti guztietan. Zure burua guztien gaiñetik agertu-nai orrek, baleiteke egunen baten ondorio txarrak ekarri dagitsuzan. Erregutu egiozu Yosuri apalago izaten lagundu dagitsula. Eskatuko dautsazu ori, ezta Patxi...?

– Bai, Sor Ane.

– Eskatuko dautsazu baita be, esanekoa egin zagizala. Zeuk ez dozu oartuko, urrean, baiña zeugan asaldari baten azia dozu, eta au ona da zuzenbagekeriaren aurka doanean, baiña ez zeure on-izateari dagokionetan. Lagun-urkoa zeure burua ainbat maite ba'dozu, garaille urtengo zara Jaungoikoaren aurrean.

Isildu zan une batez, eta gero gozoki,

– Zeure gurasoen alde eskatuko dozu, baita adiskideen eta arerioen alde be. Aberria ta euskerea izango dozuz gogoan Jaunarekin bat egin zaitezanean...!

Ustekabez, barru-barrutiko didarra bai'litzakidan,

– Sor Ane –adorez esan neutsan–, zure alde be eskatuko dot, zeu baizen onik ez dago munduan-eta.

Biotz-ikara batek menperatuta, nire aurpegia eskuen artean artu eban, eta oi eban lez, bekokian musu maitekorra ipiñi eustan.

– Agur, Patxi. Jaunak gorde zagizala beti orain arte baizen benetakoa.

Egun gogoangarria etorri zan, eta Sor Ane'ri aginduta lez, guraso, aberri, adiskide ta arerioen alde otoi egin neban, eta zer esanik ez, Sor Ane'ren alde be. Azkenean, onona izango nintzakela agindu neutsan Jaunari, apal eta esanekoa batez be. Jaunartze-osteko gosaria oiezlakoa izan zan; baktotxari katillu bete txokolate opil gozo batz emon yakun, eta gaiñera, zenbat-gura jateko eskubidea. Bazkaria be ona izan zan, eta arratsaldean, etxeko areto zabalean, Txarlot'en jokaldi atsegiña ikusi genduan; barre itzelak egin nebazan, arkuak autsi egiteraiño, izan be.

Arrezkero, jaiegun guztietan mezatara joan oi nintzan beste lagunekin, eta jaunartu genduan sarritan. Aspaldi aretan, nire jokabidea iñoizkorik onena izan zan, baiña aldiaren bidean, nire asmo onak lurrinzen joan ziran, eta betiko Patxi arlote ta asaldakorria biurtu nintzan, gero ikusiko dan lez.

Iru maillatan zatitua zan gure etxea. Lenengoan, eta Sor Ane'ren ardurapean, Lenengo Jaunartze egin arteko umeak. Emendik aurrera, urrengo ikastaroan bigarren maillara sartu bear, eta amaika-amabi urte beterik, irugarren eta azken maillan jarraitzen

genduan. Azken mailla onetan, amabost-amasei urteko izanik, bizibide bat billatzen euskun batzordeak. Izan be, dendatan mandatu-mutiltzat, edo lantegietan langille-mutiltzat. Ondo gerturik izanez gaiñera, esanekotzat aipu izaten genduan leku guztietan. Ez zan arritzekoa, beraz, goi-maillako jardunetan, guztien ederrespenaz inguratutik, gure etxeko gazteren bat aurkitzea.

Lenengo Jaunartzea egin eta urrengo ikastaroan, zortzi urteko izanik, bigarren mailara sartu ninduen. Banekian orren aurretik, ori nai-ta-ez jazoteko zala, baiña Sor Ane'gandik aldentzea naigabe andia azaldu yatan, eta bigarren soruan genduan lo-gelako oean lenengoz etzan nintzanean, Sor Ane'ren oiko "Agur" maitetsua uts emotean, atsekabe larriak artuta negar egin neban.

Nire biziereak aldakuntza andia jasan eban umezurtztegiko bigarren mailla aretan. Ikasketak gogorrangoak ziran, eta anartean gaiak erdi-jolasean ikasi ba'genduzan, aurretzean irakaskintza gogorrangoa billakatu zan, eta au dala-ta, etorkiguzan zigorrak andiagoak be. Zenbakiztiko lau arauak ondo-ondo ikastera beartuak gintzazan, eta onezaz gaiñera, ludiztia, edestia, izadiztia etab. Asiera baten, niketz arlote andia izanik, ez neutsan ardura andirik emon ikasteari, baiña zigor ugariak (jaiegunetako arratsaldean egurastu barik egotea batez be), jokaerea aldatzera beartu ninduen, eta aldiaren bidean beste ikaskideak aiña izatera eldu bear izan neban. Ain zuzen be, ez nintzan iñoiz ikasle urte-na izan, baiña ertaiña izateaz artaratzen nintzan. Ikasgaien artekorik kutunena ludiztia yatan, eta lekuak, erriak, itsaso ta ibaiak, mendiak etab., buruan ondo tinkatuak nebazan, eta gaitasun onek neurri andi batez ordezten eustan, beste arazoetan neban zailtasuna.

Ikasketak len baiño mailla goikoangoak baziran be, bagenduzan beste aldeak, gure burujabetza andiangoa izatea geienbat, eta askatasun onek guztitariko aalegiñak merezi eban. Jaiegunetako arratsaldean urian zear egurasteko eskubidea genduan, eta onek munduari buruzko ikuspegia zabaltzen euskun, bizitzaren ezkutak estalgetzen asten yakuzala. Arratsalde areitan, bazkalostean, gure maillako ta goragokoak uriburuan zear taldeka sakabanatzen gintzazan, jakiña, etxeko janzki berezia gerioala. Izan be, dalako janzki guztiz itsusia zan goitik-beera. Buruko azpil-itxurako kapela, itsusia izanez gaiñera, oso bereizgarria izanik, urrundik ezagutuak gintzazan umezurtztegiko mutikotzat. Idune-ingurutik oiñetaraiño txabux illuna, eta onen gaiñean gerriraiño soingaiñeko laburra, txabuxa baizen itsusia zana. Eta oiñetakotzat, egurrezko azpiko zirudien oskitzar motxak. Neurri baten, gure janzkiek meza-mutillenak zirudien, baiña askozaz itsusia-goak. Txabuxaren botoiak begiteetan sartzeko buruauste itzela zan, ogei ta amarretik gora ziran-eta.

Jaiegunetako arratsaldean, edu onetan urian zear giñoazan talde txikitana. Galazota genduan antzoki ta zine-aretotara sartzea, au da, mutiko ezeukitzat jokatu bear izaten genduan, jendearen errukia geugana eragiñez, eta beraz, onen ondorioz emoitzak ugari-tuz. Niretzat, antzoki ta zine-aretotarako debekua alperrikoa zan, dirurik ez neban ezagutzen-eta. Arratsaldeko zortzirak baiño len etxeratu bear genduan. Ni, baiña, batetik bestera orduak emonda gero, gogait-eraginda etxera biurtzen nintzan. Esan bearrean naz, jaiegunetan be umezurtztegiko areto zabal baten antzerkizunak izaten genduzala,

arratsaldeko zazpiretatik zortzirak arte inguru. Antzezlariak mutikorik urtenenak ziran, eta orretarako astegunetan ordubete bateko saio edo inārkunak izaten ebezan. Antzerki-zunok atsegin yatazan benetan, eta augaitik, jaiegunetako arratsaldeetan zazpirak baiñio len etxean nintzan antzerkiok ez galtzearren.

Gure maillakotik gorantza, bagenduzan eretiak be, kalera urteteko astegunetan. Garai aretan, ildakoen gorpu-lorketea etxetik parrokiraiño egiten zan, eta emendik etxe-koek lagunduta, zerraldoa obitegira eroaten eben. Etxetik parrokiraiño gorpu-lorke-teari apaintasuna emotearren, umezurtzegiko erakundearen bidez egiten zen, eta auxe izaten eban batzordeak diru-sarreak ugariena, etxeko eralguntzai aurre egiteko. Ezeukia ez izaniko baten bat ilten zanean, umezurtzegiko batzordearekin arremonetan asten ziran aideak, eta txautzeko gerturik egozaren giñoan, lenengo, bigarren edo irugarren maillako gorpu-lorketea egiten zan. Irugarren maillakoa izanik, zaldi-bikote batek gurdia eroaten eban; gurdi au erdipurdikoa zan, eta zaldiak aren baten. Bigarren maillakoa zanean, gurdia apaiñagoa, eta lau zaldik lerratuta. Onezaz gaiñera, gutariko talde bat jarraigoaren aurretik joian, bakotxak argizagi bana eroiala. Gorpu-lorketearen jarrera onetaraxe zan: aurretik abade bat ala geiago ildakoaren garrantziaren giñoan, eta eleiz-mutilla gurutzarekin; gero gure etxeko taldea; jarraian, zaldiak eta gurdia, eta onen atzetik aide ta ezagunak.

Zaldiak ikatza baizen baltzak ziran, burua lumazko gangar baltz ederraz apainduta. Baltzez jantzitako gurdi-zaiñiak kopaletaz apainduta, eretirako aal eban irudirik itzaltsuena egiñez. Ikusgarriena, baiña, lenengo maillako gorpu-lorketea zan. Eretiotan, eleiz-mutilla ta gurutzaz gaiñera, erreskada bi eratuz parrokiko abade guztiak joiazan, etenbako “Pater Noster” aletuz. Jarraian, geurok, umerzurtzegiko mutikoak argizagi banaz orniduta. Argizagiok ez ziran iñoiz piztuten, eta zirazko estalki edo leka baltzaren barruan erabilten ziran beti. Ez dakit benetako argizagizkoak izango ete, ala egurrezko zati bataz egiñak, baiña gero egiztatu zanez, gogortasunean ez eutsoen ezeri zor benetako argizagizkoak izan arren. Ekiotan, baiña, gorpu jarraigoari: gure atzetik ildakoaren ezagunak ziran lebitadun Jaun dotoreen andana bat, burua kopalet dizdiratsuz estalduta. Lebitadun oneik argizagi bana eroien, eta au bai, benetakoa zan, eta beti piztuta erabilten eben. Jaun onein kopurua, abadeena, eta geurea, ildakoaren garrantziaren giñoan izaten zan, au da, aberatsago ta jarraigo ugariagokoa.

Lebitadun isiltsu ta dotore onein ostean, gurdi-zaldiak joiazan, eta ereti garrantzitsuenetan, amabi zaldiko kopurua zenbatu zeitekean. Gurdi baltz eta dizdiratsua gurtzain bik agindua zan, aurreko Jaun dotoreak baizen isil eta naiġabetuak. Gurdiaren atzetik, senideak, eta atzerago adiskide ta ezagunak, isil-misilka itz egiten ebenak, ildakoaren ontasun eta zintzotasuna agirian ipiñiz, baita batzutan goiz aretako akziño-merkatuaren gora-beerak autu-gaia izanik be.

Jarraigoa eleizaren aurrera eltzen zanean, geldi-une bat egiñik, abade-buruak Gure Aita bat esaten eban, eta guztiak lagunduta amaitzen zanean, aideek ildakoa obitegira eroaten eben, eta jarraigoa barreiatzen zan. Orduan, umezurtzegiko arduradunak, begirunez gaiñezka lebitadun Jaunen argizagiak biltzen ebazan, eta umezurtzegiko muti-

koak biñakako erreskadan, kaleetan zear isil-isillik etxera biurtzen gintzazan, bakotxak bere argizagia arduradunari emonda gero. Ereti areitan debekatuta genduan etxera eldu arte, alkarrekin berba egitea edo-ta erreskdatik urteea.

Ume txikietako maillatik bigarren onetara sartu nindueanean, Sor Ane'ren zaintzatik, “Kokotxu” esaten geutsanaren atzaparpean billakatu nintzan. Batzordekoek uste izaten eben, antza, lekaime bat ez zala gauza aziagoko mutikoak erabilteko, eta bearrezko begirunea gorde gengion, zaindari latz eta gogor baten pean jarri ginduezan, eta izan be, umezurtzek bildur andia geutsan. Edozein txikikerigaitik zigortzen ginduzan egurastu barik edo txarragoa zana, gela txiki baten giltzapetu ogi-uraz janarituak. Gela orretatik igaro ziranak bildur itzela eutsoen dalako zigorrari, eta izan be, aren aipua naikoa zan gure arteko esanekotasuna gordeteko.

Gizon argal, luzea zan bigarren maillako zaindari au. Ez eban iñoiz irri-barrerik egiten, geienez ezpanak biurrikatzen yakozan keiñu itsusiaz. Begi txiki errukibakoek ez eben iñoiz maitasun-izpirik erakutsi, eta aurpegi luze estu itzaltsua ituntasunaren ispillurik zintzoena zan. Izan be, iñor ez bera baizen egokia ildakoen jarraigoan tartekoa izateko, eta ikusleai naiġabezko asperenak erauzteko bera ta gure taldea ikustean. Buru txiki-koa zan, eta ez dakit augaitik, ala buruan emoten euskuzan kokorrekoakaitik izango ete, mutikuok “Kokotxu” esaten geutsan. Ezizen au entzun baiño ez, bere onetatik urten ei'zan. Gutariko nork, baiña, aurpegira bota izenorde ori...? Ez neban uste mundu onetan ori egitera iñor azartu zeitekenik.

Jaun onen atzaparpean gengoan, bigarren maillara adiñagaitik sartu bear izaten genduanok. Edozein jolasetan giardueanean, aski zan badator “Kokotxu” entzutea, bertanbera geldi ta isillik geratzeko. Gorpu-lorketa batera joatearren etxeko atean alkartzen gintzazanean, nekosta baiño itunago furrustada bizitan banan-banan aztertzen ginduzan, ia gure janzki, kapel, eta oiñetakoak egoera egokian ete ziran. Gero, bakotxaren goibearen biñakako erreskada eratuta, bela baten “kua-kua” zirudian mintzoaz, urtetea auxe agintzen euskun:

– Orain etxera biurtu arte, danok isillik gero... !

Eta bagiñoazan kaleetan zear benetako umezurtzai egokien baizen itun eta kupidagarriak, bakotxak argizagia eskuan. Zerbitzu au bigarren eta lenengo maillakoetan bete oi genduan txandaka, eta niri beintzat, atsegin azaltzen yatan tartekoa izatea, kaleetan zearko egurastu oneik ikusgarri asko eskintzen eustelako. Aldi aretan uriburua orain baiño txikiagoa izan arren, ia egunoro gorpu-lorketaren bat izan oi zan, baita batzutan bi ta iru be. Olan ba, gutariko bakotxari astean bein-edo etorkion jarraigo batera joatea, baita noiz edo noiz beste bigarren baten jardutea be. Kaleetatik giñoazala, oinkariek oztasunaz begizatzen ginduezan, baiña baziran, emakumeak batez be, errukitsu so egiten euskuenak.

Bein baten, gorpu-lorketa garrantzitsua parrokiko atean agurtuta gero, eta oi lez “Kokotxu”ren zaintza zorrotzpean, biñakako erreskadea eratuta, biurtzera gertatzen gintzazanean, ez dakit nondik gizon gazte bat agertu zan, eta eskuan zorrotxu bat eroiala, gozoki-jaurtiketeari emon eutsan, didar bizitan auxe iñoskuala:

– Aupa mutikook, arrapatu egizuez Prantzitik etorri-barriak diran karameluok... !
Aupa, ia nork geien arrapatu... !

Ogei ta bost bat urteko gazte arek zeozer txolinduta zirudian, eta begi urtenak geurokan jarrita, oiuegiteari ta gozoki-jautiketeari erraikien, lantzean bein barre-santzo zaratatsuak botaten ebazala. Ez dakit, oiñazeak zoraturiko ildakoaren senitartekoren bat izango ete, ala andik igaroten zan burutik egindako gazte txoliña.

Ekinza onek ez eban luzaro iraun, baiña asi baiño ez, zalaparta zaratatsuan umezurtzegiko guztiok arrapalada baten gozoki-arrapatzeari emon geutsan. Etsiak jota, "Kokotxu" k didar bizitan ziarduan Umezurtztegiari zor geutsan begirunea gorde gian, eta erreskadara biurtu geintzean, baiña dana alperrik, nork ugotde ari etsiak jarri...?

Gozokiak lurrera barik ostentzen ziran; ereti aretan jarraigo garrantzitsua izanik, amabiko bi umezurtz tartekoak gintzazan, eta gozokiak oso gitxitan ikusten genduzan ezkerro, guda baten giarduala zirudian. Alako baten, eta gozoki bat bera be arrapatu barik biurtuko nintzakela uste izaten nebanean, ara non nigandik ur, karamelu eder-ederra jausi zan. Arin baten oldartu nintzakion, eta aren gaiñean eskua ipiñi neban nireganatze-ko asmoz. Ustekabez, esku-gaiñean untzez ornituriko oiñetako baten zapa mingarria oartu, eta gora begira "Zapatones" ikusi neban. Mutiko andia ta izterbegia zan dalako laguna, beti gerturik albokoa txarto erabilteko bere onerako zanean. Lodikote ta zakarra zan, eta oiñetako anditzarrak erabillezanez, "Zapatones" esaten geutsan. Untzakaz ornituriko zolak min andia egiten eustan, eta didar baten,

– Ken egik oiñetakoa nire esku-gaiñetik –oiu egin neutsan–.

– Bai, baiña lenago askatu ezak karamelua.

Lazotu eban zapalkuntza, eta aal neban eran maspildutako eskua aren oskipetik atara neban. Garaipen-irribarrez aurpegia piztuten yakola, "Zapatones" makurtu zan gozakia jasotearren. Une aretan, esku maspilduak eta gozakiaren galpenak zoratu ninduen, eta kandlea esku biakaz artuta, makurtzen zan "Zapatones" eri nire biziko zartakoa emon neutsan buruan. Didar itzela jaurti eban burutzarreen kaska artzean, eta une batez zorabiotuta, lurreen jesarri bear izan eban. Astirik galtzeke gozokia jaso, eta aldendu nintzan. Orduantxe latz-ikara batek astindu ninduan... bai, nire kandela ederra, estalki baltzaren barruan erditik autsita agertzen zan, eta zati bat enparautik eten egiñik, bizibage ta goibel lurrerantz dingilizka ikusi zeitekean... Orduko, gazte txoliña ostendurik eta gozakiak garbituta, Kokotxu arazoa menperatzen asten zan noizbait, eta kirian-kirian etxerantz abiatu gintzazan, ain nekez irabazitako saria aboan txastatzen nebala.

Alako baten, "Zapatones" ek "Kokotxu" ri keiñu bat egiten eutsala ikusi neban, eta urreratuta gero, kapela kenduta, kandelakadeak buruan egiñiko koxkorrekoa aurpegi negartsuz erakutsi eutsan, eta jarraian atzamarraz salatu ninduan. "Kokotxu" k itxura zorroztaz begiratu eustan, eta beste barik bideari jarraitu geutsan. Zerbaitek baiñostan "Zapatones" eri egindako kaltea, eta eskuan nerabillezan kandelaren zati bieki ondore txarren bat ekarriko leuskidela, baiña karameluaren gozotasunak, arrenkurak uxatu eustazan.

Gozakia bikaiña billakatu zan, baiña aboan txikitzen yatan giñoan, arrenkura esan-

ezin bat nitzaz jabetu zan, eta urtu zaneke, nire kandelaren egoera larria ezin nengikean gogotik uxatu. Etxeko atetzarra mutikotariko azkena zearkatu nebanean, latz-ikara batek astindu ninduan. Sarreraz bestaldean, "Zapatones" en eskuari eutsita, "Kokotxu" nire begira egoan. Geldierazo ninduan, eta mutillari kapela kenduta, intxaurren erdian agiri eban txuntxurra, atzamar salatariak erakutsirik, auxe itaundu eustan:

– Zeuk egin dautsazu oneri txuntxur au...?

Ez nekian zer erantzun, baiña noizbait tartailloka, esaten azartu nintzan:

– Bai, baiña berak... ba nire karamelua kendu gura izan daust, eta. .

– Isillik... ! –mintzo gordiñaz eten egin eustan– Orduan, len jazoriko astrapala lot-sagarrian tartekoa izan zara, ezta...? Gaiñera, zelan egin dautsazu oneri olako txuntxur andia...?

Erantzuna emotera ez nintzan azartu, eta isillik nirauala, "Zapatones" en mintzo ozpintsu ta mindua onetaraxe aditu zan:

– Kandelakada itzela jo egin daust buruan... !

Au entzutean, suzmo zitalak artuta, "Kokotxu" k auxe agindu eustan:

– Ekazu ona zure kandlea... !

Eskua dardar baten, erditik autsitako argizagia luzatu neutsanean, kandela baizen zurbilla, auxe jaurti eban:

– Nire kandela gaixoa... ! Emen jardun dodazan amabost urteotan ez dot olakorik ikusi. Zer esango dabe Batzordekuok, nire ardurapean ipiñiriko kandelatariko bat, erditik autsi dala jakin dagiñean...?

Negar egiteko zorian emoten eban, eta orduan oartu nintzan "Kokotxu" ezizena baiño, "Kokolotxu" obeto etorkiola. Orduko, aztu izan yakozan "Zapatones" eta onen txuntxur nabaria. Asarre gorriak eraginda nigana biurtu zan, eta matrailleko eder bi emostazala, belarri batetik oratuta, lo-gelara eroan, eta atea edegita, alboka eragin ninduan bultzadaz, mintzo garratzaz,

– Oeratu zaitez beingoan –esan eustan zemaikor–. Gaur ez dozu aparirik izango, eta biar zigor-gelatxuan egun osoa iraungo dozu ogi ta uraz.

Joan zan "Kokotxu", eta arin baten erantzita, izaren artera sartu nintzan nire egoera larria burutik kendu eziñik. Ogi-urakaz egun oso bat emon bear be... ! Onezaz gaiñera belarriak min egiten eustan, baiña ori gitxi zan "Zapatones" en untzedun oiñetakoak nire eskuan egindako mazpillarekin erkatua. Esku-gaiña anpatu izan yatan kiskaltsu ta mindua oartzen nebala. Gabean nire gelakideak sartu ziran, eta arein itaunai erantzun bear ez izatearren, lotan nengoalakoa egin neban.

Argiak itzungi ziran, baiña miñezko egoera aretan loak ez ninduan artu gura. Gaiñera, jasandako barau osasungarria zala-ta, sabelak etenbarik gur-gur egiten eusten. Nigandik ez urrun, burua txaplasta bat az apainduta, "Zapatones" etzanda ikusi nengikean oe-gaiñean iraulkatzen zala. Izan be, ikuskizun onek neurri baten aringarria gertatu arren, ez eustan eskuaren antura gitxiten. Noizbait, loak artu ninduan, eta gaba arin samr igarota, goizeko txiliñaren jagi-joteak iratzarri ninduan.

Garbiketea arin baten eginda, jatokira joateko erreskadan kokatu nintzan, gosea ba-

retzeko asmoz. baiña sartzeko zorian nintzala, atean egoan “Kokotxu”k nire beso bateri oraturik, alde batera bultzatuz,

– Gaur, trauskil orrek –esan eustan–, ez dozu gosaririk izango, egun osoa ogi-urez iraun bear dozu-ta. Etxeko kandelak austeko dozun eraspen zantar ori, ia kentzen yatzun.

Nire eskubideen alde “Zapatones”eri kandelakada bat buruan emoteak ez eban adierazoten, kandelak austeko zaletasunik nebala, “Kokotxu”ri esateko zorian billakatu nintzan, baiña sen bereizi batek isiltzea oba zala adierazo eustan, eta beraz, ez-entzuna-rena egin neban. Nire lagunak jatokira sartu ziranean oiko kafe-esne-txikoria urtsua ta opil zimela jateko, “Kokotxu”k etxeko satora eroan ninduan, eta sakeletik giltza bat atararik, kirrinka negartsuz atea edegi zan, eta ziega bat zirudian gelatxura bultzada batatzartuerazorik,

– Ia or –esan eustan mintzo goibelaz– usteltzen zaran, zorritsu ori.

Atea danbada indartsuz itxi zan, eta gelatxu estu, ezo, eta zikin batean aurkitu nintzan. Lurraren sestran egoan goiko leiatil batetik goizeko argi motela igazten zan. Orma bateri eutsita, mai koloka bat egoan aulki zikiñaz lagunduta, eta onetan jesarrita, egun luze izugarri baten ordu aspergarriak igarotera gertatu nintzan. Gela aretako argi aulari begiak egokitu yatazanean, metro bi luze ta beste ainbeste zabal zala oartu nintzan. Sa-baia goitsua zan, eta armi-sare ugariakaz orniduta. Ordu-erdi amaibakoa igaro izan zanean, atea edegi zan etxeko morroi bat sartzen zala, eta irriño isekaria jaurtiten eustala, pitxar bete ur eta opiltxu bat mai-gaiñean jarri ebazan. Atetik ostentzen zanean,

– Bazkari bikaiña ta egosketa bikaiñagoa Berorrek izan dagiazala –esan eustan sasi-gur bat egिñez –.

Opilla buruari jaurtiteko zorian nintzala, baiña, gose itzelak nire bidezko asarrea menperatu eban. Izan be, une aretan maia, aulki ta guzti irusteko gai oartzen nintzan, eta atea itxi zanean, jesarrita gero opillari ekin neutsan. Umezurtztegian egunoro ogitxu bana emoten euskuen, eta bazkalosteko ogi enparaua aparirako zan. Ogia aurregunekoa zan, “Kokotxu”ren eritxiz osasungarriagoa zalako.

Ekin neutsan ogitxuari ba, baiña nire ortz-agiñek ezin mamurtu dalako opilla. “Kokotxu”k bere mendekua biribildu izan eban, lengo asteko bat niri iruntsi-erazoz. Ez neban beste biderik izan, ogitxua uretan beratu baiño, eta era onetan ogi-saldaren antzera jaten asi nintzan, baiña erdia nekez janda, arazoari uko egin bear izan neutsan, aren melgera nire gosea baiño andiagoa zan-eta. Noizbait, asperkeri utsaz lo-kuma batek artu ninduan, eta besoak mai-gaiñean jarrita lo geratu nintzan.

Ez dakit zein luzaro iraungo neban edu aretan, baiña alako baten, soru-gaiñeko paper baten narraste-otsak senetara ekarri ninduan. Txoko illun batetik urtendako sagutxuak paper-biribilki bat jaten ziarduan. Ekintza onek arritu ninduan, ez baineban iñoiz uste izango papera jangaia zanik, baiña nire begiek ekusena siñistu bear. Mai-gaiñean ogi-kondarra ikusi neban, eta mamin-zati bat kenduta, txirindolaka jaurti neutsan. Saguak bere jardunari eten egin eutsan, eta gero mamin-zatiari urreraturik, aida baten garbitu eban. Amaitu zanean, begi baltzak nigana zuzenduta begiztatu ninduan ezelako bil-

durrik erakutsi barik. Sagutxu arek, antza, ordurarte ez eban gizakirik ezagutu, eta augaitik, urrean, ez eustan iñongo bildurrik. Jarraian, beste zati bat jaurti neutsan eta bardin, garbitu eban. Ezustean, samurtasun bakanak menperatu ninduan, eta sagutxuaren adiskide izatea erabagi neban. Gero ta nigandik urrago mamin-zatiak botaten jarraitu neban, nire oiñetaraiño eldu arte. Esku-arrean artzea zan nire asmoa, baiña eskua luzatzen nebanetan, berak atzera egiten eban. Noizbait, burutapen bitxia otu yatan.

Egonarri andiaz nire arkondarari albaiña luze samarra kendu neutsan, eta ogi enparauari lotuta, nire aztalaren ondoan ipiñi neban dingilizka, etenbarik gorantza jasoten nebala astiro-astiro, auxe niñotsala:

– Aupa, Txotxo, aupa... !

Asiera baten ezpaitsu geratu zan, baiña goseak eraginda, galtzerdian gora igoten asi zan, eta laster belaanaren gaiñean yatan. Emen jateari erraikiola, ardurarik andienaz esku-arrera crakarri neban, eta beste eskuaz lepoa laztandu neutsan. Sagutxuak begi baltz biribillakaz begiztaten ninduan, eta gero mai-gaiñean ipiñita, batetik bestera ibiltzen asi zan, noiz edo noiz ogi-apur bat marraskatzen ebala. Olan jardun genduan aldiaren neurria zearo galduta. Alako baten, leiatillatik igazitako argia moteltzen asten zala oartu nintzan, illuntasuna gelatxuaz jabetzen zala. Luzaro barik gautu zan, eta saguarekiko nire arremona amaituko litzake...

Ain zuzen be, une aretan atez bestaldetik, ibilte baten ota aditu neban, eta astirik galtzeke, sagutxua artu eta enparauko ogiarekin txoko-zuloaren ondoan laga neban auxe niñotsala:

– Agur, Txotxo, nire sagutxu maitia, egun aztu-eziña emon yaustak.

Une aretan giltz batek morroilloa eragin eban, eta atez bestaldean “Kokotxu”ren illeta-irudia agertu yatan.

– Zatoz, barrabas ori –oiu egin eustan–. Gaurkoz ikasiko zenduala uste dot, gure etxeko kandelai zor yaken lotsa gordetea, ezta...?

Eta nire belarriari eutsita zurubian gora eroan ninduan lo-gelaraño, eta ostikada batatz barrura jaurti ninduan. Gau aretan, gosearen-gosez sabelak gur-gur egin eusten, baiña loak artzen ninduan, nire buruari esan neutsan Txotxo lako sagu bat ezagutzearren, gose ta bakartasuna jasaten merezi ebala.

Urrengo egunean, “Kokotxu”k zigortutako barauagaitik guttiz makal oartzen nintzala, nire opilla ta jangar sentitzen zan lagun batena iruntsita gero, eta katillu bete bi kafe-esne-txikori papar-lepo bitartera sartu ezkeru, betikoa oartu nintzan.

Oiko ikasketai emonda gero, goizerdiko jolasaldira urten nintzanean, lagun-talde batek inguratu ninduan, arteko Txiritxu nire lagun-miña zala. Mutiko au zeozer txoriburu zan, baiña urrezko biotzekoa izanik, beti gerturik egoan bear ebanari bere laguntza emoteko. Niretzat, baiña, garrantzitsuena, euskaldun utsa izatea zan. Zazpi urteko zala, gurasobako mutiko au erritarrek gure umezurtztegira sartu eben. Baserrikoa zanez, ez eban besterik egiten euskeraz baiño, eta augaitik aren adiskide andia billakatu nintzan, euskeraz norekin jardun baneban-eta. Aldiaren bidean nire adiskide-miña biurturik, beti alkarrekin genbiltzen.

– Aiko, Patxi –itaundu eustan– zelan igaro euan atzoko eguna zigor-gelan ogi-uraz...?

– Primerakoa, Txiritxu –adorez beterik esan neutsan–. Asiera baten estu ta larri ikusi naiuan nire burua, eta gogaituta lo geratu nintzoan, baiña gero, nire biziko jazoera bat jazo yakan.

– Orduan zigor-gelea ez dok batzuk yiñoken baizen ikaragarria...?

– Ken ortik, lagun –nagusitzaren mintzoz esan neutsan–, atzo niri jazorikoa ez ñeukek munduko urre guztiagaitik truk egingo. Ara... Txotxo izeneko sagu bipilla, neugaz jolas egitearren bere zulotik urten zoan, eta...

Jarraian, sagutxuarena zeaztasunik andienaz inguratzen ninduen lagunai edestu neutsen, abo-zabalik begiztatzan ninduela. Adiskideen arreta nigan josita ikustean, ez-tan aurkitzen nintzan, bere txangotik biurtu zanean Eneas baiña arroago izan be. Eta onaiño eldu nazan ezketiño, autortu bear dot, ereti guztietan noriki nagusitzat agertzena nire akatsik andienetakoa izan dala. Arrokeri orrek txikitarik menperatzen ninduan, eta egunen baten ondorio txarrak ekarriko leuskidazan. Gero, anditu-ala, akats ori baztertzen ikasi neban, baiña ez yatan erraza azaldu. Urteen joanean, oar-ikasteak apalago izaten erakutsi eustan, baiña umezurtztegiko aldietan arroputz itzela nintzan.

Egun aretan, nire adiskideek abo-zabalik aditzen eben nirautsena, eta arrezkero, nik uste, bat baiña geiago gerturik egoan egun oso bat ogi-urez zigor-gelan emoteko, Txotxo ezagutzearren. Olan jardun genduan luzaro samar, guztitariko itaunak egiten eustela. Autua moteltzen asten zanean, gaitik saiestuz, Txiritxu'k auxe esan eustan:

– Begiraik, Patxi, atzo i zigor-gelan intzanean, amaika eztabaida sortu zoazan gure artean, etxe onetako kandelak argizagizkoak ala egurrezkoak ete ditukan.

– Iñoiz piztuten ez diran ezkerro, egurrezkoak izan bearro lleukiek, baiña egiari zor yautsadan lotsaz, argizagizkoak ditukala esan bearrean nok, urratutako estalkian zear egiztatu aal izan naiuan-eta.

– Argizagizkoa izateko, “Zapatones”ek buruan artutako zauria itzela izan bear zoan. Ortik yabik buruko txaplasta ondiñokarren kendu barik.

– Neronek egiztatua dok ori, Txiritxu. Gaiñera –nire arrokeria menperatu eziñik, jarraitu neban–, kalabazan jo neutsakan kandelakadea, egurrezkoa izan ba'litzok, ez yoat uste bizirik urtengo zoanik.

– Egia dok, Patxi. Kontuz ibilli, baiña, “Zapatones” ortik ei'yabik esanez, merezitakoa laster artuko yokala.

– Babalasto ori... ! Berak asi yuan istillua, eta orain errua niri bota... !

Une aretan, ikasgelara sartzeko joale-deia aditu zan, eta oiko erreskadea eratuta sartzeko zorian gintzazala, andik ez urrun “Zapatones”ek ukabillaz zemaitu ninduan, eta nik ordaiñez, kandela bat azkoskorreko itzela emoten neutsalakoa egin neban. Gau aretan oeratzeko zorian, Txiritxu etorri yatan kontuz ibilteko esanez, “Zapatones”ek zin egin izan ebalako edozein atxakiz salatuko nindukela.

Laster izango ziran iru urte bigarren taldean niarduala, eta orduko, ez-arian ez-arian, nire adifeiko mutikoen ikaste-maillara eldu izan nintzan. Zenbakiztiaren lau arauak, amarki, eta zatidunak ondo menperatzen nebazan; utsegite barik idazten neban; izadiztia ta beste ikasgaiak, ludiztia batez be, polito ezagutzen nebazan, eta bat az beste, irakasleek aintzakotzat artzen ninduen. Niretzat pozgarriena, baiña, euskeraz ondo egiten nebalan zan. Txiritxu ta beste lagun batzuekin, aal nebanetan alkartzen nintzan, eta jaiegunetako arratsaldean egurastera urtetan gintzazanean, zer esanik ez, geuk beti euskeraz.

Bein baten, uriko jaiak izanik, lagun batzuekin niñoala, erriko egurastegiko erestxoritikian, gizon batzuk banan-banan abesten ziarduela ikusi genduan, eta jakin-gureak zirikatuta, urreratu gintzakienean, arrituta geratu nintzan. Batak bestearen ostean bertsoak botaten ebezan. Euskeraz ziarduen, eta alkarri gatz eta piperraz ondutako gauzak esaten eutsiezan, an egozan ikusle batzuen txalo ta barresantzoen artean. Axe izan zan gure bertsolariak lenengoz entzun neutsen ekitaldia, eta abo-zabalik, esaten ebezanak itz bat bera be galdu barik egon nintzan amaitu arte. Etxera biurtu nintzanean, ezin nengikeazan burutik kendu bertsolariak, eta areiri entzunikoa, doiñu ta neurriaz abopeka abesteari emon neutsan, jazoera barregarriak gaitzat artuta. Gau aretan oeratu nintzanean zin egin neutsan nire buruari, aaleginduko nintzakela bertsolaria izateko.

Olan ba, etxean jazoten ziran gauzak, naiz barregarriak naiz benetakoak gaitzat artuta, bertsolaritzari ekin neutsan aal nebanetan. Egunen bidean, antze zail au menperatzen asi nintzan, eta geien adoretzen ninduana, nire lagun txalo ta barreak ziran. Txiritxu neban eragillerik sutuena, eta etxeko edozein jazoerari buruz jakitun ipinten ninduan, bertsoan edestu nengian, eta gero euskaldunen taldekoek buruz ikasita, alkarri botaten geutsan. Zer esanik ez, bertsolarien ekitaldi guztietara niñoan, nire antzea obatzearren, baiña geien irakatsi ninduana, lagunekin bertso-saiotan jardutea zan. Aldiaren bidean, Txiritxu'k be bertso-jaurtizteari emon eutsan, eta gure biziko leiaketak izan oi genduzan.

Aldi aretan, antzerki-talde bat sortu zan gure kapellauaren ardurapean. Antzoki polita genduan orretarako, eta jaiegunetako arratsaldean, antzerki ikusgarriak eskintzen euskuzan gure etxeko taldeak, eta eguraldi txarra zanean batez be, gure antzokia mukurru bete egon oi zan. Bein baten, antzerkilari bat geisotu zan, eta gure zuzendariak aren lekua ordezteko, gogoko bat eskatu eban. Nire lagunek adoretu ninduen eretirako, eta augaitik, baita nire arrokeriagaitik be, jardun orretarako aurkeztu nintzan. Saio batzuk egin ondoren, zuzendariak onartu ninduan, eta ordutik oiko antzerkilaria billakatu nintzan.

Ikusleen aurrean ez neban iñoiz ezelako lotsarik oartu, eta esatekoak parra-parra jaurtiten nebazan, aurpegiko guztitariko keiñukaz lagunduta. Ikusleek barre itzelak egiten ebezan, eta ni agertokian azaldu baiño ez, barreka asten ziran. Izan be, keiñulari egozia izanez gaiñera, nerez plaza-mutilla nintzan, esatekoak astiro ta mintzo argiaz jaurtiten nebazala. Neurri baten, goi-mailla orretara irixteko, betsolaritzak lagundu eustan ezpaibarik, eta ager-tokian nengoanean ez-titan sentitzen nintzan, nik uste, benetako antzerkilariek oartzen ei'daben zauskada aintzagarripean.

Nire antzezlari-doaiaik gizarte aretan zerbaít goratzen baninduan, "Kokotxu" k be etxean gora egin izan eban, eta umezurtzegiko jagole nagusia billakatua zan. Orain etxe-ko arduradun garrantzitsuena izanik, bere kasa egozan etxerako erosketak, eta ordaintza guztiak. Eguneko zatirik andiena idaztegian emoten eban liburu lodien artean, bere egitekorik beiñena izanik, zelan edo alan etxeko eralguntzai aurre egitea. Agiri eban aurpegian eta ibilleran, baita jantzieran be, gizarte-maillan izandako gorakadea, etxeko guztiak begirune andia eutsoela. Asiera baten bazirudian guretzat onuragarria izango litzakigula aldakuntza ori, aren illeta-irudia gitxitan ikusten gendualako, eta bere ordezi ipiñitako begirari barriak ez euskun buruauste andirik emoten.

Luzaro barik, baiña, gauzak okertzen asi ziran, lenengo zantzua etxeko janariaren ontasun-beerakadea ta urritasuna izanik. Aspaldi aretan, bazirudian aberats gitxiago ilten zala, eta batatz beste ildakoen kopurua gitxi gora-beera betikoa izanik, jende aberats eta garrantzitsuak, abo batez, antza, erabagi izan eban eriotz-ordua geroratzea. Au zala-ta, gorpu-lorketak erdipurdikoak ziran geienak, eta onen ondorioz etxeko sarrerak gitxitu yakuzan neurri andi batez. "Kokotxu" gaixoa estu ta larri ebillen geure ortz-agin osasuntsuak erdoitu ez zeitezan, egun osoan jangaiak nondik merkeen erosten ziarduala. Aberatsak, baiña, eriotz-oporra aurrera eroateko irmotasunik andienaz ziarduen, eta batasunak benetako indarra ekarri ei'dauan ezkeru, aspaldi luze batez gaiña artu eben. Zenbait mintzo gaiztok iñoen, "Kokotxu" ri entzun izan yakola, izurriteren bat laster ez ba'letor, gure etxeak txulut egingo leukela.

Nik ez dakit zurrumurru areik egirik izango ete ala ez, "Zapatones" eri intxaurrean kaskarrekoa emon neutsanetik, kandelai bizi luzea ziurtatzearren, "Kokotxu" k galazo izan eustan iñongo gorpu-lorketara joaten, eta ezin nengikean, beraz, aberatsai buruz esaten zana egi ala guzurra ete zan egiztatu. Txiritxu'k-eta, baiña, orreri buruz guztitariko argibideak emostezan, eta onein arauz, jarraigoak zaldi argal batatz egiten ziran, eta lengo lebitadunen argizagi bikaiñak eta kopalet dizdiratsuak opor betean gordeta egozan, etorki onuratsugoren begira. Abadeak be aren baten ebiltzen, bat baiño ez zala azaltzen, eta "pater Noster" bat bakarrik, abopeka ta arin baten esaten zala. Izan be, etxeko arduradun nagusiak eta onen menpekoek iñoenez, egoerea estu ta larria zan.

Geurok be jasaten genduan aberatsen oporraren ondorioa, janariaren arazoa aren batzen ebillelako. Goizeko kafe-esne-txikoria, esne-txikoria biurtu izan zan, koipe gitxi ta ur asko erakusten ebazala, eta onekin emoten euskuen ogitxua, araiñegunekoa izanez gaiñera, txikertua zan, salokeriaren griñak eraso ez egigun, antza. Bazkaria be onen baten etorren, eta eguberdián, goizeko erdi-barauak eraginda, txilistai oldartzen gintzakienean, ga-

ragar-aleekin lagunduta etozala egiaztatzen genduan. Azken oneik kutsu bereizia emotsoen lapikokoari, baiña txarrena janariaren urritasuna zan. Onen ostean, sukalki urtsu ta okel-piltzarrez egosia. Gabeán, zopa-salda urtsua berakatzaren usaiñez, eta geroko arrautzpilla, mee, gitxi ta gogorra.

Gose itzela jasan genduan aspaldi aretan. "Kokotxu" osterá, iñoizkorik ondoen bizi izaten zala, iñoen miin gaiztoek. Bein baten, bideko ezbear baten, txilisten kamioia irauli zan, eta zorroak urratuta, aleak bide-gaiñetik sakabanatu ziran, bideko legarrekin bat egiñez. Dalako kamioikadea "Kokotxu" k oso merke erosi ei'eban, eta legarrak eta guzti, gure etxeko abegirik maitekorrena artu eban. Onen ondorioak ikaragarriak izan ziran, gure ortz-agiñek mamurketea egitean zatitzen zirala. Bildur andia artu geutsan eguberdiako lapikokoari, eta aboan xeetu barik irusten ikasi genduan.

Aldi aretan gure "Kokotxu" argiak, izotz andi batek laskituriko lursagarrak ezerekeri baten erosi ebazan etxerako, eta gau guztietan gure urdaillerako ziran. Gogor izanez gaiñera, usain bereizia erien, baiña aspaldi aretan iruntsi ez gengikean gairik ez egoanez, jan egiten genduzan. Amaika berako sortu zan gure artean, baiña "Kokotxu" izukaitza ez zan kikildu, eta laskitutako erosketea amaitu zanean, beste ondatuago bat ekarri euskun. Izan be, il ala garaitu baiño beste biderik ez egoan, eta geuk bizirik jarraitu genduan, patuaren eraso larriari eusten geutsala.

Egoera oneri buruz, amaika txutxumutxu ta esames sortu zan gure artean, eta esan dagiket aspaldi aretako autu-gairik erabilliena izan zala. Bein baten, nire zaletasunari jarri eziñik, jasaten genduan gosete larriari buruz, bertso batzuk biribildu, eta Txiritxu ta euskaldun adiskideen artean jaurti nebazan. Arrakasta itzela lortu eben, eta nire lagunak adoretuta, (baita nire arrokeriak eraginda be) bein eta barriro bota bear izan nebazan, nire lagunak barre-santzoka arkuak austen ebazala.

Aspaldi aretan, gure taldeak "Sorgiñetxe" irri-antzerkia gertatzen ziarduan, eta niri, betiko arloteari, "Timoteo" ren eginkizuna etorri yatan. Izan be, neu lako aurpegi andi bateri ondoen egokion arloa zan. Ez dakit zelan, baiña ezustean burura etorri yatan, antzerkialdia amaitzean, ager-toki bertatik nire bertsotxuak entzuleai jaurtitea. Astirik galtzeke Txiritxu ta lagunak jakitun ipiñi nebazan, eta guztion adoreaz ontzat artu zan, baldintza batatz ordea, asmoa aalik ezkutuen gordetea, zaindarien eta "Kokotxu" k berak batez be, orren barririk ezagutu ez egien. Oneri buruz berba emonda, bertsoai azken apainketea emon neutsen, eta "Sorgiñetxe" antzerkiaren aurregunean, nire esatekoak gerturik egozan. Zaila da, izan be, ainbesteen artean ezkutu bat isilpean gordetea, eta areago mutikoen artean...

Erabagi izan neban, "Sorgiñetxe" antzerkia amaitu baiño ez, eta oiala beeratu aurretik ikusleen txaloak artuta gero, mezu garrantzitsuá esateko nebala iragarriko neuskiela, eta jarraian nire bertsoak jaurtikiko neuskiez. Danek ulertu egien, aapaldi bakotxaren ostean euskeraz esanikoa erderara biurtuko neuke, gure artean zoritxarrez, geienak erdaldu-nak ziran-eta.

Eldu zan eguna, eta zorionez arratsalde euritsua izanik, antzokia bete-bete egoan. "Sorgiñetxe" antzerki polita, oiko arrakasta andiaz ospatu zan, eta "Timoteo" ren eginki-

zuna aalik ondoen egiteko saiatzen nintzala, antzerkia txalokada itzelaren artean amaitu zan. Ikusleek eskatuta, agertokira azaldu bear izan neban, eta irugarrenez txalo-zartadea zeezer baretu zanean,

– Lagun maiteok –asi nintzan–, Parnaso'tik dei aginkorra artu neban bart, eta dei orreri jarki ezin naitekion ezkerero, orra doatsue nire erantzuna.

Aretoan isiltasun osoa edatu zan, eta orduan urruma batzuk egin ondoren, mintzo argiaz onetaraxe asi nintzan:

1. Aberatsak ez ei' dira ilten
aspalditxu negargarri onetan,
benetako ziña egin ondoren
olan jarraitzeko egun askotan.
Ez deritxat oso txarto orreri
kaltea geuk ez ordaintzekotan,
areik beste eskubide baidogu
bizirik irauteko munduan.
2. Il-orduan emoten ebena
zergaitik ez, bizi diranean?
Iraun dagigun ba adiskidetsu
Jaungoikoaren maitasunean.
Ezautuko ba'lebe anaiok
zein larri bizi izaten garean,
lagunduko leuskigue pozik
gure nekaldi gorri luzean.
3. Gosari-katillua agertzean
kafearen ordez txikoria,
eta uts-egite au ordaintzeko
ogi gogor eta esne garbia.
Eguerdirate sabelak gur-gur
noiz izango dogun bazkaria,
baiña mai-aurrean jesarrita
pikotara gure ameskeria.
4. Gose gorria baretzearren
txilista apalekin garagarra,
eta koipeari laguntzeko
bideak emoniko legarra.
Naste-borraste au mamurtzean
joaten yaku eguneko indarra,
ta gaiñera galdu dagikegu
agin kokolo ta baldarra.
5. Barau osasuntsu onen ostean
aparian dogu itxaropena,
baiña gabeko patata ustelak
ondatzen dauskue txastamena.
Jan-bear gorriak eraginda
ostera oldartzen gara areikana,
baiña azkenengoz txulut eginda
oan dogu atsedetik merkeena.
6. Ez yatzue eskatzen, aberatsok,
il zaitzela, lagun maitiak,
bizirik zagozenean baiño,
askatzeko zisku-lokarriak.
Olan jokatzekotan, aiskideok,
zuentzat gure otoitz egitiak,
Jainkoak emon dagizuezan
bizikera ona ta urte ugariak.

Ara...

Azken aapaldiak sortu ebazan didar eta txaloak oraindiño aditzen zirala, ezustean atzapar batek idonetik artu ninduan, eta tximistaren antzera biurtu nintzanean, begiai txinpartak eriezala “Kokotxu” ikusi neban, eta itzetik ortzera belarrondoko eder zaratatsa bi emon eustazan. Gero, nire beso bateri oratuta, agertokiko atzekaldera eroan ninduan, eta erdiz narrazka, bere idaztegiara eroanda atea danbada gortugarriaz itxita,

– Banekian –oiu egin eustan– gaurko antzerkiaren ostean asmatzen zenduana lagun zintzo bateri esker, baiña edozertarako gaitzat bazaukat be, ezin siñistu orren zital jokatu-ko zendukela. Ekintza larri-larria izanez gaiñera, etxe onetako guztien aurrean esan dozuzan doillorkeriak barka-eziñak dira, eta augaitik, aalik lasterren Batzordea jakitun ipiñiko dot, dagokion erabakia artu dagian.

Ona elduta isildu zan une batez, eta gero betosko asarreko ta erostariatz,

– Biar goizean idaztegi onetara etorriko zara –jarraitu eban–, eta orduan zure epaia ospatu arte dagokizun zigorra emongo dautsut, eta izan be, oroigarri ederra izango yatzu betirako. Ez, etxe onetan ez dago lekurik biontzako... Orain zoaz lo-gelara apaldu barik, eta biar arte.

Joan nintzan lo-gelara, gau aretako lursagar ustel, jan-eziñak txastau barik, baiña zorionez, jasaten neban gosea aztuteko, loak artu ninduan, eta iratzarpen-deia aditu arte gau guztia lo-zorroan iraun neban. Gosaria izanda gero, “Kokotxu”ren idaztegiara joan nintzan, eta an zutunik iraun-erazo ninduan gure arduradun nagusiak, idazten ebana amaitu arte. Orduan “Kokotxu”k begiztatu ninduan bere illeta-itxuraz, eta,

– Auxe da –esan eustan–, Batzordeari egin dautsadan zure buruzko salaketea, ezer aztu barik. Batzordea gaur iru egunetara emen alkartuko dan ezkerero, dagokizun epaia artu arte, ogi ta urez zigor-gelan emongo dozuz egunak, egiñikoa ausnartu dagizun, jakiña, pentsateko gai ba'zara. Izan be, nire buruari itauntzen dausat, etxeko kapelapean dozun buru orretan, adimen-izpitxu bat ete dozun ala ez.

Gero, nire beso bateri eutsirik, ibillera azkarraz zigor-gelara eroanda, bultzada asarrekoiaz barrura jaurti ninduan, eta danbada zaratatsuz atea itxita, joan zan. Izan be, nire etorkiari buruz kezkatuta nengoan, baiña era berean aurreguneko nire bertsoek lortu izan eben arrakastea gogoraturik, betiko arrokeriak menperatu ninduan, jasaten neban egoera larria aztu-erazoteraiño. Mai-ondoan jesarrita nengoala, atea edegi zan, eta ogi bat eta pitxar bete ur ekarrezala, morroi bat sartu zan. Urari dangada luzea emon neutsan, eta onek nire adimena argituko bai'leuskidan, ezustez, Txotxo sagu begikoa gomutara etorri yatan. Morroia joan zanean, aulkitik jagi, eta sagu-zuloaren ondoan mamin-zati bat lagata, jesarri nintzan gertaeren begira. Olan nengoala, baiña, ateko morroilloa eragin zan, eta ate-zubipean, morroi batek lagunduta Sor Ane ikusi neban. Oldartu nintzakion, eta berak oi eban maitasunaz besarkatzen ninduala, auxe esan eustan:

– Baiña Patxi, arlote ori, zelako barrabasada otu yatzun atzo...?

Aspaldi zan Sor Ane ez nebala ikusten, beste mailla baten jarduten ebalako, baiña orain nire ondoan ikustean, zorion bakana nitzaz jabetu zan. Burua laztandu eustan antxiña baten oi eban lez, eta gero,

– Zatoz, Patxi –esan eustan–, nire idaztegiara.

Joan gintzazan ba, berak eta beste lekaime batek erabilten eben idazgelara, eta biok jesarrita, auxe esan eustan:

– Ai, Patxi, Patxi, arlote orrek, zeuk burua lengo lepotik...! Zure nabarkeriak biurrikeri itzela egitera eroan zaitu, eta orain, egindakoa ordaindu bear izango dozu. Gaur iru egun barru, etxe onetako batzordeak batzarra izango dau, eta bidebatez zure okerkeria

epaitu bear izango dau; ain zuzen be, ez dot uste onik urtengo zareanik. On Jaime'k, etxeke arduradun nagusiak, iru egunez zigor-gelan nai zinduzala jakin dodanean, aregana joanda, ori ankerkeri itzela zala esan dautsat, eta ez nengoala gerturik gure mutiko batek olako zigorra jasan egian. Luzaro samar eztabaidatuta gero, auxe erabagi da: iru egunok nire idaztegitik lo egiteko baiño ez zarala urtengo, Batzordeak zure arazoa erabagi arte. Zaila gertatu yat au lortzea, baiña azkenean jaritsi dot. Badirudi, bere barrua guztiz nasai ez dauala On Jaime'k, eta oneri esker, antza, lortu dot zigor-gela barik, emen emon dagizuzala iru egunok.

– Eskerrik asko, Sor Ane –esan neutsan eskerronez–, ez dot egundo aztuko zeuk nire alde egiña.

– Begira, Patxi: guztiz arazopetuta nago oiko zeregiñakaz, eta aspertu ez zaitez, idazti bat ekarriko dautsut liburutegitik.

Andik laster, idazti bat ekarrela biurtu zan eta eskuratu eustan. Jules Verne'rena zan, eta onen izenpurua “Itxaspeko ogei milla lekoko bidegitea”. Irakurketa zoragarria azaldu yatan, eta ordurarte iñoiz ez izaniko atsegiñez, ez-ezaguturiko mundu baten murgildu nintzan, aldiaren neurria guztiz galduta. Eguberdian, jarduna eten egin eustan Sor Ane'k bazkaria ekarkidala. Izan be, gure maillan izaten genduana baiño askozaz ohea azaldu zan. Amaitu baiño ez, irakurketeari jarraitu neutsan buru-belarri, eta oartu nintzaneko apalordua zan. Onen ostean, lo-gelara joan nintzan, burua ameskeri zoragarriakaz beterik. Urrengo egunean, itxartu baiño ez Sor Ane'ren idaztegitara arin baten joan, eta Verne'ren liburuari ekin neutsan ostera. Iru egun zoragarri, aztu-eziñak igaro nebazan, beste mundu baten zear asmamenaren egoetan niñoala. Konturatu nintzaneko, irugarren zigoreguna igarorik, oera joan baiño len, ozta-ozta irakurri izan neban elebarria. Biaramonean nire epaia egingo leuke Batzordeak, baiña niri bost ardura; ez neban buruan besterik iru egun areitan bizi izandako gora-beera zoragarri areik baiño.

Urrengo egunean lekaimen idaztegitian aspertuta nengoala, Sor Ane sartu zan eguberdian, eta eskuari oratzen eustala,

– Goazen, Patxi –esan eustan–, Batzordeko iru Jaunak aretoan dagoz, On Jaime'ren zure aurkako salaketea entzunez. Orain txandea etorri yatzu, eta giristiño zintzo bateri dagokionez jokatuko dozula uste dot, au da, egia erabilliz, entzun...?

– Bai, Sor Ane.

– Eta oroz gain apala azaldu zaitez, zigor larria artu nai ez ba' dozu.

Baietz adierazo neutsan buruaz, eta igarobide luze zabal argi baten zear, ondo landutako areitezko ate eder baten aurrera eldu gintzazan. Sor Ane'k kox-kox egiñik, sartzeko agindua artu genduan. Areto argi eder eta apañean Jaun batzuk egozan, eta Sor Ane urten zanean, maipuruan egoan Jaun andi lodi batek, niri aulki bat atzamarraz erakutsirik, mintzo aginkorraz, auxe esan eustan:

– Jesarri zaitez or...!

Olan egin neban, eta Jaun areik isillik egozala, neuk aretoko ta iru epaikarien gorabeerak aztertu nebazan. Irutarik erdian jesarrita egoana, Batzordeko Lendakaria, urrean, burusoil eta aurpegi biribilekoa zan, nigandik begiak kendu barik itxura zorrotzaz begiz-

tatzen ninduala. Onen ezkerrean egoana, itxuraz gizon txiki ta ezaiña, etenbarik erabillen zapiñoa suurrean beera etorkion jarioa txukatzearen. Izan be, gizaki geldo ta arrunta emoten eban, eta gero ikusiko nebenez, alkarrizketa osoan ez eban tutik be esan. Bestaldean egoana, baiña, ikusgarria begitandu yatan. Luze ta argala zan berau buru zuri-zurikoa zan, eta ni oartu barik, asieratik berakatzaren burua gogora ekarri eustan. Aurpegi argal begikoan, abo irribarretsu baten gaiñean, begi oztin argiak agiri ebazan, eta lenengo unetik oso begikoa azaldu yatan.

Alako baten, eta maikoen azterketea amaitu-agiñean nebala, maiaren alboan egoan baten batek ez tul egiñik, oarpen iguingarria nitzaz jabetu zan “Kokotxu”ren irudi izterbegia ikustean. Begikada anker, zorrotza nigana zuzenduta, beragandik ez neukela erruki andirik izango iragarten eustan. Oldozkun oneitan nengoala, maipuruaren mintzoa aditu neban auxe iñoala:

– Entzun dogu On Jaime'ren, etxe onetako arduradun nagusiaren autorpen edo salakuntzea, eta Jaun orren zuzentasunari buruz, iñongo zalantza ez izanik be, oikoa danez, salatuaren azalpena entzungo dogu, epaiketea aalik zuzenena azaldu daiten.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Esan egiskuzuz zure izen-abizenak.

– Patxi Beresibar eta Urizar, Jauna.

– Noiztik zagoz emen...?

– Urte bitarik-edo, uste dot.

– Zein adiñekoa zara orain...?

– Amar urtekoa, Jauna.

– Orain, mutiko, itaun batzuk egingo dautsudaz, eta zeugandik egia baiño ez dogu besterik entzun gura. Ara... egia al-da, lengo Igande arratsaldean, etxe onetako antzokian “Sorgiñetxe” dalako antzerkia emonda gero, zeuk zeure kabuz atonduriko bertso lotsabako batzuk, ikusle guztien aurrean jaurti zenduzala...?

Une batez oldozkor geratu nintzan, eta gero,

– Bai, Jauna –erantzun neutsan–, baiña nire ustez ez ziran lotsabakoak.

– Zelakoak ziran ba...?

– Nik uste, umorekoak, bertsolariak bota oi dabezenetariakoak.

Tximistak jota lez, “Kokotxu” jagi zan eta karraxi baten,

– Barkatu Jaun Lendakaria –didar egin eban garratz–, baiña nik neuk iñoiz ez entzunikorik lotsabageenak izan ziran, etxe onen izen ona laidotuz eta lorrinduz. Eta are zitagoak dira, kontuan arturik batez be, etxe onen ogi ta ezkuntza arduratsua artzen dauan bategandik etorri dirala.

– Orren lotsabakoak ete diran –itaundu eutsan Lendakariak–, mutiko onek bota ebanak...?

– Jauna, norberaren duintasuna gorde nai dauanak, ezin dagikez entzun.

Une batez isillik iraunda gero, Berakatzak Lendakariari irribarretsu auxe esan eustan:

– Mutiko orren pekatua zelakoa dan jakiteko, zergaitik ez daukuz dalako bertsook birresaten...? Orduan ezagutuko dogu obenaren garrantzia.

“Kokotxu”k aboa edegi eban zeozer esateko-edo, baiña isillik iraun eban. Orduan Lendakariak niri mintzatuz,

– Aizu, Patxi –agindu eustan– esan egiskuzuz dalako bertsook, lenengo euskeraz eta gero erderaz, ezer ez kenduz, ez geituz.

Urruma batzuk egin ondoren mintzoa argitzeko, buruz nekiazan bertsoak botaten asi nintzan, asieran zerbait erabeti, baiña aurrera niñoala, Berakatzak nigan josita eban begikada irribarretsua adoretuta, irmo ta ozenago. Amaitu nebanean, barrez itoteko zorian Berakatzak aurpegia eskuakaz estaltzen eban. Besteek orde, duintasunez gaiñezka begizatzen ninduen isillik, arrigarri baten aurrean bai’legozan. Orduan, “Kokotxu”ren mintzo asarrekoa aditu zan sumiñez irakiten auxe iñoala:

– Orra or eskerbako zital batek, janaria ta ezkuntza emoten dautsazan eskuari, zelan usigi egiten dautsan...!

Eta aurpegia gorri-gorri eginda, nigan untzatu ebazan begikada asarrekoia, suge baten aurrean bai’litzan. Une aretan, Berakatzaren abots begiko ta nasaia aditu zan, umore-kutsuz auxe itauntzen eutsala:

– On Jaime, egia al-da aspaldi onetan aberats gitxi ilten dala...?

– Bai, Jauna, egia da.

– Zergaitik ori...?

– Nik al dakit...! Baiña ondo bai ondo dakizuenez, Jaunok, gure sarrera-iturria dan il-jarraigo garrantzitsuak, aspaldi onetan asko urritu dirala, eta augaitik gorriak jasaten dodaz etxe au abidan iraun-erazoteko. Izan be, egunez arrenkurak jota bizi izaten naitzue, eta gau osoa beilan emoten dot, urrengo egunean etxe onetako umezurtzak zelan janarituko dodazan. Izan be, nire egoera estu ta larria da, Jaunok...!

– Ez niri esan, gero –Berakatzak esan eustan–, etxea abidan iraun-erazoteko, txilistai legarrak bota bear yakiezala.

– Gauza ezaguna da –erantzun eustan “Kokotxu”k irugarren maillako il-jarraigoaren itxura erostariaz– sarri askotan txilistak legarrakaz naastuta datozela, eurok bereizten eziña dalako, baiña ondiñokarren, orreri buruz ez dot iñongo osterarik artu.

Orduan Berakatzak niri zuzenduz,

– Aizu, mutiko –esan eustan–, zure bertsoan lapikokoan legar asko agertzen dirala diñozu, baiña olan ba’litz, zuetariko askok ortz edo agiñen bat galduko zenduen. Egiztatu dagikeguzu, baiezpen ori...?

Orduko, antza, Berakatzak oartua zan aurreko ortz bat peitzen yatala. Izan be, kilokolo ebilkidan aurreko ortz andi bat, legarren erruz galdu izan neban egun batzuk lenago. Bereala oartu nintzan, itauna niri laguntzearen egiten eustala. Astirik galtzeke, maikoa-kana joan, eta aboa zabaldua dalako ortzaren utsune andia erakutsi neutsen. Irurok zulo baltzari begiratu eutsoen, arrigarri siñisteziñaren aurrean bai’legozan.

“Kokotxu”k, baiña, kezkatuta zirudian, eta mintzo ozpintsuz auxe jaurti eban:

– Patxi, nik iñoiz ez ezaguturiko arloterik andiena da, eta baietz ortz ori burrukan egiten galdu dauala egingo neuke. Baiña zelakoa dan jakin dagizuen, Jaunok, kandlearen arazoa baiño besterik ez dot aipatu bear. Izan be, gure etxerako laido lotsagarria benetan.

Orduan maipuruak, auxe irautsi eustan:

– Dirudianez, orrek salatuarekin zer-ikus andia dau, eta aberasgarria izango da, beraz, mutiko orren nortasuna obeto ezagutzeko. Jarraitu ba, On Jaime.

– Ara ba... Orain asko ez dala, burutik egindako gazte batek gorpu-lorketa baten ostean, etxeko mutikoai karamelu batzuk arrapatu egiezan bota eutsezan. Izugarria izan zan, Jaunak. Une aretan gure mutikoek giza-begirunea aztuta, oldartu yakiezan alkarri erasoka ta didar bizitan, Afrika’ko talde basatien antzera. Ain zuzen be, gure etxeko aipuanak ez dau iñoiz a lako ezbearrik ezagutu, eta ez dot uste a lako ikuskizun negargarririk barriro jazo daitenik. Baiña txarrena etorri zan, or aurrean dozuen mutiko arlote orrek “Zapatones”eri kandelakada itzela burura jaurti eustanean... Izugarria izan zan, Jaunak...!

Ona ezker, isildu zan une batez “Kokotxu”, ekintza siñistezin aren gomuta negargarriak itz egitea eragotzi bai’leustan. Adar jotzaille porrokatua zirudian Berakatzak, isilluneari eten egin eustan, auxe itaundu eustanean:

– Izugarria izan zala, diñozu, On Jaime. Dalako “Zapatones” il ete zan-edo...?

– Ez, Jauna, baiña itzela izan zan. Gure etxeko edestian lenengoz gertatu da, urteetan zear bere betebearra egin dauan kandela bat autsi ekigun, eta ez bakarrik kandlea, baita zirazko estalkia be...

– Negargarria izanik be, laga dagigun ori alde batera, On Jaime, –eten egin eustan maipuruak–. Zer billakatu zan dalako “Zapatones” koskorrekoa artu ebanean...?

– Sortu yakon txuntxurak iru egunez txaplasta baten pean estalduta iraun bear izan eban, eta sukarpean gaiñera.

Orduan maipurua nigana biurtu zan, eta auxe itaundu eustan:

– Zelan daiteke jazo, uri onetako kale agiri baten, olako jarraibide zantarra erakutsi zengien, eta gaiñera, zeuk lagun on bateri olako koskorrekoa emon...? Ez al-zara oartzen zeuk egiñikoa, etxe onen aipu onaren aurka doala, eta ortik esamesak bala-bala ibilliko dirala, etxe onetan emoten dan ezkuntzari buruz...?

Une aretan Berakatzak autuan tartetu zan, auxe iñoala:

– Izan be, mutiko onen edeskia onuragarria izango litzakigu, benetako eritxia eratzeko. Aizu, mutiko, –jarraitu eban niri mintzatuz–, zer jazo zan, dalako “Zapatones”eri kandelakada izugarri ori emoteko...?

– Ara... –erantzun neustan– Nik lurrean ikusi neban karamelu bateri oratu neustan, baiña jaso aurretik, “Zapatones”ek eskua ankapetu eustan. Jagi nintzanean, miñaren-miñez itsu eginda, esku biakaz aal neban indartsuen kandelakadea jaurti neustan.

– Eta gero zer jazo zan...?

– “Zapatones” oiuka bizitan egoala, karamelua jan egin neban.

– Zure bizitzan karamelu asko ikusi dozu...?

– Ikusi bai, gozotegietako leiarrez bestaldean, baiña aboratu, oso gitxitan, beti txin barik nago-ta.

– Zelako zigorra artu zenduan orren ostean...?

– Egun oso bat zigor-gelan itxita ogi ta urez.

Berakatzaren aurpegian zear errukizko keiñua edatu zan, eta besterik esan aurretik, maipuruaren mintzoa aditu zan onetaraxe:

– Jaunok, onezkero naikoa entzun dogu, dagokigun erabagia artzeko. Eta gero nigan zuzendurik,

– Urten zaitez. Gero jakiñerazoko dautsugu erabakia.

Urten nintzanean, Sor Ane'rekin gurutzatu nintzan. Irribarre egin eustan, eta beste barik aretora sartu zan, bere atzetik atea ixten zala. Lekaimeen idaztegiara biurtu nintzan, eta oiko maitxu-aurrean jesarrita, Jules Verne'ren “Ezkutuzko Izaroa” irakurten asi nintzan. Andik ordubete batera-edo, Sor Ane etorri zan, eta,

– Zure alde aalegindu naz, Patxi –esan eustan–, epai-maikoai esanez, arlote andia ta guzti, mutil on-ona zarala, eta etxe onetan jarraitzen laga dagizuela, baiña dana alperrik. Zure bertsoak agiri-agirian jaurtiak izanik, On Jaime'ren aipu ona ezereztu egin dabe, eta zelanbait kalte ori ordaintzeko, beste biderik ez dagoala zu kanpora igortea baiño. Maiko batek, baiña, epaia amaitu danean, aspaldi onetako janariari buruz azterketa bat egingo dauala, esan daust, eta onen ondorioz gero ikusiko...

– Berakatzaren itxura ebana izango zan, urtean.

– Bai, Patxi, berbera izan da.

Isillune labur baten ostean,

– Eta nora joango naz...? –itaundu neutsan–.

Sor Ane'ren begietan itxura errukitsua agertu zan, onetaraxe mintzatu yatanean:

– Ez dakit, Patxi, nire arlote ori, baiña gogoan izango zaitut beti.

Egun batzuk iraun neban egoera aretan, baiña arratsalde baten, “Ezkutuzko Izaroa” elebarria amaitzeko zorian nebanean, Sor Ane'k auxe esan eustan:

– Begira, Patxi, biar arratsaldean, On Pio deritxan gizon bat zure billa etorriko da, eta berarekin bizi izatera eroango zaitu.

– Zelakoa da gizon ori...?

– Ez dakit, baiña ez dot uste gaiztoa izan daitenik. Umezurtz zaran aldetik, etxe onetatik urtetean udalari dagokio zure alde begiratzea. Batzorde bereizi bat dago udalean olako egoerak zaintzeko, eta dirudianeaz, umerik bage dan dalako On Pio, udalak emongo dautsan ille-sari bategaitik etxean artuko zaitu, eta zure ezkuntzari begiratuko be. Berari buruz ez dakit besterik auxe baiño: ezkondua dala, eta itsas-araindiko jangaiak saltzen diran “La Canela” izeneko denda garrantzitsuan, kondalari edo arduraduntzat diarduala. Udaleko batzorde orrek aren zaintzapean jarten ba'zaitu, gizon zintzo ta zuzena izango dalakoan nago...

Isildu zan Sor Ane une batez, eta gero begietara so egiten eustala, mintzo urdurisuz auxe esan eustan:

– Etxe onetatik urten baiño len, gauza bat agindu dagistazula gura dot, eta auxe alegia: zure arrokeria alde batera laga dagizula bein betiko, Patxi, bestelan buruauste ta ezbear andiak ekarriko dautsuz orrek. Mutil zintzotzat zaukat, eta apalagoa ba'zintzaz, etorki ona izango zenduke mundu onetan, baita bestean be, Patxi. Ona eldu nazan ezkerero, gauza bat agindu dagistazula nai izango neuke... Egunoro oeratzean iru Agur Maria esan dagizuzala.

– Bai, egunoro esango dodaz, baita beste bat zuretzat be, Sor Ane, maite zaitut-eta.

Ezin nengikean menperatu jabetzen ninduan zarrastadea, eta malko lodi bi aurpegi-ean beera jausi yatazan. Oneik ikustean, Sor Ane'k txukatu eustazan, eta gero,

– Berandutxu da, Patxi –esan eustan abots dardartsuaz–, eta joan zaitez oera. Biar goizeko atsedenean aske izango zara zure lagunai agur esateko. Arratsaldean On Pio zure billa etorriko da, eta etxe au betirako lagako dozu. Agur, Patxi.

Zurubian gora lo-gelara niñoala, malkoak mara-mara eridazan. Etxe aretan ez nintzan zoriontsua izan, baiña txoko bakotxak amaika gomuta ekarkidazan. Zer billakatuko nintzan ezagutzen ez neban lekoreko munduan...?

Illuntzea zan iker-gelara deitua izan nintzanean. Gizon argal eta garaia nire begira egoan, eta une batez begiztatu ninduan arrigarri baten aurrean bai'litzan. "Kokotxu"k emondako argibideak, antza, oso txarrak izan ziran, eta onein ondorioz usigi egiteko gai izango ete nintzan, bere buruari itaunduko eutsan. Aurrean neban gizona, oillategiko aga baizen luzea zan, eta burura ekarri eustan urrutizkiñen ariak eusteko erabilten dan zutoin bat. Buru-soilla izanik, buruan txapel andia erabilten, eta onen gerizpean, begi arre txikiek itxura zorrotzaz aztertzen ninduen. Onein azpian suur luze argala bibote bateraiño edatzen yakon. Ezpan mee margobakoak okotz zorrotzaren gaiñean kokatzen ziran. Janzki illuna erabilten, garbia berau, eta zurdaki edo zepilloaren igurketa ugariak erakutsazana, baiña garbia, eta arkondara zuria paparreko urdiñaz apainduta. Praketako marrak ondo burdin-lisatuak ikusten yakozan, oiñetako baltzen dizdirak nabarmenduz.

Noizbait, eta nire itxuraz nasaituta, auxe esan eustan:

– Orduan, zu zaitut Patxi Arlote, ezta...?

– Bai, Jauna.

– Zuri buruz jakiñaren gaiñean ipiñi nau On Jaime'k, etxe onetako arduradun nagusiak. Badakit, beraz, zelako jasekoa zarean baiña jakin bear dozu, nire esanetara makurtzen ez ba'zara, saietsak ondo neurtuko dautsudazala. Entzun...?

– Bai, Jauna.

– Jakin bear dozu baita be, udaletxean dodan ezagun baten bidez, Umezurtztegiko mutiko ezigaitz bat kalera igorten ebela jakiñik, erruki biziak jota, zu nire etxean artzea erabagi dot, orixe giristiño zintzo baten eginbearra da-ta. Augaitik ba, emen nozu gaur zu nire pentzuan jagoteko, eta bearrezko eziketa ona artu dagizun, bizitzearen gogortasunari aurre egiteko gai izan zaitez. Uste dot, beraz, dagokizun eskerronaz ordainduko dautsazula, seme on batek aitari zor dautsan begirunea erakutsirik.

– Bai, Jauna.

– Onaiño ezkerro, ez bedi besterik esan. Joan gaitezen ba etxera.

Iker-gelatik urtenda, baratzean zear burdiñezko atetzarra atzean itzita, kalera urten gintzazan. Abiatu aurretik atzera begiratu neban ordurarte izandako nire etxea azkenengoz ikusteko. Ona elduta esan bear izango neuke, naigabeak eraginda malko lodiak eridazala, baiña egiari zor yakon begiruneaz, esan bear dot ordurarte nire etxea izandako umezurtztegia azkenengoz begiztatzean, ez nebala ezetarik atsekaberik oartu. Etxe are-

tan ez nintzan zorionsu izan, eta Sor Ane'ren oroitzak lagundu ez ba'leust, andik pozik urtetan nintzala esan bearke.

Umezurtztegia uriko ertzetan eraikia zan, eta ibilli-ala, erdigunera urreratzen gintzazan. Ibilli genbiltzala, Jaun arek berba arranditsuakaz genkusan guztiaren barri emostan, inguruko ibiltariak, antza, zelako jasekoa zan bera ikusi egien. Ibai-gaiñeko zubian zear giñoazala, kairatuta ikusten ziran itsasontziak atzamarrak erakutsirik, gelditu zan une batez, eta,

– Begira, Patxi –esan eustan maisu-mintzoaz–, or ikusten diran ontziok, Ameriketara-ta joan-etorriak egiten dabez emeko gaiak eroateko ta angoak ekarteko. Arremon onek gure uriari garrantzi andia emon dautso, eta bidebatez aberastu. Neuk ardurulari nagusitzat diardudan “La Canela” izeneko denda ospetsuan, ludi guztitik ekarritako koloni-gaiak esaten yakezan janari ta ongailluak saltzen doguz. Onein artean, piper baltza, unteza, moskat-intxaurra, eta kanela batez be izanik.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Bai, Patxi –jarraitu eban–, gure koloni-gairik kutunena, kanela billakatu da. Bein baten, mariñel mozkorti batek, munduko kanelarik fiñena non sortzen zan esan eustan, eta arrezkero gure etxean saltzen da. Bereiztasun onek arrakasta siñisteziña ekarri dausku, eta uri onetako kanela guztia gurean saltzen da. Dendaren lengo izena “Arratiarra” zan, nagusia zeanuritarra zalako, baiña nire aolkuz eraginda, aldatu eban, eta ordutik “La Canela” izenez ezagutzen da. Nire uste apalez, burutapen orrek onura andia ekarri dautso. Bai, Patxi, bai, zentzunez jokutzen danean, arrakastea eskura berez dator.

Nik ez neutsan ezer esan, baiña askozaz politagoa iruditu yatan “Arratiarra” deitura “La Canela” baiño. Egurastuari jarraitu geutsan, eta andik laster uriko alderdi zaarrera elduta, onen kale estu ta naasietan zear barruratu gintzazan. Uriko zati au ez yatan ezezaguna, bein baiño sarriagotan ikusi izan nebalako, gorpu-jarraigoren batera bialdutako, bigarren eta irugarren maillakoak geienetan, aberatsak alderdi barrian bizi izaten ziran-eta. Ibilli genbiltzala, kale batera sartzean, On Pio'k auxe esan eustan:

– Auxe da bizi izaten nazan kalea, Erdikale deritxana, eta gaurdanik emen izango dozu egoitza. Aitu ondo non dagoan, baita gure etxeko zenbakia be galdu ez zaitez. 24'garrena da, eta egunen baten deslaituko ba'zintzaz, kaleko izena ta zenbakia jakiñik, ez dozu galtzerik izango.

Au esatean, etxeko atadira sartu, eta zurubian gora bigarren sorura elduta, On Pio'k giltza bataz ezkerreko atea edegi, eta sartu gintzazan.

– Asentzi, Asentzi...! –oiu egin eban–. Ona emen umezurtzegiko mutikoa.

Dei oneri eranzunik, emakume lodikotea azaldu zan, eta ni ikustean, une batez begiztatu ninduan isilllean, eta gero leio baten ondora ni eroanda obeto ikusteko, une luze samar iraun eban.

– Zer deritxazu mutillari, Asentzi...?

– Ez dakit ba, Pio, ez dagikezut esan oraindiño, baiña ez dau txarto emoten, zeozer argala izan arren.

Orduko, naikoa astirik izan neban andrea begiztatzeko, eta laster konturatu nintzan

aren aurpegiaren itxuraz eta soiñaren jasaz, emakume nakar edo geldoa zala. Aurpegiz polita, begi illun ederrek kadentasunaren itxura emotsoen. Azkaiaz oso txairoa izango zan, ain lodia izan ez ba'litz. Aldiaren bidean, baiña, bera ta bere senarraren gora-beera zeatzaogak jakin aal izango nebazan.

Bitartean, apalordua billakatu zan, eta mai-aurrean jesarrita, nire guraso-ordeekin Jenengo otordua izan neban. Lengoarekin bekaldeuta, askozaz ohea azaldu zan, eta gosez beterik apariari ekin neutsan. Onen ostean, lo-gurak menperatuta izanik, Asentzi'k lo-gela txiki apain batera lagundu eustan, eta “Gabon Jaungoikoak lagun” esanik, joan zan. Oea bigun eta nasaia begitandu yatan, eta urrengo egunerarte lo-zorro astunak artuta iraun neban.

Olan emon neutsan asiera nire guraso-ordeekin biziera barri bateri. Urrengo eguneko goizean, On Pio lanera joanda gero, Asentzi'k iratzarri ninduan, eta nire buruaren garbitasuna eginda, sukaldeko mai baten aurrean jesarrita, etxekoandreak katillu bete kafesne ta ogitxu bat eskiñi eustazan, eta gosaria amaitu nebanean, auxe esan eustan:

– Begira, Patxi, orain merkatura noa, eta nai izatekotan, nirekin etorri zaitez, auzoa ezagutu dagizun.

Baietz esan neutsan, eta andik laster, Asentzi'k besapean otzara bat eroiala urten gintzazan. Ibilli genbiltzala, barritsu ez bazan be, kaleko denda batzuen gora-beerak emon eustazan, eta andik laster, ibai baten ondoko merkatu edo zei andi batera eldu gintzazan, eta onetara sartuta, iradu barik egunerako erosketea egin eban Asentzi'k. Biurtu gintzazanean, eguberdia zan, eta,

– Aizu, Patxi –esan eustan–, bazkaria atondu bitartean, joan zaitez kalera astia emoteko. Kontuan izan, baiña, nire senarra ordu bata ta erdietan doi-doi etxera datorrela, eta orduko zeuk be emen izan bearke dozu asarratu ez daiten, guztiz ordutsua da-ta.

Joan nintzan ba, eta alboko denda batzuen erakus-leioak begiztatuz astia emon neban. Ez dakit zein ordua izango zan, baiña gosearen arra sabela marrazkatzen asi yatan, eta etxera biurtzeko ordua bazala erabagi neban. Eldu nintzanean, On Pio etxean zan eta ikusi ninduean, betosko asarrekoiaz auxe esan eustan:

– Bost miñutuko atzerapenez zatoz, eta jakin bear dozu, etxe onetan ordu bata ta erdietan bazkaltzen dala. Beste urrengo baten atzeratuko ba'zintzaz, ez dozu bazkaririk izango. Entzun...?

– Bai.

– Bai, Jauna, esan bear daustazu.

– Bai, Jauna.

Jesarri gintzazan irurok, eta On Pio'k mai-bedeinkapena egin ostean, Asentzi'k bazkaria mairatu eban. Ez naz gomutaten zelako autugaia izan genduan bazkari aretan, baiña gogoan dot bazkaria gozoa izanez gaiñera, zenbat-gura janari nire aukeran nebala. Amaitu genduean, On Pio jagi zan, eta urten aurretik auxe esan eustan:

– Gaur gabean alkarrizketa bat izango dogu zeuk eta biok, aurrerantzean zure betekizunak ikasi dagiguzan, eta ez aztu aparta bederatz-bederatzietan dala. Aitu dozu ondo...?

– Bai, Jauna.

Bazkalostean, On Pio'k dalako "Txamelo" jokoari emoten eutsan, galtzailleak enpaurau kafea ordaindu bear ebala. Orduko, irurak eta erdiak ziran, eta Barrenkalean egoan "La Canela"ra gure gizona abiatzen zan, denda entzutetsu onen kondalaritza bere ardurapean egoan-eta. Ona elduta, jakea kendu, txabutx illuna jantzi, eta idazmai-aurrean jesarrita, bere jardunari buru-belarri emoten eutsan. Kondalaritza gaiñera, berari egokiozan, gaien eskaerak egin, idazkiak bialdu, urrutizkiña erabilli, zorretan saldutako gaien ordain-agiriak atondu, etab. Etxe aretan danek "On Pio" esaten eutsoen, baiña gero ikusiko nebanez, miin gaizto batzuk "Piokanela" ezizenaz deitzen asi yakozan, eta luzaro barik uri osoan deitura ori edatu zan. Berez doa, ez zala iñor ezizen ori bere aurrean esaten azartu zeitekeanik, aren jaseko edonorentzat, olako deitura laidogarria dalako, eta ainbat areago dagokion betekizuna duintasun andiaz egiten dakianarentzat.

Lenengo arratsalde aretan, On Pio kalera urten baiño ez, Asentzi'k auxe esan eustan:

– Begira, Patxi, orain biagoa egiten dot, eta aspertu ez zaitez, joan zaitekez ortik auzoa ezagutzearren, eta nai dozunean biurtu zaitez askaria artzeko.

Olan egin neban, eta goseak eragin ninduean etxera biurtu nintzan askaria izateko. Gero, kalera barrero. Ibilli nenbillela, kaleko muturrean nire adiñeko mutiko bat ikusi neban jolasean. Izan be, zitzean jokutzen eban, eta au ondo ezagutzen neban ezker, umezurtztegian oikoa zan-eta, urreratu nintzakion eta begira geratu nintzan. Olan nen-goala, jokoari eten egiñik mutikoa alboko etxe batera sartu zan, abo bete agiñakaz geratzen nintzala, berarekin arremonetan astea nire asmoa zalako. Besterik ezean, uriko zati zaarra zan gure auzoa ezagutzen jarraitu neban. Denda asko ta ederrak egozan, eta kaleetako joan-etorria ugaria. Arin samar igaro yatan astia, eta dendak itxi ziranean etxera biurtu nintzan.

On Pio etxean zan orduko, eta andik laster apalordua izanik, mai-inguruan jesarrita porrusaldeari ekin geutsan, eta gero arrautzopilla ta sagar banari. Jan bitartean, egun aretan "La Canela"n izandako gora-beerak berba arranditsuakaz edestu euskuzan On Pio'k. Entzundakoagaitik, bazirudian bera barik dendeak txulut egingo leukela, eta barrero entzun bear izan neutsan, zelan berari esker, ugazabak kanelarik onenaren sorlekua ikasi eban, eta onen ondorioz arrakasta andia jaritsi. Aparia amaitu zanean, eta Asentzi'k sukaldean garbiketeari emotsala, besaulki baten jesarrita, On Pio'k auxe esan eustan:

– Zeuk eta biok aututxu bateri emongo dautsagu, gauzak bere lekuan ipinteko. Entzun...?

– Bai, On Pio.

– Lenengo ta bein esan bear dautsut, ez deritxadala ondo nire etxeko sabaipen bizi dan iñork, On Pio esan dagistala. Orreri usain arrotza dario, eta areago zu semetzat zaitudan ezker. Beste aldetik, baiña, zure benetako aita ez izanik, egokiagoa litzake aitorde esan zengidan, baiña ori itsusia da, eta txarto erabillitako adierazpena berarekin dakar, eta areago lagun-urkoarekiko maitasun utsaz etxean artu zaitudanean. Egia da baita be, zu nire pentzuan artzeagaitik udalak diru batzuk emongo daustazala, baiña orrek ez dau-

tsu nire ekintzeari ezer kentzen. Zer dira txanpon batzuk, sendi on baten ardurapean bizi izatearen alde...?

Ona ezker isildu zan une batez, eta gero autuaren aria galduta, urrean, itxura itaunkorraz,

– Zertan nenbillen...? –itaundu eustan–.

– Zelan esan bearco dautsut.

– A, bai...! –jarraitu eban–. Zelan esango daustazu niri berba egitean. Len esandakoaren ostean, Osaba Pio edo osaba soillik esan dagistazun biderik egokiena derist. Zer deritxazu orreri...?

– Ondo, osaba.

– Atsegiña da benetan entzumenari, Patxi. Orduan, niri osaba, eta nire emazteari izeko esango dauskuzu, ezta...?

– Bai, osaba.

– Ederto, Patxi, badirudi zuk eta biok ondo ulertuko dogula alkar. Eta zertzelada au konpondu dogun ezker, eta sabai bakarpean bizi izateko garanez, ona emen gorde bear dozuzan beste baldintzak.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Umezurtztegian zeuri buruz emoniko argibideak, ez dira mutiko apal eta esane-koari dagokiozanak. Abo batez danek arlote anditzat zaitue, eta nire ardurapean artuko zindukedala jakin ebenean, nitzaz errukitu ziran, eta ango arduradun nagusia dan On Jaime dalakoak, munduko urre guztiagaitik ez zindukela artuko esan eustan. Olan izango da, urrean, baiña gaixo arek zelako jasekoa nazan ez daki, eta barkatu bear yako. Ikusten dozu aurreko ormatik eskegita dagoan ede ori...?

Au esatean, atzamarraz itxura sendoko ede lodi ta zabala erakutsi eustan. Bildur banakanak jota,

– Bai, osaba –erantzun neutsan–.

– Ara ba... Nire aginduai jaramonik ez egitekotan, saietsen neurria artuko dautsu, eta onen ostean apaldu barik oean emongo dozu urrengo egunerarte. Entzun...?

– Bai, osaba.

– Etxean ez dozu ezetariko didarrrik jaurtiko, eta otorduetan garaiz aurkeztuko zara etxean, bestelan barau egitea zer dan laster ikasiko dozu.

Ona elduta, irribarre okerra marraztu yakon ezpanetan, eta jarraian onetaraxe mintzatu yatan.

– Osasunerako guztiz onuragarria da barau egitea, eta illean bein barau gorria osagirik onena ei'da. Uste dot, beraz, orduak gordeko dozuzala.

– Bai, osaba, garaiz azalduko naz etxean.

– Lengoaz gaiñera, janzkia garbi ta txukun erabilliko dozu, aurpegia garbi, billoak ondo orraztuta, eta oiñetakoak dizdiratsu. Ez dot ezelan be entzun gura, etxean loba saskela dodanik. Amaitu da bein betiko Patxi Arlote, eta jaio da auzo onetako erdua izango dan Paxi, On Pio'ren loba maitagarria. Argi dago...?

– Bai, osaba.

– Oraindiño bada beste zerbait, Patxi, eta auxe alegia: Ez dozu sakeletan ezetariko zikinkeririk eroango, au da: zibak, kordelak, labanak, bostarriak (kanikak), txaplak, igali-azurrak, eta beste olako zaborrarik, or aurrean dingilizka ikusten dozun edearekin eza-
guera egin gura ez ba' dozu. Argi da nik esaniko au...?

– Bai, osaba.

– Ondo da, Patxi, landarak gazterik arteztu bear dira, au da, samur diranean, azita gero konpontzerik ez dago-ta. Orain, eta etxe onetako legeak ezagutzen dozuzan ezkerro, oera joan zaitkez, eta biar arte Jaungoikoak lagun.

Urrengo egunean, egiteko berezirik ez izanda, izeko Asentzi'ri lagundu neutsan oiko erosketea egiteko. Izeko geldoa zan, baiña genkusanaren barriak emoten eustazan, inguruko dendak eta jendeak ezagutu nengiazan. Egiten eutsoen arreragaitik, bazirudian saltzailleek ezagutzen eta ederresten ebela, baita izeko euren artean pozik aurkitzen zala be. Merkatua mutur batetik besteraiño ikertu genduan, eta etxerako gaiak erositara, astiro-astiro biurtu gintzazan. Eguberdiaren etxean gengoan eta izekok bazkaria atondu bitartean, niri buruz guztitariko itaunak egin eustazan. Bera nakar izan arren, ontasuna ta begikotasuna agiri ebazan, eta begien kadentasun eta beragandik erion ontasunak irabazita, nire bizitzaren gora-beera guztiak emon neutsazan. Amaitu nebanean auxe esan eustan:

– Dirudianez, zure gurasoak markiñarrak ziran.

– Bai, izeko. Olan egoan idatzita Sor Ane'k erakutsi eustan umezurtztegiko liburuan.

– Ara ba, Patxi... esan bear dautsut neu be Markiñaldekoa nazala. Gazterik gurasoek uri onetara bialdu ninduen neskametzat jarduteko, eta urte batzuk igarorik osaba Pio'rekin ezkondu nintzan.

Tximistaren antzera burutapen bat etorri yatan, eta,

– Izeko –itaundu neutsan–, orduan euskeraz dakizu, ezta?

– Izan be, erderaz baiño obeto.

– Orduan, izeko, zergaitik ez dogu egiten euskeraz...? Begira, Sor Ane ta beste euskaldun mutikoeekin euskeraz egiten neban, eta bildur naz jardun-ezagaitik aztuko ez ete dodan ikasitakoa.

– Ez dozu aztuko, Patxi, nirekin beti ta nonai euskeraz egin dagikezu-ta.

Poz-pozik nengoan, eta menperatzen ninduan zorion bizia jabetu eziñik, izekoagana joanda, musu bat emon neutsan.

Nire laztana artzean, izeko Asentzi'ren aurpegian zear zorionezko keiñua edatu zan, eta begiak dizdir bereizi bataz piztu yakozan. Nire aurpegia eskuen artean artuta musu bat jarri eustan bekokian, eta eldu nintzanetik lenengoz, ezpanetan irribarre bat agertu yakon. Gero, berekiko lez, berba oneik asperenka iges egin yakozan:

– Oi, zeu lako seme bat izan ba'neu...!

Orduan bertan, izeko Asentzi'ren aurpegiko kadentasuna ulertu neban, eta oiko gauzentzako ardurabakotasuna. Ume-miña zan izekoren geisotasuna, ezkondu zanetik irrika ordainbakoa, eta orrek dakarren bakartasuna beratjaz jabetu izan zan. Ogei ta bost ur-

te igaroak ziran ezkondu zanetik, eta seme-min arek oiko gauzetarako nakar biurtu izan eban. Bere bizitzaren antzutasuna...!

Une aretatik bertatik, izeko Asentzi maite izaten asi nintzan, eta nik uste, berak ni be, irrikaturiko semea neugan zelanbait ikusten ebalako, urrean.

Andik laster, osaba Pio etorri zan, eta bazkaltzeari ekin geutsan. Jarraian, oiko "txamelo" jokoari emoteko osaba urten zan, eta izekok eskaratzean ziduala, etxetik urten nintzan, eta kaleko ez-egaturiko beste muturrerantz abiatu nintzan astiro ta nasai. Ertz bietako dendak begiztatzen niarduala, aurreguneko mutiko berbera ikusi neban, onetan be zitzean jokatzan ebalako. Urreeratu nintzakion, eta bere jokaerea ikusi ondoren, berak,

– Zer, emen pastelak emoten yozak, ala...? –esan eustan–.

Ez neutsan tutik erantzun; orduan niri tinko begiratuz, onetaraxe jarraitu eban:

– Nondik urten az, papao ori...?

Au esanik, karkar irrilaria jaurti eban, eta aurrean jarten yatala, mintzo ziñosoz,

– Ik kokolo baten itxurea yok –esan eustan–. Aizu, babalasto ori, txakur txiki bat (bost zentimo) egingo ñeukek baietz ni irabazle.

– Ez yoat dirurik –erantzun neutsan–, baiña nor geiago ikusteko, ez dok posturarik egin bear.

Une batez oldozkor geratu zan, eta gero,

– Tira ba...! Ez beik esan ire bildurrez atzera egin yoadala. Baiña ni zitzaren jabea nolan ezkerro, niri etorriko yatak lenengoa jaurtitea.

Ori alde andia zan berarentzat, baiña beste biderik ezean, baietz esan neutsan. Igeltsu-zati bataz, ardurarik andienaz metro biko oboa kale-erdian marratu eban, eta zitza erdigunean ipiñita, jokoasi zan. Joko onetan, endai edo pala antzeko ol-zati bataz, mutur bietan zorrozturiko zitza ikoti-erazoten da, eta aidean doanean, endai az jaten yako. Zitza lurrera jausi aurretik, leikideak aidean arrapatzen ba'dau, orduan obo-barruko jaurtilari biurtzen da, eta besteak obo-kanpotik arrapatzeari emoten dauso.

Nire leikideak iru bidar jaurti eban zitza, baiña laugarrenean aidean arrapatu aal izan neban, eta jaurtilari billakatu nintzan. Gogorra gertatu zan leiaketea, baiña azkenean amar kintzeko (tantoko) aldean kendu neutsan. Dirudianez, garaipen onek bere eritxian nire garrantzia mailla batzuk igon eban, eta leiaketea amaituta, biok espaloian jesarrita, autu nasai bateri emon geutsan.

– Ez az makala zitzean –esan eustan–, non ikasi yok joko ori...?

– Umezurtztegian ikasi naiuan.

– Zer ete dok ori...?

– Umezurtzak joaten ditukan etxe andi bat.

– Orduan eu umezurtza az...?

– Bai.

– Zelan yok izena...?

– Patxi Beresibar, eta euk...?

– Tomas Gomez. Aiko, Patxi, non bizi az...?

– Kale onetako ogei ta laugarrenean, On Pio'ren etxean.

Barre egin eban Tomas'ek, eta auxe esan eustan:

– Orduan Piokanela'ren etxean. Ez al-yakik auzo onetan danok Piokanela esaten ezagutzen yokan aitak, erdipurdiko luma-zurgatzaillea dokala yiñok, “nire kanela” gora ta beera yabikala, munduko arazorik beiñena bai'litzokan. Auzo onetakuok ez yoeik iñoiz barre egiten ikusi, eta arroputzaren itxuraz bere ezjakintasuna ezkututzen ei'yokala.

Izan be, osaba Pio ez yatan oso begikoa, baiña kaleko mukitzu batek niri emon-barria zan osabeari buruz, orren destaiñez berba egian, mintzeko zan, eta,

– Yirudikanez –pipertuta esan neutsan–, ire aita auzo onetako gizonik jakintsuena dok, Ikastola Nagusiko irakasle, urrean...

Tomas, baiña, nik uste baiño xaloagoa zan, eta nire eztenkadea atzitu barik,

– Ez, nire aita jantzigillea dok –esan eustan–, eta onenatarikoa izan be. Uri onetako leku guztietatik yatozkok janzkiak egin yagioezan, bera baiño jantzigille dotoreagorik ez ei'dok-eta.

Izan be, Tomas'en aita uriko jantzigillerik dotoreena izango zan, baiña semea jantziteko garaian ez eban antze andirik erakusten; txabux naikoa zikiña erabilliz gaiñera, bost botoietatik iru peitzen yakozan, eta abarketa baten muturretik, beatz lodia iñongo lotsa barik agertzen zan mundu zabalera. Zirudiane, baiña, aitaren ganoreak astirik ez semeagan agertzeko. Nire adiskideari zeozer esateko zorian izan nintzan, baiña azkenean, niri bost ardura bere jantziera, eta isildu nintzan. Ain zuzen be, auzo aretan ez neban adiskiderik, eta adurrak eskintzen eustan lenengoa ez neban galdu gura. Oldozkun oneitan murgilduta nintzala, Tomas'ek barriro,

– Aiko, Patxi, eldu-barria azan ezkerro, gure auzoa ez yok ezagutuko. Ator nirekin ba, eta erakutsiko yauadaz gure ikusgarriak.

– Gaiuazan ba, Tomas.

Ibilli genbiltzala, nire ezagun barriak txoko ta bazter guztietako argibideak emostazan, eta ordutik asi zan adiskidetasun zintzoa bion artean. Oartu nintzaneko, apalordua zan, eta etxera biurtzeko zorian, Tomas'ek auxe esan eustan:

– Agur, Patxi, bayakik non bizi nokan, eta on lleitekek biok lagun izatea.

– Bai, Tomas, biar arte.

Gau aretan apalostean, osaba Pio'k auxe esan eban:

– Ordua da sillu-bildumeari ardura pixka bat emon dagiodan.

Au esanik, arasa batetik liburutzar bat artuta, mai-gaiñean edegi, eta arro-arro,

– Darabildan jardunagaitik –esan eustan–, arremon andiak dodaz munduko beste erriekin, eta au dala-ta aukera ugari sillu-bilduma egiteko. Begira, Patxi, sillu au Surinam deritxan lurraldekoa da. Zer deritxazu...?

Ederra zala erantzun neutsan, eta orduan arrotasunez gaiñezka;

– Bai, Patxi –esan eustan– bilduma onek asko balio dau, eta zartzaroan diruketa andia emongo daust. Ezagulariek diñoenez, balio andikoa da. Gaurregun, zartzaro-ziurtasuna lortzeko, jendeak diru asko erabilten dau, baiña ona emen, nik neuk duan lortu dodan

diru-mordoa aalegin andi barik. Bai, zentzuna erabilli bear, eta gitxik dabe bearrezko adimena bide zuzenetik erabilteko. Ona emen, astebate onetan jaritsi dodazan silluak.

Au esanik, estalki batetik sillu-mordo bat atara eban, eta barriak alde batera, eta bi-rreukazanak bestera jarri ebazan. Jarraian, errola-liburu bat aurean ebala, idaztegitik ekarritako silluak orrietan itsasten asi zan. Lan onetan ziarduala, alako baten didar bizitan “habanera” auxe abesten asi zan:

Las palmeras de Cuba pierden sus hojas pierden sus hojas...

Los ojos de mi niña las quemam todas las quemam todas...!!!

Dalako “habanera” jasanorra zan doiñuaren aldetik, baiña osaba Pio'ren didar kirrikari ta neurribakoek abestia eroangatxa biurtzen eben. Bazirudian amar milla txitxarrek ziarduela gabeko bakea astinduz. Ezin neban jasan a lako zaratarik, eta kutunaren begiek palmondoen ostu guztiak kiskaldu egiezan aurretik, arin baten jatokitik urten, eta sukaldean babestu nintzan. Izeko Asentzi'k ikusi ninduanean, auxe itaundu eustan irribarez:

– Zer dala-ta, Patxi, orren arin etorteko...?

– Izeko, ezin dot jasan osabaren abestia. Zergaitik didar egin orren zaratatsu...? Gaiñera, doiñua polita da, baiña...

– Begira, Patxi, osaba pozik aurkitzen danean abesteari emoten dautso. Autortu bearean naz, ordea, ez dala jaio abeslaria izateko. Zorionez, baiña, jatoki ta sukaldeko atreak itxi ezkerro, aren oiua moteltzen dira zearo.

Izan be, zuzen egoan izeko Asentzi, osaba Pio'ren orruak orduko oso motel etorkiguzan-eta. Alako baten, burutapen bat etorri yatan, eta,

– Izeko Asentzi –esan neutsan–, ni oso eres-zalea naz, baiña ez dot abesti askorik entzun, lengo etxean gitxitan abesten zan-eta, bizikera ituna jasateko jaio bai'gintzazanedo. Baiña bein baten, azkeneko Gabonetan, oillar-mezan lekaima batek euskeraz abestu eban, eta orduan ez dakit zelan, biotz-ikara batek eraginda begiak malkoz bete yatazan, zeruan sentitzen nintzala. Izeko, dirurik ez daukat baiña arean izatekotan, dana emongo neuke gabon-abesti a barriro entzutearren.

– Zelako abestia izan zan...?

– Ez naz ondo gogoratzen, baiña Yosu Aurak ezin egikean lorik egin askatxuan...

– Ez ete da auxe izango...?

Jarraian, abots ezti ta goxoaz onetaraxe asi zan:

Belen'go portalian.negu gogorrean jaio da gure Yosua askatxu batean...

Eta polliki-polliki abesti osoa aletu eban. Bai, berbera zan, nik gau aretan entzunio-koa, eta orduan legetxe, zirrara bakanak artuta begiak laiñotu yatazan, eresiaten edertasunak zerura nindaroala. Amaitu ebanean,

– Atsegin izan yatzu, Patxi, ...?

– Bai benetan, izeko Asentzi. Ez nekian, mundu onetan orren ederrak diran gauzak izan zeitekezanik.

Irribarreka begiztatu ninduan billoak laztantzen eustazala. Orduan burutapen batek bultzatuta,

– Izeko Asentzi –arrenkatu neutsan–, ez daustazuz irakatsiko euskal eresiak...?

– Bai, Patxi. Gazterik parrokoiko abesbatzan jardun neban, eta ango abade gazteak, guztitariko abestiak irakatsi euskuzan. Polito samar giarduan, eta erririk-erri genbiltzan. Arrakasta andia jaritsi genduan, baita sari batzuk be.

Aurrerantzean jakingo nebanez, izeko eres-sen bikaiñaz ornitua zan, eta bere abotsa indartsua ez izanik be, oso atsegiña, norberaren barruko sentipenak eragiten ekiana. Ize-koagan aurkitutako idorokunde au niretzat oso onuragarria azaldu yatan, eta gaiñera astia emoten laguntzen eustana. Olan ba, oartzeke, eusko eresietarako zaletasun andia sortu yatan.

Bajoiazan egunak aurrera, eta astiro baiña oartu barik, nire biziera barrira oitzen nintzan eragozpen andi barik. Egunoroko arratsaldeetan Tomas'ekin jolasten niarduan, baita inguruko beste lagunekin be, eta bidebatez, nire auzoko bazter eta ezkutune guztiak ezagutzen asi be. Goiko kaleetan zear, laster eldu zeitekean basetxe ederrakaz zipriztin-ezagutzen zabaldira, eta nai izatekotan mendi garaitu batzutara. Orduko, Irailla amaitzeko dutako zorian, laster eskolara joan bear izango neuke, ikastaroa Urrillan asten zan-eta. Erabagia zan, gure kaletik urrun ez egoan ikastolara Tomas'ekin joango nintzakela, eta eretirako izeko Asentzi'k txartes bat josi izan eustan. Gauzak, baiña, batzutan bapateko aldakuntza jasaten dabe, eta garai aretan nire patuak aldakuntza ori ekarri eustan. Ona emen zelan jazo zan.

Irailla'ren azken Igande aretan, ikastetxe baten ziarduan anai lekaide bat gurera etorri zan bazkaltzera, Pio'ren lengusua zan-eta. Bazkaria gora-beera andi barik igaroten zan, lengusu biek senitarteko gora-beerak alkarri emotsiezala. Alako baten, Sebe erixtan anai lekaideak nire gora-beerak itaundu eustazan, eta jakin-gurea asetu neutsanean, osaba Pio'ri auxe esan eutsan:

– Aizu, Pio, zure loba barriak mutiko argia emoten dau, eta dirudianeaz, gai da batxilkerreko ikasketa egiteko. Etzi izango dira bigarren maillako erri-ikastegian batxillerra asteko gaitasun-azterketak, eta onartua izatekotan, gure ikastetxean lenengo mailla adiraldu legike.

– Bai, ondo legoke ori –esan eutsan osaba Pio'k–, baiña zuen ikastetxeko ikastaroa ordaintzekoa da, eta udalak mutiko au nire pentzuan izategaitik ordaintzen daustana, ozta-ozta janaria-ta ordaintzeko beste da.

Oldozkor geratu zan Anai Sebe une batez, eta gero,

– Uste dot ikaste-sari (beca) bat jaritsi dagikedala –esan eban–, eta orduan ez zenduke dirurik emon bearko.

– Olan izatekotan, nire aldetik ez dot iñongo oztoporik jarriko.

Edu onetan jarraitu eban autuak, eta joan aurretik, Anai Sebe'k itz emon eutsan, ni ikastetxera sartzeko bideren bat ba'litz, urrengo egunean jakiñerazoko leuskiola.

Ain zuzen be, biaramonean, osaba Pio bazkaltzera etorri zanean, auxe esan eban:

– Aizu, Asentzi, biar goizean Patxi ondo jantzita eta txukun egon daitela goizeko bederatziatan. Lengusu Sebe'k mezu bat bialdu daust esanez, ikaste-saria lortu dauala, eta beraz, biar mutikoa bigarren maillako erri-ikastegira (institutura) eroango dozu azterketa jasateko.

Poztu zan Asentzi entzunagaitik, eta astirik galtzeke nire janzki ta oiñetakoak txukuntzera joan zan. Nik ez nekian zer billakatuko nintzan asmo barriaz, baiña poztu nintzan. Edozelan be, oba izango litzake ikastetxea erri-eskola baiño, eta kalera urten nintzan Tomas jakitun ipinteko. Laster ikusi neban jesarrita, labana espaloi-ertzean zorrozten ebalu, eta auxe esan neutsan:

– Aiko, Tomas, irekin ez yuat joaterik erri-eskolara, osaba Pio'k ikastetxe batera sartuko naiok-eta.

– Ño...! Elegantea azaldu da Piokanela. Aitari esan yagiadanean, ez yaustak siñistuko, ire osaba zekentzar itzela dok-eta.

Ona elduta, barre egin eban Tomas'k, eta gero,

– Aitak yinokan lez, zekenkeri utsaz burusoilla dok orrazirik ez erostearren, eta etxean artu ba'au, udaletik artzen yokan sariagaitik dok.

Barre egin eban osteru, eta baretu zanean,

– Lengo egunean –jarraitu eban–, aitak esan yeustan Pio izenaz zelan billakatu dokan. Ara... gurasoen asmoa Serapio izena emotea zolan, baiña bazkari on baten ostean, agiritegiko idazkaria zeozter txolinduta yeugoan, eta izena ondo ulertu ez, Pio bakarrik idatzi yeuan. Arrezkero, orra or izen laburregia bera lako gizon arropuzarentzat. Zorionez, baiña, akats ori konpondu zolan, oraingo Piokanela artu yeuanetik.

Izan be, ez yatazan atsegin osabeari buruzko Tomas'en adar-jote ta barreak. Egia esateko aren lobatzat artzen ninduan jendeak, eta dalako ezizenak mintzen ninduan. Aungaitik ba, egun aretan jolas egiteko eskintzeari furrustada bat az erantzun neutsan, eta asarratuta alde egin neban.

Barbatua lez, urrengo egunean osaba “La Canela”ra joan zanean, ondo orraztuta, eta txukun-txukun, izeko Asentzi'rekin erri-ikastegira edo institutura joan nintzan. Amarretan inguru, ango zerbitzari batek dei egin euskun, eta gure izenak entzunda, banan-banan ikas-gela zabal batera sartu gintzazan. Idazmaien aurrean jesarrita gengoanean, iru irakasle dotore ta arranditsuak sartu ziran. Orduan, lengo zerbitzariak itaunketa-orri bana emon euskun, eta iru irakasleen zaintzapean erantzunak idatziz ipiñi genduzan.

Guztitariko gaiak buruz erantzun bear genduan, au da, zenbakiztia, edestia, ludiztia ta eliztia. Erantzunak idatzi ostean, irakasle batek zati bat irakurri euskun, eta entzun-ala orri baten idatzi genduan. Beteriko orriak, oneik eta lengokoak izenpetuta gero, zerbitzariak batu ebazan, eta urten aurretik, urrengo eguneko arratsaldean eritxiak azalduko litzakezala, irakasle batek iragarri euskun. Itaunik geienai erantzun neutsen, nire ustez zuzenki, ludiztiari buruzkoak batez be, arlo au oso atsegin neban-eta. Beste gaietan, bat az beste naikoa ondo jardun izan neban, baiña ez nekian zelako erantzun-mailla bearrezkoa zan onartua izateko.

Urrengo eguneko arratsaldean, izeko Asentzi'k lagundutako bigarren maillako erri-ikastegira biurtu nintzan, eta ormeari atxikia egoan izen-zerrenda baten, onartu izan nintzala ikusi genduan. Poz andiak artu ninduan, ordurarte iñoiz ez lakorik, gizaki garrantzitsua oartzen nintzala. Urrengo astean batxillerra asiko neuke, non eta "Erosle" ikaste-xean, uriko onenatariko baten...! Izan be, Patxi Arlote'k ezin egikean ori baiño aukera andiagorik ames egin. Gau aretan, osaba Pio, oi-ez-lako pozik azaldu zan, eta kanelari buruz esan eustazan arrigarriak, amaikagarrenez entzun bear izan neutsazan. Oera joan aurretik,

– Begira, Patxi –esan eustan–, aalegindu naz zu umezurtztegitik ataratearren, gizon benetakoa izan zaitezcan, eta onezaz gaiñera, mutiko batek artu dagiken ezkuntzarik onena izango dozu. Uste dot zure alde egiñikoa ordainduko daustazula, esaneko ta apala izanik.

Isildu zan une batez, eta gero, orman eskegita ikusten zan narruzko gerrikoa erakutsirik,

– Ez neuke ezelan be zigor ori zeugan erabilli gura, baiña gerriko ori berbera aitik neugan erabilli oi eban, bide zuzena ikasi nengian, eta begira noraiño eldu nagan. Bai, uri onetako dendarik ospetsuenaren arduradun nagusia izateraiño, izan be, eta ori ez da gaberdiko auntzaren estula, ez urrik emon be...!

Onetaraxe ziarduala osabak, nire buruari niñotsan, kanela saltzeko ez zala bearrezkoa ikasketa andirik egitea, baiña ez nintzan azartu arek esanari jarkitea, aurrean nenkusan gerriko zemaikorrak, olakorik burutik kendu eustan-eta.

Oeratzen nintzala, nire buruari niñotsan, gizaki arruntek eta erdipurdikoeke euren gixtasuna ordeztarren, zelako garrantzia damotsien darabiltzezan zeregin urri ta utsalai. Gero, burura etorri yatan, zelan erabilliko leuken osaba Pio'k eskegita egoan zigorra, eta zin egin neutsan nire buruari, zigortua izatekotan, nigandik ez leukela entzungo iñongo zinkurifinik.

“EROSLEA” IKASTETXEA

Prantzitar sorkundeko lekaide-talde batek erabillitako, uriko onenatarikoa zan ikastetxe au. Lekaideok ez ziran abadetuak, anaiak baiño. Plaza Zabala izeneko enparantza ederrean kokatuta egoan ikastetxea, eta leku onetan jolastu oi genduan ikaste-arteko atsedendaldietan. Bosteun ikaslek jarduten genduan, kopuru onetan sartuta ikaste-mailla guztiak, au da, umeatarik batxillerreko mailla goreneraiño. Bizi izaten nintzanetik bosteun bat metroko bitartera egoan, eta augaitik goizeko ikastaldia amaituta, etxera niñotan bazaltzera, eta arratsaldeko iruretan ikastetxera ostera be, seirak arte.

Batxillerreko lenengo maillan berrogei bat mutikok giarduan, oiko gaiak ikasten genduzala, au da, eliztia, zenbakiztia, ludiztia, eta izadiztia. Gaiok asiera baten zerbait zailtxu azaldu yatazan ikastaroaren joanari jarraitzeko, zeozer atzeratuta nentorrelako, baiña ekiñaren-ekiñez, laster enparauen maillara eldu nintzan. Atsedendaldi bi izaten genduzan: bat goizean eta beste bat arratsaldean, onein iraupena ordu-erdikoa izanik. Guztitariko jokoai emotsegun, onein artean erabillienak izanik: abarka-zarka edo gorde-lekua; arrapaketan; bostarri-jokoa; ziba; esku-azpika; txanponak; asto-jokoa; txorro-morro-piko-tallo-ke etab.

Oikoa zan asi-barriai trikimaillu edo txatxarkeri bat egitea, eta auxe alegia: Plaza Zabaletik ur samar, agure pirri batek txori-tokiaren antzeko “estanco” edo kebedartegia eban enparantza txiki baten erdian. Iñork ez ekian zergaitik, baiña dalako agure pirriari “Papel de la República” eskatzen yakonetan, bere onetatik atarata, txori-tokiko leiatilla estutik, astirik izatekotan, adar-jotzailleari gorro itzela aurpegira bota oi eutsan.

Ikastetxera sartu-barria nintzala, bein baten, bigarren maillako mutil batzuk urreratu yatazan, eta areitariko batek auxe esan eustan:

– Aizu, Patxi, zergaitik ez zoaz txoritokiko agureagana, “Papel de la República” eskatzera...?

– Zergaitik, ba...? –erantzun neutsen–.

– Ara... errepublikazale porrokatua ei' da, eta olakorik eskatzen dautsanari, mutikoa izatekotan batez be, atsegin utsaz, erregaliz-zotz bat emoten dautso. Zergaitik ez zoaz aregana erregaliz orren billa...?

– Eta zergaitik zeuok ez...?

– Debekatuta dogu enparantzarik urtetea...

– Zeuek beste dot neuk galazota.

Orduan taldeko nagusia zirudianak beste bateri,

– Nork esan dautsu, barri-sartutako oillo busti au, Patxi Arlote Andia dala...?

Eta au esanik, lurrera txu egin eban destaiñez.

Au, nik jasan nengikean baiño geiago zan, eta suminduta,

– Nork diño oillo busti bat nazala...? –jaurti neutsan–. Ni ez naz ezeren bildur, eta oraintxe bertan “paper” dalako ori eskatzera noatzue, eta benetan diardudala jakin dagoen, zatoze nirekin lekuko izateko.

Laguntzailleen adore-oiuen artean, agure pirriaren txori-tokira joan nintzan, eta lagunak urruntxutik ikusle geratzen zirala, kebedartegiko leiatillaren aurrean jarrita, mintzo argiaz,

– Jauna –eskatu neutsan–, bai al-daukazu “Papel de la Errepublica...?”

Lepoa emonda, agureak apalen artean aztertzen ebalakoa egiñez, eta eta nik sustrai-gozaoren zotza itxaroten nebala, noizbait biurtu zan, eta gorro lingirdatsu, eraskorra, aurpegi betera jaurti eustan. Ezusteak artuta, unetxu batez an egon nintzan zer egin ez nekiala, eta gero laidoak abailduta, gorroa aurpegitik zapiñoaz kentzen nebala, ikastetxera biurtu nintzan, lagunen barre-santzo ta eztenkaden artean.

Patxi Arlotearen dedu ta ospea laidotu izan ziran, eta gaiñera lagunen aurrean. Andik ordubete batzutara, Patxi Arloteari jazorikoa ikastetxeko geienek ezagututako, adardik joka etorri yatazan, guztien aurrean barregarritzat billakutzen nintzala. Izugarria izan zan neu lako arropuz batentzat jasandako iraiña, eta nire buruari zin egin neutsan, agure piri aregandik egokidan mendekua artu bear nebala, nire ospe ta dedua lengora biurtzeko. Asarez irakiten, neurri bardiñaz ordaindu bear neuskiola agure pirriari erabagi neban.

Biaramonean goizeko atsedendian, txori-tokiko agure pirriari “Errepublikako pape-ra” atzera biurtuko neuskiola, ikaskide batzuai iragarri neutsen. Arratsalde aretan, eta eguroneko jarduna amaituta, ikaskide-talde ugariak lagunduta, agure asarrekoiairen txori-tokira abiatu nintzan. Bidean zear niñoala, txuari eragiñez nire biziko gorroa atondu neban.

Lagunak zeozter atzean lagata, kebedartegiko leiatillaren aurrean jarri nintzan, eta danek ondo entzun egien, mintzo ozenaz auxe esan neutsan:

– Jauna, zeuk atzo niri emoniko “Papel de la Errepublica”, atzera dakartsut.

Eta au esanik, gorroa aurpegira jaurti neutsan. Bete-betean begi baten jo eban, eta inpernuko madarikaziño guztiek erraikidazala, garaillearen itxuraz, lagunakana biurtu nintzan onein zorion koipetsuak artzeko, eta nire arrokeri zitala asetuta, etxera biurtu nintzan. Damu dot gaur egun aretan egindakoa, baiña orduko pekatua ordaintzearren, aurtorpen au egitea bearrezkoa yatala uste dot, Patxi Arloteren arrokeri zitala noraiñokoa zan irakurleak jakin dagian. Sor Ane'ren burubideak aintzakotzat artu ba'neuz, doillorkeri aregaitik gaur ez neuke lotsatu bear, baiña garai aretako Patxi egogogorra zan.

Arazoa, baiña, ez zan onetan amaitu, bai zera...! Taldeko batek, nik egiñikoa Anai irakasle bateri salatu eustan, eta bide onetatik, ekintza au Anai Sebe'ren ezaguerara eldu zan. Jazoera onen urrengo egunean, Anai Sebe “La Canela”ra joan zan, eta osaba Pio jakitun ipiñi eban. Arratsalde aretan Tomas'ekin jolastetik etxera biurtu nintzanean, atea osabak edegi eustan. Ereti aretan izeko Asentzi kalera joan izan zan, erosketaren bat egi-teko, antza.

– Kaixo, Patxi Arlote –isekari agurtu ninduan– sartu zaitez, eta ongi etorri etxera.

Sentipen bakanak menperatu ninduan, eta bildurrak jota sartu nintzan. Nire besoari eutsita, osabak jatokira eroan ninduan, eta auxe esan eustan aginkor:

– Kenduizuz prakak, eta makurtu zaitez.

Olan egin neban dardar baten, eta orduan narruzko gerrikoa artuta, eperdian zigortu ninduan basaki auxe esan bitartean:

– Lengusu Sebe'k dana esan daust, zist-zast...! Zeuk egiñikoak lotsaz bete egin nau, zist-zast...! Pentzau be, zure onerako bikaiñetariko ikastetxe batera sartu zaitudala, zist-zast...! Lotsatu nozu iñoiz ez beste, zist-zast...! Tamala dot auxe egin bear, zist-zast...! Baiña...

Eta zist-zastaka, osaba Pio'k atzekaldea sartagiñarena baizen gorria ipiñi eustan. Min andia oartu arren, nire arrotasunak isillik irautea eragiten ninduan. Noizbait, eta nekatuta, urrean, osaba Pio'k zigorrari eten egin eustan, auxe ziraustala:

– Onuratsua izan dakizula zigorraldi au...!

Aalik ariñen gelatik urten nintzan, eta atzekaldea erreminduta, irolan itxita sumiñezko negar bateri emon neutsan. Noizbait, urten eta sukaldera sartu nintzan. Orduko, izeko Asentzi biurtu izan zan, eta nire aurpegiaren malkoen aztarnak ikusita, mintzo kezkatuz,

– Patxi –esan eustan–, zergaitik egin dozu negar...?

Orduan, jazorikoa edestu neutsan. Entzun bitartean, bere aurpegiaren asarre-itxura agertzen zan, eta au bai bakana, ordurarte ez neban iñoiz olan ikusi-ta. Amaitu nebanean, erremiña arintzearren, atzekaldea orio ta ozpiñaz igurtzi ondoren, aparria eskiñi eustan, baiña irusterik ez nebala ikusita, oera lagundu, eta musu bat emonda, joan zan. Alde egiten ebanean, bere aurpegiak benetako asarrearen aztarnak agiri ebazan. Andik laster, osaba Pio'ren abotsa eldu yatan, sillu-bilduman ziarduala, antza, auxe abesten eban-eta:

Las palmeras de Cuba
pierden sus hojas pierden sus hojas,
los ojos de mi niña...

Bere txitxarra-antzeko kurrinka uxatzearen, belarriak burusiaz estaldu nebazan, lo egiteko aalegintzen nintzala, baiña dana alperrik; Cuba'ko palmondoen ondapenak eta nire atzekalde erreminduak, loa eragozten eusten. Noizbait, lo geratu nintzan baiña onen aurretik, ni entzun barik ain anker zigortu ninduanak, Osaba Pio'ren izena ez ebala merezi, eta aurrerantzean niretzat Piokanela izango litzakela erabagi neban. Bai orixe...!

Nire ekintza gaiztoaren ondorioak ez ziran amaitu emen. Urrengo egunean, nik egindakoa bala-bala ebillen, eta zigor eredugarria merezi nebala erabagi eban ikastetxeko batzordeak. Olan ba, nire maillako Anai irakasleak dei egin, eta illabete batez eguneko atsedendaldi bietan, ikasgelan urten barik egongo nintzakela iragarri eustan. Luze-luzea billakatu yatan dalako illabetea, eta asperraldiari aurre egiteko, ludiztiari zaletasun andia neutsanez, mapa-marrazteari emon neutsan, guztitariko margokiakaz edertzen nebazala.

Edu onetan, zigorraldia amaitu yatanean, aurrerapen andiak egin izan nebazan alor orretan. Arrezkero, Errepublikako paperarena aztuta, beste edozein ikasletzat erabilli ninduen.

Osabak niri emondako astiñaldia ta urrengo egunean, ikastetxeko jarduna amaituta, Tomas'ekin jolas egitera joan nintzan, eta espaloian jesartean, nire aurpegian mindutako keiñua ikusirik, auxe itaundu eustan:

– Aiko, Patxi, zergaitik orren arduratsua jesarteko, anburuak-edo sortu al-yazak...?

Orduan, osabak emondako zigorrari buruz jakitun ipiñi neban, eta amaitzean,

– Begira, Tomas –esan neutsan–, min itzela artu arren, ez naiuan txintik be esan, eta astiñaldiaren ostean, erabagi sendoa artu yoat.

– Zein erabagi, Patxi...?

– Osaba Pio bein betiko il dokala, eta aren orde ez yoat beste iñor ikusten, Piokanela baiño, “La Canela”ren luma-xurgatzaile kokoloa baiño.

– Erabagi egokia, Patxi; euk eperdian artutakoa, laster ezabatuko yak, baiña bera bizitza guztirako Piokanela izango dok. Niri olako ezizena ipiñiko ba'lleustek, erritik beste iñora anka egingo ñeukek.

Etxera joateko jagi nintzan, eta orduan Tomas'ek,

– Nora oa orren goizetik...?

– Etxera, izeko Asentzi'k ozpin-oriozko igurtziak atzekaldean jarri yaidazan, ia biar betikoa sentitzen nokan.

– On yakiazala, Patxi.

– Biar arte, Tomas.

Eguraldi ona zanean, ikastetxeko eguneko jardunaldia amaituta, etxera baiño len, kalean niarduan Tomas'ekin edozein jokotan, baiña eguraldi txarra izanik, ikastetxetik etxera artez-arte niñoan, irakasleak etxerako emostazan eginkizunak aalik ariñen amaitzearren. Bein baten, euriagaitik etxera goizetik sartzean, atea edegi eustan izeko Asentzi'ri usain bereizia eriola oartu nintzan, pattarra edo edari bizi batena, alegia. Oi neban lez, sukaldeko mai-aurrean jesarri nintzanean ikastetxeko betebearrai ekiteko, mai-gaiñean bonbil baten ondoan edontzi uts bat egoan. Bonbillak “larranbillo” idazkuna itsasita eban. Une aretan izeko Asentzi'k bonbilla artu, eta arasako goiko apal baten ipiñi eban, auxe ziraustala:

– Noz edo noz, sabeleko min andiak joten nauanean, ez dago obarik larranbillo edariari txurrutada bat emotea baiño.

Jarraian, ikastetxetik ekarrirako eginkizunetara emoten neutsala, burura etorri yatan, gaurko usaiñaren zantzua len be izekoagan oartu izan nebala, eta zergaitia jakin barik, tamal andia izan neutsan. Orduan gazteegia nintzan ulertzeko gizakien zorigatxak noraiño-koak izan daitekezala, baiña egun aretan oartzen asi nintzan, izeko Asentzi gatz baten pean bizi izaten zala, bai, gero ta andiagoa biurtzen yakon zorigatxa: bakartasuna. Izan be, etxe aretara nire etorrerak zelanbait arindu eutsan sentipen ori, baiña umerik izateko ezintasunak aspalditik ezereztu izan eutsan bizi-naia. Onezaz gaiñera, Piokanela'rentzat bere emaztea ez zan besterik neskame bat baiño; ez eutsan maitasunez berba egiten, ez

eutsan iñoiz iñongo esku-erakutsirik ekarten, eta jaiegunetan lagun-arteko bizitzeari emotsala, Asentzi gaixoa etxean baztertuta, bakartasunaren oparia billakatua zan, eta askotan eleizara joan arren, etxean emoten ebazan ordu amaibakoak utsari begira, gaixoari irri-barre egitea aztu egiten yakola.

Noizean bein aren begi andi illunak neugan untzaturik oartzen nebazan, txulut egiñiko amatasunaren txinpartak eriezala, eta bekokian musu samurrak jarten eustazan, gero asperenka oiko geldotasunean murgiltzen zala. Aldiaren bidean sarriago emotsan “larranbillo”ko urari, bakarrrik egoanean, baita nire aurrean be. Berarekiko ona izaten saiatzen nintzan, bere gaztaroz itauntzen neutsala batez be. Adore biziak artuta, Markiñaldeko doiñu atsegiñaz mintzaten yatan, eta orduan bazirudian ezpanetan irribarrearen antzeko zerbait nenkusiola. Gure autu-gaia agortzen zanean, orduan ikastetxeko gora-beerak edesten neutsazan. Gau guztietan oera orduko, nire aurpegia eskuen artean artuta, musu maitekorra emostan, eta gero, gau-otoitzak esatera lagundu be. Gero ta maiteago ninduan, baita neuk bera be. Edateari emon ez ba'leutso...! baiña argi egoan orrekiko zalekeriak artuta egoala, eta beranduegi eldu izan nintzala etxe aretara, Asentzi gaixoa griña aretatik jareitzeko.

Banebazan adiskideak ikastetxean ikaskideen artean batez be, baiña beste leku baten ikasi arren, niretzat Tomas adiskiderik kutunena zan. Umezurtztegitik jaurti nindue-nean, bera izan zan nire lenengo adiskidea, eta bizileku barrian bakarrik eta norabage bi-llakatu nintzanean, bera zan egoera illun aretatik urteten lagundu eustan samaritar ona. Mutiko xalo ta zintzo aren ontasunak, orozgain erakarri ninduana izan zan, eta oso beste-lakoa izan arren, (ni arlote aiña, bera apal eta esanekoa) guztiz ondo alkartzen gintzazan. Ikastaldietatik-at, gure kalean jolasten ikusi zeitekigun, anai bikiak baizen lotuta.

Lenengo ikasturtea aurrera joiala, eta udabarriak eraginda kaleak eta zabaldea bizita-sunez piztuten ziranean, bein baten espaloiaeren ertzean jesarrita gengoza, auxe esan eustan:

– Aiko, Patxi, eguraldi ederra asi dok, eta auxe joagu sasoirik egokiena baloiari eki-teko. Len banaiuan eder bat, baiña galdu zoan estolda-zulo batetik.

– Baloi ederrak ikusi yoadaz ba, Azogetxu'ren dendan, eta gaiñera oso karuak ez dozak.

– Zenbatean saltzen dozak...?

– Pezeta bitan-erantzun neutsan-, eder-ederra erosi geinkek.

– Baiña, Patxi, nondik atara yaikegu diruketa ori...? Ni beintzat ezkurrik bage nai-a-gok...

– Baita neu be, baiña ara... Lengo egunean atso bat Zabalbide aldapan gora joiala otzara bete bataz, mutiko bat urreraturik, “Andrea –esan yeutsan– nai-ba’dozu otzarea eroango dautsut etxeraiño”. Orduan atsoak otzara eskuratu yeutsan, eta biak Zabalbide’n gora abiatu zoazan.

– Eta guri zer, arazo ori...?

– Ara ba, Tomas, geu Zabalbide-aldapa asten dokanean jarri, eta begira egongo go-zak, eta atsoren bat zamatuta ikusi baiño ez, urreratu eta, “Andrea gura ba’dozu otzarea eroago dautsut” esanez, otzarea emoten ba’yaukuk, orduan aren etxera eldutean, esku-peko bat-edo artuko yoagu. Zer yeritxok orreri...?

– Oba ez, Patxi, gauazan Zabalbide’ra.

Joan gintzazan ba, eta arloari ekin geutsan. Asiera baten, baiña, nire asmoak pot egin eban, atso bien zamak etxeraiño eroanda gero, “Eskerrik asko mutil” esanez, abo bete agiñakaz itzi ninduen. Baiña gero, gauzak onerako aldatu ziran, eta gautu zanean, Tomas’ekin bilduta, bion artean erreal biren jabeak gintzazala egiztatu genduan. Onek

adoretu ginduzan arloan jarraitzeko, eta andik astebete batera, bearrezko dirua bildu izan genduan gure asmoa egi biurtzeko.

Larunbata zan, eguneko jarduna amaituta Tomas eta biok "Azogetxu"nera joan gintzazanean. Dalako "Azogetxu" jostailu-denda baten jabea zan, eta bere aurpegia mozoilloaren antzekoa. Zekenaren aipua eban, eta gatx batek artuta eskuak etenbarik dardarikatzen yakozan. Ez beti, baiña, diruaren txera eskuetan oarturik, ikarea ostentzen yakon-eta.

Sarri askotan, erakus-leioaren aurrean kokatuta, eldu-eziñak ziran barruko jostailuak asperenka begiztatzan nebazan nekatu barik. Niretzat, zerua denda a lakoa izango zan, eta irudimenaren egoetan ames egiten neban bitxi areik nireak zirala.

Sartu gintzazan ba Tomas eta biok "Azogetxu"nera, eta emakume gogaikarri batek sei bostari erosi egiazan, itxaron genduan berantetsiak. Bazirudian emakume a sei bostarri baiño, piano bat erosteko zorian zala. Noizbait alde egin ebanean, begi txiki zorrotzakaz, "Azogetxu"k begiztatu ginduzan, eta,

– Zer nai dozue...?

– Orko baloi ori –erantzun neutsan–.

– Ba al-daukazue erosteko beste dirurik...?

Orduan Tomas'ek eskuarrean ebazan pezeta biak erakutsi eutsazan. "Azogetxu"ren begiak diru-gose utsaz piztu ziran; esku irmoz dirua arturik, aztatu eban benetakoa ete zan egiztatzearren. Izan be, une aretan eskuaren ikarea ostendu yakon. Dirua kutxa bate-ra sartuta, dendaren atzekaldera joan, eta bereala agertu zan gure amesetako baloiarekin. Artu baiño ez, baloiari begiratu barik urten gintzazan, eta orduko gautu zan ezkerro, urrengo egunean, Igandean, ostikoka jardun gendukela erabagi genduan. Piokanela'ren bildurrez, ez neban baloia etxera eroan gura, eta Tomas'ek berean gorde egjala onena litzakela erabagi genduan.

Gau aretan ames egin neban munduko ostikolaririk onena nintzala, eta biaramonean izeko Asentzi'rekin meztatik etorri ta gosalduta, arin baten Tomas'en billa joan nintzan. Laster agertu zan gure baloiarekin, eta beste barik ostikoka asi gintzazan. Bereala, baiña, baloi arek jokabide arrigarria erakusten ebala ikusi genduan. Aren jagi edo botea zuzen izan-bearrean, geinetan saietsetara ikoti egiten eban, barruko iratxo biurri batek baloia batzutan zuzenean, eta bestetan eskoi edo ezkerretara jaurtiko bai'leuan, oso zailla izanik jagia nora joango litzaken jakitea.

Jokabide arrigarri aren mataza askatzeko, espaloian jesarri gintzazan, eta baloia artuta, Tomas eskukatzen asi zan. Alako baten,

– Aiko, Patxi –oiu egin eban–, baloi barrabas onen eskola, loditasun bardiñekoa izan-bearrean, alde baten lodiegia dok, eta bestean meegia. Begiraik.

Emon eustan baloia, eta bereala oartu nintzan egia iñostala; egite-akats bategaitik, alde bateko azala oso lodia zan, eta bestekoa meegia. Lurra jotean, zati lodia non, ara joan jagia. Izan be, zailla zan igartea nora joango zan biribilki madarikatua, lurra jota gero. Arazoa larria zala erabagi genduan Tomas'ek eta biok. Baloi arekin jokatzetik ez egoan ezkerro, "Azogetxu"ri atzera eroan, eta benetako bat emon egiskula, abo batez ebatzi genduan.

Urrengo eguneko arratsaldean ikastaldia amaituta, Tomas eta biok "Azogetxu"nera joan gintzazan. Dendariak iñongo atxakirik aurkeztu ez egian, baloia etxean garbitu izan eban Tomas'ek, eta azala dizdiratsua erakusten eban. Sartu gintzazan, eta,

– Aizu, Jauna –baloia erakutsiz esan neutsan–, baloi onek auxe ta auxegaitik ez dau balio.

Betosko illunaz begiztatu ginduzan "Azogetxu"k, eta besoa luzatuz, orman eskegita egoan idazkun au erakutsi euskun: "Saldutako generoak ez dira onartzen atzera". Orduan nik barriro:

– Jauna, ez dautsugu eskatzen ordaindutako pezeta biak atzera emon dagizkuzuzala, beste akatsbako baloia onen ordaiñez emoteko baiño.

– Nire dendan ez dira akasdu generorik saltzen. Joan zaitzeze kanpora, asti-galtzerik ez dot-eta

– Baiña...

– Kanpora...!

Au esanik, makilla bat artu, eta zemaikor erabillela urten-erazo ginduzan. Kale beterra urtenda, denda-aurretik jarrita, Tomas'ek eta biok auxe didar egin geutsan:

– Azogetxu, lapurra...!

Au esanik, eta dendariaren bildurrez, aalik ariñen urrundu gintzazan, eta aren irudi izterbegia galdu genduan, espaloian jesarrita, Tomas'ek eta biok gure mendekuaren ausnartzeari emon geutsan. Une luze batez asmoak egiten iraun genduan, eta noizbait gaututa, egitekoa erabagi genduan. Tomas etxera joanda, andik laster paper-zati andi batzukin etorri zan. Jarraian, zurdaki edo pintzel bataz izki andi samarrakaz, auxe idatzi neban:

Erritar maite-maiteok
ez sartu Azogetxu'nera,
Ali-Baba ta onen lapurrak
ez baidira ezer bere aldera.
Baloi ta genero ustelak
ez dautsuz ez, artuko atzera,
bein zure dirutxu gaixoa
sartuta bere sakelera.

Oneitariko lau iragarki egin genduzan, eta aldi areitan dendetako erakus-leioak gabaz oltza andiakaz babesten ziran ezkerro, areitan untzekaz bi josi genduzan "Azogetxu"ren dendan, eta enparau biak, kaleko argi-mutil banatan listariz lotu genduzan. Albotik igaroten ziranek barre itzelak egiten ebezan iragarkiok irakurtean. Urrengo goizean, bertsoa irakurri ebanean, asarre gorriak artuta, Azogetxu'k urratu ebazan, gure aurka iñon diran iñondikoak jaurtiten ebazala. Argi-mutilletan egozanak, baiña, goi samar jarri izan genduzanez, ezin kendu, eta orretarako esku-mailladi bat ustiatu bear, ikusleen barre ta bitxikerien artean.

Aspalditxu batez, bertsoari buruz naikoa mintzatu zan Erdikalean, Tomas'en eta bion pozerako. Nik ez dakit, Piokanela'ren ezaguerara elduko ete zan jazoera onen barri, baiña ez eustan ezer aipatu. Nire ustez ez eban ezer jakin, bestelan itaunduko eustan nondik atara izan neban dirua, ostu neutsalakoan edo, txakur txiki (bost zentimo) bat bera be iñoiz ez eustan emon-eta. Lantzean bein Asentzi gaixoak zeozer emoten eustan, osaba zekenak emotsan egunoroko erosketa-dirurik artuta, urrean.

Baloia, baiña, geurea zan, eta txarto bazan be, kaleko beste mutillekin gure biziko jokaldiak izaten genduzan. Bein baten, Goikale'ko mutikoak gure kaletik igarotean gelditu ziran, eta adarra joten asi yakuzan barre-santzo zaratsuak jaurtiten ebezala. Goikale'koak gu baiño aberatsagoak ziran, eta euren burua asko ederresten ebenetariokoak, arropuztekin egin oi dabenen antzera, aberatsak diralako.

Gure jokaldia begizatzen ziarduela, areitariko burua zirudianak erdeñuz auxe esan euskun:

– Baloia euki, badaukazue, baiña zetarako dan be ez dakizue. Larrazabal'go txorimaloek, baietz zuoi irabazi..!

Eta au esanik, bere lagunekin batean barre-santzoka asi zan. Ezin nengikean jasan jauntxo arein arrokeria, eta sumiñez erreta, auxe esan neutsen:

– Barre egin, bai, papauok, besterik ez dakizue-ta. Danok badakigu oiñetakoak lotzeko be gauza ez zariela, baba-lasto orreik, Jauntxokumeok...! Erri onetan bala-bala dabil, ostikolaritzari ez dautsazuela emoten, zuen intxaurren orrazketea ondatu ez dakizuen. Jajaiiii...!

Erdikalekuok barre itzelak egin genduzan orduan, eta astrapalea zeozer baretu zanean, lengo jauntxokumeak,

– Isillik ago, berba-lapiko ori. Zer jokutzen dozue Erdikale'ko papauok, baietz guk irabazi...?

Orduan argitxu bat piztu yatan gogoan, eta Goikalekoai auxe esan neutsen:

– Begira, lagunok: demak edo apostuak edozein kirolari garbitasun eta jatortasuna kentzen dautsoz, eta nire ustez naikoa da norberaren dedua irabazle sentitzean. Benetako kirolaria ez da aalegintzen diruagaitik, bere buruaren atsegiñerako baiño. Baloia erabilteagaitik, baiña, bidezkoa deritxat zeozer ordaindu dagizuela, “Azogetxu” lapurrak aren ordaiñez kendu euskuana, kontuan arturik batez be. Zer deritxazue, beraz, baloiaren jabeai zuetariko bakotzak erreal bana ordaintzea...? Ez esan, gero, ezerezkeri ori asko dala zuek lako jende fiñarentzat...!

Eztabaida andia sortu zan jarraian, eta noizbait, Goikale ta Erdikaletarren artean, urrengo baldintzok jarri ziran: esandako erreala ordaintzeko gerturik egozan Goikalekoek. Talde bana amaika laguneko izango litzake. Lekua, ibai-ondoan egoan “Englistarren” esaten eutsoen zelaian, eta urrengoko Igande arratsaldeko bostetan ospatuko zan. Epaikaria, Bekalean bizi zan Timo, gure parroko sakristaua, gizon zuzena izanez gaiñera, kiroltzale porrokatua zalako. Timo'k berak gure uriko egunkari baten leiaketearen txosten bat idatziko leuke irabazleen kalearen izena gorai patuz.

Ituna egin zanean, Goikalekoak joan ziran, eta astirik galtzeke gure ostikolarien tal-

dea atondu genduan. Luzaro samar iraun eban arazo onek, eta amaitzean berandu izanik, etxera joan gintzazan.

Iru egun peitzen ziran leiaketarako, eta eguneroko ikastaldia amaituta, baloia artu, eta Erdikaleko taldea Basarrate zelaira joaten gintzazan jokoari buru-belarri emoteko. “Azogetxu”k guri saldutako baloia menperagatza zan, jaikia emotean nora joango ez genekian-eta. Ekiñaren-ekiñez, baiña, jaikia emotean zain gengoan arek artutako norabideari jarraitzeko. Izan be, guretzat alde andia zan iñarkunak leiaketearen baloiaz egitea.

Larunbatean, iñarkun egitetik gentozala, Goikaletarren batzorde bat etorri zan, eta itunduriko amaika errealak ekarri euskuzan. Onen ordeztan, baloia eskuratu geutsan, auxe berbatu izan zan-eta. Urrengo egunean eurok ekarriko eben baloia leiaketarako, eta jokatutuan, Tomas'en eta bion jabetasuna izaten jarraituko eban. Amaika errealak Tomas'ek etxean gordeko leukez, Piokanela'gan uste andirik ez neban-eta. Amaika errealok erdibitza eziñezkoa zan ezkerero, Tomas'ek auxe esondu eustan, eta nik ontzat emon be: bost erreal bana artuko gendukez, eta enparaukoa Timo'ri emongo geunskio, geure osasunerako bost “txikito” edan egiazan, sakristauak geinetan egarri dira-ta. Gau aretan etxera niñoala, bost errealak zer egingo neuken gogora etorri yatan. Izan be, garai aretan diruketa orren bidez gauza on bat erosi zeitekean. Ziba eder bat erosiko neuke, ala amabiko bostari eder...?

Eldu zan noizbait Igandeko arratsaldea, eta Timo'k baloia eroiala, atzetik Goikale ta Erdikale'ko taldeek jarraitu geutsan, alkarriketa kirolkoiari emonez. Englistarren zelaira eldu gintzazanean, zelaiguneko mugak arri batzukaz bereiztu ebazan Timo'k. Talde bakotxaren atea jake bigaz mugatu genduan, eta gerkun oneik amaituta, txistu bat az orniduta, leiaketeari asiera emon eutsan Timo'k. Arinlari ona izanik, aurrelartat jardun neban. Txanpona aidean jaurtita Goikalekoai ataratea etorri yaken.

Baiña “Azogetxu”ren baloi zoroa ikotika asi baiño ez, galduta zirudien goikaletarren, batetik bestera joiazala biribilki madarikatuaz alperrik jabetu naiez. Aldia igaro ala, uts ugari egin ostean bazirudian gure leikideak baloiaren ikoti zoroak menperatzen asten zirala, eta lenengo zatia amaitzean, naikoa ondo ziarduen. Bigarren zatia asi zanean, joko bardindu zan nabariki, baiña zailla gertatu yaken geuk artutako aurrerapena kentzea, eta Timo'ren txistua amaia iragarritz aditu zanean, zortzi ta bost irabazi genduan. Ordubete bat areago iraun ba'leu jokoak, ez dot uste irabazle urtengo gintzakezanik.

Dana-dala, garaipena burura igon yakun, eta “aupa” ta “aliron” ugarien artean, erdikalekuok uriko kaleak zearkatu genduzan, ibiltari guztiai iragarritz ostikolaritzan ez genduala etsairik. Gure kalera elduta, guztiai jakiñerazo geutsen zelako kirolariak gintzazan, eta gero kalerik-kale jarraitu genduan garaipena aldarrikatuz. Etxerako ordua egin zanean, Tomas eta biok kalera biurtzean, arandegi batetik Timo urtetan zala ikusi genduan, gure osasunaren alde boskarren “txikitoa” papar-lepo bitartera sartu ondoren. Gu ikustean gelditu zan, eta adorea jabetu eziñik, mintzo ozenaz,

– Eutsi, mutillok –oiu egin euskun–, biar jakingo dabe uri onetako kirolzaleek, zelako jasekoak diran Erdikaleko mutillak, bai orixe...!

Argitu bearrean naz, “Arratsaldea” eritxan izparringian kirol-saillean idazten ebal-

Timo'k, eta jendeak iñoanez, polito samar sakristau batentzat. Edozelan be, egi biurtu zan Timo'ren agintza, urrengo egunean, dalako egunkarian ospatutako leiaketari buruz, guretzat goragarria zan aren idazlan polita agertu zan-eta. Zer esanik ez, gure kaleari, baita niri be, ekarri euskun ospe andia. Onen ondorioz ikastetxean ostiko-taldekoa egin ninduen abo batez, eta nire uste apalez aurrelaritzat ez neban txarto jarduten. Ikastetxeke Egubena zoragarriak ziran. Goizeko mezaren ostean, marrazlaritza ta ereslaritza irakas-ten euskuezan, eta arratsaldean, Basarrate zelaira eroaten ginduzen Anaiek, gure biziko baloi-leiaketak izan gengiazan.

Gure garaipena jazota gero, Tomas'ek eta biok asmo andiak egin genduzan aalik eta onurarik andiena gure baloiari ataratearren. Zoritxarrez, baiña, gure amesak ustel billakatu yakuzan... Ona emen zergaitik: englistarren zelaian leiaketea ospatu ta egun gitxitara, arrasti baten ostikoka giarduala, patu gaiztoak nai izan eban, nire jaurtiketa bat denda batera sartu, eta ango argi-ontzia apurtu egian. Asarre gorripean, dendariak gaztaia ebagiteko erabillen aiztoaz, gure baloi ederretsia erditik ebagi, eta zatiak aurpegira bota euskuzan. Izan be, "Azogetxu"nean erosi izan arren, biribilki arek auxe baiño azken duiñoagoa merezi eban. Atsekabe andia artu genduan, eta aspaldi luze batez Tomas'ek eta biok, ez-bear aren ondorioak jasan genduzan.

Dana-dala, bost erreal bana bagenduzan gure aukeran erreteko: Tomas'ek metalezko ziba ederra erosi eban, eta onen bereiztasuna, bira egitean bere txistu atsegiña zan. Nik baneban zurezko ziba andia kordel bat az eragiten zana, eta augaitik aspaldi batez oldoz-ten jardun neban zertan erabilli nire bost erreal. Bein baten, jostailutegi baten aurretik igarotean, xardi (tiragomas) bikaiña ikusi neban. Onen salneurria, baiña, zazpi erreal izanik, Zabalbide'ko atsoai bidean gora otzarak eroaten laguntzea erabagi neban, eta andik laster, peitzen yatazan erreal biak bilduta, astirik galtzeke, ames egiñoiko xardia erosi neban. Argitu bear dot emen, Piokanela'k nire gauzak etxean onartzen ez ebazanez, beartua izan nintzan ezkutune egokia billatzera, eta noizbait, egokia zana idoro neban. Etxeko zurubian, mailla baten azpian ol-zati bat koloka aurkitu neban, eta zati au kenduta, barruko ezkutunean nire altxor guztiak gorde nebazan, onein artean, ziba ederra, bostarriak, labana bat, txanponak etab. Zulo onetan ezkutune ziburra egoan nire xardi bikaiñarentzat. Duan izanik, jaurtigaitzat bideko legarrak erabilten nebazan, eta arrotasun barik esan da-giket, ekiñaren-ekiñez jaurtilari ona billakatu nintzala; begia nora jaurtikia ara, izan be.

Lenengo ikasturte aretan udabarría eldu zan, eta sasoi bakotxari joko berezia ego-kionez, udea urreratzen zanean, muxika-azurren jokoari emon geutsan. Joko onetarako zulo bat egiten zan lurrean orma baten ondoan, eta eskubete azur artuta, txandaka zulora bota oi genduan, eta zulora geien sartzen ebana, axe irabazle.

Baegozan joko onetan jaurtilari bikaiñak, ni baiño askozaz yaiagoak izan be, eta azur-aroa asita laster, bildutako guztiak galdu nebazan. Lumatu ninduenean, joko aretan ez jardutea erabagi neban, bearrezko eskuar andi ta eskutur irmoa ez nebazan-eta. Bein baten, baiña, Beekale'n zear niñoala, mutiko batek kartoizko kutxa bat ormeari eutsita ebalá ikusi neban, eta jakingureak jabeturik urreratu nintzakion. Kutxaren estalkia zuloz beterik ikusi zeitekean, eta bakotxaren azpian zenbaki bat. Zulo andien pean zenbaki txi-

kiak ikusten ziran, eta txiekietan andiak; zertarako izango zan dalako kutxea nire buruari itauntzen neutsala, beste mutiko bat urreratu zan, eta kutxaren jabeari,

– Aiko, lagun –esan eutsan–, jokatu gura yoat.

– Ondo yagok, baiña igeltsuz egiñoiko marrik bota bear yok.

Jokalaria orduan, marra-ondoan jarrita, muxika-azurrak kutxeari botaten asi yakon. Zuloetatik sartzen ez ziranak kutxa-jabearentzat ziran. Lantzean bein, baiña, azurra zuloan zear sartu, eta onen ondoan egoan zenbaki beste azur, jaurtilariari emon bear eutsa-zan. Andik laster, sakelean eroiazan azur guztiak galduta, jaurtilaria beste iñora joan zan, kutxaren aurka itzelak-botatzen ebazala. Ikusitakoak oldozkor itzi ninduan, eta nire buruari esan neutsan, tramankulu aren bidez azurketa andiaren jabe billakatu neintekela. Aldi areitan, txakur txiki batean ogei muxika –azur erosi zeitekezan, beraz, azur asko irabazten ebazan sakela bete txiñez ebillen. Augaitik ba, kutxarena ikusirik, diru-gosea piztu yatan.

Astirik galtzeke Tomas'en billa joan, eta aurkitu nebanean kutxearen arazoa azaldu neutsan. Nire argibideak entzun-ala, Tomas'k zudu andiaren ezaugarriak erakusten ebazan, eta azalpena amaitu orduko, begiak adorez piztuta,

– Orixe egin bear yoagu, Patxi –esan eustan–. Beekale'ko babalasto orrek egiten yagikana, ez yoagu egingo geurok be...?

– Lenengo, kartoizko kutxa egokia jaritsi bear yoagu, Tomas.

– Ez larritu orregaitik. Aitak zenbat-gura yaukazak etxean, botoiak olakoetan sartuta erosten yozak-eta. Aiko, lagun, ni etxera joan bitartean, ekazak ire labana zuloak egiteko.

Laster azaldu zan Tomas, eta labanaz estalkian zulo ezbaridiñak egiñik, bakotxaren azpian egokiezan zenbakiak jarri genduzan, bitik asita ogeiraiño. Gerturik egoanean nai-koa berandu zan, eta ekintza urrengo egunerako geroratu bear izan genduan.

Biamonean, arrastiko oiko orduan ikastetxetik etorríta, Tomas'ekin batu nintza-nean, joko zein lekutatik astea eztabaidatu genduan, eta nire lagunak auxe esan eustan:

– Goikale'tik asiko ñeukek, aberaskumeak geienetan iñuzenteenak dozak-eta. Gaiñera, diru aldetik ondo izanik, azur asko izango yoek, eta guretzat oparirik errazetak.

– Ondo yagok. Gaiuzan ba.

Joan gintzazan ba gure kutxa zirikagarriarekin, eta orman eutsita zanean, jokoan niardualakoa egin neban. Laster, euliak eztira lez, Goikale'ko aberaskumeek inguratu ginduzan, eta alkarren leian urreratu yakuzan jaurtiteko nor lenengoa. Ordubete bat irau eban jokoak, eta Goikale'ko iñuzenteak lumatu genduzanean, etxera biurtu gintza-zan. Erdikalera biurtuta, zenbakiak egin, eta eun eta amabost azur irabazi edo lumatu izan geütsezala egiztatu genduan. Tomas eta biok eztitan gengozan, eta oi lez, irabazita-koa erdibanatu arte, azurrak nire lagunaren etxean gordeko ziran, olako gauzak Piokanela'k ez ebazan onartzen-eta.

Ordutik, muxika-azurren irabazteari emon geutsan, eta onen ondorioz, azurren kopurua millatik gora igon zan. Uzta ederra, izan be, dirutan biurtzeko. Baiña... zoritxarrez ikastaroa amaitu-agiñean zan orduan, eta azkenengo egun areitan, ikasleek azterketak atontzen giarduen, eta astirik ez jokoari emoteko. Onezaz gaiñera, ikastaroa amaituta, ur-

tero jazoten zan lez, iñori ez yakon bururatzin muxika-azurren joko, ugeri egitea, txi-
rrindolan ibiltea, eta olakoetan jardutea baiño.

Olan ba, Tomas'ek eta biok gure azurren bildumea saltzen erabagi genduanean, ez
zan iñor erosteko gerturik, eta salneurria asko beeratu arren, gure bildumea gitxietsia
izan zan. Guretzat garrantzi andiko arazoa izanik, batzar bat izan genduan, eta,

– Aiko, Patxi –itaundu eustan Tomas'ek–, zer egingo yoagu ainbeste azurrekin...?
Garaiz saldu ba'gaienduz, diru-pillo ederra jaritsiko gaiendukean. Orain, oster, erreale
bat bera be ez...

– Piokanela'k yiñoanez –esan neutsan–, orixe bera jazoten dok diru-merkatuan, edo
“Boltsa”n. Erosi bear dok akziñoak beeratzen dozakanetan, eta saldu goian yagozanetan.
Eretia igaro dokan ezker, ez yoat beste biderik ikusten, azurrok datorren udabarrirarte
gorde baiño, eta orduan saldu.

– Zuzen ago, Patxi. Amak zisku andi batzuk bayaukazak, eta areitariko baten gorde-
ko yoaguz.

Olan egin genduan, eta gure muxika-azur gitxietsiak, zisku andi baten sartuta,
urrengo udabarriaren begira geratu ziran.

“Eroslea”ren ikasleek, ikasturtea amaituta, legezko azterketea jasan bear izaten gen-
duan erdi-maillako ikastegian edo institutoan, eta astebete baten zear izan genduzan.
Asiera baten, zeozer estu ta larri ikusi neban nire burua, baiña egunak igaro-ala nasaitu
nintzan. Amaitu ta egun batzutara, urrengo ikastarorako onartua izan nintzala jakin ne-
ban. Urrilla'n, bigarren ikasturteari asiera emongo neuskio. Esan bearrean naz, goreneta-
ko ikasleen artean ez banintzan be, txarretarikoen artean ez nengoala. Aurrera jarrai-
tzeko beste aalegintzen nintzan, liburuen jopua biurtu barik, erdiko maillari polito eusten
neutsala. Gairik kutunena ludiztia neban, munduko lurrak, itsasoak, ibai-mendiak, etab.
argi marraztuta nebazala gogoan. Buruz ikasteko ziran ikasgaiak, aitzitik, ez nebazan go-
gokoak.

Oporraldia asi ta amabost egunera, gau baten Piokanela'k Caribe'ko palmondoen
zoritarra aldarrikatuz sillu-bildumeari emotsala, aren karraxiek uxatuta, oi neban lez,
sukaldean babestu nintzan, izeko Asentzi'rekin autu atsegin bateri emoteko, eta antxiña-
ko euskal abestiak entzutearren batez be. Izeko abots gozokoa zan, eta sen berezia eban
abestiari erakarpen goren emoteko. Abots isiltsuaz ziarduan, baiña niretzat aretan abe-
rriaren olerti yaukalak dardar egiten eban. Gau aretan sukaldara sartu nintzanean,

– Aizu, izeko –eskatu neutsan–, zergaitik ez daustazu abesten zeozer...?

– Gaur beste gai bat erabiliko dogu. Ara... aspaldi baterako nire jaiotetxera joango
naz...

Au entzutean, atsekabe bakanak menperatu ninduan, eta Piokanela'rekin bakarrik
geratuko nintzakela somatzean, barrutik auxe iges egin yatan:

– Izeko, bakarrik itziko nozu emen...?

– Ez, Patxi, nirekin etorriko zara.

– Eta osabak baimena emongo daust...?

– Bai, Patxi, baietz esan daust.

Eta gero berekiko antzean, irribarre goibelaz,

– Zelan ez, baiña...? Nire janaria baita zeurea be aurreztuko dauz-eta...

Pozaren-pozez izeko besarkatu neban, eta,

– Izeko –itaundu neutsan–, noizko izango da...?

– Etzi goizean abiatuko gara.

Ezin nengikean siñistu izeko Asentzi'k iñostana egia zeitekeanik, eta gau aretan zo-
rionez gaiñezka oeratu nintzan. Ez neban ezagutzen nora niñoan, ezta zeintzuk gizaki
ezagutuko nebazan be, baiña nire izate guztia ezitan eta zarrastaturik oartzin neban. Ze-
ru garden aretako odei bakarra, Tomas barik joatea zan, baiña andik biurtuta, barriro be
alkartuko gintzakez ikasturte barria asteko garaian. Erabilten neban janzi bakarra garbi-
tu ta birjosi ondoren, izekok oiñetako merkeak erosi eustazan, barruko aldagarri bat ger-
tatu, eta noizbait, ames egindako eguna eldu zan.

Goizean goizik jagita, bidezorroa artu, eta oraindiño oean egoan Piokanela'ri agur
esan geutsan.

– Aizu, Asentzi –esan eutsan Piokanela'k–, kontuz, gero, diruaz. Generoak gero ta
karuago dabiz, eta zartzarorako zeozer gorde bear, bestelan gureak egin dau... Eta zu –ni-
ri zuzenduz– ganorabako ori, ia zentzuna yatortzun, arlote baiño besterik ez zara-ta.
Agur, eta ondo ibilli

– Agur –esan geutsan–.

Kalera urten gintzazanean, Tomas gure begira egoan, eta irurok erri-berebillen gel-
tokira abiatu gintzazan. Nire albotik joian Tomas goibel egoala iruditu yatan. Geltokia
enparantza txiki baten egoan, eta eldu orduko berebilla beteten asten zan. Laster egokitu
gintzazan izeko ta biok, axe gitxi geroian-eta. Nire poz andirako, izekok leiatillaren on-
doan jarri ninduan. Laster asi zan eragikiña (motorra) abiatan, eta leiarra beeraturik, ne-
gar egiteko zorian egoan Tomas'eri,

– Aiko, Tomas –esan neutsan– ez adi atsekabetu, laster biurtuko gozak-eta. Illabete
baterako bakarrik izango dok, eta konturatu orduko emen izango gozak oster be. Gorde
ondo azurren zorroa, ia datorren urtean diru-pillo polita ataraten yautsagukan Biurtzean,
oraindiño uda izanik, eu ta biok Ibarsusi'ko urgeldira ugeri egitera joango gozak, eztok
Tomas...?

Baiña berak isil eta goibel zirauan. Alako baten, eta berebilla abiatzen asten zanean,
auxe entzun neutsan:

– Patxi, nor irekin joan...!

An gelditu zan igige ta bakarrik, begietan malkoak agiri ebazala. Auxe izan zan To-
mas'egandik ikusi neban azkena... Neugan, baiña, astirik ez gogoeta goibelai emoteko.
Izan be, berebil baten niñoala lenengoz izanik, niretzat dana ikusgarria zan, uritik urten-
da batez be, zabaldian zear giñoazala. Zoragarria zan nenkusan guztia, eta ikuspegi barri
batetik dana ikusten asi nintzan. Ordubete bi inguru iraun eban bidaldi zoragarri arek, eta
eguberdi-irian Markiña'ra eldu gintzazan. Emen, izekoren jaioterrirako berebilla itxaron
bitartean, etxetik ekarritako ogitarteko batzuk jan genduzan, eta Markiña'n zear oster-
txu atsegiña izanda gero, beste erri-berebil baten izeko Asentzi'ren errirantz abiatu gin-

tzazan, eta ordubete bat-edo igarorik, erri txiki bateko enparantzan gure berebilla gelditu zan.

– Eldu gara, izeko...? –itaundu neutsan–.

– Auxe nire erria da, baiña jaiotetxea urruntu dago, an goian, mendi aretako egian kokatuta.

Au esatean, Izeko Asentzi'k mendi garai bat erakutsi eustan, eta astirik galtzeke, bide-zorroa artuta, gurdibide batetik aldapan gora abiatu gintzazan. Izeko, baiña, laster asi zan arnas-estuka, eta au ikusirik, bere jarkipenari jaramon egin barik, bide-zorroa kendu neutsan, eta bidean gora jarraitu genduan. Ordubete bat igarorik, alako baten okergune baten ostean, laugune baten kokatua basetxe ederra agertu yakun irureun bat metrora. Nekearen-nekez izeko arri baten gainean jesarri, eta auxe esan eustan:

– Patxi, ori Iragoikoa, nire jaiotetxea da.

Izekoren begietan argi barria nenkusala begitandu yatan, maitasunaren-maitasunez jaiotetxea begiztatzen ebalu. Aurpegiaren oiko itxura motela, bizibagea, neketsua, ezabatu izan yakon, eta gazte-itxura lako zerbaitek edertua zirudian. Karantz barri onen pean begiztatzen nebalu, asperen egin eban, eta,

– Iragoikoa, nire etxe maitia –astiro ta maitetsu iges egin yakon–, barriro be bazakust...!

– Izeko –esan neutsan–, zure jaiotetxea leku zoragarrian dago.

– Bai, Patxi, olan da. Inoiz laga bear izango ez neban lekua...

– Ainbeste maite izanik, zergaitik itzi zenduan...?

– Gazteegia zara, Patxi, eta augaitik bizitzaren alde latza ta itsusia ez dozu ikusten. Ara... bost anai-arreba jaiotetxan Iragoikoa'n, eta gure basetxetako legeari jarraituz, Yon Mikel etxeko oiñordea izanik, berari egokion etxaguntzea. Au gure erriko lege uxaeziña da, eta etxeko enparauok banan-banan, sasoiu elduta jaiotetxea laga bear izan genduan. Amazazpi urteko nintzanean, aitik nire garaia zala uste izanik, uriburura neskame sartu ninduan etxe on baten, eta an jardun neban, etxe bateri dagokiozan arazoak ikasiz. Ogei ta bi urteko nintzala, ezkondu nintzan osaba Pio'rekin. Ez dogu umerik izan, eta ez dakit augaitik izango ete, baiña nire senarrak ez nau inoiz aintzakotzat artu... Nire bizitzaren antzutasuna...! Badira umebako senar-emazteak zoriontsu bizi dirala, alkarregan euren maitasun guztia isuriz, baiña ni ez naz orren zoriontsua izan. Berak ez nau maite, eta aregan erantzunik ezean, maitasuna agortu egin yat...

Malkoak eriozan izekoari aurpegian beera jaiotetxea begiztatzen ebalu. Gero, berekiko mintzatuz, onetaraxe jarraitu eban:

– Oba neskazarra etxean geratu ba'nintz, edo moja sartu, batek-baki...!

Malkoak txukatu ebazan, eta gero zutunduta, jaiotetxera abiatu zan; alboan jarri nintzakion, eta bultz bakanak eraginda,

– Izeko Asentzi –esan neutsan– jakin bear dozu, neuk maite-maite zaitudala.

Gelditu zan, eta nigana makurtuta musu maitekorra emon eustan auxe ziraustala:

– Jaungoikoak bedeinkatu zagizala, Patxi. Arlote ta guzti urrezko biotzekoa zara. Oi, lenago etorri ba'zintzakidaz...! Ondatu izan da nire bizitza, eta orain beranduegia da,

Patxi, baiña auxe bai, adierazo nai dautsut: basamortu utsa biurturiko nire bizitza onetan, zeugan aurkitu dot oiñazeen aringarria, eta nire illuntasuna argitzen dauan itxaropen-izpia...

Eta isillean bideratu gintzazan etxeraiño. Eldutakoan, oles egin genduan, eta etxe-koandrea agertuta, izeko ikusi ebanean, besarkatu eban auxe inotsala:

– Noizbait etorri zaiakuz, Asentzi...ongi etorria biotzez...!

Eta gero ni ikustean musu bat emon eustan, eta auxe esan eban:

– Auxe izango da, zera... zuen...

– Bai, Maritxu, auxe dogu Patxi gure loba, mutil ona benetan.

Era onetan asi neban aztueziña billakatu zan egotaldi zoragarria Iragoikoa'n. Ez neban uste ain zoriontsu izan neintekeanik, baiña illabete ta erdiko oporraldi arek, betirako iraungo leuken aztarna sakona laga eustan.

Osaba Yon Mikel, izekoaren nebea, Iragoikoa'ko etxejoaun saiaturia zan. Ez neban inoiz geldirik ikusten, etxeko betekizunak zalaparta andi barik inurrien antzera egiten ekiana zan. Izeko Maritxu'k bere emazteak, bost seme-alaba izanez gainera, baeban zeri begira etxean arazoak ondo erabilteko. Bost seme-alabetarik, zaarrenak mutil bi ziran, Yon Mikeltxu, etxeko oiñordea amazortzi urtekoa, gero Yosu amazazpikoa abadegia beara, eta orain etxean egoana udako oporrak emoteko. Iru neska etozan gero, Karmele, Nekane ta Arrate. Azken au nire adiñekoa izanik, ene geriza bai'litzan leku guztietara laguntzen eustan.

Basetxeko bizieria atsegin yatan, eta lenengo unetik etxeko lanetan jardun neban, noiz etxejoaunari, noiz oiñordeari lagunduz. Batzutan, etxe-gaiñetik jagiten zan menditontorrera, Yosu abadegaiarekin niñoan, eta andik, Markiñalde mugatzen eben mendiek ikusgai ederra eskintzen euskuen. Ara Oiz, Kalamua-Urko, Igotz, Akarregi ta abar, an beean kokatzen ziran baserriak babestu nai bai'leuzan. Yosu mengoizale porrokatua zan, eta ikusten genduan guztiaren izen eta zeatzak emostazan. Bestetan, bedar-ondua gurdira zamutzen laguntzen neutsan etxejoaunari, gero etxaurreko metatan jarteko. Bageñoazan egurketara be, eta idiak buztaturik, bidean gora abiatzen gintzazan akuillua neuk nerabilela errege baizen garrantzitsua oartzen nintzala. Etxerakoan, gurdia aldapan beera joiala, osaba Yon Mikel'ek galgea estuturik, lau aizeetara sakabanatzen zan gurdia- ren kirrinka sarkorra. Zoragarria azaltzen yatan baserriko bizieria, eta aal izan ba'neu, an geratuko nintzan betirako. Patuak, baiña, beste bizibide bat aukeratu izan eban niretzat, eta etsi bear...

Etxe aretako guztiek maite ninduen, baita nik eurak be. Gabeko apalostean Yosu'k zuzenduta, errosarioa esaten genduan eta jarraian alkarrizketa bateri emoten geutsan. Bein baten, Yosu'k zirikatuta, umezurtzegiko gora-beerak edesten asi nintzakien, eta asmatu ezin nengikean arrakasta lortu eban nire edeskiak. Arrezkero, errosarioa edo agurtza amaitzen zanean, etxeko guztiek inguratuta, nire gora-beerak edestu oi neutsezan. "Kokotxu" arduralariaren pean jasandako gosetea azaldu neutsanean, Arrate zoragarriari begiak malkoz laiñotu yakozan, baiña "Sorgiñetxe" antzerkiaren ostean jaurti nebazan bertsoak entzun ebanean, arkuak austeko zorian barre-santzoka asi ziran. Arrakasta

itzela jaritsi eben nire bertsoek etxe aretan, eta bein eta barriro bota bear izan neutsezan, danek buruz ikasi arte. Zigor-gelako sagutuarena entzun ebanean, Arratetxu'k txalo jo-teari emon eutsan, eta,

– Aiko, Patxi –esan eustan–, gure ganbaran badozak zenbat-gura sagutxu. Zergaitik ez yok areitariko bat galtzerdian gora igon-erazo, an egin euan lez...?

Ez neban gura, baiña, nire oporraldia saguen artean emon, eta guzur auxe bota neutsan:

– Aino, Arrate, umezurtztegiko saguek gosearen-gosez oso jakintsuak biurtu dozan, baiña emengoak intxaur eta artoz loditurik, adimen urrikoak dozan galtzerdian gora igoteko.

Agiri zan, Iragoikoa'tarrek nire edeskiak atsegin ebezala. Izan be, jazoerak zeozer arrotzen nebazan, nire asmamenaren gatz eta piperraz apainduta. Augaitik ba, umezurtztegiko jazoeren edespena amaitu yatanean, abo batez jarraitu nengian eskatu eusten, eta ez neban beste biderik izan, arrezkeroko gora-beerak edestu baiña. Olan ba, eguneroko agurtza amaitzen zanean, etxeakoak inguruan jesarrita nebazala, oera joan arte nire ezpantetatik dilindan egon oi ziran.

Egunak, baiña, nik uste baiña ariñago igaro ziran, eta egun baten Iragoikoa zoragarritik alde egin bear izan genduan izeko ta biok. Banan-banan agurtu nebazan etxeakoak, eta azkena izan zan Arratetxu'k auxe esan eustan:

– Egunero gogoan izango aut, lengusu Patxi. Ikastolara asi nokanean, idazte-jardunaldietan, ire gora-beerak eta bertsoak idatziko yoadaz. Ez az asarratuko orregaitik, ezta Patxi...?

– Ez Arratetxu, ezelan be ez. Datorren udean aurtengo gora-beerak edestuko yau-nadaz, baita bertsoak zelán atondu be...

Estu-estu besarkatu ninduan neskatoak, eta jarraian, etxeke zalpurdira igon gintzazan izeko ta biok, etxejoaunak erriko enparantzaraiño eroan gengizan, emen, Markiña'rako erri-berebilla artzeko. Naigabez biurtzen nintzan, eta izan be areago, ain zoriontsua izan ostean.

Erri-berebilla Markiña'ra sartu-agiñean zala, nire ondoan isillik zirauan izeko Asentzi'ri begiratu neutsan, eta orduan egiztatu neban, illabete ta erdi arek zelako aldakuntza ekarri izan eutsan. Osasuntsuagoa emoten eban, eta senitarteekin igarotako atsedendialdiak gaztetu ebala agiri zan. Aldakuntza oneri lagunduko eutsan, "larranbillo"rik edan ez izateak, urrean. Uriburura urreratu-ala, baiña, izeko Asentzi'ri begien dizdira ostentzen asten yakon, oiko itxura kadentsuak ordeztuta.

Neu be atsekabetuta oartzen nintzan, ain zoriontsua izan nintzan lekutik biurtzean, baiña ordu aretako samintasuna, neurri andi batez arindu yatan, zelako aurrerapena egin izan neban euskeraren arloan, gogora etorri yatanean. Izan be, Iragoikoa'n emondako illabete ta erdi aren ostean, euskeraz parra-parra egiteko gai nintzan, an bertan jaio izan bai'nintzan.

Uriburura eldu gintzazanean, izekori asperen bat iges egin yakon, eta bide-zorroa artuta, etxera abiatu gintzazan. Bidean zear giñoazala, alkarrizketa bat sortzen aalegindu

nintzan, baiña bere oldozkUNETAN murgilduta, izekok ez eustan jaramon andirik egin. Berandu samar eldu gintzazan etxera, eta Piokanela'k ikusi ginduzanean, ez euskun adore andirik erakutsi.

Bigarren ikastaroa asteko astebete bat peitzen zan oraindiño, eta Tomas ikustea irrikatzen neban, Iragoikoa'n izandako gora-beeren jakitun ipinteko. Eldu ta urrengo egunean jatsi nintzan ba kalera, eta aren billa oiko lekuak ikertu nebazan, baiña ezin iñondik aurkitu. Inguruko kaleetara jo neban, baiña ordubete inguru gora ta beera aalegindu arren, ez neban ikusi. Aspertuta, beste lagunekin jolasteari emon neutsan bazkalordurarte. Arratsaldean, ikus-naiak zirikatuta, Tomas'en billa asi nintzan barriro, baiña goizean lez ez zan iñondik azaldu. Noizbait, gogait-eraginda, arratsalde-erdian nire adiskidearen etxera jo neban. Etxeko lenengo maillan bizi zan, eta atean kox-kox egiñik, itxaro-une luzearen ostean, nire lagunaren amak atea edegi eustan. Izan be, onen itxureak arritu ninduan; aurpegi atsekabetuaren inguruan zapak jausten yakozan, eta begi motelen gorritasunak negar asko egiña zala adierazoten eban. Bildur bakan, esan-eziñak, menperatu ninduan ezustean, eta mintzo erabetiz,

– Andrea –esan neutsan–, Tomas etxean al-da...?

– Ez, Patxi, joan da...

– Nora, baiña...?

Orduan, negar-zotiñek astinduta, auxe esan eustan:

– Zerura joan yaku orain amar egun... Nire gaixo maitia... azken egunetan oe-burutik alde egin barik emon dodaz... baiña dana alperrik, gure Tomas kutunak laga egin gaitu...

Une luze batez iraun eban gaixoa suur-zapiñoaz malkoak txukatuz, eta gero zeozer bareturik,

– Sar zaitez, Patxi –esan eustan–, eta dana esango dautsut.

Sarrerazo ninduan iker-gelara, eta aurrez-aurre jesarrita, nire lagun-miñaren gora-beerak onetaraxe emoten asi yatan:

– Zu joan eta laster, Tomas jangartu zan, eta latz-ikara bakanak artuta sukar andia etorri yakon. Alako baten, bekokian zaldar andia sortu yakon esi gorri batek inguratuta. Onk kezkatu ninduan, eta astirik galtzeke osagilleari dei egin neutsan, eta Tomas aztertu ondoren, ezer gitxikoa zala esan eustan. Baiña ni nasaitu ez, gero ta txartoago nenkusalako, eta osagilleari barriro dei egiñik, txaplasta bat zaldar-gaiñean ipiñi nengion agindu eustan. Baiña dana alperrik azaldu zan, eta gatx zital arek bizitza marraskatzen eutsan. Orain amabost egun-edo, sukarra berrogei ta bat maillaraiño igon egin yakon, eta zentzuna galdurik, ulertu ezin nengikiozan gauzak aipatzen asi zan. Sukar gaizto aren pean, nire ume gaixoa azur-meta biurtu zan, jan ez eban gura-ta, ezin-egonak artuta batetik bestera oe-gaiñean iraulkatzen zala. Aurpegi zimelean begi andi kiskaltsuak agiri ebazan, izar sutsu bi lakoak.

Isildu zan une batez oiñazeturiko ama gaixoa, eta mara-mara eriozan malkoak barriro be txukatutik,

– Azkenetariko gau baten –jarraitu eban–, zentzuna biurtu izan bai'litzakion, nire eskuari eutsita, auxe itaundu eustan: "Ama, non dago Patxi...? Esaiozu etorri dakidala ni-

rekin jolasteko, bera barik aspertuta nago-ta. Erri-berebil baten joan zan nik ez dakit nora... Zergaitik ez dator...? Esaiozu begira nauala Ibarsusi'ko ur-geldian ugeri egiteko... Au bai beroa...!" Eta izara alde batera jaurtita, oetik urten gura izan eban... Arrezkero, gaixoak ez eban beste berbarik egin. Azkenetariko egun baten, Jauna ta elizakoak artu ebazan, eta amaitu-agiñean dagoan kandelatxu baten antzera, itzungi zan arrasti baten. Urrengo egunean, bere arimaren aldeko eleizkizunak parrokian ospatu ziran, eta jaunartze-soiñeko zuriz jantzita, obiratu genduan orain amar egun...

Arratsaldeko azken argi motela sapailloan zear gelara sartzen zan, laster danatzaz jabetuko zan illuntasuna iragarritz. Eta aurpegia eskuen artean, Tomas'en amak negar etsiari emotsala, egoerea jasan eziñik, jagi, eta etxetik urten nintzan nora ez nekiala. Zurubian beera niñoala, negar-zotin etsiak astindu ninduan, eta malkoak mara-mara eridazala kalera urten nintzan. Or-emenka norabarik ibilli ondoren, gau betea zala etxera biurtu nintzan.

Nire adiskidearen eriotzak zauskada iraunkorra egin eustan. Orain oartzen nintzan noraiño maite izan neban nire laguna, eta bera aiña ez neukela iñoiz beste lagunik maite izango, barruko zerbaitek iñostan. Egunak luzeak biurtu yatazan nire adiskidea beti gogoan nebala, eta txoko guztiek Tomas'ekin bizi izandako uneak gomutara ekarstezan. Zorionez, bigarren ikastaroko asierea ur egoan, eta andik laster, "Eroslea"ren atek ikasleentzat edegi ziran.

Ikastaro barriak edonoregan eragin oi dauan zarrastadeari esker, astiro-astiro nire atsekabea ibitzen asi yatan, eta beste ikaskideen laguntzak oiko bizitzan murgildu ninduan. Ikastetxean asi ta illabete batera-edo, gogora etorri yatan, Tomas'en etxean zorro bete muxika-azurrak gordeta egozala, eta altxor onek bere garaiaren ekarriko leuskidan onura kili-kili egiten asi yatan. Lenago joan ez ba'nintzan, barruko zerbaitek eragiten eustan lotsagaitik zan, eta beti gerorako lagaten neban. Oartzen nintzan, baiña, larregi geroratzekotan, nire altxor ederretsia arriskuan jarri leitekela, eta ezinbestekoa zala, beraz, zorroaren billa joatea berandu barik.

Bein baten, beraz, ikastetxetik etorrira, muxika-azurren billa joatea ebatzi neban. Abiatu nintzan ba Tomas'en etxera, eta atea jota, etxekoandrea edegi eustan. Musu maitekorra emon ondoren,

- Kaixo, Patxi -esan eustan-, au nire poza zu ikustean...! Zer nai dozu, maite orrek...?

Korapillo bat eztarrian kokatu izan yatan, baiña indarraldi bat egiñez,

- Ara ba, Andrea -gorri eginda esan neutsan-, lengo ikastaroa amaitu orduko ba... Tomas'ek eta biok, ba... zorro bete muxika-azur emen gordetea ... erabagi genduan, nire etxean gordeterik ez neban-eta...

Aurrera joan eziñik isildu nintzan. Orduan etxekoandreak bekokiari txalo egiñez, auxe esan eustan:

- Ene bada...! Bai, gogoan dot orain aipatzen daustazun dalako zorroa... baiña zori-tzarrez ez nekian zeurea zanik be, eta Tomas'en eleizkizunetara etorri zan nire loba bateri emon neutsan, bere lagunekin jolas egian. Au bai tamala...!

Ez dakit zelako atsekabea irakurriko eban nire aurpegian, baiña ezustean auxe esan eustan:

- Itxoin pixka bat, Patxi, zeozer zuretzat badodala uste dot-eta.

Joan zan, eta andik laster, eskuarrean iru altzairuzko bostarri eder ekarrezala agertu zan, eta niri eskuraturik,

- Eutsiz, Patxi -esan eustan-. Nire Tomastxu laztanak ederresten ebazan benetan bostarriok, eta aren oroigarritzat gorde egizuz.

Esku dardartsuakaz artu nebazan, eta etxekoandreak eskerrak emonik, zurubian beera oldartu nintzan. Pozez gaiñezka eskuan ondo cutsita neroiazala, kalera urten, eta argimutil baten pean gelditurik, aztertu nebazan. Tomas'en altxor ederretsia...! Sarri askotan sakeletik atara oi ebazan, eta suur-zapiñoaz igurtzi, dizdira galdu ez egien. Mundu onetan nik zeozer irrikatzekotan, Tomas'en altzairuzko iru bostarriok ziran, eta orain eskuarrean nebazala, bost ardura niri galdutako zorro bete muxika-azur, eta berak oi ebaren antzera, suur-zapiñoa atara, eta begirunerik andienaz igurtzi nebazan. Izan be, bostarri areik guztitariko ardurak merezi ebazan, eta kaleko argipean zidarrezko bitxiak zirudien. Eper-arrautzen kaizukoa ziran, eta ukimena ziriko-antzekoak. Luzaro begiztatu nebazan, eta gero sakelera sartuta, etxera biurtu nintzan.

Ain zuzen be, andi ta astunegiak ziran praka-sakelean eroateko, eta onezaz gaiñera, Piokanela'ren bildurrez, zurubiko ezkutunean, ziba, xardi, eta labanaren ondoan gordetea erabagi neban. Olan ba, betiko ol-zatia kendurik, utsune illunera sartu nebazan, eta poza-ren-pozet txistuka, mailladian gora etxera abiatu nintzan.

Sasoi aretan, bostarri-jokoa erabilte betean aurkitzen zan, eta Tomas'egandik jarauntsiriko altzairuzkoak oso egokiak izan arren, ildako adiskidearen oroigarritzat areik ez erabilte ebatzi neban. Noizean bein, ezkutunetik atarata, eun-zati bat az igurtzi, eta gero begirunerik andienaz lengo tokira biurtzen nebazan.

Bigarren batxiller-maila bajoian aurrera, eta beti lez, urtenenatarikoa izan ez arren, asteroko nire ikaste-eritxiek, batz besterik erreskadearen erdian jarten ninduen, au da, er-taiñen taldean. Bigarren ikasturte aretan, Tomas'en laguntza uts emoten neban, eta egu-neko jarduna amaitzen zanean, jokoari emoteko adore barik, or-emenka nenbillen kalee-tatik, eta aspertzen nintzanean, etxera niñean, izeko Asentzi'rekin autu bateri emoteko, edo-ta ain atsegin yatazan euskal soiñuak ikasteko.

Orain luze ta aspergarri bihurturiko jaiegunak, ez nekian zelan emon, baiña zorionez, zerbaitek egoera aretatik atara ninduan. Ikastetxean, bagenduan irakurte-areto ederra gu-re aukeran, eta jaiegunetan guztitariko idaztiak irakurri zeitekezan, esaterako, Jules Ver-ne, Emil Salgari, Jack London, Walter Scott, Aita Finn, eta beste idazle yaioen lanak. Ikastaro aretan, beraz, dalako aukera ustiatuz, jaiegunen arratsaldean ikastetxera niñean, eta mai baten aurrean jesarrita, elebarri edo edeskiren bat eskatuta, mundu zoragarrietan zear murgiltzen nintzan, ordubeteak igarri barik igaroten yatazala. Batzutan, ludiztiari neutsan zaletasunak eraginda, mapa-txorta ederren bidez, liburu areitan azaltzen ziran gora-beera yaukalai jarraitzen neutsen. Izan be, jardun au oso lagungarria azaldu yatan, eta au zala-ta, ludizti arloan alde andiaz lenengoa nintzan. Ateak itxi arte irakurte-are-toan nirauan, eta etxera biurtzen nitzanean, nire asmamenak gizandi zangarra biurtzen ninduan, ekintzarik andienak egiteko gai sentitzen nintzala. Zoritxarrez, baiña, Piokane-la'ren arrunkeriak laster jatsi-erazoten ninduan amesen mundutik, berarentzat diru-zale-keri ta kanela baiño, besterik ez goan-eta.

Udabarria etorri zan oster a be, eta beronekin bizitzaren arnasa zabalditik uriko baz-ter ezkutuenetaraiño edatu zan, amesak, argia, lorak eta maitasuna nonai itxarten zirala. Udagoian eta neguan gaztaiñak esku-orgatxuetan erretzen ziran, usain erakarkorra nonai sakabanatuz. Udabarriaren zantzuak agertzen ziranean, gaztaiñen esku-orgatxuak osten-tzen ziran, eta aroko lenengo beroak asi baiño ez, ustekabez izozkien orgatxuek euren gai zirikatzailla eskintzen eben.

Ikastetxetik ur samar egoan "Errepublikako papera"ren txoritokiko enparantzan, udabarri oro areitariko orgatxu bat espaloi-ondoan kokatzen zan. Apain eta ondo mar-goztutako gurditxuan, artz zuri batzuk inguratutik, izotz-mendi edo "iceberg" bat ikusi zeitekean, eta margozki onen inguruan, idazkun auxe ikusten zan: "Helados El Rianxei-ro". Bitariko izozki salgai ziran ontzi banatan. Batean "mantecado" eta bestean "prali-né", norberaren aukeran. Ontzien estalkiak urredu bai'litzazan, apaintasun atsegiña

emotsoen orgatxuari, eta erakarpema geitzeko, albo baten zenbakidun txirindola biralaria ikusten zan, untzez mugaturiko, utsa, bat, eta bi aldizkatzen zirala, eta eroslea areago zirikatzeko, utsune baten 10 zenbakia agertzen zan. Bezeroek ordainduta gero, txirindoleari ekiten eutsoen, eta atzamar baten antzekoa zan narru-zati bat gelditzen zan utsunean, emen agertzen zan zenbakiaren giñoan artzen eben.

Izozkilariari “El Rianxeiro” esaten geutsan, eta izenak adierazoten ebanez, galizitarran zan. Gizon lodikote, aurpegi gorriak onek, ibiltarien arreta irabaztearren, noizean bein onetaraxe aldarrikatzen eban: “El Rianxeiro”, el mejor heladeiro...!!! Amantal eta txano zuriak erabillean, eta aroari egokionez makutsik egoan. Gizonezkoekin koipetsu, mutikoekin zakar izatearen aipua eban.

Baziran bederatzia illabete-edo, azken izozkia txastau izan nebanetik, eta Orrillaren arratsalde berotsu aretan orgatxuaren aurretik igarrotean, irrika jarki-eziñak artuta, sakelean txakur txiki bat (bost zentimo) neukala oartu nintzan, ziba-jokoan irabazita, izan be. Orgatxuaren ondoan jarrita, izozkilariari luzatu neutsan txiña, eta arek orduan,

– Zelan gura dozu –itaundu eustan–, jokatzu ala jokatu barik...?

Jokatzu, txirindoleari eragitea zan, eta jokatu barik, txiñaren ordainez zati neurtu bat artzea, 10 zenbakiaren arriskua jasan barik. Nire begiak, baiña, txirindolearen 10 zenbakian josita egozan, eta joku-irrikak menperatuta,

– Jokatzu gura dot –esan neutsan mintzo irmoz–.

Une aretan, “El Rianxeiro”ren alboan eta onekin berbatan, denda-morro itxurako mutil bat egoan, lurrean otzara bete jangai ikusi zeitekean-eta. Txirindolatik arra baten bitartera iñar edo erratza baten kirten luzea jarrita egoan.

– Ekarki dirua –esan eustan izozkilariak–, eta ekin txirindoleari.

Olan egin neban, baita indartsu ekin be. Txirindolea ibilli bitartean, gogora etorri yatan auxe: pisu bat ipiñita ebalu ezkutuan, iñoiz 10 zenbakia jaurri ez zeiten. Orduko, txirindolea gelditzen asten zan, eta alako baten, atzamarra 10’ean kokatu zan. Gorri-gorri egindako izozkilariak ezin egikean siñistu ekusana, eta noizbait, tartailloka auxe esan eban:

– Eziña da, eziña...!

– Eziña dala diñozu...? –erantzun neutsan– Argi dago ba, atzamarra 10’ean kokatu dala.

Orduan, alboan egoan denda-mandatari zitalak, izozkilariari laguntzearen auxe esan eban:

– Jaurtiketea ez da benetakoa izan, erratzaren kirtenak txirindolea irristadan ukutu egin dau-ta.

– Bai orixe...! –esan eban El Rianxeiro’k– niri be orixe bera antz emon daust-eta.

Eta jarraian, niri zuzenduz,

– Dana– dala –esan eustan itxura emonkorraz–, izozki barik joan ez zaitezaz zeozer emongo dautsut.

Au esanik, “mantecado” ontziaren estalki dizdiratsua kendu, eta txuntxur txiki baten kokatuta, izozki ziztriña eskiñi eustan. Zur eta lur nengoan, alako lotsabagekeria siñistu

eziñik. Orduan, izozkilari lodikoteak apurkeri a luzatzen eustanean, sumin esan-eziñak artuta, izozkia aurpegi betera jaurti neutsan, alde egiten nebala. Nire jarraian oldartu gura izan eban berak, baiña begitartean jo eutsan izozkiak begimena eragozten eutsan, eta amantalaz gai itsaskorra aurpegitik kendu bitartean, kantoi batetik ostentzen nintzan, aren birao-añenek jazarrita.

Etxerakoan, neugan beti bizirik egoan Patxi Arlote itxartu, eta orruka apentza eskatzen asi zan, eta izan be, ereti aretan zuzen egoan. Etxera sartu nintzanean, nire itxuraz, izeko Asentzi’k zeozer ezoitua igarri eban, eta aren itaunai erantzunez, jazorikoa edestu neutsan. Amaitu nebanean, txakur andi bat (amar zentimo) emon gura izan eustan, baiña nire duintasunak eskintzea zapuztu eban.

– Begira, Patxi, jazorikoa aztuizu, eta artu txin au beste izozki bat erosteko.

– Ez, izeko, nik ez dot beste izozkirik gura.

– Zer nai dozu ba...?

– Lapur areri berea emotea.

– Baiña begira... mundu onetan bidebagekeri ta iraiñak jasaten ikasi bear doguz, baita aztu egin be, bestelan beti ernegatuta bizi izango zara.

Ez neutsan ezer erantzun, eta gau aretan ia apaldu barik oeratu nintzan, buruan besterik ez nerabilela, nire mendekua baiño. Eta augaitik loak berandu artu ninduan. Alako baten ames egin neban...

Kaleko espaloian jesarrita nengoan, eta ezustean nire alboan Tomas ikusi neban.

– Kaixo, Patxi –adiskidetsu berak–.

– Kaixo, Tomas, aspaldiko ori...!

– Artega ta asarre ikusten aut, zer dok-eta adiskide...?

– Gaur itzela jazo yatak, Tomas...

– Esaidak dana, Patxi, ezer aztu egin barik.

– Ara...

Eta jarraian, arratsalde aretan jazoriko guztia esan neutsan. Amaitu nebanean,

– Izan be, Patxi –esan eustan maitetsu–, ire asarrea bidezkoa dok, eta zeozer egin bear...

– Orixe bera dok, nire buruari niñotsakana, zer baiña...? Bertso batzuk egin yaike-daz eta bere aurrean bota, baiña bera galizitarra izanik, bost ardura...

Une luze batez isillik iraun eban Tomas’ek oldozkun sakonari emonda, eta gero,

– Gure jaseko batek ezin yok jazorikoa zigor barik laga, adiskide, bestelan, koko-loak gozakala Erdikalekuok, uste izango yok jendeak...

– Orixe bera dok, nik neuk yiñoakadana ba...!

– Ba al-yaukak oraindiño, erosi enduan xardi eder a...?

– Bai, Tomas, eskillarapean ondo gordeta zegok.

– Eta ni joan nintzoanean amak emoniko altzairuzko iru bostarri andi areik...?

– Bai, iñoizkorik dizdiratsuen, izan be.

– Orduan, zergaitik ez erabili...?

– Ezin yauat ulertu, Tomas, itz egik argiago.

– Ara... I Patxi, xardi-erabiltean primerakoa az, eta izan be, Goikale'tik asita Beekale'raño, ez yeuguan irekin neurtu yeitekenik, ez orduan ez orain be. Ona emen ba, izozkilariari egin yaiekakana. Artu dalako xardia ta altzairuzko iru bostarriok, eta zulatu egiok orgatxu madarikatua, egiñiko zitalkeriaren oroigarria betirako gorde yaian.

– Ori erraza dok esatea, baiña zelan egin...? Or yagok untzea. Gaiñera, iru bostarriok zure oroigarria dozak, eta ez yoadaz galdu gura.

– Ze oroigarri ta oroigarri oste...! Itxaron illuntzerarte, eta adimen argikoa azan ezkeru, zeozer otuko yak.

Burua Tomas'egana biurtu nebanean, neugan jarrita eban uste ona eskertzearren, nire adiskidea ostendu izan zan, eta orduan itxartu nintzan. Une aretan bertan, ikastetxera joateko ordua zala izeko Asentzi'k esaten eustan, eta arin baten jantzi ta gosaldue ondo-oren, kalera urten nintzan eguneko ikaste-jardunari emoteko. Egun aretan ezin izan neban "El Rianxeiro" burutik kendu, eta eguberdian bazkaltzera joan aurretik, izozkien orgatxua egoan tokira joan nintzan nire egitasmoa atontzeko, gudaiburu onak egin oi dabean antzera.

Esku-orgatxua, kale bat enparantzarekin batzen dan tokian egoan, eta espaloi-ondoan izan be. Nire poz andirako egiztatu neban, enparantzaz bestaldean, etxe zaar bat lurreratu izan zala, eta orubea etxeko ondikiñakaz beterik egoala. Begiz ainbatu neban orgatxutiko bitartea, eta amabost metrokoa zala egiztatu neban, oso egokia nire jaurtiketarako, izan be. Orgatxutik urrenen arri ondakin-meta andia egoan, eta emendik, "El Rianxeiro" k aurreguneko denda-morroiarekin berbatan ziarduala egiztatu neban, biok barre-santzo ugariak botaten ebezala. Aurregunean niri egindako lapurreta autu-gaia izango eben, urrean. Sumiñez irakiten, alboko arri bat artu neban, lotsabako areiri botateko asmotan, baiña arratsalderarte ezer ez egitea zentzunak agindu eustan.

Arratsalde aretan nire adimena ikasketatik oso urrun ibilli yatan, eta noizbait, ikastaldia amaitu zanean, tximistaren antzera urten, eta etxera joan nintzan. Zurubiko ol kolo-ka kenduta, xardia eta altzairuzko iru bostarriak agertu ziran. Oneik galeperren arrautzen anditasunekoak ziran, eta sakelera sartuta, ezkutuneko estalkia bere lekura biurtuta, kalera urten nintzan. Udabarria izanik, egunak luzeak ziran, eta eguzkia naikoa indartsua izanik, ordubete ta erdi kaleetan zear emon neban illundu arte. Argimutillak piztuten asi ziranean, asmatu-rik jaurti-lekura joan nintzan. Une artean, esku-orgatxuaren goikaldean eskegita egoan karburozko krisaillua, piztuten ziarduan "El Rianxeiro" k, eta iñork ikusi barik, isil-ostuka, aukeraturiko ondakin-metaren atzekaldean jarri nintzan, burua bakarrik agerturik. Laster izango zan gau betea, eta izozkilaria etxera biurtu zeiten bildurrez, eraso lenbailen egitea erabagi neban.

Altzairuzkoak ondoko arri baten gaiñean ipiñita, bat xardiaren narruan jarri, eta atezu indartsua egiñik, besoak nekatu ekidazan aurretik, begiz jo neban. Jaurtikia tximistaren antzera urten zan, eta jo egindako orgatxuak, uriko erestaldiko danbor nagusiaren antzera durunda egin eban. Kaska izugarria aditzean, inguruko jendea isildu zan alkarri itaunka ia zer jazoten zan. Orduantxe, lenengoa baizen zaratatsua bigarrenak jo egin eban, eta ikusi nengien bildurrez, irugarrenari ekin neutsan, atezurik indartsuena egiñez.

Orduko, izozkilari lodikotea suzmoak artuta, nengoan lekurantza so egiten eban, eta irugarren altzairuzkoak dunbots izugarriaz apara egin baiño ez, xardia arkondarapean sartuta, orubeko ondakiñetan zear erdi-narrakza urten, eta enparantzatik inguru-bidea egiñik, esku-orgatxua egoan lekura abiatu nintzan.

Orduko, ikusleen multzo andia orgatxuaren inguruan jarrita, alkarri itauntzen eutsoen, zer jazo izan zan. Urreratu nintzakienean, pozez lertzeko zorian oartu nintzan, jaurtitako iru altzairuzkoek, iru zulo andi biribillak egin izan ebezala. Bata izotz-mendiaren erdian, eta beste biak artz-zuri banatan kokatu izan ziran. Zuloak bostarriak baiño askozaz andiagoak ziran artutako zartada andiakaitik, eta onezaz gaiñera, gurdixuaren saietsa latatzkoa izanik, maspilduta ikusten zan, "El Rianxeiro" ikurra okertua nekez irakurri zeitekeala. Izan be, orgatxuaren saiets arek ez eban konpontzerik, eta beste barri bat ipiñi bearko litzakio.

"El Rianxeiro" k didar bizitan ziarduan, egiñiko kaltea benetako ondapena zala bein eta barriro aldarrikatuz. Une aretan, urigune aretako txinela (urizaiña) urreratu yakon, eta,

– Vamos, compañero, que te ha pasado pues...? – itaundu eutsan–.

– Ay alguaciliño, alguaciliño...! A un pobretiño como yo había de pasarle esta trujedia, compañero...! Te juro por la Ría de Arousa que si le pillu a ese desjenerau, lo hago picadillo...!

– Y no te sabes quien ha podido ser ese-o...?

– Ay, alguaciliño, todo el helau díralo yo por sabello...!

– No te habrá sido pues, alguno que le has dao un helao flaco, que disen que te das muchas veses-o...? Por ahi pues ya te disen cosas... que te se olvida dar las vueltas de la peseta... que cuando tocan dies te tapas el uno y disen que ha tocao sero, y otras cosas tambien ya se oyen pues. A lo mejor alguno que le has dao sólo galleta sin helao o asi...o tamién algún desfraudao porque no toca el dies nunca...

– Todo calunias, alguaciliño, calunias de los que non pueden ver a uno ganarse la vida como está mandau... Y ahora quién me arregla el carriño...! Fíjate, compañero cómo ha quedau el pobretiño...! Por menos de setenta durifios no me lo arregla ni el mayor chapuceiro. Ay, miña suerte perra...! Dígote que hay que ser muy desjenerao para hacerle ésto a un pobriño como el Rianxeiro...!

Olan jardun eben izozkilariak eta txinelak luzaro samar, eta noizbait, berandu samar izanik, galizitarrak gurdixua artu, eta kalean beera ostendu zan, bere zoritxarra etenbarik aldarrikatuz. Niretzat be ordua zan etxera biurtzeko, eta gurendaren zoriona txastatuz, gudaiburu garaillearen antzera oartzen nintzala, Erdikale'ra abiatu nintzan. Izan be, zer zan galdutako izozki amarkoizta, orain sentitzen neban poztasun neurribakoaren alde...? Mendekuaren aintza betea ezagutu neban egun aretan. Ziur nintzan, Tomas be ni beste pozik oartuko litzakela zeruan, zuzentasunaren alde beti jokatzin eban Patxi Arlote'k, artutako iraiña garbitu izan ebalako.

Egun bi irau eban "El Rianxeiro" k oiko lekutik azaldu barik, baiña irugarrenean, etxera biurtu aurretik andik igaro nintzan, eta adabatu-barria zan orgatxua ikusi neban.

Ondatutako saietsa latazko ipinki bat azordez izan zan, baiña izotz-mendia ta iru artz zuriak ostendu izan ziran. Onezaz gainera, latazko estalki edo saietsa, billutsik, margoztu barik agertzen zan. Andik zazpi bat metrora jarri nintzan, nire ekintzaren ondorioak begiztatuz. Olan nengoala, lengo eguneko txinela azaldu zan, eta urreraturik,

– Ya te es hora pues –izozkilariari esan eutsan–, de verte por aquí. Ande has estao, pues...?

– Por San Ramonciño bendito, patron de mi pueblo...! Donde iba a estar el Rianxeiro, sino echando un remiendo al carriño...!

– Y ande están pues, el iseber y los osos aquellos tan txirenes...?

– Alguaciliño de mi alma...! Aquellos osiños fuéronse secula seculorum.

– Pero, asi te vas a dejar ese goitibera, que parese le han puesto una txaplata contra el garrotillo o que...? La gente no te va a comprar el género sin el iseber y aquellos osos tan txirenes...

– Mira txinel, en este arreglo se me han acabao las pocas pesetiñas que tenía, y ahora a esperar.

– Pero como pudieron haserte avería tan grande pues...?

– Non se, pero dentro del carriño encontremos tres canicones de aceiro. Seguro que tiraron con escopeta, porque sonaron como tiros...! Ay, si le pesco a ese desjenerao, lo deixaría como un bacaladiño en sal, de esos que pescan en Grolandia.

– No te apures, Rianxeiro, que con las trampas que disen que te hases, pronto ya tendrás pa otro iseber y los osos. Pero aunque no sea más, “El Rianxeiro” ya debias ponerle pa que sepan de quien es.

– Tienes razón, compañeiro, sobre todo por la calidá que significa esa marca.

– La marca no te es nada, si no te echas mucho ájilis-mójilis, es desir, huevos, leche, coco, vainilla, y demás gredientes sustansiosos. Bueno, ya siento el desperfeto, y ahora voy a ver si le pesco a la vieja esa del tersero, sacudiendo las alfombras desde el balcón... Agur.

Andik egun bitara, orgatxuaren adabakian edo ipinkian, esku baldarraz idatziriko idazkun auxe irakurri zeitekean barriro: “El Rianxeiro”. Edozelan be, izen egoki barik ezin gai onik saldu, eta “Marketing”ari buruz asko ez jakin arren be, galizitar izozkilaria zuzen egoan.

Nire mendekuaren arazoari laga egin baiño len, irakurlearen jakingarritzat esan bearrean naz, andik illabete bitara, izozkia ataratako etekiñaz, orgatxua izotz-mendi ta artz zuriak azpinduta agertu zala. Andik igarotean, irriño maltzurraz gelditzen nintzan aurrrera joan baiño len. “El Rianxeiro”k betosko okerraz begiztatzen ninduan, bere buruari itauntzen eutsala, antza, izango ete nintzan, bere orgatxua ondatu izan eban “desjenerau”a. Egiztapenik, baiña, ez egoan...

Len esan dodan lez, udabarria zan, eta ikasturtea laster amaitzeko zorian, onen aurretetik, uriko erri-ikastegian edo institutoan, azterketak jasango gendukez. Augaitik, beraz, adiraltzeari buru-belarri emoten geutsan. Aspaldi aretan, baiña, jazo yatan ezustean ezin aipatu barik itzi.

Nire alde asaldakorragaitik, banebazan nire gora-beerak beste ikaskideekin. Izan be, ez da atsegiña beti burrukan egitea, emonez gaiñera artu bear da be, baiña beste biderik ezean, ez neutsan burrukari uko egiten. Aspaldi aretan aurreko maillakoa zan Pitxi izeneko arroxko batek, ikaskideak menperatzen ebazan, eta edozein atxakiz burrukeari emoten eutsan. Ikastaroa amaitu agiñean zala, bein baten urreratu yatan, eta,

– Aiko, adiskide –esan eustan–, bostarriketan jolastuko diagu...?

Arratsaldeko ikastaldia amaitu izan zan, eta Erdikale’ko lagunekin biltzearen iraduz nenbillenez, auxe esan neutsan:

– Naikoa berandu dok, baiña beste baten gerturik izango nok.

– Ken adi, kirten ori, nire bildur az, eta ez yok nirekin neurtu gura.

– Ni ez nok ezeren bildur; eta jakin eik gerturik nokala jokatzeko baita irabazteko be.

Asi genduan jokoa, eta bostarri bi irabazi eustazan, baiña gero zoria aldatuta, irabazten asi nintzakion, eta galdutako bostarriak irabazi neutsazan. Jokoa jarraituta, beste bat irabazita, berak ez eustan emon gura, eta guztitariko iraiñakaz bete ninduan. Nik, baiña, neurea zana eskatu neutsan bein eta barriro, baiña alperrik. Alako baten, matrailleko indartsua emon eustan, eta jarraian, gure biziko burrukari emon geutsan. Bera ni baiño indartsuagoa zan, baiña zuzentasunaren alde ekiteak sumin basatia emostan, eta kikildu barik aurre egin neutsan.

Lagun-talde batek inguratuta, luzaro samar irauan eban burrukak, eta noizbait, nekearen-nekez gorri eginda ta arnas-estuka, ukabilketari eten egin geutsan atsedean artzearen. Olan gengoazala, seigarren maillako mutil andi bat urreratu, eta bion artean jarrita,

– Aski da lagunok –esan euskun–, biok burrukalari yaiok zarie, eta nire ustez ekitaldia oso bardindua izan da; zentzunik ba’dozue, beraz, auzia amaitutzat emon bearko zendukie.

Inguruko lagunak bat etorri ziran seigarren maillakoarekin, eta Pitxi’k burruka amaitutzat emonik, neuk be erabagia onartu neban. Baiña orduko, suurretik odola parrastaka eridan, eta arkondarea odolez loituta izanez gaiñera, mauka bat urratuta, beso billutsa arramaska batzukaz zaurituta ikusi zeitekidan. Pitxi’k be baerakusan berea. Ubeldutako begi bat ezin egikean zabaldu, arkondararen botoi guztiak galdu izan ebazan, eta be laun bat ostikada bat az anpatuta. Izan be, bai berak bai nik itxura negargarria erakusten genduan.

Andik ez urrun, uriko iturri baten aalik ondoen aurpegi ta besoko zauriak garbitu nebazan, eta gero astiro ta neketsu etxera joan nintzan.

Beste batzutan lez, nire asmoa burrukaren aztarnak izeko Asentzi’rein zaintzapean iztea zan, oi ebazan esku trebeakaz zaindu ta ezabatu egidazan. Arratsalde aretan, baiña, nire asmoa ustel urten yatan. Burrukeak luzaro samar irauan izan eban, eta onen ondorioz, berandu eldu nintzan etxera. Une aretan, izeko etxean ez izanik, Piokanela’k berak edegi eustan atea. “Ecce Homo”ren nire itxura ikusirik, asarre gorrian auxe esan eustan:

– Baiña, baiña, nondik zatoz orren zikin eta itxurabagetua...?

– Kalean jausi egin naz, osaba –guzurtu neutsan–.

– Orrek ez dau egi-antzik, traskil ori, guzurtia baiño besterik ez zara-ta.

Orduan nire eskuari oratuta, jatokiko sapaillloan zear sartzen zan argi betean, nire makurrak ikusi eustazanean, mintzo asarratuaz, auxe oiui egin eustan:

– Guzurti porrokatua zara, Patxi; suurrarena tira... Baiña arkondarako maukea ez da urratzen jausteagaitik, ezta olako arramaskak sortzen be. Oso berandu da etxera etorteko, eta ziur naz zeu lako beste traskil batekin burrukan egin dozula, ezta...?

Au esanik, zorrotz begiztatu ninduan, eta ni isillik ikustean,

– Baiña bada besterik ori baiño txarragoa dana, eta auxe izan be: guzurti izatea, eta nik ezin dagikedaz zeu lako guzurtiak jasan.

Jarraian, ormatik eskegita egoan zigor-edeia artuta, urreratu yatan auxe ziraustala:

– Tamala dot, Patxi arlote ori, zigor au zurekin erabilli bear, baiña nire betekizuna dan ezkerro, erabilliko dot. Erantzi egizuz prakak...!

Zigorra eskuan atzituta, itxura zemaikorraz urreratu yatan, sumiñaren aztarnak aurpegian agiri ebazala. Ni, baiña, len jasandako astiñaldiaren ostean, ez nengoan gerturik beste bat artzeko. Bere aginduari jaramon egiten ez neutsala ikusirik,

– Ken dagizuzan prakak esan dautsut...! –oiui egin eustan–.

Eta jarraian, zigorra aidean astinduz, joteko asmotan, oldartu yatan. Ni baiña, mai-inguruka asi nintzan, maiaz bestaldean jartzen nintzala beti. Asarre gorriean, Piokanela'ri didar itoak eta aiñenak iges egiten yakozan, bere aalegiñak ni arrapatzeko alperrik zirala ikusirik. Alako baten, etxeko atea edegiten zala entzun neban, eta jarraian, jatokiko ate-zubipean izeko Asentzi agertu zan. Piokanela ta biok ikustean, niri jarraituz berak zigorra erabillela, leoi-eme baten antzera, Piokanela'ri oldartu, eta teinkada batatz zigorra erabillela, sapaillloan zear kalera jaurti eban. Arritasunak artuta, geldirik eta abo-zadea erauzita, sapaillloan zear kalera jaurti eban. Arritasunak artuta, geldirik eta abo-zadea balik iraun eban une batez Piokanela'k, bere emazteak egiñikoa siñistu eziñik. Gero, asarre baten, aregana biurrituta,

– Baiña Asentzi –oiui egin eustan–, zoratu al-zara...? Noiztik ona emon yatzu esku-biderik, nire arazoetan esku-sartzeko...?

– Eskubiderik diñostazu...? Nork emon dautsu aalmena mutiko gaixo bat olan zigortzeko...? Ez dakit zer jazo dan, baiña ez dot onartuko ezelan be, mutilla orren zakar erabilli dagizun odola jarion arte.

– Nik ez dot txarto erabilli, eta odolarena ona etorri aurretik jazo da.

– Olan izango da zeuk diñozun ezkerro, baiña ezin dagikedazu ukatu, ni etxera sartzean, mutikoa aurrean erabilten zenduala...

– Arkondararen mauka bat urratu ta odolez zikinduz gaiñera, guzur andia esan daust, bai, jaustean gertatu dala iruntsi-erazo nai izan daust, eta zeuk badakizu guzurtiak ez dodazala jasaten.

– Mutilla bera da jasaten ez dozuna. Umezurtztegitik etxera etorri yakunetik ez dozu Patxi maite izan. Ez dot uste, an maitasun andirik ezagutu egian, baiña gurean ez dauzazu maitasun-izpirik erakutsi mutil gaixo oneri. Bai, Pio, buruan ez dozu besterik erabilli, gure ardurapean egoteagaitik atara dautsagun onurea baiño...

– Isil zaitez, sorgin ori...!

– Ez, gaur ez naz isilduko. Aspalditik buruan yabildana kanpora urteteko garaia da, eta egia esango dautsut. Ara...mutiko au etxera ekarri zenduan, andik kanpora botaten eben mutikoa gurean arteagaitik, zenbat ordainduko eutsuen, udaletxean diarduan ezagun bategandik jakin zenduanean.

Zeuk badakizu ondo, mutiko onek janari ta jantzietan gugandik artzen dauana, udalak emoten dautsuanaren laurena dala. Gurean ez dau goserik jasaten, ori egia da, baiña estu ta larri ikusten dot nire burua bear dan lez jantziteko, eta orretarako zure janzki zaararak berarentzat egokitu arren, noizean bein, janari-saskiari dirurik kendu bear dautsat, arkondarak, oiñetakoak etab. erosteko, ostantzean bere eskale-itxuragaitik ez leukie onartuko ikastetxean. Eta ori dana egin bear dot, zekenkeri utsaz mutiko oneri bearrezkoena emoten ez dautsazulako...

Ona elduta, Piokanela'k eten egin eustan onetaraxe:

– Ez dozu aintzat artzen, sorgin orrek, ikasketakaitik ordaindu bear dodana...?

– Txakur andi bat bera be ez. Patxi'ren ikastaroagaitik udalak ordaintzen dautsuna, oso-osorik zure sakelerako da, "Eroslea" k dirurik eskatzen ez dautsualako, Patxi umezurtz izanik, ikaste-sari bat (beca) artzeko eskubidea badau-ta. Izan be, batatz beste onura ederra ataraten dautsazu mutikoari, eta orren ordaiñez iñongo maitasunik ez; eta arrotza bai'litzan erabilliz gaiñera, edozein ezerezkerigaitik zigortu gura dozu.

Asentzik ori esan bitartean, ezin egikean siñistu Piokanela'k, betiko emazte apal, isil eta erabetiak, lapurtzat salatu egian. Asiera baten, entzuten ebana ezin egikean siñistu, baiña Asentzi aurrera joan-ala, bere arritasunak asarre biziari bide egin eustan, eta izan be, areago, egia zirautsalako. Ustekabez, sumiña jabetu eziñik, eta begiai txinpartak eriezala, oiuka auxe esan eustan:

– Ixo, sorgin mozkortia...! Badakit edateari emoten dautsazula ixil-ostuka. Eroste-saskiari dirua kentzen dautsazu, bai, baiña badakizu zertarako...? Pattarra erosteko, saskel ori...! Aspalditik jakitun nozu, zertan darabilzun ostutako diru ori, bai, nire lepotik eta ezkutuan mozkortzeko. Badakit zure "Larranbilloa" ren isillekoa, eta zeuk bestelan uste izan arren, ez daustazu ziria sartzen. Nor zara zu, beraz, mozkortzeko dirua kentzen daustazun ori, ni lapurtzat salatzeke, nire biziko aalegiñak egin bear dodazanean geuk irurok iraunerazoteko...?

Isildu zan une batez Piokanela, eta orduan, bere oiñaze ta laidoa menperatu eziñik, Asentzi gaixoak aurpegia eskuakaz estalduta, negar-zotiñek bere soin erkiña astintzen ebela, gelatik urten, eta sukaldera joan zan. Une batez lengo tokian geratu nintzan, Piokanela asarrez begizatzen nebala. "Geuk irurok iraun-erazoteko" esan-barria eban, eta bala-bala ebillen auzoan, Aurrezki Kutxako bere kontu agiria, etenbarik polito anditzen zala. Oiko besaulkian jesarrita egoan orduko, begi asarrekoiaz sabaiari begira, eta iguiñez beterik gelatik urten nintzan.

Sukaldera sartu nintzanean, besoak mai-gaiñean ipiñita izeko negar baten egoan, zotiñek bere makurturiko soin makala astintzen ebela. Isillean urreratu nintzakion, eta billoak laztantzen neutsazala,

– Izeko Asentzi –esan neutsan maitekiro– ez negar egin berak esanagaitik. Neuk maite zaitut, eta gaur iñoizkorik geien.

Beso bat az gerra inguratu eustan, eta malkoek ezoturiko aurpegiak niri musu bat emonda,

– Nire bizitzaren antzutasuna...! –etsiak artuta esan eustan– lenago etorri ba'zintzaz etxe onetara, gauzak aldatuko ziran, aldatu be, baiña beranduegi eldu zintzakidazan, edateari emonda nintzanean, izan be...

Au entzutean, nire buruari itaundu neutsan, egoera zital aretatik urtetearren zergaitik ez edateari uko egin... Berak nire oldozkuna irakurri eban, antza, eta onetaraxe jarraitu eban:

– Edateari uko egin bearko neuskio nagoan kinka larritik urtetearren, baiña ezin dot, zaletasunaren jopu billakatu naz-eta. Arratsaldeko garaian batez be, nire naimena baiño indartsuagoa dan griña batek artuta, irrika gaizto batek edateari bultzaten nau, eta bake-rik ez txurrutari emon arte. Ai ene, bizitza dan mingotsa...!

Ezin nengikean izekoaren atsekabea jasan, eta bere gogo itunak uxatzearen, auxe esan neutsan:

– Izeko Asentzi, datorren astean ikastaroaren azken azterketak erri-ikastegian izango doguz, eta arrezkero, oporrak izango dodaz. Zer deritxazu Iragoikoa'ra joateari...? Utziko gaitu osabak ara joaten...?

– Bai, urrean, Patxi. Orrek diru geiago egiteko lagunduko dautso, eta beraz, ikusmetetik pozik galduko gaitu. Orretarako, baiña, ikastaroa arrakastaz igaro bear izango dozu, bestelan emen lotu bearko...

– Izeko, ori ziurtzat emon dagikezun ezkerro, bidezorroa atonduizu beste barik.

Iribarre-antzean begiztatu ninduan berak. Agiri zan, Iragoikoa'ra joateak alaitzen ebala, eta orduan,

– Aizu, Patxi, –esan eustan–, orain apalduko dozu, berandutxu egin da-ta.

Izekok eta biok aspalditik sukaldian izaten genduzan otorduak, eta gero, jatokian Piokanela'k jateari ekiten eutsan. Nik askozaz naiagoa neban sukaldia, baiña olan egitean duintasunean galtzen ebala uste izanik, antza, berak jatokian egiten ebazan jatorduak.

Gau aretan apaldu ta bereala, izeko Asentzi'k,

–Aizu, Patxi –esan eustan–, guztiz nekatuta ikusten zaitut, laztan ori. Joan zaitez oera, eta laga egizu emen arkondarea, garbitu ta maukea josi dagidan.

Izan be, zuzen egoan izeko, eta arkondarea lagata,

– Gabon izeko –esan neutsan–, zeuk gaur nire alde egindakoa ez yat aztuko.

– Gabon, Patxi –irribarrez esan eustan–, Jaungoikoak lagun dagizula. Ez aztu oiko erregruak lo egin aurretik.

Ain zuzen be, ez yatan aztu gau aretan izeko Asentzi'ren alde biotzez eskatzea. Bera zan etxe aretara lotzen ninduan eraskin bakarra eta zelanbait bizitza atsegiñagoa egiten eustana. Esan bearrean naz, arrezkero etxe aretan bein betiko ostendu zala jatokiko ormatik eskegita egoan zigor-idea, eta ormea billutsik nenkusanetan, izekoganako eskeron andia oartzen neban.

Urrengo astean, ikastaroko azterketak oiko arrakastaz igaro nebazan, eta andik ama-bost egunera-edo, goiz baten izeko Asentzi ta biok etxetik urten gintzazan, Markiña'rako erri-berebilla artzeko. Poz-pozik giñoazan, Iragoikoa'n aspaldi zoragarria igaroko gendukela oldozkunak, geugan alaitasun neurribagea jarten euskuala. Berebilla abiatzeko une berean, Tomas nenkusalda iruditu yatan, azkenengoz ikusi neban lez, eta oartu barik, mal-ko mingots bat aurpegiak beera isuri yatan.

Bidegitea igazkoa lez azaldu zan, eta arratsaldean Iragoikoa'ra eldu gintzazanean, etxeko guztiek “Ongi Etorri” sutua egin euskuen, Arratetxu 'k batez be, une luze batez nire idunetik eskegita iraun eban-eta. Aspaldi zoragarria emon genduan, eta lengo urtean lez, izeko Asentzi'ri ezpan-begiak alaitu yakozan gatzetzen eta edertzen zala. Niketz ezin neintekian zorionsuagorik izan, egun osoa etxekoai baserri-lanetan laguntzen neutsela, eta gabea, Yosu'k abadegaiak errosarioa esan ondoren, nire gora-beerak edesten bear-tzen ninduen, iñoiz nekatzen ez zan Arratetxu'k batez be. Etxe zorionsu aretan, nire go-ra-beerak neronek baizen ondo ezagutzen ebezan, eta “El Rianxeiro”rekin izandako istilua edestu neutsenean, ango barre-santzoen zarata...!

Bertsotarako nire zaletasunak kutsututa, Arratetxu'k polito ziarduan bertsogintzan, eta jaiegunetan, meza-osteko jolasaldian, erriko enparantzan batuta, berak eta biok gure biziko jardunaldiak izaten genduzan, entzuten euskuen neska-mutikoen pozerako. Ni baiño euskaldun jatorragoa izanik, laster eldu zan Arratetxu nire maillaraiño, eta aldiaren joanean, Iragoikoa'k bertsolarien enda bikaiñari asierea emongo eutsan. Bai, neskatoaren gaitasunak eraginda, anai-arrebak be zaletu ziran, eta neguko illuntzetan, sutondoko epeltasun-inguruan batuta, aukera bete izango leukie bertsolaritzari emoteko.

Zorionak, baiña, ez dau luzaro irauten, eta Iragoikoa'ko egotaldia amaiturik, Iraila'ko egun argitsu baten, izeko ta biok Markiña'n zear etxeratu gintzazan. Nire naibagearen artean, izekoaren itxura osasuntsuak zelanbait pozez beteten ninduan. Illuntze aretan atea jo genduzanean, Piokanela'k edegi euskun, eta gure agurrari kurrinka bat az erantzunik, jatokira biurtu zan egunkariaren irakurketari jarraitzeko. Bost ardura berari, antza, Iragoikoa'n emondako gure oporraldia. Au ez zan arritzekoa, Piokanela'ren akatsen artean, berekoitasuna ez zan makalena. Edozelan be, illabete bi areitan, izeko ta bion janaria-ta aurreztu izateak kili-kili gozoa egingo eutsan bere zekenkeriari.

Laster igaro zan Iraila lagunaren artean Ibarsusi'ko urgeldian gure biziko ugeriketak izanik. Udako azken zati au iñoizkorik eguzkitsuen azaldu zan, eta oartu barik irugarren ikastaroko asiera eldu yatan.

Barriro be, “Eroslea”ra goiz eta arratsaldero. Irugarren batxiller maila au zailtsua azaldu zan, baiña azterketak oiko arrakastaz igaro nebazan, baita urrengo ikastaroa be. Boskarrenean ostera, jazokun batek nire bizitzari aldakuntza andia ekarri eutsan... Ona emen jazo zana.

Boskarren ikastaro aretan sei ikas-gai genduzan, arteko bat soiñiztia izanik. Ikasgai onen irakaslea Anai Jose zan, jakintsu ta zentzuduna. Gai au ez yatan gogokoa, izen asko ta zaillak buruz ikasi bear ziralako, baiña Anai Jose'ren azalpen argiak, oztopoak zelan-bait arintzen ebazan. Jorrailla'n, baiña, gure kalterako Anai Jose geisotu zan, eta onen ordez "Pitolerdo" ezizeneko Anai Anakleto izendatu eban zuzendaritzak irakasletzat.

Goiz eta arrastietan ordu-erdiko atsedena dia izaten genduan Ikastetxeko enparantzian, guztitariko jokoai emoten geutsela. Ordu-erdiko epea igarorik, anai batek txistu-jote luzeaz amaitutzat emoten eban atsedena dia, eta biñakako erreskadatan, ikasgelara biurtzen gintzazan. Geienetan txistua joten ebana Anai Anakleto zan, baiña izterbegia zan praille oneri, ikasleok "Pitolerdo" esaten geutsan.

Edozelan be, gure irakasletzat izatea zoritxarrerako izan zan. Irakasle barriak ez eban lengoaren zentzuna ta jakituria, eta doai oneik ordezteko, azalpen illun eta ulerteziñak emon ostean, giza-soiñaren zatiak buruz ikasi-erazoten euskuzan. Itzela da gizakiek doguzan zatien kopurua ta azurren izenak. Niretzat, beintzat, nekaldi jasangatxa zan izen areik buruz ikastea, orretarako oso baldarra izan naz beti, eta buruan gordeteko saiatzen banintzan be, dana alperrik izaten zan. Irakasle barriak berak izenok ez ekiazan buruz, ezta beste gora-beerak be, baiña liburua zabalik ebala, erantzunak baekiazan.

Laster oartu eban "Pitolerdo" k nire ezintasuna buruz ikasteko, eta barre-gura sentitzen zanean, arbel-ondora dei eginda, guztitariko itaunak egiten eustazan, zaillenetakoak izan be, eta nire aalegin ezaiñak ikustean, izenondo barregarriakaz apaintzen ninduan, bera baizen ergelak ziran ikaskide batzuen barreak lagunduta. Egunen bidean, baiña, nire baitan asaldapenaren sustraiak sortzen asi, eta ikastaroaren joanean, garapen andia artuko eben...

"Pitolerdo" ren arrotasun andia zan ikasgelako txoko baten egoan azurdia. Dirudia-nez, baten batek azurdi zaar eta maskala, gure ikastetxera ekarri eban, etxetik itsuski bat kentzeko-edo. Ikastetxeko ganbaran aspaldi luzea emon eban, eta bein baten, esku trebeduna zan Anai Anakleto'ri, azur-eskukada baiño ez zan dalako azurdia, bere lengora biurtzea otu yakon. Olan ba, jasapen andiaz azurrak osotu, eta gero alkartu ebazan. Au lortzeko zati batzuk egurrez birregin bear izan zituan, eta gero, burnizko ariakaz eta itsasgaiaz alkar lotu. Azurdi gaixoa, baiña, koloka izanik, zutoin bateri eutsita egoan jau-si ez zeiten. Adarki bataz baliaturik, mintzo arranditsuz "Pitolerdo" k erakusten euskuzan azurrak eta onein izenak, aurrean liburua zabalik ebala. Azurdi oneri ikasleok "Txorima-

loa” esaten geutsan, eta bere ondotik igarotean, eskuaz igurtziten genduan zoriona eka-
rrelakoan. Bai jausi ez jausi aurkitzen zan giza-azurdiarentzat, ikas-gelaren erdian ego-
tea, kaltegarria izan zeitekionez, ate-ondoko txokora aldatu eban “Pitolerdo”k, iñongo
makur artu ez egian. Eta ate-osteko txokotik, “Txorimaloa”ren begi-zuloak itxura itzal-
tsuaz guri begira genduan.

Bein baten, eguneko ikaskaia esateko dei egin eustan “Pitolerdo”k, eta ondoratu
nintzakionean,

– Aizu, Patxi –itaundu eustan–, gizakiaren buruak zenbat atal ditu...?

– Bi, Anai Anakleto: uztai deritzan goikoa, eta beeko oiñarria.

– Atal bi orreïn azurren izenak zeintzuk dira...?

Ona ezker, nire jakintasuna amaitu izan yatan, eta isillik iraun neban.

– Zeintzuk diran ez dakizu...? Arañegun ba, guztitariko argibideak emon neutsue-
zan gai orreri buruz.

– Aztu egin yataz.

– Aztu egin, e...? Begira, arlote ori, bein betirako ikasi dagizuzan izen orreik, etxera
joan zaitezanean, zati bi orreik osotzen dabezan azurren izenak, bosteun bidar idatziko
dozuz, eta biar bertan erakutsiko daustazu zigor-lan ori.

Etxera niñola, soiñiztia zabaldu neban, eta buruaren azurren izenak irakurrita, bos-
teun bidar oneik idaztea arlo eziña edo ia eziña zala oartu nintzan, eta asarre bizipean da-
lako zigorra ez egitea erabagi neban. Onezaz gaiñera, okotzeraiño nengoan “Pitoler-
do”ren ziztadak ta barreak ia egunero jasateagaitik, eta iñoizkorik sutsuen, Patxi Arlotek
neugan gaiña artu eban. Begitan artu izan ninduan, eta ni baizen troskote edo baldarrak
beste ikaskideak izanik, neu nintzan beti opari aukeratua. Ez neuke jasango olakorik, ez
orixe...! Gaiñera, zein eskubidearen izenean, bete-eziña zana, egitera beartzen nin-
duan...?

Etxera eldu nintzanean, liburu-zorroa lagata, kalera urten nintzan oiko lagunekin jo-
lasteko, eta illuntzerarte ez nintzan biurtu etxera. Gau aretan, lo egin aurretik, urrengo
eguneko nire jokabidea, aurretiaz atondu neban, eta gerturik zanean, loak artu ninduan.

Soiñiztia, goizeko azken orduan izaten genduan, au da, bazkaltzera joan aurretik.
Amabi-amabietan, “Pitolerdo” ikas-gelara sartu, eta oiko otoi laburra esanik,

– Patxi –dei egin eustan–, zatoz ona.

Urreratu nintzakion, eta berak,

– Non dozu nik agindutako zigorra...?

– Barkatu, baiña ez dot egin.

– Jakin daiteke, zergaitik...?

– Luma, papera, eta tintea ez nebazalako.

Zemaikor begiztatu ninduan, eta ler egiteko zorian,

– Azaldu egistazu, arlote orrek, guzti orren zergaitia.

– Ara... lumarik ez dogu, etxera oillorik sartzen ez dalako. Idazteko neban papera,
sapailloan autsitako leiar baten utsunea estaltzeko erabilli dogu, eta tintea txipiroien sal-
tsa loditzeko erabilli dau isekok...

Barre-santzo itzelak ler egin eben ikas-gelan, eta sumin basatiak artutako “Pitoler-
do” oldartu yatan joteko asmotan. Bete-bete jo ez ninduan matrailleko sendoa jaurti eus-
tan, baiña nik jausten nintzalakoa egin, eta alboraka niñola, tximistearen arintasunaz ba-
rrabaskeri andia otu yatan... eta giza-azurdiari oraturik, biok plaust...! sorura jausi gintza-
zan. Zenbatu eziñeko zatitan autsitako azurdiak, zarata gortugarria egin eban, azpikoa
guztitariko apurrakaz zipristinduz. Ain zuzen be, ordu askotako lan arduratsua, une labur
baten pikotara joan izan zan, eta are txarragoa zana, azur-eskukada arek ez eban atontze-
rik.

Bere kutunaren ondapena egiztatzean, etsiak artutako “Pitolerdo”k, eskuak aurpegi-
ra eroan eban karraxi bizitan. Ni, baiña, bereala etorteko zan astiñaldia uxatzearren, jagi,
eta atea edegirik, zurubian beera oldartu nintzan.

Une aretan arrokeriak artuta, ez yatazan bururatu letorkidakezan ondorioak, eta zu-
rubian beera niñola, entzumeneaiño ikaskideen barre itzelak etorkidazan, baita “Pito-
lerdo”ren karraxiak be. Patxi Arlote iñoizkorik arloteen oartzen zan, eta apentza artuta,
bere burua gizurentzat eban. Olde asaldakorrekoa nintzan, izan be, garai aretan, eta arro-
keria bururaiño igoten yatanetan, itsu eginda, ez neutsen ardurarik emoten letorkidake-
zan ondoreai.

Olan ba, aintza beteko une arek eraginda, eta bertsotarako nire zaletasunak menpe-
ratuta, etxeko zurubian gora niñola, didar bizitan auxe abesten neban:

Bosteun bidar idatzi
buruaren azurrak...?
Ori agintzen dauanak
merezi dauz egurrak.
Pitolerdo’k damoskuz
ikasketa makurrak,
jaristeko gerturik
lelokeri-gaillurrak.

Laster jatsi nintzan, baiña, aintzatic lurrera... Arratsaldean, ludiztiko ikastaldira sar-
tu gura nebanean, Anai Iñaki’k atean geldi-erazo ninduan. Maite neban ludiztiko irakas-
lea, baita berak ni be, ikasgai aretan urtenenatarikoa nintzalako, urrean.

– Aizu, Patxi –itxura atsekabetuaz esan eustan–, oraingoz ez dozu sartzerik ikaste-
txera. Arratsalde onetan, Batzorde Nagusiak zeuri buruzkoa erabilliko dau. Zure alde
saiatuko naz, Patxi, arazoak itxura larri-larria aurkezten badau be. Zatoz biar nire gelara,
eta jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitut. Biar arte ba.

Arratsaldean portuko itsasontziak ikustetik nentorrela, eta irudimenak artuta, mun-
duko guztitariko leku arrotzak ikertzen nebazala, illunabarraz batera, ibilte neketsuz
etxera biurtu nintzan, etorriko litzakidan zigorragaitik gero ta kezkatia. Eguberdiko
adoreak arrenkura larriari bide emoten eutsan, eta arratsaldeak argitan galdu-ala, kemena
aren baten itzungiten joiakidan.

Apaldu bitartean, izekori dana esan neutsan, eta bera kezkatia azaldu zan. Oera niñoala, berak,

– Entzun, Patxi –esan eustan–, ez egiozu ezer esan osabari, arazoa zertan amaituko dan oindiño ez dakigu-ta. Badaezpadakoan otoi egin arazoa aalik ondoen atondu daiten. Neuk be, biarko mezatan gogoan izango zaitut.

Biaramonean, aginduta lez, eguberdian Anai Iñaki'ren gelako atea jo neban, eta be-reala edegirik, ikusi ninduanean auxe esan eustan:

– Tamal dot, Patxi, baiña batzordearen geiengoak, ikastetxetik urten zaitezala erabagi dau; onezaz gaiñera, eta zure obena oso larritzat artuta, erri-ikastegian ez zaitu aurkeztuko ikastetxekotzat. Ori zure kabuz egin bear izango dozu.

Au entzutean, atsekabe andiak artu ninduan, dalako erabagia ikastarora galtzea zala-ko niretzat-eta. Kinka larriak eraginda,

– Anai Iñaki –arrenkatu neutsan–, bidezkoa derist ni kanpora botateari, baiña ikastarora osoa galtzea, ez ete da larregi...? Onak ez dautso ikastetxeko aipu onari ezer ekarriko, eta bai, ordea, niri kalteandia.

– Zuzen zagoz, Patxi, eta olan jakiñerazo neutsen batzordekideai, baiña nire eritxia ez eusten aintzakotzat artu, eta autarkien bidez erabagi zanean, zure aurka azaldu zan geiengo. Tamal dot benetan, ikasle onenarikotzat zaitudalako, baiña ebazpen orrek atzera egiterik ez dau.

Isildu gintzazan une batez, eta gero berak,

– Baiña Patxi, arlote ori –esan eustan naigabez–, zelan eldu zara, ikastetxe onetako irakasle bateri olako iraiña egitera...?

– Ez dakit, Anai Iñaki, baiña bosteun bidar buruko azurren izenak etxean idaztea eziña da, eta orduan burubagekeri orrek asaldatu ninduan.

– Asi zaitez lenbailen, uri onetako beste ikastetxe bat billatzen.

– Zaila, eziña ez esateko, kanpora igorritako bat beste ikastetxe baten onartu izatea.

– Dana-dala, saiatu zaitez, Patxi, eta nire aalmenean zeozter izanik, zure alde erabili llo dot.

– Agur, Anai Iñaki, eta eskerrik asko.

Arratsalde aretan or-emenka kaleetan zear norabarik niñoala, ezin nengikean burutik kendu, ikastarora galtzeko zorian nintzala, eta bidebagekeri orrek eraginda, bideren bat billatzeari emon neutsan. Ustekabez, oiñeztarri baten argipean lez, burutapen bat etorri yatan; bai, iskillu ezkutua jabe nintzan...

“Eroslea” ikastetxeko ostikolaritzaren (futbolaren) lenengo taldekoa nintzan. Baloi-zaletasunak orretaraiño eroan ninduan, eta umezurtztegitik urten nintzanean, Tomas'ekin lenengo, eta gero auzoko beste lagunekin ekiñaren-ekiñez, baloia polito menperatzera eldu nintzan. Joera oneri jarraituz, ikastetxeko kirol-arduraduna zan Anai Mikel'ek, lenengo taldera sartu ninduan boskarren ikastarora asi zanean, eta zirudianez, ondo jarduten neban, batzuen eritxiz onenarikoa izateraiño. Nire arintasunagaitik, aurrelari izendatu ninduan Anai Mikel'ek.

Urtero-urtero uriko ikastetxeek ostiko-leiaketa bat ospatzen eben, eta txapelkun bi-

llakatzeak dedu andia ekarrenez, ardura andia emoten yakon dalako leiaketeari, eta kirol-arduradunak eginkizun beiñentzat eban ostiko-talde ona jaristea. Gure ikastetxeak ez eban ostiko-zelairik, baiña Eguenetako arratsaldeetan opor izanik, gure biziko iñarkunak egiten genduzan Basarrate izeneko zelaian, eta txapelketa ospatzeko, Landa-Orlegi erriko zelaia gure aukeran genduan.

Urte aretan, gure taldeak iñoizkorik ondoen jardun izan eban, eta onen ondorioz, urrango Igandean, ikastarora amaitzeko zorian zala, Salestarrekin nor txapelkun jokatu bear genduan. Emen zetzan, beraz, nire iskillu ezkutua. Zelan ez, lenago burura etorri...? Ezustean arrenkura guztiak ostendu yatazan, eta adorez gaiñezka, etxera biurtu nintzan.

Biaramonean, ikastetxera joanda, Anai Mikel'eri entzunaldi bat eskatu neutsan. Oi eban lez txeratsu artu ninduan kirol-arduradunak, eta mai-alde banatan jesarrira, auxe esan eustan:

– Tamal dot araiñegun jazotakoa, Patxi, baiña noiz zentzutuko yatzu burua...?

– Guztiak zentzutu bear yaku burua, Anai Mikel, baiña orain alde batera laga dagigun ori. “Eroslea”tik jaurti izatea onartzen dot bidezkoa dalako, baiña ikastetxeak legezko azterketari aurkeztu ez nagiala, alperriko apentza deritxat, bakarrik ezin dagiket gauzarik egin-eta. Zergaitik ez daustazue azken zigor au kentzen...?

– Benetako erabagia da, Patxi, eta beraz, atzera egiterik ez. Gaiñera, batzordeko agiri-liburuan idatzi izan da.

– Orduan, agur, Anai Mikel.

– Agur, Patxi, etzirarte. Ia Salestarri astiñaldi ederra emoten dautsegun.

– Tamal dot, Anai Mikel, baiña azken leiaketa orretan ez naz tarteko izango.

– Zelan diñozu...?

Kirol-arduradunari aurpegia zurbildu izan yakon, eta arrenkura bizipean,

– Baiña, Patxi, denganiño orrek, olakorik ez dozu benetan esango...!

– Bai, Anai Mikel, eta iñoizkorik benazkoen, izan be. Arazoa argi-argi ikusten dot. Ara... zuek ez nozue erri-ikastegira aurkeztu gura, ikastetxekoa ez nazala atxakiaz, eta bigarren zigor au ez dot onartzen, ni emendik botatea naikotzat daukat-eta. Patxi Arlote ez da bidebagekeriak jasan dagiazan orreitarikoa, eta nire barrukoari jorratuz, auxe argi-argi dakust: ikastetxekoa ez izanik, azken leiaketa orretan jokatuko ba'neu, marrokeri utsa litzake, eta orreri ez deritxat benetakoa. Gaiñera, Salestarrek ori ba'lekia, ikastetxea salatuko leukie, eta eurok txapelkun.

– Baiña zigorra ez da Astelenerarte legez jakiñerazoko.

– Niri bost ardura ori. Ikastetxetiko jaurtiketea agiri-liburuan idatzita dago, eta dato-
ren Astelenean ori esatea marrokeri andia da.

Agizanez, dalako leiaketeak emongo leuskidan deduagaitik, edozetara markutuko nintzakela uste izaten eban batzordeak. Leiaketea ustel urteteko zorian zala ikustean, Anai Mikel'ek gogarte sakonari emon eutsan, eta gero,

– Zer eskatzen dozu ba, Patxi...? –itaundu eustan–.

– Ara... zuek ikastetxekotzat erri-ikastegira aurkezten ba'nozue, nik ikastetxeko os-

tikolaritzat jokatu dot Igandean. Azterketak amaituta gero, "Eroslea"tik jaurti nagike-zue duintasun-izpirik galdu barik. Zer deritxazu orreri...?

Oldozkor geratu zan Anai Mikel une batez, eta gero,

– Ez dakit ba... agiri-liburuan jarri izan dan ezker...

– Inpernura agiri-liburua...!

– Patxi, kontuz, gero...! Ori ez da "Eroslea"n ezi izan dan ikasle baten berba egiteko

modua.

– Barkatu, Anai Mikel, baiña estu ta larri nagoan ezketiño, barrua zapa-lapiko baten antzera yabilt.

Iribarrez begiratu eustan kirol-arduradunak. Gero, onetaraxe mintzatu zan:

– Arazoak alde ta aurkak eskintzen dauz. Edozelan be, ikastetxerako garrantzitsua dan ezker, batzordekoai zure burubidea jakiñerazoko dautset. Etorri zaitkez biar, eta erabagia ezagutuko dozu.

Alkarri agur esanda, ikastetxeko liburutegira sartu nintzan, elebarri bat azkia emoteko, ona sartzeko eskubidea ez eusten kendu izan oraindiño-ta. Gero, etxera joanda, izekori azaldu neutsan Anai Mikel'ekin izandako autua. Jakitun ipiñi nebanean,

– Oso zuur jokatu dozu, Patxi –esan eustan–, eta izan be, arlote izateari uko egiten dautsazunean, zugandik zeozer itxaron daiteke. Baiña ikastaroa amaituta zer billakatuko zaran, nire buruaustea da. Atsekabe andia artuko dau osabak zeurea jakin dagianean, eta ez dakit...

Aginduaren arauz, biaramonean ikastetxera biurtu nintzan, eta Anai Mikel'ek beingoan artu ninduan. Neuk igarrita lez, "Eroslea"ren batzordeak nire eskintza onartzen eban, eta onezaz gaiñera, Anai Iñaki'k eraginda, urrean, azterketaren gaiak atondu nengiazan, eskubide osoa emosten ikastetxeko luburutegia erabilteko.

Urrengo Igandeko arratsaldean, Salestarren aurka txapelketea ospatu genduan Landa-Orlegi zelaian. Aroko azken leiaketa onetara jendea eurrez etorri zan, eta adore andipean, ikusle ugarien didarren artean, ikaskideek, Anai irakasleek, senitartekoek jarleku guztiak beteten ebezala, leiaketeari asiera emon yakon. Ez dakit zer jazo yatan egun aretan, baiña oarpen bakanak eraginda, iñoizkorik ondoen jardun neban. Dana urtetan yatan ondo, eta idaroki (inspiraziñoa) bereiziak jota, baloia nire menpeko zintzoa azaldu zan. Iru ta bat irabazi genduan, eta gure aldeko irutatik neuk bi egin nebazan. Astueziñeko leiaketea izan zan, urte askotan mintzatuko zanetarikoa.

Astelenean erri-ikastegian azterketak asi ziran, eta astebete osoa iraun eben. Jaritsi nebazan eritxiak ez ziran gorengo maillakoak, baiña gai guztietan onartu izan nintzan. Soiñiztiko azterketea nik uste baiño errazagoa azaldu zan. Epai-maikoak ez eustan eskatu azurren izenak buruz esan negiazan, beste gai garrantzitsu ta zudugarriagoai erantzun bear izan neutsen, au da, giza-soiñaren jardun beñenak, eta esan bearrean naz, polito jokatu nebala.

Bazirudian, dana ederto urten izan yatala 5'gn ikastaro aretan. Batxillerrari jarraitzeko onartua izanez gaiñera, ikastetxeko ostiko-edestian, gorenetariko lekuan jarri ninduen, eta onekin batean ikaskide ta irakasle geienen oneritxia. Baiña ikastetxetik

kanpora jaurti izan nintzan, eta orduan igarten ez nebazan ondorioak ekarriko leuskidaz. Dana-dala, Patxi Arloeari bost ardura etorteko ziranak, udako oporrak baiño besterik ez nebalako gogoan, eta oroz gain, Iragoikoa'n emongo neuken aspaldi zoragarria...

Izeko Asentzi'ri jakiñerazo oi neutsan egokidazan arazo guztiak, eta azterketak amaitu ziranean, autu luze samar izan genduan nire jaurtiketeari buruz, eta onen ondorioz Piokanela'ri ezer ez esateko ebatzi genduan. Era onetan ez genduan ezetariko eragozpenik izango oporrak Iragoikoa'n emoteko. Jaurtiketearena Irailla'n jakingo eban, eta orduan ikusiko litzake, urrun samar egoan-eta. Zoritxarrez, baiña, Piokanela'ren lengusu Anai Sebe aztu izan genduan... Lengusu Sebe'k neurea jakin ebanean, ikastaroa amaituta "La Canela"ra joanda, bere senitarteko maitia jakitun ipiñi eban. Ez dakit lengusu bien arteko alkarrizketea zelakoa izan zan, baiña ni goratzeko ezelan be ez.

Arratsalde aretan etxera sartu nintzanean, itxura urduriz izeko Asentzi'k auxe esan eustan:

– Kontuz, gero, Patxi...! Osaba Pio'k zeurea badaki, eta asarre gorriak artuta dago.

Izekok au esan baiño ez, Piokanela'ren abots trumoisua onetaraxe aditu zan:

– Patxi, arlote ori, zatoz ona beingoan...!

Etxeko areto nagusia zan jatokira sartu nintzanean, adarki bat eskuan ebala, sapaillondoan zutunik ikusi neban. Sumin gorria irakurri neban aren aurpegian, eta agiri zan astiñaldi ederra niri emoteko gerturik egoala. Aztu izan eban, antza, ni amasei urteko mutil sendoa nintzala, bera baiño garaiagoa izan be, eta gaiñera ez ekian, izeko Asentzi'k eskuetatik kendutako zigorra sapailloran zear jaurti ebanean, nire buruari zin egin neutsala, ez neukela ezelan be onartuko jo nengian. Itxura zemaikorraz urreratu yatan, eta,

– Jarri zaitetz belauniko –agindu eustan–, eta burua soru-gaiñean, atzekaldea berotu dagizudan, arlote, besteren arlote...!

– Barkatu, baiña zeuk ez nozu ukutuko, ez gaur, ez beste iñoiz be.

Arritasunak jota, eta ekusana siñistu eziñik, itxura bakanaz begiztatu ninduan, eta edozetara gerturik nengoala nire aurpegian irakurrita, antza, beeko ezpana aginkaturik, itxura oldozkorraz auxe esan eustan:

– Egia esateko, egindako zitalkeria ezin dozu astiñaldi bat az ordaindu. Merezi dozuna astiro ausnartuko dot, orretarako astirik badago-ta. Anartean, Iragoikoa'ra joaterik ez dozula jakiñerazoten dautsut. Orain ken zaitetz nire aurretik, txoriburu, arlote ori...!

Sukaldera joanda, izeko Asentzi'ri jazorikoa esan neutsan, eta orduan berak,

– Bedeinkatua bedi Jaungoikoa –esan-eustan pozez– onik atara zaitualako estualdi orretatik. Bildur baten egon naz, zer jazoko litzaken begira.

– Ez nau ukutu, eta dot uste beste iñoiz orretara azartuko danik be. Baiña benetan mintzen nauan beste zigor bat emon daust, eta auxe alegia: uda onetan Iragoikoa'ra ez dot joaterik izango.

Une batez isillik iraun eban izekok, eta gero,

– Orreri buruz ez nago ain ziur –esan eustan–. Nire etxekoakana ba'goaz, orduan

abo bi gitxiago beteteko izango dauz, eta onek dirutan emongo dautson onurea ez da edozelakoa izango. Oraindiño amar egun peitzen yakuz nire etxera joateko, eta epe luze orretan, bere diru-goseak naikoa astirik izango dau bestera pentsaten eragiteko.

Geienetan lez zuzen egoan izeko Asentzi. Amar eguneko epe ori ozta-ozta igarorik, gau baten auxe esan eustan:

– Patxi, atondu gaitezen biar Iragoikoa'ra joateko. Joan gaitkezala esan daust osaba Pio'k bazkalostean. Gertu egizuz zure eskuarteak, eta biar goizean abiatuko gara.

Pozaren-pozez izeko besarkaturik, dantzan egin neban. Izan be, niretzat ezin axe baiño barri obarik. Nire matratzua oso bakuna zan; oiko janzkiaz gaiñera, arkondara-prakak eta aldagarri bat. Gabaz ni lo nentzan bitartean, izekok garbitu ta burdin-lisatu eustazan soiñekuok, eta urrengo goizean, Iragoikoa'ko larraxoriak baiño alaiagoak Markiñalde'ra abiatu gintzazan.

Betiko egotaldi zoragarria billakatu yakun an emon genduzan illabete bi areik, baserriko lanekin oitzen nintzala, eta niretzat beiñena, euskeraz parra-parra egiten nebala. Izekoari be, ondo etorri yakon baserriko aspaldia, gazteago ta osasuntsuagoa zirudiala. Zoriona, baiña, ez da betirako, eta eldu yakun etxera biurtzeko garaia. Goiz baten, Iragoikoa'ko senitarteak agurtuta, uriburura biurtu gintzazan. Ezin nengikean igarri, urteak igaroko litzakezala, ara itzuli baiño len.

Etxera biurtu ta egun batzutara, apalostean jatokira dei egin eustan Piokanela'k eta sillon barriak bilduma-liburuan itsasten ebazala, eta Cuba'ko palmondo zoribakoek ostoak parrastaka galtzen ebezala, auxe esan eustan:

– Aizu, Patxi, laster amazapi urteko izango zara, eta oraingo alperkeria alde batera lagata, ordua da gizon baten ganorea artu dagizula. Ez dozu beste ikastetxera joaterik, uri onetako ikastetxeetan, besteetatik jaurtitakoak onartzen ez dabezalako. Auxe esan dauskue Sebe ta bioi leku guztietan, eta uri onetatik urrun ez dagoan zigor-ikastetxeak zure barrukotza edo internadurako eskatzen dauana, nire aalmenetik-at dago.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Ez dago beste biderik, beraz –jarraitu eban–, lanean jardutea baiño, eta bizibide guztietan jazoten dan lez, beetik asi bear zeozer izatera eldu gura ba'dozu. Amaika gogeta emon dausat arazoari, gora-beera guztiak kontuan artu, eta zure onureari begiraturik batez be. Onen ondorioz, “La Canela”n mutiltzat jardun dagizula erabagi dot, eta ona emen zelako baldintzetan: illeko alogeratzat ogei ta bost ogerleko ordainduko yatzuz, eta sari au ortik erabilten diran onenarikoa dan ezkerero, pozik egon zaitekez. Egia da, otzara lepo-gaiñean artuta zurubian gora ta beera ibilli bear izango dozula, baiña iñarkun onek indartu egingo zaitu, eta onezaz gaiñera, bezeroen eskupeko ugariak artuko dozuz.

Ona elduta isildu zan, eta itxura negartsuaz begizatzen ninduala,

– Baiña badago –jarraitu eban– beste alde bat arazo onetan, eta auxe izan be: nire kasa janaritu ta jantzi bear zaitudan ezkerero, eta generoek artu daben gorakada itzela kontuan arturik, bidezkoa deritxat ostatutzat zeozer ordaindu dagistazula, dana ez bada be, zati bat beintzat. Nire zenbakien arauz, illean ogei ta bi ogerleko zuzentzat daukat. Zorionekoa zara izan be, ostatu ona ta nire zaintza arduratsua izanez gaiñera, iru ogerleko eder sakelerako geratzen yatzuzalako illean, eta diruketa oneri bezeroen eskupekoak geiturik, eta “La Canela”ren bezeroak primerakoak dirala danek dakien gauza izanik, zure aukeran bizi izango zara, Patxi.

Ona elduta isildu zan, eta eskintza obaeziña egiten dauanaren itxuraz begiztatu ninduan. Bitartean, nire buruari niñotsan “generoek artutako gorakada itzelaz” zer arraio egingo neuken enparauko iru ogerlekotxuakaz illabete osorako, gogoan izanik batez be jantziketea nire kabuz izango litzakela. Bezeroen eskupekoai buruz, banebazan nire zantzak, eta auxegaitik: jangaiak erosten dabezanak etxeoandreak dira, eta barkatu beiste, baiña euron eskuzabaltasunean, Patxi Arlotek ez eban uste andirik garai aretan.

Bitarte onetan sillu barriak egokiezan lekutan eratsita, lana amaitutzat emon eban Piokanela'k, eta oeratu aurretik, auxe esan eustan:

– Jardun barri orretan zentzutuko zarala uste dot, eta guztien erdua biurtuko be, ostantzean... damu edo garbai izango dozu, bai orixe...! Datorren Astelenetik asita, jardungo dozu, beraz, “La Canela” saletxe ospetsuan, eta pozik egoteko da, izan be, olako leku on baten jardutea.

Sukaldera biurtuta, izeko Asentzi jakitun ipiñi neban, eta orduan berak,

– Ez dago txarto osabaren eskintza –esan eustan–. Zeugaitik udaletik illero artzen dauanari, ogei ta bi ogerlekuok erasten ba'dautsaguz, berrogei ta amar ogerlekoen jabe billakatuko da illero. Ortik kenduta, gitxi gora-beera amabost ogerlekokoak dan etxe onetako zure ostatu-saria, orduan ogei ta amabost ogerlekoen onura atarako dau zugandik. Onezaz gaiñera, auzokideen begirune ta ederrespena umezurtz bat etxean artzeagaitik, Nik ostera, eroste-lapurretari jarraitu bear, egokiro jantzi zaitez.

Une aretan, baiña, beste arazo bat nerabillen gogoan, eta auxe esan neutsan:

– Izeko, ni ez naz iñongo andikiren semea, eta ez naz griñatsua, baiña neu lako amazapi urteko mutillarentzat, uste dozu iru ogerleko aski dirala illabete osorako...?

– Ori, eskupekoak zelan izango diran...

– Nondik atara dozu, izeko, auzo onetako etxeoandreak eskuzabal izango diranik...? Neuk, beintzat, ez dot uste. Ara... Zabalbide'ko aldapan gora otzara bete joiazanean, Tomas zanak eta biok atsoai laguntzen geutsen eskupekoak ataratearren. Baiña emoteko garaia letorkienean, bazirudian txanponak urtu egin yakiezala ziskuan, eta luzaro arakatu ondoren, ozta-ozta txakur txiki bat emoten euskuen, eta ez beti. Danak bardin ziran, izeko, eta ordutik ona, ez dot uste emonkorragoak biurtu diranik. Pentsau be, iru ogerleko illabete osorako...!

Izeko Asentzi'ren gogoetak beste bide batetik joiazan, antza, auxe esan eustanean:

– Iru ogerlekuok naikoak dira lanez kanpotiko ikasketa bereziak artu dagizuzan.

– Ikasketa bereziak diñostazu...! Baiña zelan konponduko naz lagunarteko arremonetan txanponik bage...?

– Begira, Patxi. Batxillerreko boskarren mailla ozta-ozta egiñik, ez zara iñora joango, mundu onetan zeozer izan gura ba'dozu. Ara... lengo egunean, aspaldiko ezagun bat ikusi neban, eta bere semeak lan-orduetatik kanpo, ikastegi baten urte biko kondalaritza-ikasketak artu ebazala esan eustan, eta onen ostean, etxe garrantzitsu baten jardun on-ona artu dauala.

– Ze jardun ona ta jardun oste...! Egun osoan eskillaran gora ta beera ibilli ostean, uste dozu, izeko, nire biotzeko iru ogerlekuok erreko dodazanik akademi baten...? Ez orixe...!

Izeko urreratu yatan, eta nire burua laztandurik, alboan jesarri zintzakidan, eta mailtesu auxe esan eustan:

– Begira, Patxi... Zeuk besterik uste izan arren be, ni ez naz luzarorako izango. Aspaldi onetan ez naz ondo aurkitzen, eta joan aurretik, ikastaro bi orreik artu dagizuzala gura dot. Laster izango dira sei urte gurera bizi izatera etorri zintzakiguzanetik... Ez dau-

tsut iñoiz ezer eskatu, baiña gaur, neke ori nigaitik artu dagizula eskatzen dautsut. Egingo dozu, Patxi...?

Izekoren begietan eskari larria irakurri neban, eta zauskada bakanpean oartu nintzan, ezin nengikiola eskaturikoa ukatu, eta orduan,

– Izeko –esan neutsan–, ez zaitez nigaitik larritu. Joango naz akademi orretara zeuk nai ba'dozu.

Besarkatu ninduan berak, eta,

– Egunen baten, Patxi, neke orren saria ezagutuko dozu.

Gau aretan oean nentzala, burura etorri yatan, niretzat zein ona azaldu izan zan beti izeko Asentzi. Ain zuzen be, ezin nintzakion jarki beragandiko edozein eskariari, eta ainbat areago orren zoribakoa izanik. Gomutara etorri yatan gero berak esandakoa, au da, luzarorako ez litzakela izango, eta larritasun esaneziñak menperatuta, otoi gartsua egin neban bere alde.

Eta nire patuari jarraituz, Urrilla'ren lenengo egunean, Piokanela'k arduralaritzat ziarduan dendara eroan ninduan. Andra bat zan “La Canela” denda ederraren jabea, eta oso aberatsa ei'zan. Dendako bezeroen kopuru andiagaitik, onura polita ataraten eutsan dendari. Guztitariko jangaiak saltzen ziran, baita jatekoak ez ziranak be, esaterako, argizagiak, abarkak, suillak, lapikoak, pitxarrak etab... Jabea Mari Josepa izenekoa zan, baina bere ustez “La Canela”ren gaiak uriburuko merkeenak ziran ezkerro, askok Marimerke esaten eutsoen. Andra lodikote au alarguna zan, eta seme-alabarik ez izanda, besaulki baten jesarrita, erregin baten antzera ziarduan, amabiko-erdi ogipekoak begimenetik galdu barik. Bezero guztiak ondo erabilliak izan zeitezala, Marimerke'ren elburua zan. “La canela”ren bezeroak ez ziran soillik auzokoak, uriko leku guztietatik denda onetara eroatera etozan-eta. Noiz edo noiz Andra andikiren bat etorrenean, besaultik jagita, Marimerke'k “Ongi Etorria” emotsan eta bidebatez, aren etxeko guztien osasun-barriak eskatzen eutsazan.

Dendako sabaipen, txoritoki antzeko baten ziarduan Piokanela'k, eta a lako etxe garrantzitsuari ezer peitu ez ekion, tarteka-marteka txoritokitik jatsita, salgaien kopurua aztertu oi eban eskakizunak garaiz egitearren, eta gaiok merkeago azaldu zeitezana, andika erosten ebazan, onein artean izanik, saletxeari benetako garrantzia emotsana, kanela alegia.. Kaleko janzkia loitu ta zimurtu ez ekion, dendara eldu baiño ez, jakea kendu, eta margo arrek txabuxa erabillen. Gaien eskaerak egiñez gaiñera, eguneko salketearen dirua zenbatu ta etxeko kontu-agirira sartu, kondalaritza-liburuak erabilli, ordain-agiriak aztertu, eldutako gaien onura egiztatu, ogipekoai alogerak ordaindu etab., Piokanela'ren ardurapean egozan. Egiari zor yakon begiruneagaitik, ondo ziardua, eta bere arazoak ondo beteten ebazala, esan bearrean naz. Izan be, Marimerke'k eta onen ogipekoek ederreten eben dendako arduraduna.

Dana-dala ez neban zer-ikusi andirik osaba Pio'rekin, Marimerke'ri lotuta egoan nire betekizuna-ta. Andra onen alboan urrutizkiña eskegita ikusten zan, eta bezeroen eskakizunak artu ta idatzi ondoren, txartela niri eskuratuta, gaiak apaletik artu, txirindola batteko atzekaldeko otzara andi batera sartu, eta agindutako etxera edo etxeetara abiatzen nintzan banaketea egitearren. Dendara biurtzean, beste bat begira neban edo ostantzean

banaketarik ez izanik, gai eldu-barriak egokiezan leku edo apaletan jarri urrengo banaketararte, baita inarraz sorua garbitu bearrekoa izatekotan be.

Ozta-ozta amabost egunez “La Canela”n niarduala, illunabar baten eginkizuna amaituta, izeko Asentzi’k kondalaritzaren akademi batera eroan ninduan, eta ango nagusiarekin itundu zan, egunoro ordubete bateko ikastaldia artuko neukela, zortziretatik bederatziak arte, illeko saria iru ogerleko izanik. Olan ba, arrastietari lana amaituta, dalako akademi edo ikastegira gabeko bederatziak arte. Etxera biurtuta, apaldu baiño ez, nekearen-nekez oera, urrengo egunerako indarrak batzeko.

Ez ninduan txarto erabilten Marimerke’k, baiña berarentzat unetxu batez geldirik egotea pekatu larria izanik, etenbarik arazopetuta ninduan, iñongo atsedetik artzeke. Batzutan, nekearen-nekez akademiko ikastaldian lo geratzen nintzan, irakaslearen arritasun eta ikaskideen jolaserako. Ona elduta esan bearrean naz, “Eroslea”n artutako irakaskintzari esker, oraingo ikasketak errazak yatazala, aurrerapen nabaria egiñez, illeroko ikaste-eritxiek erakusten ebenez. Ai, nire biotzeko iru ogerleko areik ez ba’neuz ordaindu bear izan...!

“La Canela” uriko alderdi zaarrean egoanez, gure bezeroen etxeek ez eben igokiñik, eta banaketak zurubian gora ta beera egin bear. Sarri askotan, txirindola ta biok biurtzen gintzazanean, lerrenak eginda oartzen nintzan, baiña Marimerke’reñ eritxiz, nekea kentzeko biderik onena, jardun-aldaketea zan, eta augaitik apalak atondu, edo sorua isastutea agintzen eustan. Bestetan, dendaren aipu andiagaitik, auzo aberatsetara joan bear izaten neban, baiña ereti areitan, atezain barrabasek, igokiñak zikintzen ziran atxakiaz, ez neban erabilterik. Etxe oneitan, baiña, etxeoandreak eskuzabalagoak azaltzen ziran, eta urru-tiagoak izanik be, Marimerke’k agintzen eustanean, pozik niñoan etxe areitara.

Olan eta guzti be, sakelerako sarrera bakarrak eskupekoak izanik, eta oneik bataz beste urriak, ez neban lagunarteko bizitzarako dirurik, eta jaiegunetan bazkalduta gero, eguraldi txarra izanik batez be, erri-liburutegian astia emoten neban, edeski arrigarrien idaztiak irakurriz, eta askotan, aldiaren neurria galduta, oartu nintzaneko, etxera biurtzeko ordua zan. Irakurgai oneik, neugan ekintza anditarako zaletasuna piztu ebezan, eta askotan ames egiten neban, antxiñako zaldun edo itsas-lapurra biurtzen nintzala. Irakurgai oneik, oartu barik, lur barriak ezagutzeko irrika neugan erein eben.

Mandatuak egiteko nerabilten txirindolea margo orlegikoa izanik, matxingorriko baten irudia ekarstan gogora, eta, laburtzearren, “Matxin” izena emon neutsan, eta bera nire nekeen tresna bazan be, maite neban, beti garbi ta ondo zainduta iraun-erazoten ne-bala. Etxe batera elduta, atadi-barrura sartzen neban, eta otzara lepo-gaiñean, zurubian gora niñoan eskaturiko gaiak banatzeko. Bidegitea ondoen ustiatzearren, geienetan otzarea beterik neroian, eta eskurapena goiko maillatan zanean, arnas-estuka nenbillen. Gero, beste etxe batera, etabar, lorketea amaitu arte. Askotan, utsik biurtzean, itzul-bidea luzatzen neban berariz, beste mandatu bat nire begira egongo zan-eta. Ain zuzen be, pozik oartzen nintzan biurtzean, apalak atondu edo sorua isastu bear nebanetan.

Olan ba, aldiaren joanean, auzoko etxeoandreekin batez be, ezaguera andiak egiten asi nintzan uriko alderdi zaarrean. Etxekoandre gazteak atsoak baiño emonkorragoak zi-

ran, baiña oneik begikoagoak, eta askotan, gaiak eskuratu ostean, ez ninduen andik urte-ten lagaten, euren ipuiñak edo antxiñako jazoerak burutik buztanera iño entzun arte. Las-ter ikasi neban, denda-mutil batek bere jarduna ondo egin nai ba’dau, jasankor eta begi-koa izan bear dauala, ez larregi, baiña, ostantzean astirik ez mandatuak egiteko. Atso bari-ritsuen artean, bazan bat “La Coronela” esaten eutsoena. Karlatar koronel baten alargu-na zan, eta bakarrik izanik, atea edegiten eustanean, sukaldera iño sarrerazoten ninduan, eta gaiak mai-gaiñean ipiñi bitartean, aulki baten jesarrita, azken karlatar gudako amaika jazoera entzun bear izaten neutsazan. Geienetan lelo bardiña erabilten, auxe iñostala:

– Ai, nire Paustiño zangarra...! A lako gizonik ez da askotan ikusten. Zumalakarregi’reñ adiskide andia zan, eta sarritan guda-ekintza bat asi aurretik, nire senarrari dei egin eta auxe esaten eutsan: “Paustiño, biar nondik asiko dogu eraso...? Nire senarrak eritxia emotsan, eta gero zer...? Ara... Zumalakarregi’k irabazi...”

Ain zuzen be, “La Coronela” edeslari bikaiña zan, eta ordutan zear abo-zabalik egongo nintzakean bere ezpanetatik dilindan, baiña Marimerke’reñ furrustadaren bildur-rez, abo bete berbakaz izten neban, zurubian beera ariñeketan, Matxin eta biok etxerik-etxe gure betekizunari jarraitzeko. Askotan edestu eustan Irañeta’ko urdazpikoarena onet-axe:

Nire senarra Naparra’ko Irañeta errian bere gudataldearekin kokatuta egon zan aspaldi batez. Bein baten, alkatearen emazteak urdazpi ederra emon eustan. Aldi areitan, goseak nagusitzen eban guda-lurralde, eta dalako urdazpia ostu egiskuen bildurrez, gan-barako abe batetik eskegi neban. Gau aretan, nire Paustiño’k zabal-zabal lo egiten ebala, lo-sakonekoa zan-eta, ganbaratik etorren zarata batek iratzarri ninduan, eta oin-muturrez eskillaran gora joanda, ango illunditan izaradun mamu edo iratxo bat ikusi neban. Bildur-rak jota gelditu nintzan, baiña nire urdazpia aren eskuetan ikusita, ikarea baretu yatan zeozer, eta “Aizu, zertara etorri zara nire etxera...? itaundu neutsan, eta berak: “Etxe one-tako arbaso baten mamua naz”. Orduan neuk: “Zer nai dozu ba...? eta berak: “Nire alde oititzak egin dagizuzala”.

– Onen bitartean –jarraitu eban “La Coronela”k–, begimena illunpearri egokitu izan yatan, eta izararen azpitik gudari baten praka-barrenak ikusi nebazanean, iñarra bat artuta oldartu nintzakion, auxe nirautsal: “Oititzak eskatzera, ala urdazpia ostutera...? Iges egiteari emon eutsan gudariak, baiña kanpoan egoan esku-mailladian beera joatearren, teillatuko argi-zulotik urteteko, urdazpia ostopoa izanik, bertan-beera lagata, arin baten urten, eta lekoreko illunpetan ostendu zan.

Emakume zangar eta adoretua zan karlatar koronelaren alarguna. Burrukan egiten izan ezik, gudate osoan bere senarraren ondoan iraun eban, gudea amaitu arte. Areitariko burruka-ekintza baten, liberalek senarra atxillotu eben, eta Naparra’tik Cartagena’ko es-petxe batera eroiela, emakume zangar arek espetxera iño oiñez jarraitu eutsan senarrari. Gudea amaitu zanean, Paustiño etxera biurtu zan, eta maisutzat jardun eban errixka baten il zan arte. Niri eskupekorik emon ez arren, gauza asko edesten eustazan emakume begi-ko arek, baiña liburu onetan Patxi umezurtzaren gora-beerak eta ez beste iñorenak idaz-tea, nire elburua dan ezkerero, laga dagigun oraingoz Paustiño’reñ gora-beerak alde batera.

Atsoak geienetan esku-labur izanez gaiñera, bizikera zaillak olan izatera bultzatu ebazalako, aspaldiko aldietan errotuta bizi izaten ziran, au da, lengo diruak oraingoa baiño geiago balio ebala ez eben oartzen, eta gaiak eskuratu ostean, baten batek (oso gitxitan) txakur txiki bat (bost zentimo) niri luzatuz, auxe esan oi eustan: “Eutsi, mutil, TBO'a erosteko edo zinera joan zaitez”. Gixajo areik ez ekien, antza, TBO'ak iru txakurtxiki balio ebazala, eta zinerako sarrerarik merkeena zan “Oillategia”k erreal bat balio ebala. Edozelan be, batatz beste, nire gizarite-bizitzarako diru-urritasunari zelanbait laguntzen eustan. Diruari ederrespen gitxiagoa eutsoelako-edo, etxeoandre gazteak emonkorragoak azaltzen ziran. Zoritxarrez, baiña, gaiak etxera eskatzen ebezanak, atsoak ziran geienetan.

Baziran agiraka beti artzen ninduenak be, gaien prezioagaitik nerau erruduna bai'nintzan, eta gaiak astiro banan-banan eskukatuz, begitarte salataria nigan jarrita, auxe jaurti oi eusten:

– Generoen karua...! Mutil, mutil, olan jarraitzekotan, txirindolan barik automobillean ekarriko daustazuz mandatuak...! Lotsaren izpirik ba'zendu, ez zeunskidaz perrexil-txorta ziztrin augaitik iru txakur txiki kenduko...

Eta gero gaien zerrendea irakurten jarraituz,

– Andia da gero, urdazpiko ezerezkeri augaitik erreal bi niri kendu bear be. Ai ene bada...! Gurean beti begiratutxuan bizi, eta orra or bapatean, gure izerdiak blindiblaust egin...! Eta indiabaren eskukada augaitik iru erreal eder kendu, au da izatekoa gero...!

Onetan, baiña, senar-emazteak ziran “Caldolimpio” etxean bizi izaten zan bikotea agiriena zan. Senarra gixajo andia izanik, aitagandik jarauntsiriko diruak, bere emaztearen laguntza ta aolkuz, diru-merkatuan edo “Boltsa”n, salerosketen bidez, irabazte politak egin ei'ebazan, eta biok zein baiño zein diru-goseago izanik, jauregi baten bizi izateko beste izan arren be, zekenkeri utsaz erdipurdiko etxe aretan bizi izaten ziran. “Caldolimpio”nera joan bear izaten nebanean, gogo txarraz niñoan, atsoaren betiko lelo ta furustadak entzutez aspertuta. Geienetan, gogait-eragindako senarra ez zan etxean, emazteak kalera igorritako, urrean, duan zan aizea artu egian.

Zorionez, baiña, etxe aretara illean bein soillik neroiazan jangaiak. Izan be, ezin nengikean ulertu, zelan bizi zeitekean bikotea illean bein eskuratzen neutsezan jangai areikaz soillik. Bialketa areitan iñoiz peitzen ez zana, txistorra zan. Etxe aretan illabetero txistor bakar bat sartzan zan, eta kontuan arturik, batatz beste illabeteak ogei ta amar egun txistor bakarra sartzen zan, eta makaldutako txistorra erdibanatuta, samur-samur billakaturiko egoski zaarra, ordubete bateko mamurketaren ostean garbitu izaten zan. Izan be, ezin eskatu iñongo txistorrari, axe baiño azken aintzagarriagorik.

Egiari zor bear yakon begirunez, esames orretan iñongo esku-sartzerik ez nebala autortu bear dot emen; auzoan bala-bala zabaldua ebillenari belarri emon baiño, ez neban

besterik egin. Berez doa, “Caldolimpio” etxeoak bedar-izpia baiño argalagoak zirala, eta gaurregun osasun-aldetik ori erabilten dan ezkeru, senar-emazteek ez eben iñoiz biotz-makurrik jasan bear. Etxe aretan, baiña, oso zailla izanik be, bazan bikotea baiño argalagoa zana: etxeo katu denganiñoa. Ez da esan bearrik, ugazabakandik katu arek ez ebala janaririk artzen, eta bere kabuz billatu bear, beraz, etxean emoten ez eutsoena. Gosearen-gosez, ganora itzela irabazi ei'eban bere janaria lortzeko, etxeo saguak ostendu ziranean batez be...

Bein baten, baiña, katu barrabasak txandrio itzela egin eustan, egin be. Egun aretan nire deiari erantzunez, etxeo atsoak atea edegi eustanean, oi neban lez otzarea mai-gaiñean ipiñi neban, eta berak betaurrekoak jarrita jangaien zerrenda ta prezioak irakurri ta itzelak esan bitartean, tximistaren antzera, katuak otzareari eraso, eta txistorra agiñen artean oratuta, zurubian beera ostendu zan. Aren jarraian asi gura nebaneko, kalean egoan.

– Ez zaitez larritu, mutil –esan eustan atsoak–, gero akarriko daustazu beste txistor bat, eta kitto.

– Nik ez dot beste txistorrik ekarri bear –pipertuta erantzun neutsan–, ekarri ta mai-gaiñean laga egin dot-eta.

– Emen ez dago iñongo txistorrik, eta neuk ezin ordaindu nire urdaillerako ez dana. Olakorik be...!

– Andia da, gero...! Txistorra etxe onetara sartu da, eta orko maian itzita gero, gosez ildako zure katu denganiño orrek iruntsi egin ba'dau, neuri ez dagokidan arazoa da. Txistorra eskuratu ondoren, or konpon Mari Anton...!

“Caldolimpio”neko atso pirriak iñarra arturik, eta otzara utsa zurubian beera jaurtita, iñarrakada bizitan urten-erazo ninduan auxe iñostala didar baten:

– Mukizua, besteren mukizua...! Lepoa astinduko dautsut lotsabako ta abotzar ori...! Bereala zure ugazabandragana joango naz, eta jakitun ipiñiko be, bai orixe...!

Atadian otzarea bere lekuan tinkatu ondoren, “Matxin” eta biok dendara biurtu gintzazan. Izan be, “Caldolimpio”neko atsoak niri emondako erabilteak asalatu izan ninduan, eta asarrez irakiten eldu nintzan. Jasandakoa Marimerke'ri azaldu neutsan, eta onek arazoari jaramon andirik emoteki, beste bialketarako gaien zerrendea eskuratu eustan, aalik ariñen gertatzeko aginduz. Jangaiok atontzen niarduala, atso zenken gonerrea asarre baten sartu, eta nire aurka gorriak jaurtita, jazorikoa okertuz, au da, katuak txistorra arapatu ba'eban nire errua zala esanez, eta nik bere leptik barre egiteko, dalako txistorra, katuaren musturpean berariz laga izan nebala, katuak ostu egian. Esan ba'eban esan eban...! Une aretan Patxi Arlote neugan itxartu zan zuzentasunaren alde, eta bidezko asarreak artuta, auxe bota neutsan atso zitalari:

– Guzurra, guzur utsa...! Neuk txistorra beste jangaiekin batean maian ipiñi neban. Orduan goseak eraginda, etxeo beste aldetik katua etorri, eta txistorraz jabetuta, zenteilla lakoa eskillaran beera oldartu zan. Onen aurretik, baiña, gaiak eskuratu izan ziran, eta beraz, ez dot iñongo errurik.

“Caldolimpio”neko atsoak mintzo garratzaz guztitariko iraiñakaz bete ninduan, eta izan be, berba lodiak botateko gaitasun andia erakutsi eban.

– Tira, tira, Koxepa –bake-zale esan eutsan Marimerke’k–, jazorikoak ez dau mere-zi orrenbeste zaratarik. Beste txistor bat emongo dautsut, eta kitto.

Patxi Arlote ainbeste asaldakorra izan ez ba’litz, arazoa emen amaituko zan beste barik, baiña zuzentasunaren alde neban usteak ez eustan izten erabagia ontzat-emotea, eta salomondar sentipenez gaiñezka, atso suminduari, auxe esan neutsan.

– Ori ez da zuzena. Katua zeurea da, eta benetan zeuri dagokizu janaritzea. Nire ugazabandreak beste txistor bat emongo ba’leutsu, bi artuko zendukez baten prezioan, eta ori etxe onen kalterako litzake. Ona emen, beraz, neuk eskintzen dautsudana: katu barrabasa etxera biurtu daitenean, beronegaz atondu erreki gozoa, eta izan be, primerakoa izango da, barruko txistorrak emongo dautsan bikaintasunaz. Olan ba, zeurea dana, birrartuko dozu, eta katu denganiñoak ez dau beste iñongo txistorrik ostu egingo, eta...

Zuzentasunaren aldeko nire itzaldia, baiña, ezin izan neban amaitu, “Caldolimpio”neko atso pirriak, iñarra bat eskuan oldartu yatalako. Zorionez, “Matxin” urrengo lor- ketarako gerturik egoan, eta biok kaleetan zear abiatu gintzazan. Arazo onek, baiña, ez eustan beste buruausterik ekarri, eta urrengo illean “Kaldolimpio”nera oikoa eskuratzeke joan nintzanean, atsoari, antza, len jazorikoa aztu izan yakon, eta beti lez, gaien gorakada jasaneziña aipatuz, eta orren errua niri leporatuz, eginkizuna amaitu zan. Oraingo onetan, baiña, eta katu barrabasak bizirik irauten eban ezker, txistorra aza-orrien artean ondo ez- kutauta sartu zan “Caldolimpio”nera, eta burutapen au atsoaren gogokoa azaldu zanez, au- rrerantzean, txistorra barazkiz zomorrotua sartu zan etxe aretara.

Erabatean, bajoiazan aurrera nire ikasketak akademian, eta geienetan nekatuta iza- nik be, len “Eroslea”n ikasitakoari esker, polito menperatzen nebazan ikasgaiak, eta le- nengo mailla ondo igarorik, bigarren eta azkenari asiera emon neutsan. Orduko, urtebete bat emon izan neutsan “La Canela”n denda-mutiltzat, eta au dala-ta ondo ezagutzen ne- ban auzoa, baita berak ni be, Kaleetan zear nire “Matxin” orlegi-gaiñean niñoala, jen- deak agur egiten eustalako maitetsu. Egin bear izaten neban iñarkuna jangaiak zurubian gora eroateko, baita txirindoleak eskatzen eustana be, amazortzi urteko mutil sendo ta indartsua billakatua nintzan. Egitan, izandako ikasketakaitik ez neritxon ondo mandatar- izateari, eta beste goragoko zeregin baten jardutea nai neban. Izekok, baiña, kondalari- tzea amaitu arte ez nebala beste jardunik bear, bein eta barrero esondatzen eustan, eta atsegiña emotearren, aren eritxia aintzakotzat neban. Bion arteko lokarria aldiaren bidean sendotzen zan, eta Piokanela’ren niganako oztasun eta ardura-eza ordaintzeko, izeko nire on-izatearen dilindan egoan beti. Tamalez, geienetan ezkurrik bage aurkitzen zan, baiña eroste-otzareari kentzen eutsazan apurrakaz zelanbait laguntzen eustan, jantziteko batez be. Edateari eutsan griña madarikatuagaitik izan ez’balitz...

Aldi aretan, Marimerke’k emostan ille-saria anditu eustan, eta onek lekarkidaken na- saitasuna txastatu aurretik, nire zoriona pikotara joan zan, akademiko ikaste-saria aren ba- ten goratu eustelako, bigarren mailla karuagoa zan-eta. Olan ba, ezin neintekean oiko urri- tasunetik urten, eta jaiegunetako astia erriko liburutegian emoten neban. Idaztiak emoste- zan gogo-egoakaz amesezko mundu baten murgilduta bizi izaten nintzan, orduak une igeskorrak biurturik. Bataz beste, ezeukia izan arren be, ez nintzan zoribakoa oartzen.

Beiñola, etxe batera jangaiak eroatetik jaisten nintzala, atadira eldutean, zur eta lur eginda geratu nintzan. “Matxin” ostendu izan zan, eta txirindolek, berez, iges egiterik ez daben ezker, agiri zan ostu egin eustela. Latz-ikara batek artuta, kalean gora ta beera asi nintzan, alboko dendatan agaitik itaunduz, baiña dana alperrik azaldu zan, eta noizbait lur-jota, “La Canela”ra biurtu nintzan oldozkunik baltzenetan murgilduta. Banekian, os- tutako txirindolak geienetan biurtzerik ez dabela, arein itxuraldatzea gutziz erraza dala- ko, eta are gitxiago toki urruntsu batera eroatekotan.

Eldu ta bereala, jazotakoari buruz Marimerke jakitun ipiñi neban. Niri entzunda gero, – Begira, Patxi –esan eustan–, non itzi dozu lapurketa-aurkako katea...?

Atzeko gurpilletik sartuta, kate onek iñongo ostuketa eragozten eban, orretarako txuriril eta giltza eribilliz. Nik, baiña, betiko arlotea, eta errazagoa yatalako, ez neban da- lako katea aspalditik erabilten. Marimerke’ren begikada zorrotza jasan eziñik, sorura so egiñez, itxura errubakoaz,

– Ez dakit, Andrea –esan neutsan–, ortik galduko yatan-edo...

– Ez yatzun galdu, Patxi. Lengo egunean apalak atontzen niarduala, dalako katea an agertu zan erdiz ugertuta. Lapurretearen erantzunkizuna zeuri dagokizu, beraz, ziurtasun ori erabilli gura ez izategaitik.

Marimerke’k iñostana bidezkoa zan, eta erantzunik ez neban ezker, begiak soruan josita nirauan.

– Edozelan be, Patxi –jarraitu eban berak–, gaien banaketea txirindola barik eziña dan ezker, beste bat erosi bear izango dot, eta eskugaiñean erosita be, gitxienez ogei ta amar ogerleko ordaindu bear izango dot. Augaitik ba, illeko alogeratik iru ogerleko ken- duko dautsudaz, zure erruz galdutako txirindolea ordaindu dagizun. Zer deritxazu nire erabagiari...?

– Ez dot zer esaterik, Ugazabandrea.

Marimerke’k eskatzen eustana zuzena zan, eta ezin neintekion jarki, baiña... zelan ordainduko neuke, akademiko illerokoa...? Bigarren ikastaroari uko egin bear nai-ta-ez, eta gaiñera izekok artuko leuken atsekabea...! Ez neban beste biderik ba, “Matxin” zelan edo alan aurkitzea baiño, eta aalik lasterren, bestelan beranduago ta zaillago izango litza- kit. Orduko, Larunbateko eguberdia zan, eta asti-galtzerik ez egoanez, Marimerke’ri au- xe eskatu neutsan:

– Ugazabandrea, artu dagiket oporra arratsaldean...?

– Zertarako, baiña, Patxi...?

– Txirindolea aurkitu bear dot, baita aalik ariñen be.

– Ezin dagikezut ukatu ori. Zoaz ba, eta idoroko al dozu...!

Bazkalostean, neuk esan aurretik, Piokanela’k izeko Asentzi jakitun ipiñi eban, ber- ba zorrotzakaz nire ardura-eza agirian jarririk, eta itzaldi arranditsua amaituta “La Cane- la”ra biurtu zanean, izekori esan neutsan askaria atontzeko, “Matxin”en billa niñoanez, gaberarte ez nintzake biurtuko-ta.

– Nire Patxi gaixoa –esan eustan txeratsu– zeuri auxe be jazo bear ...! Zoaz, eta An- dramari’ri argizagi bat piztuko dausat txirindolea lenbailen aurkitu dagizun.

Arratsalde osoa emon neban auzoko ezagunai itaunka nire txirrindoleari buruz, baiña orduak alperrik igaro ziran, eta noizbait aspertuta, illuntzea zala auzoko goikaldera abiatu nintzan. Alako baten, eta etxeak bakantzen asten zirala, estarta baten zear niñoala mutil ezagun bat ikusi neban, eta ia txirrindola orlegi bat ikusi izan ete eban itaundu neutsanean,

– Bai –erantzun eustan–, margo orretako bat ikusi dot eguberdiñan. Estarta onetatik gora mutil batek eroian.

Biotza taupadaka asi yatan, eta,

– Aizu, adiskide –itaundu neutsan–, mutilla nongoa zan ba’dakizu-edo...?

– Ez dakit nor ezta nongoa zan be, baiña itxura traskillekoa zan. Bere janzki zantarrakaitik, or goiko Latontzi auzokoa dalakoan nago.

Eskertu neutsan biotzez, eta bidean gora arindu nintzan. Latontzi-auzoa edo Latontzitegia gure auzoan esaten genduaneez, guztitariko ondakin-gaiakaz eraiki izan zan, eta txabolategi onetako jendea aipu txarrekoa zan. Augaitik-edo, ertzaiñak ez eban auzoa ikertu gura, eta emen bakotxa bere aukeran bizi izaten zan, jabetasun-arauai jaramon gitxi egiñez. Latontzitegira eldu nintzaneko gau bete zan, eta auzoko argi urriek kikilduta, sartzea alperrikoa izango litzakela begitandu yatan, eta azterketea urrengo egunerako geroratzea ebatzi neban. Biurtu nintzan ba etxera, eta asko izan ez arren, itxaropen-izpitxu batek adoretzen ninduan etxera eldu nintzan.

Urrengo egunean, izekorekin mezatara joan nintzan, eta aurreguneko argizagia amaitu izan zala ikustean, izekok beste bat piztu eban Andoni Deuna’reñ aurrean, isil-misilka auxe iñostala:

– Urkiola’ko gure Santuari Gure Aita bat esan dagiogun, zure txirrindolea lenbailen agertu daiten.

Mezaren ostean, izeko etxean lagata, auzoan gora arin ibilli nenbillela, Latontzitegi’ra abiatu nintzan. Izan be, ez neban iseko Asentzi’k eskiñitako argizagia gitxiesten, baiña Urkiola’ko gure Santu andiak nire laguntza ez leukela txartzat artuko begitandu yatan. Laster geratu zan atzean gure auzoa, eta gurdi-bide baten gora andik ordu-erdi batera-edo, txabolategian nintzan. Auzoa ez zan andia, eta astiro niñoala, aren kale edo bide lupetsuak banan-banan ibilkatu nebazan, baiña billatzen nebanaren zantzurik ez. Auzo ziztrin aretan, enparantzaren antzeko zabalune bat edatzen zan, eta etsiak jota, arri-mukur baten gaiñean jesarri nintzan, neska-mutiko traskil batzuen joan-etorriak gogait-eraginda begiztatzen nebazala, eta nire buruari itauntzen neutsala, “Matxin” nire lagun ja-sankorra betirako ostendu ez ete zan...

Alako baten, eskutik eskegita margo-ontzi bat eroiala, bidean beera etorren gizon saskela ikusi neban. Areitariko txabola baten aurrean gelditu, eta didar bizitan asi zan:

– Txitxo...Txitxo...zatoz beingoan...!

Bereala, neu lako mutil bat agertu zan atean zuku-atzamarraz zuurtzilloak kilikatuz, eta gizonak orduan,

– Aiko, Txitxo –esan eutsan–, ona emen, osaba Katxo’k emoniko margo-ontzia. Ez yakiat zelakoa dokan, baiña arek ez yozak balio gitxiko generoak arrapatzen. Berak esan

yaustak legortze ariñekoa dokala. Orain egiten ba’yok, laster erabilteko moduan izango dok. Ez aztu, gero, ondo edatu margokia arin legortu yaian.

Itz oneik, jakingurea iratzarri eusten, eta suzmo bakanak jota, bidean beera joian mutillari isil-ostuka jarraitu neutsan. Txabolategiko ertzean, erdoituriko latazko txabola zikin eta inguingarrira elduta, giltzaz edegi eban, eta sartu zan atea zabalik lagata, argia sartu zeiten, koba aren argi-iturri bakarra zan-eta. Ezin nengikean atean zear barrura begiratu, dalako Txitxo’reñ suzmoak iratzarri barik, eta txabolako atzekaldean kokatu nintzan. Latontziakaz estaldutako alde onetan laster ikusi neban zirrikitu bat, eta onen zear begiraturik, atetik etorren argipean, Txitxo ta... “Matxin” berbera ikusi nebazan.

Nire Txirrindola maitea ikustean, zarrastada esan-eziñak menperatuta, lenengo asmoa barrura oldartu, eta “Matxin” artuta igesari emotea izan zan, baiña ori arriskutsua zala barruko zerbaitek esan eustan. Orretarako Txitxo’rekin burukatu bear, eta sortuko zan astrapalak aren lagunak erakarriko leukez, nire asmoa eragotzirik. Ereti bateri itxaroteara biderik zuurrena zan, egun osoa nire aukeran neban-eta. Banekian txirrindolea non egoan, eta onek alde andia emostan.

Une aretan, “Santurtze’tik Bilbao’ra” txistuka, Txitxo’k nire “Matxin” margo balzaz estaltzen eban, eta onen matxingorriagoaren itxura alai baltz illunbetsupean ostentzen zala ikustean, asarre gorriak artu ninduan. Emonaldia amaitu-agiñean zala, Txitxo’k txistu egiteari eten egin eutsan, eta txirrindolea irribarretsu begiztatuz, auxe esan eban:

– Au dok bizikletearen ederra...! Arratsaldean legortuta, Usoen egurastokian, ekitaldi zoragarria egingo yoat, eta biar kokoloren bateri salduko yautsat.

Eta Txitxo’k margozteari erraikiola, billaturiko eretia arratsaldean aurkeztuko litzakidala uste izanik, etxera biurtu nintzan.

Sartu nintzan, izekori jazorikoa edestu neutsan, eta orduan pozez gaiñezka,

– Banekian –esan eustan–, nire argizagiak arazoa atonduko leuskizula. San Antonio lakorik ez dago iñon orretarako.

Matxin laster birjabetuko neukelako usteak umorea alaitu eustan, eta orduan izekori,

– Ez al-do zu uste, izeko –esan neutsan–, goizean piztutako kandlea onezkero itzungita egongo danik...?

– Baleiteke, Patxi, baiña arrastian beste argizagi bat piztuko dot lagundu dagitsun.

Barre egin genduan, eta goiz aretako ibillaldiak goseturik, adore andiaz lapikokoari ekin neutsan. Andik laster Piokanela eldu zan, eta izekok arentzako bazkaria mairatu bitartean, Latontzitegi’ra abiatu nintzan. Etxetik urten aurretik, janzki zaarrena eskatu neutsan izekori, eta praka altzituaz eta txorimalo bateri egokion jakeaz apañduta kalean go-ra joan nintzan. Bidean gora niñoala, amaika egitasmo bururatu yatazan “Matxin”ez jabetzeko, baiña bata bestearen atetik baztertu nebazan. Jazoeren garapenari itxaroteara, eta orduan ekitea, biderik onena izango litzakela otu yatan. Latontzitegi’ra eldu nintzan, txabolako zirritutik so egin ondoren, pozez egiztatu neban an zirauala oraindiño. Andik ez urrun, arri-mukur baten gaiñean jesarri nintzan jazoeren begira. Luzaro barik, Txitxo kalean beera agertu zan txistu bizitan, eta txabolako atea edegirik, laster ikusi neban “Matxin”ekin, Usoen egurastegira joten ebal.

Egurastegi au, Latontzitegi'tik nire auzora bitartean egoan, eta leku zoragarria zan, lorategi ederrek, latzin txukunek, eta bide-txigor paketsuek edertuta. Egurastegi onen inguruan, txirindolentzako bidegorri bat edatzen zan, ume ta neska-mutikoeek inongo arrisku barik erabilli egien. Egurastegira eldu zanean, Txitxo une batez gelditu zan auzoko laku batzuekin berba egiteko, eta arro-arro eroian txirindolea erakustearren. Axe nire eretia zala uste izanik, urreratu nintzakien, eta,

– Txirindolaren ederra...! –esan neban– Alogeran emoten da...?

– Bai zera...! –irriño isekariz esan eustan Txitxo'k–. Neurea da, eta ez dausat inori alogeran itxiko.

Gomutara etorri yatan erreal bi nebazala, eta oneitariko bat atararik eskiñi neutsan. Ezustez, oartu neiten baiño len, esku-ukaldi ariñaz txanpona kendu eustan, eta itxura zemaikorraz,

– Kendu ortik, papao ori...! –esan eustan– bestelan orko ur-biltegiara botako zaitugu, arrain gorriekin ugeri egin dagizun.

Au esatean, barre-santzoka asi zan bere taldeak lagunduta, urreratzen yatazala ni inguratzeko asmotan. Ezin negikean bost lagun arein aurka burrukan egin, eta inguratu ekitzadan aurretik alde egin neban, lotsabako arein barreek eta zirikadek jazartuta. Apalduta sentitzen nintzan, eta bide-gorriaren ondoko aulki bakar baten jesarri nintzan sumin itzelak artuta. Olan nengoala, Patxi Arlote asaldakorra, nire baitan itxartu zan, eta zelan edo alan nirea zanaz jabetzea erabagi neban. Zelan, baiña...?

Emen zetzan korapilloa, asarre bizian urtenbiderik ez neban ikusten-eta. Olan nengoala, txirindola artuta, bide-gorrian zear ibilten asi zan Txitxo. Lotsabako aren pean nire "Matxin" ikusteak, are geiago sumindu ninduan, eta au gitxi bai'litzan, nire ondotik igarotearren, Ijuuuu...! iririlaria botaten eustan. Arrats-beera zan orduko, eta negua izanik, eguzkia laster ostenduko litzake, gabaren etorrereak nire aukerak ezereztuz. Zeozer egin bear, baita laster egin be. Ingurura begiratu neban, eta bide-gorri bestaldean, etxe baten eraiki-lanak ikusi nebazan. Zergaitia jakin barik, bertaratu nintzan ez nekiala zeren bila... Orduantxe, lurrean abe-zati ederra ikusi neban, eta tximistaren antzera egitekoa argi-argi agertu yatan...

Abea artuta, bide-gorri biurtu nintzan. Onen beekaldean okergune zorrotza egoan, nire asmotarako lekuri egokiena izan be. Alboko landare-taldean eta zugazñoen artean aalik ondoen ezkutaturik, dalako biurgunera urreratu nintzan aukera baten begira. Laster igaro zan Txitxo "Matxin"en oinpekoak gogor erabilliz. Itxaron neban une batez, eta Txitxo barrero be igaro baiño len, okergune amaitzen zan lekuan abea gurutzatu neban, eta jazoeren begira geratu nintzan. Laster urreratzen zan Txitxo oinpekoai adoretu ekitzadan, ezpanetan "Santurtze'tik Bilbao'ra" eresia txistuka. Bapatean, galgeari ekin aal baiñez, ezpanetan "Santurtze'tik Bilbao'ra" eresia txistuka. Bapatean, galgeari ekin aal baiño len, aurreko gupilla abean jo, eta "Matxin"ek itzulipurdi egiñik, Txitxo'k piltzarraren antzera egan egin eban, landare-sail baten erdian lurreratzen zala bere aiene negartsuek lagunduta.

Unerik galtzeke, txirindolea lurretik jaso, eta Ijuuuu...! adoretua jaurtita, arin baten urira biurtu gintzazan "Matxin" eta biok. Nire oinpekadak eraginda, "Matxin"ek bizi-

rik zirudian, pozez gaiñezka esango neuke, galdutako ugazaba osterara be aurkitzean. Aizeak laztanduta etxerantza giñoazala, biotzetik ezpanetara, bertso oneik sortu yatazan:

Txitxo ugerdo lotsabako
arropuz eta traskillo,
ikusi zaitut aidean
biurtuta txontxongillo.
Erreal bat niri kendu
lapur andi ta astokillo,
ondo zagoz, arraioa...!
landare-artean atxillo

Txitxo'k baltzez margotu
nire Matxintxu laztana,
baiña nik biurtuko
betiko musker apaiña.
Etxerik-etxe barrero
apal-apal eta esana,
buru-belari egiteko
bere ezinbesteko lana.

Urkiola'ko Santuari
izekok argizagiak,
neuk be biotz-biotzetik
eskiñiko esker biziak.
Ez dagigun aztu, baiña,
lagatako abe geldiak,
izango baidira askotan
lanabes ederretsiak.

Eldu nintzanean pozik besarkatu ninduan izeko Asentzi'k, eta auxe esan eustan:

– Banekian, Patxi, txirindolea idoroko zendukela. Ara... zu etxetik urten eta ordu-bete batera, parroko San Antonio'ri argizagi bat piztu dausat, eta erre-bitartean, berak irribarre egiten eustala begitandu yat. Onen ondorioz, orra or txirindolarekin zatozala. Orain esaidazu zelan jabetu zara zure "Matxin"az.

Arratsalde aretan jazorikoa edestu neutsan guztitariko zertzeladaz, eta amaitzean, bertso sortu-barriak abestu neutsazan, eta izan be, aspalditik ez neban ikusi izeko ainbeste zorionsua, gogo beteaz barre egiten ebal.

Biaramonean, "La Canela"ra sartu nintzanean, etxeko guztiek zoriondu ninduen, baiña geien poztu zana Marimerke izan zan, eta astirik galtzeke mandatu batzuk egitera igorri ninduan, "Matxin"en biurpen aintzatsua ospatzeko, urtean. Egun aretatik, edozein lekutara niñoanean, txirindolea zurubiko eskudelera lotzen neban, eta arrezkero ez neban ezagutu beste oztoporik. "La Canela"ko guztiek, baiña, uts emoten geutsan "Matxin"en lengo margo orlegi alaiari, eta abo batez lengora biurtzea erabagi zan. Arratsalde aretan bertan, azken mandatu egitetik nentorreanean, Marimerke'k margoki-ontzi bat eskuratu eustan auxe inostala:

– Eutsi, Patxi, ezin dagikegu lengo "Matxin" alaia, bela biurtuta ikusi. Margoztu egizu orain bertan, biar erabilli dagikezun. Margokia legorte ariñekoa dala esan dauste.

Astirik galtzeke, arloari emon neutsan, eta ordubete bat-edo igarorik, bela-itxura

galduta, betiko "Matxin" alai berpiztu zan. Barriro be kaleetan zear abiatu gintzazan, ezer jazo ez bai' litzan, bera ta biok alkartuago oartzen gintzazala. Baiña geien poztu ninduana, akademiko ikasketai jarraitu aal izatea zan, ez neugaitik bakarrik, baita izeko Asentzi'ren zorionagaitik be.

Egutegiak beste udabarri bat ekarri euskun, eta berpizkundearen zantzuak barriro be agertu ziran, izadia soiñeko barriaz jantziten zala. Jendeak sasoiko olerkiaz kutsututa zirudian, eta egun-argia luzatzen joian giñoan, sentipen goibelak norberagandik igesi joiazan...

Neuk be aren baten oartu bear izango neban, baiña bazan zerbaitek, eragozten ninduala: Izeko Asentzi'ren osasun-beerakada andia.

Aspaldi aretan jangar eta nakar ikusten neban izeko gaixoa. Goizean, oiko erosketea egiteaz eta janaria atontzeaz, tira...! baiña arratsaldeko bakartasunean, beragan kokatua egoan edate-irrika arek menperatuta, "Larranbillo"z zomorroturiko pattarrari emotsan gero ta sarriago, gero ta ugariago. Nire jarduna amaituta etxera biurtzen nintzanean, nai-koa neban aren begien itxura motela ikustea, noraiño edana zan jakiteko. Gero, mintzoa ta eskuak dardar baten, aparria atontzearren batetik bestera urrats astunaz ebillela, bazirudian lengo izeko Asentzi'ren mamua, mundu onetatik gero ta urrutiago aurkitzen zan itzal igeslaria.

Nire jardunagaitik, azken udean ezin izan neban Iragoikoa'ra joan, eta bera joan zeiten nire errekuak eta guzti, ez eban etxetik urten gura. Banekian, neu bakarrik ez izteagaitik zala, eta erruki esan-eziña neutsan. Sentipen onek eraginda, era guztietan saiatu izan nintzan alkolkertik baztertzea, baiña dana alperrik zala ikustean, bere edatekeriari bakean emon egitsan laga neban. Bein baten, auxe esan eustan:

– Patxi, noiz amaituko dozu ikasketak...?

– Udabarri onetan, izeko.

– Orrek poztuten nau benetan. Egunen baten, ni joanda gero, lagungarria izango yatzu.

– Izeko, joan zaitez an ez dot gura.

– Ez naz luzarorako izango, Patxi. Jabetzen nauan egarri madarikatu onek eroango nau.

Atsekabe larripean, auxe esan neutsan:

– Baiña, izeko, zergaitik ez dozu uko egiten edateari...?

– Ezin dot, Patxi, beranduegi da-ta. Pio'ren niganako ardura-ebak edo oztasunak, eta umerik izan ez izateak be, egoera onetara eroan nau. Asiera baten, noizbeinkako txurru egitea zan, baiña aldiaren joanean griña zital orrek jabetuta, orain ez naz ezertarako. Lenago etorri ba'zintzaz etxe onetara, salbatuko nintzan, baiña orain beranduegia da... Jaungoikoak erruki zakidala...!

Udabarriaren etorrereaz, akademiko nire bigarren ikasturte amaitu zan, eta onekin kondalaritza-ikasketak beteta, Igande bateko eguberdian, akademian alkartu gintzazan ikasle-irakasleak agiri-banaketaren jai baten. Dotoreak ziran agiriok, eta neurea artuta, burura etorri yatan zelako poztasuna artuko leuken izekok nire saria ikustean. Banaketea

amaitu zanean, jatetxe baten bazkari on-ona artu genduan aldarerik onenean, eta arratsalde-erdian etxera biurtu nintzan, aurretiaz txastatzen nebala izekoari emongo neuskion atsegiña.

Ateko txilin-deiari, baiña, ez eustan iñork erantzun, eta batzutan ateko lanpaspean izekok giltza gorde eroiala gomutatean, makurtu nintzan, eta lanpaspekoa arakaturik, dalako giltza jaso neban. Atea edegirik, eta etxean iñor ez egoalakoan nire gelara niñoala agiria lagateko kalera urten baiño len, izeko Asentzi'ren lo-gelako ate-ondotik, arnas-estua etorrela begitandu yatan, eta urreraturik, izeko soruan etzanda ikusi neban. Atsanka idoro neban gaixoa, eta besoetan artuta, oe-gaiñean ipiñi neban. Au egitean, zein argala egoan oartu nintzan, luma bat neroiala begitandu yatan-eta.

Argia piztuta, burusi bataz estaldu neban, eta eskuturra arturik taupadaren neurria artu neutsan. Bazirudian, aultasun utsaz, noiznai eten egingo litzakiola, eta nire buruari itauntzen neutsala, osagillearen billa joan ala bere ondoan geratu, begiak zabaldu ebazan, eta mintzo totalaz auxe esan eustan:

– Zu zaitut, Patxi...?

– Bai, izeko, zer jazo yatzu, baiña...?

– Ez dakit, zorabiotu naz-edo...

– Egon pixka bat, eta osagillea ekarriko dautsut.

– Ez, Patxi, neurea ez da osagille batek osatu dagikena... Ekarri egistazu ura, egarri andia naz-eta...

Olan egin neban, eta jarraian, obeto arnastu egian, atzean burko bat ipiñi neutsan. Laster lo urduri batek artu eban. Alako baten itxartu zan, eta egun aretako ospakizuna gogoraturik,

– Aizu, Patxi –itaundu eustan–, artu dozu gaitasun-agiria...?

– Bai, izeko. Begira zein ederra dan.

Irribarre aula sortu yakon ezpanetan, eta,

– Orain bazara nor, Patxi –esan eustan–, bizitzeari aurre egiteko... Ez zaitez joan nire albotik, bildur naz-eta... Ikuskizun izugarriak agertzen yataz azken aldiotan amesen artean... beste munduko pizti bildurgarriak, izan be. Bildur naz Patxi, bildur...!

Bere ondoan geratu nintzan gaberarte. Gero, Piokanela sartu zan, eta zelan egoan oza-oza itaunduta, joan zan sillon-bildumeari ekiteko. Gau aretan, jatokiko besaulki eroso baten lo egin eban, ezerk gogaitu ez egian, antza. Izekoaren oe-buruan jesarrita jarraitu neban, noizean bein berba egiten neutsala baretu zeiten. Alako baten, bere senetara biurtuta, auxe esan eustan:

– Orain ondo nago, Patxi, eta lo egin gura dot. Biar lanera joan bear izango dozu, eta joan zaitez oera. Ekarri musu bat.

Musu luzea emon neutsan, eta atsekabe andiak artuta, oera joan nintzan, itxar-untetan beragana biurtzeko asmoz. Baiña gau aretan, lo astun batek nire asmoa eragotzi eustan, eta ez nintzan itxartu goizalderate, argia nire gelara parrastaka sartzen zanean. Ikoti bataz jagi, eta arrapalada baten jantzita, izekogana oldartu nintzan. Itzarrik egoan, eta irribarreka artu ninduan.

– Zelan zagoz izeko...? – itaundu neutsan–.

– Alan-olan, Patxi. Ekarri egistazu edontzi bete ura, egarri naz-eta.

Eskaturikoa ekarri neutsan, eta gero ezpaitsu geratu nintzan, lanera joango ala ez. Olan nintzala,

– Aizu, Patxi, geratu zaitez nire ondoan –arrenkatu eustan–, bildur andia naz-eta.

Une aretan “La Canela”ra abiatu-agiñean zan Piokanela’ri, izekoren ondoan geratuko nintzakela, eta Marimerke’ri esateko, eskatu neutsan. Laster joan zan, eta gosaldutik ondoren izekogana biurtuta, oe-buruaren ondoan jesarri nintzan, aurreguneko agiri-banaketeari buruz berba egiten neutsala. Kontu-kontari niarduala lo geratu zan, eta irakurgai bat artuta, bere ondoan jarraitu neban. Amaiketan-edo itxartuta, auxe eskatu eustan:

– Entzuidazu, Patxi, joan naitenean, gatzandel-ondoan ogerleko bat ipiñi dot zuretzat...

Isildu zan une batez, eta,

– Aizu, Patxi –mintzo aulaz esan eustan–, joan zaitez parrokira, eta eskatu abade bat, autortu gura dot-eta.

Arin baten joan, eta parrokoari izekoarena esanda, nirekin etorri zan etxera. Eldu baiño ez, parrokoa ta bera bakarrik geratu ziran. Andik laster, autorpena amaituta, parrokoa Jauna ta azken igurtziketea emonda, berba maitetsuakaz agurtu zan. Bake bakana izeko jabetu izan zan, eta bere ondoan jesarri nintzan barriro. Alako baten,

– Aizu, Patxi –itxarturik esan eustan abopeka–, orain ez naz bildur, emon egistazu eskua...

Olan egin neban, eta nire esku biakaz berea artuta, laztandu neutsan maite-maite. Alako baten, atzamarrak oztuten yakozala oartu neban, eta beragana makurtuta, illik agoala egiztatu neban. Malkoak mara-mara eridazala, begiak itxi ta eskuen artean gurutz bat ipiñi neutsan. Sarri askotan esan eustan eriotz-orduak eskuen artean gurutz bat nai ebal, eta bere gurari au bete neban nire malkoai eutsi eziñik. Andik laster Piokanela etorrita, jakitun ipiñi neban. Barri onek ez eustan zarrastada andirik egin, eta gero, itxearan janaririk ez egoala atxakiz, bazkaltzeko urten zan. Joan aurretik, baiña, auxe esan eustan:

– Entzun, gero joan zaitez parrokira biarko illetarena atontzeko. Nerau be il-etxetik igaroko naz gorpu-lorketeari buruzkoa atontzeko. Gero, beean bizi dan Iñes’egana joanda, izeko il-jantzi dagiala eskatuko dautsazu.

Agindutakoa egin neban, eta gau-orduko, izeko Asentzi bere soñekorik ederrenaz jantzita, eta esku tolestuetan gurutza eukala, Iñes’ek, Marimerke’k eta beste andrazkoek oe-inguruan errosarioa edo agurtza esan eben. Sukaldean, nekez irutsi aal izan neban ogitarteko bateri ekin neutsan, eta Piokanela jatokiko besaulkian lotan zetzala, izekoaren alboan jesarrita, gaba eldu zanean beila egin neutsan, berarekin bizi izandako jazokizunak burura nenkarrezala. Noizbait, goizaldean nekez apurtuta, Gure Aita bat bere alde esanda, lotara joan nintzan.

Eguberdi aretan ospatu ziran eleizkizunak, eta Piokanela, Marimerke, neu, eta ezi-

gunen gitxi batzuk, guztiz amabikoa ozta-ozta baturik, ogi-erdikoa izan zan il-mezea esan eban parrokoak. Organurik, abeslerik, eta sermoirik ez; argizagi bi baiño ez, eleizarren illunpetan lotsaturik lez keñuka. Gero, zaldi batek lerraturiko gurdi baltz baten, uriko inguruetan egoan obitegira, betosko illuneko gurtzain batek eroan eban. Baten batek esan euskun, lur-emotea arrastiko seiretan izango zala. Piokanela ta biok illetatik biurtzean, bera jatetxe batera sartu zan, eta orretarako dirurik ez neban ezker, ogitxu bat erosita, etxera joan, eta emen aurkitu nebazan ondakiñakaz, ogitarteko bat atondu aal izan neban. Gero, zer egiteko ez izanik, kaleetan zear alderrai ibilli ostean, joale batek bostak jo ebazanean, obitegira abiatu, eta seirak joteko ziranean, izeko Asentzi’k azken atsedena artuko leuken obi-ondora eldu nintzan. Esku-orgatxu baten ekarri eben zerraldoa, eta onen gainean lurra bota egien aurretik, gorpua ikusi gura nebalata, il-kutxa zabaldu eusten izeko azkenengoz ikusi nengien. Malkoai eutsi eziñik, musu luzea emon neutsan bekokian, eta mokillak zerraldoa danbolinkatzen asten ziral, alde egin neban. Erruki esan-eziña neutsan izekori, eta ainbat areago, eortzi-orduak neu bakarrik an azaldu nintzala egiztatzean.

Udabarriko arrats-beera eder-ederra zan etxera biurtu nintzanean, eta txindorrek zabaldua soñuz laztantzen ebela, ustekabez, izeko Asentzi argiz beteriko leku eder zoragarri baten aurkitu bearko leukela eresi bikaiñakaz inguratuta, begitandu yatan. Bai, Jaunaren Aintzak besarkatuta, izan be. Jainkoizti edo teolojiari buruz ez nekian gauza andirik, baiña zerbaitek baiñostan bizitzak latz erabillitako, eta zoriona mundu onetan ezagutu ez eban izeko Asentzi lako gizaki batentzat, lekuren baten merezitako ordaintza aurkitu bearko leukela, bestelan ludi onetako gure bidegiteak ez leuke iñongo zentzurik. Gose danarentzat janaria, eta egarrituarentzat edaria aurkitzen dan lez, zorionaren irrika jasan dauanarentzat, aintzaren ordaintza jaritsi bear izango dau, eta au ezin daiteke iñon izan Jaungoikoagan baiño. Agiri zan niretzat, a lako urrez beteriko arratsalde eder zoragarria egiteko gai zanak, askozaz bikaiñagoa emongo leuskiola gaixo bateri, zoribako bateri, ordaintza artzeko garaian.

Illunabarra zan oldozkun oneitan urira sartu nintzanean, eta etxera urreratu-ala, gero ta argiagi biurtzen yatan gogoeta bat nitzaz jabetzen zan, eta auxe alegia: Ezin nengikean Piokanela’rekin bizi izaten jarraitu. Izeko lango emazte apal, ona, maitetsua, ume-rik emon ez eutsalako, edo ez dakidan beste zergaitik, orren zakar eta berekoi erabiltea, ezin nengikean ulertu. Ez eban iñoz emaztea lagun maitetzat erabilli, eta berarekin zorionez gainezka uriko bazterretatik egurasten joango zana, beragandik so maitetsu bat artzeko irrikan egoana, beti zapuztu izan eban, neskametzat erabillirik. Eta berak lagun-artean ziarduala, etxeko sukaldean lagatuko emakume gaixoa, itxaropena galdurik, etsipen utsaz edateari bultzatu izan zan osasuna galdu arte...

Ez, ezin nengikean izeko Asentzi’z mintzaten yatan etxe aretan, gizon biotzbako arekin jarraitu, ezin nengikean jasan aren berekoitasuna, eta etxe aretan nire azken emongo neuke. Une aretan ez yatan burura etorri, erabagi orrek lekarkidaken kinka larria, orduan oartzen neban gauza bakarra, samintasun neurribakoa zan-eta.

Etxera sartu baiño ez, jateko gogorik ez neban ezker, oeratu nintzan, eta naiga-

beak eraginda malko mingotsak isuri nebazan, izekoren eriotza gomutatik kendu eziñik. Orduan burura etorri yatan, kondalaritzaren agiria lortu izan neban ezker, "La Canela"n neban mandatariren jarduna ez yatala egokia, eta oraingo nire ezaguerari etorkion beste obeago bat merezi nebala. Lotsagarrria izango litzakean, izeko Asentzi'gaitik egindako aalegiña, beste barik alperrik galtzea. Gero, nekearen-nekez loak artu ninduan goizalderarte. Urdail utsak eta jasandako naigabeak makaldu izan ninduen, eta arin baten jantzi ta sukaldera joanda, kaxpel bete esne sutan ipiñi neban. Berotu bitartean, Piokanela gosaltzeko asmoz sartu zan, eta oi eban lez nire agurrari kurrinka bat az erantzun eutsan. Unerik egokiena begitandu yatan nire esatekoa botateko, eta orduan,

– Osaba –esan neutsan–, "La Canela"n dodan denda-mutillaren jardunari uko egingo dausat. Jakingo dozunez, kondalari-agiria lortu dot arestian.

– Bai, Asentzi zanak zeozer esan eustan. Baiña zelan ordainduko daustazu etxe onetako ostatua. . . ?

– Ostaturik ordaintzekotan, nire gogoko bat aukeratuko dot. Jakin bear dozu, baiña, izeko ilda gero ezin naitekela bizi etxe onetan .

– Eta zure alde ainbeste egin ondoren, olan beste barik itziko nozu. . . ?

Itz oneik entzutean, asarre biziak artuta,

– Nire alde egindakoa diñozu. . . ? –jaurti neutsan–. Ara . . . udaletik nigaitik artzen dozuna, ostatua emoteko ta ikasketak ordaintzeko baiño geiago da. Baiña zeuk, diruzale orrek, mandataritzat irabazi dodana kendu egin daustazu, ostatua ordaindu bear dodalako atxakiaz, eta enparau iru ogerlekoak, ezinbestez txautu dodaz akademian izekoaren guraria zalako. Ori da nire alde egin dozuna: umezurtz baten lepotik zure ziskua loditu...

– Ixo, lotsabako ziztriña...! –asarre gorrian eten egin eustan–.

– Ez, ez naiatzu isilduko. Etxe au betirako lagako dot gaur bertan, baiña ez zeureak eta bost entzun aurretik. Neuganako ardura-eza, eta zekenkeria barkatzen daustadaz eta aztu egingo be, baiña izeko Asentzi'ganako zure jokaera zital eta zakarra ezin dot aztu...

– Mozkortia zan... –eten egin eustan–, eta eguneroko janarirako emoten neutsanetik, pattarra erosteko dirua kendu oi eustan.

– Bai al-dakizu zergaitik edaten eban gaixoak...? –asarez esan neutsan– bere senarrrak zapuztuta bizi izaten zalako, berak irrikatzen ebazan zure ardura ta maitasuna ez ebazalako. Txokoratuta izten zenduan sukaldean, zure mirabea bai'litzan, eta ez maite izan bear zenduan emazte zintzo ta maitekorra. Etxean geratzen zan gaixoa, zuk lagunartean astia emon bitartean, orduetan zear bakartasun osoan zure biurpena igurikan, berak tiriatzen ebazan itz eta keiñu maitekorrak alperrik irrikan... Edarikeri madarikatuak egunoroko zitalkeritik jareitzen eban, lagun laga-eziña biurtu arte, eta nik griña txar orretatik baztertzen saiitzen banintzan be, dana alperrik, bere naimena baiño indartsuagoa bilakatu izan yakolako.

Isildu nintzan une batez nire gogoak taitzearren. Une aretan, Piokanela'gan iñoiz

ez ikusiriko itxura bakana irakurri zeitekean. Oiko betosko itzaltsuak gozatua zirudian, eta aren aurpegiko mozorro-itxura bigundu izan yakon, barruko sentipen batek eraginda, urrean. Gero, onetaraxe jarraitu neban:

– Araiñegun, bere gelako ate-ondoan konorte barik aurkitu nebanean, une batez sartu zintzazan lo-gelara, eta abopear zeozer esanda, jatokiko besaulkian egokitu zintzazan aalik eta erosoan lo egiteko. Urrengo egunean, eriotz-ordurarte izekok alboan ikusi eban bakarra, neu izan nintzan. Baiña niretzat unerik larriena, obitegian lurperatu ebenean jazo zan. Une larri mingots aretan, azken agurra emoteko ni bakarrik azaldu nintzan... Bai, zeuri egokizunean an egotea azken agur-musua emoteko. Orduantxe oartu nintzan, benetan, zein bakarrik bizi izan zan izeko gaixoa, eta unkibera izan ez arren, malko mingotsak isuri yatazan mara-mara. Eta illuntzeko orduan biurtzen nintzala, bapatean oartu neban ezin nengikeala etxe onetan luzaroagorik jarraitu. Bai, izeko Asentzi ain zoribakoa izan dan etxe au betirako iztea erabagi neban. Gaur, beraz, gosalduta gero joango naz.

Ate-ondoan zutunik, iñoiz aztuko ez yatan itxura bakanaz begiratzen eustan Piokanela'k. Esku dardartsuak aurpegira eroan ebazan une batez, eta gero ezpanak igitu yakon zeozer esan naiean-edo, baiña beragan nabarmenena begien itxurea zan. Bazirudian barruko sentipen samur bat az argiturik; damua izango ete, ala nire zentzunen asmakeri utsa...? Ezustez, atera biurtu, eta isil-isillik urten zan.

Nekez iruntsi neban gosaria amaituta, etxetik joateko abiamenak egin nebazan, eta izan be, asti luzerik erabili bear ez. Zorro batera arkondara ta aldagarri bat, oiñetako ariñak, orrazia, eta agiñetarako zurdakia sartu nebazan. Atea ixteko zorian nintzala, gomutara zeozer etorri yatan, eta sukaldera biurtuta, apal baten gatzandelaren ondoan izekok niri aipaturiko ogerlekoa jaso neban, eta atzerantz begiratu barik, etxe aretatik urrundu nintzan betirako.

"La Canela"ra joan nintzan Marimerke-ta agurtzeko. Ugazabandreaki joaten nintzala esan neutsanean, naigabetu zan, eta arrenka eskatu eustan, eguberdirarte bederik oiko lanetan jarduteko, esku-artean ebazan aginduak eskuratu arte, beintzat. Baietz esan neutsan, eta "Matxin" artuta, alkarrekin egin genduan gure azken banaketa. Eguberdia zan biurtu nintzaneko, eta Marimerke'k auxe esan eustan:

– Begira, Patxi, zor daustudana ainbestekoa da, eta oi lez osabeari emongo dausat, beretara erabili dagian. Ondo deritxazu orreri...?

– Egin nai dozun lez.

– Baiña orrezaz gaiñera, eta etxe au lagaten dozun ezker, ona emen zuretzat ogerleko bat.

Berba oneik esatean, zidarrezko ogerleko ederra ta ogitarteko bat eskuraturik, besarkatu ninduan.

– Agur, Patxi –maitetsu esan eustan–, oso ondo jardun dozu etxe onetan, eta guztitariko zoriona opa izaten daustut. Esan, zer darabiltzu gogoan orain...?

– Ara... kondalari-agiria lortu-barria dot, eta jardun egoki baten billa saiaturiko naz.

– Ez baikorregi izan, Patxi, aspaldi onetan arazoak beerakada andia artu dabe-

ta. Ez yatzu, beraz, erraza izango arlo orretan jardun ona aurkitzea. Agur, eta biotz on...!

“La Canela”tik urten baiño len ogipekoak agurtu nebazan, eta azkenean “Matxin”en gidakia laztanduta, atera abiatu nintzan. Urten-agifnean nintzala, goiko txoritokira begiratu neban. An egoan Piokanela mai-gaiñean makurtuta, aurpegia eskuen artean geldi-geldi, eta orduan oartu nintzan, joanak joan dana barkatzen neutsala.

Iradu barik kaleetan zear ibilli nintzan, uda-leneko eguraldi zoragarriak inguratuta uriko egurastegi ederrera eldu arte, eta iturri-ondoko aulki bakarti baten jesarrita, astiro ta nasai ogitarteko gozoa jan neban, txindorren txio txeratsuek laztantzen ninduela. Gero, aurreko egunen beila ta nekeek eraginda lo geratu nintzan, arratsbeeran umeen joan-etorri ta didarrek iratzarri ninduen arte. Orduan jagi, eta egurastu atsegin bateri emon neutsan. Ibili nenbillela, sakelan neroiazan ogerleko biek, nasaitasunezko oarpen adoregarrria emosten, eta urian zear egurasten jardun neban gaberarte. Orduan ogitarteko bat erosirik, egurastegiko iturri-ondoan, arradako ur gardenek lagundutako jan neban. Laster, lo-gura astunak menperatu ninduan, eta alboko zugaitz baten pean, bide-zorroa burkotzat erabilliz, etzanda jarri nintzan eta bereala loak artu ninduan.

Eguzkia sorkaldetik urten zanean, txorien txintek iratzarri ninduen, eta bedarrean jesarrita, Iragoikoa’ko goizalde zoragarriak gogora etorri yatazan... Zergaitik ez...? Tximistaren antzera burutapen bat nitzaz jabetu zan, eta bide-zorroa artuta, uriko alderdi zaarrena joan nintzan. Bidebatez gosari ariña artuta, astirik galtzeke, Markiña’rako erri-berebilla urteten zan enparantzara abiatu nintzan. Goizeko bederatzietan urten oi zan, eta oraindiño garaiz izanik, bide-txartela lortu aal neban. Berebilleko leio-ondoan jesarrita nengoala, gozoki-saltzaille bat gaiak eskintzen igaro zan, eta burutapen batek jota, karamelu batzuk erosi nebazan Arrate’rentzat, aurretiaz gogoratuz neskatoak artuko leuken poza. Oi lez, Markiña’ra elduta bazkalostean bigarren berebilla artu neban, eta uda-leneko arratsalde zoragarri aretan Iragoikoa’ra eldu nintzan.

Nire olesari erantzuna emonez, izeko Mari agertu zan, eta ni ezagutzean besarkada maitekorra emon eustan. Onen ostean, eta Asentzi nirekin ez ikustean,

– Non dago Asentzi, baiña...? –itaundu-eustan–.

– Il egin da orain iru egun.

Izeko Mari’k didar bat bota eban, eta malkoak aurpegian agiri ebazala,

– Esaidazu, Patxi, zelan izan dan.

Jarraian aulki banatan jesarrita, gertaturikoa edestu neutsan, eta amaitu nebanean, –Asentzi gaixoa...! –esan eustan asperenka–. Tamala dot benetan bere eriotza, baiña uste dot emen lurrean baiño askozaz zorientusagoa izango dala. Yon Mikel mendira joan da, eta datorrenean atsekabe andia artuko dau, bere arreba Asentzi benetan maite ebalako. Ai ene bada...! zein zailla izaten dan askotan gure bidegitea mundu onetatik..!

– Non dago Arratetxu...? –itaundu neutsan–. –Bereala etorriko da erri-ikastolatik.

Urte bi badira zu ona etorri barik, eta neskato andi ta ederra biurtu da. Amazazpi urteko laster izango da, eta Eibar'en neskame sartuko dogu.

– Eta Yosu ta besteak...?

– Yosu –erantzun eustan–, betiko mutil ona ta begikoa da. Datorren urtean Jaungoikoak gura ba'dau mezakotuko da. Au nire poza...! Yon Mikeltxu, inguruko neska on batekin ezkongaietan dabil eta datorren urtean-edo ezkonduko dira.

Autu onetan giarduala, Arratexu ikastolatik biurtu zan, eta oi eban lez pozezko didarretan agurtu ninduan. Uritik ekarritako gozokiak ikusi ebazanean, pozaren-pozez ikotika asi zan. Illundu aurretik, etxeko jauna ta seme nagusia menditik etorri ziran, eta euren Ongi-etorria artzean, benetan maite ninduela egiztatu neban.

Gau aretako agurtza izeko Asentzi'ren alde esan genduan, eta jarraian, aren eriotzaren gora-beerak emonda-gero, urrengo Igandeko mezatan bere aldeko eleizkizunak ospatuko litzakezala, erabagi eban etxekojaunak, Asentzi Iragoikoa'ko alabea zan-eta.

Eta aspaldian lez, baserriko bizitzeari emon neutsan, etxekoai guztitariko lanetan leguntzen neutsela, soloetan, kortan, abelgorria zaintzen, bide ta etxeko konponketan etab. Gabero, apalosteko agurtza esanda gero, aspaldian oi neban lez, nire bizitzaren gora-beerak edesten neutsezan, Arratexu'ren pozerako batez be. Amaika bidar esan bear neutsezan azken aldiotako gora-beerak, "Matxin"en lapurketea ta birribaztea batez be. Besteetan bertso gintzarako eban sen bereziagaitik, Arratexu'rekin jarduten neban etxekoen atsegin andirako.

Iragoikoa'ra eldu ta urrengo Igandean, Asentzi'ren aldeko eleizkizunak ospatu genduzan erriko parrokian. Arratsaldean, etxeko atadian Yon Mikel etxekojauna ta biok bakarrik geratu gintzazan, eta abagunea ustiatuz,

– Osaba –esan neutsan–, oso pozik nago zuekin emen, baiña ez dot uste egokia danik luzaroagorik emen jarraitzea...

– Zeozer bereizirik dozu egiteko uriburuan-ala...?

– Ez, ez dot zeregin bereizirik, baiña ez derist ondo zuen lepotik emen jarraitzeari...

– Ken ortik, mutil...! –eten egin eustan–, Etxekotzat zaitugu, eta ez dogu ezelan begura, joan zaitezala.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Begira, Patxi –esan eustan–, zergaitik ez dozu emoten udea gurekin...?

– Eta zelan ordainduko nire ostatua...?

– Egin dagigun itun bat, eta auxe alegia: etxeko lanetan lagunduko daustazu, eta orrek ordainduko dau zure ostatu-saria gurean. Zer deritxazu orreri...?

– Oba ez, Osaba...!

Era onetan, nik asmatu iru eguneko egotaldia, iru illabetekoa biurtu zan. Egotaldi zoriontsu arek ekarri eustan atsegin andiari, beste bat eratsi yakon: sendi maitekor arekin nire euskerea aberastu ta jatortzea. Udaldia amaitu zaneko, edozein baserriar baizen ondo niarduan euskeraz. Janari ugariak, aize garbiak, eta baserriko lanak osasuntsuak billakatu yatazan, eta Irailla'ren azkenerantza, indartsu ta adorez beterik oartu nintzan. Baiña, joateko ordua eldu izan yatan. Orduko, lanak gitxitu izan ziran baserrian, eta nire laguntza bear ez izateak, uriburura biurtea eragin ninduan.

Joateko garaia zala esan neutsan etxekojaunari, eta onen jarkipena uxatzearren, esan bear neutsan, kondalari-agiria lortu izan neban ezkerro, ordua zala egokidan jarduna billatzea, eta ezinbestez Iragoikoa itzi bear izango neukela. Noizbait, alkarri agur esateko eguna etorri zan, eta alde egiteko unean, Arrate'k auxe esan eustan:

– Egunen baten biurtuko zara, ezta, Patxi...?

– Bai, Jaungoikoak olan gura ba'dau.

– Neguko gau luzeetan, sutondoan ekingo dautsat bertso laritzari, eta olan gogoan izango zaitut. Baiña ez dakit zein luzarorako izango dan, aita-amak diñoenez, neskame sartu bear izango dot-eta.

– Agur Arrate, maite ori, zorion betea opa dautsut. Ikusi arte.

Une batez malko baten dizdira aren aurpegian nenkusala begitandu yatan. Gero, etxeko guztiai agur egiñik, bide-zorroa artuta zauskada andipean alde egin neban. Bidean beera niñoala, alako baten etxekojauna atzetik etorkidala oartu nintzan, eta nire alboan jarrita,

– Errira noa zurekin, Patxi –esan eustan–. Igandeko arratsaldea izanik, lagun-arteko musean egiteko nire begira egongo dira.

Erriko enparantzara eldutean, eskuan bost ogerleko ipinten eustazala,

– Eutsi, Patxi –esan eustan–, badaezpadakoan.

Jarki nintzakion, baiña nai-ta-ez artzera beartu ninduan, auxe iñostala:

– Begira, Patxi, laguntza andikoa izan zaiakuz etxeko lanetan. Lotsatuko nintzake, beraz, edozein morroiari zor yakona, zeuri emongo ez ba'neutsu, eta ainbat areago Asentzi'ren etxea zure aukeran ez dozunean. Jardun bat aurkitu arte ostatuaren bearrean izango zara, eta augaitik dirua ezinbestekoa izango yatzu. Agur, Patxi.

Alkar besarkatu genduan, eta andik laster erri-berebillean Makiña'rantz bideratu nintzan. Illuntzeko, uriburuan nintzan. Kaleetan zear niñoala, ez nekian Iragoikoa'ko etxekojaunari zelan eskertu emondako dirua, eta izan be, urrengo egunetan benetako igarletzat ederretsi bear izan neban. Guztiz, sei ogerlekoen jabe nintzan, eta gaba emoteko ostatu bat aurkitu bear. Portu-ondoko alderdira abiatu nintzan, emen ostatu merkeak aurkitu zeitekezan-eta, eta urizainbategana joanda, billatzen nebana azaldu neutsan.

– Zatoz nirekin –esan eustan–, eta erreal bi emoten ba'daustazuz, gura dozuna aurkituko dautsut.

Joan gintzazan ba, eta kaletxu estu bateko atea jo eban. Senar-emazteak erabillitako ostatua zan, eta sei errealekoa zala gau bakotzeko oe-saria esan eusten, baita aurretiaz ordaindu bear izango neukela be. Lo-gela txikia zan, eta oatzea ez txit garbia, baiña sei errealetan ezin lau izarretako ostaturik eskatu. Leiatilla estu bat larrain batera edegiten zan, eta gelatxua aizatu zeiten zabaldu neban, bide-zorroko gauzak arasa batera sartuta gero. Ez nintzan gose, baiña oraindiño goiz samar izanik, ondo ezagutzen neban uriburuan zear osteratxu bat egin neban, bidegiteko nagiak ataratearren. Ostatura biurtu aurretik, aparitxu ariña artu neban, eta jarraian, iradu barik, Urbitarte kaleko ostatura biurtu nintzan, urrengo egunean jardun baten billa aalegintzeko asmotan.

Ez neban txarto lo egin gau aretan, ostatua erdigunetik urrunduta izanik, isilla zala-ko. Goizeko bederlatziak izango ziran kalera urten nintzanean, eta egunkaria erosirik, jardun-saillaren iragarkiak irakurten asi nintzan, zuzenbideak txataltxu baten idazten nebazala, guztiak ipiñi arte. Gero, urruntasun-arauz sailkatu neban erreskadea, eta jarraian urrunenatik asi nintzan. Ikatzaren sal-erosketan ziarduan baltzu au, etxe apaiñeko lenengo maillan egoan kokatuta, eta atezaiñari iragarkiagaitik nentorrela esan neutsan. Alboko gelatxu batera sartuerazo ninduan, itxaroteko esanez. Ordu-lauren bat igarorik, etxe are-tako arduradun nagusiagana eroan ninduan. Onek, ni jesarrierazo barik, auxe esan eus-tan:

– Zer nai dozu...?

– Gaurko egunkarian kondalari baten bearrean zagozela irakurri dot, eta jardun orren billa nator.

– Zein adiñekoa zara...?

– Ogei urteko, Jauna.

– Non ikasi dozu kondalaritza...?

– Uri onetako “Erne” izeneko akademian.

– Non diarduzu orain...?

– Iñon ez, Jauna. Amaitu-barria dot ikasketa, eta auxe da nire lenengo lan-eskaerea. Au esanik, luzatu neutsan nire baimendun-agiria, baiña irakurri barik atzera emon eustan, auxe iñostala,

– Alperrik da, gazte. Jardun onetarako len saiaturiko kondalaria bear dogu, eta ez lenengoz lan egitera datorkigun iñor, astirik ez dogu galdu gura-ta, orren erabiltea ezagutzen ez dauanarekin.

– Baiña, Jauna... –esaten asi nintzakion–.

Berak, baiña, keiñu aginkorraz atea erakutsi eustan, eta urten bear izan neban. Bigarren iragarkiari ekin neutsan. Makailau-salerosketan ziarduan baltzu batena zan, eta emen be, lengoan bez, nire lenengo lanbillaketea zala entzun baiño ez, lana ukatu eusten. Eta banan-banan, zio bardiñagaitik leku guztietan zapuztu ninduen. Urrengo egunean, bardin, iragarki barriak aztertuta gero, eta arein billa joanda, nire gaztetasun eta aurretiko jardun-eza, eragozpen garaiteziñak azaldu ziran. Ain zuzen be, garai aretan erriko egoera larriagaitik, jardunak gitxi ta zaillak ziran, eta neu lako gazte asko ebillen lana aurkitu eziñik.

Batetik bestera egun batzuk alperrik igaro ondoren, “Erne” akademiko zuzendaria-gana joaten otu yatan. Txeratsu abetaldu ninduan dalako nagusiak, eta jarduna lortzeko edonon aurkitzen nebazan eragozpenak azaldu ondoren, ia akademiaren bitartez, billaturikoa-jaritsi aal izango ete neuken eskatu neutsan. Oldozkor geratu zan akademiko zuzendaria, eta gero,

– Begira, Patxi –esan eustan amultsuki–, badira urteak lenengo guda orokorra amaitu dala, eta lengo aldi alai ta errazak amaitu dira, arazoak gero ta urriagoak azaltzen dira. Augaitik, gazte mordo bat zeu lez lan-billa dabil, eta jakiña, kondalaritza-jardunean, guztietan lez, erabilte edo esperientzi ez dabenentzat, lana jaristea oso zailla billakatu da.

Edozelan be, emon egistazu ostatuaren zuzenbidea, edo obeto, etorri zaitez emetik noi-zean bein, eta zeozer izatekotan jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitut.

Lur-jota urten nintzan ikerraldi aretatik, eta barriro be batetik bestera, niretzat jari-tsi-eziña zan jardun-billa. Bazan beste eragozpen bat, eta ain txikia ez zana: Ikastola Na-gusitik urtendako ekonomilari barriak. Lan urriagaitik, akademiarekin urtendakoai egoki-guzan jardunak, eurontzat eskatu, eta jakiña, bardin ordaintzekotan, geu baiño naiagoak ziran. Arazoa niretzat benetan larria zan, bitartean lagundu nengian sendirik ez izanda, nire kabuz iraun bear, eta aalik eta apalen bizi izaten saiutzen banintzan be, Iragoikoa’tik ekarritako dirua arin amaitzen yatan, eta ozta ozta illabete bi igarorik, bein baten oartu nintzan gabeko ostatua ordaintzeko beste ez nebala, eta gau euritsuari aurre egiteko, ate-zubi baten pean babestuta, aal neban ondoen lo egin neban, otzez dardar sarritan itxarten nintzala. Orduko, negu-asierea zan, eta otzaz gaiñera euria jasan bear neban.

Egunsentian, otzak sorgortua, kaleetan zear bideratu nintzan norabarik. Alako baten ikusi neban, gurdi batetik denda batera otzarakadak sartzen ebazala mutil batek, eta urre-ratuta, berak ikusten ez ninduanean, gurditik ogi bat jaso, eta jakepean gordeta, aalik ari-ñen urrunduta nintzan. Bero ta gozosa azaldu yatan ogia, eta gosea baretuta, oartu nintzan bizirik irauteko lapurretari emon bear izango neutsala ezinbestez. Ezin neintekean eskean ibilli, lotsazko sentipen batek eragozten eustalako, eta jaiotzean dan edozeiñeri, gizaki naiz aberea, janaritzeko eskubiderik ezin daitekionez ukatu, kinka larri aretan lapurretari emotea ebatzi neban, eta izan be, arrapatari trebea billakatu nintzan ezinbestez. Aldi are-tan, uriko alderdi zaarrean, gai asko erakusten zan dendatako ateetan zorrotan ipiñita, erakusleio urriak ziranetan batez be. Gudalburu zuur bateri dagokionez, denda-aurretik igarotetan, ekin aurretik lekua aztertzen neban, eta gaia aukeraturik, bigarren igarotaldian zorrorra eskua sartu, eta tximistaren antzera jakeko sakelera, dendariaren ardurea beze-roakan jarrita egoanean. Gai oneik, geienetan indiabak, txilistak, garbantzuaq etab. izaten ziran. Jangai soil oneikaz ezin baiña, ganora andiko jakirik atondu, eta lapikokoa biribil-tzeko, buruari eragiñez, ona emen zelan lortu neban benetako geigarri mamintzua.

Uriko enparantza bateko eleiza-dorrean, zenbatu-eziñeko usoak kokatzen ziran, eta gaba urru ta urru igarorik, goizaldean goseak eraginda, edozein janariri erasoten eutsoen. Egunsentian, gaba emondako aterpetik dalako enparantzara niñean, eta amu baten ogi-zati bat untzaturik, lurrean laga, eta begirari jarten nintzan, amuari eutsita egoan aria es-kuan nebala. Luzaro barik usoren batek mamiñari eraso, eta andik laster nire sakelera-ko zan. Eguberdiaren, txatartegi baten arrapatu izan neban burdiñezko lapikoan, nire biziko egosariak atontzen nebazan.

Arrezkero, ez neban goserik jasan, baiña bearrizan gorriak ekarritako jokabide zital arek, endekatze-zulora sartu ninduan. Biziera zantar aretara sartu izan ninduan gizarte-aurkako gorrotoa oartzen asi nintzan, gero ta arloteago bihurtzen nintzala. Ezin nengikean aztu nire aurtzaro zoribakoan jasandakoa, gero Piokanela’ren etxean bizi izandakoa, eta noizbait, neban diru urria izeko Asentzi’ren aolkuz kondalaritza-ikasketan txautu ondo-ren gizartean norbait billakatu neinten, orra or onek zapuzten ninduala, bizi izateko nire eskubideari uko egiñez. Danaren eta guztien aurkako amorrua oartzen neban, adorebako

gazte biurtu nintzala, eta onen ondorioz, siñismena orotan galdurik, Jaungoikoagandik eta Beronen eleizatik urundu nintzan.

Aldiaren joanean, nire soiñekoa altzitu ta loituta, gero ta eskalearen itxuragokoa biurtu nintzan. Neguan sartu-ala, gabak gordiñagoak ziran, eta otza zelanbait uxatzearen, jatetxe ospetxu bateko aize-gailluak sukaldeko lurriñak kalera jaurtiten ebanetik urteera-zuloan kokatzen nintzan. Lurriñok guztitariko janari-usaiñak kaleratzen ebazan, baiña epelak izanik, nire soin txindurrituari bizi barria ekartsan.

PERUTXU JAUNA

Igande bateko arratsaldea nire zaletasunari jarraituz, erriko liburutegira joan nintzan, eta emendik urteteen eguraldia otz eta euritsua izanik, ezinbestez oiko aizegillearen urteera usaintsu ta epelera joan nintzan, zelanbait giroaren gordintasunari aurre egiteko. Lurrean jesarrita nengoala erdi-lokartuta, mintzo batek iratzarri ninduan auxe iñostala:

– Zer zabiz or, gazte, eskale baten antzera otzez dardar eta bustita...? Ez al-dakizu lanik egitea-ala...?

– Bai, badakit, baiña bizi izaten nazan gizarte ustel onetan, niretzat lanik ez.

– Gizarte au, gazte, ez da zeuk diñozun baizen ustela, neurriak artzen ba'dautsazuz. Orixe da Perutxu'k ziñez diñotsuna.

Nire aurrean irurogei bat urteko gizonak errukitsu begizatzen ninduan. Metalezko adardun betaurrekoen atzetik, begi nabar baketsuek dizdir egiten eben, eta bizar zuri batek begirunezko itxurea emotsan. Janzki zaarra erabillen, baiña garbi ta txukuna. Iduni-inguruan korapillotutako zapi batek dotoretasun-kutsua emotsan.

Gizon arek ni zeatz aztertu ondoren,

– Begira, gazte –esan eustan–, lanerako lagun bat bear dot, eta orretarako nor zeu baiño egokiagorik, agiri dozun itxura ederraz...? Perutxu'k lankide eginkorra bear dau, eta zeuk, ostera, janari ta atsedena. Zatoz nirekin, ba, eta etxera eldu gaitezenean, jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitut.

Jagi, eta bere alboan ibiltzen asi nintzan, berak zabaldu eban euritako andipean. Ibilli genbiltzala, dalako Perutxu Jauna berba-lapiko itzela azaldu zan, etenbako bakar-izketeari emotsala.

– Bai, mutil, bizitza au pilosopi andiaz artu bear da, zera... baiña zelan dozu izena...?

– Patxi.

– Ara, Patxi, zertan genbiltzan...?

– Bizitzea ta pilosopia-cdo...

– Bai, Patxi, zoriona ez datza diruan, ez urrik emon be...! Diruak jopuak egiten gaitu, jabetasun-irrika neurribakoa da-ta. Benetako zoriona, gure zaletasunak beteteko bear dogun astia geure aukeran euki aal izatea da. Uste al-dozu, Patxi, diru-metateak zoriona dakarkigukenenik...? Ara... eun milloi batzea elburutzat ipinten dauanak eun milloiok jaristean, beste eun geiago irrikatzen dauz, eta olan beti diru-gose, eriotzak arrapatzen dauan arte. Uste al-dozu, Patxi, mundu onetako gure elburua, beti zeozeren gose bizi izatea da-

nik...? Gizonak lan egin bear dau ozta-ozta bizi aal izateko beste, eta enparauko eguneko orduak bere aukeran erabili bear dauz. Txorien abestiak atsegin ba'yakoz, jesarri bedi zugaitz baten pean arein txintak gozatzeko, edo-ta lagun-arteko autua gogokoa ba'dau, emon begi zenbat-gura astia alkarrizketa atsegiñean... Jakiña, orretarako gutariko bako-txak bearrizan gitxikoa izan bear dau, bestelan griña txarren jopuak billakatuko gintza-kez. Augaitik ba...

Perutxu'k edo (gero jakingo nebanez) Peruguzur'ek edu onetan ziarduala, uriko ka-leak atzean lagata, estarta baten gora, uri-inguruko aldapan zear giñoazan. Perutxu'k bere bakarriketeari erraikiola, nire buruari itauntzen neutsan, non demoniño bizi izango zan nire lagun barria. Bide bakarti a txit illuna zan, eta ertzeko erretenetatik, jausitako ura gaiñezka joian aldapan beera. Oiñetako zaarren zear galtzerdiak bustita nebazan, eta praka-barrenak ia belauetaraiño blei-blei. Perutxu'k bere autuari emotsala, ozta-ozta menperatu aal izan neban urira biurtzeko guraria, berba-lapiko aregan nire uste ona zearo galduta. Izan be, jakin-gurak artuta nengoan, eta barritsu arek berba egiteari lotubarik erraikiola, egun aretako jazoerea amaitu arte bizi izatea erabagi neban.

Alako baten, kobaren antzeko zulo andi bañera eldu gintzazan, eta bereala, uriaren inguruko meatz baten sarreran gengozala oartu nintzan. Barrukaldea legor eta erakarkorra begitandu yatan. Ezkerreko aldean orga txiki bat ikusi zeitekean, eta onen alboan asto bat. Eldu baiño ez, euritakoa tolestuta, Perutxu'k kandela bat ixiotu, eta txoko batetik egur batzuk artuta, su alai ta atsegiña piztu eban. Onen ondoko aulki baten jesarri nintzan bustitakoak legortzeko, Perutxu'gandik nire begikadak baztertu eziñik.

Jarraian, maskillo baten esnea berotzera ipiñi eban, eta beste aulki baten jesarrita, ogi-xerra batzuk txingarren ondoan jarrita, onetaraxe jarraitu eban bere bakarriketea.

- Bai, Patxi, auxe da nire etxea, eta ikusi dagikezunez, guztitariko aukerak baditu. Aize garbia, su alai indargarria, sukalde-jatokia, eta orko txoko orretan bedar-onduko oatze bigun txukunak. Ur garbi gardena be, beste txoko orren sabaitik igazten dan burdin-ura.

Izan be, uren palastadea entzun zeitekean, eta gero ari txikia biurtuta lekorean galtzen zan. Onezaz gaiñera, tokia garbi ta txukuna izanik, erakarkorra azaltzen zan.

- Bai, mutil -jarraitu eban Perutxu'k-, nire aukeran dot, ondo bizi izateko bear dodana, baita milloidun askok irrikatzen dabena: berebil laga-eziña. Orra or Txirta, nire asto zintzo ta maitekorra bere orgatxuaren ondoan. Au erabilteko ez dot gasoliñarik erosi bear, ez iñongo matxurarik atondu bear, eta orrezaz gaiñera, Txirta'k ez dauz ibiltariak laskitzen, eta janaria bere kabuz aurkitzeko gai da. Alde onetatik, beraz, agiri da ez dauz sadala zor iñongo aberatsari.

Ona elduta, esnea irakiten asten zanez, katillu banatan isuria, erretako ogiaz jan genduan. Esnea ona zan, au da, utsa. Aparia eginda, Perutxu'k auxe esan eustan:

- Ekiogun orain gure arazoari, Patxi. Ni txatarlaria nozu, eta egunero Txirta ta orgatxuarekin uri onetako inguruak ikertzen dodaz, eta ondakintegian dagozan burdin, paper eta piltzarkiak jaso, eta andika diarduen txatarlariakana daroadaz. Onen ordaiñez artutakoa, bizi izateko beste badaukat. Zure buruari itaunduko dautsazu, urrean: zertarako nar-kar Perutxu Jaunak bere etxera bera bakarrik ain ondo konpontzen danean...?

Ona elduta, isildu zan Perutxu Jauna une batez, suari egurra botatearren, eta gero asti-
tiro,

- Baiña Perutxu irurogei ta bost urtekoa izanik, gerria txindurritu yako, eta betikoa ez izanik, lankide baten bearrean dago. Lankide gazte, zintzo, zuzena, eta zeu baizen indartsua. Augaitik, alkarte bat egin dagikegu, eta auxe izan be: ni bazkide diruduna izango naz, astoa, orgatxua, baita etxea be alkartera sartzen dodazalako, eta zeu, ostera, bazkide langillea, nire esanetara egiñez. Irabazketa guztiak erdibanatuko doguz. Zer deritxazu nire eskintzari...?

- Ez dakit ba, Perutxu Jauna -esan neutsan ezpaitu-. Gure arteko alkargoa legeztatu aurretik...

- Ze legeztatu ta legeztatu oste...! Gure artean, eta kaballeruak garan ezkerro, ez da orren bearririk. Naikoa izango da berbaz itundutea.

- Orixe da ba, esan gura nebana, Perutxu Jauna, itzez legeztatzea ta kitto, baiña...

- Aurrera mutil, geu lako bazkideen artean gauza guztiak argitu bear dira iñongo sasi-lotsaz.

- Ara... gure alkargoa itundu aurretik, egokia litzakela egun batzuen saio-aldia artzea, gauzak zelan garatzen diran ikusi arte.

- Oso ondo deritxat orreri, Patxi, eta dalako saioari lenbailen ekiteko, garbitu egitazuz, koillara, kaspela ta katilluok. Jarraian sorua isastuko dozu, gero, Txirta ondo lotuta dagoan egitatu, eta ori dana egiñik, ango txokoan dagoan bedar-onduaren gaiñean lo egingo dozu, gero emongo dautsudan burusipean.

Au esanik, Perutxu jagi, eta ez dakit nondik ataratako burusia emon eustan, auxe iñostala:

- Eutsi, Patxi, eta ez zalantzarik izan, neronek garbituta dalako. Etxe onetan ez dozu apainkeri andirik ikusiko, baiña bai garbitasuna. Orain isasteari-ta zeuk ekin bitartean, oeratuko naz.

Itz oneik esanda, bestaldeko txokoan egoan oatzean etzanda jarri zan, eta nik berak agindutako lanai emon neutsen, nire dirudun lankideak berba egiteari jarraitzen eutsala atertu barik. Agindutakoak amaitu nebazanean, eta oeratzeko zorian nintzala,

- Entzuidazu, Patxi -esan eustan-, gau otza dator, eta jaurti suari besokada bete egur, gabean zear suak iraun dagian.

Olan egin neban, eta gero astirik galtzeke, niri agindutako txokoan bedar-onduaren gaiñean etzan nintzan, eta burusiaz estalduta, Perutxu'k ez dakit zeri buruz berbetan ziarduala, lo geratu nintzan.

Egusentia zan Perutxu'k iratzarri ninduanean, auxe iñostala:

- Jagi zaitetz, Patxi, goizeko zortzirak dira-ta. Aurrenik, zure buruaren garbiketea egizu, eta gero jantzita, gosalduko dogu lanera joan aurretik.

Aspalditik oi nebanez, gerritik gora, bular, bizkarra ta besoak, eta aurpegia, jaboi ta ur gardenaz garbitu nebazan jantzi baiño leen. Azkenean billoak orraztuta, sutondoan jesarri nintzan, eta Perutxu'k emon eustazan katillukada bete esne ta ogia gosez irusten nebazala, dirudun lankideak auxe.esan eustan:

– Gaur eguraldi ederra dogu, Patxi, bart euria atertu zan-eta. Giroa zeozer otz izanik be, onena dala esango neuke, izerdirik ez dogu botako-ta. Aberats bat baiño geiago izango da or bazterretan, gosariarekin batean artutako barriek izerdi baten jarriko dabezala, bere akziñoak beeratu edo lantegian lana urritu dala jakitean. Gu, ostera, aldarterik onenean bagoaz zabaldian zear “eguneroko ogia” eta ez besterik irabaztera. Izan be, Patxi, geu baiño aberatsagorik, iñon ez.

Jagi zan Perutxu, eta Txirta’gana joanda,

– Aditu ondo, Patxi –esan eustan–, zelan buztartzen dodan astoa orgaren igunetan, aurrerantzean zeuk egingo dozun betekizuna izango da-ta.

Laster buztartu eban Txirta, eta urten baiño len, aitzur, sarda, eta pala bat orgara sartuta,

– Goazen, Patxi –irautsi eustan–, mundua gure begira dogu.

Bidean beera giñoazala, Perutxu Jaunaren berba-jarioa geldi-eziña izanik, lotu barik gai batetik bestera aldatzen zan.

– Begira, mutil –esan eustan bidean beera giñoazala–, gure egitekoa sei ondakintegitan aldizkatuko dogu, au da, astegunak beste. Igandea atsedenerako da-ta. Gaur Asteleena izanik, Oillarte’koa ikertuko dogu. Era onetan, ondakintegi bakotxa gaiñaldetik bakarrik aztertu bear izango dogu, au da, aitzur-lana sakondu barik. Mota bitako gaiak batzen dodaz: burdiña ta metalak. Aspaldi baten piltzar eta paperak be bildu oi nebazan, baiña azken oneik lan andia ta onura urria emonik, orain burdiña ta metalak jasoten dodaz soilik. Gure egitekoa auxe izango da: ordu biak arte lanari ekingo dautsagu, eta jarraian bazkaldu. Gero, tiki-taka txatarlari bategana, bildutakoa saltzearren, eta onen ostean etxera iradu barik.

– Txatarlari asko dago uri onetan...? –itaundu neutsan–.

– Badagoz arean amar bat-edo, baiña neuk bost edo sei ikertzen dodaz bakarrik. Egunean bat baiño ez. Ez da egokia beti bardiñegana joatea, Jaun eta Jabe egin ez daki-zuzan, eta eurok jarritako prezioak beste barik artuko ez dodala dakienez, dabillen prezioak eskintzen daustez, eta olan danok pozik.

Perutxu’k autu onetan ziarduala, Oillarte’ko ondakintegira eldu gintzazan. Nire dirudun lankideak lan-tresnak artu nengiazan agindu eustan. Txirta zugaitz batera lotu ondoren, lepo-inguruan babaz beteriko zorrotxua eskegi eustan, auxe iñostala:

– Gure astoa be, lankidetzat artu bear dogu, eta bere arloa ondo bete dagian, aren baten janaritu bear, bestelan, egur urriko sua lez itzungiko litzakigu, eta gure arazoak blindi-blaust...! egingo leuke.

Lanabesak eta olezko kutxa andi bi orgatik jatsi nebazan, eta aulkixu baten jesarrita, Perutxu’k arazoaren zuzendaritza artu eban auxe ziraustala:

– Orain, Patxi, orraztu egizu pillo osoa amar zentimetroko sakonera, orren azpitikoa orraztua da-ta. Kutxa batera burdinkiak eta bestera metalkiak sartuko dozuz. Kontuz metalkiakaz batez be, burdinkien amarkoitz balio dabe-ta.

Aitzurra ustiatuz, agindurikoa egiten asi nintzan, lana sardea ta paleaz aldizkatzen nebala. Izan be, egitekoa ez zan zailla, eta Perutxu’re ardurapean, kutxa biak bete egiten

ziran. Nire lankidea ren pipeari erion keaz inguraturik, eta emostazan argibideek zuzenduta, orduak alkarri erraikioen, eta noizbait, ordu biak jo-agiñean zirala,

– Naikoa bedi gaurkotz, Patxi –esan eustan Perutxu’k–. Orain artu dagiguzan ondo irabazitako bazkari ta atsedena.

Gurdira jaso nebazan kutxa biak eta lanabesak. Orduko, Txirta’k babak garbitu izan ebazan, eta kemenaz gaiñezka bideari jarraitzeko gerturik zirudian. Urirantz abiatu gintzazan, eta amar bat miñutu igarorik, aren sarreran “Pantaleon” izeneko jatetxe bat aurkeztu yakun.

– Goazen barrura –esan eban Perutxu’k–, ia Pantolon’ek zelako janaria atondu dauskun.

Au esanik, astoa soka luze bat az ate-ondoko zugaitzera lotu eban bedarrari ekion, eta jatetxera sartuta,

– Eup, Pantolon...! –oles egin eban–. Ba al-daukazu guretzat janari on-ona...?. Mutii sendo au, Patxi, nire bazkidea da, eta etxe onetako jakien bikaintasuna ederresteko txit egokia.

– Ondo da, Perutxu Jauna. Zenbateko bazkaria gura dozue...?

Peruguzurra’k eskua sakelera sartu, eta ondo atzamartu ostean, diru-eskukada bat mai-gaiñean jarri eban, auxe iñotsala:

– Atara egiskuzu oneik erre arte.

Dalako Pantolon’ek dirua zenbatu ondoren,

– Diru au, bientzako lapikokoa ta sukalkia sagar banaz amaitzeko beste izango da, baiña ardaorik ez.

– Nik ez dot ardaorik edaten, ezta nire bazkideak be. Bazkari ona ta osasuntsua nai dogu, ostantzean, beste bategana joango gaiatzuz

– Etxe onetako janariak, munduan kidekorik ez, Perutxu Jauna.

Ostalariak ontzi bete indiaba mairatu eban, eta txalikada bana ipiñi eban gure azpilletan. Izan be, niri beintzat lainta urria begitandu yatan, baita Perutxu’ri be, antza, auxe esan eustan-eta,

– Lapiko ederra, Pantolon, baiña janari urria. Etxe onetan itxurakeria baiño besterik ez dago. Bai, urrengo baten Iñuzentzio’re ostatura joango gara, gosez ez dogu il gura-ta.

– Zure diruak be, Perutxu Jauna, aren baten izan dira, ogitarteko edo “bocadillo” bat ozta-ozta erosteko beste. Ez dot gura, baiña, nire etxean Perutxu Jauna asarre ikusi.

Au esanik, beste txalikada bana azpilletara, eta joan zan. Egun aretan egiñiko lanak gosea iratzarri izan eustan, eta arin baten indiabak-eta iruntsi nebazan, iturriko ur garbiaz lagunduta. Gero Pantolon agertu zan, erratillu bete sukalkiz, eta txalikada bana gure azpilletara isurita, joaten zalakoa egiten ebanean,

– Baiña Pantolon –asarre antzean esan eustan Perutxu’k– zer zabiz gaur, babalasto ori...? Olan jarraitzekotan, etxe onetako saguak eurak be gosez ilgo dira...

Iribarrez, ostalariak geigarritzat beste txalikada bat jaurti eban nire azpillera, eta Perutxu’re nera botateko zorian zala,

– Ez, nik ez dot bear –esan eutsan nire bazkideak–, bota egiozu nire lankide gazteari, berak ondo irabazi dau, goiz guztian lanean buru-belarri jardun dau-ta.

Olan egin eban ostalariak, eta sukalkia benetan gozoa azaldu zanez, gogoz jan neban dana amaitu arte. Jarraian, Perutxu'k eta biok sagar bana jan genduan, eta mai-ondotik jagita,

– Agur, Pantolon –esan eutsan Perutxu Jaunak–, eta urrengorarte. Badirudi geu lako “kaballeruak” merezi daben lez zerbitzen ikasiko dozula azken baten.

– Agur, lagunok –erantzun eutsan ostalariak–, eta jakin egizue, etxe onetako onena, zuen aukeran izango dozuela, orretarako gagoz-eta.

Astoa orgatxura barrero buztarturik, kale estu ta loitsu batetik ibilli genbiltzala,

– Perutxu Jauna –itaundu neutsan–, nora goaz orain...?

– Mangulintxu deritxan txatarlari batenera. Aspaldiz ez dausat ezer saldu, eta gaur ondo artuko gaitualakoan nago. Badakizu, generoak txatarlari bardiñari beti saltzen ba'dautsazuz, lapikoan zaitualakoan, ezerezkeriak eskiñiko dautsuz. Augaitik ba, eta zure buruaren jabe zareala erakusteko, erosleak aldizkatu bear...

Arratsalde aretan pozez gaiñezka oartzen nintzan. Perutxu'ren laguntza atsegiñak eta Pantolon'enean izandako bazkari gozoak, gorengo maillaraiño adoretu ninduen, eta une aretako nire buruarekiko ederrespenak aspalditik ez ezaguturiko atsegiña ekarstan. Alako baten, estalpe zabaleko ate andi baten, morroi bat ikusi genduan, eta,

– Aizu, mutil –itaundu eutsan Perutxu'k– ugazaba emen al-da...?

– Bai –erantzun eutsan atezaiñak–, idaztegi dago.

Perutxu ta biok, asto-orgak jarraituta sartu gintzazan, eta nire dirudun bazkideak, oles egin eban,

– Eup, Mangulintxu, emen gaiatzuz ostera be...!

Leioakaz inguratutako txoritokiko idaztegitik, betaurrekun gizon txiki bat urten zan, belarran luma bat jarrita, eta gu ikustean,

– Kaixo Peruguzur...! –oiu egin eban– bazan ordua emetik azaldu zeitezan. Geisorik ibilli zara-ala...?

– Bai zera, geisorik...! Prezio obeak eskintzen daustenak ikertu dodaz aspaldi onetan.

– Badakizu, lagun, generoak dabillenetan ordaintzen dodazala.

– Azkenengoan ba, ezerezkeri bat emon zeustan, salduta gero jakin nebanez...

– Begira, adiskide, nik Paris'eko metal-zeian edo boltsan dabillen prezioan ordaintzen dot. Tamala dot egun aretan...

– Ze metal-zeia ta metal oste...! Zeuk niri bostean erositakoa, ogeiean saltzen dozu, arkondara barik geratuko zaralakoa egiñez. Ai, Mangulintxu, teatorako be iñor ez zeu lakorik...! Laga dagigun ori, baiña, orain gauza garrantzitsu baten barri emon bear dautsut, eta auxe alegia: alkargo bat egin-barri dodala, emen aurrean dozun gazte onekin. Ni dirudun bazkidea naz, eta Patxi deritxan gazte indartsu au, lan-bazkidea. Ona emen, obatu-eziña dan alkarte: zuertasuna ta indarra. Zer deritxazu alkarte oneri, Mangulintxu...?

– Guztiz ondo, Peruguzur, eta urte askotan.

Bostekoa emon eustan txatarlariak, eta gero,

– Ikusagun zer dakarstazuen, eta izan be, oraingo onetan dirua galdu arren be, merkatuan dabillan saririk onena eskiñiko dautsuet.

Astagailu baten burdinkien kutxa ipiñi neban, eta amabost kiloko pisua emon eban. Jarraian metalezkoa, eta lau kilo ta erdikoa azaldu zan. Onen ostean, txatarlariak burdinki ta metalkiak aztertu ebazan, eta ainbaketa sakon baten murgilduta egoalakoa egiñez, noizbait, auxe eskiñi euskun:

– Kontuan arturik, jenero orrekin kalitatea, eta gaur dabiltzen prezioak, burdinkiak pezeta ta erdi kilolan, eta metalkiak ogeietan eskintzen dautsuez.

– Zeuk, Mangulintxu'k, burua lengo lepotik. Paris'eko metal-zeia dala ta ez dala guztitariko lelokeriakaz lagunduta, baiña eskintza orreik obaten ez ba'dozuz, oraintze bertan anka egingo dogu, badakit nork obatuko dauskuzan preziook-eta. Agur ba...

– Itxon apur baten, iperloka ori. Ezerezkeri bategaitik ez dogu asarratu bear, eta onaiño etorri zarien ezkerro, burdinkiak txakur andi bi, eta metalkiak pezeta bi goratuko dautsudaz, eta ori iñoren belarrietara eldu ez izatekotan...!

Perutxu'k ainbaketa sakonak egiten ebazalakoa egon zan une batez, eta gero,

– Tira ba, Mangulintxu –erabagi eban–, gaurkotz amor emongo dogu.

Txoritokira joan bitartean, esandako lekutan kutxak ustua nebazan, eta andik laster, Perutxu ta biok kalean gora giñoazan, Txirta'k atzetik erraikigula. Pozik egoan nire bazkidea auxe iñostanean:

– Gaurko arloa ez yaku txartu joan, eta diru-pillo naikoa ederra atara dogu. Orain, Txorokillo'ren dendatik igaroko gara, Txirta'ri aste guztirako babak ziurtatzeko.

Ale-denda batera eldu gintzazan, eta astoa geldi-erazota, Perutxu sartu, eta andik laster zorro bete baba ekarrela urten zan. Zorroa orgatxuan ipiñita, auxe esan eustan:

– Ona emen, Txirta'rentzat astebeterako janari indargarria. Leku asko ikusia naz, baiña Txorokillo'nean saltzen diran babak merkeen eta ederrenak beti. Astelen guztietan sei kilo erosten dodaz, eta egunean kilo bat janez, aste guztirako badauko.

Niri, baiña, eroldak ez yatazan egokitzen, eta,

– Barkatu, Perutxu Jauna –esaten azartu nintzan–, baiña nire zenbakien arauz, aste-betea zapzi egunekoka da, eta ez seikoa.

– Gazte urtena zara, baiña Txirta'rentzat baba-astea sei egunekoa da. Begira, Patxi, lgandeetan ez dogu lanik egiten Jaungoikoa'ren legeari jarraituz; au dala-ta, egun ori Txirta'rentzat bedar-eguna da, eta etxe-inguruko zenbat-gura bedar jateko eskubidea emoten dautsat. Lan egin barik babak emongo ba'neuskioz, bigunkeria litzake, eta ori bere kalterako azken baten, koipe lar artu ezkerro, gauzarik ez lanerako.

Izan be, nire baitan autortu bear izan neban, Perutxu Jauna gizon zuurra zala benetan, eta barruan arrotasunaren antzeko zerbait oartu neban, nire dirudun lankidea ain jakintsua zala egizatzean, eta berarekiko nire ederrespena mailla batzuk igon zan.

Uritik urten aurretik, esne ta ogia erosi ebazan Perutxu'k, eta gero astiro ta pozik, gure egoitza zan uri-inguruko aztutako zulora biurtu gintzazan. Orduko, gaba zan, eta bidean argirik ez izan arren, gure astoak zentzu bereiziaz orniturik, iñongo oztopo barik el-

du gintzazan. Iritxi baiño ez, Peruguzur'ek astoa askatu, eta su ederra piztu eban, esnea egosten ta ogia txigortzen zala, gure soñiak berotu bitartean.

– Aizu, Perutxu Jauna –itaundu neutsan– astoa ez dozu lotzen-ala...?

– Ez orixe, Patxi...! Ori joputasuna litzake, eta Txirta'k ez leuke gogokoa izango, Etxera eldutakoan aske da edonora joateko, baiña inguruetan bazkatuta gero, ona dator, eta sarreratik kuku egiten dau, edonoren urbiltasuna iragarteko.

– Zelan jabetu zintzazan Txirta'z...?

– Txirta jaió ta egun batzutara ama il yakon, eta astakumearen jabeak ziran ijitoek aren etorkia eztabaidatu eben. Batzuk saldu, eta besteek sukalki biurtu gura eben, ni andik igaro nintzanean. Ez dakit zertan amaituko zan arazoa, baiña astakumearen itxura errubakoak biotza ukutu eustan, eta zin egin neutsan nire buruari, aalegiñak egingo neukezala abere gaixoa onik atarateko. Erostea errazena izango litzakean, baiña ezkurrik bage aurkitzen nintzan une aretan. Zer egingo neuken ausnartzen niarduala, ijitoen nagusia zirudian eta jesarrita egoan makildun batek, auxe esan eban, begirunezko isillunez ingurata:

– Darabiltzuen eztabaida, lelokeri utsa da, eta ez dozue, beraz, astakumea salduko, ez erreki biurtuko. Ara... uri onetako San Antontxu jaiak ospatzen dira, abere-azoka entzutetsuak lagunduta. Azoka-ondoan dagoan Paloka'ren ardandegira eroango dozue astakumea, eta zugaitz batera lotuta, igel-jokoan iru txandatan irabazle azaldu daitena astakumeaz jabetuko dala, aldarrikatuko dozue. Jokoa tartekoa izan gura dagianak lau erreal ordaindu bear izango daskuz, eta kontuan arturik, gure ordezkaria Kanuto izango dala, ez dasku iñork astakumea kenduko, ezta Kanuto...?

Gaszte baltzaran erdi-aginbakoa urreratu yakon nagusiari, eta abo baltzarana keñu lako irribarrez pizten yakola, auxe esan eutsan:

– Bai, aitabitxi Jauna, igel-jokoan Kanuto'ri irabazi dagionik oraindiño ez ei'da jaió.

– Ederto, Kanuto –eskua lepoan jarririk irribarrez esan eutsan nagusiak–, ori dok-eta...! Eu lako lagun asko ba'gaiendukezak, obeto ibilliko geinteketak. Zoaze ba, eta atondu egizue dana nik esana lez.

Andik ordubete batera-edo, Paloka'ren ardandegira joanda, Kanuto ta papao baten arteko igel-leiaketea ikusi neban, turuta batatz ijito batek leiaketearen barriak aldarrikatu ostean. Aborik eskura Kanuto irabazle azaldu zan iru txandatan. Egun aretan baseritar asko azokara etorri zan ezkerre, lenengo papaoak dema galdu ebanean, beste batek ordeztua izan zan, eta gero beste batek etab. Ez zan iñor Kanuto'ri gaiña artu egikionik, eta noizbait illuntzean Kanuto'k ezin izan eban jokoa jarraitu aal, leikiderik ez egoalako. Orduko, ijitoek ogerleko-mordo bat irabazita, andik alde egiteko zorian zirala, azken leikidetza nerau azaldu nintzan.

Jakin bear dozu, baiña, Patxi maite orrek, igel-jokoan diarduen geienek, anka biak lurtean tinko ipiñita, txanponak astiro ta arduratsu jaurtiten dabezala. Nik bestera jokatzen neban, au da, anka bat oin-muturraren gaiñean jarrita, bestea atzerantz eta sorua ozta-ozta ukuturik, txanponak bata bestearen atzetik metragaiilluaren antzera jaurtiten neba-

zala. Era onetan, txanponen zuzenbidea goratuz ala beeratuz onetariko bat igelaren ezta-ritik sartzen danean, onen atzetik datozenak be, artez-arte barrura doaz. Onetaraxe jarduten dabe benetako jokalariek, eta neuk ondo bai ondo menperatzen neban jokaera ori.

Lau errealak ordainduta, zozketa egin zan ia nor aurretik jardun, eta Kanuto'k lentsuna jaritsi eban. Iru jaurti-aldietan amabi apara egin ebazan, eta kontuan arturik, jaurtiketa bakotxa amar txanponekoa dala, ez dago txarto. Txandea etorri yatanean, Kanuto'k ezin egikean menperatu nirekiko gaitzespena, zailla izanik, benetan, bere ekintza gaintzeza. Dana-dala barkatu bear yakon, norekin ziarduan gaixoak ez ekian-eta. Asi nintzan ba, jaurtiketeari neurria artzen, eta lenengoan iru apara izanik, bigarrean zazpi, eta irugarrean zortzi jaritsi nebazan, au da, amazortzi guztiz, ikusleen adore-oiuek eta txalo trumoitsuek lagunduta.

Ikusi ba'zendu Kanuto ta onen lagunuen aurpegiak...! Bazirudian tximista batek jota billakatuak zirala. Ez egoan beste biderik, baiña, astakumea niri emon baiño, eta ijitoen nagusiak berak, kiroltasunik andienaz Txirta eskuratu eustan, Kanuto'ri auxe iñotsala:

– Bide luzea dago, Kanuto, zeu ta “payo” onen artean. Ez aitekik urreratu bere trebetasuna jaritsi daian arte, au da, amazortzi apara obatzeko gauza izan ez ba'az.

Auxe izan zan Perutxu'ren edeskia Txirta'ri buruz, eta berari guzurtatzea iñongo eskubiderik ez nebanez, berbaz baiño ez bazan be, goratu bear izan neban bere trebetasuna, eta ainbat areago, nire goralpenak emotsan zoriona ikusirik. Gau aretan, lo geratu aurretik, Perutxu'ren izaerea ez zala ain zoribakoa begitandu yatan.

Eta izan be, sentipen au aldiaren joanean sendotu yatan. Egunoroko txatar-bilketea eginiñ, bazkari ona izaten genduan, eta arratsaldean iradu barik burdin eta metalkiak saldu ondoren, eguneko erosketea egin, eta gero tiki-taka etxera. Bidean zear giñoazala, guztitariko egur-zatiak orgatxura sartu oi genduzan, oiko sua gabea peitu ez ekigun. Gure arteko alkargoa gero ta sendoagoa biurtzen zan, eta Perutxu Jaunak ederresten ba'ninduan, nik bera beste ainbeste. Jende guztiak be, nire dirudun bazkidea biotzez onartzen eban, eta onek poza emoten eustan. Leku guztietan nire lankideari “Peruguzur” esaten eutsoen, eta gau baten, oi genduan lez sutondoan jesarrita katillu bete esne artzen genduala, xalo-xalo auxe itaundu neutsan:

– Aizu, Perutxu Jauna, zergaitik esaten dautsue leku askotan Peruguzur...?

– Niri Peruguzur...? Bai zera...! ori entzumen motelekoa zaralako izango da, urtean. Esaten daustena ez da Peruguzur, Perutxuzur baiño, eta izan be, belarriari bardin edo antzekoak izanik, ez da arritzekoa oker ulertzea. Ain zuzen be, Patxi, lankide ederretsi ori, bizitzan zear ikasitakoari esker, zuertasuna jaritsi dot, eta augaitik ikasi be, gizonaren elburua ez dala aberastasunen atzetik ibilli bear, bizitzak damotsan apurraz zorionsua izatea baiño. Egi onetzaz jabetzen dana zorionaren bidetik doala esan lei. Ez al-dozu iñoiz gizon zorionsuaren alegia entzun...?

– Bai, Perutxu Jauna.

– Orduan jakingo dozu, zoriona ezagutzen ebanak, ez erabilela iñongo arkondaririk. Nik bardin, urteen bidean ikasi dot, irrikatzen diran gauzak lortu aal ez izatea, giza-kiaren zorizatxa dala. Geiago euki ta areago nai izan gizonaren patua da, eta ortik iges

kotxa zoriotsua da bere barruan jare sentitzen danean... Begira, gazte arrotza, baratzaren erdian sortzen dan iturri ori. Diamantezko tantoakaz egiñiko joaira, aske ta eresintsua galtzen da baratzean beera, baiña bere tiraiña arresi bataz mugatuko ba'genduke, diamantezko bitxiok bizitasun eta garbitasuna galdurik, ustelkeri biurtuko litzakez.

"Isildu zan une batez "fakir" a, eta gorantza begira,

"- Aizea gure gaiñetik aske digaro, eta ikusteziña izan arren, inguruan oartzen dogu eresizko suzmurretan, bere jaretasuna nonaira aldarrikatuz, baiña gela bateko esiaren artean atxillo egingo ba'genduke, gardentasuna galduta, amaika kirats dariozan nazkagarria billakatu litzake. Bai, mutilla, gizakia aske izateko jaio da, eta zorakeri utsa da, beraz, guztitariko sasi-aberastasunakaz bere askatasun-egarria, bere izatearen bitxia erostea. Begirazu, gazte, illunabar onetan ortziko aintzan lenengoa agertzen yakun artizarra...

"Izan be, zeruko sabaitik, Venus artizarrak bere dizdir garbia bialtzen euskun ortziko urrea illuntzen asten zanean. Lilluratuta begizatzen neban, lenengoz ikusiko bai'neuan. India'ko zeru yaukalpean urdin-antzeko diamantea zirudian, eguzkiaren eriotz-orduan argiko alarguna zan gabeari, dardarrezko laztanak igorritz. Ni baizen sorginduriko fakirek begizatzen eban, eta noizbait,

"- Gabeko txirlarria da, nire gazte arrotza. Bere argi oztinkara askatasunaren aldeko aldarrria da, noranai bere mezua igorritz. Auxe nire ordua da, urian zear txiro ta zoribakoai Jaungoikoaren legea adierazoteko garaia, eta gau osoan zear ontasuna ta askatasuna erokan ereingo dodaz. Zatoz nirekin, arrotz ori, eta abiatu gaitez askatasunerantza.

"Au esanik, baratzeko txoko baten ikusten zan arri anditako pillo batera eroan ninduan, eta an aztamuka jardun ostean, zoezer zapaldu eban eta zulo andia agertu zan. Astirik galtzeke nire eskuari eutsi eutsan fakirek auxe iñostala:

"- Zatoz, gazte, aske izateko garaia da.

"Illuntasunen zear ibilli genbiltzala, ustekabez zulo batetik uriko argiak agertu yakuzan. An, oroz gaiñetik, urrutian, Venus'ek agur egiten euskun lats bat aldapan beera oldartzen zala, eta aizeari askatasun-suzmura eriola.

"Fakir onari ontzira biurtzeko argibideak eskatu neutsazan, eta uriko sarreran alkarregandik agurtuta, ontzirantza abiatu nintzan, bera, errikideai askatasun eta ontasunaren legeak aldarrikatzera urruntzen zala.

"Bai, Patxi, ez dakit, Hong-Kong, Singapur, ala Calcuta'n jazoko ete zan ori, baiña India'n gertatu zala, ez daust iñork ukatuko..."

Sarri askotan olako ipuiñak edesten eustazan Perutxu'k edo Peruguzur'ek. Nik siñisten neutsalakoa egiten neban, eta neu lako entzule esaneakoak adoretuta, berak amaika ipuin edestu oi eustazan irudimenak eroanda. Zoritzarrez, baiña, ipuin edo ames areik amaitu barik loak artuta nentzan, eta tamalez, orain ezin dagikedaz berak esandakoak idatzi.

Perutxu zoriotsua zan benetan, bizi izateko gauza gitxi bear izaten ebalako, eta onezaz gaiñera asmamen aberatsekoa izanik, onek bere barruko bizitza edertzen eutsan, amesen egoetan amaibako jazoera yaukalen norki nagusia oartzen zala. Beste ludi baten bizi izaten zan, eta orain ulertzen dot, zergaitik lan egiteko aldia aalik laburrena, eta

ames egiteko enparaua luzeena nai ebazala. Ni oartu barik, nire lankidea gero ta ederretsiago billakatu yatan, eta esaten eustanari jaramon andirik egin ez arren, atsegiña yatan bere autu tolesbako ta xaloa. Berak aipatu ez arren, banekian gogokoa ebala "Perutxu Jauna" esan nengion, eta augaitik, aal nebanetan olan erabilten neban. Entzun nengikio-netik, jakin neban sendi on bateko magalean ezi izan zala, baiña aldiaren joanean bere oldeak bizitza beretara artzera bultzatu eban. Ezin egikean, baiña, bere ezikera ona aztu, eta txeratsu erabilli izatea gogokoa eban.

Gure alkargoa, beraz, oso ondo garatzen zan bazkide bion onerako. Agiri zan nire laguntasuna gogokoa ebala Perutxu'k, eta zer esanik ez, len bizi izandako estutasuna gero ta gitxiago yatordan gogora.

Illabete bi-edo alkarrekin giarduala, bein baten auxe esan eustan:

- Gure alkargoa oba-eziña da, Patxi, eta zure laguntzari esker, iñozkorik ondoen bizi naz. Oso langillea zaran ezkerero, orain, bear dogun baiño diru geiago daukagu, eta ori arima-bakerako egokia ez izanik, auxe esondatzen dausut: Igandez gaiñera, eguasten eta larunbatetan jai egitea. Zer deritxazu orreri, Patxi...?

- Ondo deritxat, Perutxu Jauna, eta gaiñera, naikoa zaarra dan gure Txirta'k esker-tuko dausku.

Ezin dagiket ziur esan, astoak eskertu euskun ala ez, baiña niri onuragarria azaldu yatan nire dirudun bazkidearen burubidea, eta auxegaitik izan be: banebazan nire auke-ran egun bi geiago erriko liburutegian emoteko, eta ain gogokoak yatazan ibiltari andien edeski ta gertakari-elebarriak irakurteko. Umetarik sortutako zaletasun ori, aldiaren bidean anditu izan yatan. Gaiñera, uriko bazter guztiak eta aldamenetakoak ezagutzeko aukera bete emostan, eta ordurarte nire lurraldea ezagutzeko len izaniko ereti urriak askoz zabaldu yatazan, eta jaiegunetan batez be, lepo-zorroa artuta, oiñezko txangoak egiten nebazan, gure mendiak eta baserriak ezagutzearren. Aspaldi zoragarria billakatu yatan, eta Perutxu ezagutu neban eguna bedeinkatu neban.

Negu gordiñeko gau ekaiztsua zan, sutondotik txingarrezko zurrunbilloak sakabana-tzen ebazala aize zakarrak. Aulkietan jesarrita, suteko garren laztan epela oi lez gozatzen genduan oera joan aurretik.

- Iparbaltzaren putz zakarra...! -esan eustan Perutxu'k-. Gaurko eguraldiak gomutara yakart, bein baten Kanada'ra giñoazala jazorikoa. Ara...

Une aretan bertan, eta Perutxu'k bere ipuiñeko mataza askatzera gertatzen zala, ustekabez, gure astoa arrantzaka asi zan. Edozein arrotzaren urretasuna arrantza bizitan iragartea, Txirta'ren bereiztasuna zan.

- Zer arraio izango da...? -esaten asi zan Perutxu-. Gauza bitxia benetan, gaurko eguraldi zakarrak norbait onaiño azartu daiten...

Sarreraraño joan nintzan, eta illunpétan zear begiratu neban norbaiten aztarnak somatuko ete ziran. Asiera baten, ez neban besterik aditu, aizearen txistuak baiño iñarraren artean. Alako baten, bideko lupetzan urratsen palastadea entzun neban, eta meatzaren sarbidean irudi ezabatsua marraztu zan. Adi-adi begiztatu neban, nire buruari niñotsala aregan zerbait ezaguna ez ete egoan... Orduan arrotzak auxe eskatu eustan:

– Egon naiteke apur baten sutondoan berotzeko...? Ekaitz zantar onek ezustez artu nau-ta.

Itz oneik entzunik, bapatean etorri-barria ezagutu neban, eta beragana joanda,

– Txiritxu, aspaldikoa, nondik zatoz, baiña...? –esan neutsan–.

Une batez zur eta lur geratu zan, baiña ni ezagutzean,

– Nor eta Patxi Arlote...! –pozez oiur egin eban–. Nork esango, emen aurkitu bear zindukedazala....

Bai, Txiritxu zan bera, umezurtzegiko adiskide maite izan nebana. Aldi areitan nire lagun-miñenetakoa izan zan, eta sarri askotan alkarrekin genbiltzan. Ez zan mutil urtena, baiña eskuz oso trebea izanik, umetaroko antzoki aretan noz edo noz inkamiñak egiten euskuzan. Arrigarria zan zelako ganoraz erabillezan esku-atzamarrak gure belarrietatik eta gauzak atarateko.

Urez blei-blei etorren gaixoa, eta otzez dardar baten egoala ikusirik, sutondora eroan neban, aulki bat eskintzen neutsala.

– Aizu, Perutxu Jauna –nire lankideari esan neutsan–, mutil au umezurtzegiko laguna dot, eta eskertuko neuskizu, beraz, zure etxe onetara onartuko ba'zendeuke.

– Nire bazkidearen lagunak, laguntzat dodaz –esan eustan–, zer jazo yatzu, baiña, olan busti baten etorteko...?

Berba oneik ozta-ozta esanik, gure Txirta arrantzaka asi zan ostera be. Aurpegia zurbiltzen yakola, ikara bizian Txiritxu'k erregutu euskun,

– Mesedez ezkutatu nagizue arin be arin, nire billa datoz-eta...!

– Nortzuk, baiña...? –itaundu eutsan Perutxu'k–.

– Ertzaiñak, Jauna.

Astirik galtzeke, krisaillu bat piztu, eta Perutxu'ri eskuratuz auxe esan neutsan:

– Jauna, meaztegi onen ezkutuak ezagutzen dozuzan orrek, gorde egizu, arren, nire laguna...!

Ezer esan barik, Perutxu'k Txiritxu eskutik artu, eta krisailluaren argipean meaztegi giko erraietatik galdu ziran. Joanda bereala, mintzo batzuk aditu nebazan, eta gizon bien mulkoak sarbidean marraztu ziran, eta areitariko batek,

– Aizu, mutil –esan eustan–, ez al-dozu igeslari bat ikusi...?

– Igleslari bat diñozu... –astia irabaztearren erantzun neutsan–, zelakoa zan azalduko ba'zeunskit, orduan ba....

– Ez zaitez nirekin aiko-maikotan ibilli, bestelan baituko zaitut. Baten bat ikusi dozu ala ez...?

– Ez, Jauna. Iru ordubete badira emen nagoala, baiña ez dot iñor ikusi.

Begi suzmotiakaz begiztatu ninduan ertzaiñak, eta,

– Ez dot zeu lako eskale bategan ezetariko uste onik, danok lapurrak zarie-ta

Nik ostera, astia emoteko asmoz,

– Barkatu, Jauna –esan neutsan–, baiña ni ez nozu iñongo eskalerik, txatarlari zintzoa baiño, eta...

– Ixo...! –agindu eustan– artuizu krisaillu bat, eta goazen meaztegi berrura–.

– Ez dot ezagutzen, baiña....

– Arindu zaitez, bestelan...!

Krisaillua piztu neban, eta ertzain biek lagunduta barruratu nintzan. Noizean bein, sakeleko argigailluakaz ertzaiñek barruko areik aztertzen ebezan, bazterrik ezkutuenak arakatur. Otz eta naasiak ziran meaztegi giko erraiak, eta ordu-erdi inguru igarorik, asperitutako ertzaiñek azterketea amaitutzat emonik, biurtzea erabagi eben.

Alde egin aurretik, lengo ertzaiñak auxe esan eustan:

– Jakin bear dozu, mutil ulegorria dan lapur itzelaren billa goazela, eta dalako igeslariaren zantzuren bat jakingo ba'zendu, astirik galdu barik ertzaindegira joanda, dagokizun salaketea egingo dozu, entzun...?

– Bai, Jauna, olan egingo dot zeozer jakitekotan.

Ertzain biak gau illunaren artean galduta bereala, Perutxu ta Txiritxu biurtu ziran. Nire lagunari janaria eskiñi neutsan, eta sutondoan legortu bitartean,

– Aizu, Txiritxu –itaundu eutsan Perutxu'k–, zergaitik jazarten zaitue ertzain biok...?

Txiritxu'ren aurpegia ulca baizen gorria biurtzen asi zan, bere adimenean guzur baten billa, urrean, baiña Perutxu ondo ezagutzen neban, auxe esan neutsan:

– Begira, Txiritxu, nire bazkidea dan Perutxu Jaunak gorroto itzela dautse guzur txikiak, eta beraz, oba dozu egi utsa esatea.

Orduko, janzki-aurrekaldea legortuta, Txiritxu'k suari bizkarra emon eutsan atzekaldea legortu ekion, eta onetaraxe mintzatu zan:

– Aspaldi onetan batetik bestera lan-billa aalegindu naiatzue, baiña jarduna topatzea zailla dan ezker, eta nire urdaillak oporrak artu gura ez, ezinbestez lapurretari emon dautsat bizirik irautzearren. Ziurtasunik andienaz ekiteko, andrai erri-zeian edo merkatuan jarraitzen dautset, dirua non gordeten daben jakiteko, baita asko ala gitxi dan ikusteko be. Orduan, oparia autaturik, kaleko jende-multzo baten artean dagoanean, esku-zorroa agirian ba'darabiltze, teinkada batz kentzen dautset, edo lepotik eskegita dagoanean, labanaz eten eginda, anka egiten dot. Ezustean artutako emakumea oiuka asten daneko, urbilleneko kale-kantoitik ostentzen naz, dalako zorroa arkondarapean ezkutauta.

Gaur arrastian, baiña, kaleko kantoia biurtzean, itzetik ortzera ertzain bi agertu yataz, atso madarikatuaren didarrek erakarrita, antza...

– Ixo...! –eten egin eutsan Perutxu'k– begirune andiangoa zor yake etxeoandrai, eta areago, arein lepotik zeu lako lapur bat bizi izaten danean. Arrituta nago, zure berbetean entzutean. Ori al-da umezurtzegian emon eutsuen eziera...?

– Begira, Perutxu Jauna –tartetu nintzan–, an eziketa ona artu genduan, baiña bada-kizu, geu lako bat gizarteak aztuta sentitzen danean...

– Ori ez da benetako atxakirik, Patxi. Mundu onetan beti dago zeri eutsi lapurreteari emon barik. Baiña jarraitu egiozu edeskiari, Txiritxu.

– Ara ba... etxeoandrearen didarrak entzutean, areitariko ertzain batek atzitu nau, besteari auxe iñotsala:

– Ona emen, aspalditik billatzen genduan arrapatari kaskagorria. Eroan dagigun ertzaindegira. Izan be, poztuko da gure nagusia, aspalditik billaturiko lapur ule-gorria baitu dogula jakitean.

Eta bion artean auzoko ertzaindegira eroan nabe, guztitariko isekak nire lepotik egiñez. Ertzaindegiko atea zearkatzeko zorian nintzala, baiña, teinkada indartsuz, arein atzarretatik jareitu naz, eta kalean gora uria atzean lagata, onantza etorri naz. Bildurrak egoak emostazala atzean itzi dodaz ertzain papauok, eta alako baten argi bat ikusirik, meaztegi onetara eldu naz, eta zorionez, biotz oneko Perutxu Jauna ta aspaldiko nire adiskide zintzoa Patxi Arlote aurkitu dodaz.

Txiritxu'k edeskia amaitu ebanean isillune bat edatu zan, eta gero Perutxu'k auxe esan eutsan:

– Begira, Txiritxu, lapurrak ez yataz gogokoak, baiña estualdi baten zagozan ezke-ro, onik urteten lagunduko dautsugu, baldintza bataz, baiña: aurrerantzean ez dozula ostuketarik egingo. Egon zaitezke gurekin indartu arte, guztiz makal ikusten zaitut-eta. Lengora biurtu zaitezanean, aske izango zara zure bidetik jarraitzeko. Orain berandu samar danez, etzan zaitez Patxi'ren ondoan, naikoa bedar-ondua dago-ta.

Au esanik, burusi bat emon eutsan, eta Txirta'ren zaintzapean lotara joan gintzazan. Urrengo goizean oi genduan lez, Perutxu, astoa ta irurok gure zereginetara abiatu gintzazan, meaztegian Txiritxu bakarrik geratzen zala, edozein ezuste somatzean, barruko naas-maas biurritik ostentzeko gerturik.

Iru egun emon ebazan Txiritxu'k meaztegian gurekin, eta orduko sendoturik, zulo aretako egotaldiak aspertuta, urrengo egunean joango litzakela jakifierazo euskun. Naigabetu nintzan benetan, lapurra ta guzti Txiritxu maite nebalako. Perutxu Jauna sermoi luze bataz, gurekin geratu zeiten aalegindu zan, baiña alperrik, Txiritxu'k bere aretan jarraitzen eban, eta eztabaida amaitzearren,

– Perutxu Jauna –begirune andiz esan neutsan–, lengo baten, India'ko Calcuta'n jazo yatzuna edestu zeustan. Fakira, zeu, eta irurok bat etorri gintzazan arazo bateri buruz: gizonaren doairik andiena askatasuna dala. Orra or, Txiritxu beste ñora bultzaten dauan indarra. Itzi dagigun, beraz, bere bidetik joan daiten, begira dauan patuaren atzetik.

– Tamala dot –erantzun eustan Perutxu'k– bide ori aukeratu dagiala, gurekin iru bazkideko alkargo egokia sortu litzake-ta, baiña zuzen zagoz, Patxi maite ori, gizonaren doairik andiena askatasuna da.

Ez genduan besterik esateko, eta meaztegioko isiltasunak inguratuta, luzaro barik loak artu ginduzan, sutondoko txingarren dizdir gorritzak itzungiten zirala neguko gau-altzoan.

Urrengo egunean itxartu nintzanean, ez neban ikusi Perutxu baiño, biontzako gosaria atontzen ziduala. Txiritxu joana zan etorri baizen ezustean, eta menperatu ezin nengikean atsekabeak artu ninduan. Txiritxu ulegorria bazan zeozer txoriburua, baiña bane-kian urrezko biotzekoa zala, beti gerturik lagun-urkoari laguntza emoteko. Aldi txarrak ziran areik jardunak aurkitzeko, eta bera ta neu lako sendibakoak gintzazanok, gizarteko zurrunbillo arriskutsuen opariak izateko errezenak. Ondo bai ondo nekian, guda orokorren osteko urte areitan txit zailla zala ugeri egitea ondoratu barik...

Txirta'ren laguntzaz gure egitekoari emoten geutsan, eta izan be, ezin nengikean a-lako bizimoduari osterarik egin, nire bearrizan guztiak ase nebazan-eta. Egoera aretan baiña, beñiena, Perutxu ta biok guztiz ondo alkartzen gintzazala zan. Udabarria edertasun-itxarkundeaz igaro zan, eta ezustean udaldia etorri yakuzan. Auxe zan, izan be, gure lanerako arorik egokiena, eta sua ez genduan piztu bear jangaiak atontzeko baiño. Aspaldi aretan zeozer makal izandako Txirta'k, adore barriaz piztuta zirudian, eta sasoiko edertasunak kutsuturiko Perutxu Jauna, ñoizkorik barritsu ta guzurtsuen azaldu zan. Gabeko bere ipuiñek ez eben mugarik ezagutzen, baiña amaitu baiño askozaz lenago, loak artuta nengoan. Arrigarria zan, bera lako gizon gitxi eskolatua zelako ganora ta begikotasunaz jantzita egoan gauzak esateko. Bere ipuiñai guzur ainbat gatz eta piperra eriezan, eta sarri askotan nire buruari niñotsan guzurrak botateko be, zer bereizi bataz ornitua izan bear dala. Tamal dot gaur, arek esandakoa idatziz artu ez izatea, baiña zoritxarrez, etzanda jarri baiño ez, loak menperatzen ninduan, Perutxu'ren amesak utsean galtzen zirala.

Udagoiaren urrezko arnas epelak Euzkadi'ko bazterrak edertasun yaukalaz jantzi ebazan, zugaitzen osto neketsuak prakagorri ñimiñoen antzera egan joiazala, txorien kadenaz beteriko azken eresiek lagundutako. Negua urreratu-ala, gure meaztegioko etxe bikaiñean sutaldia luzeagotzen zan, eta oartu barik Gabonak eldu yakuzan. Uriko kale ta dendak argien dizdiraz itxura zoragarria orori emotsoen, eta pozak artutako jendeak erosketeari ekiten eutsan. Eleiz bateko aterpean jaiotza jarrita egoan, gizaki ta abereak Belen'go estalpe-inguruan igitzen zirala. Une luze batez an irauñ genduan Perutxu'k eta biok lilluraz beterik, eta gero berandu izanik, gogoaren aurka andik aldentuta, etxerakoa egin genduan.

Gau aretan aparti bereizia atondu eban Perutxu'k, eta apalostean begiak era ez-oituaz dizdiratzen yakozala begitandu yatan. Otz andia izanik, sua bizkortu genduan egur-sointxu bataz, eta eguna ospatzeko, kafe usaintsua txastatzen asi gintzazanean, Perutxu onetaraxe itz egiten asi zan:

– Gaur, Patxi maite ori, eguneko ospakizunari jarraituz, amak edestu eustan Gabonetako ipuin bat esango dautsut. Ara... “Bein baten Palestina'ko lurraldean, txarto erabillitako asto bat bizi ei'zan, zigor asko ta janari gitxi emotsoezala. Gaixoa azur eta narru baiño ez zan, eta bein baten etsiak artuta, ugazabagandik alde egitea erabagi eban. Nora ez ekiala basamortuan zear abiatu zan, bidetik aurkitzen eban galtzuaz janaritzen zala. Ibilli ebillela, egarritu zan eta ganetxu batetik gain-begiraturik, an urrutian idi batek eragindako osin-gurpil bat ikusi eban, eta egarria asetuko leukelakoan bertaratu zan.

“– Aizu, idi –eskatu eutsan–, egarri itzela naz. Edaten emongo daustazu...?”

“– Gurpillak ataraten dauzan urak, erretenetik alorretara doaz sekula –bedarra garastatzeko. Zoaz erretenera, eta zenbat-gura edango dozu.

“Olan egin eban astoak, eta egarria baretuta, idiagana biurtu zan. Onak bera baizen argala ta gaizki erabillia zirudian, etenbarik eguzki kiskalgarripean osin-gurpillari ekin eta ekin, ura edan eziñik.

“– Zeuk nik baizen zoribakoa emoten dozu –esan eutsan astoak–. Zergaitik ez dozu zure burua alamen orretatik jareiten...?”

“– Zelan jareitu, baiña, ede lodi bataz gurpillera lotuta izanik...?”

“– Itxaron zatitxu baten.

“Orduan astoak bere agintzar indartsuakaz edea eten egiñik, biok aldatzan beera joan ziran. Andik laster irusta-bedardi ederrera eldu ziran, eta astoak idiari,

“– Aizu lagun –esan eutsan–, ona emen zure izerdiz garasturiko irusta-sail ederra. Ainbeste aalegindu ostean, bidezkoa deritxat orretatik jan dagizun, eta zeure lagun zintzoa nazan ezkerro, neuk be jateari zillegia deritxat.

“Asebate itzela izan eben lagun barriek, eta ur-erretenetik txurrutada luzea edan ondoren, bideari jarraitu eutsoen. Ibilli ebiltzela, illuntzea barik oillar andi gorria estarta baten arresian kokatuta ikusi eben. Ederra zan oillarra, baiña jasaten eban barauagaitik, ez zan luma-eskukada baiño. Ondotik igarotean, oillarrak auxe itaundu eutsen:

“– Lagunok, joan naiteke zuekin...?”

“Ugazabak txarto zarabil be...? –itaundu eutsan astoak–.

“– Ori baiño txarragoa jazoten yat. Ara... nire oillotxuek erruntzen dabezan arrautzak, etxeoandre zekenak ostu egiten dauskuz...”

“– Larria benetan. Gu baizen zoribakoa zaran ezkerro, bazatozke gurekin.

“Oillarra, baiña, makaltasun utsaz ezin ibilli, eta idiaren adarren artean kokatu zan. Joan ziran ba gure lagunak aurrera, eta basetxe bateko marandioan gaba emoten erabagi eben. Etzanda jarri ziran bei ta astoa lasto-gaiñean, eta goiko aga baten, oillarra begirari kokatu zan. Egunsentia barik, oillarrak iratzar-deia sakabanatu eban, eta iru lagunok irusta-pillo batetik janda gero, bidegiteari jarraitzeko gertau ziran. Illun zan oraindiño, eta urteteko zorian, idiaren begi andietan izar bat ikusi eban astoak.

“– Aizu, lagun –esan eutsan–, zure begiotan izar eder bat kokatu yatzu.

“– Bai –eratsi eban oillarrak–, badirudi gure etxeoandreak gabeen darabillen krisaillua, alorretako bareak garbitzeko.

“– Ken zaitetz, iñuzente ori –astoak barriro–, ze krisaillu ta krisaillu oste...! Izar orrek ez dau kidekorik ez lurrean ez zeruan. Aingeru baten amesa baizen ederra da.

“– Nik ez dakit zer izango dan –esan eutsen idiak–, baiña biotzean yoran esan-eziña sentitzen dot... bai, beste iñora narooan eragin indartsua... goazen lagunok...!”

“Aurregunean lez, idi-adarren artean kokatu zan oillarra, eta iru lagunok bideari ekin eutsoen, noizean bein geldi-aldiren bat egiñez bazkatzeko. Eguzkia agertu orduko, idiaren begietatik izarra ostendu zan, baiña indar ezkutu batek sorkalderantz erojazan, eta olan, okertzeke egun osoa iraun eben. Era onetan, idia bultzaten eban indar ezkutua gero ta andiagooa egiten zala, iru gau ta egun igaro ziran. Orduko, asko ibilli arren, janari ugarria idoro izan eben, eta irurok adoretso oartzen ziran.

Irugarren eguneko arrats-beeran, indar bakanak eraginda idiari ibillerea arindu yakon, eta, illuntze-orduko, erri txiki bat ikusi eben aurrean. Lo-gurak jota, alboko etxola batera sartu zeitezlan lagunai eskatu eutsen oillarrak, baiña idiak ezetz, eta aurrera beti. Luzaro barik, lo-gurak jabetutako oillarra idiaren adarren artean lo joian. Gaberdi-irian,

erritxu aretara eldu ziran, eta orduantxe idiaren begietan kokaturiko izarra ostendu, eta eguratsean zear ibiltzen asi zan estalpe bateko gaillurrean kokatu arte. An geratu zan nirka gau otzaren zear, izar guztiak baiño ederragoa. Une aretan oillarra itxartu zan, eta lilluraturik, kukurruku zaratatsua jaurti eban.

“Une aretan, idiak estalpeko atea bultzatu, eta irurok sartu ziran. Krisaillu motelaren argipean, andra eder-ederra egoan askatxu baten ondoan jesarrita, eta bestaldean gizon bat erdi-lotan. Gure iru lagunek, baiña, ez eben besterik ikusten, askatxuan egoan seintxu zoragarria baiño.

“– Umetxua dan ederra...! –abopeka jaurti eban astoak–.

“– Auxe da neure biotzean somatzen neban izarra...! –pozez zoraturiko idiari iges egin yakon–.

“Eta bere alaitasuna adierazoteko, oillarra sabaipeko aga baten kokatu zan, eta kukurruko bizia lau aizeetara jaurti eban. Au entzutean, seintxua itxartu zan, eta orduan Ama Birjiñak,

“– Lo egin semetxu laztana –esan eutsan– eta ez bildurtu, adiskideak dira-ta.

“Yosutxuk orduan asto-idiari irribarre egin eutsen, ezpanak igitzen yakozala zeozer esan naiean lez.

“– Aizu, lagun –astoari esan eutsan idiak–, zer esan gura izango dausku seiñak...?”

“– Ori agiri da –astoak erantzun–. Otz dala adierazo nai dausku gaixoak. Jarri gariozan albo banatan.

“Orixe egin eben lagun biok, eta musturrak burusitxu-gaiñean ipiñita, seiña berotu eben, eta ondo-izate arek artuta, Yosu Aurra lo geratu zan, Ama Birjiñak esku bigunakaz aurpegi ta billoak laztantzen eutsazala.

“Gau zoragarria benetan zeru ta lurrean. Ordutik, gure lagunok ez eben Yosutxu’gandik aldendu gura, eta Sendi Donearekin bizi ziran eriotzararte...”

Auxe zan gau aretan Perutxu’k edestu eustan bere amari entzuniko ipuiña. Amaitu ebanean, eta bere isiltasuna ustiatuz, auxe esan neutsan:

– Edeski polita esan daustazuna, Perutxu Jauna, eta izan be, asto ta idia Belen’go askatxu-inguruan egozala, danok dakigun gauza da, aldi areitako liburuetan olan esaten da-ta, baiña oillar bateri buruz ez da iñongo aipamenik egiten.

– Orixe bera otu yatan niri, eta amari esan neutsan, aldi areitako edeskietan ez dala aipatzen egaztirik.

– Eta berak zer...?”

– Ara... Yoseba Deunak erriko aroztegi batean lan egiten eban, Sendi Donea aurrera atararearren, oso ezeukiak ziran-eta. Nekearen-nekez, baiña, goiz geienetan lo-guraren erruz ez zan itxarten garaiz, eta lanera berandu eldu oi zan beste guztiak bearrean ziar-duela. Esnale edo iratzarle bat bear ebalá ikusirik, Jaungoikoak asto-idiekin batera oillar zintzoa bialdu eutsan, eta ordutik, oillarraren lenengo itxarkundearen deia entzunik, Yoseba Deuna jagi, eta lanlekura mugonez irixten zan beti.

– Ain zuzen be, Perutxu Jauna –esan neutsan–, diñostazuna zentzuz beteriko gauza da, eta Eleizak berak zertzelada ori gogoan artu bear izango leuke aurrerantzean.

Irribarre egin eban Perutxu Jaunak, eta une luze samar batez, urian ikusiriko jaiotzari buruz eragon genduan. Gau aretan, baiña, Perutxu Jaunak nekatuta zirudian eta izartxuak ba'litxazan, begietan txinpart bana ebala begitandu yatan, eta augaitik, bazala garaia oeratzeko erabagi neban. Etzateko zorian nintzala, Perutxu Jaunak mintzo ez-
oitua,

– Ez dakit zer izango, Patxi –esan eustan–, baiña Belen'go idiaren antzera, biotzean zeozer bakana oartzen dot. Izango ete da, niri be izar batek dei egiten daustalado...?

– Egin lo, Perutxu Jauna, eta biar gizon barria itxartuko zara. Gabon...!

– Gabon, Patxi, eta biar arte Jaungoikoak lagun.

Gau otza zan, eta sointxu bat egur sutara jaurtita gau osoan zear irauan egian, oi lez nasai-nasai lo egin neban. Egun-argiz itxartu nintzanean, arrituta egiztatu neban, gosaria atondu-bearrean, Perutxu'k etzanda zirauala. Urreratu nintzakion, eta sukar andipean bu-
rua galduta, berba ulerteziañak jaurtiten ebazala oartu nintzan. Noizbait, egarri zala adierazo eustan, eta edaten emonda gero, nire buruari esan neutsan zeozer egin bearko zala. Diru batzuk artu, eta arin baten urira jatsita, osagaitegi edo parmatzi baten sukarra kentzeko zeozer emon egiten eskatu neban. Osagailariak niri guztitariko itaunak egin ostean, noizbait, pildu batzuk emon eustazan.

Biurtu nintzanean, Perutxu egoera bardiñean ikusita, osakaia emoten asi nitzakion beste barik. Jarraian, bazkaldu egian zeozer atondu neutsan, baiña jateko gogorik ez. Gabean bazirudian sukarra baretu izan yakola, eta zerbait nasaiago oeratu nintzan, noz edo noz jagiten nintzala bere egoerea egiztatzearren. Egunsentiaz batean jagi nintzanean, sukarra beeratu izan yakola ikusi aal izan neban, baiña pilpira aul-aula oartzen yakon. Onek izutu ninduan, eta bapatean nire egitekoa argi-argi ikusi neban.

Inguruetan bazkatzen ziarduan Txirta orgatxura buztaturik, onen gaiñean soin batzuk galtzu ipiñi, eta Perutxu burusietan bildurik, galtzuaren gaiñean jarri neban. Gero, bere senetara erdizka etorrita,

– Zer zabiz, baiña...? –esan eustan– nora naraozu...?

– Uriko geisotegira, ango osagilleek aztertu zagiezan.

– Neurea ez da osatu daiteken gauza. Laga nagizu emen.

Ez neutsan jaramonik egin, eta Txirta abo-ugaletik artuta, urirantza abiatu gintzazan. Geisotegia erriko aldamenetan egoan, eta arin baten, inguru-bide batetik aratu nintzan. Eguberdia-edo izango zan eldu gintzazanean, eta langa batatz itxitako sarreran gelditu nintzan. Atezaiña urreratu yatan, eta arrituta begiztatzen ginduzala,

– Aizu, mutil-esan eustan adar-jotzaillearen itxuraz–, dirudianez argibide okerrak emon dautsuez. Emen ez dira astoak osatzen.

Ergel areri ezer esan barik, Perutxu'gandiko burusia kendu neban.

– Illik ez da egongo, ezta...? –zirtolaria egiñez itaundu eustan–. Etxe onetara bizirik dagozanak onartzen doguz bakarrik. Urten bai, illik urtengo, barruko osagilleak orretarako mutil yaiok dira-ta.

Au esanda barre zaratatsua egin eban bere asmamenaren bikaintasuna ospatzeko,

urtean, eta zapalki edo botoi bat eragiñik, sarrerako langea gora egiten asi zan. Bitartean, andik igaroten zan lagun bateri,

– Aizu, adiskide –agindu eutsan–, esaiezu barruko lagunai “Rolls Royce “ batek ekarritako andiki bat sartzeko zorian dala, eta Ongi-Etorria emoteko azaldu daitezalala.

Langea gora egoan arrezkero, eta Txirta abo-ugaletik artuta sartu gintzazan. Orduan, sarrerako estalpe andi batetik ate-zaiñaren lagun batzuk urtenda, igaroten gintzazanean, guztitariko zirikadakaz adarra joten euskuela, barre-zantzoka artu ginduezan. Ordukotz ainbeste ergelkeriz suminduta, Txirta geldierazo, eta arein aurean jarrita, auxe jaurti neutsen aurpegira, naikoa indartsu danek aditu egisten:

– Zerez barre egin iñuzenteok...? Begira: asto au maisutatz izan ba'zendue, onezkerro katedratikoak zintzakeze, eta ez atezain ganorabakoak, papauok...! Arre, Txirta, goazen beste iñora, onein lelotasunak kutsutu ez gagizan, arre...!

Eta barre-santzo zaratatsua euren aurpegira jaurtita, andik alde egin neban. Lenengo estalpea ezkerretara geiso larrientzat zan, eta an gelditurik, baillartari bik Perutxu artuta, txanda-osagilleagana eroan eben, oiko azterketea jasateko. Bitartean, geiso-zain batek eskatuta, Perutxu'ren gora-beerak emon neutsazan. Andik laster, osagillea agertuta, baillartariak auxe agindu eutsen:

– Eroan egizue biotz-geisoen estalpera.

Au entzunik, urreratu nintzakion, eta,

– Aizu, osagille Jauna –itaundu neutsan–, ardurakoa al-da nire lagunarena...?

– Bai, naikoa larri ikusten dot.

– Onik urtengo ete da...?

– Batek-baki, mutil...!

Baillartarien atzetik, Txirta ta biok abiatu gintzazan biotz-geisoen estalpera, eta ona elduta, oe bikotzeko gelatxu batera Perutxu sartu eben. Une aretan oe bat artuta egoanez, Perutxu bestean oeratu eben, eta onen ondoko aulki baten jesarri nintzan. Eguberdia zan orduko, eta andik laster begiak edegita, Perutxu'k auxe esan eustan:

– Entzun, Patxi, sakelean txin batzuk badodaz ondiño, eta jatetxe batera joanda zurtzako janaria erosiko dozu. Bidebatez, Txirta'rentzat baba-zorrotxua be, berak be jateko eskubiderik badauko-ta.

Agindurikoa egin neban, eta janaritegi baten ogi-tarteko batzuk erosirik, baita garau-denda baten baba-zorrotxua be, geisotegira biurtu nintzan. Emeko zelai baten Txirta askatu neban, eta zugaitz batera lotuta, baba-zorrotxua lepotik eskegi neutsan. Astirik galtzeke Perutxu'gana biurtu, eta oe-buruaren ondoan jesarrita, bere egoereari buruz itaundu neutsan. Erdi-lo baten pean, baiña, ozta-ozta berba gitxi batzukaz erantzun eustan. Orduan oartu nintzan Perutxu maite nebala, nik uste izandako baiño geiago, eta larritasun andiak artuta, nire buruari zin egin neutsan, bere albotik ez neukela alde egingo. Beste oeko geisoaren etxeokoez autu bateri emon bitartean, gelatik urten, eta atadiko geisozain-emeari, Perutxu'ri buruz galde egin neutsan.

– Ez dago ondo, mutil –esan eustan–. Senitartekoa al-do...?

– Zeatz esateko, ez, baiña bazkideak gara. Begira, andereiño, egon naiteke bere ondoan gau ta egun, osatu arte beintzat...?

– Ezin dagikezut erantzun. Orretarako zoaz Sor Ikerne'gana, bera erabagiteko nor da-ta.

Joan nintzan dalako lekaimeagana, eta nire naia azalduta, tinko-tinko begiztatu ninduan, auxe iñostala:

– Egoera larri-larritan soillik emoten da baimena.

– Sor Ikerne, Perutxu Jauna txarto dago.

– Zer dozu bera, aita... osaba...?

Orduan egia autorturik, amaitzean onetaraxe arrenkatu neutsan:

– Ni baiño ez dau mundu onetan beste iñor. Oraingoa bere azkena ba'litz, ez neuke gura izango bakartasunean il zeiten. Bere eriotzaldia arindu aal izango ba'neu...!

Une batez begiztatu ninduan Sor Ikerne'k, eta orduan aurpegian igarri neutsan, Sor Ane'gan sarritan ikusiriko azaldu-eziñeko itxura samurra.

– Begira, mutil –esan eustan–, gau ta egunez zaindu dagikezu, baiña auxe esan bear dautsut: gabeko zaintza aulki baten jesarrita jasango dozu, oerik ez dago-ta. Edozelan be, besaulkiren bat ortik ba'lego eroango yatzu.

– Eskerrikasko Sor Ikerne, baiña nigaitik ez arduratu, zelan edo alan konponduko naz-eta.

Nasaitasunezko oarpenaz Perutxu Jaunagana biurtu nintzan, eta biotzaren taupadea aztertu neutsan. Makala zirudian, baiña zorionez sukarra ostendu izan yakon. Autu bateri emoten saiatu nintzan, baiña korromotuta egoanez, zentzunbako berbakaz erantzun eustan. Osakaiak lokartuta egoan, antza. Gero, Txirta'gana joanda, ondo egoala ikusi neban, eta zorroa kenduta, inguruko bedar-bazkatzeari emon egitsan jareitu neban. Gaba zan arrezkero, eta ogi-tarteko batzuk jan bitartean, geisotegitik osteratxu bat egin neban.

Biurtu nintzanean, aulkiaren orde bezaulki eroso ikusi neban, eta isillean Sor Ikerne'ri eskertu neutsan biotzez. Perutxu'k bardin zirauan lokuma-antzeko aretan. Gaba beilan emoten saiatu nintzan, baiña lo-gurea ni baiño indartsuagoa izanik, lo ta itxar-uneak aldizkatu yatazan. Goizean bardin irauten eban, jatekorik artu gura ez ebala. Arrasti-erdian inguru itxartu zan, eta nire eskuari eutsirik auxe esan eustan:

– Patxi, nire adiskide zintzoa, mundu onetako nire bidaldia laster amaituko yat, eta Jaungoikoarekin onezkoak egin gura dodaz. Ez naz fededun on-ona izan, baiña oraingo ateka larrian, nire arimak bizitza ta argira egan egin gura dau... Patxi, burko-gaiñean alztatu nagizu arnas dagidan obeto.

Jaso neban erdi-jesarri arte. Noizbait, arnasa baretu yakonean,

– Entzun auxe ondo, Patxi –nekez jarraitu eban–, mundu onetako bizitza amaitzen danean, beste bat Jaungoikoagan asten dala, batzuk diño. Beste zenbaitek, ordea, ori guzur utsa dala, eta eriotzaren ostean ezer ez. Baiña begira... baten batek itsasoz portu batera joan bear izango ba'leu, eta batzuk esango ba'leuskioe portuko sarrerea erraza izanik, iñongo gidaririk ez dala bear, eta beste batzuk ordea, sarbidea ugarriz eta guztitariko era-gozpenez betea izanik, portu-gidaria bearrezkoa dala esango ba'leuskioe, zer egingo leu-

ke dalako itsas-bidaria zuurra ba'litz...? Badaezpadakoan ezagulari on baten zerbitzuak eskatu, ezta...?

Arnas-estualdi batek jota, Perutxu une batez isildu zan, eta aurpegiko izerdia txukatzan neutsala, mintzo-aalmena irabazirik, onetaraxe jarraitu eban:

– Portura sartzeko zorian naz, eta olantxe ba, gidari on baten laguntza gura dot. Zoaz ba, Patxi, eta ekarstazu autorle bat, Jaungoikoarekin onezkoak egin dagidazan...

Zurubian beera arindu nintzan, eta Sor Ikerne'gana joanda, non idoro nengikean autorle bat eskatu neutsan.

– Zoaz kaperara, eta sakristegian gure kapellaua aurkituko dozu, urrean.

Arin baten joan nintzan, eta esanda lez, kaperako sakristegian geisotegiko kapellaua ikusi neban. Nindekarrena azaldu neutsanean, bertanbera dana itzita,

– Goazen, mutil –esan eustan eleizakoak biltzen ebazala–, arindu gaitezan.

Laster baten biurtu gintzazan Perutxu'gana, eta onekin kapellaua bakarrik itzita, urten nintzan bitartean Txirta ikusteko asmoz, baiña berantetsia, doi-doi laztan batzuk egiñik buruan, gelako ate-ondora itzuli nintzan. Andik laster kapellaua urtenda, auxe itaundu neutsan:

– Abade Jauna, zelan dago nire adiskidea...?

– Luzaro barik Jaunagan izango da. Gitxi ezagutu dodaz bera baizen tolesbako ta jatorrak. Illuntzeko agurtza bere alde esango dogu, baiña zeozer bear izatekotan, zatoz nigana beingoan.

Sartu nintzan, eta oe-buruan jesarrita esku bat artu neutsan. Begietan barruko bakea, eta ezpanetan zorion bakana agiri ebazan. Nire eskuaren ukipena oartzean,

– Bazagoz or, Patxi...? –esan eustan–. Ez zaitez urrundu nigandik... ez dot ezer ikusten... baiña alboan zaitudala jakiteak baretzen nau...

Isildu zan une batez arnasa artzearren, eta,

– Pozik nagotzu, Patxi –irribarre-antzean esan eustan–, portu-gidariaren laguntzaz laster onik kairatuko naz-eta... Eriotz-aldiari beti izan dautsat bildur, baiña orain zoriontsua naz... Bai, Patxi, Belen'go izarra nire biotzean oartzen dot... estalpeko idiak lez... oroitzen zara...?

Barri be isildu zan, eta gero,

– Abadearen bitartez nire autortza Jaungoikoari eginda gero, jaunartu dot, baiña zeuri beste autorpena egin bear dautsut, eta auxe alegia: guzurti porrokatua izan nazala beti, eta meaztegiko sutondoan edesten neutsuzan nire gora-beerak guzur utsak zirala. Ara... Txirta ez neban irabazi igel-jokoan, iñoiz ez dot kirol orretan jardun-eta. Txatarlari batenean, jabeak astama lorketarako ezinbestez bear ebalako, eta Txirta astakumea oso merke eskiñi eustanez, ba...

Adimena, baiña uts egiten asten yakon Perutxu Jaunari, eta aria galduta, isildu zan. Andik laster auxe itaundu eustan:

– Zertan nenbillen, Patxi...?

– Guzurrai buruz zeozer ziñostan...

– A, bai...! Guzurti itzela izan naz beti, eta Peruguzur ondoen yatordan deitura izan

da. Begira... India'n jazo yatana guzur utsa da, eta fakir arena nire asmamenak sortua. Ain zuzen be, ez dot India ez Kanada ezagutu, inoiz ez nazalako itsasoratu. Nik egun ainbat guzur, eta augaitik barkapena eskatzen dautsut, Patxi.

– Baiña Perutxu Jauna –txeratsu erantzun neutsan–, ez daustazu zergaitik barkapena eskatu bear, zeuk edestua asmamenaren ondorioak zirana, ondo nekian-eta. Baiña auxe jakin dagizula nai dot: zure edeskiek zorionsua egin nabela sutondoko apaloste luzeetan, eta lagun-urkoari zoriona dakarkionak, sari andia merezi dau, eta augaitik, dagokizuna laster emongo yatzu...

Begiak itxita, lo-kumapean zirudian Perutxu'k, eta lo zalakoan isildu nintzan. Gamberdia izango zan aren berbak barrero aditu nebazanean onetaraxe:

– Entzuidazu, Patxi, nire il-buru egiteko ordua da-ta. Jakean dodazan diru urriak zuretzat artuko dozuz. Txirta bere orgatxuarekin jarauntsizat lagaten dautsudaz, eta onezaz gainera, meaztegia etxetzat erabilteko eskubidea, ain luzaro erabilli ostean neuretzat daukat-eta. Olan, orain arte lez, gure jardunari jarraituko dautsazu, eta zure esku izango zara. Oroz gain, baiña, auxe aztu ez dakizun nai izango neuke: ez zaitetz diru-gose izan, benetako zoriona asko-eukitean ez datzalako, gauza gitxi ta arruntak izatean baiño...

Ona eldutean isildu zan Perutxu, eta eskua alkarri emonda, lo baketsu batek artu eban... eta nekeak garaituta, neu be lo geratu nintzan besaulkian.

Egungentiko argi motela leioan zear sartzen zanean, eskuan ukipen otza oartu neban, eta Perutxu'ren eskua zala konturatu nintzan. Ustekabez, biotz-ikara batek menperatuta, zutundu nintzan, eta Perutxu'ren begikada utsa sabaian josita ikusi neban. Bere aurpegia bakez beterik agertzen zan, eta zer egin be ez nekiala, begiak itxi neutsazan, eta barrutik begietara yatordazan malkoak jabetu eziñik, negar mingotsari emon neutsan. Urtebete bat izango zan Perutxu ezagutu nebanetik, eta goizetik gaberarte gure lanak alkar-tuta, bere adiskidetasuna bizi-bizi gozatu izan neban, bera babesle ta aitatatzat artzeraiño, izan be. Gogora yatordazan apalosteko solasetan berak asmatu ipuin zoragarriak, eta barrero be inoiz entzungo ez nebazalako oldozkunak naigabetzen ninduan, bitxi kutuna betirako galdu izan bai'neuan...

Une luze batez negarrari eutsi eziñik iraunda gero, Sor Ikerne'gana joan eta jakitun ipiñi neban. Biok gelara biurto gintzazan, eta benetan illik egoala egiztaturik,

– Aizu, Patxi –esan eustan–, meztidu dagigun, gero emengo gorputegira eroateko.

Au egin aurretik, ildakoaren janzkian aurkitu nebazan diru urriak artuta, bion artean il-jantzi genduan, eta orduan Sor Ikerne'k auxe irautsi eustan:

– Patxi, eguneroko mezea bederatzietan esaten da kaperan, eta orretan zure adiskidearen alde otoi egingo dot, baita zure alde be. Orain zatoz nirekin sukaldara gosaria artzeko.

Joan bitartean, nire bazkidearen alde zeozer egin bearko neukela otu yatan. Laster izango ziran bederatzia, eta gosaria artuta, kaperara bideratu nintzan. Uste izanda lez, sakristegian kapellaua ikusi neban mezatarako jantzi-agiñean zala.

– Nire adiskidea il da –esan neutsan–.

– Tamal dot, mutil. Izan be, atzo autortu nebazan, luzarorako ez zala begitandu yatan.

– Begira, Jauna, meza au bere alde esan dagizula nai dot. Ez dakit olako mezak zenbatean ordaintzen diran, baiña ona emen daukadan guztia.

Au esanik, Perutxu'k niri lagatuko diru guztia mai-gaiñean ipiñi neban, auxe niñotsala:

– Ez dakit naikorik izango ete, baiña ez dot besterik.

Une baztez irribarretsu begiztatu ninduan, eta gero,

– Agiri da benetan maite dozula, baiña ez nintzake benetako abadea, diru ori artuko bai'neutsu. Gaurko mezea bere alde esango dot, eta zure zintzotasuna beraganaiño elduko da, nik uste. Aizu, zelako izena eban zure adiskideak . . . ?

– Perutxu.

– Besterik ez... ?

– Ez dakit, abade Jauna. gitxi azetzen ziranetakoa zan, eta bost ardura berari, zelako abizena erabilli egikean.

Illetak asi ziran, eta aurreneko aulkitik ospakizunari jarraitu neutsan. Aspaldi zan otoi egiten ez nebala, baiña egun aretan Perutxu'ren alde niretara eskatu neban. Mezea amaitu zanean, eskerrak emon neutsazan kapellauari, eta orduan berak jakiñerazo eustan eorzketea urrengo eguneko amarretan izango litzakela. Sakristegitik urtetean Txirta ikustera joan nintzan, eta beretara poztasuna agertu eustan buruaz nire bularra lantanduz. Argi egoan gose andia izanik, babak uts emoten ebazala. Zugaitzetik askatzeko zorion, baiña, leio batetik Sor Ikerne'ren deia aditu neban, eta beragana joanda,

– Aizu, Patxi –esan eustan–, eguberdia da onezkero, eta joan aurretik, gura bai'dozu jaten emongo dautsut.

Izan be, ereti aretan ez nintzan bape gose, baiña ezin nintzakion bere eskintzari jarri, eta baietz esan neutsan. Bazkaria amaitu nebazan, agurtu aurretik auxe esan eustan:

– Meza bitartean zure lagunaren alde eskatu dot, baita zure alde be. Nora zoaz orain, etxeokana-edo... ?

– Ez dot senitartekorik, Sor Ikerne, umezurtz naz-eta.

Errukitsu begiztatu ninduan, eta,

– Agur, Patxi –esan eustan–, Jaungoikoak bedeinkatu zagizala.

– Agur, Sor Ikerne, eta eskerrak asko.

Luzaro barik geisotegiko atea zearkatu neban. Orain, baiña, Txirta'k lerraturiko orgatxua utsik joian, eta au oldoztean korapillo bat eratu yatan eztarrian. Egungo otza zan negu-miñari egokionez, eta meaztegirantz astiro niñoala, ustekabez oartu nintzan egubarria zala, munduak Jaunaren etorrerea ospatzen eban egungo gogoangarria, eta orduan gomutara etorri yatan, Jaiotzako idiari lez, Perutxu'ri be izar bat biotzean jarri izan yakola, eta izar onek Egubarriko goizaldean eroan ebala ames egindako beste mundu batera.

Meaztegira eldu nintzanean, eta Txirta'k babak birrindu bitartean, otzak artuta sua ixiotu neban, eta oiko lekuan jesarrita, begi lainotsuakaz Perutxu'ren aulki utsa atzo-miñez begiztatu neban. Katillu esne beroa artu neban otza uxatzearen, eta gero oeratu nintzan. Neke andia jasan arren ez neban ondo lo egin, oroimenetik nire adiskidearen utsa

Urrengo goizean, leku aretan nire azken gosaria artu neban. Jarraian, gauza bakotxa bere lekuan jarrita, sorua ondo isastu ondoren, meaztegioko babes bat betirako laga neban, besterik ez nerioiala diru apur bat baiño, egun gitxi batzutarako izan be. Euria atertu izan zan orduko, eta bidean beera urira abiatu nintzan, oraingo onetan jardun egokiren billa.

Asi nebazan, beraz, ondo ezagaturiko aspaldiko aalegiñak jardun bat idorotearren, baiña betiko eragozpena nonai, au da, ezin egikidela iñongo lanik eskiñi, kondalari-lanetan iñoiz ez nebalako jardun. Egunkarietako iragarki guztiak alperrik arakatu ondoren, aspaldiko akademi edo ikastegira biurtu nintzan betiko eskaeraz, baiña emen be, niretzat ezer ez. Batetik besterako aalegin areitan, diru urriak urtu yatazan, eta ezinbestez, uso-arrapaketeari emon bear izan neutsan barrero, eta negu-miña izanik, len lez jatetxeko aizegillearen urteera epelean babestu bear izan neban, eta ostera be, eskale ta gaizkille zorritzarrekoekin alkartu nintzan, arein autu zikiñek eta birao zantarrek inguraturik. Jende iguingarria zan, eta nirekiko garbitasuna zearo aztuta, egunen bidean zorritzatsutua billakatu nintzan.

Alperriko jardun-billaketa aretan, nire izaerea azken maillaraño jausi zan, jasaten neban kinka larriaren errua gizarteari egotzirik, guztiaren aurka gorroto andia oartzen ne-bala. Otoi egitea aztu egin yatan aldi aretan, eta Jaungoikoaren legetik urrun, pizti baten antzera bizi izaten nintzan, zeinnai arrapaketeari emonda bizirik irauteko. Sarri askotan gogora yatoridan, txakur alderraien oiturak nebazala, dendatan eskura etorkidana ostuz, gero edozein bazterretan irrika zoroan irusteko. Gose-otzak ez ninduen argi ikusten itzi, eta urian zear nenbilen batetik bestera, gizarteak zapuztutako pizti amorratuaren antzera, eta ez-arian ez-arian jaioterritik erbestera alde egiteko asmoa nitzaz jabetzen asten zala, ezuste batek nire bizitzaren norabidea aldatu eban.

Illunabar baten uriko auzo zaarretik ibilli nenbillela, ustekabez beso bat sorbaldean kokatu yatan, eta ondo ezagaturiko mintzo batek,

– Kaixo, Patxi –agurtu ninduan–, zertan zabiz nire auzotik...?

Biurtu nintzan... Nor eta Txiritxu berbera...! Izan be, ereti aretan ondo samar jantzi-ta, itxura atsegiña emoten eban, eta orduan, adiskidetsu begiztatzen ninduala,

– Begira, Patxi –esan eustan Txiritxu kaskagorriak– asko zor dautsut, meaztegioko zulo aretan nire alde egin zenduanagaitik, eta barrero be zuri eskertzeko eretia aurkeztu yat. Zeugaitik izan ez ba'litz, espetxean izango nintzake orain.

Gero, begi zorrotzakaz begiztatu ninduan, eta,

– Geisorik-edo emoten dozu –esan eustan txeratsu–. Begira, sartu gaitezen jatetxe orretara, eta apaldu bitartean zure gora-beerak esango daustazuz.

Sartu gintzazan, eta jatokiko mai baten ondoan jesarrita, salda bero ta makailau-lainta bana eskaturik, auxe esan eustan Txiritxu'k:

– Orain, Patxi, esan egistazu dana.

Janari gozoak eta giro epelak adoretuta, nire lorrak jakiñerazo neutsazan, eta amaitzean, uritik alde egiten asmatzen nebala entzutean,

– Ez orixe, Patxi...! –esan eustan adoretzu–, emen geratuko zara. Banabiltzu lankide zintzo baten billa, eta nor zu baiño egokiagorik nire asmotarako...?

– Zeintzuk asmo, Txiritxu...?

– Biar bertan azalduko dautsudaz zure eiñera biurtu zaitezanean, arazoa luze samarra da-ta. Orain goazen nire ostatura, bear dozun atsedena izan dagizun.

Urten gintzazan jatetxetik, eta portu-ondoko ostatu batera jo genduan. Aurreerantzean oe biko gela bear izango gendukela ostalariari esanda, andik laster, oe bigun gozo banatan etzanda jarri gintzazan, eta loak bereala artu ninduan.

Biamonean, jagi ta laster Txiritxu'k auxe esan eustan:

– Begira, Patxi, darabiltzuzan aparra-mantarrok ibaira botako doguz zorriak izorratu daitezen. Jantzki barria erosi arte, niretariko bat lagako dautsut.

Jantzi nintzan ba, eta nire aparra-mantarrakaz lotuki bat egiñik, ibaira bota nebazan nasaitasunezko sentipenaz. Jarraian, kafetegi baten gosaria eskatu genduan, eta jakin-gurak eraginda,

– Aizu, Txiritxu –itaundu neutsan–, esango daustazu lenengo ta bein zelako asmoak darabiltzuzan biontzat...?

– Ara... etxe-ikerleak biurtuko gara.

Arrituta begiratu neutsan, eskintzen eustana ulertu eziñik, eta,

– Zer demoniño da ori...? –itaundu neutsan–.

Nire adiskide ulegorriak irribarretsu begiztatu ninduan une batez, eta gero irriño maltzurraz auxe esan eustan:

– Etxe-ikerleak, bizitegiak lumatzen dabezanak dira.

– Lumatu diñostazu...? Ezin dagikezut ulertu.

– Ara... uri onetako etxeek geienetan iru edo lau sorukoak dira, eta gure zeregiña izango da, ereti bakotxean dagokigun sorua ikertu, ango gauzak arrapatu, eta etorri bai-zen arin eta isillean anka egin.

– Baiña zeuk eskintzen daustazuna, lapurreta da...!

– Bai, baiña askozaz politoagoa deritxat, lapurrak baiño ikerleak deitu izatea.

– Arren, Txiritxu, azalduko daustazu bein betiko, ekintza orrein zertzeladak...?

– Ara bada... Aurretiaz, argibide zeatzak izan bear doguz, zein soru ta zein ordutan utsik dagoan. Ori jakiñik, sasi-giltz batz dalako soruaren atea edegi, sartu, amen baten balioko gauzak eta pitxiak batu, zorrora sartu, eta astirik galtzeke anka egin...

– Zelan jakin, baiña, soruren baten etxeoak kanpoan diranik...?

– Orretarako adimena erabili bear, Patxi. Eguneko izparringietan il diranen eriotz-

txartelak agertzen dira, eta oneitariko bakotxean, zein ordu ta zein eleizetan ospatuko diran illetak. Dalako orduan ildakoaren sendi guztia eleizan dago, eta euren sorua uts, iza-nik, lumaketa edo ikerketea egin daiteke...

– Eta etxekoren bat, eleizkizunetara barik, etxean geratu ba'da...?

– Dalako lapurreta egiterakoan, urrutizkiñez dei egiten da, eta erantzuna edo erantzun-ezagaitik, sorua utsik dagoan ala ez jakiten da.

– Zelan saldu, baiña, ostutako gaiok...? Zaila izango da olako ostukiak saltzea, iñor gitxi erosi leukez-eta.

– Gure nagusiak ondo daki arrisku andi barik nori zer saldu. Badira zaarkinlarien batzuk olako jeneroak erosteko gerturik dagozanak. Baiña ori geuri ez dagokigun arazoa da. Ori "Pintxo" gure nagusiar datorkio. Lagun ori zenteilla baizen argia da...

– Zelan egiten dozue irabazi edo ostutakoaren banaketea...?

– Ara... Iru zati egiten dira. Erdia "Pintxo"rentzat, eta beste erdia geu bion artean banatzeko, au da, laurena bakotxari

– Nik esango neuke, dalako "Pintxo" zenteilla baiño argiagoa dala. Arrisku gitxi ta irabazte andia.

– Badakizu, Patxi, gudalburuak garundunak diran ezker, edo izan bear leuke, beintzat, arrisku gitxi ta domiña ugari...

– Baiña Txiritxu, ez ete dozu uste, egunkarietako eriotz-txartelak irakurteko, eta bestek arrapatutakoa nasai-nasai saltzeko, ez dala garun andikorik izan bear...?

– Ez diñostuz ezetz. Baiña "Pintxo"k lengo egunean jardun ori eskiñi eustan. Orretarako, baiña, lagun bat bear... eta zorionez aurkitu zaitudan ezker, ba... zeuk ikusi, ostantzean beste bateri eskiñiko dautsat.

– Orduan, eskintza barria ba'da, orain arte zerez bizi izan zara...?

– Andra ta atso iñuzenteai esku-zorroak kendu dautsedaz, baiña oso ezaguna billa-katu nazan ezker, nire zoritxarrerako bereiztasuna edo espezialidadea aldatzeko bearran naz. Badakizu... kaskagorri ta espildun nazan ezker, nortasuna ezkatutzea zaila biurtu yat. Zorionez, lengo egunean beste leku batera joatea asmatzen nebanean, "Pintxo" aurkitu neban, eta ate-morroilloak edegiteko dodan nire gaitasuna ezaguturik, jardun barri ori eskiñi eustan, jakiña, beste lagun bat idorotekotan, eta ona emen zu alagala zatozkidala. Eguberdian Enparantza Barrian berbatuta nago "Pintxo"rekin, eta bitartean egurastuko dogu ordu orretararte.

Olan egin genduan, eta Nikola Deunaren joaleek amabiak doi-doi joten ebezala, Enparantza Barrian gengoan, arkupetik ibilli genbiltzala. Alako baten, Txiritxu'k ukalondoaz saietsean jo ninduan, abopeka auxe iñostala:

– Aizu, Patxi, onantza datorren mutil garai ori, "Pintxo" da.

Urrerutzen yakuzala, ereti ona izan neban aren itxurea aztertzeke. Ogei ta zortzi urte inguruko gazte izango zan, garai ta ederra. Bela baizen baltzadun billoak itsasgai batz ondo orraztuta ebazan, begi illunen begikadea arroa, suur luze zuzena, abo irmoa, eta ibillera arranditsua. Aurpegiko larmintza illuna izanik, ijito-itxurea emotsan, baiña ederra zanik ezin zeitekean ukatu. Soiñeko oztin-illun apaiña erabillen, oiñetako baltz dizdira-

tsuak, eta paparreko gorri bizia ondo alkartzen zan soiñeko margoaz. Urrats malguakaz igitzen zan, eta ibillereak bere buruarekiko ziurtasuna adierazoten eban. Gure aurrean gelditu zan, eta,

– Kaixo, Txiritxu –esan eutsan–, zer barri...?

– Ona emen, Patxi, aspaldiko nire ezaguna dana, eta gure lankide izateko gerturik.

Leoi batek bidean aurkitutako iñurriari egiten dautsan jaramon bardiña emon eustan, eta ozta-ozta iraisean niri begiraturik,

– Uste betekoa al-da, zure ezaguna...?

– Bai, benetan, onek ez dauku utsik egingo.

– Goazen ba kafetegi batera, gure egitekoa atontzearren, ia biar bertan lanean asten garean...

Sartu gintzazan “Zeru Urdin” kafetegira, eta irurok mai baten aurrean jesarrita, edarritxu bana maitzaiñari eskatu ostean, gudaiburu batek menpeko iñuzenteai biaramoneko guda-ekintzea azaltzen dautsen antzera, “Pintxo” onetaraxe asi yakun:

– Biar, goizkeo amarretan ementxe alkartuko gara eguneko ekintza erabagiteko.

Isildu zan “Pintxo” une batez, eta gero Txiritxu’ri mintzatzuz,

– Bai al-daki Patxi dalako zure lagunak, zelako jardunari emongo dautsazuen..?

– Bai, “Pintxo”, jakitun ipiñi dot.

– Edozelan be, ondo oartu bear dozue auxe: ikerketea baiño len, kale-urrutzikiñetik dalako etxera dei egingo dot, eta iñor ez ba’litz, suur-zapiñoa astinduko dot aalik ariñen etxeko atadira abiatu zaitezzen. Narruzko zorro bat eroango dozue, eta atera elduta, zeuk Txiritxu’k, sasi-giltzaz atea zabalduko dozu, zurubian iñor ez dala egiztatu ostean. Ez dozu astirik galduko ekintza onetan, bestelan dana pikotara joan daiteke, eta arrisku gorrian zuen buruak ikusi. Bein etxera sartuta, zorro-barruko paperak ustu, eta arin baten gelatan zear ibillirik, metalezko erti-gaiak, portzelanazko azpil-edontziak, eta guztitariko urrezko edo marfillezko bitxiak arrapalada baten artuta, zorroa bete, eta ariñeketan iges egin, etxekoren bat illetatik biurto aurretik. Gero, arrapaturiko gaiak zaarkinlari batenean neuk salduta, ordaiñez artutako dirua iru zatitan bananduko dogu, ulertu dozue...?

Orduan nik errubako itxuraz,

– Orrek esan gura dau, beraz –itaundu neutsan–, gutariko bakotzak iruren bat artuko dauala, ezta...?

– Ez orixe...! –minduriko berbaz erantzun eustan “Pintxo”k– Ori ez litzake bidezkoa izango. Ekintzaren zuzendaria ezin daiteke morroi batekin erkatu edo bardindu. Mundu onetan garundunari menpekoari baiño sari andiagoa dagokio beti, egite arrunta betetea erraza dalako, baiña asmatzea gain-gaiñeko jeiñuak soillik egin dagikegu. Artutakoaren erdia, beraz, niretzat izango da, eta beste erdia zuen artean banatzeko izango da. Kontuan artu bear dozue baita be, ekintza orren zaillena, arrapakiña ondo ta ziur saltzea dala, eta nire arremonakaitik egoera obaeziñean nago ekintza ori arrakasta beteaz egiteko. Dana-dala –jarraitu eban benatsu–, emen ez da iñor beartzen, eta aske zarie, beraz, lana onartzeko ala ez.

Au esanik, leoiak iñurri ezaiñari begiratzen dautsan antzera begiztatu ninduan barriro, eta gero soiñak goratuz,

– Dana-dala –niri zuzenduz–, jarei zara aukeratzeko, eta baietzkoan, biar ementxe ikusiko nozue zuen lanari lenengoz ekiteko.

Au esanik, igikun arranditsuaz jagita, iruron edariak ordaindu eutsazan maitzaiñari, eta markes baten itxuraz kafetegitik urten zan. Txiritxu’k abo-zabalik begiztatzen eban itz oneik iges egiten yakozanean:

– “Pintxo” dan andia...! Izan be, Patxi, ez dakit nor ezta nongoa dan, baiña andiki baten semea, baietz egingo neuke...!

– Ken zaitez, kokolo besteren kokolo...ze andikiren seme ta seme oste...! Orreri alde guztietatik ijitoen enda dario. Gaiñera, domiña-zale porrokatua da. Gudaiburu anditzat eta gain-gaiñeko jeiñutzat bere burua ederretsi be...! Orrek doi-doi irakurri-idazten ikasi dau, eta zenbatu, eskuko atzamarrakaz or nonbait... Entzun ete dozu iñoiz, erderaz esaten dan “Kapitan Araña...?”

– Bai.

– Orra or ba, orren eredurik bikaiñena. Eta gaiñera, zelan jakin bene-benetan zaarkinlariagandik arrapakiñen ordaiñez artutakoa, zintzo-zintzo bananduko dauskula...? Izan be, lekukorik ez daukagunez, amarrutsu orren eskuetan gagoz.

– Ez dakit ba, Patxi, baiña zer besterik egin...?

– Ezer ez, oraingoz beintzat.

Mintzo ezkutu batek, baiña, baiñostan geu “Pintxo” baizen lotsabako ta zitalak gintzazala, eta au egi biribilla izanik, lotsak artuta izanez gaiñera, nire buruaren aurka zerbait azaldu-eziña sentitzen neban, eta bearrian gorriak bultzatuta nengoalaren atxakiak ez ninduan baretzen. Izan be, nire alde esan bear dot, gizarteak beste biderik eskintzen ez eustalako zan...

“Zeru Urdin”etik urten gintzazanean, Txiritxu’k biontzat ogitarteko batzuk erosi ebazan, ni ezkurrik bage aurkitzen nintzan-eta. Gabean ostatura biurto gintzazan, jardun barriari esker kinka larri aretatik urteteko itxaropenak, zeozer baretzen ninduala. Laster artu ninduan loak oeko epeltasun gozoaz inguratuta. Biaramonean, Txiritxu’k kafetegi batera eroan ninduan, eta urdaila beroturik, amar-amarretan “Zeru Urdin”ean “Pintxo”rekin alkartu gintzazan.

Aurregunean lez, gure nagusiak itxura akatsbakoa agiri eban, eta ikusi ginduzanean, mai-ondoan jesarteko agindu euskun, eta egun aretako izparringia zabaldua, auxe esan euskun:

– Lagunok, gaur aukera bi doguz: bata eguberdian, eta bestea arrastian. Eguberdiko eleizkizuna ordu batetan, Santiago eleizean, eta bigarrena zapzi ta erditan, Yosulagunenean. Ekiogun orain lenengoari. Erribera kaleko 16’ganean eta irugarren soruan. Urrenetik urrutizkiñez deia egiñik, jakiñerazoko dautsuet etxea utsik dagoan ala ez. Baietzkoan zapiño zuria astinduko dot, eta astirik galtzeke dalako lekura joango zarie. Zuen ikerketa arin eta isilla izango da, etxekoren bat eleizkizunetik etorri baiño len. Ez uste, gauza andiak balio-tsuenak diranik, ostera, benetako bitxiak txikiak izan oi dira. Ulertu daustazue...?

– Bai –biok batean–.

– Egitekoa amaituta, zuen aurretik jarriko naitzue, eta igarotean zorroa emongo daustazue. Bazkalostean, seiretan, ementxe bertan alkartuko gara, eta bigarren ikerketea atonduko dogu. orain beste gauza bat; bai al-daukazue naruzko zorro bat...?

Gure ezetza entzutean, auxe esan euskun:

– Zatoze nirekin eta dalako zorroa erosiko dautsuet, eta gero epeka ordainduko daustazue; argi al-dago...?

Baietz esan geutsan, eta ordu batetan zorroa geroiala, kaleko urrutizkin-txabolatik ur jarri gintzazan, eta "Pintxo" k zapia astindu ebanean, arin baten kaleko 16' gneko zurbian gora igon gintzazan. Ez genduan inor ikusi (izan be, etxeko beste lagunak geienetan ildako senitarteekin eleizara doaz), eta laster gengoan billaturiko ate-aurrean. Txiliña jota gero, eta erantzunik ez egoala ikusirik, isillean eta esku-antzerik andienaz, Txiritxu'k sasi-giltzen eskukadea saiatu ondoren, laster benetako aurkitu, eta etxera sartu gintzazan. Dana illunpean egoan, eta su-zotz bat piztu ta argiaren maratillea eraginda, etxea aztertu aal izan genduan. Lenengo, egongelako ertidun pitxarra, piano-gaiñetiko marfillezko iruditxua, eta beste gauza txiki batzuk arrapatu genduzan. Jarraian, arin-arinka lo-gela batzuk arakaturik andra-iduneko polita jaso genduan, baita errubidun orratza, eta eskuturreko ordulari bat.

Etxekoren bat etorri ekigun bildurrez, ezin genduan azterketa zeatzik egin, irazean baiña, eta ordu-laurena igarorik, etorriak baizen isillik etxetik urten gintzazan inongo oztoporik bage. Kale estu batetik giñoazala, "Pintxo" rekin gurutzatean, onek zorroa artu euskun eta bereala ostendu zan.

"Pintxo" k aginduta lez, arratsaldeko seiretan alkarturik, urrengo ekintzako gorabeerak emon euskuzan. Gure jarduna zazpi ta erdietan izango zan, eta etxeko zertzeladak emonda, auxe esan euskun:

– Eguberdiko arrapaketea ez da makala izan. Idunekoagaitik sari polita jasoko dogula uste dot, baita marfillezko iruditxuagaitik be. Aldiaren bidean zer arrapatu ikasiko dozue. Biar goizean, gaur lez goizeko amarretan "Itsastar" akeitetxean alkartuko gara, eta dagokizuen emongo dautsuet.

Banandu gintzazan beste barik, eta itunduriko orduan, "Pintxo" ren zapiño-astintzeari itxaron geutsan, eta eguberdian lez, arrapaketea edo ikerketea aukeraturiko etxean egin ondoren, gure nagusiari esku-zorroa emon geutsan.

Urrengo egunean "Itsastar" kafetegian alkatu gintzazanean, oi eban arrokeri ta andikeriaz, "Pintxo" k arrapakiñen gora-beerak emon euskuzan.

– Nire ezagunak arrapaketa biakaitik lauren laurleko emon daustaz, eta itunaren arauz, ona emen zuentzako berreun. Ia aurrerantzean aukera baliotsuak egiten dozuezan guztien onerako.

Txiritxu'k pozik zirudian, baiña ni ez. Benetako ezagularia ez nintzan, baiña nire ustez, "ikerketa" bi areitan jasotakoek askozaz geiago balio eben, eta olan adierazo neutsan gure nagusiari.

– Zuoi emonikoa gitxiesten dozula diñostazu...? Zeuk ez dakizu ostutakoak zelan

ordaintzen diran. Gaiok erosten dabezan zaarkinlariak zeken asekaizak dira, inoren lepotik mozkin itzelak beti egiteko gerturik. Onezaz gaiñera, nik erosiriko naruzko zorroa zuek ordaintzekotan izan da, eta gaur aren erdia kendu dautsuet, eta urrengoan beste erdia ta kitto.

Eta gero zorrotz begizatzen ninduala,

– Dana-dala, lagun –esan eustan–, ez yataz bape atsegin suzmo txarreko lankideak, eta pozik ez ba'zagoz, billatu egizu neu baiña nagusi emonkorragoa, nire esanetara ez zaitut beartzen-eta.

Txiritxu'k maipetik ostikada galanta jaurti eustan isildu neinten, eta ez neutsan 'Pintxo' ri beste osterarik egin. Jarraian, eta arratsalderarte beste "ikerketa" rik ez izanda, Txiritxu'k eta biok orretarako zertzeladak artuta, jatetxe baten gure biziko bazkaria izan genduan. Pozik egoan nire lankidea, eta,

– Aizu, Patxi –bazkari onak eraginda esan eustan–, gaur egundoko bazkaria egin arren, ba'daukagu diru enparauaz aste guztiko ostutua ordaintzeko beste... Baiña, arren, lagun, ez zakioz jarki "Pintxo" ri, bestelan zer billakatuko gara aren laguntza barik...? Kontuizu, berari esker ostutakoa saldu dagikegula...

Ez neutsan erantzunik emon, baiña asikereako "Pintxo" ri buruzko nire zalantzak, areagotzen joiakidazan. Arratsaldean, egun aretako "ikerketea" egin genduan, eta gure nagusiari zorrotxua eskuratuta gero, ostutua biurtu gintzazan.

Era onetan asi zan nire doillorkeria, edo beekoen bizitza-maillataraiño eroan ninduan jauskerea. Ain zuzen be, jasaten neban bearrizan gorriak barrukoa ito edo laiñotu izan eustan, eta pizti baten antzera or-emenka jaso nengikeanaz irauten neban, benetako gaizkillea biurtuta.

Negu gorri aretako egunak aurrera joiazan, eta gure mozkiña andirik izan ez arren, teillatuean lo egiteko ta janaritzeko beste bagenduan Txiritxu ta biok. Gure arrapaketak erdi-maillako etxeetan izan oi ziran. Andikien edo aberatsen etxeak guretzat ikerteziñak ziran, atezaiñek amaika itaun egiten ebezalako, eta gora ta beerako edonoren ibilteak zaintzen ekielako. Aukera bakarra, beraz, gizarte ertaiñegan genduan, onein etxeetan geienbaten atezaiñik ez zalako erabilten. Gaiñera, gizarte-mailla au oso gomutaki ta bitxi-zalea izanik, bagenduan non zer arrapatzeko.

Gure ekintzen lenengo aspaldian, bagenduan ostutua ta janaria ordaintzeko lain, baita txanpon batzuk sakelerako be. Baiña aldia igaro-ala, "Pintxo" k emoten euskun arrapaketaren mozkiña gitxitu zan agiri-agirian, ostutua-ta ordaintzea zaila biurtzeraiño. Onek neugan suzmo txarrak iratzari ebazan, eta niretzat argi egoan Txiritxu ta biok marrokeriaren opariak gintzazala. Izan be, gure lapurretak batzaz beste bardin antzean ebiltzen, eta ezin nengikean ulertu oraingo mozkiñaren murriztea, marrokeri bat izan ezik. Augaitik, bein baten nire suzmoak azaldu neutsazan Txiritxu' ri, eta bera be diru-gitxiteaz aspertu eraginda egoala jakiñerazo eustan. Orduan,

– Txiritxu –itaundu neutsan– arrapaturikoa "Pintxo" k non saltzen dauan ba al-dakizu...?

– Ez dakit ziur, baiña portutik urrun ez dagozan Aldape kaleko dendatxuetan, uste dot.

– Begira, Txiritxu, gaur illuntzean “ikerketa” bat egitea dagokigu, eta “Pintxo”ri zorroa emonda gero, aren atzetik joango gara.

– Ederto, Patxi.

Arratsalde aretan lana eginda gero, esku-zorroa gure nagusiari eskuratu geutsanean, gabeko illuntasuna ustiatu, aren jarraian asi gintzazan aalik ezkutuen. Portu aldeko norabidea artuta, luzaro barik Aldape kaletik jaisten asi zan, eta beekaldeko dendatxu ezain eta ziztrin batera sartu zan. Negua izan arren, atea zabalik egoan, eta kaleko argi-urritasuna ustiatuz, ateko alde banatan zelatari jarri gintzazan.

– Ona emen –une aretan esaten eban “Pintxo”k–, gaur dakartsudazan bitxiok.

Ez genduan barrukoa ikusten, baiña bai, ostera, esaten zana entzuten. Andik laster dendariaren abotsa aditu zan,

– Nire eritxiz gaurkoak laureun balio dauz.

– Oso gitxi da ori; begira... idunekoa bakarrik laureun balio dauz, eta beste jenekoa geituz, orduan...

– Enparaua sarama utsa da, eta ezin dagikezut geiagorik emon. Artu ala zoaz beste inora...!

– Entzun Matxako Jauna, emon egistazuz bosteun eta kitto.

– Tira... laureun eta berrogei ta amar emongo dautsudaz, eta ez bedi geiagorik esan.

– Besterik ezean...

Kutxa bateko erabiltea aditu zan, eta Txiritxu’ri keiñu bat egiñik, ur egoan atadi illun baten ezkutatu gintzazan. Andik laster, alaitasunez txistuka “Pintxo” urten, eta kalean gora itzalen artean galdu zan.

Txiritxu ta biok ostatura biurtu gintzazan. Bidean gaindi giñoazala, Txiritxu’k poz baten auxe esan eustan:

– Ez dago txarto, lagun; biar beraz, “Pintxo”k berreun eta ogetabost laurleko emongo dauskuz.

– Bai itunaren giñoan, baiña ori ikusiko dogu biar bertan. Olan izango al da...!

Biamonean, oi genduan garaian berbatu-rikof kafetegian gosaria artzen giarduala, oi eban itxura arranditsuaz “Pintxo” sartu, eta gosaria aginduta gurekin jesarri zan. Pozik emoten eban gure nagusiak, eta irribarretsu, aurreguneko arrapakifaren mozkiña onetara-xe azaldu euskun:

– Badirudi, arrapakin-erosleak gero ta zekenago biurtzen asi dirala. Ara... atzo zenbat diru jaritsi nebala uste dozue...?

Txiritxu’k eta biok isillik irauten genduala ikusirik, asperen luzea jaurtirik,

– Ara... berreun laurleko bakarrik. Ona emen, beraz, zuoi dagokizuen eun laurleko, banandu dagizuezan.

Zur eta lur geratu gintzazan Txiritxu ta biok. Nire suzmo txarrak egi biurturik ikustean, eta gure nagusiaren marrokeria eragozteko zer egin geinken ausnartzen nebala, bere arritasuna jabetu eziñik, Txiritxu’k orduan,

– Aizu, “Pintxo” –esan eutsan–, nire ustez, beintzat, atzokoak ori baiño askozaz geiago balio eban. Izan be, ez dakit zelan ez dozun ori baiño geiagorik lortu.

“Pintxo”ren suzmo txarrak iratzarri nai ez neban ezker, maipetik ostikada adierazogarria jaurti neutsan Txiritxu’ri isildu zeiten.

– Entzun, Txiritxu –asarrez erantzun eutsan “Pintxo”k–, gure arremonak aalik gardenen izan bear, bestelan oraingo alkarteak ez dau jarraitzerik izango. Pozik ez ba’zagoz...

– Begira, “Pintxo” –eten egin neutsan–, ez jaramon egin oneri. Zaarkinlariak dirugose amorratuak dirala danok dakigun gauza da, eta eurok dira benetako irabaztea egiten dabenak, eta geu lez aalegintzen diranek, ostera, apurra baiño ez.

Berba oneik, antza, “Pintxo” baretu eben, eta jarraian, egun aretako “ikerpena”ri ekin geutsan. Onen ostean dirua artu genduan, eta egun aretako lapurreta illuntzean egiteko zanez, egurastegiko aulki baten jesarrita, gure alkargoaren egoera aztertu genduan Txiritxu’k eta biok. Amorruez beteriko nire adiskideak “Pintxo”ren aurka bereak eta bost bota ebazan, eta gerturik egoan iruren arteko alkargoa deusezteko. Nik, baiña, baretu zeiten esan neutsan, ori egiteko zenbat-gura aukerak bagenduzan-eta; bitartean, ondoen egokiguna ausnartuko gendukela. Izan be, “Pintxo”ren aurkako nire suzmo txarrak aspal-ditikoak ziran ezker, zeozer bayabildan gogoan.

Bazkalostean, egun aretako “ikerpen”aren ordurarte astia emoteko, ostatura joan gintzazan, eta aulki banatan jesarrita, Txiritxu’ri auxe esan neutsan:

– Begira, lagun, lerrenak egin arren be, “Pintxo”ren marrokeriagaitik nekez atariko dogu bizi izateko beste. Asiera baten polito ataraten genduan ondo biziteko, baiña orain gure nagusiaren zekenkeriak ez dauz mugarik ezagutzen. Aurrerantzean ba, gure esku jokatuko dogu.

– Zelan, baiña...?

– Ostutako irudi edo bitxirik ederrena, guretzat.

– Ondo derist orreri, baiña zelan eta nori saldu, gero...?

– Laga egizu ori nire kasa. Estualdi onetatik urteteko arriskuren bat artu bear ba’dogu, gerturik egon gaitezten. Lagaizu arazoa niretara erabilli dagidan, eta esaera zaarrak diñoanez: “Laster agertuko Maria Mañariko”.

Illuntze aretako ekintza soster andi barik gertatu zan. Etxea, atezainbakoa izan arren, aberats-itxurekoa zan, eta oi lez gure nagusiaren zapiñoak ostuketea egiteko abiatu gintezen adierazo euskunean, oiko esku-zorroa geroiala, dalako etxe-txiliña eragin, eta itxaron ostean, esku-antze arrigarriaz Txiritxu’k atea egegi, eta isillean barruratu gintzazan. Geienetan, bitxirik ederrenak iker-aretoan aurkitzen ziran, eta egun aretan be, egia azaldu zan, piano-gaiñetiko marfillezko irudia ikusi nebanean. Leoi baten eraso irudikatzen eban, eta nire ustez maisu-lana zan. Artu, eta esku-zorrora barik, arkondarapera sartu neban. Gero, oiko arrapaketea egiñik, eta zorroa “Pintxo”ri emonda gero, banandu gintzazan, “Pintxo” oi eban lez Aldape kaleko zaarkinlariagana bideratzen zala.

Biamonean, gure nagusiarekin alkartu aurretik, Aldapeko zaarkinlariagana joan nintzan, eta laster Matxako’rean aurrean nengoan. Itxura zikiñekoa zan berau, bizar errautskaraz aurpegi zimurtsua estalia, erdian suur kakoduna betaurrekopetan agiri ebala. Txabutx illunaz jantzitako konkordun soiña, malgutasun katukoiaz batetik bestera igitzen

zan isillean. Une aretan, apal batetik idaz-mairantz etorren, eta ikusi ninduanean, goitik beera zorrotz begiztatzen ninduala,

– Zer nai dozu, gazte...?

– Ara... gauzatu bat dakartzut.

Au esatean, arkonarapetik irudia atara, eta eskuratu neutsan. Egazti arrapatariaren erpeak zirudien atzamarrakaz, marfillezko leoia atzitu eban. Gero, leiarki bereiziaz aztertu ebazan irudiaren zeatzak, eta mai-gaiñean lagata,

– Nondik atara dozu au...?

– Ori nire arazoa da.

– Bosteun emongo neuskizuz.

– Begira, Jauna, zeu lako ezgulari on batek badaki ori baiño askozaz geiago balio dauala.

– Ez dot ukatuko ori. Baiña ostuta dan ezker, kontuz eta arrisku andiz saldu bearko dot, eta gaiñera, luzaro ezkutauta gorde ostean.

– Matxako Jauna, zeuk irudi ori bost millatan saldu dagikezu.

Jarraian gangaillenez luzaro jardun genduan, eta noizbait, milla laurlekotan bat etorri gintzazan.

– Aizu, gazte, orrelakoren beste bat eskura yatortzunean, badakizu non nagoan...

– Bai, Jauna. Urrerogarte.

Olan jazo zan zelan jareitu gintzazan Txirixu ta biok “Pintxo”ren atzaparretatik. Aurrerantzean gure estualdiari amaia emon geutsan, gosea kenduz eta ostalariari gure zorra ordaindu aal izan geutsala. Ez dot uste, gure nagusitxua iñongo suzmo txarrak artuta izan zeitenik, gure arrapakiñak gero ta ezaiñagoak zirala askotan berak aipatu arren. Pozik gengoan Txirixu ta biok, eta izan be, oraingo gure mozkiña naikoa polita zanez, ondo ta ugari jaten genduan. Ez dakit zelako itxurea izango neuken aspaldi aretan, baiña Txirixu’k iñoizkorik lodien eta osasuntsuen emoten eban.

Egunoro edo ia egunoro Matxako’ri bitxiren bat saldu oi neutsanez, gure arteko arremonak erraztu ziran, eta luzaro barik bat etorten gintzazan astirik galtzeke ordaintzari buruz. Bera erti-ezagulari benetakoa zan, eta neuk be aldiaren bidean zeozer ikasi nebanez, ez genduan oztopo andirik gaien balioa epaitzeko, eta onen giñoan ordaintza jar-teko.

Ordurarte gure lapurretak soster andi barik jazo izan ziran, baiña bein baten, uste izaten ez genduana gertatu zan. Gabeko itzalak nonai edatzen zirala, “ikerpena” egitera abiatu gintzazan, “Pintxo”ren zapiñoak ekiteko keiñua egin euskunean. Bigarren soruko ate-txiliña jo ondoren eta erantzunik ez egoala egizaturik, oiko esku-antzez Txirixu’k ate-ate edegi eban. Gela batzuk arakatu ostean, etxeko areto nagusira joan gintzazan; erdi-atez ezeletan egoan, eta lanari ekin geutsan aalik isillen. Oitureari jarraituz, ez genduan ezelako argirik erabilten, auzokoren batek ikusi ez gengizan. Olan ba, oin-muturrez batetik bestera giñoazala, ustekabez, pizti baten orrua zirudian zurrunga-antzeko zerbaiz entzun genduan:

– Grrrr... Grrrr...!

Ikaratuta, aretoaren erdian gelditu gintzazan. Noizbait, leio batetik igazten zan kaleko argipean, txoko baten illunez jantzitako giza-irudi bat ikusi genduan, eskuak astintzen ebazala, abots erlatsaz orru-antzeko oiuk jaurtika. Latz-ikara batek artuta, nire gurari bakarria aalik eta ariñen etxe aretatik urtetea izan zan. Zauskada larripean Txirixu’ren zoraturiko mintzoa aditu neban karrasi baten auxe iñostala:

– Goazen, Patxi, goazen, ildakoaren mamua da-ta...!

Ariñeketan urten gintzazan, eta zurubiko maillak launaka jatsirik, laster gintzazan kalean. Zeozer baretu ondoren, abotsa oraindiño dardarrez, Txirixu’k didar baten,

– Ildakoaren mamua da, Patxi, ziur nago. Ara...inpernura epaitua ba’da ildakoa, eleizkizunak ospatu bitartean, etxera biurtzen ei’da, eta bere mamuak txoko baten jesarritan dirau, il-mezea amaitu arte. Arima erratua dan ezker, izuzko karrasiak iges egiten yako...

– Ken ortik, ganorabako ori...! –esan neutsan– Ze mamu ta mamu oste...! Nork sartu dautsuz olako guzurrak kaska-barruan kokolotzar ori...?

– Sarri askotan entzun neutsan ori andra bateri. Zelan azalduko zenduke, ostantzean, mamu aren agerpena...?

– Begira, Txirixu: asiera baten neu be ikaratu egin naz, baiña orain, nire eiñera biurtuta, gertaturikoa argi-argi ikusten dot. Zure mamua etxeko aitita izan da. Etxeko guztiak eleizkizunetara joan dira, baiña bera etxean bakarrik geratu da, joaterik ez ebalako geisorik dago-ta. Aitita gaixoak etxean lapurketan ikusi gaituanean, bildurrak jota oiuka asi da, eta oraindiño didarretan jardungo dau, ikara utsaz onezkeru il egin ez ba’da...

– Ori izugarria izango litzake, Patxi.

– Bai, Txirixu, eta orain oartzen naz, gure zitalkeriak noraiño eroan gaituan...

– Gure bizi-modua izugarria da, eta sarritan gure lapurretak bein betiko lagatea burura yatort, baiña zerez bizi izango gintzakez...?

Ez neutsan ezer erantzun berarekin bat etorri arren. Gizakia edozertara oitu ei’da, baiña barrutik yabildan mintzo batek nire bizierea gaitzesten eustan. Goseak eta bearrizak, baiña, zantarkeri aretan jarraitzea beartzen ninduan. Noizean bein, latz-ikara batek astintzen ninduan, gogora yatordanean Sor Ane’k uste izango leukena, nire oraingo ekin-tzak ezagutuko ba’leuz...

Baiña barruko arraren gaitzespenak itoten nebazan, eta biziera doillar aretan jarraitzen neban. Izan be, gure “ikerketak” gero ta zaillago biurtuko litzakiguzala oarpen bakanak iñostan. Uriko egunkariek ia egunoro aizatzen ebezan gure ekintzak, eta bildur nintzan baten batek gure lapurretak etxekoak eleizkizunetan egon bitartean jazoten zirala al-kartu egiezan, eta zer-ikusi onek egunen baten ondore txarrak lekarkigukezala.

Bein baten, lapurretea egin ostean zurubian beera giñoazala, gizon bi ataditik sartuta, ariñeketan mailladian gora asi ziran. Esku-zorroarekin ikusi ginduzanean, zizpoletak atararik, auxe oikatu euskuen:

– Geldi or, ertzaiñak gara-ta...!

Bildur gorripean esku-zorroa zurubian beera jaurti neban, eta Txirixu’k erraikidala,

mailladian gora arin baten oldartu nintzan, teillatupeko sabai-leiotik iges egiteko asmoz. Azkar etozan ertzaiñak, baiña gu ariñago, eta mailla-burura eldu gintzazaneko, gure aurrerapenari esker, sabai-leioa zabaldu, eta teillatutik iges egin genduan. Atzetik etorkiguzan ertzaiñek didar bizitan gelditu geintzen agintzen euskuen, baiña gu gero ta ariñago, zapaltzen genduzan teillak apurtuz. Teillatua aldapatsua, eta ertzaiñak gu baiño naikoa zaarragoak izanik, bitartea luzatzen zan, eta au ikustean, ertzaiñek zizpoletak erabilli ebezan, baiña ke-bideen babespean egan egiten genduan. Lasterketa aretan, noizbait, sabai-leio bat agertu yakun, eta bion indarrak batuta edegi genduan, beste etxe bateko zurbian aurkitzen gintzazala. Andik sartuta, luzaro barik kalean zear giñoazan gure ikarea nekez menperaturik.

Kaleko aulki baten jesarri gintzazan, eta egoerea aztertu genduan Txiritxu'k eta biok. Izan be, izu gorriak menperatuta, abo batez erabagi genduan lapurketeari uko egitea, eta zelan edo alan eutsi jardun bat idoro arte. Biaramonean, berbaturiko kafetegian "Pintxo"rekin alkartu gintzazanean, inguruka ibilteke, lanari uko egiten geutsala jakitun ipiñi genduan. Alperrik izan ziran "Pintxo"ren aalegiñak "ikerketak" egiteari jarraitu gengion. Txiritxu'k eta biok ertzaiñen zizpoleten eztandak oraindiño entzun bide genduzan. Alako baten,

– Tamal dausat zuen erabagiari –esan euskun "Pintxo"k–, eta izan be ezin zagikiedaz beartu jarraitzera, baiña zuen buruaren jabe izanik, zuek ikusi.

Une batez isildu zan, eta gero mintzo naigabetuaz,

– Zuzen zagoze. Ainbeste "ikerketak" egin ostean lapurreten eta eleizkizunen arteko zer-ikusia ertzaintzak aurkitu dau, urrean, eta badirudi ildakoen etxeak zaintzea erabagi dauala azken baten. Zuurra da, beraz, oraiñarteko lanari uko egin dagiozuen. Baiña...bada uritik lekorean dagoan "Markesenea" deritxan jauregia, zenbatu-eziñeko bitxiakaz beterik. Asteburu guztietan, jauregi orretako nagusiak beste iñora doaz, eta alboko etxetxu baten bizi dan atezaiñaren ardurapean geratzen da urrengo Astelenerarte. Astiune orretan jauregia utsik dago, bere etxetxutik urten barik atezaiñak zainduta. Txakur uzu batek barretetik jauregia kuku egiten dau iñor sartu ez daiten, baiña ori ez litzake zoztor andirik izango guretzat. Jauregi orretan ordubete baten arrapatu daitekenaz, urtebete bat aisa bizi izango zarie lan egin barik. Zer deritxazue asmoari...?

– Nik ez dot –erantzun neutsan– beste "ikerketa"rik egin gura.

– Eta zeuk, Txiritxu...?

– Patxi'rekin bat nator. Ez dot beste lapurretarik egingo

– Or konpon ba...! –esan euskun asarre-antzean– Baiña goserik izan zaitezenean, badakizue non aurkitu nagikezuen. Agur...!

Izan be, azkenengoz zalakoan nasaitasun-sentipenaz joaten ikusi neban. Orduko, Matxako'rekin azken aldiotan izandako arremonai esker, bagenduzan Txiritxu'k eta biok zezoer aurreztuta, eta diruak iraun ekigun artean, jardunen bat idoroko gendukela ziurtzat genduan. Astirik galtzeke, beraz, jardun-idoroteari ekin geutsan, baiña arazo onek beti lez edo are zaillagoa zirauan. Banekian kondalaritzaren arloan ez neukela aurkituko lanik, baiña bee-maillako lanetan zezoer idoro nengikeala uste izaten neban, baita Txiritxu'k be.

Gure itxaropena, baiña, ustel billakatu zan, eta egunak igaro arren ez genduan ezer aurkitzen. Izan be, gure uriko kondairan aldi areik zailletarikotzat agertu ziran, eta geuk lez gazte-mordo batek, ezin egikean irrikaturiko lana lortu. Egunak, baiña, aurrera joiazan, eta aalik merkeen bizi izaten saiatu arren be, aurrezkiak agortu yakuzan. Noizbait, eta ostalariari aste bikoa zor geutsala, gure gela ustu, eta kalera igorri ginduzan. Zorionez, uda izanik, egurastegiko aulki baten etzanda gaba emoten genduan, eta euria zanean, edozein ate-zubipean babesten gintzazan. Jatekoa be, aren baten izaten genduan arrapaketeari esker. Esan bearrik ez, Txiritxu ta biok lur-jota gengozala.

Bein baten, Enparantza Barritik nora barik ibilli genbiltzala, alako baten "Pintxo" urreratu yakun, eta jagole ongillearen itxuraz,

– Kaixo, lagunok –agurtu ginduzan–, atsegiña da, benetan, aspaldiko ezagunak ikusteak. Zelan zabilte...?

– Ondiño bizirik gagoz –esan neutsan–, eta ori ez da gauza makala oraingo aldiotan.

Gure itxuretatik agiri zan gorriak jasaten genduzala, eta "Pintxo" maltzurak egorea bere onerako erabiltea ebatzi eban auxe iñoskunean:

– Tira, adiskideok, poztuko nintzake, benetan, nirekin bazkaltzera ba'zentoze.

– Baita pozik be...! –erantzun eutsan Txiritxu'k–.

Izan be, bazkaitarako deiak poztu ninduan, urdaillaren barau-aldia luzesten neban-eta. Jatetxe aretako jakien usaiñak nire gose gorria iratzarri eustan, eta mai-aurrean jesarrita, azpilbete indiaba aurrean ikusirik, arnas baten iruntsi neban. Urrengoko errekiari ez neutsan aukerarik emon otzitu zeiten, eta geroko mai-azkenak erabatean garbitu nebazan. Akeita edo kafea artu orduko, banekian, jakin be, Txiritxu ta biok "Pintxo"ren eskuetan gengozala barriro be, eta luzaro barik egiztatu aal izan neban, zigarro piztu-barriari must egiñez, besaulkian patxadaz egokitu zanean. Abobete ke sabairantz jaurtita, begi txiki illunakaz begiztatu ginduzan, eta,

– Zer deritxazue, lagunok –itaundu euskun– "Markesenea"ko arazoari ekitea...? Zagozen ateka larrian, ez niri esan gero, eskintzeari uko egingo dautsazuenik...

Txiritxu'k eta biok isillik irauten genduala ikusirik,

– Begira, lagunok –jarraitu eban–, etzi Larunbata dan ezkerro, senar-emazteak diran ugazabak, itsasaldean bizi izaten dan seme bategana joango dira, eta gaiñera, illargi barria izanik, aukera osoa izango dozue ikusiak ez izateko. Baiña aurrenik, jauregiaren jarriera azalduko dautsuet.

Au esanik, txatal baten lauki antzekoa marraztu eban, eta gero onen erdian beste bat txikiagoa.

– Ona emen –esan euskun–, "Markesenea" etxaldea, eta onen erdian jauregia. Sarra onetan, eta jauregitik bananduta atezaiñaren etxetxua. Ikusi dagikezuenenez, jauregia baratz ederrak inguratua da. Atezaiñaz gaiñera, baratza txakur uzu bik zaintzen dabe, eta au gitxi bai'litzan, iru metro garaia dan ormatzar batek jauregia inguratzen dau. Iraizean begiraturik, jauregira sartzea eziña da, baiña estuago begiraturik, jauregiko bitxi ederrak arrapatzea ez da orren zailla. Ara... baratzera sartuko zarie emetik, iparraldetik, atezaiñaren etxeaz bestaldetik, alegia, iñork ikusi ez zagiezan.

– Eta ormea ta txakurrak...? –itaundu eutsan Txiritxu'k–.

– Augaitik ez larritu. Burdiñezko kako bateri soka bat lotuko dautsazue, eta kakoa jaurtita, goikaldean tinkotu daitenean, sokan gora igon, eta au atzekoz aurrera ipiñita, baratzera jatsiko zarie. Argi dago...?

– Bai, baiña...

– Itxaron amaitu arte, eta ikusiko dozue zein erraza dan: Ormaz bestaldean txakurrak begira izango dozue, eta pildu lo-erazle batzuk jaurtiko dautsezuez. Bereala lo geratuko dira, eta arin baten jauregira joanda, atzeko atetik sartuko zarie “ikerpena” egiteko. Ainbatu eziñeko aberastasuna ei'dago bitxi ta irudietan areto nagusian, eta leku onetan soillik egingo dozue arrapaketea. Au arin baten egin bearko dozue iñork ikusi ez zagiezan, eta txakurrak senetara etorri aurretik. Bataz beste, ordubete batetik gora ez dozue jardungo. Gero, etorriak lez urtengo zarie, eta gaberdian “Itsastar” kafetegian zuen begira izango nozue. Argi dago...?

Izan be, arazoak ez eban beste argibiderik bear, eta baietz esan geutsan. Gero, zeatz batzuk azaldu eskuzan. Lapurretea illuntze-garaian egingo genduke, au da, amarretan inguru, uda zan-eta. Dana ondo joatekotan, gabeko amabietan inguru alkar ikusiko genduke esandako kafetegian. Ekintzara joan aurretik, “Pintxo”k pildu lo-erazleak eskuratuko leuskiguz, eta geuk iru metroko sokea burdiñezko kakoari lotuta jakepean eroango genduke.

Ekintzarako peitzen ziran egun bi areik berantetsiak igaro genduzan. Igandeko arratsaldea amaitu-eziña begitandu yakun, eta illuntzeko itzalak luzatzen asi ziran garaian, “Markesenea” jauregira abiatu gintzazan. Illuntasun betea egin zanean, kakoa jaurti genduan goikaldera, eta noizbait, laugarren ekitaldian orman tinkotu zan. Sokatik goikaldera igonda, txakur uzu bi kurrinka zemaikorretan igurikan genduan bestaldean. Aalik azkaren pilduak jaurti geuntsezan, eta usaiñak erakarrita aida baten iruntsi ebezan. Bapatean, arein kurrinkak itzungi ziran, eta sokatik aalik isillen jatsita, baratzean aurkitu gintzazan. Jauregiko atzekaldea berrogei ta amar metroko bitartera egoan, eta arrapalada baten zerbizuko ateraiño eldu gintzazan.

Udako gau illun-illuna zan, eta sasi-giltzen txorta ustiatuz, Txiritxu trebeak atea edegi eban, eta sartu gintzazan. Etxeko leio-estalkiak itxita egon arren, geuk ekarritako esku-argi bat erabilli genduan, eta izan be, jauregi aretan aberastasunetan egoana, nekez ainbatu zeitekean. Arin baten, guztitariko irudi ta bitxiakaz esku-zorroa beteten asi, eta geuk uste baiño len, gaiñez bete zan. Alde egiteko ordua, baiña...

Txiritxu ta biok aspaldi aretan gosea ezin kendurik genbiltzan, eta bapatean, Txiritxu'k auxe esan eustan:

– Aizu, Patxi, ondiño astirik badogu. Zergaitik sukaldea ez arakatu, ia an zeozer jateko idoro dagikegun...?

– Goazen ba.

Laster gengoan sukaldean, eta ozgaillua edegirik, guztitariko jangai bikaiñak ikusi genduzan. Goseak akuillaturik, jateko batzuk atara, eta mai-ondoan jesarrita, jateari emon geutsan buru-belarri danatzaz aztuta. Bazan ordubete bat-edo etxe aretan gengoza-la, andik urtetea erabagi genduan. Bitartean, baiña...

Bitartean, txakurrai gauoro emotsen janaria banatzeko ordua izanik, “Markesenea”ko atezaiña etxetxutik urten zan, eta oi eban txistu luzeaz janarirako deia iragarri eban. Txakurrak etorten ez zirala ikusirik, arritutako zaindaria esku-argi bat artuta, noi-zean bein txistuka, baratzeko txoko guztiak arakatzen asi zan. Alako baten, txakur biak illik lez etzanda ikusirik, izu andipean inguruak aztertu ebazan. Luzaro barik, argi-izpiek goikaldetik eskegitako sokea estalgetu eben. Onek adierazo eutsan, lapurrak jauregi-barruan egozala oraindiño, eta bildur andipean bere etxetxura biurturik, arin baten urrutizkiñez ertzaindegira dei egin eban, jazoten zana azalduz. “Markesenea”tik zorro bete bitxi ta janariz ase, aldarterik onenean urten gintzazanean, gabeko illundian zear sokea eskegita egoan lekura abiatu gintzazan. Laster ikusi genduan, eta ormaz bestaldera zorroa jaurti ondoren, sokearen bidez Txiritxu ta biok bidera jatsi gintzazan. Alkarri zorionak emon aal izan aurretik, baiña, argi bizi batek itsutu ginduzan, mintzo garratz batek auxe agintzen euskula:

– Geldi or, bestelan tiroka erreko zaituegu...!

Izuak artuta, zur eta lur geratu gintzazan, berebil baten argiek itsututen ginduezala. Oartu orduko, eskuturrak lotuta, ertzain-bikote batek berebillera sartu ginduzan, eta ertzaindegira zuzendu gintzazan, gure arritasunetik oraindiño urten barik, ertzainburu baten aurrean gengoza-la.

Begi zorrotzakaz begiztatu ginduzan ertzainburuak, eta gero alboko ertzain bateri,
 – Etorri daitela Anton –agindu eutsan–. Dirudianez, aurrean dogun kaskagorri au
 lengo egunean ostuketan ikusi eban.

Andik laster dalako Anton agertu zan, eta ertzainburuak,

– Ezagutzen al-doiz lagun oneik...?

Une batez Anton'ek begiztatu ginduzan, eta,

– Kaixo, kaskagorri espiltsua-ta...! –agurtu ginduzan–. Azkenean gure lapikora sartu
 zarie. Arinketa ederra eskiñi zeuskuen nire lagunari ta bioi orain iru aste-edo, teillatuetan
 zear tximisten antzera igesi ziñoazela. Bai, nagusi Jauna, oneixek dira Bidezaar kaleko
 etxe bat garbitu ostean, zenteillak aidean teillatuetatik ostendu yakuzan lapur dengani-
 ñoak.

– Ziur al-zagoz...?

– Bai, nagusi Jauna, ezin dagiket kaskagorri au aztu egin katu baten malguntasunaz
 bere lagunarekin ariñeketan joiala, kebideen babesa ustiatuz tirokatu ez gengiazan. Biko-
 te au da ziur-ziur, etxeakoak sendiko baten illetan diranean, ainbeste lekutan “ikerketa”
 egiñez bitxiak-eta garbitzen dauzana.

– Eroan egizuz ba, eta dana autortu artean, ez atsedetik emon. Geroarte, Anton.

Onek eta bere lagunak beste gela batera eroan ginduezan, eta eskuturrekoak kendu-
 ta, Anton'ek auxe agindu euskun:

– Orain burutik-burura dana autortuko daustazue, ezer aztu barik, bestelan zartako
 bizitan zertzeladak oroiterazoko dautsuedaz. Aizu, lagun –menpeko bateri mintzatuz–,
 ekazuz ona lapurketa orrein salakuntzak, ia arazo au bein betiko argitzen dogun.

Andik laster, menpekoak eskukada bete agiri ekarrela, Anton'eri emon eutsan esa-
 nez:

– Agiritegiko jagoleak diñoanez, emen dagoz azken aldiotan eleizkizunen bitartean
 jazotako lapurretak.

Une batez Anton'ek irazean orrikatu ebazan, eta txistu bat jaurti ostean,

– Izan be –esan euskun–, egin dözuezan lapurretakaz “letani” ederra osotu daiteke.
 Berrogetak dira emen aipatzen diranak, eta banan-banan aztertuko doguz, zuen barraba-
 sadak egiztatzeko.

Au esanik, banaka-banaka kaleak eta ostutako etheen zerrendea irakurten asi yakun,
 gaiak eta egokiezan balioak zeaztuz. Lapurreta bakotxaren ostean, auxe itauntzen euskun:

– Zuek egin al-zenduen...?

Orduan geuk “baietz” ala “ez gara gogoratzen” erantzuten geutsan. “ez gara gogoratzen” lenengoz aditu ebanean, bakotxari belarrondoko itzela emon euskun, baita bigarren eta irugarrenean be. Orduan gure lapurreten “letani”ri beti “baietz” esatea erabagi genduan Txiritxu’k eta biok, orduko, aurpegia ta belarriak irakiten genduzan-eta. Izan be, ikerpen batzuk gogoratu ez arren be, ziur nintzan areitan be esku-sartzerik izatea, dalako “ikerpen”etan leikiderik ez genduan-eta. Noizbait, itaunketea amaitu zan, eta Anton’ek idazgaillua erabilliz, idazteari emon eutsan, eta au amaitu zanean, gure autorpenaren orrialde bakotxa Txiritxu’k eta biok izenpetu genduan. Orduko, urrengo eguneko goizalde ia izango zan, eta atsedean artzeko ordua zala uste izaten genduanean, mai-ondoan jesarrita, Anton’ek auxe itaundu euskun:

– Orain, lagunok, ostutakoak nori saltzen zeutsazan...?

Geuk iñori ez, baiña Anton’ek ez euskun siñistu, eta zartako bizitan eraso euskun, aifiñen eta biraoekin lagunduta. Aipatu nengikeon “Matxako” izena, baiña orrek gure egoerea txarragotu egikeala oarturik, ezkutuan gordetea erabagi neban, eta “Pintxo” izeneko bateri diru-apur batzuen ordaiñez arrapakiña emoten geutsala autortu genduan. Orduko nekatuta, zelakoa zan dalako “Pintxo” eskatu euskun Anton’ek. Aren itxurearen zertzeladak entzutean, bekokiari txalo bat emonda,

– Arraioa –didar egin eban–, nor eta “Luzanga” ezizeneko ijitoa...! Badira illabeteak aren atzetik gabiltzela atzitu eziñik...!

Gero beste gora-beerak eskatu euskuzan, eta dalako “Pintxo” “Luzanga” berbera zala ziur egiñik, beste autorpen bat arazo oneri buruz izenpetu-erazo euskun. Orduan, bekaldeko soruko ziega batera eroan ginduzan, eta nekearen-nekez, aulki banatan etzanda lo geratu gintzazan.

Biaramonean, umezurtztegiko gosaria gomuta-erazo eustan katillubete kafesne opiltxu batekin ekarri euskuezan, eta andik ordubete batera, Anton’ek ertzainburuagana eroan ginduzan. Onek auxe esan euskun:

– Txanda-epaikariagana eroango zaituegu, eta izan be, arek zuzen-zuzen espexera bialduko zaitue. Egia al-da izenpetu dozuena...?

– Bai, Jauna –Txiritxu’k eta biok–.

– Orain zuen argazkiak, atz-irarkiak eta beste gora-beerak artuko yatzuez, eta onen ostean auzitegira. Egiñaren arauz, espexaldi luzetxua begira izango dozue.

Andik laster, baituen gurdiak auzitegira eroan ginduzan, eta aulki baten jesarrita, txandeari itxaron geutsan. Ordubete bat igarorik, epakaikariaren aurrean gengoan. Ezer esan barik, ertzain batek eskuratu eutsazan agiriak irakurten asi zan ardura andiaz, eta amaitzean:

– Egia al-da, zuek izenpeturiko emen esaten dana...?

Baietz erantzun geutsan, eta orduan berak agiri batzuk idatzi ostean,

– Ertzaiñok, eroan baitu oneik dagokiezan agiriekin uriko espexera.

Espexea uriko aldamenetan eraikia zan, eta andik laster ate-aurrean gengoan. Espexelari batek, izen-abizenak, adiña, ogibidea, eta beste gora-beera batzuk artuta, erantzi

gintzazan, eta espexeko janzkia jarrita, ziega banatara sartu ginduezan. Iru egunez iraun genduan an bakartasunik osoenean, eta noizbait, kaska-moztu ondoren, lagun-arteko gela zabal batera sartuta, oiko giltzapetuen bizierea ezagutu genduan.

Zorionez, Txiritxu ta biok gela berean gengoan, eta alkarrekin jarraitzeak zelanbait adoretzen ginduzan. Gurekin egozan geienak zoribakoak ziran benetan, lapur oituak, etsipenezko zulotik urten eziñik, espexerik-espexe etenbarik, gero ta lege-auspen andiagok egiteko etsiak eraginda, izan be, era berean purtzil eta errukigarriak. Eurokin jardutea ez yatan atsegin, eta augaitik Txiritxu ta biok gero ta alkartuago.

Espexean baegoan lantegi bat, eta astia emoteko, Txiritxu’k otzaragilleen saillean jarduna idoro eban. Sail onen kondalaritza erabillena, baiña, jare billakatu zan, eta ordezkaria aurkitzeko, Zerbitzuen arduradunak atxilloen nortasun-zertzeladak aztertu ebazan, eta ni kondalaria nintzala ezaguturik, dei egin eta dalako jarduna eskiñi eustan. Izan be, nire egoera aspergarritik urteteko, lan ori alagala etorkidan, eta beste barik onartu neban pozez.

Jardun onek ez eustan buruauste andirik emoten, eta andik laster arazoa menperatzen neban, betidanik ezagutu izan bai’neban. Edozelan be, erraza zan ardura apur bat emotekotan. Gaiak langille bakotxari emoten yakozan, eta gero egindakoak saltzean, erabillitako len-gaiak ordaintzen eben diruketa txikia geituta, lantegiko eralguntzak, au da, indarra ta argia kittuteko. Bazan beste alde bat eta txikia ez zana. Lanean giñarduanok, lo-gela bereizi ta txukunetan lo egiten genduan, eta onezaz gaiñera, sukaldean bertan otorduak izaten genduzan, eta zer esanik ez, lapiko txiki gozo batetik janaritzen gintzazan.

Bein baten, Zerbitzu-arduradunari Txiritxu’reñ alde berba egin neutsan, eta andik laster gure lo-gelara ta jan-maira aldatu eben. Astirik geiena kontu-liburuetan eta lantegia ikertzen emoten neban, eta autortu bearrean naz, ezaguera andiak egin nebazala benetako erabiltean. Sarri askotan, lantegian zear gauzak aztertzen niarduala, Txiritxu’reñ ondoan gelditzen nintzan bere antzeak erakarrita. Eskuak arintasun siñisteziñaz erabillezan, eta munduko gauzarik errazena bai’litzan bere eskuetatik, otzarak, aulkiak, zareak etab. sortzen ziran. Bein baten, bere ganorak arrituta, auxe esan neutsan:

– Izan be, Txiritxu, begiztazen zaitudanean, gogora yator umezurtztegiko jaietan egiten zeuskuzan esku-joko areik, eta orain nire buruari diñotsat, eskuketari gain-gaiñekoa billakatu zintzakezala bide orretatik jarraitu ba’zendu.

– Batek-baki, Patxi –irribarrez erantzun eustan–, egunen baten orretarako aukerea izango ba’neu...!

Espexearen zigorrik andiena askatasun-eza da, eta izan be, au ordeztu ezin daiteken gauza da. Baiña egiari zor yakon begirunez, esan bear dot emien, Txiritxu ta biontzat, lengo alderrai ibilte neketsua amaitu izan yakula. Orain ez genduan or-emenka narratz ibilli bear piztien antzera, arrapagai baten billa. Bagenduzan ostatu, janaria, eta txanpon batzuk irabazteko eretia iñongo arriskurik bage. Eta txit garrantzitsua zana, bagenduan orduak arin emoteko jardun atsegiña. Bein baten, illabete bi-edo espexean gengoala, iker-aretora joateko deia artu genduan Txiritxu’k eta biok. An, gizon bat gure begira

egoan aspertutako itxuraz. Erdipurdikoi soñekoa erabillen, paparrekoa alde batera saiestua, prakak zimurrez beterik, eta billoak naasita. Arrausi anditzar batz abetaldur ginduzan, eta gaba lagunarte egarritsuarekin jasandako oste-itxuraz,

– Kaixo, oillaskuok...! –agurtu ginduzan–. Auzitegitik natortzue zuen alde jarduteko, zotz eginda gero, niri etorri yat-eta.

Bixiguaren itxuraz so egin euskun, eta arrausi itzela jaurtita agiri-txorta bat eskukatuz,

– Orduan zuek –jarraitu eban– “Palentzi”ko Burusia” izeneko dendan ostu egiteko asmotan barruan artu zinduezanak zarie, ezta...?

Zur eta lur eginda nengoan, ulertu eziñik noraiño joan nai eban lege-gizon txirene arek, eta...

– Barkatu, Jauna –eten egin neutsan–, baiña ez dau sut ulertzen.

– Ez ete zarie, orain illabete bi-edo, Plaza Zaarreko “Palentzi”ko Burusia” dendara, ostuteko asmotan sartu ziranak...?

– Geuk ez dogu iñoiz iñongo burusirik ostu izan gura, ez Palentzi’korik ez beste iñondik be.

Lege-gizon txirene arek, aurreko maia irusteko aña zan arrausi itzela egin eban irugarrenez, eta,

– Arraioa...! –esan euskun kokolo-itxuraz–. Ez dodaz beste lapur bien agiriak ekarri ba...! Nortzuk zarie zuek, ba...?

– “Markesena” jauregia “ikertu” genduzanok.

– Ez zaiteze larritu, oillaskuok –arrausika barriro–, bardin da naiz burusiak naiz “Markesena”ko bitxiak arrapatzea, ostutea ostutea da-ta....

Arrituta begiztatu neban, nire buruari itauntzen neutsala, nondik arrapatuko eben orren txirene zan lege-gizona. Izan be, entzunak entzun, ezin nengikean aregan nire uste ona ipiñi, eta,

– Begira, Jauna –esan neutsan–, geuk ez dogu iñongo lege-gizonik eskatu.

– Badakit, baiña ezeukiai txandako jagolea izendatu oi yake, eta orregaitik emen nozue.

– Jauna –esan neutsan–, nik ez dot jagolerik gura.

– Or konpon, Mari Anton. Eta zeuk –Txiritxu’ri zuzenduz–, zer diñostazu...?

– Neuk be, ez dot lege-gizonik gura.

Barriro be arrausi egiñez,

– Badakizue gauza bat, oillaskuok...? –esan euskun– espexera-bearrean, zoroetxera sartu bear izango zindukiezan. Nork egingo dau orduan zuen zuriketea...?

– Neronek –erantzun neutsan–.

Burutik egindakoa bai’nintzan begiztatu ninduan, eta gero soñak goratuz, esku-zorrotik agiri bat atara, eta gure aurrean jarrita, idaztekoa emon euskun esanez,

– Orduan izenpetu egizue emen, jagolerik ez dozuela gura, eta zuen buruen alde zeuok egingo dozuela.

Esandako lekunean izenpetu genduan, eta txandako lege-gizona gelatik urten zan beste barik. Orduan, Txiritxu’k,

– Aizu, Patxi –esan eustan–, ori, antza, ondiño itxartu barik etxera biurtzen da.

– Uste dot, Txiritxu, “Markesena”n ostu-bearrean, markesa bera il genduala pensauko ez ete eban lege-gizon txirene orrek.

Barre-santzo ta arrausika asi gintzazan iker-gelatik urtetean, eta aldarerik onenean laster aztu egin yakuzan auzia ta jagolea.

Aspaldi batez ez genduan beste barririk artu, baiña andik illabete batera-edo, gure auzia ikusiko litzakelako mezua artu genduan, eta goizeko zortziretan gerturik egoteko espexeko atean, auzitegira eroan gengiezan.

Auzitegira elduta, bigarren soruko igarobide bateko aulkian jesarri-erazo ginduezan, eta ordubete bat igarorik, morroi batek areto batera gu sartu-erazorik, an itxaroteko agindu, eta atean jarrita auxe aldarrikatu eban:

– Lapurreta batzuk ikusteko auzi agiria asten da...!

Asiera baten Txiritxu’k eta biok uste izan genduan, geu lako arrapatari erdipurdi-koen auzia ikusteko, ez litzakela iñor azalduko, baiña arrituta ikusi genduan jende-multzoa aretora sartzen zala, eta andik laster, ikusleentzako jarlekuak beterik egozan. Ezin nengikean ulertu, ezelan be, ain ospetsuak izango gintzakezanik, baiña lekua bete egoanean, bapatean aren zergaitia ulertu neban. Auzia ikustera etorritakoak ez ziran barritsuak, ez, geuk ostutakoak baiño, eta an azaltzen ziran lapurreten ziñaldaritzta emoteko. Au ziurtzat emon neban “Markesena”ko atezaiña agertu zanean. Anton ertzaiñak guri bioi irakurritako “letaniak” aña “garbitutako”lagun azaltzen zan aretoan.

Ordulari batek amarrak doi-doi jotzen ebanean, alboko ate batetik, epaikaria, idazkaria, eta salataria azaldu ziran. Gero jakin aal izan nebanez, berrogei ta amar urte inguruko zan epaikari buru-soilla, On Sixto eritxan, eta gizon zuzentzat aipu andia ebana. Salataria, osterata, txiki ta ziriña, mintzo trumoitsuaz orniduta egoan, eta erostaritzat ez ei’eban kidekorik, mizto gaiztoek eragoioenez. Augaitik, Manutxu Erosta esaten eutsoen.

Jesarri ziranean, maia egurrezko mailluaz jo ondoren, epaikariak,

– Jaun-andreok –asi zan–, gaurko lapurreta-auzi au edegiten da. Zutundu daitezela salatuak.

Zundu gintzazanean, epaikariak,

– Zuen izen-abizenak esan egiskuzue, baita beste gora-beerak be.

Orduan, nik,

– Beresibar’tar Patxi naz, ogei urteko ta uri onetako semea.

– Zein ogibidekoa zara...?

– Ez dot ogibiderik, Jauna.

– Zelan diño emen ba, kondalari-ikasketak egin dozuzala...?

– Olan da, Jauna, baiña ezin izan dot dagokidan jarduna idoro, eta ogirik ez dakarrena, ez da iñongo ogibiderik.

Epaikariak irribarre egin eban, eta gero Txiritxu’ri,

– Aizu, gazte, emon egistazuz zure zertzeladak.

– Arrieta’tar Txilibistro. Arrieta errian jaio nintzan, baiña egia esateko umezurtztegiko semea nozu. Ogei urteko naz, eta ez dot ogibiderik.

Epaikariaren aurpegian zear errukizko itxura edatzen zala begitandu yatan, eta gero, geu biok jesarri geintezan agindurik,

– Idazkari Jaunak irakurri begiz salakuntzak.

Mintzo argi ta astirotsuaz, idazkariak gure ekintzen “letania” irakurri eban, eta amaitzean, epaikaria niri mintzatuz,

– Egia al-dira zure aurka irakurritakoak...?

– Dana-danak gomutaten ez badodaz be –erantzun neutsan–, baietz esango neuke,

– Neu be –Txiritxu tartetu zan–, baietzean nago.

– Orduan, salatari Jaunak ekin dagiola bere txandeari.

Jagi zan Manutxu Erosta, eta arranditsu urruma egin ondoren, mintzo trumoitsuaz,

– Epaikari Jauna, Jaun-andreok –asi zan–, oikoa da edozein auzi-ikustaldian, salatariak guztitariko itaunak jarri dagiezala lekukoai, baiña gaur epaitzen diran gaizkilleok ez ditu iñork ikusi, euren txarkeriak etxean iñor ez egoanean burutzen ebezalako. Ez, ez dago iñongo lekukorik gazte bion zitalkeriak egiztatu dagikezan, baiña naikoa ta lar da, euren buruak gaiztakeri orrean egilletzat autortu izatea. Augaitik, beraz, eta zuek ez gogait-eragiteko, oraingoz uko egiten dautsat berba egiteari. Gero ekingo dautsat orreri eretia yatordanean, eta onenbestez amaitzen dot.

Jesarri zan Manutxu Erosta, eta orduan epaikaria niri mintzatuz,

– Uste dot, Beresibar Jauna –esan eustan–, zuen buruen jagole edo aldeztetaz jardun gura dozula. Olan izatekotan, asi zaitkeez aldeko txandea.

– Jaun epaikaria –esan neutsan–, salatari Jaunak azken ondorioak azaldu dagiazanean, orduan mintzatuko naz.

– Ondo da. Au ikusirik, ordu-erdiko etenaldia izango dogu, eta onen ostean, alde bien agerbideak entzungo. Beraz, ordu-erdik ikustaldia gerorutzen da.

Dalako epea amaitu zanean, auziari jarraipena emonez, epaikariak auxe agindu eban:

– Orain salatari Jaunak aurkeztu dagiazala bere azken ondorioak.

Isiltasun osoa aretoan zear edatzen zala, Manutxu Erosta jagi, eta epaikaria ta entzuleak tinko-tinko begiztatu ostean, batetik bestera ibilli ebillela,

– Epaikari Jauna, Jaun-andreok –mintzo arranditsuaz asi zan–, ona emen diru-goseak eta griña txarrek gazte bi noraiño eroan dagikiezan. Emen aipatu diran gaiztakeriak, otz-otzean egitasmu bateri jarraituz, burutu dabez gaizkille bi oneik...

Au esanik, Manutxu Erosta gure aurrean gelditu zan, eta atzamar salatari geuganantz luzatuz, mintzo negartsuz,

– Zeuok, gazte denganiñuok, zuen alde ainbeste egindako gizarteari, zelan ordaindu dautsazue...! Umezurtztegian guztitariko maitasun eta arduraz erriak inguratu zinduezan, eta ordaintzeko ordua etorri yatuenean, maitasun orreri ordaindu– bearrean, sugeen antzera, zaindu zinduezan eskua usigi egin dautsazue...

Ona elduta, Manutxu Erosta’k aurpegi atsekabetua sabaira jaso eban, eta asperen luzea jaurtirik,

– Gazte oker bi oneik egindakoa –jarraitu eban–, ez zan ziltza-uneren baten egiten

dan gaiztakeria, ez... berrogeitak aldiz egiña baiño. Eta inperuko buruzagien antzera, euren opariak aurretiaz aukeratu, eta gora-beera guztiak azterturik, otz-otzean zitalkeria burutu, eurontzat arriskurik gitxiena ikusten ebenean. Eta gero, ostutakoak eurok lango zirtzil bateri eskuratu, ezerezkeri batean saldu egiazan...

Isildu zan zatitxu batez Manutxu Erosta, eta gero besoak zabalik jendeari begiraturuz,

– Bai, Jaun-andreok –mintzo negartsuz jarraitu eban–, bekokiaren izerdiaz zuek erisiriko edo arbasoakandik jarauntsiriko bitxi ta erti-lanak, gazte lotsabakuok ostu eutsuezan, txanpon zikin batzuen ordaiñez saltzeko. Baiña zuek munduko bitxi ta ertilan guztiak baiño geiago ederresten zenduezan oroigarriak ziran, ainbatu-eziñak diran biotz-zitiak, amaika maitasun-gomutaki samur eta eztiak... Orain batek-baki non dagozan zuentzat diru-gaiñetikoak ziran ainbat eta ainbat altxor ederretsiak... Joanak dira, ugolde zikiñak dana irusten dauan antzera, iñoiz ez agertzeko...

Manu Erosta’ren abots trumoitsuak ezin luzarogorik irauan, eta oiñaze biziak zirraraturik, isildu zan. Zorionez, ur-txurrutada batek mintzoa bere eiñera biurtu eutsan, eta gero,

– Baiña olan eta guzti be, gazte bi oneik egindakorik txarrena ez da ori... ez da biotzeko ertilan bikain-bikaiñak ostu izatea... zein abagunetan egin ziran izugarriena da. Eleizean egozanean, aita, ama, edo semeren baten alde otoika ta negarrez, gazte zitlok euren ekintza nazkagarriak egin oi ebezan, bost ardura emonik euren opariak aurkitzen ziran kinka larriari. Asmatu daiteke senide gaixo orrean baiño oiñaze andiagorik, etxera biurtzean oroigarri maiteok ostendu zirala egiztatzean...?

Ona elduta, isildu zan Manu Erosta, eta suur-zapiñoa atararik, malko igeslari bat txukatzen ebalakoa eginda, soruari begira abailduta lez geratu zan, eta gero bere lekura biurtuta, aurpegia eskuen artean estalduz jesarri zan.

Aretoan isiltasun osoa, an-emenka entzuleren baten zurrumuruak autsita. Noizbait, aalegin itzela egingo bai’leuan, zutundu zan barriro Manu Erosta, salakuntzeari azkena emoteko, eta minduriko itxuraz,

– Ez zaituet, Jaun Epaikaria, Jaun-andreok, luzarogorik nekatu gura, eta augaitik labur jardungo dot. Or ikusten dozuen gazte denganiñuok, gaizkilletzat autortu dabe euren burua, baita izenpetu be. Gizarteak euron aurka bearrezko neurriak artu bear dauz, egiñikoa barriro be jazo ez daiten, eta gaizkilleok ordaindu dagien. Augaitik, beraz, Epaikari Jauna, iru urtebeteko espetxaldia eskatzen dot bakotxarentzat.

Au entzutean, latz-ikara batek menperatu ninduan. Izugarriak billakatuko litzakiguz iru urtebete areik mundutik baztertuta... Iru urte...! Alako baten, barruko larritasunak eraginda, zin egin neutsan neure buruari, aaleginduko nintzakela Txiritxu ta bion alde aal neban giñoan. Bai orixe...! Eta burrukarako leiak artuta zutundu nintzan. Une aretan, epaikariak auxe aldarrikatu eban:

– Aldelari edo jagolearen txandea da. Asi bedi, beraz.

Lenengo epaikariari eta gero ikusleai begiraturik, astiro ibilli nenbillela batetik bestera, menperatzen ninduan zirrara nekez jabeturik, aal neban mintzori garbien eta apalenaz, onetaraxe mintzatu nintzakien:

– Epaikari Jauna ta Jaun-andreok: entzunak entzun, esan bearrean nozue, alde bate-tik salatari Jaunarekin bat natorrela, baiña beste batetik ez.

Isildu nintzan une batez, eta gero zeozer baretuago,

– Egia da, salatari Jaunak esan dauanez, nire lagunak eta biok egindako lege-auspen edo pekatuak andi-andia izan dirala. Zuek, etxeko ildako baten alde eleizan otoika ta negarrez ziarduean, Txiritxu'k eta biok, aurretiaz atonduriko egitasmoari jarraituz, zuen etxeetara sartuta aal genduana ostu geuntsuen. Lapurreta bikotxa zan: alde batetik gaien balioagaitik, eta bestetik zitalkeria egiten genduan dolu-min betean aurkitzen zintzazenean. Onezaz gaiñera, ostutakoak ez dakit nori saltzen eutsazan “Pintxo” izeneko lagun batek, onek emoten euskuanaz bizi aal izateko. Zaila da, eziña ez esateko, gomutaki areik barriro be zuek ikustea.

Ona elduta isildu nintzan, eta nire begikadea ikusleakan ipiñita,

– Jaun-andreok –jarraitu neban–, geuk biok ekarri geutsuezan kalte ta naigabea, ezin dagikezueguz atzera biurtu edo ordaindu, ori eziña dalako, baiña gaur, emendik, eta apaltasunik benetakoenez zuen barkapena eskatzen dautsuegu. Au neketsua izango yatzuela badakit, baiña errukitsuak azaldu zaitezela biotz-biotzez arrenkatzen dautsuegu.

Mintzaldia eten egin neban, eta entzuleen arteko suzmurrak amaitu ziranean, onetaxa jarraitu neban:

– Ezin naiteke, baiña, salatari Jaunarekin bat etorri, gizartearen aurkako pekatua egin dogula diñoanean, eta au agirian ipinteko, umetarotik jazo yakuna atortu bearrean naz. Ara... Iru urteko nintzala, ezbear baten gurasoak galdu nebazan, eta nire alde aalegindu zeiten iñor ez izanik, uri onetako umezurtztegira sartu ninduen. Nire lagun au, Txiritxu, eleizpean otzaratxu baten andra batek idoro eban, eta urte biko zanean, erriko udalak uri onetako umezurtztegira sartu eban.

Niketx, arlote andia izan naz beti, eta amar urteko nintzala, umezurtztegitik-at jaurti ninduen, eta senar-emazte bikote baten ardurapean bizi izan nintzan. Ikastetxe batera sartu ninduen, baiña batxillerreko boskarren mailla ozta-ozta amaituta, irakasle batekin izandako gora-beera bategaitik, ikastetxea laga bear izan neban. Onen ondorioz, etxeko jaunak, berak ziarduan dendara mezu-mutil sartu ninduan. Etxerik-etxe janariak banatzea nire egitekoa zan, eta jardun onetan urtebete bitik gora iraun neban.

Izekotzat neban etxekoandreak, baiña, ikasketak artu nengiazala gura eban, eta kondalaritza-akademi baten, izena emon bear izan neban. Esan bear dot, denda-mutillaren jarduntzat irabazten nebanetik, geiena osabatatzat neban etxekojaunari emon bear izaten neutsala, eta enparauko iru ogerlekoak akademiko ikaste-saritzat ordaindu bear nebazala. Izan be, au ez yatan gogokoa, baiña amatzat maite neban etxekoandrea poztutearren, amor emon neban.

Andik urte bi-edo, Asentzi eritxan emakume on eta maite au il zan, eta onen senarrarekin bizi nai ez nebanez, etxea ta dendan neban jarduna itzi nebazan. Zorionez, orduko kondalaritzan baimendua nintzan, eta txin gitxi batzuk sakelean, mundua esku-arrean nebala uste izaten neban. Garai aretan, baiña, lan-urritasuna egoan leku guztietan, eta ames egindako jarduna jaritsi eziñik, aurrezturiko dirutxuak amaitu yatazan, eta ezinbes-

tez, jatearren ostu bear izan neban, eta berotzeko, jatetxe bateko aizegille-urteeran neguko gabak emoten nebazan.

Ateka larri aretan, txatar-arazoetan ziarduan gizon zintzo bat ezagutu neban, eta lan-kidetzat onartu ninduan. Meaztegi bateko zuloan bizi izaten gintzazan, eta egunez, asto ta orgatxuaz txatar batzeari emotsagun. Ez genduan diru askorik ikusten, baiña bizi izateko beste bagenduan. Aspaldi zoragarria igaro neban nire lankide onarekin, baiña egun baten il zan, bakarrik eta atsekabeturik izten ninduala. Bizi bear, baiña, eta lan egiteari jarraitu neutsan, baiña adu txarreko goizalde baten, laguntzen eustan astoa il egin zan. Etsiak artuta, urian kokatu nintzan, etxerik-etxe, aterik-ate lanaren billa niñoala. Alperrik, baiña, gaurko egoeran nork onartu kondalaritzat, iñoiz jardun ez dauana...?

Orduan, zuek dakizuen lapur zital, gizarteak jazarturiko basabereak billakatu gintzazan nire lagun eta biok, eta bizirik irautearren, bizitzaren bee-maillaraño amildu gintzazan geu biok... Bai, zuen etxeetan iñor ez zanean, Txiritxu ta biok piztien antzera sartzen gintzazan, gizarteak uko egiten euskuena jabetzearren...

Ona orduko, samea legor eta mintzo erlats, isildu nintzan. Morroi batek edontzi bete ur eskiñi eustan eta edanda gero,

– Epaikari Jauna, Jaun-andreok –jarraitu neban–, auzitegi onetan gizarteak epaitzen gaitu gaur, baiña gurekin aulki onetan, gizarteak berak jesarri bear izango leuke, nire salakuntzeari erantzuna emoteko. Danok beartuta gagoz legea betetera, baiña gizarteak be baditu bere betekizunak, eta onein artean eta ez txikiena, gizaki guztiai bizibide bat emotea. Gizaseme guztien eskubidea da, gizarteak jardun bat bakotxari emotea bizi aal izateko. Orixe da jaio dan guztiari ezin ukatu dagikeon baldintza, baiña gaurregun, zoritxarrez, gizarteak aztu egin dau betekizunik beiñena dan auxe, eta piztirik sortu gura ez ba'dauz, ipiñi dagiazala abiadan, beragandik itxaro daitekezan osabide eginkor eta ugarriak.

Onenbestez, gure buruen garbiketea amaitzen dot. Epaikari Jauna: ez dautsut eskatzen aske jarri gagizuzala, gure pekatuak eta egindako kalteak zelanbait ordaindu bear doguz-eta. Baiña bai erregutzen dautsut, gure alde nik azaldutakoak, aintzakotzat artu dagizuzala... Besterik ez, Jaun-andreok.

Isillune osoa edatu zan aretoan zear nire jarlekura biurtzen nintzanean. Orduan Txiritxu'k nire eskuari oraturik, abopeka,

– Ederto, Patxi –esan eustan–, ezin obetoago...!

Une aretan, epaikariak auxe aldarrikatu eban:

– Jaun-andreok, bost miñutu igarorik, epaia jakiñerazoko dot.

Urten zan epaikaria. Erlauntzaren antzera aretoa suzmurrez beterik aditu zeitekean, eta jendearen artean, len baiño adiskidetsuago begiztatzen ginduezala iruditu yatan. Epaikaria biurtu zanean, isiltasunik andienaz inguraturik, Txiritxu ta biok zutundu geintezan agindu euskun, eta onetaraxe asi zan:

– Jaun-andreok, salatari Jauna, eta salatuok: Len emen esandakoak aztertu dodaz ardurarik andienaz, eta ona emen nire atarakuntzak:

“Agiri da, Beresibar'tar Patxi'k eta Arrieta'tar Txilibistro'k, berrogeitik gorako os-

tuketak etxeetan egin dabezala iñor ez egoanean. Gaiñera, salatuok euron errua autortu dabe.

“Agiri da, lapurreta ugariak izanez gaiñera, etxeetatik gomutaki baliotsu ta ederretsiak ostuten ebezala etxeko baten eleizkizunak ospatu bitartean, eriotz batek dakarren atsekabeari oroigarri-galtzeak geituz.

“Agiri da baita be, ezin dagikeguzala ekintza zital eta ugari orreik zigor barik itzi... baiña kontuan arturik, salatuok lan-eza ta sendi-ezagaitik, olako zitalkeriak ezinbestez egiten ebezala, gure epaia auxe da: salatu bakotxa urtebete batez atxillo izango da uri onetako espetxean.

Onen ostean, zurru-murru andia edatu zan, eta aretoa ustu bitartean, epaikariak bioi bere idaz-gelara dei egin eta auxe esan euskun:

– Mutillak, zuek egiñikoak zigor askozaz astunagoa merezi eban, baiña lenengoz epaituak izan zariela, eta –nire eritxiz– aldelariaren burubideak benetakoak izan dirala kontuan arturik, zigor ariña leporatu dautsuet. Joan aurretik, baiña, berba emoidazue, ez dozuela iñoiz olakorik egingo.

– Bai, Jauna –biok batera–, itz emoten dautsugu, eta eskerrik asko.

Andik laster, ertzain bik lagunduta espetxera biurtu gintzazan, eta oiko jardunari emon geutsan. Ez dot esango aspaldi aretan zorionsuak gintzazanik, baiña lengo lapurbizieraz bekaldetuta, ziurrago ta nasaiago oartzen gintzazan.

EZUSTEKO IKERPENA

Egunak alkarri erraikioen gora-beera andi barik, baiña egun baten, sei bat illabete espetxean emonda gero, iker-aretora joateko mezua artu neban, eta nire buruari niñotsala norena izango, espetxelariak gela txiki batera sartu ninduan, eta atea itxita, joan zan. Asiera baten, ez neban gauza andirik ikusi argi gitxi egoalako, baiña erdi-itzalari artarartzen asten nintzanean, zarrastada andia eragin eustan mintzo ezaguna txoko illunetik etorri yatan:

– Patxi, Patxi, zeu ete zara...?

Biotz-ikara batek artu ninduan... Axe zan, benetan, ezelan be entzun gura izango ez neban abotsa... Nor eta Sor Ane berbera...!

Gelaren erdian geratu nintzan zer egin ez nekiala, baiña berak nire eskuari oratu eutsan, eta aulki baten jesarri-erazo ninduan, bera maiaz bestaldeko baten egokitzen zala. Eskua laztandu eustan, eta gero maitetsu:

– Baiña Patxi, zer dala-ta ikusten zaitut emen, espetxean...?

Txeratsu begizatzen ninduan, aspaldian, amar bat urte lenago oi eban antzera. Bapatean, umezurtzegiko aldiak oroimenera etorri yatazan, eta atzo-miña jabetu eziñik, aurpegia eskuen artean estalirik, negar mingotsari emon neutsan. Asazkatu neiten itzi ninduan Sor Ane’k, eta gero gozoki, nirekin beti izan oi eban antzera,

– Patxi –esan eustan–, ez negar egin, nire mutilla...! Jaso egizuz begiok nireetaraiño, laguntzera etorri naiatzu-ta. Azkenengoz ikusi zindudazanetik ona jazoriko guztia edestu egistazu, arren, dana jakin gura dot-eta.

Orduko zerbait bareturik, umezurtzegia laga nebanetik une aretararte jazoriko guztia edestu neutsan. Luze-eritxi ez egian nire autorpena, ez nintzan zertzelada txikitan galdu, baiña olan eta guzti be, ordubete ta erdi iraun eban nire edeskiak. Amaitu nebanean, Sor Ane’k,

– Ai, Patxi, Patxi, nire arlote ori –esan eustan irribarretsu–, zeuk burua lengo lepotik...!

Barre egin genduan, eta gero berak beniatu,

– Gure etxea laga zenduanean, arlote izateari uko egingo zeunskiola berba emon zeustan, baiña zure agindua ustela billakatu da. Ain zuzen be, santu batek berak txarto ikusiko eban bere burua tentaldian ez jausteko, zeuk beste jasan ba’leu.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Ez nekian, Txiritxu lankide izan zenduala azken ekintzotan, zeuri buruz bakarrik esan eusten-eta. Oindiño gogoan dot urte bikoa zala gurera etorri zan eguna. Zeozer txoriburu ta guzti, ontzat izan dot beti Txiritxu tolesbako ta maitekorra.

– Bai, benetan, Sor Ane, bera baiño mutil zintzoagorik nekez aurkitu leiteke. Nik beintzat, anaitzat maite dot.

– Entzun egistazu ondo, Patxi. Aaleginduko naz zuek bion alde, eta orretarako epaikariagana joko dot. Au egin aurretik, baiña, agindu bear daustazue biok, ez dozuela egingo barrero be iñongo txarkeririk.

– Niketz berba emoten dautsut, baita Txiritxu'ren izenean be.

Jagi zan Sor Ane, eta nire aurpegia eskuen artean artuta, musu luze maitekorra emon eustan bekokian.

– Agur, Patxi, eta Jaungoikoak bedeinkatu zagiezala.

Espetxeko ateraño lagundu neutsan, eta atetzarra aren atzetik ertsi zanean, biotzaren barrukoenetik bedeinkatu neban. Illabete bat-edo igaro zan, eta bein baten, goizerdian, espetxeko zuzendariagana joateko mezua artu genduan Txiritxu'k eta biok. Nagusiarekin Sor Ane egoan, eta gu agurtuta gero,

– Nire mutillak –esan euskun–, aldirako askatasuna dakartsuet epaikari Jaunak izenpetuta. Urten eta bereala, beragana joateko eskatu daust, zuekin aututxu bat izateko.

Gero, espetxeko nagusiak agiri batzuk izenpetu-erazo euskuzan, eta onen ostean, kaleko soiñekoz jantzita, irurok erri-berebilla artuta, auzitegira joan gintzazan. Epaiakariak bereala atotsi ginduzan, eta auxe esan euskun:

– Mutillak, Sor Ane'ri esker, aldirako askatasuna emoten dautsuet, urtebeteko epea bete barik. Au egiten dot, Sor Ane zuen alde berme jarri dalako, baiña orain zuek, emendik urten baiño len, agindu bear daustazue ez dozuela egingo beste lapurretarik.

Eskaturikoa egin genduan Txiritxu'k eta biok, baiña izan be, adore andi barik.

– Ez dozue poztasun andirik erakusten, zer dala-ta...?

– Begira, Jaun epaikaria –esan neutsan–, ez dogu lengora biurtu nai, baiña zerez bizi...? Piztien antzera bizi izateko, oba espetxera barrero.

– Baiña Sor Ane'k ez dautsue ezer esan...?

– Naiago izan dot, epaikari Jauna, zerorrek ipiñi dagien jakiñaren gaiñean.

– Ara, mutillok... zuretzat, Patxi, uri onetako udal-baratzaiñaren jarduna lortu dautsut. Aldirako izango da, baiña gitxienez iru illabeterako lana izango dozu. Eta zuretzat, Txiritxu, kale-garbitzaillearen jarduna begira dozu.

Jarraian, eskutitz bana emon euskun,

– Zoaze biar udaletxera –esan euskun– eta jardun-arduradunari aurkeztuko daustazue idazkiok. Eta orain agur, eta ez aztu zuek niri agindutakoa.

Eskertu geutsan biotzez, eta poz baten urten gintzazan kalera. Sor Ane'ri lagundu geutsan erri-berebilleraiño etxera biurtu zeiten, eta espetxeko jardunaz lortutako diruari esker, jatoki merke baten, aldarerik onenenan papar-lepo bitartera lapikoko gozoa sartu genduan.

Ezagaturiko ostatu baten gaba emonda, biaramonean udaletxera joan gintzazan. Jar-

dun-arduradunak baratzaiñen buruagana igorri ninduan, eta Txiritxu, ostera, garbiketa-zerbitzuen buruagana. Baratzain-buruak auxe esan eustan:

– Iru illabeteke eperako artzen zaitut. Gero, lan izatekotan sail onetan jarraituko dozu, ostantzean beste jardun bat zeuk aurkitu bear izango dozu.

Biamonean, talde-buru baten agindupean, baratzaintzari asiera emon neutsan, baita pozik be. Atsegiña zan lorak zaindu, bedar-mozketea egin, iñausi ta mendu-lanai ekin, etab. Jardun onek, Iragoikoa gomutara ekarstan, eta basetxe onetan ikasirikoari esker, eginkizun barria oso erraza billakatu yatan. Lan-orduek alkarrari arin erraikioren, eta oartu orduko, eguneko jarduna amaitzen zan. Goizeko zortziretan asten genduan jarduna, eta eguberdian eten egiñik, ogitarte batzuk artu, eta lanari barrero. Arratsaldeko seirak barik, lanabesak batu, gorde, ete garbiketa ariña egiñik, kalera.

Aspaldi aretan zoriotsua izan nintzan. Lan-sari egokiak ostatu garbia izatea lagaten eustan, eta egunoroko lana amaituta Txiritxu'rekin alkartzen nintzanean, urian zear egurasten gintzazan. Bizitza zan eder eta atsegiña...! Gabean aparri bakun baiña bizigarria izanik, ostatu biurtzen gintzazan, bearrezko atsedean indargarria izatearren, biaramoneko lanerako. Aspaldi zoragarria billakatu zan, baiña zoritxarrez, nire patuak barrero be zigortu ninduan.

Iru illabeteak igarorik, neguko atetan izan be, baratzaintza urritu zan, eta sartutako barrienak, lanari uko egin bear... Azkenengo egunean, baratzain nagusiak dei egin, eta auxe esan eustan:

– Patxi, tamalez esan bear dautsut, lan-murritzeta dala-ta, emengo zure jarduna amaitu yatzula. Zurekin pozik nago benetan, baiña ezin dodaz emengo arauak autsi. Iru illabete barruan zatoz barrero, eta agian jarduna izango dozu.

Ezin nengikean osterarik egin, iru illabeterako baldintzaz onartu izan ninduen-eta, baiña aurpegiaren marrazten yatan atsekabeak, antza, bigundu eban, eta orduan,

– Begira, Patxi –esan eustan txeratsu–, Portu-lanetako idaztegi baten diarduan lengusu bat dot, eta gura ba'dozu arentzat idazki bat emongo dautsut. Jakin bear dozu, baiña, portuko lana zakarra, zikiña, eta neketsua dala. Orren ordaiñez, lan-saria emengoa baiño askozaz andiagoa.

– Lanak ez nau bildurtzen, eta eskertuko neuskizu dalako idazkia.

Baratzain nagusiak bere lengusuari dalako eskutitza idatzirik, emon eustan auxe iñostala:

– Eutsi, Patxi, eta zoriona ekarri dagitsula...! Dana-dala gauzak ustel urtengo ba'lizakizuz, iru illabeteok igarorik, zatoz ona.

Estalkian ipiñitako zuzenbidera joan nintzan artez-arte, eta laster idoro neban portu-ondoko idazkaritza. Idatzita egoan urligaitik itaundurik, laster agertu zan, eta idazkia irakurrita gero,

– Lagun –esan eustan–, ereti onetan portu-zamalarriak bear doguz, baiña lan gogorra ta zikiña da. Zeuri buruz argibide onak damostaz nire lengusuak, eta nai izatekotan, zatoz biar goizean, kaian jarduteko.

– Ederto, biar emen izango nozu.

Urrengo egunean goizeko zortzirak barik, idazkaritzako morroi batek kairaiño lagundu eustan, eta ontzi baten ondoan egoan zamalari-buru bategana elduta, auxe esan eutsan:

– Ona emen lagun barri bat lanerako gerturik.

– Alagala zatozkit, lagun –esan eustan–, oraintxe bertan ontzi orretako ikatza ustu bear dozue orko kamioietara. Aurretik, baiña, jantzi zaitetz dagokizun soiñekoaz.

Au esanik, estalpe bateraiño lagundu, eta “buzo” oztiña emon eustan. Jarraian, zamalari bat deituta, biok bialdu ginduzan ontziko erraietara, eta pala bana artuta, lanean asi gintzazan. Gindax batek karramarroa jaisten eban ikatzeraiño, eta gure betekizuna, leku egokian kokatu zeiten karramarroari laguntzea zan, baita eldu-eziñak ziran txokoetatik ikatza palaz ataratea be. Nire lagunaren argibideai jarraituz, egitekoa laster menperatu neban, eta zama-berebillak edo kamioiak beteten asi ziran. Ordu bietan, zamalari-buruak eguneko jarduna amaitu izan zala esan eustan, eta biaramonean goizeko seiretan etorteko, lan-aldia zortzi ordubeteko zan-eta.

Olan asi neban portu-lanetako nire ikasketak, eta guztitariko gaiak kairatzen genduzan. Ikatzaz gaiñera, makaillau-lotukiak, indiaba ta garbantzu-zorroak, tresnaz beteriko olezko kutxa andiak, Ginea'tiko enbor andiak, gatza ta gozakia, burdin-meakia, edariak, paperazko zubil andiak, margo-gaiak etab. Jardun neketsua zan, baiña aren baten ordaindua zanez, bataz beste pozik nengoan, gizaki baten antzera bizi izaten nintzala. Aldi artan, kezkatu ninduan ezuste bat jazo yatan.

Bein baten, uriko garbiketa-lanetan ziarduan Txiritxu'k, itxura itunaz auxe esan eustan:

– Nagusiak esan daust, uriko uren zerbitzura aldatzen nauala, emendik ogetak kilometrorra dagoan ur-biltegitara, eta nai-ta-ez ara bizi izatera joan bear dodala. Alde batetik pozgarria da, lan-saria ona dalako, baiña bestetik, zu ta biok banandu bear...

Au entzutean oiñaze biziak jabetu ninduan. Maite neban benetan Txiritxu tolesbako ta zintzoa, anaitzat izan be. Meaztegiko zuloan agertu yatanetik ordurarte, amaika gorabeera ta kinka larriak ezagutu izan genduzan alkarrekin, eta galduko neukela oldozkuna mingarri ta eroangatxa egiten yatan. Naigabea menperatuz,

– Tamal dot, Txiritxu –esan neustan–, baiña zuretzat onuragarria dalakoan nago. Ia merezi dozun zoriona noizbait ezagutzen dozun...

Isil-isillik bere bide-zorroa atondu eban, eta ostatuko atean alkarri agur esan geustan. Txiritxu'ren aurpegiaren beera malkoak ikusi nebazan auxe iñostanean:

– Noiz alkartuko gara, Patxi...?

– Batek-badaki, Txiritxu. Agur eta zorion...!

Nire atsekabea ezkutatzearren, ostatuko zurubian gora oldartu nintzan, eta gelako bakartasunean negar mingotsari emon neustan. Igandea zan, eta malkoak agortu yatazanean, urian zear egurastu nintzan, gero ta itunago ibilli nenbillela. Egurastegiko aulki baten jesarri nintzan, iñoizkorik bakartien oartzen nintzala, jendearen joan-etorriak eta umeen jolasek arrotzago biurtzen ninduela. Alako baten, erri-liburutegian arestian irakurritako olerkitxu au gogora etorri yatan:

Neure ateraiño deika zaitut
zorion bidaide bakana,
baiña edegitean, ai ene,
urrutira zakust joana...!
Noiz etorriko biotzera
izar igeslari lastana,
beti-beti zure begira
zergaitik ez zatoz neugana...?

Banan-banan aletu nebazan aapaldiok, barruraiño sartzen yatala olerkiaren kaden samurra. Gero, illundu zanean, kaleetan zear ibillaldi alderraiari emon neustan gaberdierarte. Ostatura biurtzean, lur-jota sentitzen nintzan, eta nire jaioterrian iñoizkorik arrotzen.

Egunak alkarri erraikioen gora-beera andi barik, bizi izateko beste irabazten neban, baita aurrezki txiki batzuk egiteko be. Illabete bi inguru portu-lanetan niarduala, nire bi-zitzeari ondorio garrantzitsuak ekarriko leuskiozan jazokizun bat gertatu zan.

Igande baten, oi neban lez urian zear egurasten niñoala, ezustean oi bat jaurtita, andra bat oldartu yatan, eta besarkatu ninduan auxe ziraustala:

– Patxi, nire mutilla, aspaldiko...!

Marimerke zan, “La Ca-nela”ren ugazabandrea. Poztu nintzan neu be, emakume ona ta biotzpera zalako. Berak eskatuta, iraizean nire bizitzaren gora-beerak edestu neustazan, eta gero, etxeokaitik itaundu neustan.

– Danok ondo, Jaungoikoari esker –esan eustan–, baiña On Pio ikusiko ba'zendu, ezagutu be ez. Oso emonkorra biurtu da azken urteotan, baita oso eleizkoia be, eta irabazten dauan guztia, mezatan erabilten dau. Ez dau lengoa emoten, ez urrik emon be. Askotan zeutzaz berba egitean, badiñost tamal andia dauzala zu etxetik joan izateari. Bene-benetan, ez da lengoa.

Barri onek poztu ninduan, berekoi izateari itzi izan eutsala adierazoten ebalako, eta ziur nintzan mezatan erabillitako dirua, Asentzi bere emaztearen alde izango litzakela, bizi izaten zanean ukatu eustana, ilda gero eskiñiz...eta nire bizitzaren lenengoz, aspaldiko Piokanela ederretsi neban. Alkarri agur esateko zorion nintzala, Marimerke'k bekoikiari txalo bat emonez:

– Aztu-egin bear be...! –esan eustan–. Lengo baten gudari bat dendara etorri zan zeugaitik itaunka, ia non bizi izaten zintzazan. Gudalgai izanik, gudari-zerbitzura joan aurretiko osasun-azterketara ez zareala aurkeztu, eta amabost egunen buruan dalako azterketea egiteko aurkezten ez ba'zara, igeslarizat artu, eta nonai jazartuko zindukiela esan eustan.

Au entzutean, izu bakanak artu ninduan eta ikarea nekez menperaturik,

– Aizu, ugazabandrea –itaundu neustan–, noiz jazo zan ori...?

– Orain illabete bat gitxi gora-beera. Joan zaitetz lenbailen, onezkero epea amaituko zan-eta.

Bildur bakanak jota, agur esan neutsan, eta ostatura biurtuta, gudaritzaren arazo oneri gogoeta sakona emon neutsan, eta ondore onetara eldu nintzan: ozta-ozta gizaki baten antzera bizi izaten asten nintzanean, dana laga, eta ia urtebete biko morroitzari gudarostean emotea, neu lako arlote batek ezin egikean onartu, ez orixe...!

Zer egin orduan...? Igeslarietzako zigorra andia zan, eta ez nengoan gerturik, ezpata orren zemaitez gau ta egun bizi izateko. Nenkusan bide bakarra anka egitea zan, baiña nora ta zelan...? Izan be, zaila yatan dalako korapilloa askatzea, baiña edozein abagunearen begira zain egongo nintzake. Eta ezinbestez, portuko lanetan jarraitu neban. Sarri askotan, itsasontzi batetik gaiak ataraten, edo zamatzen niarduala, auxe yatordan burura: zer eta ontzi aretako sotoan ezkutatu, eta gero itsaso zabalean agertu...? Oldoz-kun au, baiña, bereala zapuzten neban, ontziko nagusiak urrengo portuan atxillo, ango agintariai eskuratuko nindukelako.-

Aspaldi luze batez, ezin nire egoera estu ta larria burutik kendu, baiña bein baten, ezustean, matazea berez askatu zan...

Arratsalde baten, lan egitetik biurtzen nintzala, itsas-aizeko ozkirria gozatzearren, kaian egoan sendor baten gainean jesarri nintzan. Aurrean, ontzi ederra kairatuta egoan, eta aren brankan "Mendigarai" izena ikusi zeitekean. Itsas-ontzi eder aretan mundua eza-gutzera abiatzen nintzalako ames egiteari emon neutsan. Olan nengoala, apain jantzitako itsastar bat nire ondotik igaro zan, ontzi-zurubirantz abiatzen zala. Bapatean biurtu zan, eta nigana urreraturik,

- Zer zabiltz or, mutil -itaundu eustan-, itsasoratzeko asmotan zagoz-ala...?

- Ez litzake txarto izango, mundua zelakoa dan jakiteko.

- Ara, mutil, eragingailluen nagusia naz. Atzo, su-gizon bat erriko geisotegira ondo ezak artuta eroan bear izan genduan, eta orain aren ordezkaria bear dot. Etorriko zintza-kez...? Dirudianez, naikoa indartsua zara jardun gogor orreri ekiteko.

- Itsasoratzeko agiriak ez dodaz, baiña...

- Ze agiri ta agiri oste...! Zatoz eta kitto

- Jardun neketsua ei' da ori.

- Bai, baiña polito ordainduta be.

- Orain irabazten dodan beste ez da izango.

- Or nonbait ibilliko da, baiña janaria ta ostatura duan izango dozuz, eta gainera beste maukak be.

Ziltza nitzaz jabetzen asten zan, eta orduan,

- Noiz urteten da ontzia...? -Itaundu neutsan-.

- Goizaldeko itsas-goran.

- Entzun, Jauna -esan neutsan beste barik-, banoa zurekin. Nire axearen billa ostatura joanda, arin baten biurtuko naz.

- Eldu zaitezanean, On Poli makiniista nagusiaren alde itaundu.

- Bai, Jauna, laster arte.

- Agur ba, gazte.

Arrapalda baten ostatura biurtu, eta oporrak artu gura nebazalako atxakiaz, nire jabetasun urriak bide-zorrora sartu, eta ostatu-ordaintza gabituta, "Mendigarai" itsas-ontzira biurtu nintzan. Ontzi-zaiñari On Poli'ren alde nentorrela esan neutsan, eta andik laster, eragingailluen nagusiak atotsi ninduan.

Izan be poztu zan, eta zubiko beekaldean egoan itsas-gizonen ganbaratara eroan ninduan, eta ate bat edegita, albo banatan lau oe ebazan lo-gela bat erakutsi eustan, auxe iñostala:

– Ontzi onen zortzi su-gizonak gela onetan kokatzen dira. Zeurea goiko ori izango da. Biar eguberdiko amabietatik arratsaldeko seirak arte jardungo dozu, su-gizonen lanaldia sei ordubetokoa da-ta. Beste gora-beerak su-gizonen buruak emongo dautsuz biar. Ondo lo egin eta biar arte.

Axea arasa txiki baten egokitzen niarduala, nire su-lagunak etorten asi ziran, eta luzaro barik, betiko ezaguntzat alkar gerabiltzan. Gizon zakar eta abo-zikiñak ziran, baiña aldiaren bidean geienak biotz-oneko ta zintzoak ziralda ikasiko neuke. Amarretan inguru oeratu gintzazan, eta loa igesi bayabildan be, noizbait lo geratu nintzan ibaian beera atoian eroaten ginduzala, agintza-didar eta kate-narrazekataren artean.

Ugiñek ontzia kulunkatzen ebenean itxartu nintzan, eta lagun batek jagiteko ordua zala esan eustan, gosari-aldia zala-ta. Arin baten jagi, eta albo-gela bateko konketan garbitasuna eginda ta jantzita, nire lagunekin jatokira joan nintzan, oiko kafesne ta opiltxua artzeko. Xose eritxan eta lankide neban su-gizonak ontzia ezagutzearren lagundu eustan, bidebatez guztitariko argibideak emostazala. Gure ontzia 12.000 toneladakoa zan, geienetan Euzkadi ta Argentiña artekoa egiñez. Arakoan burdin-zatiak geroiazan, eta onantzakoan okela, gari ta artoa genkarrezan. Batzutan, Brasil'go Rio de Janeiro ta Santos portuak baita Montevideo'koa be ikertzen genduzan, eta bestetan Parana ibaian gora Rosario'raño luzatzen genduan itsas-bidaldia. Xose'k gora-beera oneik emon bitartean, joale bat aditu zan, eta,

– Aizu, lagun –esan eustan– bazkal-deia dogu ori

– Orren goizetik...?

– Bai, bazkaria gozoko amaikatan, eta aparta arratsaldeko bostetan izaten dira. Goazen bazkaltzera astirik galtzeke, amabietan lan-asiera dogu-ta.

Mariñelen jatokira joan gintzazan, eta ogei bat bilduta gero, sukalmorroi bik pertz andi batzuk mai-gaiñean ipiñi ebezan, gutariko bakotxak erratillua bete egian. Lapikokoa gozo samar azaldu zan, eta onen ostean makaillau ta piperrak izanik, mai-azkentzat urresagar bana. Ardao gura ebanak bere pentzuan ordaindu bear. Bazkaria asi aurretik,

– Aixu, Patxi –esan eustan Xose'k–, ez bupera izan, eta jan sendo, an beean begira dogun jarduna edozelango ez da-ta.

Izan be, gogoz jan neban, bazkaria naikoa atsegiña begitandu yatan-eta. Amabiak jo aurretik, Xose'rekin galdarataraiño jatsi nintzan. Oneitan sortzen zan lurriñak ontziko eraginki edo elizea bultzaten eban. Gure galdara, ontziaren barrukian egoan, eta ikatz-atsak beroari geituta, giro itogarria sortzen eban.

Xose ta biok eldu gintzazanean, gure talde-buruak “buzo” izeneko lan-soiñekoa emon eustan, eta geuk ordeztutako su-gizonak urten ziranean, Xose'ek eta biok galdara-erraietara ikatza palakatzen asi gintzazan. Kanpoko aize barria sartzen bazan be, bero andia zan leku aretan. Ontzi-arintasunaren giñoan ikatza sartzea gure betekizuna zan, eta lurriñaren zapalkuntzea erakus-marra bien artean iraun-erazo bear genduan. Augaitik, ikatza sutegiko zabalune guztian zear edatu bear, ikatzaren loditasuna bardindu zeiten. Orretarako burdiñezko belekiak gerabiltzan. Ikatzaren ondakiñak edo zepak burdin-aga luzeakaz matzardean

zear beeko erraustegira jausi-erazoten genduan, eta gero atarata, lerrabide batetik itsasora jaurtiten zan.

Lan neketsua zan, beroak eta ikatz-atsak sortua. Augaitik, galdara-lan onek zortzi ordubete barik sei irauten eban. Seiretan turuta batek jo ebanean gure txandea amaitu izan zan adierazorik, ibitasun-sentipena nitzaz jabetu zan, eta goikaldera joanda, soka-piñlo baten gaiñean, itsas-aizea atsegin beteaz arnastu neban. An urrutian, ezkerretara, lanbro lodiaren atzean legorra iragarten zan. Olan nengoala, Xose urreratu yatan apaltzeko ordua zala esanez.

Gau aretan guztiz nekatuta oeratu nintzan, eta luzaro barik lo-zorro batek artu ninduan. Gure ontzia barrietakoa izan ez arren, ondo jarduten ebala aldiaren joanean ikasi neban. On Poli, eragingailuen nagusia, bere zeregiña ondo ekiana zan, eta edozein ezusteko matxura sortzen zanean, kaltea bereala atontzen eban. Orretarako, lanabasakaz ondo ornituriko lantegia bere aukeran gerturik egoan beti, eta On Poli'k ordubete asko emoten ebazan emen, langilleen erabiltea zainduz ta arteztuz. Onezaz gaiñera, gantzulari bi etenbarik batetik bestera joiazan koipe ta orioz igi-zatiak gantzutuz.

Egunen bidean, lanera artaratzen nintzan, baiña olan eta guzti be, lur-gerri edo ekua-dorrera urreratu-ala, barealdiko astebete batez gorriak jasan nebazan, jangar eta egarmin oartzen nintzala. Andik egun batzutara, giroa obatu zan, eta lengora biurtuta, jateko go-goa barriri etorri yatan, eta goiz baten oetik jagitean, ontzia geldi ta bare-bare egoala somatu neban. Rio de Janeiro'ko margoz beteriko itsas-bazter yaukala zetzan nire inguruan, paradisuaren antzera aurkezten yatala. Begira ta begira txundituta nengoala, Xose urreratu yatan, eta,

– Toki zoragarria, ezta, lagun...? –esan eustan–. Bai, paradisia emen kokatu izan ei'zan. Ez dakit ori egia izango ete, baiña ezetzkoan be, nekez au baiño-ikusgai ederragorik begiztatu. Onezaz gaiñera, lurralde au guztitariko doaiez orniduta dago, au da, eguraldia, meaztegi ugari ta aberatsak, ibai ederrak, lur emonkorra, aberedi oparoa...

– Nire aberriaz ain bestelakoa... An, odei, laiño, eta euri lar, emen ostera, eguzki epel laztangarria...

– Begira, Patxi, bazkalostean uria ikertuko dogu, kaian egon bitartean guretzat jaja da-ta. Tresna-kutxa batzuk kairatu bear dira, eta gaur Igande izanik, biar arte ontzi-utsaldirik ez dago. Biar arratsalderarte, beraz, opor izanik, Rio de Janeiro uri ederra ikertuko dogu.

Amabietan inguru, aalik apaiñen Xose ta biok gure ganbaratik urten gintzazan, baiña zubira igon baiño ez, eta kairatzeko asmotan zurubira giñoazala, didar larri batzuk geldi-erazo gindueezan. Brankatik etozan, eta araturik, ekintza siñisteziña jazoten zala ikusi genduan. Mastako goikaldean lotutako soka luze batetik eskegita, gizaki bat kulunkatzen zan izuzko oiak jaurtika.

– Aupa, Txipiroi –iñotsan barreka mariñeltzar indartsu batek–, gaur Malasia'ko txibo zauskagarria ezagutuko dozu, denganiño orrek...

Gizon txiki bat galtzarpetik soka luze bat az goko masta-muturretik eskegita egoan, eta beste soka-izpia eskuetan, ‘Katua’ esaten eutsoen gantzulari indartsua ikusi neban.

Zabuka bakotxean, Txipiroi gaixoa sorutik ur igaroten zan, eta “Katua”k soka-izpia zati batez luzatzen eban. Onen ondorioz, Txipiroi’ren zabukak gero ta urrago altzairuzko sorutik. “Katua”ren lagun batzuk opari gaixoari bultzada emoten eutsoen, joan-etorria gel-ditu ez zeiten, barre-santzo zaratatsuen artean.

– Emongo daustazu ala ez...? –Txipiroi’ri iñotsan “Katua”k bere aurretik didar baten igaroten zala.

Erantzun bakarra Txipiroi’ren izu-didarrak izanik, “Katua”k sokea luzatzen eban oinbete bataz, galtzairuzko gainaldea gero ta urrago ebal Txipiroi gaixoak.

– Ez daustazu emon gura e...? –“Katua”k barriro– Orduan gaur Malasia’ko txiboaren jaia ezagutuko dozu. Bai orixe...!

Zabuka bakotxaz gaixoak soñia kixkortzen eban, baiña sorua gero ta gertuago. “Katua”ren eta besteen barre santzok Txipiroi’ren oiuek lagunduta, astrapala itzela egiten eben, eta nire buruari galde egiten neutsan zergaitik ez zan agertzen zaintza-buruzagia joko burubakoa eten egiteko, baiña zubiko besaulki erosoan jesarrita, lotan egoan, antza. Zorakeri arek zirikatuta, Patxi Arlote neugan itxartu zan, eta arrapalada baten Txipiroi’ gana oldartu, zabukari eten egin, labanaz sokea ebagi, eta Txipiroi dardartia jaregin neban.

Aurpegia amorruz gorrituta, “katua” oldartu yatan auxe iñostala:

– Nork agindu dautsu joko onetan esku-sartzea, papao ori...?

– Iñork ez, au nire kabuz egin dot gogoak eraginda.

– Ez dagokizun arazoetan sartu ez zaitez, astiñaldi ederra emongo dautsut.

Au esanik, ukabilkada itzela jaurti eustan, baiña gerturik nengoan, eta jarraian burrukea asi zan, aal genduan bideak erabilliz. Indartsua zan indartsua “Katua” baiña igikun geldokoa, eta oneri esker ez ninduan birrindu, leiaketeak naikoa bardindua zirauala. Ez dakit zein luzaro jardun genduan burrukan, ukabil-txaparradea atertu barik, baiña alako baten, zaintzako buruzagia tartetu zan didarka, makil sendoa erabillirik. Orduko, baiña, “Katua” ta biok ondo zigortuta billakatu gintzazan. Ezpana ebagita neban, baita begi bat ubelduta be. Agin bat galdu izanez gainera, “Katua”ri odola erion suurretik parrastaka.

Astirik galtzeke, ontziko geisotegira lagundu eustan Xose’k, eta andik laster, geisozaiñaren laguntzaz nire aurpegiaren kalteak aalik ondoen atonduta, Xose’ren jarkipenari jaramon egin barik, kairatu gintzazan uri ederra ezagutzeko. Polito samar ezagutzen eban Xose’k Rio de Janeiro, eta erri-berebilla artzeko zorian, Txipiroi alkartu yakun.

– Eskerrik asko, lagun –esan eustan txeratsu–, zugaitik ze, “Katua”k birrinduko ninduan.

– Baiña zergaitik zinderabiltzan era basati aretan...?

– Dirua emon nengion gura eban, oi dauan lez ardao ta emagaldutan erreteko, eta nire ezetza artzean, dalako malasitar zabuka ori otu yakun nire baietza lortu arte. Gaurkoa ez da lenengoa, eta izan be, aspertuta nauka lepotar orrek.

– Aizu Txipiroi –tartetu zan Xose–, aurrerantzean olakorik jazo dakizunean, zatoz gugana, eta ez dozu damurik izango.

– Bai benetan, orixe egingo dot. Baiña –niri zuzenduz – non ikasi dozu orren ondo burrakan egiten...?

– Bizitzaren gogortasunak orretara artaratu nau.

Egun zoragarria igaro genduan; mendi-trenaz “Gozaki-ogia”raiño igon gintzazan, andik ikusten zan uriko ta itsasaldeko ikusgai zoragarria gozatuz. Jarraian, Copa Cabana ta Ipanema ondartzetan zear egurastu genduan. Ibilli genbiltzala, Txipiroi’ren zertzelada batzuk ezagutu nebazan. Lekeitio’ko semea zan, eta bere bizitzaren elbururik beñena, amari ta bost arrebai laguntzea zan, irabazten eban guztia etxerako erabilirik. Buruzagien mai-zaintzat ziarduan, eta bidebatez sukaldari-morroitzat. Jardun onetan eskupeko ugari artzen eban, eta illekoari geituta, gero ikusiko dogunez, salerosketan erabiltzen eban, etekin polita lortzen ebal. Izan be, Txipiroi ederresten asi nintzan etxekoakanako maitasunagaitik. Ederrespen eta bekaitz izanik era berean. Neuk be bizi izaten laguntzeko ta etxera biurtzean besarkatzeko ama ta arrebak izango ba’neuz...

Urrengo egunean, goiz osoan gaiak kairatzen jardun eban “Mendigarai”k, eta arratsaldean, su-gizonok lan egitera barriro, ontziko galdarak bearrezko lurrin-indarra lortu egian, eta arrats-beeran Rio de Janeiro atzean laga genduan, itsas zabalean ugiñek kulunkatzen ginduezala, eta galdarako sabel asekaitza ikatzaz janaritzen nebala.

Andik lau egunera, Uruguay’ko “Punta del Este” muturra igaro, eta laster Rio de la Plata’ko ur baretsuetan zear abiatu gintzazan. Une aretan lan egitetik jareñ izanik, ontziko eskudelean besoak jarrita, inguruko ikusgaia begiztatzen neban. Olan nengoala, Txipiroi urreratu yatan, eta alkarrizketa bateri emon geutsan. Txit begikoa yatan lekeitiar txikia, aurpegia begi oziñen betsein argitsuek eta ezpanen irribarre amultsuak argituta. Alboan kokatu yatan, eta,

– Gabean –esan eustan– Buenos Aires’en izango gara, Rio de la Plata’ko joairan zear goaz-eta.

– Ibai zabal oneri Plata izena jarri dautsoe, baiña onen ur uarrek ez dabe iñongo antzik zidarraz.

– Ibai oneri uarre-itxurea lur-kizi txiki-txikiek emoten dautsoe. Ibaian gora emendik millaka kilometrora tropikotar euri-jasa anditzarrek lerraturiko lupetzak damotso margo lurkoi ori.

Isildu gintzazan une batez, eta gero,

– Aizu, Patxi –esan eustan–, laster emongo dautsue illekoa. Zer asmatzen dozu egitea...?

Begiratu neutsan arrituta, aren itauna ulertu eziñik, eta,

– Zer egingo dodan diruaz, diñostazu...? Gorde egingo dot; uste dozu uretara botako dodala-edo...?

– Begira, Patxi, eta ez ni jakinguratzat artu, baiña diru ori ugaldutako dagikezu, saleros-teari emoten ba’dautsazu.

– Ez dautsut ulertzen, lagun.

– Ara... Gaurregun Arjentiña’n zenbat gura urre erosi daiteke, gai ori emen aske dagolako. Gurean, baiña, urre-erabiltea galazota dago, laterriak urrearen jaun ta jabe baka-

rra izan gura daualako. Baiña legeak eta guzti, jendea urre-zalea da, eta legez kanpoko arremon ugaria da, bitxi-egilleai bearrezko urrez ornitzeko. Emen erosiriko urreari irukoitz gorako etekiña edo irabaztea atara daitekio, gure lurraldean saltzekotan. Izan be, urre-erabiltea lege-aurkakoa izanik, iñoregan idoroko ba'litiz, zigor andia letorkioke. Baiña...

Begiak urrutian jarrita, irribarreka,

– Baiña urrearen salerosteari esker, bidegite onetatik etxera biurtu naitenean, ama-arrebentzat denda bat zabaltzeko beste diru izango dot, eta arein etorkia ziurtaturik, urte batzuen buruan sendi bat sortzeko aukerea izango dot, eta aal izanik, itsaslaritzari uko eginda, legorreen lan bateri emongo dautsat.

Txipiroi'k ziraustanak diru-gosea iratzarri eustan, eta jakin-gurak eraginda,

– Aizu, lagun –itaundu neutsan–, emon egistazuz arazoaren gora-beera batzuk.

– Ara... Ego Ameriketara urrea judutarren eskuetan dago. Zein lekutan saltzen dan jakin ezkerro, eta prezioa ezagaturik, gangaillenez eginda merke samar erosi daiteke. Etxera biurtuta, bardin, bitxi-egille batzuk ikerturik, ondoen ordaintzen dauanari saldu ta kitto.

– Arriskurik ete da arazo orretan...?

– Arrisku barik ez dago irabazterik, baiña arduraz jardun ezkerro, galtzoria uxatzen da. Edozelan be, ausnartu ondo esan dautsudana, eta garaia etorrita zure erabagia jakini-razoko daustazu.

Ez genduan besterik esan, baiña orduko gerturik nengoan urrearen salerosteari emoteko. Ontziko jarduna gogor eta neketsua izanik, onurarik andiena jaritea bidezkoa zan. Biaramonean itxartu nintzanean, “Mendigara” kairatuta egoan, eta andik laster, genkarrezan burdin-zatiak ustuten asi ziran. Bazkaria artu ondoren, eta maitzaiñaren betekizuna eginda, Txipiroi urreratu yatan esanez,

– Banoatzu ikerpen batzuk egitera. Atzo esandakoari buruz, zetan zagoz...?

– Arazoari ekitekotan nago, baiña ondiño ez dot lan-saririk artu.

– Bardin da. Gaur ez dogu ezetariko erosketarik egingo, ikerpen bat baiño ez. Zeure diruari buruz, biar ontzi-nagusiak illeko saria bananduko dausku, Dana-dala, biar gabeen Paraná ibaian gora Rosario'ra joango gara, eta uri andi onetako urre-eskintzak jakinda gero, erabagia artuko dogu. Goazen orain urre-saria gitxi gora-beera zelan dagoan jakite-
ra.

Agiri zan, Txipiroi'k Buenos Aires uri eder eta andia polito ezagutzen ebala. Ibilli genbiltzala, nenkusanaren bikaintasunak txunditu ninduan, bai uriko joan-etorri ugariagaitik, bai somatzen neban uriaren anditasunagaitik.

– Artu dagigun lurpekoa –esan eustan lekeitiarrak–, biderik ariñena ta errezana dalako. Uri erraldoi onetan bost milloi lagun bizi dira, eta amar kilometro gorako kale batzuk baditu.

Artu genduan lurpekoa, eta tximistaren antzera gindaroala, Txipiroi'k onetaraxe jarraitu eban:

– Orain “La Boca” deritxan portu-aldera goaz, portu zaarra benetan, eta izen ori La

Boca ibaiaren aboan aurkitzen dalako datorkio. Emen judutar urrelari batzuk ezagutzen dodaz, eta gure burua beartu barik, ogei kilateko urre-saria ezagutuko dogu.

Noizbait, lurpekoa itzita, kale batzuk zearkatuturik, La Boca'ko kaietara eldu gintzazan. Alboko etxeak zikin eta ezaiñak ziran, ate ta leio zarpaillez orniduta. Leiar zikiñak ezaldutako ate baten aurrean gelditu zan Txipiroi, eta oles egin barik sartu zan, atzetik nerraiola. Zaarkinlari batenean gengoala begitandu yatan, guztitariko gai zaarrak ikustean batez be. Maitxu baten ondoan jesarrita, kakodun suurreko gizon batek ikustailua begi baten jarrita, zeozer aztertzen eban.

– Kaixo, Moises Jauna –agurtu eban Txipiroi'k.

Begitik aztergaillua kenduta, judutarrak pozaren itxuraz,

– Nor eta “El vasquito” –esan eban–. Nondik ibilli zara aspaldi luze onetan, “mijito”...?

– Badakizu, Moises Jauna, itsasontziak garozanetik. Eta zelan doatzuz arazoak...?

– Ai “mijito”, beti lanean eta ezer gitxi. Auxe da lorra, goian zerua ta beean lurra.

– Zu Moises Jauna, beti erostaka, baiña onezkerro baietz “Olivos” en landetxe ederra baratzain eta guzti.

– Landetxe ederra, baiña nonai sitsa ta ugerra. Ai, ni gaixoa...! Goakion ariari, orraitño, zerk zakaz nirera...?

– Ara, Moises Jauna. Iñongo loturarik bage, zenbatean dabil urrea...?

– Urrea aipatzen daustazu...? Ai ene, “mijito”, gero ta eldu-eziñago...!

– Zenbatean, baiña...?

Judutarrak zenbaketa sakona egiten ebalakoa iraun eban une batez, eta gero itxura negartsuz,

– Sei pesotan.

– Sei pesotan diñostazu...? Lengo baten bost eta erditan erosi neutsun. Egoak sortu yakoz urreari-ala...?

– Ai, “mijito”, “mijito”...! Gringo asko urrearen atzetik dabil aspaldi onetan, eta orren ondorioz gora egiten asi da.

– Ez dot uste, Moises Jauna, oraingo onetan zertuko gareanik. Erabagiko dot, Rosario'n saria ezagutu dagidanean. Agur ba, eta urrengorarte.

– Agur, vasquito, badakizu Moises gaixoa zure aukeran beti izango dozula.

Urten gintzazanean, Txipiroi'k,

– Sei peso urre gramo bategaitik askotxu deritxat. Rosario'n merkeago egongo dala-koan nago. Edozelan be, oba itxaron, premiarik ez dago-ta.

– Aizu, Txipiroi –itaundu neutsan–, zergaitik dalako Mises'ek erabilli zaitu “mijito” gora ta beera...?

– Arjentiña'n “mijito” deiturea maitetsua da. Emen, euskaldunai esaten dautsien “vasquito” izenordea, ederrespen andiko da.

Onetan, beste zaarkinlari baten ate-aurrean gengoan, eta,

– Au Samuel'en dendea da. Sartu gaitez an zelan dabillan urrea.

Lengoa lako zaarkinlari-zuloa zan, eta oiko agurrak alkarri esanda, urrea sei pesotan eskiñi euskun Samuel-ek, eta len lez, ikusiko leukela esan eustan Txipiroi'k.

Urten gintzazanean, lekeitiarrak,

– Alperrik da itaunketea jarraitzea –esan eustan–, sei pesotik beera ez dogu urrerik aurkituko-ta. Oba da, beraz, egurasten joatea uri onen ikusgarri batzuk ezagutu dagizuan.

Olan egin genduan, eta ordubete biko ibillaldia egin ostean, “Constitucion” izeneko enparantzan lurpekoa artu genduan, eta aparria orduko, “Mendigarai”en gengoan.

Urrengo egunean, ontzi-nagusiak mariñelai illeko saria banandu euskun. Zazpi mila laurleko ta zerren artu nebazan, eta nire ustez diruketa andia izanik, nire buruari itaundu neutsan non gordeko nengikean ainbeste diru. Nagusiak nire zalantza ikusi eban, antza, eta,

– Aizu, mutil –esan eustan–, ontzietan lapurreta ugari egiten da, eta gura ba’dozu ziur-kutxan gordeko dautsut. Bear izatekotan eskatu egistazu ta kitto.

Nasaituta, illeko sari osoa emon neutsan. Txipiroi’ri esan neutsanean, ondo begitandu yakon, lapur asko bazterretan egoalako.

Biaramonoko gabean, genkarrezan gaiak usturik, ibaian gora abiatu gintzazan, eta Paraná’ko ibai-adarren sarean zear iparrerantz jo genduan, amaibako ugarte atzean itxita. Udabarria zan, eta eguraldia berotsua izanik, nireak eta bost jasan nebazan galdarea ikazteko. Zorionez, ur nareetan zear giñoazan, bidea ibai-adarren artean billatuz. Andik egun bitara Rosario’ra eldu gintzazan, eta urrengo egunean Tresna-gailluak kairatzen asi gintzazan. Gabean, Buenos Aires’era biurtzeko gintzazan, eta augaitik nagusiari diru guztia eskatzeko esan eustan lekeitiarrak.

Bazkalostean legorreraturik, Txipiroi ta biok urian zear abiatu gintzazan, nire lagunak ondo ezagutzen eban auzune batera. Uri andia zan Rosario, milloi batetik gorakoa, eta Buenos Aires baizen ikusgarria ez izanik be, naikoa ederra zan. Bidean gaindi giñoazala, lekeitiarrak auxe esan eustan:

– Uri au gure azken aukera da, eta urrea Buenos Aires’en baiño merkeago edo geinez bardin izatekotan, ementxe erosiko dogu.

Nire lagunak uria ondo ezagutzen ebanez, erri-berebillez dendatxuz beteriko auzune batera joan gintzazan, eta ate-gaiñeko “El Libanés” izenpurua eban dendatxu baten aurrean nire laguna gelditu zan auxe ziraustala:

– Ali Mohad libanotarraren zuloa da. Uri onetako urre-arazoa libanotarren eskuetan dago. Ali Mohad aspalditiko ezaguna dot, eta zintzoenetarikotzat daukat. Sartu gaitezan, ia zenbat eskatzen dauskuan.

Mailla batzuk jatsirik, eta iñor azaltzen ez zala ikusita,

– Eup...! –oiu egin eban Txipiroi’k–.

Andik laster, zaarki ugarien artean, berrogeitsu urteko bizardun txiki bat agertu zan, eta nire laguna ezagutzean,

– Kaixo, “El vasquito” –didar egin eban–.

Alkarri bostekoa emonda, lekitiarrak aurkeztu ninduan,

– Ona emen itxastar lagun bat.

Ali’k irribarre egin eustan. Gizaki begikoa iruditu yatan, ezpanen artean ortzen zuri-tasuna agiri ebala, eta niri eskua emonda, aulki bana eskiñi euskun, auxe zirauskula:

– “Mate”a atonduten niarduan. Badakizue, “mate”-bedarra lakorik ez, bazkariaren egosketeari laguntzeko.

– Begira, Ali –esan eutsan Txipiroi’k–, iradu baten gabiltz, gabean urten bear doguta. Urrerik ba al-daukazu...?

– Bai, arean badot.

– Zenbatean salduko zeuskigu...?

Ali Mohad oldozkor geratu zan une batez, eta gero,

– Bost peso ta larogei zentavotan.

– Orretarako, Patxi –niri zuzenduz–, ez genduke onaiño etorri bear; Buenos Aires’en erosi ta kitto.

– Zenbatean egoan an ba...?

– Bost peso ta irurogei zentavotan –guzurtu eutsan Txipiroi’k–.

Ainbaketa sakonean egoalako egin eban Ali Mohad’ek, eta gero asperenka,

– Tira, ez bedi esan Ali Mohad’ek lagunak ederresten ez dauzala. Bost peso ta erditan emongo dautsuet.

– Olan izatekotan, ez dakit ba... Zer deritxazu orreri Patxi...?

– Niketz –erantzun neutsan–, baietz esango neuke, onaiño etorri ezkerro batez be...

Eroste-saria itundu ezkerro, eta arjentiñar pesoa iru laurlekotan izanik, nik laureun gramo erosi neutsazan, eta Txipiroi’k kilo bi inguru. Urreketa bakotxa zorrotxu baten gordeta sakelera sartu genduan, eta Ali’ri “urrengorarte” esanik, zulo aretatik urten gintzazan, ontzira biurtzeko asmoz. Ustekabez, kale-kantoititik, irudi ezaguna ostentzen zala ikusi genduan.

– Ikusi al-dozu, Patxi...? –itaundu eustan Txipiroi’k.

– Bai, lagun. Canarias’en ontziraturako albo-pilotoa (agregado) da. Asikeran antz emon eustan, begiluze orrek suurra danetan sartu nai ebala, eta orain emen ikusteak kezkatzen nau.

Nire ondotik joian lekeitiarrari betoskoa illundu yakon, eta abopeka berba lodiak jaurtiten ebazaia,

– Asiera batetik –esan eustan–, begitandu yatan benetakoa ez zala. Beti mariñelen joan-etorriak kuku egiten, nor norekin ebillen, ontzi-nagusia aal ebanetan koipetu, eta batetik bestera usanka gordelekuak idoro nai en lez. Ez dakit, Patxi, baiña Rike izeneko albo-piloto orregan ez dot uste onik, eta orain bera ikustean, ertzaintzaren salataria dala-koan nago. Etxera biurtzean salatuko gaitu...

– Orretarako egiztatu bear, lege-ausleak garala...

– Egiztapan bakarra urrea geugan aurkitzea da, eta izan be, bera nor dan jakin ezkerro, onik urtetan aaleginduko gara.

– Zer egin geinke, lagun...?

– Auxe ez yat lenengoz jazo, eta neurri egokiak artuko doguz.

Autu onetan giarduala, buseko geltokira eldu, eta luzaro barik ontzian gengoan. Alkarregandik aldentzeko zorian, lekeitiarrak,

– Aizu, Patxi –esan eustan– badaezpadakoan, emon egistazu zorrotxua, nik dakidan gorde-leku idoro-eziñan ezkutatu dagidan.

Urre-zorrotxua eskuratu neutsan, eta apaltzeko ordua izanik, mariñelen jatokira joan nintzan. Jarraian, elebarri baten irakurteari emon neutsan lo-egiteko ordurarte.

Urrengo egunean, “Mendigarai” ustuta, Buenos Aires’erantz biurtu, eta egun bi igarorik ango portuan kairatu gintzazan. Emen, iru egun emon bear genduzan, garia zamate-gira sartzeko. Epe orretan nire jarduna oso ariña izanik, zenbat-gura astirik nire aukeran neban Arjentiña’ko uriburua ikertzeko, eta buruzagien mai-zaintza lekeitiarrak amaitzen ebanean, biok urten oi gintzazan uriburuko ikusgarriak begizatzearren, erdigunekoak geien baten. Gure kaitik urrun ez egoan “Palermo” izeneko egurastegi ederra ta onen aberetegia txit gogokoak yatazan.

Gari-zamaketea amaitu zanean, abiamenak eginda, gautu zanean Rio de La Plata itsas-adar baretik urrundu gintzazan. Nire jardunaldia izanik, goizerarte galdarea ikatzaz ornitu neban. Txandea amaitu yatanean, gora joanda, ontzia itsas-zabalean sartu-agiñean zala, ezkerraldean Uruguay’ko itsasalde marrazten zan, eguzkiak itxura larroskara emotsala.

Nire edeskia ulerkoiagoa izan daiten, egokia deritxat aldi areitako zertzelada batzuk emotea. Amaika urtebete igaro izan ziran, umezurtztegia itzi ta Piokanela’rekin bizi izaten asi nintzanetik. Orduantxe, frankotarrek sortutako anai-arteko gudea amaitu-barria zan, asaldatuen garaipenaz. Zapalkuntza larria edatu zan laterri osoan, eta Euzkadi’n batez be. Iru urteko burrukaren ondorioz, guda-ostea erriarentzat bearrian gorria billakatu zan, guztitariko gaien urritasuna ezagutu ebalu erriak. Ordutik amaika urtebete igaro arren be, janari ta beste gaien urritasunak oraindiño irauten eban. Bearrezkoa zan garia, Arjentiña’tik-eta etorkigun, eta au ordaintzearren, Euzkadi’tiko burdinkiak eta tresnagai-lluak bialtzen ziran. Augaitik, beraz, “Mendigarai” itsasontziaren eginkizuna, Ameriketatik garia ta artoa ekartea zan, aipaturiko gaiakaz ordaintzeko.

Urre-salerosteak debekatuak ziran, laterria gai orren jabe bakarra izanik. Bitxiegi-lleek, baiña, urrearen urritasunari aurre egitearren isil-ostuka erosten eben. Onen ondorioz, urre-saleroste onuratsua billakatu zan gai ori ekarri egikienentzat. Auxe zan Txipiroi lekeitiarrak erabillen bidea ama-arreba laguntzeko, eta arek niri erakutsitako ildoan, Rio de Janeiro’n egun aretan bere alde egin nebana zelanbait ordaintzeko. Urre-saleroste oso jazartua zan, eta jasaten genduan nausikeria ez zan makala arazo au zigortzeko orduan.

Nire lenengo itsasaldi aretan, amazapi egun erabilli ebazan gure itsasontziak etxerakoan, eta arratsalde baten itsas-gora ustiatuz, noizbait nire jaioterrian kairatu gintzazan. Illabete ta erdi bazan urten izan nintzanetik, eta an zoriotsua ez banintzan be, poztasunaren antzeko zerbaitek menperatu ninduan.

Kairatuta laster, Txipiroi urreratu yatan eta auxe esan eustan:

– Kike piloto-albokoa, oraintxe bertan legorreratu da, eta karabiñeru-buruzagi batekin izketan ikusi dot. Orain ziurtzat daukat salataria dala, eta Rosario’n urre-erosketan ikusi ginduzan ezkerro, arakatuko gaitue urteera guztietan, zu ta biok batez be. Ditxoan

gagoz, eta noiz-nai legorrera joan gaitkez. Gertu zaitetz eta goazen egurastu nai dogulako egिñez.

Andik laster, kaleko soiñekoak gerabillezala Txipiroi ta biok zurubian beera legorreratu gintzazan. Kaia zapaldu baiño ez, karabiñeru bi urreratu yakuzan, eta,

– Barkatu, baiña arakatu bear zaituegu.

Jarraian, zeatasunik andienaz, janzkiak, oiñetakoak, txapelak eta zorroak arakatu euskuezan, eta galazotako gauzarik ez geroiala ikusirik, joaten laga ginduezan. Urruntzen gintzazanean, lekeitiarrak,

– Orreik, Txapel Okerrok –esan eustan–, ez gaituez bakean itziko, baiña biar ikusiko dogu nork nori ziria sartu, ia etzi etxera joan naiteken...

Egurastu atsegiña izan zan ainbeste egunak itsasoan emon ondoren, eta nire ezagueria ustiatuz, Txipiroi’ri jaioterriko ikusgarriak erakutsi neutsazan. Ontzira biurtutakoan, nire lagunak,

– Aizu, Patxi –esan eustan–, biar gautu daitenean ontzian egon zaitetz, ia bear dogun aukerea aurkezten yakun...

– Zelako aukerea...?

– Urrea atara ta saltzeko bear doguna.

Urrengo egunean, nire zaletasunari jarraituz erri-liburutegian ordu batzuk emon nebazan, eta aparti-orduko ontzian nengoan. Udazkena aurrera joian, eta seiretan inguru gaba asten zan. Illunabarra asi zanean, Txipiroi urreraturik auxe esan eustan:

– Gau illuna izango dan ezkerro, gure aukerea da. Zatoz nirekin.

Sukalde-ondoko gelatxu batera eroan ninduan, eta zorrotxu bat erakutsi eustan esanez,

– Urrea tuntuix edo ugeriki onen barruan dago. Goikaldea gai dizdirkorraz igurtzita, illuntasunean ikusi daiteke. Orain ona emen zure egitekoa: ezagutzen dozu ontzi-gaiñeko argien etengailua non dagoan...?

– Bai, zubiko kutxa baten.

– Entzuidazu au ondo. Zazpi-zazpiretan kutxako argiak amatauko dozuz, eta jarraian, ardurarik andienaz iñork ikusi ez zagizan, ezkerreko aldera joanda, zorrotxu au uretara jaurtiko dozu. Orain itsasgora da, eta ibaiaren joirak miñutuan ogei metro inguru urrunduko dau. Zorrotxua jaurtita gero, etengailuko kutxara biurtuko zara argiak piztuteko. Ulertu dozu ondo...?

– Bai.

– Eutsi ba, zorrotxua. Argiak barrero ixiotu dagizuzanean, kairatu zaitetz, eta ibaian gora eun bat metrora dagoan kai-mailladira joango zara, eta emen alkartuko naiatzu. Argi dago dana...?

– Bai.

Au esanik, Txipiroi ontzitik jatsi zan. Karabiñeruek ikusi baiño ez, urreratu ta arakatu eben zeatz-meatz, eta debekatutako gauzarik ez eroiala ikusirik, joaten itzi eben. Nire laguna illuntasun-artean ibaian gora laster urrundu zan. Au ikusirik, zorrotxua janzki-artean ezkutaturik, iradu barik etengailu-kutxara abiatu, eta begira geratu nintzan. Andik

laster, eleiza bateko joalea zazpirak joten asi zanean, etengailua erabilli neban. Gau illu-
na izanik, kaiko argi urriak ez ziran gauza ontzi-gaiñeko gora-beerak agirian ipinteko, eta
arin baten brankako ezkeraldera joanda, zorrotxua jaurti neban uretara. Gero, kutzara
biurtuta, argiak ixiotu nebazan. Astirik galtzeke kale-soiñekoa jarrita, legorreratu nin-
tzan. Aurreguneko karabiñeru berberak, kairatu baiño ez arakatu ninduen ardurarik an-
dienaz, eta noizbait jare joaten itzi ninduenean, lekeitiarrak esandako lekura joan nin-
tzan. Arrizko kai-mailladira eldu nintzanean, txalupa bat urreratzen zan, eta luzaro barik
Txipiroi alboratu yatan.

– Ta...? –itaundu neutsan–.

– Urrea lapikoan dogu, Patxi. Txalupa au alogeran artu dot, eta arraunketan astiro
egiñez naxa-ondotik ugerikiaren dizdira ikusi, eta beste barik jaso egin dot. Orain goazen
bitxilariategana, dendak itxi aurretik.

Ondo ezagutzen neban kale eder argi baten zear joan gintzazan, eta denda bateko
ate apañera elduta, lekeitiarrak jo eban. Neska batek edegi ebanean,

– On Bitor emen al-da...?

– Bai, noren alde...?

– Esaiozu lekeitiarra nazala.

Andik laster betaurrekun jaun baten aurrean gengoan, eta,

– Zer diñostazu, mutil...?

– Betikoa, On Bitor, urrerik bear ete dozu...?

– Bai, ogei kilatekoa izatekotan. Erakutsi egistazu.

Lekeitiarrak zorroa zabaldu, eta bitxilariak ale bat artuta, atzekaldera joan zan azter-
tzeko. Biurtu zanean,

– Bai, benetakoa da. Zenbat dakartzu...?

– Kilo bat eta bederatzireun gramo.

Une batez oldozkor geratu zan-bitxilaria, eta jarraian,

– Aspaldi onetan gramo berrogei ta amabost laurlekotan erosi dot, eta ondo ba'de-
ritxazu, tratua egingo dogu.

Orain oldozteko txandea etorri yakon Txipiroi'ri, eta,

– Niketz ondo dago –eta gero niri mintzatuz–. Eta zeuk zer diñoazu, lagun...?

– Neuk be ondo derist orreri –erantzun neutsan.

– Orduan –erabagi eban bitxilariak–, aztatuko dogu, eta orren giñoan ordainduko
dautsuet.

Izan be, aztagailluak kilo bat eta bederatzireun gramo erakutsi ebazan. Nire lau-
reun gramoakaitik ogei ta bi milla laurleko artu nebazan, eta Txipiroi'k bere zatiaren
giñoan.

Andik laster biok poz-pezik ontzira biurtu gintzazanean,

– Aizu lagun –itaundu neutsan–, zergaitik ez dozu gangaillenez egin tratua...?

– On Bitor ez da orreitariko tratulari amarrutsua. Berak diñoana artu ala itzi, beste-
rik ez. Ondo ezagutzen dodaz uri onetako hitxilariak, eta benetasunean iñor ez bera lako-
rik. Dana-dala, Patxi, pozgarria da, dirua irukoiztu dogula egizatzea.

– Bai, benetan, eta ekoizpena zeuri zor dautsut, eta gaiñera bide barri bat erakutsi
dautsazu.

– Neuk be, zeozer badautsut zor. Biar Lekeitio'rako izango naz, eta daroan diru
onen zati batez, lengoari geituta, ama-arrebak janzki-dendea ipinteko beste izango dabe.

– Eta zeu...?

– Gaurdanik asita, niretzat gordeko dot dirua. Errian, neskatilla maratz eta polita
ezagutzen dot... Egunen baten berak onartuko ba'nindu... Eta zeuk Patxi, zetan erabiliko
dozu...?

– Nik ez dot ama-arrebarik, ezta neskatilla maratz politarik be ezagutzen. Diru au
eta aurrerantzean irabazi dagidana gordeko dot zetarako ez jakin arren be, munduan ba-
karrik nago-ta...

Autu onetan, "Mendigarai"ra eldu gintzazan, eta karabiñeruai agurrik txeratsuen
egiñik, zurubian gora igon gintzazan. Alkarri agur esan aurretik, Txipiroi'k auxe esan
eustan:

– Kontuz, gero, Patxi, zein lekutan gordeko dozun dirua, or bazterretan lapur asko
dago-ta.

Oar onek kezkatu ninduan, eta oean aratiñean etzanda, gogoeta sakonari emon neu-
tsan, zein izango zan lekurik egokiena dirua gordeteko burutik kendu eziñik. Olan nen-
goala, nire begikadea sabaiko oletan untzatu zan. Goieneko oean nentzanez, ezin ezkutu-
ne obarik, goiko ol bateri lau torlojuak kendu, eta utsunean dirua sarturik, ola torlojuakaz
barriro ziurtatu. Ezin alako diruketa erabilli ziurtasunez, beti sakelean gordeta. Augaitik
ba, galdarategira joan nintzan torloju gailu baten billa. Ganbaratik urten aurretik, sei oa-
tzeak aztertu nebazan, eta iñor ez egoala ikusirik, urten nintzan. Torloju gailuaz biurtu
nintzanean, baiña, ez yatan bururatu oatzeak banan-banan aztertzea, eta nire oatzean
etzanda, arin baten ol bat askatu ondoren, dirua ezkutunera sartu neban. Ezin a baiño
gordeleku egokiagorik aurkitu.

Urrengo egunean, Txipiroi Lekeitio'ra joateko zan ezkerro, urten aurretik agur esate-
ra etorrita, auxe esan eustan:

– Aizu, Patxi, ontzia itsasora baiño len biurtuko naz. Agur ba, eta laster artean.

Ontzitik urten-agiñean zala, neugana biurtuta,

– Aztu egin bear be...! –esan eustan–. Diruari onura betea atarateko, erosi egizuz
amabiko batzuk bonbil koñak, arantzakoan irabazte politaz saltzeko, Amerikan edari
bizi ori txit ederretsia da-ta.

Au esanik, bide-zorroa artuta, zurubian beera joan zan, eta laster begimenetik galdu
yatan. Ontziko eskudelean besoak jarrita, biotz-miñez beteriko gogoak etorri yatazan.
Etzeratze bakotxean sendi maitekorra ba'neu besarkada estu-estu emoteko, eta neskatilla
polita baten begikada gozoa nire begira...amesaren ederra...! Orduan oartzen ez banin-
tzan be, maitasuna zan irrikatzen nebana, baiña zorion eldu-ezin ori beti igesi yabildan,
izar urrundaria bai'litzan.

Urrengo egunean, lekeitiarrak esandakoa burura etorri yatan, eta edari bizia crostea-
rren, diru-billa joan nintzan nire ganbaratxura. Ola askatu nekanean, baiña, latz-ikara bat

nitzaz jabetu zan... Ezkutunea utsik egoan... Izerdi otzak bustita, asarre eta amorruez zer egin ez nekiala une luze batez iraun neban. Gero, astiro-astiro oldozmena etorri yatan, eta gogoeta arduratsu bateri emonda gero, ondorio oneik atara nebazan:

Torlojugaiilluaz biurtu nintzanean, oatze batetik norbaitek nire erabillketea ikusi eban. Ezin zeitekean bigarren edo irugarren oe-maillakoa izan, ardura andirik emon ez arren, nai-ta-ez ikusi bear izango neukelako. Beekoen oatzekoa izan bear, beraz. Nire oatzearen aldeko beekoenean, baiña, Xose'k lo egiten eban, eta au edozein suzmoz gaiñetik egoanez, beste aldekoa izango zan, arabiar itxurako "Moreno" esaten genduana. Ondore onetara iritxita, oatzetik jatsi, eta aren billa joan nintzan. Ontzia alperrik arakaturik, noiz-bait, ezkerreko eskudelean besoak jarrita, ibaiaren joan-etorriari begira ikusi neban. Urreratu nintzakion, eta,

– Aizu, Moreno –esan neutsan beso bateri eutsirik–, oraintxe bertan, ostutako dirua atzera emoten ez ba' daustazu, or beeko ur zikiñetara botako zaitut, zure aurpegia ausita gero.

– Dirua... zeri buruz zabiz, baiña...?

– Atzo ostu zeustan ezkutuneko dirua. Ikusi zindudazan oatzean etzanda neureara igon nintzanean.

– Bai, an nengoan, baiña ez dautsut dirurik kendu.

Lepotik oratuta, besoa birrikatu neutsan, miñaren-miñez karrasika asi arte. Nik baiña jaramonik ez, gero ta indartsuago ekiñez. Noizbait, areago jasan eziñik,

– Itxaron emen –esan eustan mintzo erlatsaz–, eta ekarriko dautsut.

– Zoaz, baita arin be, ostantzean zure atzetik joanda, uretara jaurti aurretik sabela edegiko dautsut.

Joan eta andik laster biurtu zan, lotuki txiki bat ekarrela. Artu baiño ez, dirua zenbatu neban, eta doi-doi egoala egizaturik,

– Aizu, Moreno –esan neutsan–, ez yat bape atsegin lapurrekin lo-egitea. Augaitik, galdara-nagusiari eskatuko dautsazu, beste ganbara batera aldatu zagizan, bestalan...

Zemaikor begiztatu neban, eta bildurrak jota ostendu zan. Bazkalostean, On Poli urreratu yatan, eta auxe esan eustan:

– Patxi, len Moreno etorri yat esanez, ezin dagikela jarraitu zure ganbaran, zurrunga itzelak botaten dozuzalako. Egia al-da ori...?

– Olan izango da berak diñoan ezker, baiña ori ezin dagiket ziurtatu, neure zurrungak ez dodaz entzuten-eta.

Barre egin genduan, eta gau aretan "Moreno" gure ganbaratik beste batera aldatu izan zan. Lapurreta orrek, baiña, arrenkuratu ninduan, leku ziurrik ez egoala adierazoten eustan-eta. Izan be, bala-bala ebillen gitariko bateri jazoriko auxe: ezkutune ezin egokia-gorik idoro ei'eban ontzi-sotoan, baiña portura elduta diruaren billa joan zanean, dirua ondatuta aurkitu eban arratoiek marraskatuta.

Luzaro samar erabilli neban gogoan arazo au, eta onen ondorioz, dirua neugan eroatea erabagi neban, baiña ez edozelan. Txirikiñaren barrukaldeari zear-orratz batz ziu-taturiko zorrotxu baten. Legorreratu nintzan ba, eta dalako zorrotxua edo katanarrua ero-

si neban, baita bidebatez iru amabiko bonbil koñak be. Azken oneik, sukaldariaren laguntzaz, Txipiroi'ren adiskidea zan-eta, ontziko janaritegian ezkutatu nebazan.

Itsasontziaren sotoa bete egiten zan, eta laster urreratu yakun itsasoratzeko garaia. Onen aurregunean, nire poz andirako etorri zan Txipiroi, eta oiko agurrak alkarri esanda gero, lekeitiarrak auxe jakiñerazo eustan:

– Tamal dot zeuri esatea, baiña nire eskuartekoen billa nator. Orain arte "Mendigara" an izandako nagusia, beste itsasontzi bat agintzeko izendatua izan da, eta berarekin joateko esan daust. Aspalditik aren maitzaiña nazan ezker, ezin dagikeot ezetza emon.

Andik laster, eskuartekoak ekarrezala agertu zan, eta zurubiraiño lagundu neutsan agur esateko. Alkar besarkaturik,

– Agur adiskide –esan neutsan–, egunen baten zure erriko neskatilla maratz eta poli-tarekin ezkonduko al zara...!

– Bai, Patxi, erria itzi aurretik eskontzeko berbatu gara, au nire zoriona. . . !

Isildu zan une batez, eta gero,

– Zeu be, Patxi, merezi dozuna noizbait aurkituko al dozu...!

Zeozer eratsi gura izan neban, baiña atsekabeak eragotzi eustan, eta begiak laiñoturik, kaian gora ostentzen zala ikusi neban, Txiritxu galdu nebaneko sentipen berberak menperatzen ninduala.

Biaramonean, itsas-gora ustiatuz, aingura jaso, eta burdinkiakaz zamaturik, Arjentiña'rantz jo genduan. Itsasaldia gora-beera andirik bage gertatu zan, Brasil'go Recife'n egun batez aingurea bota genduala, geroiazan tresnagaillu batzuk kairatzeko, eta jarraian, Buenos Aires'era sotoko burdinkiak ustuteko, eta garia etxera lorratzeko. Portu onetan, onura politaz saldu neban koñaka. Karabiñeruai, amabiko bakotxetik bonbil bat emon bear izan neutsen, baiña batz beste obari ona lortu neban. Diru au, egokidan lan-sariari geituta, bazan zeozer, eta ori dana urre-erosketan erabiltea erabagi neban.

Rosario'ra joaterik ez genduan, oraingo onetan urrea Buenos Aires'en erosi bear izango neuke. Lurpekoa artuta, La Boca'ra joan nintzan, eta kaietatik deslai ibilli ostan, noizbait, Moises'en dendatxua aurkitu neban. Ate-ondoko txiliña erabilli neban, eta andik laster Moises Jauna agertu zan, eskuan mate-kuitxua ekarrela. Beingoan ezagutu ninduan, eta,

– Kaixo vasquito –esan eustan adiskidetsu– non laga dozu lekeitiarra...?

– Beste itsasontzi baten dabil orain.

– Ondo, "mijito", ondo. Zertan lagundu dagikezut...?

– Urre-billa nabiltzu, ia oraingo onetan zertu dagikegun...

– Lengoan be, ona etorri, baiña gero beste nonbaiten erosi, ai "mijito"... "mijito"...!

– Egia esateko, Moises Jauna, Rosario'n aukera ohea izan genduan.

– Zenbatean erosi zenduen ba...?

– Gramoa bost peso ta erditan.

– Ez zan ogei kilatekoa izango, urrean.

– Oker zagoz, Moises Jauna, ogei kilatekoa zan. Ez dot, baiña, astirik galdu gura, eta gaur orrenbestean emongo ba'zeunskit, erosiko neuskizu ta kitto.

– Ai, “mijito”, “mijito”...! –bizarrari teink egiñez esan eustan–. Beti lanean, eta azken baten gure obaria blindiblaust...! Baiña goazen arira, zenbat erosiko zeunskit...?

– Kilo bat.

– Ez dago txarto... eta izan be, ez dot nai beste iflorenean erosi dagizun, ori Moises'en jeneroa zapuztutea izango litzake-ta.

Au esanik, aztagaillu baten ardurarik andienaz kilo urrea neurtu, eta ziskutxu batera sartuta eskuratu eustan. Ordaiñez, neük bost milla ta bosteun peso emon neutsazan. Jarraian, eskuak alkarri emonda,

– Agur, vasquito –esan eustan amultsu–, badakizu non dozun benetako adiskide bat, “mijito”.

– Agur, Moises Jauna, eta urrengorarte.

Zenbait egun geroago, etxerako norabidea artu genduan, eta Canarias'en geldi-aldi laburra egiñik, azken baten jaioterrian kairatu gintzazan. Oraingo onetan karabiñeruek ez euskuen jaramon andirik egin, eta urrea oztoporik bage ontzitik atara aal izan neban. Onddo gomutatzen neban On Bitor'en denda apaiña, eta astirik galtzeke ara jo neban. Laster nengoan bere aurrean, eta bereala ni eziguturik,

– Kaixo, mutil –agurtu ninduan–, jeneroa ekarri al-dozu...?

– Bai, Jauna, baiña oraingo onetan, ez dakit larregi eritxiko ez ete yatzun, kilo bat dakart-eta.

Urrea aztertu eban, eta ontasuna egizaturik,

– Lengo prezioan erosiko dautsut –esan eustan–. Zer deritxazu orreri...?

– Ondo, Jauna, eutsi.

Poz-pozik biurtu nintzan ontzira, eta diru asko begitandu yatanez, luzaro ausnartu neban zelako erabiltea emon, eta onen ondorioz, auxe erabagi neban: erdia diru-etxe batera sartu, eta beste erdia salerosketan erabilliko neuke. Olan, ezbearren bat etorriko ba'litzakit, baneban naikoa diru aurreztuta, arazoari jarraipena emoteko.

Ezin nengikean, baiña, beti urrearen salerosketan jardun, batzutan gure bidegitea aldatzen zalako, eta portu barrietan ezaguerarik ezean, erosterik ez. Zorionez, au ez zan sarri jazoten, eta bataz beste arazoa polito joiakidan.

Txarrena, baiña, galdara-ondoko lan izugarria zan, eta egun berotsuetan lerrenak eginda ta jangar, ez neban besterik egiten ura edan eta edan baiño. Aldiaren bidean neure buruari itauntzen neutsan jardun nekegarri aretatik iñoiz jareituko ez ete nintzan. Bein baten, baiña, nitzaz errukituriko alanbearrak badirudi aukera bat eskiñi nai eustala. Ona emen zer jazo zan.

Bein baten, lanaldia amaituta, goikaldera joan nintzan itsas-aize garbia arnastearren. Soka-pillo baten gaiñean jesarrita nengoala, ondolik buruzagi bat urreratzen zan. Bereala ezagutu neban “Eroslea” ikastetxean lagun izandako Leontzi elantxobetarra, eta nire poza menperatu eziñik, itzetik-ortzera jagi, eta, Leontzi –oiu egin neutsan–, zu emen aurkitu bear be...!

Gelditu zan zer egin ez ekiala, eta,

– Nor zara...? –itaundu eustan–. Zerez ezagutzen nozu...?

– Ez dozu Patxi Arlote, zure ikaskide izandakoa ezagutzen...?

– Zelan ezagutuko dot aspaldiko adiskidea, aurpegia orren zikiña izanik...? Benenetan, Patxi baiño, tximiño bat emoten dozu.

Eta irribarrez urreraturik, bostekoa emon eustan. Jarraian, nire alboan jesarrita,

– Aizu, Patxi –esan eustan adiskidetsu–, badira urteak alkar ikusi ez dogula. Irautsi egiztazu zelan billakatu zaran ontzi onetara. Jakin bear dozu ontzi onetako lenengo buruzagia nazala.

Leontzi'ren arrera onak adoretuta, nire gora-beerak irazezan edestu neutsazan, eta amaitu nebanean,

– Ez yat atsegin, Patxi –esan eustan–, adiskide ona izandakoa, jardun orren zikin eta neketsuan ikustea. Zeuk beste bat merezi dozu, bai ezkuntza bai ezaguerakaitik. Gogoratzten naz, polito samar burutu zenduzala ikastaro guztiak, Pitoldero'ren azurdi ganorabakoa ondatu zenduan arte.

Ona elduta, Leontzi'k barre-santzo itzela jaurti eban, eta aren alaitasuna kutsuturik, barrean alkartu nintzakion. Gero, beste jazoera batzuk gomutara ekarri genduzan, eta urte zoriontsu arein oroitzek lagunduta, luzaro samar autuan jardun genduan, eta orduaz oartu gintzazaneko berandu izanik, alkarri agurtzean, Leontzi'k auxe esan eustan:

– Begira, Patxi, buruzagiek galazota dogu ontzian itsastar arruntakin arremon estuak izatea, baiña Buenos Aires'era eldu gaitezanean, alkarrekin egurastu ta bazkalduko dogu “Maipu” edo “Corrientes” kaleko jatetxe on baten.

Alkarrikuste onek poztu ninduan benetan, eta itxoropen atsegiña nitzaz jabetu zan. Leontzi ta biok ikastaro guztietan zear, adiskide onak eta zintzoak izan gintzazan. Itsasaldeko seme jatorra izanik, ames egiten eban itsas-buruzagi billakatzea, eta orra or urteak igarorik, bere guraria egi biurtu izan zala. Ni, ostera, patuak beste bide batetik eroan ninduan, eta bera baizen ospetsu ta ederretsia izan ez arren, jasandakoaren ostean, orain ez nintzan ain zoribakoa, dirua jaristeko bidetik niñoala kontuan arturik batez be.

Eldu gintzazan Buenos Aires'era, eta ustu-zamaketak egin bitartean, egun baten Leontzi ta biok egun osoa alkarrekin emon genduan. Eguberdian, “Maipu” kaleko jatetxe on batera dei egin eustan elantxobetarrak, eta bazkaldu bitartean, berak zirikatuta nire gora-beerak edestu neutsazan. Adi-adi entzun eustan Leontzi'k, eta kondalaritzan agiri-duna nintzala jakin ebanean, arritu zan galdararen su-gizona billakatu izatecagaitik.

– Baiña Patxi –esan eustan–, zelan daiteke, zeuk lako agiridun batek, jardun orren zikin eta zantarra artu egianik...?

– Begira, Leontzi, ez neban ezelan be espetxera biurtu gura, eta gaiñera gudaritzatik iges egitearren, “Mendigarai” ontzian su-gizonaren lana eskiñi eustenean, ez nintzan aiko-maikotan ibilli. Ez dakizu zer dan batetik bestera jardun baten billa narraz ibiltea. Naiago izango neban kondalaritzat lan egitea, baiña besterik ezean, eskuarrera yatortzuna artu bear.

Une luze batez Leontzi oldozkor geratu zan, eta uri andi eder aretatik egurastuz giñoazala, ontzira biurtu gintzazan. Oi nebanez, azkenengo egunean urre erosi neban, eta ontziratu baiño ez, galdarara jaisteko zorian nintzala bearrezko lurrin-indarra lortzearren, mariñel bat etorri yatan esanez,

– Lenengo buruzagiak beragana joateko diño.

Ontzi-zubian egoan Leontzi urteteko abiamenak agintzeko, eta aurkeztu nintzakio-
nean,

– Begira, Patxi –esan eustan txeraz–, gure maitzaiña ez da inondik agertzen, eta
aren utsunea beteteko, jardun ori zuretzat. Zer deritxazu orreri...?

– Oba ez, Leontzi...! –pozaren-pozez erantzun neutsan–.

– Zoaz ba, mayordomo edo ornitzailleagana, eta berak erakutsiko dautsuz zure bete-
kizunak.

Era onetan su-gizonaren joputasunetik jareitu, eta jardun nasai ta garbia ezagutzen
asi nintzan. Auxe zan nire betebearra: gosari, bazkari, eta aparia, ontziko buruzagai mai-
ratu, jatokia garbitu, arein lo-gelak aizetu, txukundu, ta oeak egin. Txiliña aditzen za-
nean, egokidan buruzagiaren agintzapean nire burua jarri, eta arek esana bete. Jakiña, lo-
egiteko beste ganbaratxu batera aldatu nintzan, sukaldari ta onen laguntzaillea ganbaraki-
deak nebazala. Oraingo bizierea lengoarekin bekaldetuta, zer esanik ez, askozaz ohea
zan. Gaiñera, buruzagiaren janari berbera nire aukeran neban, eta egiari zor yakon begiru-
nez, “Mendigarai”ko sukaldaria bikaiña zala esan bearrean naz.

Sarri askotan, buruzagai mai-zerbitzua egin ostean, eta kafea artu ta erre bitartean,
Leontzi’k auxe esan oi eustan:

– Aizu, Patxi, esaiozu gure nagusiari, zelan autsi zenduan egun aretan, Pitolerdo’re
giza-azurdia.

“Mendigarai”ko nagusia, mundakar jatorra ta umoretsua, beti gerturik egoan edo-
zein izkirimiri entzuteko, eta augaitik, nire gora-beerak ondo ezagutzen ebazan Leontzi’k
zirikatzen ninduan, edestu nengizan. Olan ba, “errepublikako” paperarena, El Rianxei-
ro’rekin izandako arazoa, “Matxin” zelan birrirabazi neban, Perutxu’ren guzurak eta
abar edesten neutsezan. Mundakar nagusiak barre egiten eban gogoz, eta zertzelada guz-
tiak onda ezagutu arren, ia egunoro jazokizunen bat edestu bear izaten neutsan.

Bein baten, “Zapatones”eri emon neutsan kandelakadea esatea otu yatan, eta zelan
umezurtzegtetik jaurti ninduen goseak eragindako bertsoakaitik. Onen ostean, ez neban
beste biderik izan, “Sorgiñetxe” antzerkiaren ostean bota nebazanak barrero jaurtitea.
Itzelak izan ziran nire bertsoek eragin ebezan barre-santzoak. Malkoak isurtzeraiño barre
egin eban nagusiak. Nik ez dakit, augaitik edo beste zergaitik izango ete, baiña nagusiak
eta buruzagiek maite ninduen, oso arraiki ninderabiltzela.

Izan be, zoragarria billakatu yatan giro adiskidetsu ta nasai aretan bizi izatea. Edu
onetan urtebete batzuk igaro ziran arin be arin, eta oartu barik nire bizitzaren ogei ta
amar urteurrena etorri yatan. Orduko, eta urrearen salerosteari esker, diru-mordoaren ja-
be billakatu izan nintzan, eta diruketa orreri erabilte onuragarria emotea otu yatan. Izan
be, milloi bat eta berreun milla laurleko inguru, diruetxe bateko kontu agirian nebazan,
eta korritua oso urria izanik, obari andiango non jaritsi nengiken, etenbarik jazarten nin-
duan oldozkuna zan. Ezustez, baiña, arazoa berez askatu zan.

Bein baten, amabost egunerako portuan lotuta gengozala, egunkari bat aztertzean,
iragarki onek erakarri ninduan: “Gaurregun arazoez arrakasta andia lortu dagien, iragar-

bideak ezinbestekoak dira. Gero ta geiago egiten diran gauzen ontasuna jakiñerazoteko,
“Aldarria” izeneko baltzua sortu gura dogu. Orretarako, jabekideak bear doguz, eta ain
zuzen be, nora sartu dirua obari andiangoaz “Aldarria”ra baiño...? Zatoz gugana jabeta-
sun-zatiak amaitu aurretik”. Jarraian, zuzenbidea etorren. Orduan, ez neutsan jaramon
andirik egin dalako iragarkiari, baiña uritik egurasten niñoala, berebil bat ondolik igaro
yatan, ozengailu bat az “Aldarria”ren onurak agirian jarririk, eta zabalkunde-iragarkiak
jaurtiz. Oneitariko bat artu, eta barrero be, dalako baltzuaren jabe-zatidunai ekarriko leus-
kie etekiña agirian ipinten eban.

Bapateko burutapena etorri yatan, eta bigarrenez oldostu barik, zabalkunde-iragar-
kian erakutsiriko norabidera jo neban. Onenatariko kale bateko idaztegi garbi ta apaiña-
ren ate-gaiñean, oar auxe ikusi zeitekean: “Sartu dei egin barik”. Barruratu nintzan ba,
eta neskatilla pertxenta ta apaiña ikusirik, auxe esan neutsan:

– Aizu, andereiño, nagusia ikusi gura dot.

Jagi zan, eta margozki ederrakaz apaindutako areto bikain batera eroan ninduan.
Andik laster, gizon dotore bat etorri zan, eta,

– Egunon, gazte –itaundu eustan–, zerk zakaz etxe onetara...?

– Begira, Jauna, egunkari baten eta kalean iragarritakoari buruz natortzu. Badauka-
daz aurrezki batzuk, eta ez dakit ba...

– Dirua sartzeko, ezin “Aldarria” baiño aukera obarik. Zenbat sartuko zenduke...?

– Gitxi gora-beera milloi bat-edo...

– Ez dakit orrenbeste emon ete dagiketsugun... Itxaron apur baten.

Au esanik, txiliña jo eban, eta sarrerako andereiño pertxenta azaldu zanean,

– Aizu, Yosebe, Jaun onek milloi bateko jabe-zatiak erosiko leukez. Esango
daustazu, orrenbeste salgai ete dogun...?

Andereiñoa urten, eta bereala biurtu zan esanez,

– Milloi bat egin-egiñean salgai geratzen yaku oraindiño, Mateo Jauna.

Yosebe andereiñoa joan zanean, Mateo Jaunak,

– Badirudi, gazte –esan eustan–, mugonez etorri zaiakuzala. Nai ba’dozu, azken zati
orrek gordeko dautsuguz, salerosketea gaur bertan egitekotan. Ainbeste eskaera izanik,
ezin dagikegu biarko itzi.

– Gaur bertan egingo dogu –poz-pozik erantzun neutsan–. Amabietan ona etorriko
niaztue diruaz, eta agiriak gerturik ba’dozuez, arazoa amaituko dogu bertanbera.

Arin baten diru-etxera joan, txarteletan dalako milloia artu, eta “Aldarria”ren
idaztegi biurtu nintzan. Mateo Jaunaren idaz-gelan jesarrita, arazoari azkena emon
geutsan, eta milloi bat “Aldarria”ri emonez, Mateo Jaunak ordaintza-agiriaz gaiñera,
5.000 laurlekoko 200 jabetasun-agiri eskuratu eustazan. Alkarri agur esaten geutsanean,
Mateo Jaunak auxe esan eustan:

– Ezarpen bikain-bikaiña egin dozu, Beresibar Jauna. Ara... agiri orretan diñoanez,
“Aldarria” baltzuak urtean eunkal amabost emongo dautsuala ziurtatzen dau, eta ori,
gabiltzan aldiotan bada zeozer.

Poz baten urten nintzan, gizaki jarei ta garrantzitsua oartzen nintzala. Bai, diruari

erabilte ona emonez gaiñera, ordurarte lez urrearen salerosketeari emongo neuskio, eta aurrerantzean, irabazteak alde bitatik izango neukez.

Urrengo itsasaldian Mexiko'ra joan gintzazan artoaren billa, bide-batez burdinkiak Veracruz portura gerotiazala. Portu onetan banekian urrea non erosi merke samar, eta gora-beera andi barik etxera biurtu gintzazan illabete ta erdi igarorik.

Baziran, baiña, zortzi urtebete-edo, itsasoan niarduala ezelako oporrik izan barik, eta bazan garaia, aspaldi batez legorreetan geratzea. Atsedenaaldi bat gura nebala jakin ebanean, Leontzi'k atondu eustan dana, eta sei illabeteko oporraldia egokidala jakin ebanean, aspaldi ori jaioterrian emotea erabagi nban, eta Mexiko'tik biurtu nintzanean, portutik gertu samar egoan ostate garbi baten kokatu nintzan.

Ezin negikean, Iragoikoa, Asentzi'ren jaiotetxea gomutatik kendu, eta leku zoragarri aretan emondako aspaldi zorionsuek, ikerraldi bat egitera bultzatu ninduen. Bein baten, erri-berebillez Markiña'ra, eta gero Iragoikoa'ra joan nintzan. Ezin maitetsuago abetaldu ninduen etxeko guztiek, baiña nire atsekaberako ez neban Arrate zoragarria ikusi aal izan. Baziran bost urtebete inguru, sendi aberats batenera neskame sartu izan zala, eta pozik bizi izaten zala esan eusten. Albiste onek, neurri baten atsekabetu ninduan, Iragoikoa'ra joatean nire asmorik beiñena Arrate ikustea zan, baita berarekin bertsoan jardutea, len oi genduan lez.

Dana-dala, iru astebeteko egotaldia izan neban Asentzi'ren jaiotetxean. Ezkondutako seme nagusiak etxeko ugalk erabillezan orain, eta emazte marata izanez gaiñera, ume zoragarriak zituan. Abadeturiko bigarren semeak uri anditsu bateko parrokan ziar-
duan, eta euskeraz idatzi ei'eban arrakasta andiaz. Etxeko senar-emazte zaarrek osasun-
tsuak zirauen, eta negua izanik, etxean lan andirik ez egoan ezker, su-bazterrean jesarri-
ta, kontu-kontari orduak emoten genduzan arto-zuriketean, umeai amaika ipuin edesten
neutsezala.

Egotaldia ez nebala luzatu bear iruditu yatan, eta noizbait, guztien osterak artu arren, jaioterrira biurtu nintzan. Egunoro erri-liburutegia ikertzen neban, baiña orain ez nebazan Jules Verne'ren eta Salgari'ren elebarriak irakurten. Beste gogo-janaria irrikatzen neban; euskeraz idatziriko idaztiak izan be, eta gose-egarrtua, eskuetara yatordazanak irakurten nebazan. Zer esanik ez, idazle bikaiñen euskereak neugan aztarna sakonak ildazkatu eustazan, eta egunen bidean, neuk be euskeraz idazteko gauza nintzala oarturik, arloari ekin neutsan poz bakanak artuta, nire arbasoen izkuntzaz idazten gai nintzala egiztatzean.

Baebilkidan aspalditik gogoan, uxatu ezin negikean zerbait, eta arratsalde baten uriko umezurtztegira joan nintzan, eta iker-aretoan itxaron neban. Luzaro barik, Sor Ane ate-zubipean agerturik, ni ikustean pozezko oiua iges egin yakon, eta nire eskuak berentan artuta, txeratsu begiztatu ninduan, auxe iñostala:

– Patxi, nire mutilla, au poza...!

Menperatu ezin negikean samurtasun bakana nitzaz jabetu zan, eta bere esku lirain zurietan, musu bana ipiñi neban.

– Zatoz, Patxi –esan eustan maitetsu–, jesarri gaitzean, eta zure gora-beerak edestu-

ko daustazuz. Baiña gizon andi ta ederra biurtuta zakust. Azkenengoz alkar ikusi genduan, espetxean zengozan, eta arrezkero jazo yatzuna jakitearren irrikan nozu. Esai-dazu dana, Patxi.

Eta areto aren bake ta isillean, iradu barik azken urteotako jazoerak edestu neutsazan. Amaitu ebanean, Sor Ane'ren begi argitsuek dizdiratzen eben, eta ezpanetan irribarre gozoa marrazten yakola,

– Bedeinkatua bedi Jauna –esan eustan amaitu ebanean–. Ez dakizu, Patxi, zelako poza emoten daustazun... Jakin bear dozu otoi egiten dodala zure alde egunero, eta nire errekuak, antza, onartu izan dira. Esan bear dautsut baita be, zeugan beti uste ona jarrita izan dodala, eta bizitzak latz eta zakar erabilli zaituan arren, barruko zerbaitek esaten eustan, oroz gain onik urtengo zintzakezala, eta orra or nire uste ona egi biurtuta...!

Gero, aspaldiko jazoerak gogora ekarri genduzan, eta lagun askoren barriak emon eustazan. Txiritxu'ri buruz, baiña, ez ekian ezer. Noizbait, berandutxu izanik, alkarri agur esan geuntsan, eta barriro be ikertzera joango nintzakiola agindurik, arrastiko erdi-itzeletan ostatura biurtu nintzan.

Arratsalde baten erri-liburutegitik urteteen, egurasten joatea erabagi neban. Neguko azkena zan, eta laster etorriko zan udabariaren zantzu pizgarria izadiari erion. Eguraldi onak eraginda, uritik osteratxu nasaia emotea otu yatan. Egunak luzatzen joiazan agirian, eta eguzkiaren azken izpiek etxadien goikaldea urrezatzen ebazan. Olan niñoa, Klare Done enparantzako arrizko mailladiak igoten asi nintzan, eta lenengo biurgunea ozta-ozta igarorik, erdiz etzanda, eta burua atzerantz ebala, nekez arnas egikean gizon bat ikusi neban. Begiak itxita ebazan, eta ubelduriko ezpanen artean, arnasaren korroka iges egi-ten yakon. Burua atzerantz jausten yakon arnasa obeto artzearren, antza, eta agiri zan oi-ñaze bizipean aurkitzen zala.

Urreraturik, alboan jesarri nintzakion, eta eskua sorbaldapean ipiñita, auxe itaundu neutsan:

– Aizu, lagun, zer dala-ta, orren nekez arnasteko...?

Aurpegi errauskaran zear keiñu mindua agertu yakon, eta begiak edegirik, burua alde batetik bestera eragin eban, berba egiteko ez zan gauza-ta. Orduan auxe itaundu neutsan:

– Nai al-dozu erriko geisotegira eroan zagidazan...?

Begi laiñotsuak neuretan jarrita, buruaz ezetz adierazo eustan, eta esku bat esker emoteko itxuraz eragin eban. Andik laster baretzen asi zan, eta noizbait mintzo kolokaz:

– Eskerrik asko, gazte –esan eustan–, badirudi alditxarra joaten asi yatala.... Lagunduko daustazu mailladian gora...?

Au entzunik, galtzarpetatik artuta jaso neban, eta gerriari eutsita, eskillaran gora lagundu neutsan. Enparantzara eldutakoan, atzamarraz etxe bat erakutsi eustan esanez:

– Etxe orretan bizi naz, eta orain banaz gauza bakarrik joateko. Eskerrik asko barriro, gazte.

– Zein soruan bizi zara...?

– Irugarrenean.

– Araiño lagunduko dautsut.

Aren osterak eta guzti, ez neutsan jaramonik egin, eta atadira sartuta, zurubi aldapatsua ikustean, ezer esan barik besoetan artu neban, eta bere jarkipena aintzakotzat artezke, irugarren sorurariño eroan neban. Ain zuzen be, ez yatan zama astunik begitandu. Ateko txiliña eragin neban, eta andik laster, gizonaren antzekoa zan berrogei ta amartsu urteko emakume bat agertu zan. Gizona nire besoetan ikusirik,

– Baiña, Yulen –oiu egin eban–, zer jazo yatzu...?

– Ez zaitetz ikaratu, Yokiñe, zorabiotxu batek artu nau enparantzako mailladian gora nentorrela. Zorionez, gazte begiko onek etxeraiño lagundu daust.

Yokiñe'k sartu-erazo ginduzan, eta areto txiki bateko leioa edegirik, besaulki baten Yulen jarri nengian eskatu eustan, eta beste bat niri eskiñiz,

– Jesarri zaitetz –esan eustan–. Izan be, ez dakit zelan eskertu zeuk egiñikoa. Nire neba Yulen'ek biotz-urritasuna jasaten dau; ez leuke, beraz, kalera urten bear eta are gixiagi zurubia erabili, baiña bestaldetik odol-zirkin txarrekoa izanik, egurastutea agindu dautso osagilleak, eta arratsaldero osteratxu bat egin bear dau.

Bere nebari buruz guztitariko gora-beerak emoten jarraitu eban Yokiñe'k, onein ar-tean berrogei ta zortzi urtekoa zala, eta geisotasunagaitik, baziran bost urte lan egin barik zirauala. Autu onetan giarduala, aukera betea izan neban neba-arrebak begiztatzeko, eta izan be, aurpegi karantzaz agiri zan senitartekoak zirala. Atsegiñak begitandu yatazan biok, eta nik neuk oartu barik, eurakanako erakarpen andiak menperatu ninduan. Orduko, illuntzea asten zanez, egokirik litzakela nire egotaldia amaitutzat emotea iruditu yatan, eta jagi nintzan urteteko. Yulen'en esku azurtsu ta otza neurean sentitzean, eta aren begien itxura neketsua ta ezpan zurbillak ikustean, biotz-ikara batek jota, auxe esan neutsan:

– Begira, Yulen, oporraldia dot illabete batzutarako, eta aske nazan ezkerro, ondo ba' deritxazu, egunoroko egurastaldian lagunduko dautsut.

– Oba ez...! –begiak dizdiratzen yakozala erantzun eustan Yulen'ek–. Zurekin ez dot iñongo bildurrik izango. Agur, gazte, eta biarrarte.

Yokiñe'k ateraiño lagundu eustan, eta nire eskuak berenetan artuta adorez beterik,

– Ez dakizu, gazte orrek –esan eustan–, zelako bake ta ziurtasuna ekarri dozuz etxe onetara, Yulen'eri zeozer jazo leitekion bildurrez, beti kezkatuta bizi naz-eta. Gaurko mirari bat izan dala esango neuke. Agur eta eskerrik asko...!

Zurubitik jatsita, ataditik urteteko zorian nintzala, neskatilla bat sartu zan, eta illun samar izan arren be, nire ondolik igarotean, ibillera lerdenekoa zala begitandu yatan. Ezin neban aren aurpegiko karantza ondo ikusi, baiña orren txairo ebillena neskatilla polita izan bear, esan neutsan nire buruari.

Urrengo egunean, arratsaldeko bostetan inguru Klare Done enparantzara joan nintzan, eta laster Yulen'en etxeko atea jo neban. Bereala azaldu zan Yokiñe, eta aretoraiño lagundu eustan. Yulen gerturik egoan kaleratzeko, eta,

– Arratsaldeon, Yulen Jauna –agurtu neban–, atzo aginduta lez, emen nozu zurekin egurasteko gerturik.

– Baita neu be, gazte –irribarrez erantzun eustan–. Gaur, atzo baiño askozaz obeto nago. Goazen ba.

Yokiñe'k ateraiño lagundu euskun, eta urten-agiñean,

– Aizu, Patxi –gazitatu eustan–, ez arin ibilli, aldapan gora geienbaten.

– Nasaitu zaitetz, Yokiñe, zenbat-gura astirik badogu geure aukeran, iraduz ez ibilteko.

Laguntza emon neutsan zurubian beera, eta noizbait kalera urtenda, erriko eguraste-

gira joatea erabagi eban Yulen'ek. Astiro ibilli genbiltzala, arrastiko argi betean Yulen nire aukeran ikusi aal izan neban. Gizon argala zan, eta aurpegiko larmintz argian, zimur batzuk marrazten yakozan. Begi oztifiek eta aboko irribarre gozoak, gizon maitetsuaren itxurea emotsoen. Urdintzen asten yakozan billo naroak txapelpean parrastaka edatzen ziran. Goibe ertaiñekoa zan, eta argaltasuna geisotasunak eragiña zan, urrean, baiña ibillera ta jasa jaun bateri egokiozanak. Bataz beste, gizaki begiko ta atsegiña begitandu yatan, eta asiera batetik beraganako erakarpen andia oartu neban. Egurastegian zear giñoazala, berba astitsuakaz berari buruzko argibide batzuk emon eustazan.

Alarguna zan aspalditik, eta emaztea il yakonean, etxea ta bere alabatxu Gaizkane jagoteko, ezkongea zan Yokiñe bere arreba etorri zan, eta ordutik, alkartasunik estuenean bizi izan ziran. Yulen'ek ibai-ondoko itsasontzigintza baten ziarduan, eta berak esanakaitik lanarekin oso zaletua zan. Orain bost urte, baiña, biotzeko geisotasunak jota, ezinbestez lanari uko egin bear izan eutsan, eta geiso-sari urri bataz bizitzeari aurre egiteko etsi bear. Zorionez, Yokiñe josle ona zan, eta jardun onen irabazteari bere geiso-saria geituta, polito konpontzen ziran, Gaizkane ikastetxe on baten eziteko beste, izan be. Auxe izan zan Soroa'tar Yulen'ek lenengo egun aretan jakiñerazo eustana.

Astiro giñoazan, egurastegiko aize usaintsua gozatuz, Yulen nire besoari eutsita ebillera. Gero, iradu barik, etxerakoa egiñez besoa estutu eustan, eta mintzo atsekabetuaz,

– Ni ez naz luzarorako, Patxi –esan eustan–, biotzaren makurraz gaiñera, odol-zirkin urrikoa naz, eta batentzat ona dana, bestearentzat kaltegarria. Ez dakit ba noiz arte iraungo do bizirik, baiña ez dot uste luzarorako izango nazanik. Auxe da larritzen nauan oldozkuna... zer billakatuko dira nire arreba ta alabatxua...?

– Begira, Yulen Jauna, ez aurretiaz larritu. Badira beti geisorik bizi, eta luzaro irauten daben gizaki asko. Ez dakigu bidea noiz amaituko yakun...

– Olan da, Patxi –irribarrez eten egin eustan–, baiña arazo orrek kezkatzen nau benetan.

Autu oneri emon bitartean, Klare Done enparantzako arrizko mailladira eldurik, nire besoari eutsita astiro-astiro igon gintzazan. Bazirudian, aurregunean baiño askozaz obeto egoala, baiña etxeko atadira elduta, bere ostereari jaramon egin barik, besoetan artu, eta gora eroan neban.

Olan asi ziran Soroa sendiarekiko nire arremonak. Egunoro, Klare Done enparantzako etxe aretara niñean arratsaldeko bostetan inguru, eta eguraldia ona izanik, egurastera giñoazan, eta txarra zanean, ostera, etxean geratzen nintzan Yulen'ekin alkarrizketan, edo karta-jokoan. Bein baten, iradu barik, oi genduan lez egurastegian zear giñoazala, ito-aldi batek artuta, Yulen jesarri-erazo neban aulki baten, eta eretirako aldean beti eroian pildua artuta gero, bere lengora biurtzen asi zan. Orduan,

– Egunen baren –esan eustan–, olako estu-aldiren bat nire azkena izango da, Patxi. Izan be, eriotzak ez nau ikaratzen, baiña nire arreba-alabak bakarrik geratuko dira, eta onek kezkatzen nau benetan.

– Ez dodaz ulertzen arrenkurok, Yulen. Zure arreba Yokiñe bada nor josketaren bidez bizitzeari aurre agiteko, eta zure alabeari buruz, ezkonduko da ta kitto.

– Auxe da izan be, kezkatzen nauana. Gaizkane ogei urtekoa da, eta ez dot uste ezkontzekotan danik. Gazte batzuk aren atzetik ibilli dira, baiña berak danok ezetsi ditu, eta arein artean bazan bat naikoa abertasa zana.

– Orrek ez zaitu naigabetu bear. Neskazarra izatea bere naia ba'da, ontzat emon bear dozu bere aukerea. Arazo orretan baktokak askatasun osoan autapena egin bear dau. Laga egizu ori, beraz, eta korapilloa berez askatuko da. Neskazarrek etxeoandreak baiño buruauste gitxiago jasan bear ei'dabe...

– Bai, egia da ori, baiña egunen baten bakarrik geratuko ba'litz, bere alboan iñor ez izanik, bizitza itun eta aldapatsua billakatuko yako. Ez neuke ezelan be olakorik gura nire alabearentzat.

– Laga egizu ori etorkiari, eta berez atonduko da.

– Gaixoak ez dau amarik ezagutu. Iru urtekoa zala galdu eban, eta arrezkero biotzeanago izan dot beti. Zorionez, nire arreba Yokiñe gurekin bizi izatera etorri zanean, zelanbait amaren utsunea bete egin dau.

– Txarragoa izango zan zuretzat, Yulen.

– Niretzat...? Ordutik nire bizitza aldatu zan gain-beera, eta bakartasuna nire bide-laguna billakatu zan... bai, barre egitea aztu egin yat ordutik...

Intziriaren antzekoa zan asperen bat urten yakon, eta,

– Goazen etxera, Patxi, –esan eustan zutuntzen zala–, ordua da-ta.

Nire besoaren euspina billatu eban, eta etxerakoa egin genduan astiro. Autu baten bidez saiatu nintzan Yulen'en oldozkun illunak uxatzen, baiña ereti aretan alperrik azaldu zan.

Illabete bat edu onetan igaro zan, eta bein baten,

– Aizu, Patxi –esan eustan Yulen'ek–, biar Igandea, nire jaioteguna ospatzen dogu etxean, eta pozik be pozik artuko zindukeguz bazkaltzera. Bidebatez Gaizkane ezagutuko dozu, ordua da-ta. Etorriko zaiakuz...?

– Baita pozik be, Yulen. Ez neuke, baiña, iñongo oztoporik izan gura.

– Ezelan be ez, Patxi, zurekin bazkaria alaiagoa egingo yaku.

Igandea eldu zan, eta soiñekorik apaiñenaz jantzita, Klare Done enparantzara bideratu nintzan. Ostatutik enparantzara bitartean, uriko onenatariko gozotegia egoan, eta sartuta, gozoki batzuk erosi nebazan. Astiro ibilli nebillela, otorduan Yulen'en etxe-atea jo neban. Atea zabaldu zan, eta iñoiz ez ikusiriko neskatarik ederrena agertu yatan. Asiera baten, beste iñoren atea oker jo izan nebala burura etorri yatan, eta nire utsegitea zuritzeko zorian nintzala, berak,

– Zeu, Patxi zara, urrean, ezta...? –esan eustan–. Aita-izekok zure begira dozuz. Zatoz nirekin.

Mintzo gozo ta atsegiñekoa zan, eta erregin baten azkaiaz ebillela oartu nintzan. Bai, lenengo egunean Yulen'en atadian erdi-illunean ikusiriko neskatarik lirain berbera zala oartu nintzan. Aretoan Yulen nire begira egoan, eta ni agurtu ondoren,

– Aizu, Patxi –esan eustan–, au Gaizkane nire alabea da.

Eta neskatarik biurtuz,

– Au Patxi nire lagun ona dala jakingo dozu onezkero.

Alkarri eskua emoten geutsala, Gaizkane'ren ezpanak irribarre argitsuaz piztu ziran, eta aren begi sakon illunek begiraten eustela, lilluratuta, ez nekian zer esan. Adats gaztinkara naroz inguratuta, bere larmintz bikaiñeko aurpegi zurixka, edertasun betean nabarmentzen zan. Onetan kokaturiko begi sakon illunek, so egiten eusten ur-geldien bakeaz, ezpan gorri beteak irribarreka edegiten yakozala. Eta ustekabez, ez dakit zerk eraginda, biotzaren pilpira arindu yatan, erakarpen esan-eziñaz uztarpeturik sentitzen nintzala. Yokiñe'ren agerpenak lillurea autsi eban, eta eretia ustiatuz, gozokien lotukia eskraturatu neutsan agurtzen nebala. Izeko-lobak sukaldera biurtu ziran bazkariari azken ade-luak emotearren, eta bitartean Yulen eta biok autu nasai bateri emon geutsan.

– Ez nekian, Yulen –esan neutsan–, orren alaba polita zenduanik.

– Bai, bere ama zanaren antzekoa da, bai itxuraz bai oldez.

– Zertan diardu...? –

– Joste-eskolan dabil, gero Yokiñe'ri laguntzeko asmoz, eta dirudianez laster amaituko dau ikastaroa. Izan be, nire arreba lanpetuta dago, eta ondo bai ondo etorriko yako Gaizkane'ren laguntza. Ume-janzkitan aipu ona lortu dau Yokiñe'k, eta badirudi arlo onetan etorki andia dagoala.

Une aretan Yokiñe'k maira dei egin euskun, eta sukalde-alboko gela bateko mai-inguruan laurok jesarrita, bazkari bikain bateri emon geutsan. Bakarreko jateari oitua, egun aretako otordu ona, areago iruditu yatan, Soroa'tarren begikotasunak lagunduta. Nai neban beste sarri Gaizkane'ri begiratzea ez nintzan azartzen zakartzat ez agertzearren, baiña nire soak berenekin gurutzaten ziranean, esan-eziñeko biotz-ikarak jabetzen ninduan. Ez naz gogoratzen egun aretako autu-gaia zein izan zan, baiña bazkaria txit atsegiña billakatu zala esan dagiket.

Amaitu zanean, Yulen eta biok aretora biurtu gintzazan, eta kafea xurgatu bitartean, izeko-lobak ontziteriaren garbiketeari ekin eutsoen. Gero, gurekin aretoan alkartu yakuzan, eta autuan giarduala, Yokiñe'k auxe esonatu euskun:

– Eguraldi ederra da. Zergaitik ez goaz egurastutera...?

Esan eta egin. Andik laster egurastegian zear giñoazan, laster asteko zan udabarriaren arnas yaukalak kutsututa. Yulen eta Yokiñe erdian, Gaizkane ta biok albo banatan giñoazala, gazte apaiña urreratu yakun, eta Gaizkane'rekin izketan asi zan. Enparauok aurrrera jarraitu genduan, bikotea atzetik etorkigula. Ez dakit zergaitik, baiña oarpen aspergarriak menperatu ninduan.

– Orra or Jaime, barrero –esan eban Yokiñe'k–, aspaldi onetan Gaizkane'ren geriza biurtu da. Gazte naikoa aberatsa ei'da, baita uri onetako mutil apaiñenatarikoa be.

Luzaro barik, eta aurpegia zeozer gorrituta ebal, Gaizkane alkartu yakun, eta orduan izekok,

– Arin laga zaitu Jaime'k.

Neskatarik ez entzunarena egin eban, eta andik laster, Yulen nekatu ez zeiten aulki baten jesarri gintzazan. Alako baten, niri zuzenduz Yokiñe'k,

– Aizu, Patxi –itaundu eustan–, zein erritakoa zara...?

– Uri onetako semea naz.

– Esaiguzu zeozer zure bizitzari buruz. Barkatu nire itaunea aspergarria ba'yatzu, baiña lagunen gora-beerak jakitea atsegiña da, ederresten doguzanean batez be, eta zu Patxi, etxekotzat zaitugu.

Une batez isillik iraun neban, eta gero,

– Uri onetan jaio, eta umezurtzegian ezi ninduen. Ara...

Orduan, umetarik gurasoak ezbear baten galdu ostean, zelan ezinbestez sartu ninduen umezurtzegira, eta ango gora-beera batzuk edestu neutsezan. Berba egin bitartean, Gaizkane'ren begi eder sakonak neugan untzatuta oartzen nebazan, eta arein sorgindurak eraginda, edespenari jarraitu neutsan. Edu onetan ordubete bat emonda gero, berandu egiten zanez, Yulen'entzat batez be, etxera biurtzearren edeskiari eten egin bear izan neutsan. Etxerantz giñoazala, Yokiñe'k auxe esan eustan:

– Oso jakingarria da esan dauskuzuna, Patxi, eta entzungurak zirikatuta nozu. Beste urrengo baten, pozik be pozik entzungo dogu gora-beera orrein jarraipena.

Eta olan autu nasaiari emonda astiro giñoazala, Klare Done enparantzara eldu gintzazan, eta atadira sartzean, oi neban lez Yulen besoetan artuta zurubian gora abiatzen nintzanean, esker isillaren antzera Gaizkane'k besoa estutu eustan, eta laztan mutua zirudiana oartzean, zorion bakana nitzaz jabetu zan.

Gau aretan Soroa'tarren etxetik nentorrela, niretzat abagune ederregia zala ostatuan itxita emoteko iruditu yatan, eta ibai-ondoko zugaitzartetik egurastutea erabagi neban. Nire barruan edertasunez beteriko zerbait jaioten asten zan, dana kutsuten eban eresi zoragarriaren antzera, iñoiz ez oarturiko betetasuna nitzaz jabetzen zala, eta gabeko isillean begiak zerura jasoten nebazan bakotxean, izarrak biurturiko Gentzane'ren betsein sakon illunak neugan untzatuta begitantzen yatazan. Ez nekian zer izan zeitekean barruan sentitzen nebana, baiña izate guztia aintzaz beteten eustan, eta orduan oartu nintzan lenengoz, zerua lurrera badatorkela, gure baitan maitasunaren argia pizten danean. Urteetan zear jazo ez yatana, une labor baten gertatu izan zan... Askatasuna galdu izan neban, eta aurreantzean Gaizkane'ren jopua izango nintzakela ondo nekian... Zerbaitek baiñostan, bera nire maitasun bakarra izango zala.

Ordurarte, emakumeek ez eusten buruauste andirik emon, areikandik urrun bizi izan nintzalako, urrean, bizitzak olan nai izan ebalako, edo-ta garrantzirik emon ez neutselako. Dana-dala, neugan lotan egoan maitasuna indar jarki-eziñaz itxartua zan, eta nire zorion edo zorixarrerako, su erraldoiaren antzera dana irusteko gai zan. Gau aretan, ibai-ondoko zugaitzartetik ostatura biurtzen nintzanean, izadiari erion udabariaren aintza biotzera parastaka yatordan.

Oi neban lez, egunoro Yulen'ekin egurastera joaten jarraitzen neban, berarekin gero ta alkartuago oartzen nintzala. Bere osasunak oiko gora-beerak jasaten ebazan, eta nekatauta nenkusanean, aulki baten jesarten gintzazan. Bein baten, oi baiño ondoez andiagoa izan ostean,

– Begira, Patxi –esan eustan–, nire arreba-alabak bakarrik geratu daitezenean, zeugandik zeozer gura izango neuke, eta auxe alegia: zaindu ta babeste dagizuzala. Badira

astebete batzuk ezagutzen zaitudala, eta nire uste osoa zeugan ipiñita daukat. Nik uste, Jaungoikoak nire bidean jarri zaituala, eta augaitik, Yokiñe ta Gaizkane zaindu dagizuzala bene-benetan eskatzen dautsut.

Yulen'en aurpegian zear oiñaze baten itzala edatu zan, eta orduan,

– Nasaitu zaitetz, Yulen –mintzo sasi-alaiaz esan neutsan–, nire aalmenaren giñoan jagon egingo dodaz, baiña kendu gogotik gogoeta illunok, gure azkena noiz izango dan ez dakigu-ta.

–Bai, Patxi, olan da, baiña...

Egunak luzeagoak biurtzen asi ziran, eta augaitik gero ta beranduago etxeritzen gintzazan. Bein baten, illuntze gardenpean enparantza zearkatzen genduala, atadian Gaizkane mutil batekin izketan egoan. Igarotean alkarri agur esanda, Yulen besoetan artuta zurubian gora neroiala, auxe esan eustan:

–Izan be, Patxi, Jaime dalako gaztea ez yat gogokoa. Aberatsa ei'da, baiña arropuzta deritxat. Ez dot arremon andirik izan berarekin, baiña norbait arropuzta danean bereala igarten yako.

Ez neutsan erantzun, baiña arrenkura bakanak artu ninduan. Etxera sartu baiño ez, Gaizkane alkartu yakun, eta oi eban lez agurtu ninduan irribarretsu, lengo kezka ostentzen yatala. Etxekoak agurtuta, joateko nintzala, Yokiñe'k auxe esan eustan:

– Aizu, Patxi, jaiegunetan gurekin bazkaldu dagizun nai dogu, eta biar Igandea dan ezkerero...

– Ez ete izango zuentzat astunegi...?

– Ori abo batez erabagi da etxe onetan, eta ez dozu, beraz, ezetz esaterik.

– Pozik etorriko naizue, baiña...

– Are pozago artuko zaitugu geuk; ez aztu, Patxi, zure bizitzaren gora-beerak jakitearren irrikan gaituzuzala.

Une aretan Gaizkane'ri begiratu neutsan. Neugan jarritako begi illun ederrak itxura bakanaz piztuta begitandu yatan. Niretzat izango ete, ala Jaime bere jarraitzailearentzat...?

Gazi-gezako sentipenaz biurtu nintzan ostatura.

Urrengo egunean, gozotegian erosirikoak bazkalorduan Yokiñe'ri eskuratu neutsazanean, akar egin eustan.

– Begira, Yokiñe –erantzun neutsan–, nasaiago oartzen naz zuei zelanbait ordainduz. Baiña benetan ordaintzeziña da, zuen arrera maitetsua, bakarrik bizi izaten nazanean batez be.

Bazkari bakuna baiña ondo atonduta azaldu zan, Gaizkane'k maizaintzat jarduten ebala. Gero, Yulen eta biok kafea artu genduan aretoan, izeko-lobak sukalde atontzen ebela. Andik ordubete bat-edo, zeregiña amaituta, bildu yakuzan, lau arteko alkarriketeari emoten geutsala. Igande euritsua izanik, etxean geratzea abo batez erabagi zan, eta andik laster,

– Aizu, Gaizkane –esan eustan Yokiñe'k– ez dozu gurekin emon bear arratsaldea. Naiago ba'dozu urten zaitetz oiko lagunekin.

– Ez, izeko –erantzun eutsan lobeak–, eguraldi txarra izanik, naiago dot zuekin etxean geratu.

Zailla da azaltzea erabagi onek eragin eustan zoriona. Askaria artu ondoren, Yokiñe'k auxe esan eustan:

– Patxi, lengo Igandean, zure gora-beeren edesteari jarraipena emongo zeuskiola agindu zeuskun, eta luze-etsiak gaituzuz entzutearren. Asi zaitetz ba.

Lengo Igandean edeskia eten eginda geratu zanetik jarraitu neban, eta astiro, baiña aal neban zeatzen, umezurtztegitik jaurti ninduen artekoa edestu neutsen. Eragingarria zan Gaizkane'ren begi yaukalak nire ezpanetatik dilindan ikustea. Berandu samar egiten zanez, baiña, eten egin bear izan neutsan edeskiari, eta Gaizkane'ren irudi sorgingarria gogoan irarrita, ostatura biurtu aurretik, egurastutera joan nintzan uriko kale euritsuen zear.

Egunak igaro-ala, baiña, agiri zan Yulen'en osasuna beerantza joiala. Gero ta sarriga-
go ibillaldia eten egin bear geutsan, aurpegia errautskara biurtzen yakola. Arratsalde baten etxera biurtuta, Yulen'ek atsedean artzen ebalaretoan, Yokiñe banazean artuta, auxe esan neutsan:

– Esan bearrean naz, Yulen gero ta makalago ikusten dodala.

– Bai, Patxi, neu be oartua naz, eta ez dakit ohea izango ez ete, egurastuari uko egitea.

– Orixe bera gogotik yabildan etxera gentozenean, bere geldialdi ugari ta luzeak oartzean. Bere odol-zirkiñari ez dautso onik ekarriko, baiña niketz osagilleari dei egingo neuskio, azterketa sakona egin dagion.

– Biar bertan orixe egingo dot.

Urrengo egunean atea edegiten eustala, Yokiñe'k esan eustan:

– Txarto dagoala esan daust etxeko osagilleak. Biotza taupada ariñetan dabilkio, eta edozein unean eriotza etorri daitekiola.

– Eta berak ba'daki ori...?

– Ez dausat ezer esan

Oean egoan Yulen, eta ikusi ninduanean, ezpan marguletan irribarre aula agertzen yakola, eskua luzatu eustan auxe ziraustala:

– Ondo etorria, Patxi; jesarri zaitetz nire ondoan, zerbait esan gura dautsut-eta

Isildu zan une batez arnasa artzearren, eta,

– Eguberdian osagillea etorri da –jarraitu eban–, eta aztertu nau. Ni adoretzen saiatu da, baiña bere aurpegi ta berbetan nireak egin dauala igarri dausat. Zoaz parrokira, eta ekarri egistazu abade bat, Jaungoikoarekin onezkoak egin dagidazan. Joan zaitetz lenbailen.

Astirik galtzeke etxetik urten eta parrokira joanda, zaindari egoan abadeari Yulen'en etxera joateko esan neutsan, eta dana bertanbera lagata nirekin joan zan. Laster Yulen'ekin bakarrean egoan, eta Yokiñe'rekin sukaldean batu nintzan. Gaixoari aurpegian beera malkoak eriozan. Ez neban eten egin gura bere oiñazea, eta txoko baten jesarrita, berarekin batean oiñaze bizi ta isillean iraun neban, lekorean illunabarraren itzalak oroz jabetzen zirala. Alako baten, Yokiñe'k,

– Banekian aspalditik au etorteko zala, eta orretara artaratu gura izan dot, baiña bere azkena urreratu-ala, zelan maite dodan oartzen naz. Ontasuna ereintzeko jaio danetarikoa da Yulen nire nebea. Bizitza onetako burrukan ez da garaille azaldu, ikasteko aukerarik izan ez ebalako, urrean, sendi arrunt dirubako bategandik gatoz-eta. Gazterik, amasei urtekoa zala, lan-ikasletzat ontzi-gintzara sartu zan, eta ekiñaren-ekiñez talde-buru izateraiño eldu be. Zoritzarrez, baiña, biotz-makurrak jota, lan egiteari uko egin bear izan eustan.

Isildu zan Yokiñe une batez, eta gero,

– Txarrena, baiña, –jarraitu eban–, bere emaztea il yakonean jazo zan. Gaztea zan ori gertatu yakonean, eta iru urteko Gaizkane jagoteko, dana lagata etxe onetara etorri nintzan. Ordutik, Yulen bere barruan bilduta, oroitzez bizi izan da. Garaia da berak merezitakoa artu dagian. Ni ezjakiña nozu, Patxi, eta filosofia zer dan be ez dakit, baiña bera lako gizaki zuzen eta zintzoa saritzeko, beste mundu bat izan bear dala, niretzat gauza argia da...

Une aretan bertan, Yulen'en autortza artuta, urteteko zan abadeak Yokiñe'eri autua eten egin eutsan, eta oneik ateraiño joan bitartean, Yulen'egana biurtu nintzan. Oi eban antzera irribarre egin eustan gozo ta maitetsu.

– Jesarri zaitetz, Patxi –esan eustan mintzo neketsuaz–.

Olan egin neban, eta berak arnas-estuka,

– Badakit, Patxi –esan eustan–, itsasora biurtuko zarala, baiña azken illabeteotan zu ezagutzeko aukerea izan dot, eta auxe eskatzen dautsut biotzez: joan naitenean, etxe onetara etorten jarraitu dagizula, Yokiñe ta Gaizkane'n oiñazea arintzeko, eta lenengo aldi-tan batez be laguntzeko. Gauzak baretu daitezenean, eta euren esku bizi izateko gai dirala ikusi dagizunean, orduan itsasoratu zaitetz, baiña arren, aal dozunetan zatoz etxe onetara, eta jagon egizuz... Esaidazu olan egingo dozula, Patxi, nire adiskide zintzo orrek...!

Berbak koloka urtetan yakozan, eta oneik ez galtzearren burua makurtu bear izan neban iñostana aditzearren. Orduan,

– Bai, Yulen –baretu neban–, olan izango da. Nasaitu zaitetz, zeuk nai dozun lez egingo dot. Orain atsedean artu, bear dozu-ta.

Etxetik urten nintzanean, udabarri-egun aretako eguzkia eriotzaldi odoltsuan ostentzen zan itsaso-mugan, eta kaden sakonak jabetuta, ibilte norabakoari emon neutsan uriko kaleetan zear. Nire oporraldia amaitzeko zorian zan, baiña egoera aretan ezin neintekian itsasoratu eta bertanbera Yulen-eta itzi. Legorreko egotaldia zelan edo alan luzatu bear izango neban, eta orretarako luzapena jaritsi bear.

Urrengo goizean, “Mendigarai”ko jabeakana joanda, bearrezko luzapena eskatu neban, baita mugabako baimena lortu be. Barriro ontziratzeko; ez neban besterik egin bear, gura nebanean jarduna eskatu baiño. Onek nasaitu ninduan, eta oi neban lez Yulen ikertzen jarraitu neban. Erabagi izan genduan Yokiñe'k eta biok, Yulen'en egoera txarragotuko ba'litz, astirik galtzeke mezu bat nire ostatura igorriko leuskidala. Eguberdi baten, ostatutik urten-agifian nintzala inguruko jatetxe baten bazkaria izateko, ariñeketan etorritako mutiko batek, Yulen'en etxera lenbailen joateko esan eustan. Arrapalada

baten Klare Done enparantzara joanda, etxeko zurubian gora oldartu nintzan, eta atea jo neban.

Yokiñe'k edegi eustan, eta bera ikustean, dana amaitu izan zala ulertu neban. Malkoak eriozan borborka, eta isillean besarkatu ninduan negar-zotinka. Gero, Yulen'en gelara lagundu eustan. An zetzan nire adiskidea begiak itxirik, eta eskuak gurutz baten inguruan tolestuta. Aurpegiari iñoiz ez ikusiriko bakea erion, eta bultz batek eraginda, makurtu nintzan bekokian musu anaikorra emotearren. Au egitean, naigabeak sortuta, malko lodi bi aurpegiaren beera jausi yatazan. Zutundu nintzanean, nire aurrean Gaizkane ikusi neban, bere negar-apuluen zear begizatzen ninduala. Nire malkoak ezkutatzearren sukaldera joan nintzan, baiña baietz egingo neban berak ikusi izan eustazala.

– Zelan jazo da...? – itaundu neutsan Yokiñe'ri .

– Goizean, beti lez gosaldu egin dau, eta gero egunkaria ekarri dausat. Andik ordu-bete batera-edo, lo-gelara sartzean, egunkaria sorura jausita, eta bera geldi-geldi egoala ikusi dot. Orduan beragana joanda, il zetzala oartu naz, eta erabagia lez, auzoko mutillaz lenbailen etorteko mezua igorri dausut.

Malkoai eutsi eziñik, Yokiñe isildu zan. Une aretan Gaizkane alkartu yakun eta illertari buruzkoak erabagi genduzan. Urrengo eguneko eguberdian eleizkizunak izango ziran, eta jarraian lur-emotea uriko illerrian. Astirik galtzeke ba, parrokira abiatu nintzan, eta urrengo eguneko eleizkizunak atondu nebazan. Soroatarrak ez ziran arremon andikoak, baiña illeta ederrak egiteko, abesbatza ta guzti, baita argi guztiak piztu zeitez an agindu neutsan parrokoari.

Jarraian, illeta-etxeko idaztegiaren, eorzketeari egokiozanak atondu nebazan. Zerraldo apaña aukeratuta, illobi duin bat gertatu egien agindu neutsen. Illundua zan etxera biurtu nintzanean. Orduko, il-soiñekoz jantzita egoan Yulen, eta bere ondoan belauniko, Gaizkane'k otoi egiten eban. Ez ninduan entzun, antza, eta ondoratuta, burua laztandu neutsan samur-samur, auxe nirautsala:

– Ez larritu, Gaizkane, azkenean larrialdiak joanda, bakea ta zoriona ezagutzen ditu.

Jagi zan, eta bere lañoturiko begietan, laztanaren antzekoa zan argi bat ikusi neutsan, eta burua nire bularrean jarrita, negar etsiari emon eutsan. Olan asazkatu zeiten itzirik, gero sukaldera eroan neban jesarri ta janaritu zeiten. Yokiñe'k atondutako aparitik gogo barik zeozer jan genduan. Bitartean, eta izeko-lobak adoretzearren, itsasoan izandako gora-beera batzuk edestu neutsezan, eta gero atsedean artu egien ostatura biurtu nintzan.

Urrengo goizean Soroa'tarren etxera biurtu nintzan. Auzoko jendeaz beterik egoan, eta oiko leloak jasan eziñik, kalera urten nintzan, eta Yulen'ekin ibillitako lekuak ikertu nebazan barriro, ildako adiskidearen oroitzak gomutara nenkarrezala. Gero, biurtu nintzan, eta andik laster gurdia etorrira, Yulen'en zerraldoa sartu eben, eta eleizara abiatu gintzazan. Eleiza andia zan, eta jende askorik ez izanik, are andiagoa zirudian. Aurreko aulkian, Yokiñe'ren albo banatan jarri gintzazan Gaizkane ta biok. Niketz, atzeragoko leku baten egokituko nintzakean, baiña bere ondoan jarri neinten eskatu eustan Yokiñe'k. Iru abadeak mezea esatera sakristegitik urten ziranean, eleizea, otz, illun, eta ia utsik

egoan. Bapatean, argi guztiak piztu ziran, eta organua ozenki jotzen asi zan. Bazirudian, zerbaitek koba illun batetik zeru dizdiratsura gindaroazala, eta izan be, aintzatic bialtzen euskun Yulen'en agurra begitandu yatan. Zearka begiratzean, Yokiñe ta Gaizkane'ren masailletan beera malko isillak eriezala ikusi neban. Organu ta abesbatzaren eresi yaukalen artean, il-mezea bikaiña azaldu zan, eta ezin nengikean burutik kendu, argi ta eresi areitan, Yulen'en zorion-agurra zelanbait etorkigula. Sermoia bakun eta labur, ona iruditu yatan. Aspaldi zan otoi egiten ez nebala, baiña ereti aretan sutsu ta biotzez, Yulen'ek mezezi eban zoriona idoro egiala erregutu neban.

Mezea amaitu zanean, berebil baten il-errira joan, eta an geratu gintzazan, zerraldoa jatsi, eta lenengo mokillak obira jausi arte. Orduan, Yokiñe ta Gaizkane andik urten-erazo nebazan, eta berandu samar izanik, izeko-lobeen osterai jaramon egiteke, jatetxe batera eroan nebazan. Ez genduan askorik jan, baiña niretzat naikoa izan zan, Gentzane'ren begi yaukal illunak noizean bein neugan josirik ikustea. Alako baten, Yokiñe'k auxe esan eustan:

– Baiña Patxi, zelako illetak agindu zenduzan atzo...? Aztu egin yatzu, antza, jende arrunta gareala. Gaurko illetak aberats bateri dagokiozanak izan dira. Ederrak benetan, baiña ez dakit zenbat balioko daben, eta Gaizkane ta biok aurkitzen garan atekan, orreri ez deritxat ondo, dirua gauza beñagoentzat bear dogu-ta. Eta gaiñera, illobia...

– Barkatu egiztazu, Yokiñe, baiña gaurko illetak eta eorzketea nire kabuz izango dira.

– Baiña ori ez da bidezkoa, orreik sendiari dagokiozan eralguntzak dira...

– Olan izango da geienetan, baiña nire ustez, senitartekoa ez izanik be, adiskide on baten alde zeozer egiteko eskubidea ezin daitekit kendu. Bera izan da niretzat aita lakoa, eta zorion-une ugari ekarri dausto nire biziera bakartiari, baita bide arteza zein dan erakutsi be. Mezedez, Yokiñe, ez bedi orretzaz besterik esan.

Gaizkane'ren begi ederretan agertu zan argi samurra, naikoa ordaintza izan yatan, eta nire biotzari taupadea arindu yakon. Gero, astiro biurtu gintzazan etxera, eta Gaizkane'k etxe-atonketeari emon bitartean, Yokiñe banazean artuta, auxe esan neutsan:

– Begira, Yokiñe, ni ez naz nor beste iñoren arazoetan esku-sartze izateko, baiña il aurretik, Yulen'ek zuen alde aalegintzeko agindua emon eustan, eta au dala-ta, zeugandik jakin gura izango neuke, zelako egoeran aurkitzen zarien. Arren, au ez artu jakinaikeritzat.

– Eskerrik asko, Patxi, eta zeugan uste on guztia jarrita dodan ezkerro, ona emen gure ateka: dakizunez, ume-joskillea naz, eta aurrera joateko beste irabazten dot, eta are geiago kontuan arturik, ikaskuntza amaituta, Gaizkane'ren laguntza izango dodala. Oiko bearrizanari aurre egiteko, beraz, gauza izango gara, baiña...

Isildu zan Yokiñe, azalpen-emotea nekegarria bai'litzakion, eta bere estura ikustean,

– Esaidazu dana, Yokiñe –eskatu neutsan–.

– Ara ba... –lotsaturik lez asi zan Yokiñe–. Badira urte batzuk etxe au erosteko eskubidea artu genduala, illero diru-zati bat ordaintzekotan. Yulen'en geiso-erretiroaz naikoa ta geiago zan illeroko ori ordaintzeko. Orain, baiña, bera joanda, diru-laguntza ori ostenduko da, eta estu ta larri ikusiko dogu gure burua Gaizkane'ek eta biok, ordaintza ori egiteko.

Lotsak gorrituta, isildu zan Yokiñe, begiak soruan josita.

– Zenbatekoa da illeroko ori...?

– Iru milla pezetakoa.

– Begira Yokiñe, eta ez artu arrokeritzat, baiña diru ori neuk emongo dautsut.

Au entzutean, begiak eskerronezko itxuraz piztu yakozan, eta mintzo dardartsuz,

– Eskerrik asko, Patxi, baiña aal dogunean atzera emoteko baldintzaz izango da.

– Noiz amaituko da ordain-epea...?

– Nire ainbaketearen arauz, urtebete biren barruan. Orduan, etxe onen jabeak billa-katuko gara. Ez dakit, baiña, zuretzat lor andirik izango ez ete...

– Ez, Yokiñe, zorionez ez da niretzat lor andirik.

Gero, Gaizkane bildu yakun, eta alkarrizketa bateri emon geutsan illuntzerarte. Apalordua zan, eta etxetik urten-agiñean nintzala,

– Aizu, Patxi –eskatu eustan Yokiñe’k–, etorri zaitetz etxe onetara Yulen bizirik egoanean lez. Guretzat pozgarria izango da.

– Baita niretzat be, Yokiñe. Etorriko naiatzue. Agur.

Urten nintzanean, ibillaldi alderrai bateri emon neutsan, gogotik kendu ezin, neban adiskide bakarra egun aretan, lurpean geratu izan zala, eta mundu onetan ez neukela barrero ikusiko. Yulen galduta, orain oartzen nintzan noraiño sartu izan yatan biotzera, eta aren begien so baketsu ta adiskidetsua, ezin nengikean kendu irudimenetik. Ibilli nenbillela, baiña, Gaizkane’ren begi sakon maitagarriak agertzen asi yatazan, Yulen’ek niri lagatako yarauntsia bai’litzan, zelanbait naigabea arinduko leuskidan beragandiko azken emokaria... Aren alabea zoroki maite izaten nebala oartzen nintzan, baita onek zoriona ala zoritxarra ekarriko eustan be...

Egunero ba, Klare Done enparantzako etxea ikertzen neban, arratsaldeko bostatik zazpirak arte. Yokiñe’rekin alkarrizketa bateri emoten neutsan eta autu au berarentzat aringarria ba’zan, niretzat ez zan are gitxiago. Gaizkane’k azkenengo joste-ikastaldia artzen ziarduan, eta luzaro barik izekoari laguntzeko gai izango litzake. Tamala neban neskatilla maitagarria ez ikustea, baiña egoera aretan ez neritxan ondo gauzak bere bidetik atarateari. Noizbait, Larunbata etorri zan, eta arrasti aretako ikertaldia amaituta, urteteko zorian nintzala, Yokiñe’k auxe esan eustan:

– Aizu, Patxi, biar Igandea da, eta Yulen bizirik egoanean lez, gurekin bazkaltzera etorriko zara.

Au entzutean, biotz-ikara batek jabetu ninduan, Gaizkane ikusteko eretia izango neukelako, eta eskeintza eskerronez onartu neban.

Urrengo egunean, oi izan neban lez Yulen bizirik zanean, gozopil ederra erosi, eta izeko-loben etxera joan nintzan. Oi eban lez, Yokiñe’k akar egin eustan, egiñiko eralguntzagaitik, beña neuk be oi neban lez ez neutsan jaramonik egin. Gero, Gaizkane agurtu neban, eta aren begi yaukalen lastana artzean, zorion bakanak menperatu ninduan. Bazkaria atsegia izan zan, eta sei egun baiño ez izanik Yulen il zanetik, gure barruko dendua gordeten saiatu gintzazan.

Bazkalostean, len oi genduan lez, akeita edo kafea iker-aretoan artu genduan. Autu nasaiari emonda, bostak jo ebazan ormako ordulariak, eta orduan Yokiñe’k,

– Patxi –esan eustan–, eguraldi eder-ederra da. Zergaitik ez zoaz Gaizkane’rekin osteratxu bat egitera...? Aspaldi onetan Gaizkane’k ez dau iñongo egurasketarik egin, eta ordua da aize garbi osasungarria artu dagian.

– Baita pozik be, nire aldetik –erantzun neutsan .

Andik ordu-lauren batera, kale-soiñekoz agertu zan Gaizkane, eta urten gintzazan. Enparantzan zear giñoazala, zauskada andipean ez nintzan azartzen neskatillari ezer esan ez begiratzerara be. Ezin gengikean olan luzaro jarraitu, eta,

– Aizu, Gaizkane –esan neutsan–, nora joan nai izango zenduke...?

– Bardin yat, Patxi, naiz batera naiz bestera.

– Zer deritxazu egurastegira joateari...?

– Oba ez, Patxi –esan eustan irribarre gozoaz–.

Joan gintzazan ba erriko egurastegira, egun aretako eguraldi zoragarria gure autugaia izanik. Ibilli genbiltzala, Yulen eta biok jesarri oi gintzazan aulkira elduta,

– Begira Gaizkane, aulki onetan zure aita zanak eta biok atsedean artu oi genduan, edozein gaia aututzat artuta. Nai izango zenduke jesarri gaitezala...?

– Baita pozik be, Patxi.

Jesarri gintzazan, eta kadenaz beteriko neskatillaren begiak urrutian galduta, bere aurpegiaren ebakun zoragarria begiztaten nebala,

– Sarri askotan –asi nintzan–, zure aitak ontzi-gintzako jardunari buruz argibideak emostazan. Bere egitekoa maite eban benetan, eta pozgarria yakon aren gora-beerak emotea. Orduan zorionsua zan, eta bere gauzak edestean, bazirudian zorion andia bertaz jabetzen zala.

Begi andi, sakon, ederrakaz, begiztatu ninduan Gaizkane’k, eta abotsa dardar bakanak astinduta,

– Oso ona izan zaiakoz aitari, eta ordua da, eskerrona agertu dagizudan egiñagaitik. Aitak zutzaz beti berbetan ziarduan, eta zeuri esker, bere azken egunak jasankorrako egin yakozan. Eta gaiñera, azken emoitzaz zeuk agindu ta ordaindutako eleizkizunak eta obia, bikaiñak izan ziran.

– Ez daustazu iñongo eskerronik agertu bear origaitik. Benetan, Gaizkane, olan egin aal izateak poztasun andia ekarri daust. Ez dakit zure aitari zenbat emon neutsan, baiña berak niri emondakoa askozaz andiagoa izan zan.

Orduan Gaizkane’k so adiskidetsua niri zuzenduz,

– Izekok eta biok ez dogu iñoiz aztuko aitaren alde zeuk egiña.

Autu-gai au zerbait zailla yatanez, saiestarren, auxe esan neutsan:

– Berarekin lanean laster asiko zarala, esan daust izekok.

– Bai, aste baten buruan joste-ikaşketak amaituta, lanean alkarrekin jardungo dogu. Ume-janzkiak etorki andikoa ei’dira...

Edu onetan, Gaizkane’k bere asmoen gora-beera batzuk emon eustazan, eta astia arin joanda, zazpirak jo-agiñean zirala, kafetegi batera askaria izateko dei egin neutsan, eta biok aurrez-aurre jesarrita, gure autuari jarraitu geutsan. Itauak egiteko txandea orain Gaizkane’ri etorri yakon, eta bere begien sorgindureak eraginda, nire bizitzaren

zertzelada batzuk edestu neutsazan. Astia arin baten igaro zan, eta bederatzietan etxera biurtu gintzazan. Orduko, asierako lotsa galdurik, gure autua gero ta errazago, gero ta nasaiago biurtzen asten zan. Etxera eldutakoan, Yokiñe'k pozik abetaldu ginduzan. Ostatura biurtzen nintzala, zorion bakanpean, nire jaioterrria iñoizkorik ederren begitandu yatan.

Egunoro Soroa'tarren etxea ikertzen neban, eta ordubete bateko autua Yokiñe'rekin izaten neban. Andik egun batzutara, jorsketa-ikastaroa amaituta, Gaizkane etxean geratzen asi zan izekoari lanean laguntzeko, eta izeko-lobak josteari ekiten eutsoela, iruron artean alkarrizketa bateri emon oi geutsan. Udabarri betean gengoan, eta egunak luzatu izan ziran nabariki. Arratsalde baten, ordubeteo autua amaituta, etxetik urteteko zorian nintzala, Yokiñe'k auxe esan eban:

– Zazpirak dira, eta zeuk, Gaizkane, naikoa lan egin dozu gaurkoz. Zergaitik –niri mintzatuz–, ez zara urtetan Gaizkane'rekin... ? Eguraldia bikaiña da, benetan, eta tamala litzake etxean geratu zaitez. Zoaze ba, eta ustiatu gaurko eguraldia.

Zauskada andipean, Gaizkane jantzi zeiten itxaron neban, eta gero maitasunez dar-dar, enparantzara urten gintzazan. Alako baten, Gaizkane'k,

– Aizu, Patxi –esan eustan begi eder illunak neuretan untzaturik–. Zergaitik ez daustazuz edesten zure gora-beerak, asiera batetik gaurdaiño...?

– Onezkero zati batzuk ezagutzen dozuz, eta aspergarria izango litzakizu barrero be entzutea.

– Niretzat ez dira aspergarriak izango, Patxi. Aitzitik, gauza zudugarriak ez dira iñoiz astunak azaltzen.

– Eta zeuk, Gaizkane'k, noiz esango daustazuz zure gora-beerak...?

– Nire bizitzak ez dau aipagarririk ezagutu. Beti bardiña izan da aita-izekoai lotuta. Zeurea, ostera, zudugarria ta liburu mardo bat idaztea merezi dauan orreitarikoa da.

Au esatean, begiak niri zuzendurik irribarre egin eustan, eta aren sorgindurak atxillo eginda, Umezurtzegiko gora-beerakaz edeskiari asiera emon neutsan. Egun aretatik, zazpiretan inguru, egunoro osteratxu bat egiten genduan, eta olan ezarian lez, nire bizitzaren zertzeladak jakiñerazo neutsazan. Dana ez, baiña. Bildur nintzan, Txiritxu'rekin egiñiko lapurreta areik, nigan jarrita eban uste ona laskitu zeiten, eta augaitik, zati au isildu neutsan. Eta bizitzaldi ori izan ezik, iradu barik, askotan edeskiari eten egiñez, bere itaunen bateri argibideak emoteko, nire bizitzari buruzko guztia esan neutsan.

Egunoro, ibillaldia astean esan oi eustan:

– Patxi, atzo auxe ta auxe esan zeustazan. Zer jazo zan arrezkero...?

Orduan, izar illunak zirudien aren begi zoragarriak nireetan josita, irribarre egiten eustan, eta lillureari jarki eziñik, aurreguneko edeskiari jarraipena emoten neutsan. Asiera batetik erakarri ninduan Gaizkane'k, baiña egunak igaro-ala, lengo erakarpena maitasun sutua biurtu yatan. Agiri zan niretzat, bera barik ez nintzakela zoriontsu izango, eta nai-ta-ez, nire maitasuna aurtortzeko ordua urreratzen zala; baiña nire aldetik zitalkeri andia izango litzake autorpen ori egitea, aspaldiko lapurreta areik autortu barik. Olakorik isilduko ba'neuskio, ez nintzake bere maitasunaren duin izango, eta arlote andia izan arren be, ez neban ezetariko eskubiderik orren zikin jokatzera. Bestaldetik baiña, bildur

nintzan ezkutu orrek nigandik urrundu egian nazkatuta. Egun batzuk iraun neban erabagirik artzeko gai ez nintzala, korapilloa gero ta andiago billakatzen zala, nire maitasunaren giñoan izan be. Niretzat, Gaizkane edertasun-eredua zan, baiña egunak igaro-ala, bere barrukoa agertzen asi yatan, eta aren arimea kanpokoa baiña ederragoa zala ikusi aal izan neban. Ez nintzan iñoiz maitekerietan ibilli nire bizitza urdurian, baiña orain, nire maitasuna iratzarrita, gar erraldoiaren antzera garatu izan zan. Gaizkane barik nire bizitzak ez leuke senik izango, eta nire izate guztia berarentzat izango litzakela, ondo bai ondo nekian.

Ezin nengikean arazoa luzaroagorik geroratu, eta bein baten uxaeziña zala oarturik, egurastegiko oiko aulkian jesarrita gengoazala, nire indarrak bilduta auxe esaten azartu nintzan:

– Begira, Gaizkane, onezkero nire bizitzaren gora-beerak ezagutzen dozuz, eta badi-ra egun batzuk, zeozer itaundu gura dautsudala, baiña orren aurretik, niri dagokidan ezkutuki bat ezagutu bear dozu...

Ez nekian zelan jarraitu, eta isillune baten ostean,

– Ez dautsut egi osoa autortu –arrenkura bizipean esan neutsan–. Ara... Perutxu ilda gero meatz-zulotik urira jatsi nintzanean, Txiritxu izeneko ezagun batekin, lapurreta zitailai emon neutsen...

Eta jarraian, zeatz-zeatz, nire bizitzaren zati iguingarri au edestu neutsan. Edeskiak iraun bitartean, lotsaren-lotsez begiak lurrean josita nebazan, eta amaitu nebanean, bere aurpegi zoragarriari begiratzea azartu barik,

– Orain, Gaizkane, dana dakizu...

Ez eustan ezer erantzun, eta bere isiltasuna jasan eziñik begiratu neutsan. Aurpegia geldigeldi, urrutira so egiten eban, eta bildur esaneziñak menperatuta, nire buruari itaundu neutsan, zentzun barik jokatu ez ete neban, bere maitasuna betirako galdurik...

Alako baten, astiro ta mintzo leunaz, auxe esaten aditu neutsan:

– Zer zan itaundu gura zeustana...?

Bildur bakanak artuta asiera baten itz egitera ez nintzan azartu, baiña biotz-eragiñari eutsi eziñik,

– Orain badakizu zelakoa izan nagan –esan neutsan dar-dar baten–, eta jakitun ipiñi gura izan zaitut, zure erantzuna baiña len. Maite zaitut, Gaizkane, zorotzeraiño izan be. Asiera batetik maite izan zaitut, ezagutu zindudazanetik... Ez dakit oba izango ez ete nire ezkutu au niretzat bakarrik gorde izatea, baiña menperatzen nauan maitasun zoroak autortzera eragiten nau... Ez nozu maite izango apur bat...?

Eta orduan... esku bat neurean jarrita, begietara so egin eustan... eta aren betseiñen so illunkara gozoa biotzeraiño oartu neban, irribarrez auxe ziraustala:

– Neuk be maite zaitut, Patxi, ez apur bat, arima guztiaz baiña, eta gaur iñoizkorik geien, autorpen ori egiteko izan dozun kemen eta zintzotasunagaitik.

Nire besoaz inguratu neban, eta apa-laztandu neutsazan ezpan eta begiak. Gero, zoriona menperatu eziñik, irribarrez,

– Ez dozu eragozpenik izango, etxe-lapur bat senartzat artzeko...?

– Ez zaitut lapurtzat, Patxi. Ezinbestez, eta bizi aal izateko egin zenduan ori. Gizar-tearen oparia izan zara, eta baldintza areitan, bizirik iraun aal izateko egin zenduana, ez daukat pekatutzat.

Au esatean, Gaizkane'ren begi illun sakonek lazandu ninduen, eta abo samurraren irribarre ezta, eguzki-printz lakoa arimearaiño sartu yatan, eta zoriona jabetu eziñik, esku bigunak musuz estali neutsazan. Illuntzea asten zan orduko, eta alkarri begiratzen geutsala etxerako bidea artu genduan. Ain zorionsua izatea eziña iruditzen yatan, baiña alboan neban Gaizkane'ren begikadak eta mintzoak, nire zoriona benetakoa zala adierazoten eusten. Naigabe ta bearrian andiak jasan izan nebazan, nire bizitza alderrai eta garratzean, baiña dana ontzat emoten neban, orain lako unetxu baten ordaiñez. Arimaren aintzapean nire soñiak ostenduta zirudian, aingeru batek zeruan zear eroango bai'ninduan.

Etxera eldutakoan, Yokiñe gure maitasunari buruz jakitun ipiñi genduan, eta,

– Orixe baiño barri obarik, ezin zengikiden emon –esan euskun–. Aspaldi onetan otoi ugari egiña nozue ori jazo zeiten, eta ziur naz Yulen bizirik izan ba'litz, biotz-biotzez onartuko ebalu zuen maitasuna. Izan be, alkar ondo ezagutzen dozuen ezkerro, aalik ariñen ezkondu zeitezan onena izango litzake.

Ezin nengikean Yokiñe'gandik ori baiño gauza atsegiñagorik entzun. Urrengo egunean, iruron artean arazoa aztertu genduan arduratsu, eta ona emen artu genduzan erabagiak: ezkontza iru illabete barruan ospatuko litzake, epe orretan Gaizkane'ren arrioa egiteko, baita etxeak bear izaten ebazan atonketak burutzeko be. Etxea margoztu, sorua atondu, gure gelarentzako errediz barriak erosi, eta beste atonketa txikiak egin bearko ziran.

Ezkontzari buruz, beste arazo bat eta ez txikia aurkeztu yatan. Gutariko iñork ez eban gura, ezelan be, itsasgoari emon nengion, eta nik diru batzuk aurreztuta izan arren, egokia zan legorrean bizibideren bat lortzea, eta ez edozelangoa, nire ikasketak egokion baiño, gure sendiari duintasunez eusteko gai izango litzakena. Zin egin neutsan nire buruari, Gaizkane'ri zor neutsan begiruneagaitik, ez nintzakela ezkonduko bizibide ori jarritsi arte. Augaitik ba, billaketa orreri emon neutsan buru-belarri.

Goizoro ostatutik urtenda, aspaldi baten egin oi neban lez, egunkariak erositara, irakurri nebazan burutik azkeneraiño. Eta aspaldian lez, amaibako ikerketak emon neutsan, zelako agiriak kondalari-jardunean aurkeztu nengikeazan eskatzen eustela. Alor orretan iñongo egiztapenik aurkeztu ez nengikean ezkerro, ez ninduten onartzen, etsipena barriro nitzaz jabetzen zala. Zorionez, arratsaldeoroko egurastuan, begiak neugan untzatuta, Gaizkane'k auxe esan oi eustan:

– Saiatu barriro, Patxi. Ziur naz lortuko dozula, gure maitasuna oroz gaiñetik garaille urtengo da-ta.

Eta beragandik erion sorgindurak, urrengo egunerako indar barria emostan. Bein baten, baiña, nire amesa jaritsi neban, Gaizkane'ren igarkizuna egi biurtzen zala. Goiz aretan, onoko iragarkia begiz jo neban: “Etxegintza-gaietan diarduan baltzuak, kondalaria bear dau”. Jarraian, ondo ezaguturiko kale baten zenbakia. Itxaropen andi barik bertaratu

nintzan, eta idaztegi apain bateko atea jo neban. Andereiño batek edegi eustan, eta iragarkiarene arazoak nindekarrela azaldu neutsanean, areto txukun batera eroanda, jesarri neintela eskatu eustan. Maitxu baten gaiñean aldizkari batzuk egozan, eta astia emoteko areitariko bat irakurten nebala, atea zabaldu zan, eta neu lako gazte bat aurkeztu yatan. Onen aurpegia ikusi baiño ez, len ezaguna nebala antz emon eustan, eta izan be, zuzen nengoan... Nor eta Toribio “Tori” esaten geutsan ikastetxeko laguna...!

– Tori –oiu egin neban–, aspaldiko, emen zu ikusi bear be...!

– Bai, Patxi –esan eustan bostekoa emonez–, ez neuke iñoiz uste izango, erriko egunkarietan jarritako iragarkiarene ondorioz, zerori etorriko zintzakigula jardun orren eske. Urte asko dira alkar ikusi ez dogula. Zer egin zenduan, arrote orrek, ikastetxetik jaurti zinduezanetik ona...?

Ez yatan bape atsegin, ainbeste urte igarorik, ikusi baiño ez, ikaskide batek arira ez etorren jazoera bat, aurpegira jaurti egidan, baiña ez entzunarena egiñez,

– Ikastetxetik urten eta laster –erantzun neutsan–, lanean asi nintzan. Ara...

Jarraian, eta irazezan, nire gora-beerak edestu neutsazan, aipatu barik, jakiña, espetxean lapurtzat izan nintzala. Amaitu nebanean,

– Aizu, Patxi –esan eustan Tori'k–, diñostazunez, kondalariaren ikasketak egin zenduzan. Ikusi dagiket zure agiria...?

Barriro be, ez yatan ondo begitandu, antxiñako ikaskide batek, nire ikaste-agiria eskatu egidan, baiña gerturik nentorrenez, akademiko baimendun-agiria atara ta erakutsi neutsan. Irakurri ondoren,

– Ez dot iñoiz akademi orren izena entzun. Zelakoa da...?

– Besteak lez gitxi-gora-beera. Baimendua da agiriak emoteko, eta orrek zeozer esan gura dau.

– Eta zergaitik ez dozu orain arte kondalaritzat jardun...?

– Ikasketak amaitu nebazanean, olako jardun bat jaristea oso zailla egin yatan, eta ezinbestez itsasoari emon neutsan, eta orain arte lan orreri eutsi dausat. Orain, baiña, ezkondu nai dodan ezkerro, legorrean jardun bat lortzea dagokit, eta augaitik emen nozu lan orren billa.

Oldozkor geratu zan Tori une batez, eta gero,

– Ara... jarduna zuretzat izango da, baiña oiko baldintzaz, au da, iru illabeteko saio-jarduna egitekotan, eta epe ori igarota gero, zure erabiltea ontzat emoten ba'dogu, etxe onetako erroldan sartuko zara. Oraingo kondalaria zaar-sariduna biurtuko da illabete biren buruan, eta aren egitekoa artuko dozu. Egoki litzake, beraz, orren aurretik amabost egun berarekin emon dagizuzala, arazoa ondo menperatu dagizun.

Au entzutean, kezka batek artu ninduan, eta auxe alegia: jarduna artu baiño len ezkondu bear izango neuke. Alde au alkartu bear zan amabost eguneko aurre-jardunarekin, eta ori Tori'ri azaldu neutsan. Onen ondorioz auxe erabagi genduan: bigarren illabetea astean, amabost eguneko aurre-jarduna egingo neuke etxeko kondalariarekin, eta gero ezkonduko nintzake amabost eguneko eztegu-osteko txangoa egin aal izateko. Onen ostean, “Etxegillea” eritxan baltzuan lanean asiko nintzake.

Gora-beera oneik aztertuta, Tori'ri agur esan neutsan, eta pozaren-pozez etxera biurtu nintzan, Gaizkane'ri dana esateko. Klare Done enparantzako etxera sartu baiño ez, nire maitea jakitun ipiñi ondoren, eta izekori eritxia eskaturik, auxe erabagi genduan abo batez. Urrilla'ren erdi-aldean ezkonduko gintzakez, eta orduko etxe-atonketea burututa izango litzake ta gure lo-gela erosita. Amabost egun iraungo leuken eztegu-osteko txan-gotik biurtzean, "Etxegillea"n lanean asiko nintzake. Etxeko barriztapena asia zanez, esandako eperako gerturik izango litzake. Gure lo-gelaren erredizak aginduta egozan, eta illabete baten buruan eskuratuko leuskiguez. Eta izan be, dana jazo zan aurretiaz asmatu-ta lez.

Bajoiazan egunak alkarri jarraituz, nire zoriona anditzen joiala. Gaizkane'ren barru-koa ezagutu-ala, gero ta erakarriago oartzen nintzan. Aren betsein ederretan bere arima kokatua nenkusanean, ez neban besterik ikusten itxarokidan etorki zorionsua baiño. Ez neban iñoiz uste, maitasuna orren ederra izan zeitekeanik, ez urrik emon be...! Nire atzo zoribakoak iges egiten eban, gaurko zorionak uxatuta. Sarri askotan berak auxe itauntzen eustan:

– Patxi, zorionsua sentitzen al-zara...?

– Amesik zoroenetan uste izango ez neukean beste. Zergaitik itauntzen daustazu ori...? Ez al-da agiri neugan zure ondoan zein zorionsua nazan...?

– Bai, Patxi. Bizitzan zear jasan dozunaren ostean, ondo irabazi dozu itxaropen au.

– Begira, Gaizkane, ez dot iñoiz jakin benetako maitasuna zer dan, zu ezagutu arte. Eta oraingo unetxu batek, jasadako urte askotako zorigatxa ezabatzen dau. Eta zeu zorionsua zara neu lako arlotea alboan izanik...?

– Nork esan dautsu arlotea zareala...?

– Ezagutu nauenek abo batez arlote anditzat nabe.

– Ez dakit nortzuk izango diran, baiña nik ziñez diñotsut gizon maitagarria zareala. Zeurea lako arlotekeria andiki ta aberats askok eurontzat nai izango leukie, zeu lako urrezko biotza izatekotan. Benetan diñotsut, Patxi, irauñ beti orain zarean lez.

– Gaizkane...!

Biotzeraiño erakarririk, aren adats zirikotsua maitasunez gaiñezka apa laztandu, eta bera ezagutu neban ordua bedeinkaturik, bere ontasun eta erakarpenak izaera osoa beteten eustela oartu nintzan. Jaungoikozalea zan, baiña azalkerririk bage. Beiñola, eleiza baten aurretik igarotean, auxe itaundu eustan:

– Aizu, Patxi, noiztik ez zara eleizara sartu.. ?

– Aspalditik, Gaizkane. Izeko Asentzi il zanetik-edo...

– Eta zegaitik ordutik ez...?

– Bera joan zanean, neugan uts andi-andia sortu zan, eta oartu barik nire siñismena ostendu yatan.

– Ez al-do zu sartu gura...? Gaur otoi egitean nire alboan nai zaitut.

Sartu, eta aulki baten belauniko jarri gintzazan. Eskuak batuta, Gaizkane'k otoi isillari emon eutsan, eta ni oartu barik, beragandik erion zerbait arimea beteten asi yatan. Ez dakit zer izango zan, baiña aurrean, gurutzeari josita egoan irudiari, Gaizkane'ren duin biurtu

neinten eskatu neutsan, baita bera zorionsua egiteko gaitasuna emon egistan be. Olan niar-duala, Gaizkane zutundu zan, eta biok alkarrekin urten gintzazan. Ibilten asi baiño ez,

– Esan, Patxi, zertan ziarduan nire ondoan geldi-geldi, aurrerantz begira...?

– Otoitzetan niarduan.

– Orduan, ez yatzu aztu otoi egitea...?

Nire maitearen begi sakonak neugan josita oartu nebazan, auxe itaundu eustanean;

– Zelako otoi za zan...?

– Ara, Gaizkane –nigana erakarririk esan neutsan–, zuretzako lain izateko lagundu dagistala, eskatu dautsat Jaunari, baita merezi dozun beste zorionsua egin zagidazan be.

Nire besoa estutuz, maitasunez begiztatu ninduan.

– Eta zeuk, Gaizkane –itaundu neutsan–, zer eskatu dozu...?

Aurpegi zoragarria nire soinburuan jarrita, irribarrez,

– Ainbeste nekaldien ostean, Jaunak zorionsua egin zagizala, Patxi. Eta gero siñistun izatera lagundu dagitsun, bai, jaungoikozalea, umeak bide artezetik eroateko gai izan gaitazan. Biotzean argi bat piztu dakizun egiaren billa joateko... Ez al-zara gomutatzen, Perutxu'ren ipuin aretan idiaren begietan agertu zan biotzeko argia, Belen'era, bera, astoa ta oillarra joiazanean...?

– Nire ondoan zakidazan bitartean, argi ori ez yat amatauko.

Egi biurtu zan. Gaizkane zoragarriaren eragiñaz, umetaroko bidea idoro neban, eta onetan siñismenera eroan ninduan argia, luzaro barik berari esker nire izaerea beteagoa biurtzen zala.

Urrats geldieziñaz aldia aurrera joian, eta ezkontzarako egiteko ziran atonketak amaituta, "Etxegillea" baltzuan aurre-jarduna egiteko garaia eldu yatan. Andik amabost egunera gure eztegu-eguna etorriko litzakigu.

Berbatua lez, "Etxegillea"ren idaztegiara joan nintzan kondalari zaarrarekin ango erabilteaz ezagueria egiteko. Tori'k ondo abetaldu ninduan, eta jarraian, zaar-saritzeko zan etxeko kondalaria aurkeztu eustan. Karmel eritxan dalako kondalariak oso amultsu artu ninduan, eta andik laster, betidanik alkar ezagutu ba'gendu, etxe aretako arazoak azaltzen eustazan, eta atzekaldean egoan gordetegi ederra erakutsi eustan, bidebatez guztitariko argibideak emostazala.

– Etxe au –gordetegi ikertu bitartean esan eustan Karmel'ek–, uri onetako andiena da, eta augaitik etxegillerik geienak bezeroak doguz, baita inguruko errietatik be. Oso garrantzitsua da, beraz, guztitariko gaiak eskura beti izatea, ostantzean, beste bategana joango litzakez. Augaitik ba, gai baktxaren sar-urtena txartel baten idazten da, edozein abagunean jakin aal izateko, gai orren kopurua. Txartel orren albo baten zenbaki bat agertzen da, eta gai orren kopurua zenbakitik beera agertzen danean, astirik galdu barik, erosketea egin bear da. Orregaitik, gordetegitik idaztegiara bialtzen diran sar-urtenak, txartal orreitan idazten dira. Arazo au, len gordetegiko morroien betekizuna zan, baiña uts-egite asko jazoten zan ezker, kondalariaren ardurapean ipintea erabagi zan. Onezaz gaiñera, kondalaritzaren liburuak erabilliko dozuz. Idaztegi onetan, kondalariak beste, ama-bi lagun diardue, eta orrek adierazoko dautsu etxe onen garrantziaren neurria.

Izan be, gordetegia ikertzean, agiri zan "Etxegillea" baltzu andia zala. Etxeak egiteko bearrezkoak diran gai guztiak ikusi zeitekezan dalako gordetegian, sorutik sabairaiño-ko apaletan metatuta, edo zorro ta kutxetan gordeta. Lotu barik, morroi batzuk tximistindardun gurdituak erabillezala, batetik bestera ebiltzen, eskaturiko gaiak zama-berebilletara sartzeko. Gure ikerraldia amaitu-agiñean zala, giltzaz itxitako gela batera eroan ninduan Karmel'ek, eta atea edegita, ate-kirten eta ur-puxten bilduma ederra erakutsi eustan.

– Emen –esan eustan Karmel'ek–, kirten eta puxtetan diruketa itzela gorde daroagu. Ate-kirten batzuk antzerik andienaz brontzez egiñak dira, eta puxta batzuk, ur beroa ta otza adierazoteko, errubi ta esmeral banaz apainduta datoz. Emengo gaiak oso baliotsuak diran ezkerro, atea giltzaz ixten da beti.

Ain zuzen be, ez nebazan iñoiz ikusi izan areik lako erti-zatiak, eta arrituta, une luze batez an iraun neban antze-lan areik begiztatzen. Ertilari izan ez arren be, gai baliotsuen bilduma zala argi egoan edonorentzat.

Gero, Karmel'ek goian egoan idaztegitara eroan ninduan. Astiro ta zeatz lanari ekiten eutsan. Onen bitartean, alboan jesarrita, bere erabilteari jarraitzen neutsan, bidebatez Karmel'ek emostazan argibideak ardurarik andienaz entzuten nebazala. Arin igaro ziran orduak, eta oartu barik otordua egin zan. Arratsaldea, bardin, baiña orain, gordetegia bakarrik ikertu neban gauzak ikusten eta arein izenak ikasten.

Egunen bidean gordetegiko zertzeladak ondo ikasi nebazanean, Karmel'en alboan etxe aretako kondalaritzaren erabilpenaz jabetzen asi nintzan. Arlo au akademian ondo ikasi izan neban ezkerro, ez yatan korapiltsua gertatu, eta laster betiko nire jarduna izan bai'litzan menperatzen neban. Arin joiazan egunak, eta ezkontza-aurretiko iru egunak niretzat artu nebazan.

Orduko, etxea barriztatua zan, ate-leioak atonduta, gure gelako erredizak erosi-barririk, eta orma-sabaiak margoztuta. Eztegu-janzkia arasan eskegita neban Gaizkane'renaren ondoan. Nire emaztegaiak janjki polit arrunta berarentzat aukeratu izan eban, kalerako erabilten danetarikoa. Areitariko janjki zuri, luze, ederra erabili egian arrenkatu neutsan, baiña berak ezetz, bere gizamaillari egokiona gura ebala, eta soiñeko urdin polita aukeratu eban, eta gerkun oneitan gure egun andia eldu yakun. Eun milla laurleko nebazan diru-etxeko kontu agirian, beste ainbeste etxeko ta eztegu-eralguntzan txautu izan nebazan-eta, onein artean eztegu-osteko bidegitea izanik.

Gaizkane'ren gurariz, astebete bi iraungo eban gure eztegu-txangoak leku baketsu baten emon nai eban, eta arazoa ondo aztertuta gero, Naparra'ko Auñamendi'ko aran zogarri baten kokatzen zan errixka txukun eta politeko ostatua aukeratu genduan. Uda-goiaren asiera zan, eta eguraldiak epel eta eguzkitsua irauten eban. Egotaldia ta beste gorra-beerak atonduta gero, ondo ezagutzen neban bitxilari batenean (urreko bezeroa izana neban-eta) diamantezko erestun dizdiratsua erosi neban, eta pozez gaiñezka etxera joan nintzan. Eldu baiño ez, sakeletik atarata Gaizkane'ri erakutsi neutsan esanez:

– Gaizkane maitia, auxe da nire eztegu-emokaria.

Erestuna artu, eta begiak zabal-zabal eginda, une batez iraun eban itz egiteko gauza ez zala.

– Zer deritxazu nire bezuzari –neuk barriro–, atsegin yatzu...?

Estu-estu besarkatu ninduan, eta gero begi yaukalak nireetan untzaturik,

– Oi, Patxi –esan eustan–, ez dot egundo olako edertasunik ikusi. Baiña ez ete da izango larregi niretzat...? Diruketa itzela emon bear izango zenduan bitxi bikain onegaitik.

– Ez zeuk merezi dozun beste.

Alkar besarkatu genduan, eta gero atzamarrean ipiñita, Gaizkane'k erestuna begiztatu eban zorionez gaiñezka. Ain zuzen be, bere esku zuri politean, bitxiak are ederrago emoten eban.

Urrengo egunean nire iñarkuna eginda, "Etxegillea"tik biurtu nintzanean, nire eskuari oratuta Gaizkane'ek iker-gelara eroan ninduan, eta lotuki txiki bat emon eustan esanez:

– Zabaldizu, Patxi, au nire eztegu-emokaria da.

Edegi neban, eta txundituta geratu nintzan. Urrezko ordulari bikaiña zan, atzekaldean P.B. nire len-izkiak ildaskatuta agertzen zirala. Izan be, esku-erakutsi bikaiña zan, eta jostorraz-lanetan ordu ta ordutan zear jardun bear izango eban ordulari orren ederra erosteko. Biotz-ikara batek astinduta, auxe esan neutsan:

– Gaizkane, nire maitia, lanean luzaro jardun bear izan dozu ordulari bikain au erosteko. Bene-benetan larregi da niretzat.

Eskutur-inguruan lotu eustan, eta,

– Ordubeteak izan dira, Patxi –esan eustan–, baiña niretzat zorionez beteak. Orrazkada bakotzak zeuganago nindaroan, eta iñoiz ez beste zorionsua izan naz.

Leun-leun nireganatu neban, eta aurpegi aingerukoia eskuetan artuta, mosu luze maitekorra emon neutsan.

Eztegu-eguna eldu zan, eguraldi zoragarrikoa izan be. Ostatuan bidezorroa arturik, Klare Done enparantzako etxe maitiara joan nintzan. Ezkontza amabi ta erditan berbatua zan, eta nire esku-arteak an lagata, soiñeko oztin barriaz jantzi nintzan. Nire ezkonlaguna izateko zan ostalaria, gizon amultsu berau, atea jo ebanean, parrokira abiatu gintzazan, atean nire emaztegia itzarotearren. Noizbait, Yokiñe ezkonlaguna ebala, Gaizkane berebilletik jatsi zanean, biotza taupada bizitan asi yatan, aren edertasuna ikustean. Begi illun andiakaz niri so egiñez urreratzen yatanean, eta ezpanen larrosak aurpegia argitzen eutsola, maitasunezko zirrarak astindu ninduan. Gero ezkonlagunarekin sartu nintzan, atzetik, Yokiñe'ren besoari eutsita, Gaizkane'k erraikigula. Une aretan argi guztiak piztuta, Mendelson'en ezkon-ibiltea jotzen asi zan.

Gure lekuetan egokitu gintzazanean, ezkontzaren ospakizuna asi zan. Ez zan ikusle askorik etorri. Ezkongaietz beste, Yokiñe, auzoko batzuk, eta nire ostalaria. Amabiko bat geienez, baiña eleizaren apaintasunak, argiek, eta parrokoiko abestaldeak, goren maillako ezkontzari egokiozan. Ezteguakide gitxiko ezkontza, izan be, baiña oroz gain maite neban alboan izateak, gizonik zorionsuena biurtzen ninduan. Noizean bein, Gaizkane'ren begi sakon illunak nireetan kokatzen ziran, eta arein laztanak oartzean biotzaren taupadak arintzen yatazan. Nire maitiaren atzamarrean erestuna sartzen nebanean, eskuak dar-

dar baten yabildazan. Jaunartzean, Gaizkane zorionsua egiteko gai izan neinten, bein eta barriz erregutu neban. Dana ames bat begitandu yatan; zeruko amesa izan be.

Sakristegian ezkontza-agiriak bete genduzan, eta onen ostean, parroikiko abesbatz bikaiñak iru abotsezko soñu zoragarria eskiñi euskun, urteteko, eleizea zearkatzen genduan. Gero, ostatuan eztegu-oturuntza bikaiña izan genduan, eta jarraian, etxera joanda, bide-zorroak artu, eta Iruña'rako erri-berebillera. Alkarren ondoan jesarrita, nire bizi-tzan lenengoz zerbait jabetzen nebala oartu nintzan, munduko emakumerik yaukalen eta maitagarriena, ain zuzen be, eta beragana makurtuta, auxe esan neutsan abopeka:

– Gaizkane, jaunartzean biotz-biotzez gauza bat eskatu dot.

– Zein gauza, maitia...?

– Zu zorionsua egiteko gai izan naitela.

Ene eskuai eutsirik, eta burua nire soinburuan jarrita,

– Izango ete...? –esan eustan–. Orixe bera eskatu dot neuk be. Eta gero, aita zanari, elburu ori jaristeko lagundu dagistala.

– Ondo egin dozu, aita zana bitartekotzat artu izateagaitik, Gaizkane. Egunoro bera-tzaz oroitzen naz, bere bitartez ezagutu zindudazan-eta.

Andik laster auxe esan neutsan:

–Egunokaz asko aalegindu zara atsedinari ordubeteak kenduz. Jarri burua nire soinburuan, eta lo egiten aalegindu zaitez.

Esandakoa egin, eta laster lo atsedengarriak artu eban, nik ames egiten nebala atzarriri. Iru ordu igarorik, Iruña'ra eldu, eta taxi batek berbaturiko ostatura eroan ginduzan. Biaramonean, erri-berebil baten, astebete bi iraungo genduzan Auñamendi'ko errixka zoragarriera joan gintzazan. Ostatu txiki ta txukun baten, erreka suzmurlari-gaiñeko gela garbia gure begira genduan. Leku zoragarri ta baketsua benetan. Ez genduzan uri andietako ikusgarri ta aukera andiak, baiña gure maitasunak ez ebazan utsik emoten.

Astebete zoragarri bi emon genduzan Naparra'ko bazter aretan. Zoragarri ta aztueziñak billakatu ziran udagoiko egun areik. Aldameneko pagadi yaukalen ostoeke urrezko litsa artzen eben, eta neguko ituntasunean murgildu baiño len, bazirudian edertasun bardinbakoa izadiatz jabetzen zala. Errekaxuek zearkaturiko zelaiek esmeralezkoak zirudien, eta aroko azken edertasunak kutsuturiko txoriek, txiorik ederrenakaz agurtzen ginduezan.

Paradisu aretan egunek arin erraikioen alkarri. Gosalduta gero, zabaldira joan oi gintzazan, eta eskutik artuta, pagadietan zear ibilli genbiltzan maitasunez gaiñezka, eta gero, zugaitzen baten sustraietan jesarrita, lats baten ur eresintsuek urrumaturik, gure maitasuna alkarri autortzen geutsen. Bazkalostean, erri-gaiñeko baseleizaraiño igoten gintzazan Andra Mari'ri agur egitera, eta gero, ganetxu aretatik zabaldi yaukala begiztatzan genduan. Beste batzutan, inguruetako erritxuak zalpurdiz ikertzen genduzan, gidariak guztitariko argibideak emoskuzala. Arin joian aldia, eta oartu orduko, etxera biurtzeko garaia eldu zan.

Iruña'tik etxera biurtzean zorionsua nintzan, baiña atzean geratzen ziran maitasunez beteriko astebete bi areik, uts emoten nebazan. Oldozkun onetan nengoala,

– Aizu, maitia –itaundu eustan Gaizkane'k–, zer darabiltzu gogoan...?

– Uts emoten dausat igarotako eztegu-bidaldiari, iñoiz ez da biurtuko-ta. Egunen zoriona...!

– Izan be, aspaldi zoragarria izan da, baiña zoriona gure barruan sortzen dan lorea da. Saiatu gaitezan gure biotzeko lili orrek lerdan eta bizirik iraun dagian, eta eztegu-bidaldia egunoro barriztuko da gure baitan.

Laztan bataz erantzun neutsan. Ziur nintzan nire maitasunak betirako iraungo leuke-la, gero ta biziago, eriotza baiño aruntzagokoa izan be.

Etxean Yokiñe begira genduan, eta poz-pez artu ginduzan, guztitariko barriak eskatzen euskuzala. Igandea zan, eta bidegiteko ildura kentzearen, Gaizkane ta biok egurastera joan gintzazan, eta oi genduan lez, luzaro samar ibilli ondoren, egurastegiko aulki baten jesarri gintzazan, amaika jazoera gogora genkarrezala. Biurtu gintzazanean, apartsegiña izan genduan Yokiñe'rekin, etorkirako asmoak egiñez. Ames egin daiteken beste zorionsua oartzen nintzan. Emazte zoragarria neban, etxe txukun barriztua, nire emazteari lagunduko leuskion izekoa, eta polito ordaindutako jarduna.

Urrengo egunean "Etxegillea"ren idaztegiara joan nintzan. Astelena zan, eta Karmel begira neban azken argibideak emotearren bere jarduna etxe aretan betirako itzi baiño len. Goiz osoa alkarrekin emon genduan, eta esatekoak esanda, arratsaldean nire jardunari emon neutsan bakarrik. Edu onetan asi nintzan lenengoz kondalariaren jarduna. Izan be, akademian artutako irakaskintza naikoa sakona izanik, ez neban iñongo sosterrik egitekoa ondo beteteko, eta egunen bidean, etxe aretan nire jarduna oztopo barik garatu neban.

Baltzu aberatsa zan "Etxegillea", egunoro sar-urten ugariak gertatzen zirala, bai gaietan, bai dirutan. Tori'k, jabeak, areto bikain batetik arazoan ugalak erabillezan, baita ondo be, baltzuaren arrakastak agirian jarten ebanez. Bere egitekoaren zati andia, ornitzailleak eta bezeroak artzea zan, eta sarri askotan urten bear izaten eban, erosketa edo salketa garrantzitsuak egiteko ziranean. Gidaridun berebil eder-ederra eban orretarako, eta jauregi baten bizi izaten zan. Gizon zorrotza zan menpekoekin batez be, baiña esku-zabal aldi berean. Ondo erabilten ninduan, eta alde onetatik ezin nengikean gaitzetsi, baiña ikaskideak izan gintzazala begiraturik, gure arremonak zeozer urrunduak zirala esango neuke. Ezin aztu, baiña, "Etxegillea"n jarduna jaritsi ba'neban, berari zor neutsala, eta onek niganako bere urruntasuna neurri baten ordaintzen eustan.

Bajoiakidazan egunak bake ta zorion betean nire jardun barrian gero ta nasaia goartzen nintzala. Bazan zeri begira etxe aretan, eta augaitik egun osoan lanpetuta nengoan, nire betekizunik garrantzitsuena izanik, bezeroek bear izaten ebazanak, beti gerturik aurkitu egiezan. Eguneroko lana amaituta, arratsaldean etxera biurtzean, Gaizkane'k eta biok egurastu atsegiñari emoten gautsan. Izan be, jantzigintzeari ordubeteak monda gero, bidezkoa zan atsedena artu egian, eta luzetsia egoan ni etorri arte, egurastegiko aize garbia artzearren.

Neguarekin Gabonak etorri ziran, eta Urtebarriaren garaian, geien poztu leitekidan barria, Gaizkane'k emon eustan, eta auxe alegia: azur barritan egoala. Bein baten, egurastegian zear genbiltzanean, barri oneri buruz jakitun ipiñi ninduan, eta zorionez gaiñezka, neugana erakarrita, apa-laztan luze samurra emon neutsan. Aspaldi aretan, iñoizkorik ederren ikusten neban, amatasunak eraginda, urrean. Aren begi yaukalek sakontasun barriaz ederragotuta zirudien, eta aurpegiko larmintzak gardentasun bereizia erakusan. Gure zorionaren anditasuna...! Etxera biurtzean, amesetan bai'gintzazan guztitariko asmoak aletzen genduzan. Alboko lo-gelan seaskatxua ipiñiko genduke, gureatik ate batek alkartuta, eta Gaizkane'k munduko janzkitxurik politenak josiko leukez seiñarentzat. Eguraldia ona izanik, aur-orgatxuan egurastegian zear eroango genduke. Gure amesen ederra...!

Zer esanik ez, Yokiñe jakitun ipiñi genduanean, pozaren-pozez besarkatu ginduzan, eta arrezkero, etorteko semea gure artean bizirik bai'litzan, guztitariko amesak eiotu genduzan. Autu luzeak izaten ebezan izeko-lobak, zelako miesak eta zelako egiturak erabiliko leukiezan, baita zelan apaindu seaskatxua be. Sarri askotan, dendatako erakusteleioen aurrean gelditzen gintzazan bera ta biok, barruan ikusten ziran aur-orgatxuak begiztatzearren. Onezaz gaiñera, beste albiste pozgarria artu neban aspaldi aretan, eta auxe alegia: iru illabeteko nire saio-aldia igarorik, "Etxegillea"n kondalari benetakotzat artzen ninduela, jakiñerazo eustan Tori'k. Barri au bear dan lez ospatzeko, urrengo Igandean, Yokiñe'k, Gaizkane'k eta irurok otoruntza bikaiña izan genduan jatetxe on baten.

Amesek edertuta, bajoiazan egunak aurrera, gure bizitzan eragin andia izango eban jazoera bat aurkeztu zanean.

Astelen bateko goizean "Etxegillea"ren idaztegira sartzean, astrapala andiko joan-etorriak nonai agiri ziran. Idaz-mutil batek jakitun ipiñi ninduan, eta izan be, arazoa larri samar zala oartu nintzan. Asteburu aretan, iñor ez zala ustiatuz, lapurreta andia gertatu izan zan gordetegian, non eta gai baliotsuak gordeten ziran gela bereizian...! Ez ziran

agertzen iñongo indarkeriren aztarnarik, eta agi zanez, lapurreta onetan etxekoren bat tar-teko izan zan.

Aida baten gordetegira jatsita, gela bereiziko ostuketea egiztatu neban, eta izan be-zur eta lur geratu nintzan aren garrantzia ainbatzean, berrogei ta amar milla ogerlekoko lapurreta izan zan-eta. Zirudianeaz, lapurrak etxeko baten laguntzaz gordetegira sartu izan ziran, eta gela bereiziko atea edegirik, gai baliotsuenak zama-berebil batera sartu, eta be-rebiltegiko ate nagusia eraginda, ezelako oztopo barik urten izan ziran. Goiz aretan ber-tan, uri-inguruko bide-bazter baten, etxeko zama-berebilla utsik agertu izan zan. Banaka batzuk bakarrik jabetzen eben ori egiteko bearrezko giltza, areitariko bat neu izanik. Au gogoratzean, ezusteko arrenkurak artu ninduan.

Egun aretan lan gitxi egin zan "Etxegillea"n. Ertzaindegiari egokion salakuntza egiñik, ertzain bat etorri zan, eta gordetegian begiz arakatzeko zeatza eginda gero, idazte-gian gela bereizi bat jarri eben bere aukeran, arazoari jarraitu egitsan. Bereala, etxeko ogipekoai banan-banan dei egiten asi yaken, bakotxari guztitariko itaunketak egiñez. Arratsaldean txandea etorri yatan; azkenetariko bat izan be. Gela aretara sartu nintza-nean, ertzaiña ikusi baiño ez, latz-ikara batek astindu ninduan. Aurrean, aspaldiko An-ton, Txiritxu ta biok espetxeratu ginduzan ertzain zorrotza ikusi neban. Oarpen bakan-pean, berak ezagutu ete ninduan nire buruari itaundu neutsan. Berak, baiña, ez eustan aditzera emon ezagutzen ninduanik, eta bere aurrean jesarrita, guztitariko itaunak egin eustazan, au da, nire jarduna zelakoa zan, gordetegiko giltzak eroateko aukerea ete ne-ban, eta nondik ibilli nintzan asteburu aretan. Nire erantzunak idazten ebazan, eta noiz-bait, ia ogipekoren bategan suzmorik ete neban lapurretari buruz, galde egin eustan. Ezetz erantzun neutsan, eta orduan joaten itzi ninduan. Naikoa nasai urten nintzan gela-tik, nire buruari esaten neutsala, ainbeste urte igaro ostean, ez ninduala gogoratzen, urrean.

Egun aretako jarduna amaitzeko zorian nintzala, baiña, etxeko mutil batek, ertzai-ñak barrero ikusi nai ninduala esan eustan. Arrenkura bakanak artuta aratu nintzan, eta sartu baiño ez, Anton'ek,

– Jesarri zaitez, Patxi –esan eustan aginkor–, zeuk eta biok gauzatxu bat argitu bear dogu-ta. Asiera batetik ezagutu zaitut, aspaldiko etxe-ikertzaille barrabasa. Orduan, Txir-itxu eritxan zeu lako gaizkille batekin ziarduan, baiña neu lako ertzain batek, bein soi-llik ikusitako aurpegia betirako oroimenean gorde egiten dau, ori gure bereiztasuna da-ta. Zeuk be, gomutan izango nozu, ezta...?

– Bai, gogoratzen zaitut.

– Zuek, gaizkilleok, burua lengo lepotik beti, eta nire oar-ikasteak badiñost, bein os-tu dauana, lapurra betirako. Oraingo onetan, baiña, ez dozu kanpotik etxera sartu bear la-purra izateko, barrutik baiño zure lankideek gordetegiko atea edegita aurkitu dagien, eta iñor ez izanik, bare ta nasai asteburua da-ta, gaiak zuen aukeran zamatu, eta onen ostean anka egin, ezta...?

– Ez, Jauna nik ez dot ezer ostu. Gaiñera, ogia irabazten dodan etxeari ostutea ergel-keri utsa litzake.

Jagi zan Anton, eta urreraturik, nire beso bateri oratu eutsan, mintzo zakarraz auxe ziraustala:

– Alperrik da, Patxi, egiñari uko egin dagiozula. Esaera zaarrak diñoanez: "gizona bein lapurra, betirako txakurra"

– Aizu, Jauna –asarrez esan neutsan–, kenduizu nigandiko zure atzapar ori, lapurra ez nazala bein betirako esan bear dautsut-eta. Zorakeri utsa litzake jaten emoten daustan eskuari usigi egin dagiodala. Egia da ain zuzen be, gordetegiko giltz ori darabildala, bai-ña oraingo onetan, errubakotasuna ez dot neuk erakutsi bear, zeuk, ostera, erruduna naza-la egiztatu.

– Ertzaindegian laster autortuko zenduke egia.

– Ez an, ez emen, egin ez dodana autortzera ez nozu beartuko.

Begi zorrotzakaz aztertu ninduan, eta,

– Orain ez dot aukerarik zu ertzaindegira eroateko –esan eustan–, emen naikoa egi-teko daukadalako, baiña benetako lapurra izatekotan, laster jakingo dot, eta orduan ez dozu igesbiderik izango. Dana-dala, ez uste arazoa beste barik amaituko dala zuretzat. Ez orixe...!

Au entzutean latz-ikara batek astindu ninduan goitik-beera... Ez nekian zer esan gu-ra eustan, baiña aren itzetan zemaitza ezkutua zetzala begitandu yatan.

– Orain joan zaitez, Patxi. Bear izatekotan dei egingo dautsut barrero, baiña ain-tzakotzat artu auxe: niri ez daustazu ziria sartuko, ez orixe...!

Bildur bakanak artuta etxera biurtu nintzan. Ez neutsan ezer esan gura Gaizkane'ri alperrik kezkatu ez zeiten, eta oi lez egunoroko egurastua izan genduan. Etxera biur-tzean, bereizten eban gozotasunaz,

– Aizu, Patxi –esan eustan–, zer dala-ta gaur orren oldozkor egoteko...? Badirudi arrenkura baten pean ikusten zaitudala-edo...

– Ez da ezer, Gaizkane, lapurreta bat gertatu da gordetegian, baiña arazoak ez dau iñongo garrantzirik. Aztu dagigun ori, beraz.

Urrengo egunean, eguberdian lana amaitzeko zorian zala, Tori'gana joateko mezua idazmutil batek emon eustan. Dana bertanbera lagata, aratu nintzan, eta atea jota sartu nintzan. Idazten ziarduan Tori'k, eta olan jarraitu eban une batez, niri jaramon egin barik. Suzmo txar batek jota, isillik eta zutunik iraun neban. Alako baten, idazteari eten egin eutsan, eta urruma egin ostean, begi zorrotzak niganantz zuzenduta, bapatean,

– Gaur bertan jakiñerazo dauste –esan eustan–, lapurtzat espetxera sartu zinduezala. Egia al-da ori...?

Tori'ren berba oneik ezustean artuta, asiera baten zer erantzun ez neban jakin, idaz-gelea nire buruan bira ta bira egiten ebala zurrumbillo zoroan. Une batzuk igaro ziran itz bat bera be esateko gai ez nintzala. Ostera be, Tori'k,

– Bigarrenez, Patxi, egia al-da bein baten espetxean egon zintzazala...?

Ez neban igesbiderik, eta inka itzela egiñik,

– Bai, aspaldian jazo zan ori –erantzun neutsan–. Bearrizan gorriak eraginda, lapu-rra billakatu nintzan, baiña...

– Zergaitik –eten egin eustan–, isildu zeustan ori, zure bizitzaren argibideak eskatu neutsazanean...?

– Ori onxinako gora-beera da, eta esan ba'neutsu arriskuan jarriko neban nire lan-es-kaerea.

– Guzurrea esan zeustan, beraz. Zergaitik...?

– Bear-bearrezkoa zan niretzat jardun au, ezkontzeko zorian nintzan-eta. Ziñez diñotsut, Tori, jazokizun zoribako aretatik, ez dot beste lege-auspenik egin.

– Bein baten lapur izanikoa, barriro be jausi daiteke. Ertzaiñak esan daustanez, etxe onetan izandako lapurretari buruz, ez dau zure aurkako ezetariko egiztapenik, baiña ezetz be ez leuke ziurtatuko. Zeu betiko arrote, Patxi, eta zeure guzur ori dala-ta, ezin dot aurrerantzean zeugan uste onik jarri. Tamal dot, Patxi, baiña etxe onetatik joan bear izango dozu.

Zoratu-agiñean oartzen nintzan, eta beragana urreraturik, biotzetik yatorдан intziria menperatu eziñik,

– Arren, Tori –arrenkatu neutsan–, ez izan orren gogor nirekiko...! Ziñez diñotsut, ostuketa orreri buruz errubakoa nazala. Nire emazteak luzaro barik ume egingo dau, eta etxe onetako jarduna bearrezkoa yat, bera ta jaioko dana duintasunez jagoteko. Arren, adiskide, ez nagizu jaurti emendik...! Itxaron oraingo lapurreta argitu arte, bederik...!

Apalduta, lur-jota, eskale baten antzera oartzen nintzan. Nork esango, dana bost ar-dura yakon Patxi Arloteri, orren zital narraz ibilliko zala erruki-eske...!

– Gure autua amaitu da. Joan zaitez beingoan...!

Tori joateko jagi zan. Bere aurpegi otza begiztatu neban une batez, eta andik betirako joan baiño len, auxe jaurti neutsan:

– Egunen baten epaituko zaitue. Orduko epaikaria, zeu nirekiko baiño errukitsuagoa izango al-da...!

Dana mintzatua zan jadanik, eta azaldu eziñeko sentipen batek biotza biurrikatzen eustala, “Etxegillea” bein betirako laga neban. Illabete batzuk geroago, lapurra baitu eben. Gordetegiko morroi bat gertatu zan. Giltzaren aldaki bat az jabetua zan, eta kanpo-ko gaizkille batekin ekintza burutu eban. Beranduegi, baiña, niri egindako kaltea ordaintzeko....

Lo-ibiltariaren antzera kaleetan zear ibilli ondoren, etxera eldu nintzan. Txiliñari erantzuna emonez Gaizkane'k atea edegi eustanean, nire itxura ez-oi-tua ikustean,

– Zer jazo yatzu, baiña, Patxi...?

Ez neban kemenik izan erantzuteko, eta besaulki baten jesarrita, aurpegia eskuen artean ezkutaturik, isillik iraun neban.

– Jaungoikoarren, Patxi, esaidazu dana...!

Ezin neintekion luzaroagorik jarki, eta mintzo urratuaz, Tori'rekin jazorikoa esan neutsan. Itz egin bitartean, oi eban lez Gaizkane'k billoak laztantzen eustazan samur-samur. Amaitu neban,

– Ai ene, Gaizkane –apurtuta esan neutsan–, bearrianik andiñean gengoazanean, au jazo bear...!

– Ez zaitez larritu, Patxi, onik urtengo gara-ta. Azkenean garaille billakatuko zara, bai orixe...! Zeu lako batek oztupo guztiak garaituko dauz. Ondo bai ondo dakit nik ori...!

Aurpegia jaso neban. Aren begi eder laztangarriak neuretan josi ebazan, ezpan gorri beteak irribarre zoragarriaz edegiten yakozala. Nireganaturik, apa-laztan luze maite-tsua emon neutsan.

– Ez al-dakizu gauza bat, Patxi...?

– Esan Gaizkane.

Nire besoari eutsita, gure lo-gelara eroan ninduan, eta atzamarra txoko batera zuzendu eban, auxe iñostala:

– Begira, Patxi, ez al-da gauza polita...?

Atsekabea ta guzti, nire biotzak zapart egin eban une batez. Ango txokoan aur-gurditxu barri txanbeliña ikusten zan. Urreratu nintzakion, eta ausi zeitezan bildurrez aren estalki ta eskutilla laztandu nebazan leun-leun.

– Zer deritxazu gure aur-orgatxuari...? –itaundu eustan–. Ainbeste azterketa egin ondoren, eta baten batek eroan egian bildurrez, azkena zan-eta, gaur bertan erostea erabagi dot, eta zeu baiño leentxuago etorri da. Gurditxuaren ederra...!

– Gure seiñaren duin izan bear, Gaizkane.

Barre egin genduan, eta adorea zerbait irabazita, bazkariari ekin geutsan, bidebatez Yokiñe jakitun ipinten nebala. Arratsaldean oiko osteratxua egin genduan egurastegitik. Orduko, Gaizkane sei illabeteko aurdun aurkitzen zan, eta astiro ibilli genbiltzan, noizean bein aulki baten jesarten gintzazala. Etxera biurtzean, auxe esan neutsan:

– Begira, Gaizkane, lau milla ogerleko diruetxeko kontu agirian daukadaz. Onezaz gaiñera, len “Aldarria”n zabalkunde-baltzuan, milloi bat laurleko sartu nebazan, baiña diru au ez dot erabilli gura. Dagoan lez jarraituko dau badaezpadakoan ezuste edo larrial-di bateri aurre egiteko. Augaitik ba, bearrezkoa da lenbailen ogibide bat idoro dagidan, eta biar bertan, beraz, orren billa asiko naz.

Ez neutsan esan Gaizkane'ri, jardun-billa barriro asteari bildur itzela neutsala, eta ez nebala gura lengo billaketeari emon. Oldozkun oneik buruan nerabillela, Gaizkane'k,

– Entzuidazu, Patxi –esan eustan–, zergaitik ez zoaz “Aldarria” zabalkunde etxera, jarritako diruaren gora-beerak ezagutzeko...? Onezkero, a lako baltzu eginkorrek diru-banaketa polita egingo eban, eta jarritako dirua ukutu barik, emondako mozkiñak atara dagikezuz, eta kontu agirira sartu, ume-egiteko garaia yatorðanean, bearrezko dirua erabilli dagikegun.

– Zuzen zagoz, Gaizkane, biar bertan joango naz.

Urrengo egunean gosalduta gero, “Aldarria”ra abiatu nintzan, eta bigarren soruko idaztegiko txiliña jo neban. Ez zan ezer ikusten ez entzuten, eta bigarren deiari erantzunik ez egoala egiztaturik, arrenkura andiñean atezaiñagana jatsi nintzan.

– Aizu –itaundu neutsan–, ez al-da iñor “Aldarria”ren idaztegi...?

– “Aldarria” deabruak eroan eban orain sei illabete-edo. Bein baten, auzitegi-ko morroiak etorri, eta geratzen ziran lau zaarkeriak baitu ebezan. Dirudiane, “Aldarria” zabalkunde-baltzua, marrokeri utsa izan da. Iñuzenteak lumatzeko asmakizun galanta.

– Orduan, Mateo Jauna ta ateko andereñoa...

– Mateo Jauna, eta andereño pertxenta, ostendu egin ziran.

– Baiña zelan daiteke ori...?

– Begira, gazte, dirudianez, Mateo Jaunak-eta “Aldarria” baltzua jendea lumatzeko sortu eben. Aspaldi batez uri au iragarkiz estaldu, eta diru-mordo polita batu ondoren, iji-toak ostutako oilloarekin baiño ariñago, anka egin eben. Batek-baki onezkero non izango diran...!

Itzok entzutean, ez dakit zelako itxura erakutsiko neban, baiña atezaiñak errukitsu auxe esan eustan:

– Dirudianez, zeuri be ostu egin dautsue. Ezin dagikezut beste argibiderik emon, baiña nai izatekotan, zoaz auzitegira, eta an guztitariko azalpenak emongo yatzuz.

Galtzerik ez neban ezker, auzitegira joan nintzan, eta batetik bestera galdezka, noizbait, ango morroi batek billatzen nebazan argibideak emon eustazan, eta izan be, niretzat itxaropenik ez egoala oartu nintzan asieratik. Ostutakoa eun milloitik gorago-koa zan, eta dalako Mateo Jauna laiñoaren antzera ostendu izan zan. Badaezpadakoan izena emon nengion eskatu eustan morroi arek, eta au eginda, etsiak artuta alde egin neban.

Eguberdian, etxera lur-jota eldu nintzanean, gure ezbearra azaldu neutsan Gaizkane’ri. Isillean entzun eustan dana, eta amaitzean,

– Ez larritu, Patxi –nire eskuak laztanduz esan eustan–. Jaungoikoak lagunduko dausku. Gaiñera, edozertarako gai zara, eta badakit onik urtengo gareala. Dirua ez da guztia mundu onetan, eta alkarganako maitasunak oroz gaiñetik zoriontsuak egingo gaitu. Jesarri gaitzean bazkaltzeko, eta gero arazoa ez yatzu orren itsusia azalduko.

Baiña egitekoa aldeaurrez asmatu izan neban, eta uriko kaietara bideratu nintzan arratsaldean. Ez neban ezelan be gura, aspaldian lez batetik bestera jardun-billa erreguka joan, oiko zapuzkeri ta gaitzespenak artzeko, eta gaiñera, Tori’k ez leuskit nire jardunari buruz iñongo agiri onik emongo, eta au barik zelan jaritsi lan barri bat...? Ez, oraingo onetan ez neuke lan-iragarkirik irakurriko, ezta aztertzaile zorrotzen begikadarik jasangoko be. Aldia arin igaroten zan, eta lenbailen lanean asi nai neban. Kaietako jarduna latz eta gogorra zan, baiña onen ordaiñez lan-saria aren baten ebillen. Aspaldian onartu ninduen portuko idaztegira abiatu nintzan, eta atea jo neban.

Idaztegiko mai-atzean jesarrita, aspaldiko arduradun ezaguna egoan. Bereala ezagutu neban, baita berak ni be, auxe esan eustan-eta:

– Kaixo, mutil, dirudianez oporraldi luze samar artu dozu. Bein baten, ezustez ostendu zintzakidazan, eta orra or barriro zakusdala.

– Egun aretan itsasoratu nintzan. Etxera joateko zorian nintzala, ontzi eder bateko galdara-nagusiak su-morroien jarduna eskiñi eustan, eta nik baietz...

– Ta, zelan ibilli zara...?

– Ondo esan bearke. Orain, baiña, ezkondu naz eta legorreen jardun bat bear dot. Augaitik ba, lana izatekotan eskertuko neuskizu zure laguntza.

– Izan be, aspaldi aretan polito jardun zenduan, eta biartik asita lan ori emongo dau-

tsut, baldintza batz, baiña, eta auxe alegia: barriro be itsasoratuko ba’zintzaz, orren aurretik nigandik agurtu zaitzazala...

– Olakorik jazotekotan, zin dagitsut jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitudala.

Barre egin genduan. Onen ostean agiri batzuk emon eustazan izenpetzeko. Urten baiño len,

– Aizu –esan neutsan–, nire emaztea ume-egiteko da, eta augaitik etxeko sarrera biribiltzeko, bear ainbat lan egiteko gerturik nozu, eta beraz, oiko orduetaz kanpo emon aal dagikedazun lana pozik onartuko neuke.

– Gogoan izango dot ori. Askotan, ezustek orduetaz kanpoko lanera beartzen gaitu, eta bearezko esku-lana ez dogu gure aukeran.

Alkarri bostekoa emonda, nasaitasun-sentipenaz urten, eta astirik galtzeke etxera joan nintzan. Eldutakoan, Gaizkane gerturik egoan oiko egurastuari emoteko, eta astiro ibilli genbiltzala, lan barriari buruz jakitun ipiñi neban. Barriro be, ontzi-zamaketeari emongo neuskiola jakin ebanean, bere arrenkurea ezkutatu eziñik,

– Maitia –esan eustan–, ez dot ezelan be gura, lan zakar orreri emon dagiozun osterabe. Oba da, orren aurretik beste jardun-mueta bat billatu dagizun, zeure ezaguereari obeto dagokiona, izan be.

– Alperrik da, Gaizkane. Batetik bestera, aize-egoetan doan luma baten antzera ibiliko nintzaizu, zapuzkeri ta gaitzespen ugari jasanez. Onezaz gaiñera, gure seiñak ez leuskit itxon egingo, nai-ta-ez illabete biren buruan bizitzara etorriko da-ta. Biar bertatik gure bion ta umearen etorkizuna ziurtatzearen, kai-lanari emongo dautsat.

Gaizkane’k ez eustan besterik esan, baiña aurpegian beera malko lodi bi diamante ederrak bai’litzazan eriozan. Nireganatu neban, eta isillean musu samur luzea emonik, irribarre egin neutsan. Berak be, isillean, malkoen zear irribarretsu begiztatu ninduan, eta gero, burua nire besaburuan jarrita,

– Egunik-egun maiteago zaitut, Patxi –esan eustan–.

Besarkatu neban, eta berarekiko nire maitasuna jabetu eziñik,

– Gaizkane –esan neutsan–, erregiña jaiio izatea merezi zenduan.

– Aski dot, Patxi, zu senartzat izatea. Ez dot beste zorionik gura orixe baiño.

Besoz-beso etxera biurtu gintzazan. Une aretan ez genduan berba egiteko bearririk, bion arteko lokarri ikusteziñak, arimak alkartzen euskuzan, gure biotzak alkarganako maitasuna isillean aldarrikatuz.

Urrengo egunean portuko idaztegira joanda, andik laster, iparretik etorritako eskandiñabiar ontzi bateko olketa andia kairatzen asi nintzan. Ez neban oztopo andirik izan lan onetan, jarduna lendik ondo ikasi izan neban-eta. Eguberdian kai-ondoko jatetxe baten bazkaldu ondoren, illuntzerarte lan egin neban, eta aalik ariñen etxera biurtu nintzan Gaizkane’k oiko egurastua izan egian. Pozik niñoan, eta adorea artuta, nire emazteari jardunaren argibide zeatzak emon neutsazan, lanaren zakartasuna gitxituz.

Gure diruaren egoerea ez zan nik gura izango neban baizen nasaia. Izekoren laguntzaz Gaizkanek polito ziarduan, baiña ernaldiak batzutan gora-galeak eragiten eustazan goitikoak izateraiño. Gure seiñaren etorrereak oiezko eralguntzak egitera beartzen gindu-

zan, baiña polito konponduko gintzakezan, etxea gureganatzeko illeroko ordainketea egin bear ez ba'gendu. Augaitik, oiezko ordutan lanean niarduan, eta oneri esker, etxeko eralgi-bearrari aurre egiten neutsan, baita aurrezkiak egiteraiño be. Ez neutsan iñoiz edozein lanari muzin egiten, eta augaitik, askotan etxera biurtzen nintzan berandu samar, apalordua zanean.

Neke andia ta guzti, zoriontsua oartzen nintzan. Eskuak latz biurtu yatazan arrakalatu arte, izan be, baiña adore bakanak bizitzan zear nindaroan, gizonik zoriontsuena biurtuta. Sarri askotan, Gaizkane'k eskuak berenetan artuta laztantzen eustazan, auxe ziraustala:

– Patxi, maite ori, geugaitik darabiltzun lanaren zakarra...! Egunen baten jaritsiko al-do zu merezi dozun jarauna...!

– Zoriontsua naz, Gaizkane, zeurekin izateak beste guztia uxatzen dau.

Eskuak laztantzen eustazala, aren begi eder illunek nire arimeari argi zoragarria ekartsoen.

Illabete bat-edo kai-lanetan niarduala, ezuste batek Gaizkane'ren nai bizia bete eban. Goiz aretan, nire egitekoari buruz argibideak artzeko idaztegiara sartu nintzanean, Imanol eritxan arduraduna kezka andipean ikusi neban, kaiolaturiko basabere baten itxuraz ebillela idaztegitik. Zergaitia itaundu neutsanean,

– Jazoten yatana itauntzen daustazu...? –asarre baten esan eustan–. Ara... idaztegi onen arazoak darabillezan idazkariak, beste leku batera joan da, abo bete agiñakaz itzi nauala. Arraioa, zelan konponduko naz orain...?

– Ez larritu, Imanol –esan neutsan–, lan ori neronek egin dagiket.

Jarraian, nire ikasketari buruz jakitun ipiñi neban, eta beraz, nire ustez gai nintzala idaztegi aretako arazoak erabilteko. Ezpaitu begizatzen ninduan Imanol'ek nire azalpenak entzutean, eta noizbait, ostendutako idazkariaren jarduna eskiñi eustan. Andik iru egunetara, betekizuna ondo egiteko gai nintzala ikusirik, Imanol'ek lankidetzat onartu ninduan idaztegiaren, eta zer esanik ez, Gaizkane'ren poztasuna ori jakitean.

Aspaldi baketsua igaro genduan, jaioteko zan gure umea autu guztien gaia izanik. Illero osagille bereizlariagana joian Gaizkane, eta aren aburuz ernaldia ondo garatzen zan, eta oztoporik ez zala etorriko ume-egiteko orduan. Azken ikerketan, amabost bat egunen buruan jaioko litzakela esan euskun.

Aldi aretan polito irabazten neban, eta ume-janzkigintza naikoa ugariturik, dirua polito aurreztu aal izan genduan, eta beraz, aur-jaiotegi baten Gaizkane erdituko zala erabagi genduan. Izekoaren laguntzaz, umea zaintzeko ta jantziteko bearrezko gaiak gerturik egozan. Ez genduan besterik egiteko itxaron baiño, eta izan be, goizalde baten erdimiña etorten asi yakon Gaizkane'ri. Bereala, taxi bat eskatu, eta arrapalada bizian ume-jaiotegira joan gintzazan. Bereala aztertu eban osagilleak, eta dana ondo etorrela esan euskun, baiña len-semea izanik, luzarorako izango zala. Egun oso batez, miñetan irauan eban Gaizkane'k, eta oe-buruaren ondoan jesarrita, aurpegiko izerdia txukatu neutsan adoretzen saiatzen nintzala. Nire eskuari eutsita, noizean bein gaixoari miñezko intziririk

urteten yakozan. Ezin nengikean besterik egin bere alde, eta aal neban giñoan, berba egiten neutsan maitetsu.

Noizbait, urrengo goizean emagiñak osagilleari dei egin eutsan, sein egiteko garaia eldu izan zala iragarririk. Gelatik urteteko agindu euskun osagilleak Yokiñe ta bioi. Arrenkura esan-eziñak artuta itxaron genduan, eta ordu-erdi bat igarorik, emagiña etorri yakun, dana ondo gertatu izan zala esanez, eta ama-alabak atsedean artzen ebela. Arrapalada baten joan gintzakien. Igige ta begiak itxita, jasandakoaren ostean Gaizkane bere lengora biurtzen zan polliki-polliki. Makurtu nintzan, eta bekokian musu samurra jarri neutsan. Gero, askatxura joanda, nire alabatxua une luze batez begiztatu neban. Aurpegiko larmintz larroskara biguna laztandu ta musukatu neban. Orduan, Gaizkane'ren mintzoa aditu neban auxe iñostala:

– Zer deritxazu gure seintxuari...?

– Ezin politagorik izan, gure aingerutxu laztana.

Orduan zeozer burura etorri yatan, eta,

– Gaizkane –esan neutsan–, biar epaitegiako jaiotegiaren barrien agiritegiaren lerrokatu bear dot. Zein izena nai dozu gure alabatxuarentzat...?

Izan be, ordurarte ez genduan gure umearentzat izenik aukeratu, baiña orain ezinbestez emon bear yakon.

– Patxi, zer deritxazu Mirentxu izenari...? Beti atsegin izan yat, eta orain, gure alabatxua jaiota gero, are atsegiñago.

– Izen ederra benetan, munduko izenik ederrena, Gaizkane.

Une aretan, besoetan eban Yokiñe'ri seiña eskatu eutsan, eta magalean artuta, une luze batez maitasunez begiratuta, apa-laztandu eban.

– Seiñaren ederra...! –esan eban Gaizkane'k– Gure larrosatxu txanbeliña...! Ez neban iñoiz uste izango, aur batek orren zorion andia lekarkidanik...!

Egun zoragarria izan zan, eta areago Gaizkane ondo egoala ikusirik. Eztitan egoan izeko Yokiñe, seintxuagandik begiak kendu eziñik. Geisozaiñak aurra garbitzeko eroaten eban bakotxean, arekin joian Yokiñe, gora-beera guztiak ikustearren. Eta izan be, laster ikasi eban erabiltea, eta luzaro barik gai izan zan umea ondo jagoteko.

Urrengo egunean, eta legez agindua zanez, nire alabea epaitegiaren lerrokatu neban, jaiotegiaren saillean. Au egiñik, lora-denda baten txorta ederra erosi neban diruari begiratu barik, eta zorionez gaiñezka jaiotegira biurtu nintzan, eta musu samur batz Gaizkane'ri eskiñi neutsan. Besarkatu eban lora-txorta, eta larrosez gaiñetik maitasunez begiratu eustan. Gero, gosearen-gosez negarrez egoan Mirentxu bularrean ipiñi eban, eta aurra edoski bitartean, atzamarrakaz buruiñoa laztantzen eutsan.

Iru egun igaro ziran gora-beera andi barik, eta laugarrenean, ama-alabak ondo egozala ikusirik, etxera joateko esan euskun osagilleak. Poz baten abiamenak egin, eta eguberdiaren etxeratu gintzazan. Gaizkane'k eztitan zirudian, eta seiña askatxuan jarrita, gelako arasea egokitzen asi zan. Akar egin neutsan, oraindiño bere burua jagon bear ebala esanez, baiña berak irribarretsu,

– Laugarren eguna da, Patxi –esan eustan–, eta garaia, beraz, zeozertan jardun dagidan, iñarkuna osasungarria da-ta.

Bazkalostean, kai-ondoko idaztegiara joan nintzan, egun areitako gertaerak zirala-ta, nire betekizuna zerbait atzeratu izan yatalako. Zortziretan inguru etxera biurtu nintzan, eta Gaizkane batetik bestera ebillela ikusirik, oeratzera beartu neban. Gero, askatxuan zetzan gure Mirentxu maitasunez beterik begiztatu genduan.

– Zer deritxazu gure alabatxuari, Patxi...? –itaundu eustan–. Nik oso polita ikusten dot.

– Munduko seiñik ederrena –erantzun neutsan–.

Alboan egoan Yokiñe'k orduan,

– Baiña, Patxi –esan eustan–, noiztik ona zaitugu orren ezagularia...?

– Besteak beste, auxe ondo dakit, agirian dago-ta: Mirentxu ama lakoa da, eta au munduko emakumerik ederrena dan ezkerro, gure alabatxuak mundu onetan ez dau kidekorik.

Barre egin genduan, eta apalostean autu atsegiñari emon geutsan. Urrengo goizean gosalduta gero, lanera abiatu aurretik, oi nebanez Gaizkane'ri musu bat emon neutsan. Irudikeria etc...? Aurpegia oi baiño beroagoa ebala begitandu yatan. Ez neutsan jaramon andirik emon zertzelada oneri, eta beste barik etxetik urten nintzan. Egun aretan bazkaria izateko etxera biurtu nintzanean, nire emaztea adoretuagoa iruditu yatan, eta goizeko arrenkurak uxatuta, idaztegiara biurtu nintzan, atzeraturiko eginkizunari bultzada emoteko. Zortziretan-edo etxera biurtu nintzanean, eta Gaizkane'ri oiko musua emon baiño ez, zeezer oker joiala antz emon eustan.

Aurpegia sukartsua izanez gaiñera, begiak oi-ez-lako dizdiraz piztuta ikusten yakozan. Jateko gogorik ez ebala esan eustan Yokiñe'k. Izu bakanak artuta, urrutizkiñez jaiotegira dei egin neban. Une aretan osagillea kanpoan egoan, baiña emagiñen buruak pildu batzuk artu egiazala sukarra beeratzeko agindu eustan, eta zeezer barririk jazotekotan dei egiteko ostera be.

Arin baten agindutako osakaia erosi, eta emoten asi nintzakion, oe-burutik kentzen ez nintzala. Gaberdian inguru, obeto oartzen zala, eta oeratu neinten eskatu eustan Gertzane'k. Olan egin neban, baiña badaezpadakoan atzarri egoteko asmotan. Ustekabez, dei larri batek erdi-lotik iratzarri ninduan:

– Patxi, Patxi! –dei egin eustan Gertzane'k–.

Ikoti batatz jagi, argia piztu, eta urreratu nintzakion. Begiak txingarrak lakoak dizdiratzen yakozan, eta aurpegia izerdi patsetan eban. Izu larriak artuta aurpegia txukatu neutsan, auxe niñotsala:

– Gaizkane maitia, zer jazoten yatzu...?

– Ez dakit, Patxi, baiña odol-ustuten diardudala uste dot.

Egia zan. Izarak odolduak agertzen ziran. Zirrara batek astinduta Yokiñe iratzarri neban, eta arrapalada baten kalera oldartu nintzan taxi baten billa. Banekian arin ibilli bear nebala, arazoak larri zirudian-eta. zorionez laster idoro neban bat, eta etxera biurtuta, Gaizkane burusi baten bilduta, arin baten jaiotegira abiatu nintzan, etxean Yokiñe geratzen zala seiña zaintzeko. Eldu gintzazanean, emagiñak nire emaztearen aurpegi zurbilla ikustean, oeratu, eta osagillea iratzarri eban. Luzaro barik agertu zan, eta Gertzane ikusi ta bereala, aalik ariñen kirofanora eroateko agindu eban.

Estu ta larri, alboko aulki baten jesarri nintzan, inpernuko alamenak jasaten nebazala. Iru ordu luze, izugarriak, igaro ziran, eta noizbait, eguneko argia leioetan zear iragarren zala, esku-oe baten geisozain batek Gaizkane gelara eroan eban. Ate-ondoan geratu nintzan, eta osagillea agertu zanean, begitarte illuna ebala oartu nintzan. Ezer itaundu aurretik, auxe esan eustan:

– Arazo larria da. Milla artean bat aurkezten danetarikoa, eta ezuste ori zure emazteari etorri yako. Odol-jario andia da bere gatxa eta aalegindu naz zelan edo alan isurtzea eten egiteko, zan-josterik arduratsuen egiñez, baiña zure emaztearen zanak urrakoiak dira, eta josketa batzuk birritan egin bear izan dodaz.

– Onik urtengo al-da...?

– Ezin dagikezut ziurtatu. Odol-jarioa etentzearren osakai batzuk agindu dodaz, eta orain arazoa Jaungoikoaren eskuetan dago.

Lur-jota, etsiak artuta, Gaizkane'ren oe-ondora biurtu nintzan. Eskuak arturik musuakaz estali neutsazan. Berak begiak edegi ebazan, eta ni ikustean,

– Patxi, nire maitia –nekez esan eustan–, ez nagizu bakarrik itzi, bildur naz-eta...

Makurtu nintzan, eta musu luzea bekokian emonda,

– Zu bakarrik itzi –esan neutsan–, nire bizitza baiño maiteago zaitudan ori...? Nasaitu zaitetz, eta orain lo apur bat egin, indarrak birrartu dagizuzan.

Lo-zorro batek artuta ordu batzuk igaro ziran, baiña bere taupadak gero ta makalagoak oartzen nebazan. Etsiak artuta, oe-buruan nirauan zer egin ez nekiala. Bitarte onetan, osagilleak zenbait bidar aztertu eban, baiña nire itaunai iges-berbakaz erantzun eutsen. Arratsaldeko lenengo orduan azkenengoz aztertu eban, eta burua itxura ezezkorrak astindurik, auxe esan eustan:

– Tamalez esan bear dautsut, odol-jarioa ez dala eten egiten.

Korapillo bat kokatu yatan eztarrian, eta etsiak jota, Gaizkane'ren aurpegia apa-laztandu neban. Alako baten begiak edegita,

– Emen zagoz, Patxi...? –Esan eustan mintzo aulaz–.

– Bai maitia, emen nagotzu, nasaitu zaitetz.

– Entzun, Patxi... eroan nagizu etxera, Mirentxu'ren ondora, azkenengoz ikusi dagidan...

Osagilleagana joan nintzan, eta nire emaztearen naia azaldu neutsan.

– Eroan egizu –esan eustan berak–, egiteko zana, egiña da, eta orain bardin da etxean naiz emen egotea. Nik etxera eroango neuke.

Astirik galtzeke, taxi bat eskatu, eta burusi baten bilduta, Gaizkane etxera eroan neban. Atea edegitean, izeko Yokiñe'k nire aurpegian ezbearra irakurri eban, eta negar baten asi zan. Ardurarik endienaz oean jarri genduan, eta ondoan zain geratu nintzan, aurpegia ta eskuak laztantzen neutsazala. Bitartean, Yokiñe'k parroko abade bat ekarri eban, eta onek autortu ondoren, eleizakoak emon eutsazan.

Argizagi-itxurako aurpegiaren larmintza, bazirudian bere eifiñera etorkiola, orain ba-ke andiak artuta. Alako baten, begiak edegita, auxe esan eban:

– Patxi, Patxi, or al-zagoz...?

– Bai, nire maitia, zurekin nozu.

– Ekarki egistazu Mirentxu, musu bat emon dagiodan.

Ekarki neutsan, eta apa-laztan luzea emon eutsan, auxe iñoala:

– Mirentxu dan polita...! Zaindu egizu, Patxi, gure kutun laztana...!

Ezin izan neban itzik esan, nire eztarria erbaldu yatan-eta. Ustekabez, nire aalegin zoroak arren, biotzean gora samaraiño, aienenko negar mingotsa sortu yatan, nire maitia galtzeko zorian nintzala oartzean, eta aurpegia eskuakaz estalduta, negar etsi bateri emon neutsan. Alako baten, Gaizkane'ren eskuak billoak laztandu eustazan. Begiak niganatz zuzenduta izan arren, ez ninduan ikusten, urrean, auxe esan eustanean:

– Or zagoz, Patxi...? Ez zaitetz urrundu... banoa nasai, Mirentxu ondo zainduko dozula badakit-eta... Ez negarrik egin, maitia... noan lekutik zure alde ekingo dot... noiz-bait, merezi dozun zoriona jaritsi dagizun... besarkatu nagizu...

Eskua buru-azpian jarri neutsan, eta besteaz aren soiña niganaturik, aurpegia mu-suakaz estali neutsan. Gero, bake bakanak artuta, lo-antzean geratu zan. Olan nengoala, arnasa eten egin izan yakola oartu nintzan, eta negar etsi bateri emon neutsan. Oez bestaldetik, Yokiñe negar baten asi zan, eta luzaro gure oiñazeari bide emon geutsan. Alako baten Mirentxu'ren oiua entzun ziran, eta Yokiñe'k,

– Gose da gure aingerutxua –esan eban jagiten zala–, eta banoakio esnea atontzera.

Urten zan, eta orduan Gaizkane'ren begiak zabalik egozala ikusirik, itxi neutsazan. Ez nebazan betsein illun yaukal areik iñoiz ikusiko. Aspaldi aretan ain zorionsua egin ninduen begi eder argitsu areik itzungiak ziran, eta nire aurrean ez neban besterik ikusten, utsa ta amaibako basamortua baiño.

Gau aretan, illetaren gora-beerak atondu nebazan, eta noizbait apurtuta, oean etzanda jarri nintzan. Bestaldekoan, Gaizkane'ren gorpua zetzan. Ez neban lo egin gura, baiña areitariko egunen nekeak menperatu ninduan, eta ames-txarren arteko loak aldizka artuta, gau amaibagea igaro zan.

Biramoneko eguberdian, illetak ospatu ziran. Banaka batzuk tartekoak izan gintzazan. Mezeak iraun bitartean, gogora yatordan amar illabete aurretik ezkondu izan nintzala an bertan, eta epe labur orretan, gorengo zorionetik atsekaberik sakoneneraiño jausi izan nintzan. Nire aurrean orain dana utsa zan, eta bizirik jarraitzeko ez neban adorerik txikienik be. Dana bardin yatan orduan; bera barik zertarako bizi...? zoriona ozta-ozta jaritsita, inpernu jasaneziñera jaurti izan nintzan. Noiz ezagutuko zoriona...? Eta biotzak taupada zorotan: “Inoiz ez, iñoiz ez”, bein eta barriro ziraustan. Sagaratzean, biotzetik didar au urten yatan: “Jauna, Jauna, zergaitik kendu mundu onetan geien maite nebana...?” Otoi egin nai, baiña barruko atsekabeak ez eustan lagaten, eta aurpegia eskuen artean estalita, negar etsi bateri emon neutsan.

Urrengo egunean, obiratu izan zan bere aitaren ondoan. Ez neban gura azkenengoz ikusi; gogoan gordeko neuke bizi izaten zaneke aurpegi zoragarriaz eta begi yaukalan dizdiraz. Etxera biurtzen nintzala, altxor andia eskuakaz ozta-ozta ukuturik, ustekabez dana galdu dauanaren etsipenaz oartzen nintzan. Eta kaleetan zear etxera biurtzen nintzala, aurrean zetzakidan etorkiak etsipenez beteten ninduan...

Etxera sartu nintzanean, Yokiñe'k edoskiren tutua gertatzen ziarduan Mirentxu'rentzat, eta bitartean, seiña une batez emon eustan. Besoetan nebala, begiak edegita irribarre egiten eustala begitandu yatan. Gaizkane lakoxea zan umea...! Aren begietan ama zanan dizdir zoragarria nenkusala antz emon neutsan. Makurtu nintzan, eta aurpegian beera malko bat eridala, samur-samur apa-laztandu neban. Une batez oartu nintzan, atsekabe naurribakoa zerbait arintzen yatala, eta gero maite-maite biotzaren ondoan estutu neban.

Nire oiñazearentzat, baiña, benetako arintzerik ez. Egunez, Gaizkane'rekin oitutako lekuak ikertzen nebazan, jesarri oi gintzazan egurastegiko aulkian batez be. Uste izaten neban Gaizkane nire alboan jesarrita, izketan giarduala. Bein baten, an bertan jesarrita, auxe esan eustan: “Gure maitasuna oroz gaiñetik garaille urtengo da”. Garai aretan lurjota nengoan jardunik lortu ezin nengikealako, baiña bera nire ondoan neban, eta onek edozertarako indar eta kemena emostazan. Orain, ordea, paradisua galdu dauanaren antzera sentitzen nintzan, bakarrik, basamortuan zear bidegite luzea igurikan nebala. Sarri askotan, Gaizkane'rekin ibilkaturiko lekuetatik niñoanean, izketan asten nintzan bera nire alboan bai'legoan...

Gabean, nekearen-nekez apurtuta egon arren be, ezin nengikean bear izaten neban atsedena aurkitu. Izugarria yatan lo-aldia, amestxarren artean itxarten nintzala, nire maitiari zoroaren antzera deika, utsa soillik idoroteko. Irugarren egunean, eta Yokiñe'k eraginda, portuko idaztegitara lan egitera joan nintzan. Jarduna aringarria izanik be, ezin nengikean bear dan lez lotu, eta bein baiño sarriago nire ardura-ezaz oarturiko Imanol'ek, ez-ikusiarrena egiten eban. Egunoroko eginkizuna amaituta, uri-zearko ibillaldi alderraiari emoten neutsan, gero ta zoribakoago oartzen nintzala. Izan be, zoratasun-bidetik niñoan, eta nire egoeraz oartuta, bein baten, Yokiñe'k,

– Patxi –esan eustan–, ezin dagikezu zoazan bidetik jarraitu, zoratuko zara-ta. Nire ustez ezinbestekoa da bizimodua aldatu dagizula. Ez dozu lengoa emoten, ez urrik emon be, azur eta azal biurtuta zakust-eta. Naigabetzen zaituen lengo tokiak eta oroitzak burutik kentzeko biderik onena, jardun-aldatzea izango litzake, eta augaitik, beraz, itsasgoari barriro emon dagiozula, onena izango yatzu nire ustez. Ni ez naz nor zure arazoetan esku sartzeko, baiña pentsau bear dozula uste dot, zure onerako diñotsut-eta.

Izan be, Yokiñe emakume argia zan, eta iñostana zentzuz beterikoa zan, eta berak itarantzunikoa ausnartzen asi nintzan, eta zuzen egoala begitandu yatan. Onen ondorioz, itsasgoari barriro emotea erabagi neban, eta beste barik, bein baten, “Mendigarai” itsasontzia jabetzen eben ugazabakana joan nintzan, eta ia niretzat ontzian maizaintzat jardun bat egongo litzaken. Iru egunen buruan ontzia kairatzeko zala, eta orduan nagusiari jardun bat eskatu nengiola esan eusten, euron aldetik oztoporik ez eben ikusten-eta. Onen ostean, kai-aldeko idaztegitara joanda, Imanol nire asmoari buruz jakitun ipiñi neban, eta nire ordezkaria billatu egian. Au ez jakon bape atsegin, nirekin alkar-kidetua zalako, baiña astirik galtzeke, billaketa orretan lagunduko neuskiola berba emon neutsan. Aspaldiko nire akademira joan nintzan, eta emen baietz, niretzat ordezkari ona baebela esan eusten.

Iragarritako epean “Mendigarai” legorreratu zan, eta ontziratuta, nagusia billatu ne-

ban. Izan be, laster nintzan bere aurrean, eta nor eta Elantxobe'ko Leontzi berbera...! Aurreko aldietan, lenengo buruzagitzat (ofiziala) ezagutu izan neban, baiña bazan urtebete bat ontziko nagusia billakatu zala. Ni ikusi baiño ez, agurtu ninduan txeratsu, eta bera-rekin berba egin gura nebala esan neutsanean, buruzagiaren aretora eroan ninduan, eta besaulki banatan jesarrita, azken aldietako nire gora-beerak edestu neutsazan. Amaitu nebanean, auxe esan neutsan:

– Zoratu-agiñean nozu, Leontzi. Uri onetako txoko guztiak, eta nire etxeak batez be, Gaizkane'ren oroitzu ta galduriko zoriona gogora dakarstez. Ezin dot au luzaroago jasan, eta urtenbide bakarra itsasoratzea dot, aalik urrutiago ta obeto nire etsipena arintzearren. Augaitik ba, maizaiñaren jarduna ontzi onetan emongo ba'zeunskit, eskertuko neuskizu biotzez.

Leontzi'k itxura bakanaz begiztatu ninduan, eta,

– Begira, Patxi –esan eustan–, ezin dagiketsut jardun ori eskiñi, baiña...

Bapatean, aurpegia irribarre zabalaz argitu yakon, eta,

– Baiña... –jarraitu eban– gai oartzen ba'zara, ontzi-ornitzaillaren (mayordomoa) jarduna emongo dautsut. Ara... ontzi onetako ornitzaillera, orain iru egun Kanariasen Las Palmas'ko geisotegira sartu bear izan genduan makur larri batek jota. Augaitik ba, eta jardun orretarako gaitzat zaitudan ezker, kondalari-ikasketak egin dozuz-eta, beste barik jarduna zuretzat izango da. Zer deritxazu orreri...?

Ezin nengikean siñistu, orren alagala yatordan zeregiña eskiñi egidanik, eta asike-reako arritasuna menperatuta, mintzo totelaz,

– Oba ez, Leontzi –erantzun neutsan–, ez dakit zelan eskertu nire alde egiten dozuna.

– Ez daustazu zertan eskertu, Patxi. Baldintza bat, baiña, oroz gain bete bear izango dozu, eta auxe alegia: zintzotasuna. Zeuk luzaro samar ornitzaillera baten ondoan jardun dozu, maitzain izan zara-ta, eta gitxi-gora-beera aren betekizuna ezagutzen dozu. Ornitzaillera batek amaika aukera baditu besteen lepotik diru ugari egiteko, au da, gai merkeak erosi, eta ontzat emon. Baiña ni neu ontzi onen nagusia izan artean, olakorik ez dot onartuko, ez zeugandik ez beste iñoregandik. Ona emen, zure betekizunaren baldintzak...

Astiro ta zeatz azaldu eustazan. Portuetan erosiriko gaiak, ontzi-jaubeek ordainduko leukiez, eta lanagaitik illeroko sari bat artuko neuke. Onezaz gaiñera, eta emondako zerbitzua ontzi-nagusiaren eritxiz ona ba'zan, burukal ainbat diru artuko neuke. “Mendigarai”ko gizonak berrogei bat izanik, azken irabazte au ez litzake makala izango. Janari-edariakaz gaiñera, sukaldako tresnak, mai-zerbitzurako ontziteria, zamausak, zapiñoak, burusiak, izarak, lanerako jantzi-oiñetakoak, suillak, erratzak, jaboia, sendaki-kutxaren gaiak etab. nire kasa izango ziran. Izan be, baneban zeri begira. Leontzi onetaraxe mintzatu yatan amaitzean:

– Oraingo onetan gure ontzia bost egunez kaian geratuko da. Bitarte onetan, bearezko erosketak egingo dozuz, eta zalantzaren bat izatekotan, zure aukeran izango dozu txandako buruzagia edo ofiziala, ni biar bost egunez etxera joango naz-eta, baiña berak bearezko argibideak emongo dautsuz noizgura. Biar bertatik asi zaitezke. Izan be, orni-

tzaille arduratsuak ba'dau zertan jardun, eginkizuna ondo bete gura ba'dau. Agur ba, Patxi, eskintzen dautsudan jarduna lagungarria izango yatzu zure atsekabea zelanbait arintzeko. Urrerogarte ba.

– Eskerrik asko, Leontzi. Ez dakit zelan ordaindu zure eskintza, baiña ziñez diñotsut: zuk nire alde egiña ez dozu damurik izango.

Astirik galtzeke etxera biurtu nintzan, eta Yokiñe jakitun ipiñi neban. Poztu zan nire jardun barria jakitean. Onen ostean,

– Izeko –esan neutsan–, aurre-ainbaketa bat egin dot, eta nire zenbakien arauz, polito irabaziko dot. Illero-illero lan-saria bialduko dautsut, zeuk eta Mirentxu'k iñongo bearrizanik jasan ez dagizuen. Nik irabazitakoaz, naikoa ta geiago izango dozu lan egin barik bizi aal izateko. Olan, Mirentxu'ren zaintzari bete-betean emongo dautsazu.

– Bai, Patxi, ez larritu gugaitik, onik urtengo gara-ta. Mirentxu aalik ondoen jagon egingo dot, besterik ez dot-eta. Tamala benetan joan zaitezala, baiña on izango yatzu, oiñazea zelanbait arintzeko.

Urrerogarte egunean, eta nire agiriak baltzuko idaztegiaren jasota, bereala jardun barriari ekin neutsan. Mai-zaintzak emostan ezaguereari esker, eta kontuan arturik, oiko erostelekuak, Canari ugarteetan, Rio de Janeiro ta Buenos Aires'en izango litzakezala, ainbaketa naikoa zeatza egin neban, eta onen arauz janariak erosi nebazan, baita bearezko burusiak, izarak etab. Canarias'en eta Brasil'en igaliak eta ortuariak ontziratu neukez, toki orreitan askozaz merkeagoak ziran-eta. Leontzi'k esan eustanez, erosiriko gaiak ontzi-jaubeek ordaintzen ebezan, nire egitekoa izanik, oroz gain ontasunari begiratu, eta jakiña sari egokian. “Mendigarai”ko sukaldaria aspaldiko ezaguna neban, eta lagun ona ta zintzian bagenduzan ozgaillu andi ta ederrak, jangaiak egoera egokian iraun-erazoteko.

Nire jardunari egokiozan gora-beeratan, bost egunez guztiz lanpetuta billakatu nintzan, egunak arin baten igaroten zirala, nire atsekabearentzat aringarri andia izanik. Oartu nintzaneko, itsasoratzeke aurreguna etorri zan, eta onekin batean Leontzi Elantxobe'tik biurtu zan, erri onetan ezkondu bizi zan-eta. Egindako erosketak aztertu ondoren, zeatz bat edo beste izan ezik, ontzat emon ebazan. Orduko, “Mendigarai”en oiko burnikiak eta tresnagailluak ondo egokituta, urrerogarte eguneke arratsaldean itsas-gora ustiatuz, ibaian beera abiatuko gintzakez.

Eguberdi-irian, nire bide-zorroa gerturik urten-agiñean nintzala, malkoai eutsi eziñik, Yokiñe'k auxe esan eustan:

–Agur, Patxi, ondo izan eta urrerogarte. Ez zaitez larritu umeagaitik, gure kutuntua oroz gain zainduko dot-eta. Jagon zure burua, eta bear dozun bakea idoroko al dozu...!

Mirentxu zetzan askatxura urreratu, eta besoetan artu neban. Une aretan begiak zabaldu, aboa edegi eban irribarretsu. Aren aurpegiñoaren ederra...! Une batez, betseñetan Gaizkane'ren edertasun gorena nenkusala iruditu yatan, eta polliki, min egiteko bildurrez, bere larmintz samurran musu bigun luzea jarri neutsan. Negar-zotin etsia eztarrira etorri yatan, eta barruko zauskada jarki-eziñak begietan malkoak jarten eustazala, aska-

txuan ipiñi neban barriro, eta gero Yokiñe besarkaturik, itz egiteko gai ez nintzala, bidezorroa artu, eta zurubian beera oldartu nintzan, malko mingotsak eridazala.

Klare Done enparantza atzean izteko zorian nintzala, gibelera begiratu neban. Mi-
rentxu besoetan ebalá, Yokiñe'k agur egiten eustan. Gaizkane galdu nebanetik, maitatze-
ko aalmena betirako galdu izan nebala uste izan neban, baiña une aretan nire alabatxua-
rekiko maitasun bizia ene biotzaz jabetzen asten zan. Zoriona, noiz ezagutuko neuken
zoriona...! Klare Done enparantzako etxean une igeskor batez zorion gorena ezagutu ne-
ban, baiña nigandik iges egin eban, zerua neugan egoala uste izaten nebanean, eta orduan
gogora etorri yatazan olerki onen aapaldiok:

Neure ateraiño deika zaitut
zorion, bidaide bakana,
baiña edegitean, ai ene...
urrutira zakust joana...!
Noiz etorriko biotzera
izar igeslari laztana,
beti-beti zure begira
zergaitik ez zatoz neugana...?

Kaleetan beera portura jaisten nintzanean, argi-argi oldozkun bat etorri yatan buru-
ra: Gaizkane'ren utsunea ez leukela beste iñork beteko. Aurrerantzean, nire baitan gorde-
ko neuke emakume yaukal arekiko nire maitasun andi ta itzungieziña. Beste iñorentzat
ez leuke lekuri egongo....

Illunabarreko itzal laztangarriak inguratzen ginduezala, ibaia itzita, itsaso zabalera
abiatu gintzazan, eta izarrekin batean legorreko itsas-argiak keiñuka asi ziran. Dana ondo
egoala ziurtaturik, sukaldean nire aukeran neban mai-aurrean jesarrita, apaltzeari emon
neutsan. Gero, ontzi-gaiñeko eskudelean besoak kokatuta, betiko amesari emon neutsan,
alboan Gaizkane nirekin bai'litzan.

Ez dakit zein ordutan sartu nintzan nire ganbaratxura. Oraingo nire egoera goitsuari
egokionez, txukun eta atsegiña zan. Albo bateko oea erosoá zan, buru-maitxua argi batá
ornidua irakurtzeari emoteko. Arasa zabala zur bikaiñaz egindakoa aurrean edatzen zan
alderik-alde, eta txoko baten garbi-gelea, ur otz-beroko konketa txukunaz, eta txirrioki-
ñaz orniduta. Onezaz gaiñera, idaz-mai zabala nire jardunari egokiozan liburuak erabilte-
ko. Zuredi ta metalkiak bikaiñak ziran, eta soru guztia azpi-oial gorri ederraz estalduta.
Izan be, ezin zeitekean atxakirik ipiñi.

Eta olan, ez-arian lez, itsas-soiñuak urrumaturik, eta nire jardunak arazopetuta, egu-
nak joan egunak etorri, ontziak porturik-portu nindaroala, bizitzaren beste zati bateri
asiera emon neutsan. Luzaro barik nire betekizunaren gora-beerak menperatu nebazan,
bai oar-ikasteari bai Leontzi'ren burubideai esker. Zuzen jokatzen saiatu nintzan, eta au-
gaitik, buruzagi ta itsastarrak zerbitzuaren ontasuna ederresten eben ezkeru, emosten ille-
ko sariari burukal ainbatekoa geitzen yakonez, diruaren aldetik ez neban iñongo buruau-
terik.

Onezaz gaiñera, baneban lendik ikasitako beste irabazte-bidea: urrearena, alegia.
Buenos Aires'en kairatuta, La Boca'ra joan, eta artez-arte, Moises'enera abiatu nintzan.
Judutarrak ikusi ninduanean, pozezko didarra jaurtita oldartu yatan, eta alkar besarkaturik,

– “Mijito” –esan eustan– benetan uts emon dautsut aspaldi luze onetan. Izan be, sa-
rri askotan nire buruari itauntzen neutsan, non demoniño izan zeitekean “El vasquito” ni-
re ezagun ederretsia. Zer deritxazu gaur alkarrekin apaltzeari...?

– Oba ez, Moises Jauna...!

Dendea itxita, alboko jatetxe batera eroan ninduan, eta gure biziko aparti gozoa artu
genduan. Onen, bitartean, astiro ta zeatz azken aspaldi aretako gora-beerak emon neutsa-
zan. Ontziko ornitzaillea billakatu nintzala jakin ebanean,

– Putxa karajo...! –esan eustan– Ez da jardun makala...! Nire buruari beti niñotsan:
“El vasquito ori mutil makanudoa da, eta luzaro barik urrutira joanda ikusiko dogu”. Eta
orra or...

Aparia ta apalostea txit atsegiñak izan ziran, alkarren barriak emoten geutsazala. Azkenean, urrearen prezioa eztabaidatu, eta noizbait bat etorrita, kilo-erdi bat berbatu genduan. Apari bikain aren ordaiñez, biaramonean, beste batera ontzira dei egin neutsan, eta Moises Jauna ontziratu zanean, ontziko ikusgarriak erakutsi neutsazan, eta onen ostean, sukaldariak berariz atonduriko apari on-onari ekin geutsan. Pozik egoan judutarra, eta kafe gozoa artu ondoren alkar agurturik, "urrengorarte" esanez joan zan, berbatu-uriko urrea niri emonda gero.

Olan ba, lendik ikasitako urre-salerosteari jarraitu neutsan, eta izan be, ez neban soster andirik aurkitu. Jaioterrian, On Bitor bitxilariari urrea saldu oi neutsan, eta zati bat aurrezkitzat diru-etxeke kontu agirira sartuta, enparaua sal-erosketan erabilten neban. Urreak emostan obaria ez zan lengo beste andia, gure erriko egoerea aldatu zalako, baiña olan eta guzti be, ez zan makala. Alde onetatik onurea gitxitu izan ba'yatan be, bestetik, nire jardun barriak emostan saria, len baiño askozaz andiagoa zan, eta nire kontu agiriak gorakada polita artzen eban.

Bein baten, etxea epeka erosi-bearrean, era batean ordaintzea esonatu neutsan Yokiñe'ri, orretarako beste ta geiago aurreztu izan neban-eta. Baietz esan eustan, eta arazoa ondo aztertuta gero, jabetasunaren agiria Mirentxu'ren izenean lerrokatzea erabagi genduan. Onezaz gaiñera, joste-lanari ez emotea eskatu neutsan Yokiñe'ri, bearrezkoa ez zan-eta; baiña berarentzat asti-emotea zan ezkerro, itotasun barik josteari jarraituko leuskiola, esan eustan, Mirentxu'k eskatzen eban zaintza andirik ez zan-eta. Badaezpada-koan, kontu agirirako aalmena emon neutsan, ezusteko eralguntza bateri aurre egin aal izateko. Esan bearrik ez, Mirentxu zoroki maite ebal, gur egiteraiño izan be, eta umeak zelanbait izeko zaarraren bakartasuna arintzen eban. Etxeko bedeinkapena zala esango neuke.

Ontziaren joan-etorriak illabete bi iraun oi eban, eta biurtzean, Mirentxu laster bersarkatuko neuken itxaropenak zorionsua egiten ninduan. Lili politaren antzera garatzen zan, eta itsasaldi batetik bestera, beragan aldakuntza agiria ikusten neban. Etxean gei-entan bostpasei egun emoten neban, eta atsedendaldik oneitan umeagandik ez nintzan alden-tzen. Bein baten, Mirentxu'k urtebetea ozta-ozta beterik etxera biurtzen nintzala, Yokiñe'k atea edegi eustanean ankatxuak kili-kolo erabillezala, etorri yatan. Biotz-ikara batek eraginda, besoetan artu, eta aurpegiño larroskara bein eta barrero musukatu neutsan. Arrezkero, Mirentxu bazan nor, nire eritxiz beintzat, mundutik ibilteko, eta egotaldi aretan, eskutxutik artuta, Klare Done enparantzatik ibilli genbiltzala, munduko ikuspegia ar-tzen asi zan. Nekatzen zanean, arrelepoan batetik bestera neroian. Egun zoragarriak emon genduzan berak eta biok. Ontzira biurtzeko aurregunean Mirentxu lotan egoala, lu-zaro begiraturik, Yokiñe'ri auxe esan neutsan:

– Umearen ederra...! Nik esango neuke bere ama zanaren lakoxea dala.

– Aren begi andi arbendolduak baditu, baiña zure aurpegiko karantz asko be.

– Asiera baten ez neutsan jara andirik emon, baiña orain... bizi-erazoten nauan itxaropenaren arnasa da.

Isillune bat sortu zan, eta gero Yokiñe'k,

– Bakartasuna alaitzen daustan izarra da. Gure Gaizkane maitia joan yakun, baiña aingerutxu zoragarri au laga euskun.

Korapillo bat kokatu yatan eztarrian, eta umeaganantz makurtuta, apa-laztan luzea jarri neutsan aurpegiño zuri-gorrian.

Egunak joan egunak etorri, argi egoan Mirentxu ni ezagutzen asten zala, eta legorre-ratzen nintzan bakotxean, pozezko didarrakaz atosten ninduan, eta egun osoan atzetik ya-bildan kalera atara nengian. Berba egiten asten zan, eta nire prakari eutsirik,

– Aitatxu, ani-ani... –esaten eustan–.

Eta pozaren-pozek kalera urten oi gintzazan, eta nire eskuari oratuta, txoritxu baizen alaia, nekez ulertzen neutsan itz totalakaz berba egiten eustan eten barik.

Iru urte beterik, etxetik ur egoan aurtegi batera sartu eban Yokiñe'k, eta arrezkero, bere itxarkundea nabari egin zan, bai soiñez, bai arimaz. Eta igarri barik urteak igarota, Jaunartzeko garaia etorri yakon. Orduko, gure enparantzaren eraikia zan Klare Donearen lekaimeen ikastetxean adiraltzen eban, eta nire eskariari jarraituz, jai ori ospatuko zan itsasotik etorri neintenean. Itsasaldi aretan, Moises'enean oiko urrea erostean, errubidun erestun bat eskatu neutsan, onenetarikoa izan be. Eukan bitxirik ederrena erakutsi eustan, eta ontzat eritxita, egokion andelean gordeta, etxera ekarri neban. Oiko besarkada maite-korraz abetaldu ninduan Mirentxu'k, eta urrengo egunean Yokiñe'k eretirako josirik soiñekoaz jantzi zanean, andeletik erestuna atara, eta atzamarrera sartu neutsan.

– Erestunaren ederra...! –oiuka besarkatu ninduan–. Aita, lengo egunean, maitasuna margo gorritz itxuratzen dala, esan euskun lekai-eme batek.

– Bai, Mirentxu, erestun onek zure aitaren maitasuna adierazoten dau.

– Errubi au begiztatu dagianetan, maite-maite nozula gogoan izango dot, aitatxu.

Egun aztu-eziña gertatu zan. Ospakizuna amaitu zanean, auxe esan eustan:

– Aita, Jaunari eskatu dautsat, itsasora joan barik legorrean jardun bat emon dagi-tsula.

– Ez dakit, Mirentxu, baiña orain arte, beintzat, Jaunaren naiak ez nau legorrera lotu. Esan, maite orrek, zer besterik eskatu dautsazu...?

– Zu ta izeko Yokiñe, urte askotan bizirik gorde zagiezala, eta neugan bere naia bete daitela. Amatxuren alde be eskatu dautsat.

Gero, argazki batzuk eginda, irurok jatetxe baten bazkari gozoa izan genduan.

Mirentxu'ren adimena itxartu-ala, alkarriketa luzeak izan oi genduzan, eta ulertze-ko gai izan zanean, neuk bizi izandako gora-beerak edesten neutsazan. Bein baten, Perutxu Jaunaren Belen'go ipuiña edestu neutsan, eta amaitu nebanean,

– Augaitik, Mirentxu –esan neutsan–, Perutxu Jaunak eta biok erabagi genduan, Eleizeak kontuan artu bear izango leukela, oillarren garrantzia, eta Belen'go estalpean, idi ta astoaz gaiñera, oillarra agertu bear litzakela, San Jose'ren esnatzaillea zan-eta.

Barre egiten eban Mirentxu'k auxe inostanean:

– Zuzen zengozen Perutxu Jauna ta zeu.

Urrengo itsasalditik biurtu nintzanean, Gabonilla'n aurkitu gintzazan. Biaramoneko arratsaldean, Mirentxu'k auxe esan eustan:

– Aitatxu, goazen egurastera, eta bidebatez nire ikastetxeko jaiotza ikusi dagizun gura dot. Uriko ederrenetarikoa ei' da.

Joan gintzazan ba, nire besoari oratuta Mirentxu'k guztitariko barriak emostazala, ikastaroari egokiozanak geien baten. Bere maillako aurreratuenetarikoa zan, etxera ekarrezan ikaste-eritxiek adierazoten ebenez. Laster eldu gintzazan ikastetxera, gure etxearen aurrez-aurre enparantzaz bestaldean egoan-eta.

Ikastetxeko atadi zabalean oltz andi baten gaiñean egoan jaiotza, eta izan be, ederra zan. Sartu gintzazanean, nire eskuari eutsita, Mirentxu'k esan eustan:

– Ibillaldia emendik asita estalperaiño egingo dogu.

Asi gintzazan ba gure txangoa, Belen'go errira urreratzen gintzakiozala, guztitariko bide, zubi, artalde, zelaietan zear agertzen yakuzala. Ikusgarria zan genkusana. Aizerroten egalak bira egiten eben; ur-errotak uren palastakaz igitzen ziran; oletan, burdiñari itxura emoten eutsoen ola-gizonek, idien aurretik joiazan lugiñak, eta etxeoandreek latsen ertzetan bogadeari emotsoen. Zur eta lur eginda nengoan jaiotz aren zeatz eta antzea ikustean. Noizbait, Belen'era sartuta, estalpera eldu gintzazan, eta... zauskada andiak artu ninduan...

Estalpeko gaillurrean kokatuta, idunea luzatuz eta mokoa zabalik, oillar gorri ederrak lau aizeetara bere kukurruku zangarra botaten eban, eta Yoseba Deuna jagita, urtete-ko zorian zan. Une luze batez txundituta geratu nintzan, Perutxu Jaunaren irudi xaloa gogora etorkidala. Olan nengoala, Mirentxu'k,

– Zer deritxazu estalpeari, aitatxu...? – itaundu eustan –.

– Zoragarria da, Mirentxu, eta oillar eder orrek Perutxu Jaunaren oroitza berpiztu dau nigan. Zu zaitut, urrean, oillar orren eragillea, ezta...?

– Bai, aitatxu. Ara... jaiotza eraikiten asi zanean, lekaiame nagusiari Perutxu Jaunaren ipuiña edestu neutsan, eta onen ostean, oillar bat estalpeko gaillurrean ipintea esondatu (proposatu) neutsan, Yoseba Deuna goizero iratzarten eban oillarrak, olako oroigarria merezi eban-eta. Baietz esan eustan, eta orra or Perutxu Jaunaren oillarra egi biurturik.

– Ziur naz, zeatz orrek poztu dauala nire aspaldiko lankidea. Gizon arrigarria zan Perutxu Jauna nire dirudun bazkide-oia. Gabonetan il zan, eta idiaren begietan kokaturiko argia, biotzean jarri yakon eriotzaldian.

– Ez al-dakizu gauza bat, aitatxu...? Ikastaro onetan edeski-sari nagusia jaritsi dot, Perutxu Jaunak India'n izandako jazoeraren edeskia gaitzat artuta.

– Gizon maitagarria zan, eta lankidetzat baiño aitatzat izan neban. Egunoro gomutan dot.

– Orain, aita, beraren eta amaren alde, esan dagigun otoi bat.

Aldiaren jarraigo geldi-eziña bajoian aurrera, eta urteak igaro-ala, Mirentxu larrosa baten pipilla bai'litzan garatzen zan, begi urratuak gero ta bere amaren antzekoagoak biurtzen yakozala, baita ezpanen keiñua irribarre egiteko edegiten yakozanean batez be. Olan ba, eta igarri barik amabost urteko billakatu zan. Orduko, diru aldetik gauzak polito joan izan yatazan, eta nire kontu agiria etenbako gorakadea arturik, diruketa orreri zelako

erabilte emoteko, sarritan nerabillen buruan. Antxiña bateko aurrezkiak jasandako ondapena zala-ta, orain zuurrago jokatu neban, eta or-emenka azterketa arduratsuak egiñik, iru zatitan bananduta, iru motako ondasun-zatiak (akziñoak) erosi nebazan, eta izan be ondo oiñarritutako iru baltzu ziurretan.

Amabost urteko zanean, ikasketak aukeratzeko garaia eldu yakon Mirentxu'ri. Niketz, askatasun osoan autu egian laga neban, eta itsasoratzeko nintzan aurregun aretan, irakasle-andereñoa izan nai ebalá esan eustan. Poztu nintzan benetan, eta nire gogoko aukerea zala esan neutsan.

Urrengo eguneko illunabarrean, ontzitik itsasaldeko marra laiñotsua ezabatzen nenkusala, besoak eskudelean kokatuta ames egiteari emon neutsan. Ikasketak amaituta, mutil zintzo on batekin eskonduko litzake Mirentxu, eta txori alaien antzera, billobatxuen talde zoragarriak inguratuko ninduke, zartzaroko negua udabarria biurturik. Nire inguruan jesarrita, ene ibillaldien gora-beerak edestuko neuskiez, eurok abo-zabalik eta begiak zuringotuta, niri adi-adi. Orduan ezagutuko neuke ordurarte bizitzak ukaturiko zoriona. Jabetuko neuken guztia eurontzat izango zan, baiña oroz gain nire burubideak eta maitasuna. Ordurarte ez neban besterik ezagutu bakartasuna baiño, eta basamortuan zear egindako bidaldi luzea amaituko yatan. Bai, noizbait, atsedena ezagutuko neuke, bake ta maitasunean izan be.

Eta beste urtebete bi igaro ziran...

Bein baten, ondore itzelak ekarriko leuskidazan jazoera siñisteziñak ezustean arrapatu ninduan. Ara...

Iru eguneko egotaldia nire aukeran neban Rio de Janeiro'n, ekarritako gaiak ustu birtartean. Ereti areitan oi neban lez, lenengo egunean bearrezko erosketak ontzirako eginda gero, bigarrenean, portutik erri-berebilla artuta, Copacabana ondartzara jatsi nintzan, eta emendik oiñez Ipanema ondartzaraiño. Onen atzean, La Lagoa deritxan zingira ederra dartzatza, eta onen ertzetik egurastuta gero, erri-berebillaren geldilekura abiatzen nintzala ontzirakoa egitearren, lepo-gaiñean sendor bat lorratzen eban atso baltza ikusi neban. Egursoiña ez zan andiegia, baiña emakume doakabe arentzat zama nekagarria izanik, tatarrez eta arnas-estuka joian. Ustekabez, beraganako errukiak eraginda, urreratu nintzakion, eta,

– Aizu, –itaundu neutsan–, nora zoaz egur-sendor ori lepoan artuta...?

– Ai ene, Jauna...! –erantzun eustan atsanka–. Itsasoak ondartzara jaurtiten dauan egur-billa. Branca gaixoak txarto ikusten dau bere burua, egunoroko janari landerra bera ta billobentzat atondu aal izateko.

Zailla zan benetan, atso aren adiña igartea, leku areitan, tropikoetan, emakumeen larmintzak garai-aurrekoz zimeltzen dira-ta. Aurpegira adi-adi begiratu ondoren, irurogei bat urteko izango zala begitandu yatan. Afrika'tik lurjabeek ekarritako jopuen ondorengo zan, biziera lander, ezaiña jasateko epaitua jaiotzatik, eta eriotzaz soillik amaituko zan nekaldia, bere uxa-eziñeko patua izanik. Ustekabez, erruki andiak artu ninduan, eta biotz-eragiñari jarraituz, danatzaz aztuta sendorra lepo-gaiñetik kendu neutsan, eta gal-tzarpean jarrita,

– Aizu, Branca, non bizi zara...?

Andik urrun ez egoan txabolategi bat erakutsi eustan, auxe iñostala:

– Or aurrean ikusten dozun “favela” orretan.

– Goazen ba, neuk eroango dautsut egur-sointxua.

Zeru-lurreko bedeinkaziño guztiak opa izaten eustazala, Branca nire albotik ibiltzen asi zan, txabolategirantz bideratzen gintzazala. Egun berotsua izanik, eguzki kiskalgarri-pean aldatz-gora abiatu gintzazan zingiratik urruntzen gintzazala. Ibilli genbiltzala, bere billoben gora-beerak emostazan Branca'k, etenaldi ugariak egiteko beartua izanik arnasa irabazteko. Noizbait, “favela”ra elduta bide aldapatsuan gora joan gintzazan, lataz, olez, eta lurrez egiñiko txabol areitatik, sunda nazkagarriak inguratzen ginduzala. Neska-mutikoak erdi-billutsik jolasten ziarduen oiui bizitan. Oneitariko batzuk urreratu yakuzan niri

txanponak eskatuz, baiña Branca'k uxatu ebazan makilla erabilliz. Guenez, besteak bai-zen txatxarra zan txabola baten aurrean gelditu zan atsoa. eta giltz bataz atea edegita, barrura sartu-erazo ninduan. Gela ziztrin aretako txoko baten sutondoa egoan; beste txoko bi zorroakaz esita ikusi zeitekezan, lo-gelak mugatuz, antza. Erdian, aulki lokatu batzuk inguratuta, mai baldarra egoan.

Sartzean, Branca'k jesarri-erazo ninduan mai-ondoan, eta eskerrona amaibako be-deinkapenez azaltzen eustala, arasa kirrinkatsu batetik, edontzi ta pitxar bete ur atarata, edontzi ur eskiñi eustan. Ez neban uste andirik leku aretan emon ekidanetan, eta eskintza alderatu neban. Atsoak baiña, itxura minduaz,

– Jauna, arren –erregutu eustan–, ez zapuztu goizean neronek ekarrirako Tijuka basoko iturritik ur gozo garbia. Rio'ko urik gozoena ei'da, eta besterik nik emon ez dagikesudan ezkeru, dedu andia litzakit edango ba'zendu. Arren, Jauna...!

Izan be, egun sargoritsu aretan “Favela”rako bide aldapatsua eginda gero, egarri nintzan, eta bigarrenez arrenkatu eustanean, baietz esan neutsan. Edontzia eskintzera-koan, Ipanema'ko atsoak,

– Aztu egin bear be...! –esan eban–. Egarrri danean ez da obarik, “Calpirinha”ko tanto batzuk botatea baiño.

Au esanik, bonbil batetik edari bizi orren txurrusta laburra jaurti eban, eta jarraian, nire aurrean jesarrita, etxekoen gora-beerak emoten asi yatazan, atsegiñez beterik ni edaten begizatzen ninduala. Izan be, Tijuka basoko ura gozoa zan, eta nik edan bitartean, atsoak beretarren zertzeladak emostazan.

– Bai, Jauna –iñostan mintzo leunaz–, Lourenço, billobatarik gazteenak, Ipanema ondartzako “Hilton” ostatuan diardu oiñetako garbitzailletzat, eta berak dakarkidan di-ruari esker, zeozer erosteko gai nozu. Mutiko ernai ta maitetsua da Lourenço. Beste billobak, ordea, eskurakaitzak dira, eta egun osoan zear euretara diardue, nik al dakit zertan...! Ai ni gaixoa...! Zerorrek jakingo ba'zendu zelako istillu gorriak jasan bear dodazan, bizirik irauteko...! Bearrizan utsaz, eta erreumak lagaten nauanean, Ipanema ta Le-blon ondarretara noatzu, itsasoak ertzera dakazan egur eta ol-zatiak batzeko, ikatza erosteko dirurik ez dogu-ta... Sarri askotan, nire Lourenço maitiak badiñost egunen baten, anditu daitenean, lan egin barik bizi izango nazala..., bai, iñor ez Lourenço beste maitagaria, eta aingeru orreri esker, ba...

Branca atsoak mintzo gozo ta eresintsua eban, eta ni oartu barik, lo-gura jarki-eziña menperatzen asten ninduan, atsoak berba egin bitartean. Alako baten, lo-kuma batek zentzumena ezereztu eustan, nire gogoak laiño lodiaren artean egan egiten ebalaa...

Gela zuriko oe baten itxartu nintzanean, bazirudian inguruko gauza guztiak bira ta bira yabildazala, buruko min izugarriaren artean. Miñak eraginda, eskuak burura eroan, eta orduan oartu nintzan lotura batz bilduta nebala. Miñaren-miñez oi bat jaurti neban, eta orduan zuriz jantziriko irudi bat urreratu yatan, eta itz ulerkaitzakaz esan eustan kei-ñuakaz lagunduta geldi ta isillik egoteko. Noizbait, eta baretzen ez nintzala ikusirik, zeozer edan-erazo, eta miña arindurik, jatekoak ekarrira bere eskuz jaten emon eustan. Gero, lo astunak artu ninduan urrengo egunerarte...

Ez dot irakurlea gogait-eragin gura guztitariko zeatzakaz, baiña itz laburraz, auxe gertatu izan yatan... Iru egun lenago, goizaldean urizain batek Ipanema ondartzatik ez urrun aurkitu ninduan, burua ta aurpegia odolez beterik. Arin baten, eri-berebillean geisotegira eroan ninduen, eta soin-azterketa zeatza egiñik, buruan zartada itzela artu izan nebala egiztatu zan. Egokidazan zaintzak arturik, nire senetara biurtu nintzanean, kaskateko andi bategaitik, oroimen-galtze osoa jasaten nebala, iragarri eben geisotegiko osagilleek. Zauritua izanez gaiñera, dirua ta nortasun-agiria ostu izan eustezan, eta ona emen nire kinka larria: oroimen-galtzeagaitik nor nintzan ez nekian, eta au argitu egikean nire nortasun-agiria ostendua zan. Jaio-barri baten antzera oartzen nintzan, eta ibilten baita itz egiten be, barrero ikasi bear izan neban. Zorionez, baiña, ez yatazan zaillak billakatu ibilten eta itz egiten ikastea, nire geiso-ondoa luze samar izan zanez, lengora biurtu nintzanean, polito egiten neban berba beste geisoen laguntzaz, egun osoa lagunekin niarduan eta.

Baiña nire egoera berezia, korapillo askatu-eziña biurtu zan geisotegiko agintarientzat, nirekin zer egin ez ekiela-ta. Nongoa nintzan jakin ba'lebe, auzia atonduko litzakean, baiña niri buruz zantzurik ez. Beste aldetik, ezin nengikien kalean itzi beste barik, orretarako ez nintzan artaratua-ta. Ateka onetan egoela, bein baten geisotegiko arduradunak, Mario Jaunak, bere saillerako laguntzaille bat eskatu eban, bere agintzapean ebazan lau ogipekoak naikorik ez ziralako. Jardun orretarako osagille batek aipatu ninduan, gauzak arin eta ondo ikasten nebazan-eta. Mario Jaunak baekian nire egoera bereziari buruz, eta bururatu yakon, jardunerako gai izatekotan, nire auzia atonduko litzakela.

Mario Jauna begiko ta maitetsua zan, eta jardun barriari buruz guztitariko argibideak emon eustazan. Onezaz gaiñera, kondalaritzaizti bat emon eustan, nire jarduna lenbailen ikasi nengian. Ain zuzen be, nire oarmenaren leku ezkutu baten, aspaldian ikasitakoak bizirik zirauan, eta oartu barik gaia laster menperatu neban On Mario'ren poz andirako. Olan ba, geisotegian lo-gela bat nire aukeran izanez gaiñera, dirua irabazten asi nintzan. Aldiaren joanean Mario ta biok adiskideak billakatu gintzazan, eta jaiegun guztietan bazkaltzera dei egiten eustan etxera. Emazteak eta bost seme-alabak oso ondo abeltdu ninduen asiera batetik, eta bazkalostean egurastera joan oi gintzazan.

Brasil'go lurraldea ta onen gora-beerak ondo ekiazan On Mario'k, eta augaitik gauza askori buruz jakitun ipiñi ninduan. Gazterik, FUNAI eritxan inditarren aldeko erakundean, Mato Grosso Cuiabá uriburuan lan egin izan eban, eta gero Sao Paulo uri andi ta aberatsean. Nekazaritzaren Lur-saillan urte batzuk jardun ostean, Rio de Janeiro'ko geisotegira arduralaritzat sartu zan andiki ezagun baten bitartez. Mato Grosso ta onen iparrerantz edatzen zan Rondonia lurraldea ondo ezagutzen ebazan. Erruki andia eutsen barruti oneitako inditarrai, jasaten eben. erri-erailketagaitik. Antoni izena ipiñi eusten geisotegiko agintariek, eta nire nortasun-agiri barrian izen ori ta “Sao Nome” abizena irakurri zeitekezan. Sarri askotan, berak bizi izandako gora-beerak gure autu-gaiak izaten ziran, gaitzesten ebazala inditarrai egiñiko izugarrikeriak.

– Bai, Antoni –esan eroian–, nik ezaguturiko bidebagekeri itzelak egin dautseguz inditarrai, betidanik izan diran euren lurra ostuz, eta jarkiten zana eraillez. Antxiña-an-

txiñatik eurok darabillezan biziera ta oiturai Mato Grosso ta Amazoni'ko oian usuetan, ez dausie uko egin gura. Beste kulturarik ez dabe artu nai, betikoak, Jaungoikoak egin ebazan lez, iraun gura dabelako. Eta izan be, zuzen dagoz, baso usuak laga dabezanak atzeritarren oiturak eta legeak beregiteko, azkenean jopuak billakatzen dira.

– Eta zergaitik ez dautso jaurlariak esirik ipinten orreri...?

– Aalegiñak egiten dauz laterriak, irauten daben inditarrai eurentzako bakarrik diran mugatutako lurak emonez, baiña olan eta guzti be, zaindarien ezin dabez Amazonia ta Mato Grosso toki neurribageak bear dan lez zaindu. Baiña inditarrek badabe garaiteziña dan beste arerio bat...atzeritarrek eurokin ekarritako geisotasunak, esaterako: etika, gorriña edo elgorria, pintzeldea, oritasuna, gibelmiña, naparrerria ta abar, au da, makur kutsugarriak. Inditarrentzat ezauegak diran gatx orrean aurka, aitzigorputz ezagaitik babesik bage aurkitzen dira. Izugarria benetan, dalako gatxek ekarri dausiezen eriotzak. Talde batzuk zearo ondatu arte, izan be.

Etenaldi bat egin eban Mario'k, gogoeta illunetan murgilduta, eta gero,

– Badira inditar batzuk –jarraitu eban–, betiko biziera laga egiteari uko egin dautsoenak, eta euren barrutietan jare jarraitzen dabe, aalik eta urrunen arrotzakandik gordeta, beti gerturik onein erasoai jarkiteko, eta sarritan atzeritar askok bizitza galtzen dabe inditarren gezi ta aztamakillen pean. Bildur naz, baiña, enda orren etorkiari buruz. Gaurregun zailla da inditarren kopurua ainbatzea, lurraldea andia dalako batetik, eta bestetik ezkutuan bizi diralako...

Ona elduta eten egin neutsan, auxe itauntzeko:

– Eta laterriak zergaitik ez ditu babesten arrotzen erasoetatik...?

– Zailla dalako. Inditarren lurren ondoan kokaturiko abelazle ta lugiñek, euren jabetza-gosea asetzearren, muga-inguruko lur-zatiak eurengean dabez. Nora joko dabe, baiña, inditarrek euren eskubideen alde...? Leku urruntsu areitan indarkeria nagusia da, eta iskilloz eta morroiakaz ondoen ornitua, a irabazle, eta onetan atzeritarrek beti edo geienetan gaiña artzen dabe. Eta inditarren egoera areago laskitu dauan BR-364 bidezabala, laster amaituko da. Bide nagusi au Mato Grosso'n asita, Rondonia'ko iparraldean dagoan Porto Velho'raio edatzen da, 1.400 km luze izanik. Alkar-bide onen inguruan, laterriak egiñiko lurbanaketea ustiatuz jende asko kokatu da, inditar askoren bizimodua galtzori gorrian ipiñirik. Bene-benetan, bidezabal orrek kalte andia ekarriko dautse inditarrai, atzera egin bear izan dabela ez dakit noraiño.

Isildu zan Mario eta abagunea ustiatuz,

– Aizu, Mario –itaundu neutsan–, barruti areitako lurak aberatsak izango dira, ezta...?

– Guzurra badirudi be, ez dira aberatsak. Lurraren aberastasun edo emonkortasuna, iru bereiztasunetan oiñarritzen da: a) Meatz-gaien aberastasunean, b) eguraldiaren zelakotasunean, eta d) landaretzaren garapenean. Mato Grosso ta Rondonia'ko lurralde oiansuetan, baita Amazonia'n be geienbat, azpikoa edo sorua mee ta gitxi egiña da, amar zentimetro lodi bakarrik. Eguraldia oso euritsua da, eta zugaitzak moztu egiten diranean, onein babesa galdurik, ur narok lurrari mamiña kentzen dautsoe. Augaitik ba esan geinke, basotarako oso egokiak diran lurak, abelazkuntza edo lugiñazako

ezegokiak dirala. Olan eta guzti be, badira emonkorak diran barruti batzuk, euneko ogei bat inguru.

– Zelan egiten da lur-banaketea...?

– Laterriak oso merke saltzen ditu lurak, baita batzuk duan be. Lur-sailla norberaren jabetasuna billakatu, balioko zugaitzak (kaoba, Palo do Brasil, Zedro, Jacarandá etab) moztu ta saltzen dira, eta enparauari su emoten yako. Dana erre danean, orduan lanabesak sartzen dira, kakao, kafe. arto, gozoki-kaiñabera, soia etab lantzeko. Urte batzuk igarorik emonkortasuna galduta, lurgintza abelazkuntzak ordeztua da, eta azkenean lur-zatia ez da ezetarako gauza, barriro be basoa sortzeko izan ezik.

Edu onetan giarduan Mario'k eta biok, onen sendiarekin jaiegunetan egurastera giñozanean. Brasil eta bere gora-beerak ondo ekiazana zan Mario, eta beragandik asko ikasi neban, Mato Grosso ta Rondonia'ri egokiazanetan batez be. Arek esanikoe, lurralde orreitarako erakarpena piztu eusten, zabaldia maite nebalako, eta Rio uriburu zoragarria izan arren be, nik zabaldietako jareitasuna ta aize garbia irrikatzen nebazan.

Bazan, baiña, aldi areitan kezkatzen ninduan arazo larria, askatu ezin nengikean korapillo biurria izan be. Nor nintzan, nondik nentorren, zergaitik aurkitzen nintzan Brasil'en, etabar. Niri buruz nenkian gauza bakarra auxe zan: goizalde baten, Ipanema ondartzatik ur zaurituta aurkitu ninduela, nor nintzan eta zer egiten neban uriburu andi aretan ez nekiala. Geisotegian aztertu ninduenean, buru-atzekaldean kaska izugarria erakusten neban, eta onen ondorioz, garunetako erdigune garrantzitsua iritxita, oroimena galdu izan neban. Geisotegiko kiriolari nagusiaren eritxiz, artutako kalteak ez leuke nai-ta-ez betirako iraungo, buruko gatxak gitxi ezagunak ziran-eta, baiña bere ustez, aldiaren joanean, berez edo ezustezko jazoera baten bidez, oroimena barriro be etorri letekit.

Biartean, baiña, berrogei ta zortzi urteko izanik, jaiobarri baten antzera jokaten neban. Oroimen-galtze arek, antxiñako gauzak eta jazokunak nigandik ezabatu egiñez gaiñera, itz egiteko ta irakurteko gaitasuna ezereztu izan eustan, barriro ikasi bear izan nebazala. Izan be, aurrerapen andiak egin nebazan, eta iru illabete barik, portugaleraz parra-parra egiten neban, baita irakurri ta idatzi be.

Diruaren aldetik ez neban iñongo buruausterik, illeko saria ia osorik aurrezten neban-eta, baiña eziñegon larriak artuta oartzen nintzan, kaiola baten itxitako basaberearen antzera, izan be. Noizean bein, nire buruan zeozer argi motelaren antzera etorkidala iruditzen yatan, baiña etorri baizen ezustez itzungiten zan, illuntasunik andienez izten ninduala barriro. Gabaz, lo egin eziñik ordu amaibakoak emoten nebazan, nire buruak uko egiten eustana alperrik billatu naiean, noizbait, nekearen-nekez lo urduriak artzen ninduala. Nire eziñegonaz Mario oartu izan zan, eta sarri askotan,

– Baiña Antoni –esan eroian–, zer jazoten yatzu, orren urduri egoteko...?

– Ez dakit, Mario, baiña nire atzoko illuntasunak mamu baten antzera jazarten nau. Lengo nire izaeratik zantzuren bat ba'letorkit...

Mario'k burua astintzen eban oldozkor, jazarten ninduan ezkutukia berak be estalgetu nai bai'leuan, eta gero nire arrenkurak uxatzeko, antza, lurralde aretako bereiztasunen baten barri emostan.

Urtebete bat igaroa zan oroimena galdu nebanetik, oi lez nire adimenak illuntasun-atzaparretatik iges egin eziñik, eziñegon arek gero ta bortitzago jazarten ninduala. Areitariko egun baten, Mario'k dei egin eta auxe esan eustan:

– Aspaldiko ezagun bategandik idazki bat eldu yat gaur, eta orren barri emon gura dautsut. Excelentísimo Senhor Joao Souza de Araujo'gandik, ain zuzen be.

Isildu zan une batez, eta ezpanetan irriño isekaria marrazten yakola, onetaraxe jarraitu eban:

– Aspaldi baten, Joao soillik esaten geutsan, baiña orain aberastu dan ezkeru, Excelentísimo Senhor biurtu yaku, eta deitura ori oroz gain ederresten dau. Dakizunez, Cuiabá'n, Mato Grosso'ko uriburuan, urtebete batzuk, FUNAI'n, inditarren aldeko erakunde-an jardun neban, eta emendik Sao Paulo'ra aldatu ninduen, Lur-zaintzaren Banaketa-saillera. Nirekin menpekotzat, Joao Souza de Araujo'k ziarduan, eta jakituri andikoa izan ez arren be, saleroste-arazoetarako begi zorrotza eban, eta areago, Lur-banaketaren idazkaritzan urtebete batzuk emon ostean. Gure saillak lur-jabegaien eskaerak artzen ebazan, eta ordaintza etorri-ala, lur-zatiaren jabe biurten ziran, bakotxari jabetasun-agiria emoten yakola. Askotan, lurgintzak ez eban emoten itxarotako onurea, aldiaren bidean lurrak emonkortasuna galtzen ebalako, eta orduan, pot egiñiko lurgiñek aal eben sarian lur-zatiak saltzen ebezan, askotan ia duan emoteraiño. Gure Joao argiak baekian lurgintzarako gai ez ziran areitariko lur-zati asko, abelazkuntzarako txit egokiak zirala, eta areago inditarren muga-ondoan egozanak. Isillean baiña etenbarik, gure Joao Souza de Araujo'k ezerezkeri baten, alkarren ondoan etzazan lur-zati areik erosten ebazan, eta iru urte igarorik, laterriak abelazkuntzarako emoten ebazan laguntzak ustiatuz, bi milla ektareko bere barrutian, beitalde baten jabe aberatsa billakatu da.

Eten egin eban Mario'k bere itzaldia urrutizkin-deiari erantzutearren, eta gero,

– Rio de Janeiro'ra datorrenetan –jarraitu eban–, ikertzera datorrit, bear dituan gaiak erosteko lagundu dagiodan. Aste onetan etorriko dala diñost gaurko eskutitzean, eta beste gauzen artean, kondalari egokia aurkitzera lagundu dagiodala eskatzen daust, oraingoak malariak edo intzira-sukarrak artuta, jardunari uko egin bear izan dautso-ta .

Au esanda, era bereiziz begiratu eustan Mario'k isillean. Bere azken itzak entzutean, ezusteko biotz-ikara batek astindu ninduan, zer eta neuk jardun ori artuko ba'neu esan eustanean... Ez dakit, baiña barrutik ebilkidan gogoia igarri eustan Mario'k, antza, astiro ta leun auxe esan eustalako,

– Datorren Igandean gurera bazkaltzera etorriko da, eta orduan Joao Souza de Araujo ezgutuko dozu, gaur bost egunera, ain zuzen be. Badozu astirik, beraz, jardun ori artzeko gerturik zagozan ala ez erabagiteko.

– Baiña nik ez dakit olako etxaldeak zelan erabilten diran...

– Begira, Antoni, etxalde aretako zure betekizuna, emengoa lez edo errazagoa egin-go yatzu. Onaiño eldu garan ezker, esan bear dautsut nire menpekoetarik onenatzat zaitudala. Baiña bada beste zio bat, jardun ori artzeko eragin bear zaituana, eta auxe alegia; jasaten dozun eziñegona edo urduritasuna, leku zabal, eder, eta garbi areitan zelanbait baretuko yatzu, zure jardunetako alde bat, bei-taldearen errolda egitea izango da-ta. Lan au zaldiz egiten da.

– Ni ez naz egundo zaldiz ibilli.

– Edolelan be, aurrenik zaldi otzan bat emongo yatzu oitu zaitez, eta luzaro barik “gautxo”en antzera menperatuko duzu zaldiketean. Dana-dala, datorren Igandean emongo daustazu erantzuna.

Urrengo egunetan ez genduan arazoari buruz ezetariko iruzkiñik egin, baiña aste aretako egunak igaro-ala, Mato Grosso’ra joateko guraria andiagotzen yatan, eta noiz-bait, Mario’ri baietza emon neutsan.

– Ederto, Antoni –esan eustan–, baiña etzi Igandean, bazkalorduan nire etxean Joao Jauna ezagutuko dozun ezker, zelakoa dan eta beste gorabeera batzuk ikusirik, orduan azken erabagia egiteko aukerea izango dozu.

Abagune aretarako peitzen yatazan egun biak luze-etsia igaro nebazan, eta noizbait, Igandeko eguberdian Mario’ren etxeko txiliña jo nebanean, oso urduria aurkitzen nintzan. Etxekoandre begikoak oiko arraitasunaz abetalduninduan, eta,

– Aizu, Antoni –esan eustan–, On Joao Souza de Araujo etorri da onezker, eta Mario’rekin izketan diardu iker-aretoan.

Gelara sartu nintzanean, Mario’k gizon lerdan batekin berbetan ziarduan. Sartu nintzanean, niri mintzatuz auxe esan eustan:

– Egunon, Antoni, ona emen adiskide andia dodan Joao Souza de Araujo Jauna. Zeuri buruz jakiñaren gaiñean ipiñi dot, baiña bere eskintzari buruz erabagi aurretik, egokia izango litzakizu bete bear izango dozuzan baldintzak ezagutu dagizuzala.

Une batez, Senhor Souza de Araujo’k adi-adi begiztatu ninduan, eta jarraian bere “fazenda”ren gora-beerak jakiñerazo eustazan. Onen bitartean, aukera bete izan neban bere itxurea aztertzeke. Gizon argal eta lerdana zan, mintzo irmoak eta keiñuek bere burua ederristen ekian gizona adierazoten ebela. Nire adiñekoa izango zan, eta begien dizdirak adimen argiko gizakia zala erakusten eben. Betaurreduna zan, eta bizar laburraz apainduriko aurpegi argalak, eguzkiak eta aizeak brontzeturiko larmintza erakusten eban, baiña beragan agiriena, ezpan meeduneko aboaren irmotasuna zan. Ez zirudian irribarre egitera oitua, bai, oster, agintzeke. Janzki apain eta ondo ebagita erabilten, bere itxuareari begirune ta itzal andia emotsala, eta are geiago mintzo astidun eta arranditsukoa izanik. Noizean bein itz egiteari eten egiñik, erestun balioitsuakaz apaindutako atzamar luzeko eskuaz, bibotea ta ule naroak laztantzen ebazan. Labur-labur esan dagiket, bere burua ederristen ekian areitarikoa zala.

Excelentísimo Joao’k esan eustanez, bere “fazenda” Nossa Senhora do Rosario eritxan, eta Cuiabá’tik, Mato Grosso uriburutik, 300 kilometrorra zetzan sartalderantz. Bi milla ektareko etxaguntza eder onetan, 15.000 edo 20.000 abelburu azten ziran. Ez ezkian ziur onein kopurua zenbatekoa zan, aspaldi aretan “fazenda”ko kondalaria aintziragaitzak jota billakatu zala, eta onen utsunea ordezteke beste arduralaria billatzeko beartuta aurkitzen zan. Nire lenengo eginbearra, beraz, abelburuen errolda egitea zan, eta onen ostean, kondalari-lanetan jardungo neuke, au da, salerosketaren kontuak erabilili, eskutitzak artu ta erantzun, ogipekoai ordaindu, “fazenda”ko jangaiari begiratu, lanerako gaiak peitu ez zeitezala, diru-etxeekin oiko arremonak izan, etabar. Onen ostean, ez neuke beste agintzarik izango, abel-zaintza ta erabiltea bere morroien edo beitzaiñen buruari egokiozan-eta. Mutil bi ta neskatilla bi zituan, areik Cuiabá’ko Ikastola Nagusiko lurgintza-saillan ikasten ziarduen, eta neskatillak, lekaimetxe baten, andereño dotoreak billakatzeko egokien irakaskintza artzen eben.

Luzaro samar jardun eban Senhor Joao’k, emen azaldu-bearrekoak ez diran beste gora-beera zeatzak emonez. Amaitzean, nire jardunagaitik ordainduko leuskidana jakiñerazo eustan, eta nire alogeraren domua entzutean, zur eta lur geratu nintzan. Eskintzen eustana geisotegiko alogeraren laukoitza zan, eta zer erantzun ez nekiala, isillik iraun neban une batez, nire buruari niñotsala amesetan izango ez nintzake...

– Zer deritxazu nire eskintzari –itaundu eustan Senhor Joao’k esku leunaz bizarra laztantzen ebala–.

– Izan be –erantzun neutsan– diruaren aldetik ez da makala, eta jarduna onartzen dot, nire eskerrik beroenaz.

– Ondo dago, Antoni –esan eustan begi zorrotzak nigan jarrita–, badakit, lan-sari ori baiño andiagoa jaristea zailla izango litzakizula, baiña orren ordaiñez ondo ta zintzo jokatu dagizula nire guraria da, eta ziñez auxe diñotsut: nire esanetara buru-belarri jarten ba’zara ez dozu damurik izango. Asiera baten gauza batzuk arrituko zaitue, baiña luzaro barik bizimodu barriari artaratuko zara. Zorrotza ei’naz, baita eskuzabal be; ez aztu au.

Azken itzok arritu ninduen, arein esangurea ulertu ezin nengikealako, eta arritasun onekin batean, arrenkurazko oarpen bakana nitaz jabetu zan, Senhor Joao’k begi sarkorakaz so egiten eustala, eta ezpanak keiñu gogorraz estutzen yakozala.

Onen ostean, amabost egunen buruan nire jarduna artzeko, Cuiabá’ra egazkiñez joango nintzake, eta emendik 300 kilometrorra egoan Nossa Senhora do Rosario “fazenda”ra eroango nindukiela erabagi zan, Excelentísimo Senhor Joao Souza de Araujo, lengo kondalariaren utsunea zala-ta luzetsia egoalako.

Ikerraldi garrantzitsua egin bear ebala-ta, kafea artuta gero, On Joao gugandik agurtu zan. Baratzeko ateraiño lagundu geutsan Mario’k eta biok, eta bidean beera aren itxura dotorea ezabatu zanean, ezin nengikean nigandik arrenkura antzeko zerbait kendu, nire buruari itauntzen neutsala, artutako erabagia zuzen ala okerra izango ete zan...

Arratsalde aretan, Mario ta onen sendiarekin Tijuka’ko egurastegitik astiro ibilli genbiltzala, nire itxura kezkatia eraginda, urrean, Mario’k auxe itaundu eustan:

– Aizu, Antoni, zergaitik orren oldozkor...? Badirudi zerbaitek kezkatzen zaituala-edo.

Izan be, Senhor Joao'ren eskintza entzunda gero, itxura alaiagoa erakutsi bearko zenduke, nik uste.

– Benetan, nik iñoiz ames egingo ez neuken eskintza bikaiña izan da, baiña bere azken itzak entzunik, nire buruari itauntzen dausats orren ordaiñez zer eskatuko daustan...

– Zeintzuk berba kezkatzen zaitue ba...?

– Ara... asieran gauza batzuk arrituko nindukiela, baiña luzaro barik oituko nintzela. Zelako gauzak izango diran, ain andia dan alogera niri eskintzeko...?

– Ez zaitetz larritu –esan eustan Mario'k–, orreik ez buru ez belarri dabezan itzak dira-ta. Badakizu, firri-farra esaten diranetakoak. Niketz ez dot iñoiz Joao'ren aurka ezer entzun, eta eskuzabal dalako aipua nonai bala-bala dabil.

Itz oneik, eta arratsaldeko eguraldi ederrak nire arrenkurak uxatu eustezan, eta illuntzean geisotegiko nire gelara biurtzen nintzala, etorkia itsaropentsu ikusten neban.

Amabost egun areik, geisotegian nire utsune artuko eban ogipekoari bearrezko argibideak emonez, eta nire leku barrirako bear izango nebazan gaiak lortzen nebazala, arin baten igaro yatazan, eta Igande bateko goizean Mario'k lagunduta, egazkin-zelaira joan nintzan, Cuiabá'rako egazkiña artzeko. Agurtzat alkar besarkatu genduan, nire adiskideaganako eskerronez beterik,

– Agur, Mario –esan neutsan–, ez dakit zelan eskertu zeuk nire alde egiña. Gau izugarria dan nire oroimen-galtze onetan, zугan aurkitu dodaz benetako laguntza, erruki, eta maitasuna.

Neurea lako zarrastadak artuta,

– Ken ortik, adiskide –esan eustan Mario'k–, aal dozunetan, zatoz Rio'ra alkarren barri jakitearren.

Andik laster aidean zear niñoan, an beean Guanabara'ko kolko zoragarria margo yaukaletan zetzala, eguzkiak musukaturik. Rio de Janeiro inguratzen daben mendi aldapatsuak atzean itzita, Sao Paulo ta Mato Grosso do Sul lurraldeetan zear, Iparreko Mato Grosso'ko uriburua dan Cuiabá'ko egazkin-zelaiak kokatu gintzazan.

Bide-zorroa jasota gero, ango jatokian izan neban bazkaria. Erabagia zan, arratsaldeko iruretan billa etorriko litzakidala, eta bitartean, jazoeren begira aretoan egokitu nintzan besaulki eroso baten. Itundutako orduan ozengailuak nire izena aldarrikatu eban, eta idaztegiara joanda, gizon batek,

– Jauna –esan eustan–, Senhor Joao Souza de Araujo'ren alde natortzu, Nossa Senhora do Rosario “fazenda”ra eroan zaidazan. Etxeko egazkin-erabiltzaillea naz.

– Gerturik nozu, joan gaitez ba.

Erabiltzailleak nire bide-zorroa artuta, andik urrun ez egoan egazkintxu batera eroan ninduan, eta jarlekuetan egokiturik, eragikiñak (motorrak) abidan jarrita, andik laster Mato Grosso'n zear egan egin genduan. Izan be, zabaldua ederra begitandu yatan, zelai bedartsuak zugaitz-taldeekin aldizkatzen zirala, noizean bein errekatxu ta ibaiek zearkatuta. Egazkiñaren burrunbea zala-ta, isillean giñoazan erabiltzaillea ta biok. Noizbait, ordu bi igarorik, zelaigune ederraren erdian etxe batzuk agertu ziran, eta andik ez urrun,

egazkin-zelai txiki baten lurreratu gintzazan. Jeep bat gure begira egoan, eta lurrezko bide baten zear etxe eder apain bateraiño eroan ninduan.

Ateko txiliñari erantzunez, inditar emakume bat agertu zan, eta ni ikustean, auxe esan eustan:

– Senhor Joao'k itxaroten dauana izango zara, urrean.

– Bai, Rio'tik etorritako kondalaria naz.

– Zatoz ba, Jauna, jarraitu nagizu.

Zurubi zabal baten gora gidatu ninduan, eta lenengo maillako azkenean egoan gela bat zabaldua,

– Jauna –esan eustan–, zure gela auxe da. Gerturik zaitzanean, beeko idaztegi nagusian, Senhor Joao'k abetalduko zaitu.

Joan aurretik,

– Aizu –itaundu neutsan–, nor zaitut...?

– Irakú.

– Inditarra zaitut, ezta...?

– Bai, Jauna

– Nongoa zara...?

– Nik al dakit...! Inguru oneitan nire amaren gorpu-ondoan aurkitu ei'ninduen, ondatutako inditar kapardi baten.

Errukiturik auxe esan neutsan:

– Tamal dot, Irakú, agur.

– Agur, Jauna. Ez aztu Senhor Joao zure begira dozula beeko idaztegi nagusian.

Joan zanean nire gela aztertu neban. Izan be, atsegin eta txukuna zan. Gela bikoitza izanik, lenengo zatia edo aurre-gelak besaulki bi, idazmaia, eta liburutegia ebazan. Bigarrenak, oe txukuna, zegokion arasaz etabar. Zabaldirantz edegiten ziran gela bi onein leioak, eltxo-aurkako sareakaz ornituta egozan. Izan be, leku atsegin eta garbia zan, eta onek agirian jarten eban Senhor Joao'ren begirunea Nossa Senhora do Rosario'ren kondalariaganako. Bide-zorroko janziak-eta egokituta gero, Irakú'k esanikoa gogoraturik, beeko sorura jatsita, nire begira egoan Irakú'k idaztegi nagusiko atea edegi eustan. Besaulki batetik Senhor Joao Souza de Araujo jagi zan, eta bostekoa emon eustan arraiki, auxe iñostala:

– Ongi etorria Nossa Senhora do Rosario'ra. Zure aukerakoa al-da, dagokizun gela bikoitza...?

– Bai, Jauna –erantzun neutsan–, atsegin yat benetan. Eskerrikasko.

– Jesarri zaitetz, Antoni. Artu zenduzan bearrezko txertoak (vacuna) ona eorri aurretik...?

– Bai, Jauna, Rio'tik ona etorri baiño len, zeuk agindutako iru txerto-motak artu nebazan.

– Ederto, oso bearrezkoak dira, zingira-sukarra (malaria) aurkakoa batez be.

Senhor Joao'k begikada sarkorra nigan josirik,

– Lenbailan lanari lotu zakiozala bearrezkoa da –esan eustan–. Badira iru astebete

lengo kondalaria geisotu zanetik, eta abelburuen errolda baita eskutitzen arazoa beñe-nak dira. Biar gosalduta gero, orko mai orretan dagozan idazkiak aztertuko dozuz, baita paper-mordo orretan idatzitako zenbakiak, dana liburueta sartu dagizun. Jarraian, idazki-pilloari dagokiozan erantzunak emongo dozuz, eta kondalaritzari buruzkoa gaurkotu-rik, orduan beitzain nagusiarekin eta morroiekin nire “fazenda” guztia ikertuko dozu abelburuen errolda egitearren. Etxalde au bi milla ektarekoa da, eta beien kopurua, zeatz jakin ez arren be, ogeitsu millakoa izango da. Eta orain itaunen bat egin nai ba’daustazu, zeure aukeran nozu.

– Begira, Senhor Joao –galdegin neutsan–, zelan darabiltzue okelaren salketea...?

– Ara... iru illabetero, lau milla ta bosteun zekor-bigantxak eta kentzeko dan abelburu zaarra, emendik Paraguai ibai-ertzean dagoan nasa edo kai bateraiño beitzai-ñek daroetz, eta ontzi anditan sartuta, Mato Grosso Do Sul’en dagoan Corumba’raiño bialtzen dogu. Emendik, Zingirategian edo “Pantanal”en zear Campo Grande uriburu-raiño. Abelgorriaren lorketa orrek astebete bat dirau, eta beste ainbeste beitzaiñen itzulpena.

– Bidegite orretan, abelburuak pisutan galduko dabe.

– Ez gauza andirik, ibai-zearko joanaldian, bedar-onduz eta sekula-bedarraz janari-zen dira-ta. Okelaren ordaintza iltegian pisuaren arauz egiten da. Eta Cuiabá’n jarrita daukadan Banco do Mato Grosso’ko nire kontu agirira sartzen dauste.

– Eta “fazenda”n bear izaten diran gaiak, nondik datoz...?

– Geientan, nire beitzaiñek Campo Grande’tik biurtzerakoan erosi ta eurok daka-rraz. Bestetan, barriz, Cuiabá’tik.

Autu onen bitartean apalardua egin zan, eta Senhor Joao’k,

– Aizu, Senhor Antoni –esan eustan–, Gaur nirekin eta nire emaztearekin, Senhora Carmen’ekin apalduko dozu. Oiko otorduak, baiña, zure aurre-gelan artuko dozuz, eta zerbitzaritzat izango dozun Piru’k janaria ekarriko dautsu. Onezaz gaiñera, mutil ori zernaitarako zeure aukeran izango dozu, au da, gela-zaiña, mai-zaiña, janzki-zaiña, eta-bar. Dalako Piru, inditarra dan aldetik, zorrotz erabilliko dozu zabartu ez daiten, enda ori alperra dalako, eta asikeratik morroitz aintzakotzat artu dagian, zorrotz irakatsi bear yako. Dana-dala, aldiaren joanean zerorrek ikasiko dozu zelakoak diran inditarrak. Nik, baiñan gogor erabilli dagizuzala esango neuskizu, bestelan areikandik gauza onik ezin lortu.

Senhor Joao’k olan ziarduala, sarreraz bestaldean egoan jatoki eder batera lagundu eustan, eta kaobazko mai bikaiñeko buruan jesarri zan, alboko jarlekua eskiñi eustala. Luzaro barik, berrogei urtekoa izango zan itxura apain eta maitekorreko etxeoandrea agertu zan. Oikoa zanez, jagi nintzan, eta Senhor Joao’k orduan,

– Ona emen –esan eustan–, Carmen nire emaztea.

Makurtu nintzan, eta berak luzatzen eustan eskua estutuz,

– E un prazer, Senhora –esan neutsan-

– Eta au, Carmen, –emazteari mintzatuz–, Antoni, gure kondalari barria da.

Senhora Carmen’ek irribarre egin eustan amultsu, eta,

– Aizu, Antoni –esan eustan–, egia al-da, buruan artutako kaska izugarriagaitik oroimena galduta, nor zaran eta nondik zatozan aztu egin dozula...?

– Bai, Andrea, Ipanema ondoko kale aretan aurkitu ninduenean, nire aurreko bizi-zatik ez dot ezetariko oroipenik. Batzutan baderitxat illuntasun orretatik argi bat soma-zen dodala, baiña agertu baizen ezustean ezabaten da.

– Eta lengoratzetik ez al-dau makur orrek...?

– Gauza ziurra ez izanik be, baietz esan eusten osagilleek.

Izan be, Dona Carmen emakume begikoa zan, eta andik laster betidanik alkar eza-gutu bai’genduan izketan giarduan. Oso maite eban Rio de Janeiro, eta uriburu onen zo-ragarriak bein eta barriro aipatzen emon genduan aparria. Autu onetan, aukera bete-a izan neban Dona Carmen izaera nakarrekoa zala oartzeko, tropikoko giroak eraginda, urrean, baiña autortu bear dot, akats au eta guzti, oso begikoa zala. Aparria amaitu zanean, alka-rregandik agurtzean, urrengo goizeko zortziretan nire begira egongo litzakela idazte-gian, esan eustan Senhor Joao’k.

Ondo lo egin neban lenengo gau aretan, eta eltxo-aurkako sareaz babestutako leio edegian zear, tropikar gau zoragarrian zenbatu ezifeko txitxarren abotsek urrumaturiko, lo atsedengarriak artu ninduan.

Goizeko zazpiretan inguru, aurre-gelako atea norbaitek jo eban, eta baietza emonda, ogei bat urteko inditar mutilla azaldu zan auxe iñostala:

– Senhor Antoni, nik gosaria mairatu bitartean, jagi zaitez.

Olan egin neban, eta gero aurre-gelako maian gosari gozo ta ugariari ekiten neutsa-la, nire zerbitzariak lo-gela atondu ta txukundu eban. Betekizun au eginda gero, urten-agiñean zala geldierazo neban, eta,

– Geratu zaitez apur baten, mutil, zelan dozu izena...?

– Piru, Jauna.

Geroago jakin nebanez, guaranieraz “Piru”k argala esan gura dau, eta izan be, mutil argal, lerdena zan. Aurpegian, inditarrek darakuste bake ta eroapena agiri ebazan. Begi baltz sarkorrek ituntasunaz ukutuak, enda zorrigaitzoko barru-miña erakusten eben, atzi-eziña dan galduriko zerbaiten irrikan-edo.

– Aizu, Piru, zein adifnekoa zara...?

– Ogei urtekoa naz.

– Esaidazuz zure gora-beerak.

– Ara, jauna... Guarani endakoa naz. Nire gurasoak Paraguai’tik ogei-bidearen billa lurralde onetara etorri ziran, eta “fazenda” onetan lana aurkitu eben. Aita orain urte bi zalditik jausi ta il egin zan. Ama igaz galdu neban kutsadura batek jota.

– Fazenda onetan jaio al-zara...?

– Ez. Gurasoak ona etorri ziranean urte bikoa nintzan.

– Zelako jarduna dozu etxe onetan...?

– Guztitariko lanak egin dodaz, mezu-mutilla izatetik, baratzaiñaren laguntzaillea izateraiño. Azken urteotan geisotu dan kondalariaren morroia izan naz, eta orain zeurea izaten jarraitu dagidan, agindu daust Senhor Joao’k.

– Ondo da, Piru. Lagun onak izango gareala uste dot. Orain joan zaitekez.

– Bai, Jauna, baiña atadian izango naz beti zure aginduetara, betebear ori emon dauste-ta.

– Agur, Piru.

Andik laster, jatsi, eta Piru'k lagunduta baratzeru urten nintzan. Lekoretik ikusita, etxea ederra zan, beekaldean, idaztegia, areto batzuk, eta jatokia egozan. Etxepean, sukaldea ta zerbitzarien gelak. Goiko maillan lo-gela ugari ta ederrak. Etxea lorategi yaukalaz inguratuta egoan, tropikar loreen usaiñak bazterrak beteten ebazala. Etxetik eun bat metrora etxadi luzea edatzen zan. Piru'k azaldu eustanez, beitzaiñen egoitza zan, eta emen, “fazenda”ren erabilteaz zer-ikusi ebenek kokatzen ziran euren sendiekin, au da, beitzaiñak eta beronein buruak. Talde onen nagusia zan Amaro Matozinhos, etxe nagusian kokatzen zan, neurea lako gela baten, baiña zurubiz bestaldean.

Beitzaiñen etxaditik alde banatara, estalpe bi ikusten ziran; bata zaldien korta, eta bestea Landrover batzuk eta guztitariko gaiak gordeteko. Piru'k gora-beera oneik emostazala, zortzirak jo eben, eta berbatua zanez, idaztegia abiatu nintzan. Sartu ta laster, Senhor Joao eldu zan itxura indartsuko gizon batekin. Beitzaiñen janzkia erabillen, au da, egal luzedun kapela, idune-inguruan oiko zapia, sakeldun arkondarea, zaldiketarako prakak, eta orkatillakaz ornituriko oiñetakoak, eta jakiña, gerritik su-iskillo bi eskegiten yakozan. Burutsik egoanez, itsasgaiaz ondo orrazturiko adats balzari, argiak dizdirak ataraten eutsazan.

Sartu ziranean, Senhor Joao'k alkarren aurkezpena egin eban onetaraxe:

– Amaro, ona emen Senhor Antoni, atzo eldutako kondalari barria.

Eta gero niri zuzenduz,

– Antoni, ona emen Amaro Matozinhos, abelburu-lorketea eginda, atzo Campo Grande'tik biurturiko nire beitzaiñen nagusia.

Alkari emon geutsan eskua, eta eretia ustiatur, arretaz begiztatu neban. Aurpegi balzarana atsegiña izango zan, ain betosko illuneko ez ba'litiz. Begikada sarkorraz so egin eustan, eta aren begietan zeozer ankerraren antzekoa agiri ebala begitandu yatan. Ezpan mee estuek olde gogorrekoa zala adierazoten eben, baiña benetan bereizten ebana, itxura gaiztoa emotsan matrail bat zearkatzen eutsan orban zurixka zan, burruka baten egiña, urrean. Izan be, aurpegiaren gogortasunari ez eutsan mezede andirik egiten dalako orban zurixkak, gaiztagillearen itxura agiriago ipiñirik.

Alako baten, Joao Jaunaren itzok aditu ziran:

– Zuek, nire beso bien antzera izango zarie, eta augaitik alkar ondo artu dagizuela, bearrezko baldintza da. Ain zuzen be, zuetariko bakoitxak eginkizun berezia dozue, eta eginkizun berezi orreiri lotzen ba'zaiakoze, ez da iñongo eztabaidarik sortu bear. Zabal-dian, Amaro nagusia izango da, eta “fazenda” onen liburu, diru-etxe, eta bezeroai dago-kienetan, Antoni'k aginduko dau. Argi dago...?

– Bai – biok batera erantzun geutsan.

– Orduan, Amaro, zoaz biarko gertulanak egitera.

Urten zanean, Joao Souza de Araujo Jaunak niri mintzatuz,

– Orain goazen arira, Antoni –esan eustan–, “fazenda”ren gora-beerai buruz jakitun ipiñi zagidazan.

Au esanik, guztitariko zertzeladak emon eustazan, onein artean, diru-etxeen ta bezeroen izen eta zuzenbideak, eurekiko arremonak, etabar. Jarraian, liburuak erakutsi eustazan, baita eskutitzen eta erantzunen agiritegia. Goiz osoa emon neban gauzok arakatzen, eta eguber-dian lanari eten egin geutsan bazkaltzeko. Joao Jauna emaztearekin biltzen zala jatoki nagusian, ni goiko nire gelara igon nintzan. Eltzean, Piru'k bazkaria gerturik eban aurre-gelako maian, eta jan-bitartean, guztitariko itaunak eginda gero, auxe jakin neban: etxeko giltzaiña Irakú zan. Inditar zintzo ta maratz onen agintzapean sei inditar zerbitzariñe egozan. Carmen etxeoandrea ona zan, ia egun osoa elebarriak irakurten eta ikustirratia begiztatzen emoten ebala; augaitik ba, ez eutsen buruauste andirik emoten menpekoai. Piru'k esan eustanetik, agiri zan, Irakú maite ebala, izan be amatzat eban, berea galdu ebanetik emakume orrek semetzat artu eban-eta. Beitzaiñen jarduna latz eta gogorra zanez, etxean bertan zerbitzari billakatu zeiten lortu izan eban. Gora-beera oneik emostazala, bazkaria amaituta, Joao Jaunarekin bildu nintzan idaztegia, goizean asitako lanari jarraipena emotearren. Illuntzean, lanaldia amaitzeko zorian zala,

– Aizu, Antoni –esan eustan Senhor Joao'k–, gure beien erroldea txit atzeratuta dago, lengo kondalariak jasandako makurrugaitik. Biar bertan, beraz, Amaro Matozinhos beitzain nagusiaren agintzapean, beitzaiñak alagunetara joango dira, aspaldi onetan jaiotako txalak su-bereizteko. Eurokin joan zaitezau nai izango neuke, bidebatez erroldea edo zenbaketea egiteko. Egunsentian, beraz, eurokin kortaren aurrean bilduta, esandako zereginietara joango zarie. Orretarako, Piru'k zuretzat aukeraturiko zaldi otzana erabiliko dozu. Argi dago...?

– Bai, Joao Jauna –erantzun neutsan–, ori baiño len, baiña, “fazenda”ren irudi edo mapa bat ikusi nai izango neuke.

Eskaturiko irudia ekarri eustan bereala, eta aztertu neban Joao Jaunak guztitariko ar-gibideak emostazala. Marrazkia zeatz aztertu ondoren, auxe esan neutsan:

– Nik ez dot iñoiz beien errolde-ekin egin, baiña dirudiane-ekin, ekintza orrek egun batzuk bear izango dauz.

– Bai, Antoni, nire ustez bost egun izango dira. Augaitik, landrover batzuk lagunduko dautsue, kaparrak, jangaiak, eta guztitariko tresnak eroateko. Besterik jakin nai dozu...?

– Ez, Jauna, dana argi dago.

– Orduan urrengorarte.

Joan zan Senhor Joao, eta nire aurrean zetzan “fazenda”ko marrazkiari begiraldi luzea emon neutsan. Lau-aldekoaren itxurea eban etxaldeak, errekatxu batzuk zearkatua zan. Sortaldeko aldeak beste “fazenda” batekin mugatzen eban; egoko ta iparreko aldeak ereka bik mugatuta agertzen ziran, etxea egorantz kokatua zala. Sartaldeko alde Paragui ibaira urak isurtzen ebazan Yporá ibai-adarrak mugatzen eban, eta adar onen bestaldean, ezpaibarik, inditarren lurak asten ziran. Yporá izenak “Urederra” adierazoten daua guaranieraz, geroago jakingo neban.

“Fazenda”ren marrazkia begizatzen nebala, erraza izango litzakela aren edapena ainbatzea otu yatan, eta mailladun zuzenkai baten bidez “fazenda”ren edapena ainbatu neban, eta arritasunez, bi milla ta bosteun ektarekoa zala egiztatu neban. Bein eta barriro neurtu, eta beti edapen bardiña azaltzen zan. Argi egoan, beraz, erositako bi milla ektareak, Excelentissimo Senhor Joao Souza de Araujo’k beste bosteunez anditu izan ebazala, inditarren lepotik, urrean. Une luze batez gogo sakonetan murgildu nintzan, eta uxatu ezin nengikean oarpen bakanak menperatzen ninduala, arrenkura andipean nire gelara igon nintzan. Orduko, Piru nire begira neban, aparia mairatzeko gerturik. Jateari ekiten neutsala,

– Enzun, Piru –esan neutsan–, abelburuen errolda ta txalen su-ezaugarria egiteko, biar egunsentian abiatuko gara egun batzutarako. Au dala-ta, zaldi otzana aukeratuko daustazu, nire lenengo zaldiketea izango dalako.

– Bai, Jauna, “Tanimbu” gertauko dautsut, zaldi esaneko ta indartsua. – Aizu, Piru, zer esan gura dau Tanimbu izena guaranieraz...?

– Errautsa, Jauna. Margo orretakoa da-ta. Egunsentian korta-aurrean begira izango nozu Tanimbu’rekin.

– Gabon, Piru, biarrarte.

– Agur, Jauna. Goizean neuk iratzarriko zaitut.

Gau aretan, ez neban gura izandako baizen ondo lo egin, bosteun ektareko ostukeak jazarten ninduala. Egunsentia barik Piru’k atea jo eban, gosaria ekarten eustala. Arin baten gosaldut, eta txangoari egokionez jantzita, zaldien kortara joan nintzan. Nire begira egoan Piru, zaldi bien ugalak eskuetan ebazala.

– Baiña, Piru –arrituta esan neutsan–, zaldi bat bear dot bakarrik eta ez bi.

– Bestea niretzat da, Jauna.

– Baiña nirekin etorriko zara txango onetara...?

– Bai, Jauna, zure zerbitzu bakarrerako naz-eta. Ugazaba nora, bere morroia ara. Orain arrelepoan jarri zaitez lagunduko dautsut.

– Izan be, Tanimbu (errautsa) ’k ez eban zirkiñik egin aren bizkarrean ixtaklok kokatu nintzanean, eta onek zeozer baretu ninduan. Nire alboan abiada asteko gerturik egoan Piru, zaldi gorritza baten gaiñean. Gure begikadak gurutzatu ziran, eta bere aurpegi benetsua irribarre bat az argitu zan, nik beste bat az erantzuten neutsala. Izan be, gero ta ederreziago neban nire inditar morroia.

Andik laster, Amaro’k zuzendutako beitzaiñen taldea gure aurretik igaro zan. Nire aurretik igarotakoan eskuz agur ariña egin eustan, eta didar bat jaurtita, lauazka abiatu ziran Piru’k eta biok gerraikiela. Orduko, zabaldua argitzen zan sortaldeko eguzkipean, eta laster oartu nintzan Tanimbu zaldi otzan eta eskurakoia zala. Argi betea egin zanean egiztatu aal izan neban zabaldua aretako edertasuna. Alagunetan sartu-ala, bedar gozoz es-talitako lur azkorra, zaldiaren ankapetan oial bigunaren antzera oartzen neban. Noizean bein lats batek zearkatuta, kizkurturiko zabaldua begimenaren mugaraiño edatzen zan, noizbeinkako zugaitz-taldeek zipriztindurik. Aize garbiak eta alagunetako edertasunak bizi-nai aintzatsua iratzarri eban neugan, eta pozaren-pozez didar egiteko zorian nintzala,

aspaldi aretako uruduritasun eta eziñegona, bedartza-gaiñeko intzaren antzera ezabatzen joakidan, bizi-guraren eguzkiak lurrunduta.

Laster agertu zan beitalde ugaria, eta zaldien abiadea gitxituz, Amaro’re agindu batek eraginda, tximistaren antzera inguratu eben beitzaiñek, eta korapillodun lokarria erabillirik, txalak eraitsi (lurreratu), eta anak lotuta, beitzain batek burni goriaz iztarrean “fazenda”ko ezaugarria ipinten eutsen. Ganetxu batetik ekintza au begiztatu neban, beitzaiñen joan-etorriak zudu andiz begizatzen nebazala. Batetik bestera zaldika, Amaro’k beitzaiñai aginduak txistuka ta oiuka jaurtiten eutsezan, lanean atzeratzen edo baldar agertzen ziranak biraoka zirikatuz.

Bitartean, ganetxutik abelburuak zenbatzen nebazan, beien eta txalen kopurua bana-zean ipiñirik, baita, jakiña, zezenen kopurua be. Asiera baten zaila billakatu yatan ainbake-ta zeatza egitea, baiña burdin-jartze aren bitartean, naikoa astia izaten neban zenbake-tea birregiteko, eta izan be, laster oartu nintzan ainbake-ta gero ta zeatzago gertatzen ya-tala. Lenengo taldearen errolda egiña, beste batena egin genduan etabar, “fazenda”ren luzeerantz ekiten genduala, beitalde bat bera be gure errolda ta su-ezaugarritik iges egin ez ekigula.

Abelgorri ederra zan alagune aberatsari esker, eta bedar-ontasunaz gaiñera, latsen ugaritasun eta garbitasunak azkuntza bikaiña ziurtatzen eben, au agiri zala abelburuen narru dizdiratsuan. Zezenak enda bikaiñekoa ziran onenarikoen aukeraturik. Egun are-tako giroa egokia zan, eta eguzkia indartsu berotu arren, aize bigun batek zabaldua zearkatzen eban, gozotasun andia danari emonez.

Eguberdi-irian, lats baten ondoan eraikia zan landrover-ondoko kapardira jo genduan. Txingarren ondoan txal bat erretzen zan inditar baten zaintzapean. Andik ez urrun, mai luze bi egozan. Bata bee-maillako beitzaiñentzat, au da, inditarrentzat. Bestea goi-maillakoentzat, Amaro Matozinhos eta onen pistolariantzat. Eldu ta laster, garbi-aldi ari-ña egin ostean, Piru urreratu yatan, eta,

– Jauna –esan eustan–, Senhor Amaro’k beragana joan zaitez esan daust.

Urreratu nintzakion, eta,

– Antoni –esan eustan–, zure nortasunari dagokionez, nire alboan bazkaldutako dozu.

Ez yatan bape atsegin, olako nagusitasunez mintzatu ekidan. Ain zuzen be, Joao Jaunak esanda lez, Amaro bere urrengoa zan etxetik-at, baiña bere berbatan, uxatu ezin nengikean agintzakeria zetzala begitandu yatan, baiña beste barik, bera maipurua zala alboan jesarri nintzakion.

Bazkaria arrunta baiña gozoa azaldu zan. Asteko, indiabak, gero errekiak, eta onen ostean, lurralde aretan oso edatua zan “mate” bedarraz egiñiko edari beroa. Gose nintzan, eta latsaren uraz bustitako bazkariari gogoz ekin neutsan. Piru, inditarren maian egoala ikustean, tamal izan neutsan, nire ondoan naiago izango neban-eta.

Bazkaldutako bitartean, abagune betea izan neban, Amaro ta beronen pistolariak azter-tzeko, eta izan be, ez yatazan gogokoak azaldu. Jende zakarra zan, bai itxuraz bai berbaz, etenbarik biraoka ziarduela. Okel-zati andia eskuz artuta aboratzen eben, eta agiñen artean atziturik, aitzo zorrotzaz mokau bat ebagi, mamurtu ta irusten eben, zatia amaitu ar-

te, eta ezpanai erien koipea esku-gaiñaz igurtzi, beste zati bateri ekin aurretik. Ez eben ezetariko lotsarik, urdaillean gora etorkiezan aizeak korrok zaratatsukaz laguntzeko, aitzitik, barre-gurea eragiten eutsien. Ez eben erratillurik erabilten indiabak jateko baiño, eta onen ostean emon eusten saieskia, azurrari oratuta jan bear izan neban. Izan be, okela erdi-gordiniñ baiña gozoa azaldu yatan. Alako baten, aboraturiko okel-zatia aitzoaz eba-gita gero, Amaro'k,

– Dirudianez –esan eustan–, ez zara artaratuta beitzaiñen ereari, bai oster, jende milikarenari.

Amaro'ren pistolariak, esaldia oso bitxia aurkitu eben, antza, barre-santzo zaratatsukaz ospatu eben-eta. Ez neutsan ezer erantzun, eta ez-entzunarena egiñez, saieski-jateari jarraitu neutsan. Nigandik erantzunik ezean, Amaro'k barriro,

– Aizu, Antoni, zergaitik ez dozuz su-iskillorik erabilten geuk lez...?

– Abelburuak zenbatzeko eta txalai etxeko marrazkia iztarrean jarteko, ez daukat bearrezkotzat, eta are gitxiago kondalaria izanik.

Orduan, pistolari batek erdeñuzko mintzoz auxe jaurti eustan:

– Su-iskilloak erabilteko gizona izan bear...

Azken itzok, lagunen irri isekarien artean ito ziran.

Nik barriro ez-entzunarena egin, jateari nerraikiola. Orduan Amaro Matozinhos'ek,

– Ez uste, lagun –esan eustan–, iskilluok arrokeri utsaz darabilguzala, ez –jarraitu eban besoa urrun ikusten zan Yporá ibairantz zuzenduz–, ibai aren bestaldean edatzen dan inditar lurraldetik etorri daitekiguzan erasoak uxatzeko baiño.

– Ez dot uste –erantzun neutsan–, FUNAI erakundeak inditarrai izendaturiko lurraldetik erasorik etorriko yatzuenik. Sarri askotan mintzatua naz Rio'n, FUNAI, inditarren aldeko erakundearen urte askotan jardundako Jaun batekin, eta berak esan eroian, olako erasoak jazoten ba'dira, arrotzek arein lurretan indarrez sartu gura dabelako dala.

– Ori ez da egia...! –oiu egin eban Amaro'ren menpeko batek–. Lengo egunean Yporá ibaiaren onaindian inditar taldea ikusi neban “fazenda” onen lurrak zearkatzen ebezala, eta areikana abiatu nintzanean, zorritsu madarikatuak gezika asi yatazan. Su-iskillo biak erabilirik, baiña, arin baten erbi ikaratuak lakoxe uxatu nebazan, bai orixe...!

– Alperren enda madarikatua da –tartetu zan Amaro Matozinhos–, ez dabe ezer onik egiten, eta geuk onura andia atarako geunskien lur aberatsoi, euren jabetasuna dalako or alperrik dagoz guretzat obaririk atara ezin.

– Bai, nagusi –eratsi eban beste pistolari batek–, lurguiñaren txakurren antzera; sagarrik jan ez, eta besteai artu ez laga.

Edu onetan jarraitu eban autuak, inditarren aurka bereak eta asto baltzarenak esanez. Argi egoan esaten ebenetik, ederrespen gitxi eutsiela. Noizbait, bazkaria amaituta, ordua zala lanari barriro ekiteko erabagi eban Amaro'k.

Arratsalde aretan, inditar gazte batek, asi-barriak, antza, txala estekatu ta lurreratzean, uts egin eban birritan. Irugarrenez lokarria astintzen ebanean, pistolari bat urreraturik, zaldi-zigorraz bere biziko zartadea emon eutsan. Ekintza zitala urruntutik begiztatu neban, eta beraz, esku-sartzerik ez, baiña sumin eta samieñezko sentipenak menperatu ninduan.

Beien zenbaketeak eta txalen marrazketeak illuntzeraiño iraun eben, Amaro'k eguneko eginkizuna amaitutzat emon ebanean. Kapardira joan gintzazan, eta pistolari zakarrerekin apaldu nai ez neban ezker, Piru'ri zeozer apaltzeko ekarri egistala aginduta gero, arri baten gaiñean jesarrita, apariari ekin neutsan. Laster illundu zan, tropikoetan jazoten dan arintasunaz, eta lo-egiteko gertatu nintzan. Kapar andi bi eraikiak ziran, bata inditar beitzaiñentzat, eta bestea Amaro'ren jendearentzat. Bigarren onetara abiatu nintzan, Piru'k niri emoniko burusia besopean neroiala.

Sartu nintzanean, pistolariak etzanda egozan, autuen zurrumuruak aditzen zirala. Erdian, krisaillu batek argi motela barreiatzen eban, eta leku uts baten billa asi nintzan. Noizbait, idoro neban, eta lepo-zorroa burkotzat erabilirik, burusiak estalduta etzanda jarri nintzan lo-egiteko asmotan, nekatuta aurkitzen nintzan-eta. Alako baten, eta autuak baretu izan zirala,

– Lagunok –mintzo bat aditu zan–, ez ete dozue usain berezia oartzten gurekin ezti-metxaren bat bai'legoan...?

– Izan be –erantzun eutsan beste batek–, kanpoko illuntasunean sorgiñen bildurrez, benetako gizonen babesa billatzen dauan oillo batena, esango neuke.

Bereala, barre-santzoek lagundutako, kaparra oilloen karakaz bete zan. Agiri egoan, jende arek begitan artu izan ninduala, eta ainbeste ergelkeri ta sasi-gizontasunak nazkatuta, jagi nintzan, bide-zorroa ta burusia artu, eta urtenbidera abiatu nintzan berba bat bera be esan barik. Urten-agiñean nintzala,

– Ara...-esan eban batan batek–, gure oillo arrotza lo-ibiltaria biurtu da.

Esandakoari jarraitu eutsoen, eta barre-santzoai jaramonik egiteke nora ez nekiala une batez ibilli nintzan. Gau otz aretan, ustekabez kearen usaiña etorri yatan; aparia atontzearen piztutako suarena zan, eta astirik galtzeke, oraindiño bizirik egozan txingarren alboan etzanda jarri nintzan burusian bilduta. Izarrak iñoizkorik dizdiratsuen ikusten ziran tropikar gentzapean, eta barruko sumiña baretu-ala, loak artu ninduan. Alako baten, otzez dardar itxartu nintzan... Nire ondoan baten batek erdiz itzungitako txingarrak egurrakak berpizten ebazan. Garren argipean, Piru ikusi neban, egur-besokada alboan ebal.

– Zertan diarduzu, Piru –itaundu neutsan– zergaitik ez zoaz lotara...?

– Amaro'ren kaparretik onantza ikusi zaitut, eta emen nozu.

Ordulariari begiraturik, egusentia laster etorriko zala oartu nintzanean, biotza eskeronez bete yatan, zerbitzari aren nirekiko eraspina egiztatzean. Izan be, Piru'ren arduarek ordaintzen eustan gaiñezka, pistolariaren zakarkeria. Otzik jasan ez nengian, Inditar morroiak bere atsedinari uko egiñez, gau aretan bere buruaz aztuta nire jagoteari emon izan eutsan.

– Ordubete bi barik egusentia izango da, Piru –esan neutsan–. Etzan zaitez txingarren alboan, sua iraun-erazoteko naikoa egur dago-ta. Eskerrikasko nire alde zeuk egiña.

Oi eban isiltasunaz, inditarra burusian bildu zan, eta loak artu ninduan barriro, zabaliko bakean izarrek iñoizkorik argien gabeen zear beila egiten ebela. Goizaldean itxartu nintzanean, suaz bestaldean Piru'k nire gosaria atontzen eban, eta irribarre gozoaz,

– Egunon, Jauna –esan eustan–, gosaria gerturik dago.

Gosaldu bitartean,

– Aizu, Piru –itaundu neutsan–, atzo arrastian txalari uts egiteagaitik, zuetariko mutil bateri Amaro'ren gizon batek zigor-zartada galanta emon eutsan. Askotan jazoten al-da ori...?

– Bai, Jauna, joputzat erabili oi gaitue.

Ez genduan besterik esan, eta gosalduta gero, bigarren egun aretako lana asi genduan, abelburuen erroldeari jarraitzen neutsala. Eguberdiari, jardunari eten egiñik, Amaro ta bere beitzain pistolariekin bazkaldu gura ez nebenez, lats baten ondoan jesarri nintzan otordua izatearren. Piru'k ekarritakoa jaten nebala, Amaro Matozinhos urreratu yatan, eta auxe esan eustan:

– Aizu, Antoni, nire gizonak ez dabe begi onez ikusten, gure artean jesarri ez zaitez. Zure bazterpena destaintzat artzen dabe.

– Niri bost ardura –erantzun neutsan garratz–, zure menpekoek pentsa dagiena.

Nirautsana siñistu eziñik, itxura bakanaz begiztatu ninduan, eta gero,

– Uste al-do zu –esan eustan betosko itzaltsuaz–, nire gizonak izurriak jota dirala...?

– Zakarkeri-izurriak artuta baietz esango neuke, euren jostailutzat edo opari ergel-tzat artu nabe-ta. Bart kaparrera sartu nintzanean jazo zana ikusi zenduan, ezta...?

– Bai, ikusi ta entzun neban.

– Eta nirekiko azaldu eben jokaerea ontzat artzen dozu...?

Une batez zorrotz begiratu eustan, eta nik barriro:

– Eta zure menpekoak izanik, zergaitik ez zenduan itz bat bera be esan, euren lotsa-bakokeria gaitzesteko eta edonori zor yakon begirunea gorde egien...?

– Kontuan artu bear dozu, Antoni –mintzo latzaz esan eustan–, zakarkeri ta guzti biotz onekoa dirala.

– Olan izango da, zeuk diñozun ezkerro, orain arte neuk zantzurik ikusi ez arren; baiña atzo arratsaldean, inditar mutiko batek bere biziko zigor-zartada artu eban, zure biotz-oneko zaindari batek emonda, estekatze-utsategaitik.

– Nire kapatazek edo zaindariak olan jokatu ez ba'lebe, ez genduke ezer onik lortuko gure jardunetan.

– Ontzat emoten dozu, mutil gaixo bat orren anker erabiltea...?

– Inditarrok, alper eta guzurtiak dira, beti aalik eta gitxien egiteko gerturik. Eldu-barrira zara “fazenda” onetara, eta ez dozuz nik baizen ondo ezagutzen, bestelan ez zenduke olako eritxikeririk azalduko.

– Entzun egistazu au ondo, Amaro: zure beitzaiñen batek edozein inditarra txarto erabili dagian ez dot ezelan be onartuko. Argi dago...?

– Jakin bear dozu –mintzo asarrekoiaz Amaro'k–, ez dozula iñongo eskubiderik nire menpekoakan, eta ez dodala onartuko iñoren esku-sartzerik. Neure egitekoa niri dagokit, eta zeuri, kondalari bateri dagokiona. Onezaz gaiñera, nire kapatazak iskillu-erabiltean ariñak dira, eta izan be, begia nora beruna ara...

Au esanik, Amaro Matozinhos itxura arranditsuaz joan zan, erabiltean iskillu biak

gerritik kulunkatzen yakozala zemaikorak. Bere menpekoen artean ostentzen zala, etsai bat irabazi izan nebala oartu nintzan, eta aurrerantzean, Joao Souza de Araujo Jaunaren betzainburuarekiko arremonak, zailak izango litzakidazala.

Augaitik ba, Amaro ta bere pistolariakandik aalik urrunen jarduten neban, geriza bai'litzakidan Piru'k edonora erraikidala. Nire morroiak eta biok, besteakandik baztertu-ta izaten genduzan otorduak, eta gaba etorreanean, gau osoan zear zirauan su eder bateko alde banatan etzaten gintzazan, zabaldu isillaren bakean txitxarren soiñu eztiak urrumatzen ginduzala.

Bost egun iraun eban erroldak eta txalen su-marrazketeak. Epe orretan naikoa eretiak izan nebazan jendearen ekintzak ikusteko. Inditarrak ziran lan astuna egiten ebenak, Amaro ta beronen pistolarien zaintzapean. Asiera baten nire buruari itauntzen neutsan, zergaitik orrenbeste iskillodun zaindari, iskillorik bear ez eban jarduna egiteko; inditarrak ondo bai ondo jarduten eben abelzaintzan, eta banaka batzuk naikoa izango ziran inditar morroiak erabilteko. Laster konturatu nintzan, baiña, Nossa Senhora do Rosario “fazenda”n, Yporá ibaiaraindik inditarrak bildur izela eutsiela, eta alagunetako lurra areikandik jareira irautzearen, pistolariak bearrezkoak zirala. Augaitik, Amaro Matozinhos'en gizonak, errebolberak erabiliz gaiñera, zaldi-bizkarrean errifle bana gerturik eben su egiteko. Yporá ibaiaraindik bizi ziran inditarrak gizaki jareira ziran, eta ez eben ezelan be onartuko arrotzakandik letorkieken joputasuna. Ibaiaraindik lur-zati andia (500 ektarekoa zana) FUNAI'k inditarrentzat izendatua izan arren, Joao Souza de Araujo Jaunak bereganatu izan eban. (Zeatz oneik geroago ezagutuko nebazan).

Onen ondorioz, noizean bein Yporá ibaiaraindik zearkatuta, inditarrek abelburuak ostu egiten ebezan, eta etorri baizen arin eta isil, euren baso usuetan babesten ziran. Zoritxarrez, baiña, erabiltean gezi ta aztamakillak, suiskilloen aurka ezgauzak ziran. Onezaz gaiñera, inditarren baserriak Yporá'tik urrun samar kokatzen ziran ezketiño, eurokandiko erasoak ez ziran ugariak. Olan eta guzti be, noizbeinkako eraso orreik bildurra sartu eutsen “fazenda”ko jendea, eta au zala-ta, Joao Jauna beartua zan iskillodun talde bat eratzea Amaro Matozinhos'en agintzapean. Ogei bat gizonetako erakunde onek, biñakako talde-tan “fazenda”ko lurra zaldiz aztertzen ebezan, eta bein baiño sarriago, inditarren geziari opari billakatu izan ziran.

Seigarren egunean goizik, etxerako bidegitea asi genduan. Aurreko bost egun areik niretzat jakingarriak izan ziran, eta epe laburra izan arren be, abelazkuntzari emondako “fazenda” baten gora-beerak jabetzen asten nintzan. Tanimbu zaldia txit eskurakoia azaldu izan zan, eta oneri esker, zaldi-gaiñean polito jarduten neban, lauazka ariñari emoteko gai izateraiño. Amaro'ren jendeaz izandako gora-beerak eta guzti, batzate beste pozik nengoan, eta txatal batzutan artutako erroldeari buruzkoak etxeko idaztegian ainbaketa osoa egingo neuke. Oldozkun oneitan niñoala, Amaro urreratu yatan, eta,

– Aizu, Antoni –esan eustan zaldia nirearekin kide-tuz–, zer deritxazu egindako lan-nari buruz...?

– Ondo derist. Egun gitxitan asko ikasi dot.

– Erroldea zenbatekoa azaldu da...?

– Ez dakit oraindiño. Etxera elduta, ainbaketa osoa egingo dot. Isillune baten ostean,

– Esan bearrean nozu, zurekiko nire gizonen jokaerea oso egokia ez dala izan.

– Zurekin bat nator, Amaro.

– Dana-dala eskertuko neuskizu, Joao Jaunari nire jendearen zakartasuna ez aipatzea.

– Zergaitik...?

– Bein baten, lengo kondalaria nire gizon batek iraindu eban, eta arek Joao Jauna jakitun ipiñi ebanean, dalako gizona “fazenda”tik-at igorri eban.

– Ondo mereziko eban, urrean. Edozelan be, nasaitu zaitez, Amaro, ni ez naz txutumuka dabillen orreitarikoa, eta oraingo onetan neugandik ez dau ezer jakingo, baiña gauza bat eskatuko neuskizu, eta auxe alegia: inditar morroiak ain zakar erabilli es dagizuezala.

– Ondo erabiltektan bildur naz, euren eginkizuna lazotuko ez ete daben. Gaiñera, suzmo batek artuta nago: Yporá’z araindiko basa-inditarren zelatariak izango ez ete diran... Begira, Antoni, inditarren erasoak, ia beti edo geienetan, nire gizonak ez dagozan leketan jazoten dira. Batek-baki zenbat abelburu ostu dauskuen azken aldiotan.

– Begira –esan neutsan–, “fazenda”ko inditar morroiek euren endako sentipena galdu egin dabe, eta ez dot uste, egoera onetan euren buruaren jabe diran basoko inditarrekin, arremon izateak erakarri dagien. Morroi biurtu dira bear daben ogia irabaztearren, eta azken maillakoak izan be. Bizitza askerako guraria galdu dabe, eta ori agiri da euren jokaeran eta begien kadenezko itxurean.

– Ez uste olan, batzutan euren begikadan, ugazabari pozik usigi egingo leukien txakurraren itxura erakusten dabe-ta.

– Irudikeriak. Noiz jazo da olakorik...?

– Edozelan be, ez daust ezerk burutik kenduko, inditar morroiek arremonak darabillezala basadiko inditarrekin.

Alperrikoa zan, olako ustea ebanarekin eztabaidan jardutea, eta isildu nintzan. Andik laster, Amaro bere gizonakana biurtu zan. Keiñu bat egin neutsan Piru’ri urreratu eki-dan, eta,

– Aizu, Piru –esan neutsan–, dirudiane, Amaro Jaunak, zuekan, inditarrakan, uste on andirik ez dau jarten. Egi-egitan esaidazu zeuen artean, “fazenda” onetan diarduen inditarren arteko baten batek, basoko inditarrekin arremonak ete darabillezan. Amaro’re aburuz, “fazenda”n zelatariaren bat dago abelburuak ostuten daben alde jokatzan dau-na. Egia izango ete...?

– Ez, Jauna –ziurtasunez erantzun eustan Piru’k–, ori eziña da. Zelako onura atara dagikegu Yporá’z araindiko inditarrakandik...? Dirurik ez daukie; euren ondasun guztia uztai-geziak eta aztamakillak dira. Zer emongo argibideen ordaiñez...?

Isildu gintzazan, eta etxerakoan “fazenda”ri buruzko gora-beera batzuk gero ta argiago ikusten asi nintzan. Yporá’z araindiko basa-inditarrek, baekien, ibaiaren alde banatan edatzen ziran lurak eurenak zirala, eta Joao Jaunak ibaiaren sortaldeko 500 ektare

aberats kendu eutsezanetik, asaldatu izan ziran, eta noizean bein, ibaia zearkaturik, ostutako lurretan abelburu batzuk artu, eta euren baserrietara eroaten ebezan. Era onetan, Joao Jaunagandik zelan edo alan, zerga antzekoa zana eurenaganatzen eben. Izan be, auzi onetan inditarrek zuur jokatzan eben, eta egokirik ez yaken guda agiria sortu-bearrean, noizbeinkako eraso orreik egiten ebezan. Jokaera onen aurrean, Senhor Joao Souza de Araujo’k ekinbide bi ebazan: artutako lurretatik atzera egin, gauzak lengora biurtu zeitez-zan, ala iskilloz ondo ormitutako talde bat sortu. Joao gizon arroa izanik, ezin egikean atzera egin, eta bigarren bidea aukeratu izan eban. Nossa Senhora do Rosario fazenda aberatsa zan, ete bere alagune ederretan abelazkuntzak etekin andia emotsanez, Amaro Matozinhos’en agindupean, ondo iskilloturiko pistolari-talde aginkorra atondu izan eban. Izan be, baeban ondasunik orretarako ta geiagorako be. Era onetan aurkitu neban “fazenda”ren egoerea, kondalaritzat jarduten asi nintzanean.

Oldozkun oneik buran nerabillezala, etxera eldu gintzazan, eta atadian Joao Jaunak Amaro’rekin eragoiola ikusi neban. Sartzerakoan, ugazaba urreratu yatan, eta,

– Antoni –esan eustan–, Amaro’k diñostanez, txalen burni-marrazketea ta erroldapena polito joan dira. Otordua dan ezkerro, arratsaldean, zure ainbaketea jakiñerazoko daustazu. Gero arte.

Nire gelara igon, eta txirrio atsedengarria artuta gero, Piru’k ekarri eustan bazkaria gogoz jan neban. Iruretan doi-doi idaztegi nagusira jatsi nintzan, eta isiltasun osoan, biago-ordua zan-eta, mai-ondoan jesarrita, alagunetan artutako zeatzak atondu ta ainbatu ostean, urrango zenbakiok urten yatazan: beien kopurua amabi milla ta irureunekoak zan, txalena bederatzi milla ta bosteunekoak, eta guenez, zezenak bosteun eta berrogei ta amar.

Bostetan inguru, Joao Jauna sartu zan, eta zenbakiok jakiñerazo neutsazan. Agiri zan, emondako argibideak atsegiñez artzen ebazala, eta nire azalpena amaitu zanean,

– Benetan, Antoni –esan eustan irribarretsu–, lan ederra burutu dozue zeuk eta nire zerbitzariak. Zer deritxazu nire “fazenda”ri...?

– Ederra dala, eta ni neu abelazkuntzari dagokionetan ez-jakiña izan arren be, zure etxaldeak alagune ederrak dituala esan bearrean nozu, Yporá ibaiaren ertzekoa batez be.

– Bai, Antoni, Yporá ibarreko lurak Mato Grosso’re onenatarikoak ei’dira, baiña tamalez, ibaiaren ubide ugariak ustiatuz, basa-inditarrek abelburuak ostu egiten daustez. Esan dagikegu azaldubako gudapean bizi gareala, inditar madarikatu orre inerruz.

– Ez al-dozu arekin bake-itunik egin...?

– Iltzaille, alper, eta ez-jakiñekin itun egin diñostazu...? Ori eziña da. Uste al-dozu jende guzurti, etoiarekin ezer onik atara daitekenik...? Nire “fazenda” osoari uko egin, eta emendik alde egitea bide bakarra izango litzake. Ara... orain zortzi illabete-edo, Amaro’re gizon bi galdu genduzan, inditar zital orreik erailda.

– Zelan jazo zan ori...?

– Ara... illuntze baten zugaitz-talde baten babesa ustiaturik, gezi-mordo itzela jaurti eutsien, eta “curare” edenaz igurtzitako gezi-muturrek gutariko gizon bi il euskuezan. Bildur andia dautsoe Amaro’re gizonak dalako “curare” iltzailleari. Izugarria da eden orren ondoreak odol-zirkiñean sakabanatzen danean. Gorputzaren bizitza-ekintzak elba-

rritzen dauz, eta senaren jabetasuna galdu barik, oparia izu gorriean ilten da. Bai, ain-
beste neke ta izerdiz erosiako lurrak, basati orreik kendu gura daustez, eta ori eziña iza-
nik, aal daben abelburuak ostuz gaiñera, nire zerbitzari zintzoak erailten dabez.

Au esanik, itxura atsekabetuaz isildu zan Joao Souza de Araujo Jauna. Banekian,
Rio'ko nire adiskide Mario'k azalduta, laterriko Lur-banaketaren saillean izandako jar-
dunaz baliaturik, lur areik ezerekeri baten erosi izan ebazala Senhor Joao'k. Eta bane-
kian baita be, Yporá'z onaindiko aldean basa-inditarrai, lur aberatseko bost eun ektare
kendu eutsezala, sartaldeko lurren muga ibai aretaraiño aldatuz. Isildu nintzan. Orduan
eztabaida sortzeak gauzak ez leukez atonduko, eta gaiñera nik ez neban iñongo egiztape-
nik aurkeztu aal inditarren alde. Isildu nintzan ba, eta egoera leguntzearren, auxe itaun-
du neutsan:

– Joao Jauna, noiz izango da urrengo abelburuen bialketea Corumbá'n zear Campo
Grande'raiño...?

– Iru egunen buruan, eta oi dan lez, Amaro'ren agindupean ogei bat inditarrek jar-
dunago dabe lorketa orretan.

– Egoera onean dago okelaren sal-saria. Cuiabá'tik artutako abelazkuntzalarien as-
terokoan atzo ikusi neban, eta badirudi gorakadeak jarraituko dauala.

– Bearrezkoa dogu ori. “Fazenda”n gero ta domu andiangoari aurre egin bear dautsa-
gu-ta.

Berba onein osteko isillunean, Joao Jauna zuzen egoala oartu nintzan. Izan be, indi-
tar morroiak ez eben diru askorik irabazten, eta jopuak izan ez arren be, olakorik lengo
eunurtean legez debekatu zalako, ez eben lan-sari andirik artzen. Egia zan, “fazenda”n
ostatu osoa ebela, baiña oikoa zanez, irabaziriko diru urriak euren estalpean saltzen eu-
tsiezan gaitetan txautzen ebezan, eta are txarragoa zana, batzuk an saltzen ziran edari bi-
ziek alkoholizatuta egozan. Era onetan, zekenkeriz ordaindutakoa, neurri andi baten “fazen-
da”ko diru-kutxara biurtzen zan ostera be.

Nossa Senhora do Rosario'k, baiña, baebazan dirua borborba irusten eben zulo andi
bi. Bata, pistolari-talde ugari bateri eutsi-bearra, eta bestea, Senhor Joao'ren seme bien
zarrastalkeria edo txautzeko griña.

Berrogeitsuko inditar morroi-saldoa erabilteko, eta oneik lanerako daben arduraba-
kokeria aurre egiteko, Joao Jaunak Amaro'ren agintzapean pistolari-taldea sortu bear
izan eban, morroiak lanean akuillatzeko. “Fazenda” sortu-barria zanetik, gero ta ugaria-
goak ziran basa-inditarren erasoai jarkitzeko, “fazenda”ko ugazabak, gogo-txarrez bazan
be, pistolari-taldea andiagotu bear izan eban. Amaro'ren taldeko oneik, baiña, ez eben
edozein lan-saria onartzen, eta euren jardunaren garrantziaz oarturik, Senhor Joao'ri ille-
ko sari ederra emoten beartzen eutsoen, eta ugazabak ezinbestez, eskaturikoa ordaindu
bear izaten eutsen. Basa-inditarrai Yporá ibairaiñoko lur emonkorrak bere kabuz kentzea
erabagi ebanetik, nai-ta-ez iskillodun taldea anditzera beartu izan zan ogei ta bost gizo-
netaraiño, ostutako lurrak bere jabetasuna iraun-erazoteko. Augaitik ba, “fazenda”ko do-
mua ez zan gaberdiko auntzaren estula.

Beste diru-jate andia, Joao Jaunaren lau seme-alabak ziran. Alaba biak Cuiabá'ko

lekaike-ikastetxerik onenean aziten ziran, eta onek zeozer ezkatzen eban; baiña au eze-
rezkeritzat artu daiteke seme bien eralguntzaren ondoan. Oneik biok, Ikastola Nagusian
ziarduen, nik ez dakit zelako onuraz, baiña benetan ekiten eutsoenari, berebillen lasterke-
tak ziran. Kirol-berebillak karuak izanez gaiñera, etenbako ardura ta atonketak eskatzen
dabez, eta areago kontuan arturik, erabilten ebezan bide asko lurrezkoak zirala. Eta jaki-
ña, olako gain-gaiñeko kirolariak egokienez, gizarte-bizimodua goi maillako izan bear,
eta onek eragiten ebazan dirua parrastaka jaurtitera. Bein baten, aste gitxi batzuk zirala
“fazenda”n niarduala, matxingorrigo itxurakoa ziran berebillen etorri ziran Senhor
Joao'ren seme biok, bidean zear auts gorritzako odei lodiek erraikiezala. Gurasoekin jar-
dun eben luzaro samar, eta bazkalostean tximista gorrien antzera bidean gora ezabatu zi-
ran. Urrango egunean, Joao Jaunak diru-agiri edo txeke bat igorri nengien agindu eustan.
Diruketa andia zan, eta azalpentsat auxe esan eustan:

– Gazte txoriburuok... berebil barriak bear dabezala ez dauste esan ba...! Badirudi,
oraingoakaz Souza de Araujo izena dagokion maillan ipintea eziña dala; eredu barrikoak
bear dabez, barregarritzat artuak ez izatearren. Gazteen kontuak...dana-dala danok jasan
dogu geisotasun ori, ezta Antoni...?

Nik ez neban iñoiz jasan olako kutsadurarik, orretarako dirurik emon egistana ez
nebalako ezagutu, eta auxe erantzun neutsan:

– Zeuk diñozun ezkerero...

Egunak joan egunak etorri, nire egitekoa gero ta errazagoa billakatzen yatan. Augai-
tik ba, egunoroko bearra amaituta, arratsaldeetan ordu bi nire aukeran izanik, Piru'k la-
gunduta, zabaldian zear zaldika giñoazan, aize garbia ta alagunetako bakea gozatuz. Bein
baten, bero samar izanik, zugazti baten gerizpean jesari gintzazan. Gugandik ez urrun
beitalde bat alatzen zan, jan bitartean astiro ebiltzala. Alako baten,

– Aizu, Piru –esaten otu yatan–, orra or bei eder lodiak. Zure ustez zenbat izango di-
ra talde orretan...?

– Ez dakit, Jauna, zenbatzen ez dot ikasi-ta.

Arrituta begiztatu neban, eta,

– Orduan, eskolabakoa ete zara...?

– Bai, Jauna, orretarako aukerarik ez dot izan-eta.”Fazenda”n ez dogu eskolarik.
Bazan inditar bat, neuk eskatuta irakasteko gerturik egoala, baiña ikasten asi orduko,
etxean eban jarduna aldatu eutsoen, eta aukera ori galdu neban.

Etjera biurtzen gintzazanean, burutapen batek jo ninduan, eta,

– Begira, Piru –esan neutsan– eskolabakoak erdi-gizakiak dira, bizitzari aurre egite-
ko bear beste aukerarik es dabelako.

– Neu lango inditar batek, zelako aukerea izango dau eskolatua izanik be...?

Isildu nintzan, nire baitan sentipen mingarria sortzen yatala, inditar gazte aren ba-
rrutiko didarraren antzekoa zana entzutean, eta andik laster etxera eldu gintzazan. Ga-
bean Piru'k aparria mairatzen eustala,

– Entzun, Piru –esan neutsan–, ezin dot burutik kendu eskolabakoa zaitezala, eta ja-
kituria iñongo eragozpenik ez dan ezkerero, biar bertatik asita, apaldu aurretik ordubet

bateko irakastaldia emongo dautsut. Ez niri esan gero, zeu lako inditar batentzat ori alpe-
rrikoa danik. Jakiteak gizona askeago egiten dau, baita zoriontsuagoa be.

Piru'ren begietan pozezko izpiren antzeko zerbait irakurri aal izan neban, auxe iños-
tanean:

– Eskerrik asko, Jauna, orain arte iñork ez daust jaramonik egin. Jaungoikoak or-
daindu dagitsula.

– Zeuk be ordaindu dagikedazu, Piru. Ara... guaraniera zure izkuntza irakatsiko
daustazu.

– Baita pozik be, Jauna...!

Piru ikasle urtena azaldu zan, eta illabete bat igarorik, irakurteko gai izan zan, eta
andik laster idazketea menperatzen eban. Onen ordaiñez, astiro baiña etenbarik guarani-
tarren izkuntza eder eta bakana ikasten asi nintzan. Berbeta au zintzur eta suur-otsez be-
terik dago, baiña Piru irakasle jasankorra izanik, apurka-apurka baniñoan izkuntza orren
sostorrak garaitzen.

Sei illabete igaro ziran Nossa Senhora do Rosario'ra etorri nintzanetik, eta orduko,
nire jarduna polito menperatzen neban. Noizean bein, Cuiabá urira joan bear izaten ne-
ban, diru-arazoak atontzearren, baita beste arazoak be, esaterako Joao Jaunarekin ezarpe-
nak egiten laguntzeko, diru-azokan. “Fazenda”k eralguntza andiak jasan arren be, sarrera
politak ebazan, eta batatz beste irabazteak emotsazan.

Bein baten, idaztegian egoan altzairuzko diru-kutxan, Joao Jaunaren jabetasun-agiri
batzuk billatzen nebazala, beekaldeko txoko baten lotuki bat ikusi neban, eta jakin-gu-
reak zirikatuta, so-aldi bat jaurtitea otu yatan. Autsez estalita egoan, eta galartzu gorri
batatz lotuta. Askatu neban, eta antxiñako “fazenda” sortu zanetik agiri batzuk agertu
yatazan, euren artean etxaldeko marrazki zeatza. Dalako marrazkia, laterriko lur-saillaren
ordezkari batek izenpetu ta sillatuta agertzen zan, eta onen ondoan Joao Souza de Araujo
Jaunaren izenpea.

Marrazkia arturik, mai andi baten gaiñean ipiñita, aren gora-beerak aztertzen asi
nintzan, eta orduan egiztatu aal izan neban, asiera baten Joao Jaunak niri erakutsiriko
marrazkia guzurrezkoa zala. Benetako onetan, au da, antxiñakoan, Yporá ibaiaren alde
biak inditarren jabetasuntzat agertzen ziran, eta banekian “fazenda”k ez ebalda aldakun-
tzarik izan ordutik. Argi egoan, beraz, asieratik nik somatua lez, Nossa Senhora do Rosa-
rio'ren ugazabak bosteun ektareko lapurreta egin izan eutsela basa-inditarrai. Argi egoan
baita be, onein noizbeinkako erasoak “fazenda”ko abelburuari, euren jabetasuna zan lu-
rretan egiten ebezala. Bildu nebazan agiriak, eta barriro lotuta, lengo txokoan ipiñi neba-
zan.

Gero, une luze batez gogoeta sakonari emon neutsan, nire egitekoa aztertzen nebala.
Zer egin, baiña...? Azkenean, aukerarik ez nebala begitandu yatan. Zeozer egitekotan,
Joao Jaunarekin eztabaidan asiko nintzake, eta onen ondorioz “fazenda”tik-at joan bear
izango neuke, arazoa atondu barik lagata. Olan ba, isiltzea ta gauzak berez joan zeitezela
erabagi neban. Etorriak esango leuskit zelan jokatu, eta bitartean, Senhor Joao'ri ez
neuskio iñongo aipamenik egingo. Izan be, bosteun ektare areik ez ziran gauza andirik

Mato Grosso'ko bazter amaibakoetan, baiña inditarrai egiten yaken arrapaketearen era-
kuspena zan, eta onek mintzen ninduan, lur arein benetako jabeak ziran-eta.

Beste illabete batzuk igaro ziran gora-beera andirik bage. Piru'k orduko, irakurten
eta idazten polito ikasi izan eban ezkerro, zenbakiztia ta jakintza orokorra ikasi egiazan,
liburu batzuk emon neutsazan, eta nire zuzendaritzapean, gaiok erraztasun andiaz ikasten
ebazan. Izan be, Piru adimen urtenekoa zan, eta egiten ebazan aurrarapenek pozez bete-
ten ninduen. Niketz, eta bere laguntza zala-ta, guaraniera menperatzen asi nintzan, eta
bion artean ez genduan beste izkuntzarik erabilten orixe baiño. Ez neban parra-parra itz
egiten, baiña egunoroko aurrerapenak poztuten ninduan, eta Piru'k iñostanez, luzaro ba-
rik bera baizen ondo menperatuko neuke beretarren izkuntza zaarra.

Areitariko egun baten, Joao Jaunak Cuiabá'tik amabost gizon akuratu ebazan. Ez
yatan bape atsegin gizon arein itxureak, langille baiño pistolariak emoten eben-eta. Eldu
baiño ez, Amaro Matozinhos'ek bere ardurapean artu, eta estalpera eroanda iskillotu eba-
zan errebolber eta errifleakaz. Ezin negikean talde aren etorrerea ontzat emon, “fazen-
da”ri eralguntza andia ekarriko eutsan-eta. Nossa Senhora do Rosario'ra eldu nintzanetik,
nire ardurarik andiena txaubideak aalik eta geien murriztutea izan zan, eta orra or tal-
de arek nire asmoak ezerezten eustazala. Pistolariak eldu ta egun berean, Joao Jaunak
arein izen-zerrendea ta egokiezan alogerak eskuratu eustan. Izan be, aloger andiak izanez
gaiñera, geroago egiztatu aal izan nebanez, onen ostean beste eralguntzak etorteko ziran.

– Barkatu egistazu, Senhor Joao –esan neutsan–, baiña ezin dagiket ulertu talde
orren akurapena. Morroi geiago izatekotan, inditarrek izango litzakez abelgorria erabilte-
ko, eta ez itxura zakarreko gangster-talde bat. Zeuk niri emondako zerrendeari irazean
begiraldi bat jaurti dausat, eta “fazenda”ri zama andia ekarriko dautsala ikusi dot. Arei-
tariko illeko sari batatz, bost inditar ordaindu daitekez. Zertarako bearrezkoa ez dan arazo
baten, ainbeste diru erre...?

Itxura bakanaz irribarre egin eban Senhor Joao'k auxe esan eustanean:

– Ez larritu, Antoni, bere garaian ikusiko dozu zertarako akuratu dodazan. Bitar-
tean, ori ezkutukia da.

– “Fazenda” onen eralguntzak edo zamak andiak dira, Joao Jauna.

– Bai, baiña edozelan be, neuk baizen ondo dakizu aspaldi onetan onura andia emon
dauskuala “fazenda”k, eta nire asmoa garatu dagidanean, etekiña andiangoa izango da.

Arrenkura bakanak jota sentitzen banintzan be, ez neban beste biderik izan isildu ta
itxarotea baiño, eta oldozkun kezagarriak uxatzeko, lanari buru-belarri emon neutsan.
Andik egun batzutara, inditarren eta landroverren joan-etorri ugariak oartzean, jaiegune-
ko arratsalde baten, Tanimbu atondu egian agindu neutsan Piru'ri, eta eguraldi ederra us-
tiatuz, Yporá ibairantz lauazka nasaiaz abiatu gintzazan. Ibaira urreratu-ala, kilometro
bateko bitartera, enborrezko barranda-dorre garaiak erdiiz eraikita ikusi zeitekezan. Arri-
tuta, guaranieraz Piru'ri,

– Ereña xe've (esan egistazu) Piru –itaundu neutsan–, zer dira txabola garai
oreik...?

– Zelatari-dorreak ei' dira, Jauna.

– Zertarako, baiña...?
– Yporá ibaiaz araindiko zabaldiri kuku egiteko
– Zertarako kuku egin, baiña...? Basa-inditarrak aspaldi onetan ez dira inondik agertu, eta gaiñera, lur orreik euren jabetasuna dira.

Etixerakoa isillean egin genduan, burutik kendu eziñik, zelatari-dorre areik gauza onik ez ebela iragarten. Burura etorri yatan Joao Jaunari dorre garai arein zergaitia itauntzea, baiña azkenean isiltzea erabagi neban.

Andik illabete batera-edo, Yporá ibairaiño zaldika joan nintzan, eta orduan dorre areik amaituta ikusi nebazan. Amar kilometro luze zan “fazenda”n, kilometro bateko bi-tartera, amar zelatari-dorre eraikiak ziran, bakotxa zotzezko eskillara banaz ornitua, eta goikaldeak lau gezi-leio edo iskillilo-leiatillak ebazala. Orduan gauzak argiago ikusten asi nintzan: azken aldi aretan etorritako pistolariak, zelatari jarteko ziran, basa-inditarrak Yporá’z onaindiko lurretara igaro ez zeitezan, eta beraz, abelburuak ostu ez egiezan. Olan uste izan neban egun aretan, baiña laster oartu nintzan arazoa askozak larriagoa zala.

Ettxera biurtu nintzanean, Piru’ri deitu ta auxe itaundu neutsan:

– Aizu, mutil, amar begirari-dorre ikusi dodaz Yporá ibaiko ertzean. Dirudianez, Joao Jaunak bildur andia dautse basa-inditarrak, baiña nik neuk ez dot ikusten barrandategiok orren bearrezkoak izan daitezkanik, kontuan artuta batez be, azken aldiotan ez dala basa-inditar bat bera be azaldu inguru oneitan.

– Suzmo txar batek jota nago, Jauna.

– Zein suzmo, Piru...?

– Ara... basa-inditarrak lur geiago kenduko ez ete dautsegun-edo... Atzo bertan atondoan nengoala, Senhor Joao’k Amaro’ri esan eutsan biar bertatik asita, landrover guztiak gertuteko, arantzadun sare-esia bidean zalako, eta ia agindutako taketak gerturik ete egozan, eta orduan Amaro’k baietz esan eutsan.

Au entzutean zur eta lur geratu nintzan, zelako erabagia artuko neuken buruan nerabillela. Nire arritasunak edo arrenkurak, obeto esateko, ez eban luzaro iraun. Arratsalde aretan, esku-arteke liburuak ixteko zorian nintzala, Joao Jauna idaztegitara sartu zan, eta “fazenda”ko lur-marrazkia mai-gaiñean ipiñita,

– Antoni –esan eustan–, garaia eldu da aspalditik buruan darabildan asmoa egi biurtezko. Yporá ibaiko ibarra lurrik aberatsena da, ibaiaz araindikoa batez be. Lengo egunean, Cuiabá dodan aalmen andiko agintari batek, lur orreikiko dodan tirria ezagaturik, beste barik nire jabetasuntzat artu nengian eta kitto, esan eustan.

Arrituta begiratu neutsan, eta nire aurpegiaren itxura ikusirik, onetaraxe jarraitu eban.

– Izan be, ori lege-auspentzat artu daiteke, baiña nork neuk baiño onura andiagorik lur orreiri atara...? Urteetam zear or dago ibar ori etekiñik emon barik. Ez da, beraz, inongo oben edo pekatuak, aztutako bazter ori neureganatzea, ain goseturik dagoan munduari bearrezko janaria emotearren.

– Bildur naz, Joao Jauna, ekintza orrek basa-inditarrak ez ete asaldatuko. Gaiñera, ez da lenengoz lur-zatiak kendu dautsezuzala, len bosteun ektare inguru kendu zeuntsezan eta...

– Zelan dakizu ori –eten egin eustan betosko zimurraz–, nire aurka dabillen baten-batek jakiñaren gaiñean ipiñi zaitu-ala...?

– Ez, Joao Jauna. Ona etorri aurretik, etxaguntza onen edapena bi milla ektarekoa zala esan eustan Mario’k, eta mai-gaiñean dagoan marrazki orreri ez dago besterik neurketea egin baiño jakiteko, orain bosteun ektarez andiagoa dala, eta gaiñera –eskua kutxarantz zuzenduz jarraitu neban–, altzairuzko kutxa orretan gordeta dagoan antxiña baten egindako lur-marrazkiak egiztatzen dau ori.

Asarre biziak aurpegia gorri eginda, auxe jaurti eustan:

– Zelako eskubidez sartzen dozu suurra nire agirietan...?

– Barkatu, Jauna, baiña ori alabearrez jazo zan. Bein baten, diru-agiri baten billa niarduala, ezustean dalako marrazkia eskura etorri yatan.

Zorrotz begiztatu ninduan une batez, eta gero,

– Arduradun onak –irausti eustan–, oroz gaiñetik bere nagusiaren ona billatu bear dau, ezezerkeriak alde batera lagata. Gaur, nire onurak, baita Brasil’goa be, ezertarako erabilten ez dan lur-zati ori nereganatu dagidan eskatzen dau, eta ez aikomaikotan ibilli naiten. Izan be, Antoni, zure jokaerak arritzen nau benetan, eta areago kontuan arturik, nereganatu gura dodan lur-zatia, ezertarako gauza ez diran basa-inditar alper, zorritsu ta ezjakiñai dagokiela, eta mundu onetan ainbeste gose jasaten danean, eskura etorri dakidana bidezkotzat artu dagikedala, uste dot. Gaiñera, lurralde amaibakoa daukienai lur-zatitxu bat gora-beera, zer...?

– Begira, Joao Jauna –esatera azartu nintzan–, azkenak ez ditu ekinbideak legeztatzen, eta bere garaian izenpeturiko itunari, zintzo jarraitu bear dautsazu.

Joao Souza de Araujo Jaunak ezin egikean ulertu, menpeko batek aurka egitsan ezezerkeri bategaitik, eta ordu aretan etsaitzat artu ninduan. Ez neban ezelan be gura, nire ugazabak olakotzat artu nindegian, eta egoera latza arintzearren,

– Joao Jauna –mintzo leunaz esan neutsan–, lur orren jabetasuna ez da inongo ezezerkeririk, alderantziz, basa-inditarrentzat euren eskubideen lekukotasuna da. Orainarte lur asko galdu dabe arrotzen arrapakeriagaitik, baiña ez dot uste, beste baten opariak izateko gerturik dagozanik. Iporá’z araindiko zabaldiran basabere asko alatzen da, ugaderak eta oreiñak geinbat, eta euren basoko baserrietan janaria urritzen yakenean, ibai orren ertzetan, darabiltzezan geizientzako eiza-gaiak idoroko dabezala badakie. Laga egiezuz, beraz, euren jabetza diran lurrok, eta bakean bizi izango zarie, au benetako baldintza baida, “fazenda” onek etekin ugari jaritsi dagian.

– Uste al-dozu, orrek baretuko dauzala inditarrok..? Bai zera...! Esan egistazu: zergaitik Yporá ibaia zearkatzen daben, eta onaindiko alagunetan ainbeste abelburu ostu oi dauskuen...?

– Ibaia ertz biak euren jabetasuntzat dabelako. FUNAI erakundearen bitartez lortutako itunak jabetasun ori inditarrak emon dautse, eta ori ondo dakien gauza da. Orregaitik, ibaiaz onaindiko bosteun ektareko arloa euren izanik, emen alatzen diran abelburuak euren jabetasuntzat artzen dabez.

– Madarikuatuk, Joao Souza de Araujo nor dan laster ikasiko dabe, bai orixe...!

– Entzun egistazu, Joao Jauna. Zentzumbako guda isil onek, “fazenda”ri kalte andia ekarri dautso, eta diru asko eralgi-erazo, iskilloturiko talde orreri eusteko.

Isildu nintzan ainbaketa ariña egitearren, eta gero,

– Aditu ondo dirautsudanari, Joao Jauna. Nire zenbakien arauz, iskilloturiko talde ori ez ba’zendu, azken urte onetan, zure irabaztea bikotxa izango zan. Zertarako ba, lur geiago jabetu, azken baten etekin gitxiago lortzen ba’dozu...?

Isildu nintzan, esandakoak zelako zarrastadea egin izan eban Joao Jaunagan egiztatzeko, baiñan aren aurpegiko betosko ezkibelak, bere lengoan egoala adierazo eustan, eta areago be, auxe esan ebanean:

– Basa-inditar madarikatu lapurroi erakutsiko dautset Joao Souza de Araujo nor dan, arraioa...!

Asarre ta gorrotoa marraztu yakozan aurpegian, begiai txinpartak eriezala. Nire burubideak emotea alperrikoa zala oarturik, isildu nintzan, eta biok olan iraun genduan luzaro samar. Alako baten, Joao Jauna jagi zan, eta nigana urreraturik, auxe jaurti eustan asarezko itxuraz:

– Esandakoaren ostean, ez dakit merezi ete dozun nire uste ona, adiskide baiño etsaitzat agertu dozu zure burua-ta.

– Ez da arerioa bere ugazabari laguntzearren, mingotsa izanik be, egia diñotsana. Tamal dot, izan be, nire zintzotasuna zalantzan ipiñi dagizun, baiña etxe onetan iraun dagidanañi, zintzo jokatu dot, eta zure alde saiaturiko naz biotz-biotzez.

Tinko-tinko begiztatu ninduan, nire betseñetan egia irakurri gura bai’leuan, eta beste barik urten zan.

Arrezkeroko gure arremonak otzitu ziran, eta lengora biurtzen saiatu banintzan be, Joao Jaunak nigandik gero ta urrutiago zirudian. Edozelan be, nire jarduna ondoen bete-tearren, iñoizkorik arduratsuen jokatu neban.

Aspaldi aretan, begirari-dorreak edo talak amaiturik, oneitan zelatariak kokatu ziran, gau-egunez bazterrak zaintzen ebezala su-iskilloak erabilteko gerturik. Begirari-dorreen babespean, Yporá ibaiatz arandiko kilometro batera, Amaro’ren jendearen zaintzapean, “fazenda”ko inditar morroiek, amar kilometroko luzeran taketak sartzen asi ziran, eta jarraian, arantzadun esia oneitan josi eben. Illabete bat iraun eban ekintza onek, landroverrek amaibako joan-etorriak egiñez, bearrezko arantzadun esia ekartearen. Arlo au amaitu zanean, esiz alde bietako zugaitz-talde guztiak moztu ebezan motordun zerrakaz, basa-inditarrek areitan ezkutunerik izan ez egien. Era onetan, Nossa Senhora do Rosario milla ektareko arlo ederraz anditu izan zan, lurralde aretako arlorik emonkorrenaz, izan be. Luzaro barik, ibaiko ubideak zearkaturik, “Sartaldeko alagunea” esaten eben arlo barrian, “fazenda”ko abelgorria bazkatzen zan. Pozik emoten eban Joao Jaunak, bere asmoa egi biurturik ikustean. Bazirudian, nirekiko bere jokareta zeozer biguntzen asten yakola, gogoan izanik batez be, aurrerantzean bere irabazteak andituko yakozala, eta ez gitxi. Aspaldi aretan, giro orren aldakuntza zala-ta, Joao Jaunarekin autu luze samarra izan neban, inditarren estalpean alkoldun edariak galazoteari buruz. Edariok, kalte andia egiten eutsiela inditar morroiai, eta augaitik la-

nerako gaitasuna galduta, “fazenda” zala azken baten galtzaille andiena. Badirudi, Joao Jaunaren adimenera sartzen zala noizbait, nire burubidea, eta dalako edari bizien salketea debekatzeko baimena jaritsi neban. Astirik galtzeke, egokion agindua emonda, edari-salketea eten egin zan. Geroago jakingo neban, Amaro Matozinhos’ek edari saltzailleak beartzen ebazala, batutako dirutik euneko amarra emotea. Jazoera onek Amaro’ren nirekiko ezin-ikusia indartu eban. Gitxitan ikusten genduan alkar, baiña olan jazoten zanetan, pistolari aren aurpegian gorrotoaren itxura agertzen zan, betoskoa illunago biurtzen yakola. Zorionez, baiña, nire betekizunak ez eban zer-ikusia andirik berarekin.

Bein baten, somatzen nebana jazo zan. Goiz aretan lanari emoten neutsala Joao Jauna’rekin, Amaro idaztegiara sartu zan arin baten, eta urduritasuna jabetu eziñik,

– Senhor Joao –esan eutsan arnas-estuka–, basa-inditar madarikatuok bart izaniko euri-jasa lodia ustiatuz, Sartalde-alaguneko arantzadun esi barria aztamakilka ebagi dauskue leku batzutan.

Joao Jaunaren aurpegiak menperatzen eban asarrearen aztarnak erakutsi ebazan, oiubizitan iñotsala,

– Baiña, Amaro, zelan daiteke olakorik zure gizonak begirari-dorreetan izanik...? Ez niri esan gero, ainbeste diruz jarritako esia, eta ondo ordaindutako zure gizonak, ezertarako gauza ez diranik...!

– Bart izandako euri-jasa lakoa gertatzen danean, dorreetako argi luzeak eta guzti, ez da gizonik, berreun metrotik arantzago ezer ikusi dagikeanik.

Isillune astuna edatu zan idaztegiaren, orma-ordulariaren txiriolkadak aditzen zirala soillik, iragarki zemaikorra bai’litzan. Egoerea jasan eziñik, Joao Jaunak,

– Amaro –esan eutsan–, zer egin geinke olako basakeriak jazo ez daitezan barriro...?

Beste isillune bat igaro zan Amaro erantzun aurretik, eta itxura oldozkorraz,

– Joao Jauna –asi zan astiro–, nire ustez “fazenda”ko inditar morroiren batek arein alde zelatari diardu, eta emen jazoten danaren barri damotse.

– Amaro, basa-inditarrok bart egin dabena burutzeko, ez da bear iñongo zelataririk. Eguraldi euritsu edo laiñotsua danean etorri, esia eten egin, abelburu batzuk artu, eta baserrietara eroan, zelan olakorik uxatu...?

– Aspaldi onetan egitasmo bat buran yabilt, baiña...

Au esanik, saieska begiztatu ninduan Amaro’k, nire aurrean berba egitea zaila izango bai’litzakion-edo. Iñongo eragozpenik izan nai ez nebenez, jagi ta nire alboko idazgelara sartu nintzan Joao Jauna ta Amaro bakarrik itzita. Bion arteko txutxumutxuak luzaro samar iraun eban. Erabagitakoa egunen baten jakingo neban, baiña ekiodan orren aurretiko gertakizun bateri.

Arantzadun esia ebagi ta egun batzutura, Joao Jaunak dei egin eta auxe esan eustan:

– Yporá’z arandiko arlo barria Cuiabá’ko agiritegiaren legeztatu gura dot, baiña orretarako dagokion lur-marrazkia bearrezkoa da, eta “fazenda”n ori egiteko iñor ez zeu baiño egokiagorik. Orretarako bearrezko guztia zure aukeran ipiñi dot, bai tramankulutan, bai gizonetan.

– Eginkizun orretarako ez dot besterik bear, eun metroko xingolea ta ipar-orratza baiño.

– Eta morroietan...?

– Piru baiño ez dot besterik bear.

– Asi ba, lenbailen.

Urrengo egunean, eun metroko xingolea ta ipar-orratza artuta, Piru ta biok sortaldeko alagunetara abiatu gintzazan zaldiz. Erosi-barria zan ipar-orratza, kaobazko kutxatxu txukun baten barruan egoan, eta izan be, balio andiko tramankulua zirudian. Arantzadun esia zuzen-zuzen edatzen zanez, ez neban besterik egiteko, ipar-zuzenbidea artu baiño, eta gero xingoleaz neurtu. Esiak ibaiko biurgune andi bat alkartzen eban, eta neurketea, beraz, egoko biurgunetik asi genduan iparrekoan amaitzeko. Zortzi ordubete bear izan genduzan arloa egiteko, eta arratsaldeko lauretan amaitutzat emon genduan, ordubete bateko geldialdia egiñik bazkaltzeko. Orduko, eguraldiak itxura euritsua erakusten ebanez, aalik ariñen zaldien arrelepoan jarri, eta lauazka bizian etxera biurtu gintzazan illuntzea asten zanean. Tanimbu'ren lepoari lotutako ipar-orratza ta xingolea gordeten ebazan zorrotxua galdu izan zala, arrenkuraz egiztatu neban zalditik jatsi nintzanean.

– Entzuidazu, Piru –esan neutsan–, zaldiari lotutako zorrotxua galdu egin yat, eta ipar-orratza txit baliotsua dan ezker, biar goizean, geuk ekarritako bidea zeatz-zeatz atertuko dozu. Ez zaitez biurtu dalako zorrotxu barik.

– Ha'e, Karai, ipora (Bai, Jauna, ondo da) –guanianeraz erantzun eustan–, ani rejpy'apytei (ez zaitez kezkatu).

Biamonean, aurregunean artutako neurri barriak, Joao Jaunaren aginduz lengo marrazkiari eratsi neutsazan, “Fazenda”ren edapena gaurkotuz. Etxaldea orain iru miila ta berreun ektarekoa zan, basa-inditarrai azkenengoz ostutako Yporá ibarreko lur-zatia aberatsena izanik. Egun osoa emon neban lan orretan, eta illuntzean zeregiña amaituta, baratzera urten nintzan, eta atadian jesarrita, tropikar aize usaintsuak inguratirik, atsedena gozoa izan neban. Izarrak agertzen asi ziran ortziko sabaietan, urruma isilletan bakesko mezuak bai'litzazan. Txitxarren eresien artean eta urruntasunak motelduta, jaguar baten orrua “Gran Pantanal” izeneko istingatik aditu zan, lagunaren deika, edo arrapagaia erasoteko zorian jaurtita.

Alako baten, burura etorri yatan Piru billaketatik ez zala biurtu oraindiño, eta arrenkurak artuta, jagi, eta ganetxu batetik barrandari jarri nintzan. Olan nengoala, irudi ezabatu bat etorkidala ikusi neban. Arin baten joan nintzakion, eta Irakú'ren mintzoa aditu neban.

– Jauna, Jauna, –arnas baten esan eustan–, arindu zaitez, inditarren zelataria dalakoan Piru atxillotu dabe, eta estalpera eroanda gero, txarto darabille. Arren, Jauna zoaz ariñeketan...!

Jazoten zana ulertu eziñik, estalpera oldartu nintzan nire buruari niñotsala zer gertatu zeitekean. Atea itxita egoan, eta kisketa eragiñik sartu nintzanean, eskuetatik zutoin batera lotuta, Piru gerritik gora billutsik ikusi neban, bizkarrean beera odol-aria eriola.

Gelaren erdian jesarrita, Amaro'k zigorki bat eskuan erabilen, eta amorruz gorri eginda, Piru zemaizen eban didar bizitan auxe zirautsala:

– Esaidazu, inditar ezkabitsu ta zikin orrek, zertan ziarduan ibaiko ertzean arrapatu zinduguzanean... Bai, badakit zertan zenbiltzan guaraniar txarria...! Etzi, abelgorriaren oiko inguraketea egin bear dogula-ta, gure jendea guztiz lanpetuta izanik, ereti ezin oiba izango dabe basa-inditarrek arantzadun esiaren zear abelburuen ostuketea egiteko, ez-ta...? Azkenengoz itauntzen dausut, Piru, zertan ziarduan Yporá ibaiaren ertzean arrapatu zinduguzanean...?

– Antoni Jaunaren aginduz, atzo galdutako tresna batzuk billatzen nebazan.

– Guzurrea, urdekume ori...! Inditar baten billa ziarduan, etzi inguraketa ta abelgorriaren batuketa egingo dogunez, gabean ari jakitun ipinteko, abelburuak bilduta dagozanean lapurreta errazagoa da-ta.

– Amaro'k Piru barriro zigortu nai ebala ikusirik, nire onetatik urtenda auxe oiuegin neutsan:

– Geldi, Amaro...! Gazte orrek diñotsuna egia da.

– Zeu, zeu...! –didarka erantzun eustan–. Inditarren betiko adiskidea. Ez al-zara oartzten gaizkille bat gerizatu gura dozula...?

– Ez dot iñongo gaizkillerik babestu gura, errubako baten alde ekin baiño.

Au esanik, Piru'gana urreratuta, Irakú'ri agindu neutsan,

– Ekarki aizto bat mutil onen loturak ebagiteko.

Bere buruaren jabetasuna galduta, eta itxura zemaikorraz zigorkia astintzen ebala, Amaro urreratu yatan, eta,

– Geldi, Antoni –asarre bizian jaurti eustan–, geldi, bestelan...!

Erdi-zoratuta, zigorkia astindu eban zemaizen niduala. Ezin egikean jasan Amaro'k, an egozan inditar ta pistolarien aurrean iñork aurka egitsan. Bere aginduak itsu-itsuan danek men egiezala oituta izanik, ezin egikean nire jarkipena jasan. Bereala oartu nintzan arin jokatu bear nebala, eta astirik galtzeke, zigorkiari oraturik, teinkada indartsuz kendu, eta txoko batera jaurti neban. Une batez aurpegia alboko orma baiizen zurbi-lla biurturik, eskua errobolberaren gaiñean jarri eban gerritik atarateko. Ez neban astigaltzerik, eta,

– Kontuz Amaro –oiuegin neutsan–, nik ez daukat ezetariko iskillorik, eta epaikiariaren aurrean zailla biurtuko yatzu azaltzea, zeure buruaren alde erail nozula...!

Badirudi, nire azken itzok zentzutasuna ekarki eutsoela, une batez ezpaitsu geratu zan-eta. Orduan, eretia ustiatuz,

– Begira, Amaro –jarraitu neban leunkiro–, atzo, Senhor Joao'ren aginduz, Piru ta biok Yporá ibaiatz bestaldeko lur-zatia neurtzeko abiatu gintzazan: Lana amaiturik, etxera biurtu nintzanean, neurgaiñuen zorrotxua galdu izan yatala oartu nintzan. Baliotsuak diran ezker, gaur goizean aren billa joan zeiten agindu dausat Piru'ri. Auxe da jazo dana, eta ez besterik.

– Niri bost ardura –erantzun eustan– zorrotxuarena, baiña auxe badakit baita ondo jakin be: “fazenda” onetan etoi batek basa-inditarrekin arremonak dituala gure ekitzen

barri emoteko, olan euren lapurretai lagunduz. Asko da, zure inditar morroia ibaian bertan atzitu izatea, doi-doi abelgorriaren inguraketea egiteko zorian gareala, oiko taldea Campo Grande'ra bialtzeko. Augaitik ba, zure morroi zikin orreri badiñotsat Yporá ibaitik aalik urrunen ibilteko, bestelan...

– Jakin bear dozu, Amaro, –erantzun neutsan–, Piru'ren nagusia nazan aldetik, bera-ri aginduak emotea neuri dagokidala, eta ez beste iñori.

Orduko, aizto bat az Iraku'k Piru jareitu izan eban. Orduan, nire morroiari biurtuz,

– Aizu, Piru –itaundu neutsan–, aurkitu al-do zu neurgailuen zorrotxua...?

– Ez, Jauna.

– Orduan, biar jarraituko dozu billaketea.

Eta Iraku'ri mintzatuz,

– Iraku' –agindu neutsan–, zaindu egizu Piru'ren zauria.

Urten-agiñean nintzala,

– Entzun, Amaro –esan neutsan zorrotz–, beste urrengo baten ez dakitzula bururatu nire morroiari ezer egitea, bestelan ondorio txarrak lekarkizuz. Bakea eskintzen dautsut, baiña orren orde z gudea aukeratzan ba' dozu, errua zeurea izango da.

Une batez, Amaro Matozinhos'ek gorrotoz begiztatu ninduan, eta gero,

– Antoni –zemaitu ninduan–, kontuz ibilli, beti inditarren adiskidetzat jokatu dozu ta, eta orrek suzmo txarrak emoten daustaz.

– Zuzentasunaren alde jokatu dot, eta olan egiten jarraituko be.

Eta nire lepoan Amaro'ren gorrotoz beteriko begikadea oartzen nebala, estalpetik urten nintzan. Gau aretan Piruri, aparia mairatzen eustanean,

– Aizu –itaundu neutsan–, mba' eixapa ne koe (zelan zagoz...?) hasypa ndeve (min oartzen dozu...?)

– Xe rasy katu Karai (apur bat minduta, Jauna). Amaro gizon gaiztoa da, eta inditarrai gorroto dausku. Bein baten, basa-inditarrek bere anaia atxillo egin, eta eurekin basora eroan eban, iñoiz ez biurtzeko. Ordutik beragan gorrotoa sortu ei' zan.

– Epytu'u mikena (atseden artu).

Joan aurretik, Piru'ren oiko aurpegi motela, maitasun-itxuraz piztu zan, eta mintzo dardartsuz,

– Karai (Jauna) –esan eustan–, zu nirekiko beti ona azaldu zara, baiña gaur nire alde egiña ez yat aztu egingo.

– Tereho eke (zoaz lotara) –esan neutsan–. Biar ondo ba' zengoz, zorrotxuaren billa joango zara.

– Xe resai Karai (ondo nago, Jauna). Biar egunsentian aren billa joango naz.

Urrengo egunean, Joao Jaunari aurregunean jazorikoa edestu neutsan. Asiera baten, areri ezer ez esatea bururatu yatan, baiña edozelan be, jazotakoa ezaguerara elduko litzakiola gogora etorri yatan, eta beste biderik ez egoala uste izanik, dana esan neutsan. Amaitu nebanean,

– Antoni –arrenkurazko itxuraz esan eustan–, tamal dot jazorikoa. Zeuk eta Amaro'k alkar ondo artu dagizuen, bearrezkotzat daukat “fazenda”ren arazoak ondo joan dai-

tezan. Amaro gizon gogorra, zorrotza da, baiña zintzo ta eginkorra, eta au bearrezkoa da gure inditar morroi alper, ez-gauza, menperatzeko, baita onein jasekoa diran basa-inditarren erasoak uxatzeko be. Bala-bala dabil inguru oneitan bigunegia zarala menpekoekin, eta atzo estalpean erakutsi zenduan jokaerea, ezin dot ontzat emon.

– Baiña, Joao Jauna, errubakoa dana, zigortu egian laga bear...?

– Bai, beste inditarrai eredu ona emoteko danean batez be.

Une batez arrituta begiratu neutsan, eta erantzun egokia emoteko zorian nintzala, barruko zerbaitek isilteko agindu eustan, alperrikkoa izango litzake-ta nire burua inditarren alde azaltzea. Jarraian, eta auzia amaitutzat emonda, Joao Jaunari aurregunean osoturiko “fazenda”ren lur-marrakia erakutsi neutsan. Pozik azaldu zan Nossa Senhora do Rosario'ren ugazaba, eta urrengo astean Cuiabá'ko jabetasun-agiritegian legezstatuko leukela esan eustan. Arratsalde aretan, illundu aurretik Piru biurtu zan, neurri-gailluen zorrotxua sastra baten aurkitu ondoren.

Arrezkero, gauzak baketsu samar joan ziran, Amaro ta nire artean iñongo auzirik gertatzen ez zala. Yporá ibaiko barrutian be, aspaldi aretan-basa-inditarrek ez ziran azaldu, Joao Jaunaren eritxiz Amaro'ren agintzapean akuraturiko pistolariak zirala-ta, baita begirari-dorreek emoten eban babesagaitik be. Onezaz gaiñera, ziurtasuna anditzearren, gau ta egunez, iskiloz ondo ornidutako bikoteek arntzadun esiaz arandiko lurak barranditzen ebezan, or-emenka sakabanatutako zugaztietan eskutatzen zirala. Onezaz gaiñera, begirari-dorreetatik argi indartsuek zabaldia aztertzen eban gau osoan zear, barruko zaindariak su egiteko gerturik.

Aspaldi baketsua billakatu zan, baiña bein baten... Egun berotsua izan zan, eta etxe-ko aurrekaldean edatzen zan aterpe apaiñean, apalostean gabeko ozkirria gozatzen nebala, zaldizko talde bat etxera urreratzen zala ikusi neban. Amaro'k berak zuzendutakoa zan, eta urreratu-ala mintzo urduriakaz eragoiela begitandu yatan. Atadi-aurrean gelditurik, erdian basa-inditar bat ekarrela sei pistolari ikusi nebazan, atxilloari iñon diran iñondiko iraiñak jaurtiten eutsuezala. Amaro zalditik jatsi, eta bere menpekoai itxaroteko agindurik, etxera sartu zan Joao Juana jakiñaren gaiñean ipinteko.

Indar ezkutu batek zabu-aulkitik zutunik jarri ninduan, eta zer egiten neban oartzeke, atxilloari urreratu nintzakion. Besagaiñeko zauri batetik odola parrastaka erion, zaldigaiñean nekez irau egikeala. Buru-makur, inditarren egonaria aurpegian agiri ebala, egoera larriari bere endako ardurabakotasunaz aurre egiten eutsan, bildur-aztarnarik txikiena be erakutsi barik. Oso makal emoten eban odol-galtzeagaitik, urrean. Alako baten, esan-eziñeko errukiak artuta, auxe itaundu neutsan:

– Mamoygua' pa nde (nongoa zara...?)

Une batez isillean begiztatu ninduan... eta bere aurpegi zurbilleko begietan, inditar endako patu zoribakoa irakurri neban. Askatasuna oroz gain nai dauan inditarren arima menperakaitzak, euren lurraz jabetzeko arrotzen zapalkuntza erukibakoa etenbarik jasaten, erraldoiaren aurkako ipotxaren jarkipena, izan be. Aukera bi aurkezten yakez jareti bizi izateko jaio diran basa-inditarrai: euren basoetako bizimodu askeari uko egin arrotzen jopuak biurtzeko, ala askatasunaren alde euren baso usuetan babesturik irau, il ala

biziko burrukan jardunez etenbarik. Auxe izan da basa-inditarren patu unkgarria arrotzak euren lurraldeetara etorri ziranetik, baiña gaurko egunetan iñoizkorik larriena, arrotzak gero ta ugariago, gero ta diru-goseago, arein lurretaz jabetu gura dabenean.

Une aretan, basa-inditar aren begiraldia nire betseñietan untzaturik oartzean, erruduna oartu nintzan, eta lotsaturik, begiak aren aurpegitik saiestu bear izan nebazan. Orduantxe, jazoten yatana oartu barik, isil-isillean biotzaren sakonenetik barkapena eskatu neutsan...

Alako baten, etxeko atea edegi zan, eta atadiko iru maillak jatsita, menpekoai auxe esan eutsen Amaro'k:

– Eroan txakur ezkabitsu au zaldien kortara, eta lotu egizue ondo ormako txinga batera. Gero joango natzaio berarekin itun bat egitera.

Biraoen artean atxilloa eroan eben, eta nire zabu-aulkira biurtuta, atsedinari emon nai izan neutsan. Ezin, baiña; ezin nengikean basa-inditar aren begikadea irudimenetik kendu, eta eziñegon larriak artuta, nire gelara igonda oeratu nintzan, loaren besoetan aringarria jaritsiko neukelakoan. Ordubete bat iraun neban oe-gaiñean iraulka, eta bakea idoro eziñik, Irakú'ri dei eginda, Piru bialdu egistala agindu neutsan. Mutilla agertu zanean,

– Piru –itaundu neutsan–, mba'epa pe nde ere'va (zer diñostazu...?) zelan dago atxilloa...?

– Oso makal dago, Jauna

– Zer jazo da...?

– Ara... zugazti batetik Amaro'ren begirariet, bosteko inditar talde bat ikusi dabe, illunabarra ustiatuz arantzadun esirantz abiatzen zirala. Tiroka asi dira, eta igesi joiazala, nekez ebilkean zaurituriko basa-inditar bat atxillo egin, eta zaldi-kortara ekarri dabe. Orduan Amaro'k dei egin daust itzultzaile izan nakion, berak guaranieraz ez daki-ta.

– Baiña atxilloa guaraniarra al-da...?

– Ez Jauna, xingureutarra da, baiña euren izkuntza guaraniera lakoa da.

– Eta zer jazo da orduan...?

– Amaro'k auxe eskatu dautso: basoetan zear inditar baserri urbillenera “fazenda”ko zigor-talde bat zuzentzeko gerturik ete egoan. Atxilloak ezetz, eta asarrez irakiten Amaro'k zigorkiaz bere biziko astiñaldia emon dautso, makaltasun utsaz basa-inditarra kordebagetu arte. Au ikusirik, gure inditar neskame bateri agindu dautso Amaro'k, atxilloa zaindu dagian, itaunketea biar jarraitu nai daualako, eta zelan edo alan atxilloa beartuko dauala gidaria izateko, ia baserri bat ondatu ezkeru, abelburu-lapurretan jarraitzeko gai izango ete...

Au entzunik, une batez ausnartzeari emonda gero, biotzaren zarrastadeari jarraituz,

– Goazen atxilloagana aalik isillen –esan neutsan–.

Astirik galtzeke, gabaren illuntasuna ustiatuz, zaldien kortara joan gintzazan. Ur samar gengozala, inditar emakume bat urten zan, eta,

– Aizu –itaundu neutsan–, zelan dago atxilloa...?

– Bere senetara biurtu da onezkero, baiña makal ikusten dot. Jateko zeozer atonduko dautsat, ia zuzperzen dan.

Emakumea gau-illundian ezabatu zan, eta bereala Piru ta biok sartu gintzazan. Basa-inditarra jesarrita egoan lurrean, burua beerantz jausita. Urreratu nintzakion, eta mintzo adiskidetsuz,

– Mba'eixapa reiko (zelan zagoz...?) –itaundu neutsan–.

Beretarren berbetea entzutean, burua jaso ta begiztatu ninduan. Kadenaz beteriko begi areitan amaibako ituntasuna ikusi zeitekean, bere endako patu zoribakoaren didar jsiilla bai'litzan. Ezustean, esan-eziñeko errukia nitzaz jabetu zan, eta lekarkidazan ondorioak aintzakotzat artzeke, Piru'ri auxe agindu neutsan:

– Entzun, aalik ariñen atondu egistazu Tanimbu.

Piru'k nire zaldia gertatu bitartean, andik urrun ez egoan iskillotegira arin baten joan nintzan. Ez egoan iñor. Errifle bi ta kartuxugalak artuta, etorri baizen arin eta isillean urten nintzan. Orduko, zaldi bi gerturik egozan, eta Piru'ri auxe esan neutsan:

– Baiña nire zaldiaz gaiñera, zergaitik zelatu dozu beste bat...?

– Zurekin joango naz, Jauna.

– Nik ez dakit nora noan, Piru, ezta zer billakatuko nazan be, baiña auxe ziur badaikit: noan tokitik, ez dot biurtzerik izango, eta zeu nirekin ba'zatoz, bardin. Geratu zaitez emen, leku onetan ziurtasuna izango dozu-ta.

Piru'ren begietan niganako eraspén eta maitasun andia irakurri neban, mintzo dardartsuaz auxe arrenkatu eustanean:

– Karai ani nde poxy (Jauna, ez zaitez asarratu), baiña zure morroia naz, eta morroi ona bere Jaunarekin edonora joango da.

Piru'ren itzok entzutean, samurtasun andiak menperatu ninduan, baiña asti-galtzerik ez nebanez,

– Entzun, mutil –agindu neutsan–, artu dagigun atxilloa, eta zure zaldi-gaiñean ipiñita, besoakaz inguratuko dozu jausi ez daiten, eta Yporá'z araindiko basa-lurretara joango gara. Reikuaápa ha'eva (ulertu dozu...?)

– Ha'e Karai (Bai, Jauna) –erantzun eustan–.

Orduko, zaldi-gaiñean Piru'k basa-inditarra beso bat az inguratzen eban jausi ez zeiten, eta erriflea sorbaldatik eskegita ebala ikusirik,

– Goazen ba –agindu neutsan–.

Gau illunean zear, draka-draka bizian Yporá ibairantz abiatu gintzazan. Andik iru ordu-laurenera, ibaitik ur samar gengozeanean, arintasuna gitxiturik, Piru'ri dei egin eta auxe esan neutsan:

– Aizu tiki-taka joango gara begirari-dorre bi orrean artean, argia moteltzen dan lekunetik, ia ikusi izan barik igazten garean arantzadun esiraiño. begirariren batek ikusi ba'gengiz, tiroka asiko yaku, eta onik urteteko, arripalada baten an aurrean dagoan zugazti aretan babestuko gara. Reikuaápa ha'eva (ulertu dozu...?)

– Ha'e Karai.

Begirari-dorre bien artetik aalik isillen igaro gintzazan. Berreun bat metro ibillita, baiña, dorre bateko argi igikorra geugan kokatu, eta bereala errifle bat su egiten asi zan.

– Arin, Piru –oiu egin neutsan–, goazen aurreko zugaztiraiño.

Lauazka arinduz, aalik azkarren zugaztirantz abiatu gintzazan. Une aretan bertan, bigarren dorretik beste errifle baten eztrandak aditu ziran, eta su gurutzatuaren artetik artuta, jaurtikiak (balak) gugandik ur txistuka aditu ziran.

– Piru, ne resai piko (ondo al-zagoz...?)

– Ha'e Karai.

– Goazen ba... !

Zugaztira eltzean, astirik galtzeke zaldiak geldi-erazorik, jatsi gintzazan, basa-inditarrak zaldiaren iduneari oratuta zirauala.

– Entzun, Piru, ezin gaitekez aurrerago joan, begirari-dorre bi orrean argi madarika-tuak ez ba'doguz itzungiten. Zuk ekin eskubikoari, eta neuk ezkerrekoari.

Gutariko bakotzak zugaitz-adar banatan errifleak kokaturik, su egiten asi gintzazan. Luzaro barik, jaurtilari ona zan Piru'k bere argia amatauta, besteari ekin, eta noizbait, au be itzundu zan. Jarraian, illuntasuna ustiatuz igesari jarraitu geutsan. Odol-galtzea zalata, basa-inditarra kordebagetua zan orduko, baiña Piru'ren beso indartsuak zaldi-gaiñean eusten eban, eta zaldien ibilte astirotsuaz arantzadun esiraiño eldu gintzazan. Iru errifle-eztrandak, eta esia eten egin zan. Jarraian, araindiko larran zear bideratu gintzazan, eta noizbait, zemaikor, illun eta isillik, baso amaibagea gure aurrean agertu yakunean, une batez gelditu nintzan. Atzerantz so egin neban Nossa Senhora do Rosario “fazenda” az-

kenengoz begiztatzeko, eta gero kili-kili bakanak menperatuta aurreko basategi ezkutura sartu nintzan.

Landaretza usuagaitik basoa ibilgatxa zan, eta astiro-astiro bagiñoazan aurrera, zaldiek aukeraturiko arintasunaz. Nire itxaropena basa-inditarren bat aurkitzea zan, zaurituaren lagunak batez be, eta augaitik, bitarteka Piru'k eta biok didarrak jaurtiten genduzan. Ordubete bat igaro zan ezer bereizirik jazo ez zeiten, baiña baso-soil baten zear giñoazala, uztai-geziak gerturik ebezala, iru basa-inditar agertu yakuzan ustekabez, eta areitariko batek,

– Epyta (geldi...!) –esan euskun mintzo aginkorraz–.

Olan egin genduan, eta orduan Piru'k guaranieraz,

– Ani nde poxy (ez asarratu), lagunak gara-ta.

Illuntasunak inguraturik, ezin gengikezan gizon arein aurpegiak ikusi, baiña gelditzeko agindu euskun mintzoa zemaikorra izanik, auxe gaiñeratu eban Piru'k:

– Zuetariko gizon bat dakargu, arratsaldean “fazenda”ko gizonak zauritu dabena. Adiskideak gara, xe py'aite guice (biotz-biotzez).

Uztai-geziak lurrean lagata, basa-inditarrak urreratu yakuzan, eta zaurituriko laguna zalditik artu, eta lurrean aratiñik ipiñita, zauria aztertu eutsoen. Erabiltzan begiruneagaitik, agiri zan ederrespen andia eutsoela, eta areitariko batek zuzi bat piztuta, onen argipean zauria aztertu eban, eta eretia ustiatuz neuk be zauritua begiztatu neban adi-adi. Ogei ta amar urtekoa izango zan, eta aurpegia marra zuri ta oziñakaz margotuta eban. Idune-inguruan jaguar-ortzezko lepokoa erabillen, eta bekoki-inguruan uleski bataz lotutako adatsa gaua baiño baltzagoa zan. Jaurtikia soinburutik sartu, eta atzekaldetik urtenda, ez eban itxura txarrik erakusten, eta aldi-gaiztoa odolaren galtzeak eragiña zan, urrean.

Arin baten, lagun bat bedarren billa asi zan, eta andik laster, eskukada bete ekarrela, zaurian ipiñi eutsan, eta txaplastea aien bataz lotuta, eurokin eroateko gertatu ziran. Adar bi ebagita, aienakaz eiotu ebezan, eta era onetan atondutako baillartan zauritua jarri eban. Joateko zorian zirala,

– Xe ra'arōmi (itxaron apur baten) –esan neutsen–, zuekin joango gara.

– Gurekin, diñozu...? –irutariko batek esan eustan arrituta–. Arrotzak ez dira xinguretarren lurretara sartzen. Ka'aguy rape (basoko bidea) ez da egokia zuretzat.

– Ani nde poxy (ez asarratu) –esan neutsan irmo–, baiña zuekin joango gara. Zuen laguna arrotzen eskuetatik onik atara dogu, eta “fazenda”ra biurtzerik ez dogun ezker, nire morroia ta biok zuekin joango gara.

Iru basa-inditarrek itxura bakanaz begiztatu ninduen, eta besterik esateke, ibilten asi ziran zauritua baillartan eroiela.

– Goazen, Piru –nire morroiari esan neutsan–, baiña orren aurretik, zaldiok “fazendara” atzera bialduko doguz, lapurrak ez gara-ta. Errifleak, ostera, badaezpadakoan gurekin etorriko dira.

Au esanda, zaldiak Yporá ibairantz begira ipiñi genduzan, eta txalo indartsu bana lepoan emonda, traka-traka “fazenda”rantz abiatu ziran zugaitz usuen artean.

Nire Tanimbu, zaldi otzan eta zintzoa urruntzen zanean, tamalak menperatu ninduan. Jarraian, Piru ta biok basa-inditarren atzetik ibilten asi gintzazan, errifleak sorbaldatik eskegita, eta kartutx-ugalak gerri-inguruan ipiñita. Gaberdia igaroa izango zan orduko, eta inditarrak jarraitzea ez yakun zailla azaldu, baillarta-erabilteak astiro joatera beartzen eben-eta. Gau osoan zear etenbarik ibilli gintzazan, eta egunsentia eginda ta ordubete batera, baso-soil andiaren erdian baserri bat agertu zan. Gurekin joazan inditarren olesari erantzun emonik, txaboletatik zenbatu eziñeko gizon-ema-kumeeek, neska-mutikoeek, eta umeeek inguratu ginduezan, arrigarrizko itxuraz begiztatzan ninduela, eurotariko geienentzat, neu lako arrotza lenengoz ikusten eben eretia zalako, urrean.

Lo-guraz eta gosez makal aurkitzen nintzanez, zugaitz-enbor baten gaiñean jesarri nintzan, zer gertatuko begira, nire inguruan neska-mutikoeek irribarez begiztatzan ninduela. Alako baten, baserri aretako nagusia zurudian bat, katillu bete ezti ta artotxiki zatia ekarrezala urreratu yatan, eta mintzo arraiaz,

– Epytu'u mikená (atseden artu). Ne resai piko (ondo zagoz...?)

– Nda xe ras'yi (ez nago geisorik) baiña bai gose ta lo-gura. Zelan dozu izena...?

– Iguavá dot izena.

Gogoz jan neban, eta amaitzean, utsik egoan txabola batera eroan ninduan, eta oesare (hamaca) bat erakutsirik, auxe esan eustan:

– Egin lo. Arratsaldean bideari jarraituko dautsazu gure baserribururaino, xinguretarren nagusiak ezagutu zagizan. Ez ete dakizu gauza bat...? Atzo gaizkatu zenduana gure nagusiaren anaia da.

Oe-sarean etzanda, nekearen-nekez loak laster artu ninduan, eta arratsaldean Iguavá'k iratzarrita, janaria barrero eskiñi eustan. Txabolatik urten nintzanean, Piru ta inditar bi begira nebazan, eta astirik galtzeke, neska-mutikoen talde batek inguratzen ginduzala, bidegiteari ekin geutsan. Urten aurretik, Iguavá,

– Agur, arrotz ori –esan eustan–, Ka'aguy rape ipuleú (basoko bidea luzea da). On-do ibilli.

– Aizu, Iguavá, non dago zauritua...?

– Ona eldu ta bereala, baserriburura eroan eben bere anaiajana, gure nagusiagana. Onezkeran an izango da.

– Agur, Iguavá.

Bideari ekin geutsan, eta nigana urreraturik, Piru'k,

– Jauna –itaundu eustan–, zelan zagoz...? Atzoko bidegiteak nekatu zinduzan, urrean. Emoistazuz erriflea ta kartutxugala ariñago joan zaitez.

Eskaturikoak emon neutsazan, isillean biotzez eskertzen neutsala, eta andik laster, zugaitz usuen arteko bidexka batetik, ezezagunerantz abiatu gintzazan. Illuntzean atsedena ldi laburra izan genduan zerbait jatearren, eta jarraian bideari ekin geutsan ostera be. Gaberdia igaro zan, eta nekea nitzaz jabetzen zala, noizbait, baso-soil zabal baten baserri anditsua aurkeztu yakun. Orduko, nekearen-nekez oiñak tatarrez nerabillezala, indarraren mugan oartzen nintzan. Aurrelari batek irrintzi lakoa zan olesa egin eban, eta orduan tx-

bola andi batetik gizon garaia urtenda, urreratu yatan, eta agurtzat nire burua eskuen artean artuta, bere bekokia nirearekin igurtzi eban, auxe iñostala:

– Zure begira izan naz oraiñarte atzarria. Lo egizu eta biar berba egingo dogu.

Au esanik, txabola batera eroan ninduan, eta oe-sare bat erakutsirik,

– Atsedean izan, Karai (Jauna) –esan eustan–, eta ongi etorri xingureutarren errira.

Joan zan, eta oe-sarean etzanda, neke utsaz lo geratu nintzan bereala. Ez dakit zein luzaro irauan neban lotan, baiña guztiz indartuta itxartu nintzan. Nire loaldia zaintzen eban gazte batek, ontzi bete ur eskiñi eustan, eta nire buruaren garbiketea egiñik, keaturiko okela ta ogia emon eustazan, ontzi bete esnez lagunduta. Gaztea aurpegi atsegiñeko koa zan, eta areago irribarretsu begizatzen ninduala. Orduan, Piru etorri yatan gogora, eta,

– Aizu, gazte –itaundu neutsan–, non dago nirekin etorri zan guaraniar gaztea...?

– Kanpoan dozu, Jauna, zure begira.

– Zelan dozu izena...?

– Iñakuá (arinlari).

Gosaria amaitu nebanean, Iñakuá'k auxe esan eustan:

– Mbarete'k, gure erriaren nagusiak, itxartu zaitezanean beragana eroan zagidazala agindu daust.

– Goazen ba.

Urten gintzazan zelaigune biribil batera, eta eguberdiko eguzkipean baserria nire aukeran aztertu aal izan neban. Zelaiaren ertzean txabolen erreskada bi, baso-ondoan kokatzen ziran, obo andia eratuz. Txabolen ormak lastozkoak ziran, eta teillatua orri zabalakaz estalduta. Ume ta neska-mutikoen taldeek jolasten ziarduen, eta txabolen sarreran emakumeek jatekoak erretzen edo egosten ikusi zeitekezan. Neska-mutikoen erdi-billutsik egozan, praka labur bana baiño besterik erabilten ez ebela. Emakumeek bardin, ia belunetaraño jausten yakezan aienakaz egiñiko gonak. Urritasun au ordezteko, urrean, margodun bitxizko lepoko edo idunekoak erabillezan, eta belarrietatik zirzillu ikusgarriak. Eguzkiaren txerak gozatuz, txakur batzuk etzanda egozan, eta or-emenka lurra atzaparkatuz oillo batzuk, inguruko zugaitzetatik etozan txorien txintekin euren karakak naastuz.

Piru ta biok txabola andi bateraño zuzendu ginduzan Iñakuá'k, eta atean gelditurik, begirunezko mintzoz:

– Mbarate (sendoa), xingureutarren nagusia, sartzeko baimena eskatzen dautsu arrotzak.

– Mbarate'k dalako baimena emoten dau – barruko norbaitek esan eban–. Ere ixupe tou (esaiozu sartzeko).

Sartu gintzazan irurok, eta gu ikustean, jesarrita egozan inditar batzuk jagi ziran, eta areitarikorik apaiñen jantzita egoana urreratu yatan. Aurreguneko gaban baserrira ongi-etorria emon eustana zan, eta aurregunean lez, bekokiak alkar igurtziz agurtu genduan. Gero, basauntzaren narroz apaindutako besaulki eroso baten jesarri neinten agindu eustan. Olan egin neban, eta an egozanean artean, “fazenda”n zauriturikoa ikusi neban. Be-

giztatu ninduan irribarrez, eta Mbarate'k lez bere bekokia nirearekin igurtzi eban. Orduan, basa-inditarren nagusia niri mintzatuz,

– Karai Ete (Jaun andia) –esan eustan–, arrotzen atzaparretatik onik atara zenduan auxe, Tape Puko (Bide Luzea) nire anaia da. Zeu be arrotza zara, baiña zure biotza garbia da. Eguapyna (jesarri zaitez).

Danok jesarrita gengozeanean, onetaraxe jarraitu eban Mbarate'k:

– Arrotzakan ez dogu uste onik. Tximista menperatzen dabe, eta munduan zear zaturik antzera urrearen billa dabiltz. Geurekin, inditarrekin, amultsuak edo maitetsuak azaltzen dira gugandik onura atara aal dabenetan, lurraldea ta beronen ordoki ta ibaiak eurenganatzeta nai dabenean, geureak dirala badakie-ta. Baiña euren elburua jaristean, anker eta etoia azaltzen dira, otseñen antzera darabillkiguzala. Zuk, ostera, bizitza arriskuan ipiñiz, il-agiñean zan zaurituriko xingureutar bat eriotzaren atzaparretatik atara dozu. Esan, Karai Ete, zergaitik egin dozu ori...? Zergaitik jokatu dozu arrotzen ikuspegitik orren bestelako...?

– Mbarate –erantzun neutsan–, xingureutarren nagusi ori, urrearen dizdirak biotzarimak usteltzen ditu. Ez guztiak, baiña, ara mixiolariak, FUNAiko jendeak etabar. Neuk be urrearen dizdira maite dot, baiña ez oroiz gain eta edozelan.

– Esaidazu, Karai Ete –Mbarate'k barrero–, mamoyguápa nde (nongoa zara...?)

– Ndaikuaái gueteri (ez dakit) Mbarate. Uri andi baten buruan jo ninduen, eta arrezkero, oroimena galdu neban.

– Karai Ete, ezin dagiket ulertu zeu lako gizon batek, dana lagata, ezagutzen ez dozun inditar anaiaren alde bere burua galtzorian jarri dagianik. Ori jakin nebanean, Karai Ete (Jaun Andia) zintzazala oartu nintzan, eta guretzat, xingureutarrentzat, beti Karai Ete izango zara. Umi pytu yvága (Zeruko espirituek) babestuko zaitue gurekin geratuko ba'zintzaz. Auxe zure erria izango da, eta anaitzat artuko zaitugu. Nire erriak maite zaitu, eta poztuko da gurekin bizi izatera geratzen ba'zara.

Izan be, ez nekian zer egin, baiña “fazenda”ra biurtzerik ez neban ezketiño, eta abagune aretan naiz batera naiz bestera joaten bardin yatanez, aspaldi bat xingureutarrekin emotea erabagi neban. Orduan,

– Mbarate –esan neutsan–, pene ndive (zuen artean pozik nago), eta augaitik aspaldi batez zuekin bizi izango naz.

Au entzutean, Mbarate jagi zan, eta nire eskua bere biotzaren gaiñean ipiñirik, an egozanai zuzenduz,

– Karai Ete nire anai kutuna da –esan eutsen–, eta beraz, xingureutar guztiek men egingo dautsoe.

Jarraian, Tape Puko jagi zan, eta nire eskua bere biotzaren gaiñean ipiñita,

– Auxe da Karai Ete –esan eban–, bizitza gaizkatu eustana, eta nire anai kutuna danez, men egingo dautsat.

Jarraian, an egozan beste bost inditar buruzagiek, banan-banan bardin egin eta esan eben. Ospakizun au amaitu zanean, txabolatik urten gintzazan, eta lekoreko argi betean, aukera osoa izan neban Mbarate ta onen buruzagiak begizatzeke. Mbarate, xingureuta-

rren nagusia, berrogeitsu urteko gizon sendo ta garaia zan. Zabaldiko bizitzak soin ederreko gizakia biurtu izan eban. Bere nagusitasuna adierazoteko, billoak eusten ebazan uleskitik, iru luma luze ederrak gorantz jagiten ziran. Bular billutsa jaguar ortzakaz egiñiko iduneko irukoitzaz apaindua zan. Aurpegia iru margotako marrakaz besteakandik bereizten zan. Abo irribarretsua agin zuri indartsuak erakusten ebazan, eta begietan, endaren zintzotasun eta zangartasuna agiri ziran. Bere soiñari indarra ta malgutasuna eriozan. Beste inditar buruzagiek euren goi-mailla erakusteko, luma bana erabiltzen buruan, eta aurpegiko marrak, iru barik, margo bitakoak ziran. Eder eta indartsuak izanez gaiñera, aurpegian, Mbarate'ren urentasun eta zintzotasuna agiri ebezan. Arrotzen kutsua ezagutzen ez eban enda yaukaleko eredu bikaiñak, izan be.

– Auxe –azaldu eustan Mbarate'k–, xingureutarren uriburua da, eta bere izena Jasy Moroty (Illargi zuria). Gure baserrietarik andiena, emen zazpireun biztanle kokatzen dira.

– Zergaitik esaten dautsazue Jasy Moroty...?

– Ori antxiñatik yatorkon izena da, eta egunen baten orren zergaitia azalduko dautsut.

– Aizu, Mbarate, zenbat xingureutar zarie...?

– Amabost baserri doguz, eta nire eritxiz, orain amar milla biztanle bizi dira gure lurralde onetan. Len, ogei millatik gora ei' gintzazan, baiña arrotzek ekarrirako kutsuak, gure erriari ondapena ekarri eutsan. Eunurteetan zear orreitariko geisotasunak ezagutu barik, gure soiñen babesak makaldu yakuzan, eta gero arrotzek ekarri euskuezan makurren aurkako jarkimenik ez. Augaitik, ez-ezaguturiko geisotasun orreik triskantza itzela egin dauskue.

– Eta orain...?

– Badirudi gauzak zeozer arindu dirala, baiña oraingotz, arrotzekin ezetariko armonak ez izatea, biderik onena da.

– Eurok be, Mbarate, lurralde oneitan ordaintza izugarria emon bear izan dabe, malaria, beri-beri, eta beste makurrak dirala-ta.

– Olan eta guzti be, ez dabe ordainduko geuk beste.

Isildu gintzazan une batez, eta gero,

– Aizu, Karai Ete –esan eustan–, nire txabolaren ondoan dagoan beste baten kokatuko zara, eta gaur gabean gerturik izango dozu. Nai dagizun beste morroi emongo dautsut, esan, zenbat nai dozuz...?

– Eskerrik asko, Mbarate, baiña Piru nire morroiaz aski dot.

– Bere buraren jabe danak ez dau morroi askorik bear, baiña gurekin zaitezcan artean, nire maitik janarituko zara. Orain otordua dan ezkerro, zeuk eta zure morroiak nire etxean bazkalduko dozue. Goazen ba.

Mbarate'ren etxera biurtu gintzazanean, ate-ondoko txingarretan, lapiko baten janaria eragiten eban emakume batek. Irribarre txeratsuz agurtu ninduan, eta nik beste batz ordaindu neutsan. Mbarate gelditu zan, eta,

– Karai Ete –esan eustan–, auxe Yvoty Ñu (Basa-lora) nire emaztea da.

– Xe rory roikuaáva~ (zu ezagutzeak poztuten nau) ~ esan neutsan irribarrez.

– Tesai, Karai Ete (osasuna, Jaun andia).

Begi illun, sakon, ederrakaz, Yvoty Ñu'k begiztatu ninduan arrai. Aurpegi ederrekoa zan, aboa zerbait andia bazan be, eta alkarri irribarre egin geutsan. Begi argitsuak ebazan, andi, urratuak, eta bere larmintzaren illuntasunak, agirian ipinten eban agiñen zuritasun dizdiratsua. Xingureutuar nagusiaren emazteari egokionez, arri ederrezko eskuturrekoak erabillezan, eta bular billutsa iduneko batzuk apainduta egoan. Bekokiaren inguruan errubizko burestun ikusgarria erabillen, bikain-bikaiña nire ustez, eta Rio'ko edozein andra andikiari zoriona ekarriko leuskiona.

Mbarate ta biok etxera sartu, eta aulki banatan jesarri gintzazan. Atzekaldean, zutoin sendoen artean oe-sare batzuk edatzen ziran, xingureutarrek beste oatzerik ez eben erabiltzen-eta. Barrunbea garbi ta txukuna zan, eta aldiaren bidean ikasiko neuke, xingureutarrek bere egoitzari ta soin-garbitasunari ardura andia emotsiela.

Andik laster, amasei bat urteko neskatilla txairo ta polita sartu, eta mai-gaiñean erratillu batzuk ipinten asi zan. Orduan Mbarate'k,

– Karai Ete –esan eustan–, auxe, Yvoty Moroty (Lora Zuria) nire alabea da. Umi Pytu yvága (Zeruko espirituek) goizalde baten nire emaztearen alboan laga eben. Urteen bidean, guavirá poty (guavirá lorearen) antzera edegi da, eta gaur, gure erriko edertasuna billakatu da. Eju Yvoty Moroty (zatoz, Lora Zuria) –bere alabeari mintzatuz–, gizon au Karai Ete da, zure osaba Tape Puku arrotzen atzaparretatik onik atara ebana. Aurrerantzean, begirunerik andienaz erabiliko dozu.

Yvoty Moroty urreratu yatan, eta irribarretsu eskua nire biotzaren gaiñean ipiñirik, auxe esan eustan:

– Yvoty Moroty, Karai Ete'ren otseña izango da.

– Ez, Yvoty Moroty. Zeruko espirituek ekarri eben neskatillea, nire alabea izango da.

Izan be, neskatillearen xalotasun eta edertasuna ikustean, ez zan arritzekoa Mbarate'k esan egian, Zeruko espirituek ekarria zala. Yvoty Moroty zan zoragarria... ! Une aretan, laiño lodiarene artean bai'litzan, beste irudi maitagarria biotzera sartzen yatala begitandu yatan, eta une batez zoraturik, errezel aren zear mintzo maite bat entzun bide neban. Norena izango...? Abotik eskura, etorri baizen arin ikuskizuna ezabatu zan, eta gabean zear deslai doan bidariaren antzera oartu nintzan. Une batez irrikaturiko argia agerturik, barriro be illuntasunean murgildu nintzan etsiak artuta. Zein zan, baiña, nire atzokoaren ezkutua...? Nor nintzan, nondik nentorren...? Zer zan noizean bein agertzen yatan argi-antzeko dizdir igeskorra...? Egunen baten noizbait egia atzituko neban...? Bazirudian, baiña, argiune areik gero ta sariago yatordazala, nire oroimen galdua aalegintzen zala, illunpetatik bere benetako bidea aztamuka idoroteko...

Mbarate'ren itzok nire oarmenera ekarri ninduen auxe iñostanean:

– Karai Ete, mamógui reju (nondik zatoz...?)

– Ndaikuaái gueteri (ez dakit) Mbarate, baiña nire ustez urrundik natortzu. Rio de Janeiro'n norbaitek buruan jo ninduan, eta oroimena galdu neban. Pene ndive (zuekin

pozik nago), baiña nire oroimen-illuntasunaren artean, tximistaren antzera, noizbeinka, zerbaitek oroitzen atera joten yabilt, dana itxita beragana joan naitekion-edo...

– Egunen baten, umi pytu yvága (Zeruko espirituek) osatuko zaitue, Karai Ete. Anartean auxe izango da zure aberria.

Maia gerturik egoan orduko, eta Mbarate'ren emazte ta seme-alabak sartu ziran gu-rekin otordua izateko. Yvoty Moroty'z gaiñera, mutiko bi ta neskato bat ziran. Sartu zira-nean, nire inguruan zutunik irribarre egin eusten. Neskatotxua zan gazteena, nire eskuari oratu eutsan, Karai, Karai, iñostala. Ezin neintekion bere lillurari jarki, eta besoetan artu-ta, musu luzea jarri neutsan matrail gorrizka osasuntsuan. Umea, antza, ez zan oituta a lako erabilteari, eta nire belarri biai oraturik, barre egiteari emon eutsan.

– Guyra Pepo (Txori-egoa) –esan eutsan aita–, laga bakean Karai Ete'ren bela-riak, eta jesarri zaitze amaren ondoan, bestelan gaur gabeen ipo pukúva (lapur batek) zeureak ostuko dautsuz.

Yvoty Ñu'k, baso-bedarrakaz eta arrainki-zatiakaz lagundutako, salda gozoa eskiñi eus-kun erratillu banatan, eta jarraian, erreki bat mai-gaiñean ipiñita, esku trebeakaz zatitu ta ba-ndu euskun. Errekia gozo-gozoa gertatu zan, eta Mbarate'ri itaundu neutsan zerezkoa zan.

– Karai Ete –erantzun eustan–, au basoko tapir-errekia da. Ez al-do zu ezagutzen...?

– Ez, gaur lenengoz jan dot, eta izan be, atsegin yat.

– Gaur gabeen, iretargi betekoa izanik, zure goratarrez jai bat atondu dogu. Jai andi au, Kuarahy oike rire (eguzkia agertu aurretik) amaituko da. Orduan izango dozu eretia gure erriaren benetako jaki ta ta oiturak ezagutzeko.

Maiazkentangat igali batzuk janda, “mate” edari beroa artu genduan. “Fazendakoa” edatera oituta nengoan, baiña Yvoty Ñu'k eskiñi eustana gozoagoa zan. Olan adierazo neutsan Mbarete'ri, eta onek,

– Begira, Karai Ete, gure ka'a mimoi (mate-bedar egosia) munduan ezagutzen dan onena, bedar-naasketa bereiziaz egiña da, eta orrek txastamen bikaiña damotso.

Yvoty Ñu ta Yvoty Moroty ama-alabak maikoak biltzen eta sorua isasten asi zira-nean, Mbarate'k erri-inguruetatik osteratxu bat egitera dei egin eustan. Bidezka batetik erria atzean laga, eta zugaitz usuetan zear, Mbarate, Piru ta irurok, ibai zabal baten ertze-ra eldu gintzazan, eta bedarrean jesarrita, xingureutarren nagusiak bere erriaren gora-beerak emon eustazan.

– Auxe Itaiporá (Arri eder) ibaia da, gure lurraldea zearkatzen dauan andienetarikoa. Ibai-onen joairan gora ta beera, gure txalupak arraintzan diardue, eta arrapatzen doguzan arraiñak oneixek dira geienbat: pirarucu, piraña, erapaima ta surubí. Nireztat, azken au go-zoena da, atzo onen arrainketa andia egin genduan, gaurko aparirako erreko doguz.

– Py'yi (sarritan) arraintzari emoten dautsazue...?

– Ani, sapy'a py'a (ez, batzutan bakarrik), arrainkia bear dogunean. Arrainketa an-dia egiten danean, keatzen dogu urrialdietarako. Arrainkia basabereen okelaz aldizkatzen dogu, eta ugarienak oneixek dira: koatí, basakatua, tapir, pekari, orein eta manatía. Basa-bereak, baiña, sasoi zelán dan etorriak lez joaten dira, baita arraiñak be.

– Eta urrialdietan zerez janaritzen zarie...?

Irribarre umekoia agertu zan Mbarate'ren ezpanetan, eta,

– Orduan, Karai Ete –esan eustan– Yporá ibaiko gure lurraldean eizaki ugaria dan ezkerro, sasoi orretan, badogu zeri eutsi. Azken aldiotan, baiña, gure lurrak “fazenda”k ostu egin dauskuan, basabereen orde, an azten diran zekor eta bigantxa lodiak arrapa-tu, eta basoan zear gure baserrietaraiño ekarten doguz. Ka'aguy rape (basoko bidea) ez da egokia arrotzarentzat.

– Arrotzaren diru-goseak ez dau mugarik ezagutzen. Lengo ostuketaz gaiñera, orain, Yporá'z onaindiko ibarra kendu dautsue, arantzadun esiaz eta begirari-dorreakaz ostuketea babestuz.

– Begira, Karai Ete –asarre-antzean Mbarate'k–, arrotzek dagokienetan ez dautsoe euren barbari eusten. “Fazenda” sortu zanean, FUNAI'ko gizonek Yporá ibarrera dei egin euskuen xingureutarri, eta ni neu iru burzagiekin dei-lekura azaldu nintzan kurahy oike rire (egunsentia baiño len). An, abo batez erabagi genduan, Yporá ibaiko ertze biak gure jabetasuna jarraituko leukiela, eta orretarako, ezaugarriztat mugarri batzuk sartu zi-ran, eta jarraian, Karai Joao'ren etxean, lur-marrazki baten izenpetu genduan ogajara (etxejoaunak) eta biok. Reikuaapa ha'eva (ulertzen dozu diñodana...?)

– Aikuaa (badakit) Mbarate –eten egin neutsan–, neronek ikusi neban orduan izen-petu zan dalako lur-marrazkia.

– Karai Joao iñarandu ha'aty pe'eva (zuurra da benetan Joao Jauna). Berak uste izan eban, geu lako basa-inditarrak ziria sartuko leuskigula beste barik, baiña gure lurrak ostuten asi yakunean, ordaiñez, aren zekor-bigantxak kendu geutsazan. Karai Joao ipo pukúva (lapurra da Joao Jauna).

Isildu zan une batez, eta neska-mutikoeke ibaiko ertzean jolasten eta ugeri egiten ziarduela, asperen bat jaurti eban, eta itxura oldozkorraz,

– Karai Ete –esan eustan–, nire erriak ez dau ukorik egingo, berea dana iñork ostu dagion, ez orixe... !

– Upéixa oje'e (zuzen-zagoz) Mbarete. Amor emoten ba'dozue lapurretak ez dau azkenik ezagutuko. Eutsi zuen lurrai... !

Itzok entzutean, itxura bakanaz begiztatu ninduan, eta,

– Karai Ete –itaundu eustan– xe pyty vosépa (lagunduko daustazu...?)

– Xe py'aite guive (biotz-biotzez)

Jagi zan Mbarete, eta eskua nire biotzaren gaiñean ipiñita,

– Umi pytu yvága (Zeruko espirituek) geugana bialdu zaitue, Karai Ete, eta mintzo ezkutu batek badiñost onik urtengo gareala.

Neugan jarritako uste ona eskertu neutsan isillean, eta,

– Mbarete –esan neutsan–, gauza gitxi nozu, baiña zure erriaren alde saiatuko naz.

Esker onez begiztatu ninduan xingureutarren nagusiak, eta gero, nire eskuari oratuz auxe esan eustan:

– Apaldu aurretik egin dagigun ugeri, une batez, bero da-ta. Gaur ilbetea izango da, eta zure goratarrez, Jasy Moroty (Illargi Zuria) deritxan gure baserriburuak jai andia atondu dau, eta orren aurretik artu dagigun busti-aldi pizgarria.

Iretargi beteko aparia niretzat aztu-eziña azaldu zan, bai jakien kopuru ta bikainta-sunagaitik, bai ospatu zan jai ederragaitik. Maipuruaren erdian Mbarete bereizten zan bixi ederrenakaz apainduta. Bere albo baten jarri ninduan, eta bestean Tape Puko bere anaia. Beste deduzko lekuetan, bere buruzagiak egozan, eretirako guztitariko apaingariak erabiltzezala, eta aulki arruntetan Jasy Moroty'ko gudariak.

Asi genduan aparia bedarrezko suku usaintsuaz, eta gero orein-erreki ta arrainkiaz jarraitu genduan. Onein ostean arto-urunezko ogitarteko ugariak. Talo-tartekoak gozogoak azaldu yatanez, Mbarate'ri zerez egiñak ziran itaundu neutsan.

– Au gure erriko jakirik ospetsuena da, Karai Ete. Zugaitzen azaletan bizi diran erretako ar andiakaz egiñak dira. Zugaitzai azala jalgitzen yakienean, ar orreik agirian billakatzen dira, eta kutxetan gordeten doguz usteldu arte. Orduan, oretu, erre, eta talo-artean sartuta, orra or gure jakirik gozoena.

Usteldutako arrakaz egiña zala janari bikaiña jakitean, gora-gale andia nitzaz jabetu zan, eta gorriak jasan nebazan ok ez egitearren. Onen ostean, jakien azalpenak ez eskatzea erabagi neban. Apariak tropikar igali gozoakaz jarraitu eban, eta gero, mate-bedarrezko oiko edari beroaz azkena emon geutsan apariari. Orduko, gaberdia izango zan, eta gudari gazte bik kaiñabera luze bana erabillirik, eresi bat jo eben, isiltasunik andienaz inguraturik. Zelai zabalaren erdian gengoan, eta inguruko zugaitz tantai ederrek mamu erraldoiak zirudien, inditarren Jasy Moroty uriburua babestu naiean lez. Emakume ta neska-mutikoez obo andia eratuz lurrean jesarrita egozan, jazoten zanari adi-adi erraikioela.

Ezustean, Yvoty Moroty, Mbarete'ren alaba zoragarria urreratu yakun, albo banatan neska bat ebala, eta nire biotzean eskua jarrita, auxe esan eustan:

– Karai Ete, xingureutarren erriak Ongi-etorria emoten dautsu.

Au esanik, Yvoty Moroty'k eta alboko neska-lagunek, dantza bakanari emon eutsoen, auxe ziraustela:

– Arrotzak biotz ustelekoa dira, baiña Karai Ete ez da arrotza, xingureutarren adiskidea baiña, eta augaitik ez da biotz ustelekoa. Xingureu umi pytu yvága (xingureutarren zeruko espirituek) gorde dagiela beti. Iore ru, iore ru, iore ru (gure aita da)... !

Eresi zoragarriaz lagundutako esaldi onek, eta neskatillen dantza neurtuak, iretargi beteko gabari lillura bereiztia emotsoen, eta nire buruari niñotsan amesetan izango ez ete nintzan. Luzaro samar iraun eben neskatillek dantzan egiten, nire onoinenak etenbarik aletzen ebezala. Irurak eder, zoragarriak ziran, eta neugana beste mundu ezkutu bateko zoramena ekarkiden; erri bakan, xotil, tolesbakoa, Jaungoikoagandik antxiña baten irazana, eta lenaldi areitan sortua baizen garbi irauten ebana. Iru neskatillak ederrak ziran, baiña oroz gaiñetik, Mbarete'ren alabearen lillura bakana bereizten zan, iretargi beteko gabeen, aingeru baten lerdentasunaz igitzen zala Yvoty Moroti, (Lora Zuria) xingureutarren bitxia.

Neugandik urrun ez egoan Piru'k zoratuta zirudian begiak Yvoty Moroty'gandik kendu eziñik, eta orduan, ustekabez, oldozkun batek eraso eustan... zergaitik ez...? Piru zintzotasun beteko mutilla zan, zangarra, ona, ta langillea. Ez eban sendiko loturarik, zergaitik ez...? Arazoa, baiña, Mbarete'ren eskuetan egoan, xingureutarren artean gura-

soek seme-alaben ezkontzak atontzen ebezalako. Baiñostan barruko zerbaitek, egunen baten andik joan egin bearko neukela, eta orduan zer billakatuko litzake, Piru, nire morroia...? Izan be, morroia baiño anaizat, edo obeto esateko semetzat artzen asi izan nintzan, eta bere etorkiak zelanbait arduratzen ninduan.

Edu onetan oldozten niarduala, neskatillen dantza amaitu zan, eta emakumeen lekura abiatzen zirala, Tape Puku (Bide Luzea), Mbarate'ren anaia, "fazenda"n askatu neban atxilloa, jagi zan, eta gure inguruan biraka, dantza gudakoiari emon eutsan, aztamakilla erasoteko itxuraz erabillela, ikotika ta oiuka auxe iñoala:

– Karai Ete nire anaia da. Lur jota, apurtuta, zaurituta nengoanean, atzeritarren atzaparretatik atara, eta Jasy Moroty'ra, nire baserrira ekarri ninduan. Aintza Karai Ete'ri... ! Iñoizkorik atsekabetuen negoala, on oguahé aha'aróyrehe (ezustean etorri zan), eta anaia antzera zaindu ninduan, arrotzen eskuetatik etxera nindekarrela... ! Nire anaia da Karai Ete, eta orrek poztu ta arrotzen nau. Pozgarria da anai bat izatea, baiña bera lakoa aintzarik andiena da... ! Augaitik, gaur odolez billakatuko gara; bai, nire izaera beragana, eta berea neugana igaroko da, betirako alkaturik. Ha'e xe pehenge (Nire anaia da).

Au esanik, Tape Puku'k dantzan egiteari eten egin eutsan, eta aztamakillea lurrean untzaturik, gerritik aizto bat atara, eta nire besoari oratuta, ebate bat egin eustan, eta jarraian beste bat bereari. Astirik galtzeke, odol-jario biok alkartu ebazan, eta didar bizitan auxe aldarrikatu eban:

– Ha'e xe pehenge... ! Ha'e xe pehenge... ! Ha'e xe pehenge... ! (Nire anaia da... !)

Onen ostean, aztamakillak artuta, baserriko gudariak dantza bizi bateri emon eutsoen, oiuka auxe aldarrikatzen ebela:

– Karai Ete, ore pehenge... ! (Karai Ete gure anaia... !)

Xingureutar gudariak dantzan egiten jarraitu eben nire inguruan, eta noizbait, nekearen-nekez lerrenak eginda, Mbarete'ren eta nire aurrean aozpeztu ziran. Gero, Mbarete'ren agintza-oiua entzunda, jagi ta lengo lekuetara biurtu ziran.

Danak poz-pozik egozan, baita neu be. Nire ustez, neurri baten guztion pozak edari biziari zor eutsan. Ez dakit zerez izango zan egiña, baiña illargi beteko gau aretan, gozogoza begitandu yatan. Alako baten, danek lagundutako, emakumeek abesti gozo ederrari emon eutsoen; mintzo leun aboepko areik, ia isillean zirudienak, gabeari esan-eziña lako lillura emon eutsoen, tropikar gau yaukala gozatzearren, aingeruak Jasi Moroty'ra jatsiak bai'litzazan.

Iretargi zuritan gabeko lillurari jarki eziñik, eta xingureutarren abesti yaukalak eraginda, nagusiagana biurtuta auxe esan neutsan:

– Aizu, Mbarete, xingureutarren anaia billakatu naz onezkeró; esaidazu, arren, zure erria nondik dator, zelan sortu zan, nora zoaze...?

Isillik iraun eban une batez Mbarete'k, xingureutarren nagusiak, eta gero,

– Nire erria iretargitik dator, eta emen, baso yaukal oneitan sortu zan, eta beste mundu baten, umi pytu yvága (Zeruko espirituek) guretzat gerturik daben baso zoragarri batera goaz, etenbako eizaldi atsegiñetan iñoiz ez ilteko.

– Zelan etorri zintzazen iretargitik...?

– Ara... Gure Amalena, Xingu errian jaio zan, Zingirategi Andiaren gainean bizi izaten dan Xingu erriaren alaba eder-ederra. Irupé, gure lora zoragarriaren izena eban. Illargi beteko gau amesgarrietan, Araguaia ibaiaren ertzetan billo luze baltzak orraztu oi ebazan. Bein baten, Moroty'k, iretargiak, aren edertasuna ikusi eban, eta bere irribarrea edertu egian, Xingu erriko bitxia berarentzat aukeratu eban. Goizalde baten, billoak orraztuta, Irupé etxera biurtzen zanean, ibarreko laiñoak inguraturik, ego zuriakaz iretargiak beragana eroan eban. Olan ba, Irupé gaixoa iretargiaren otseña billakatu zan. Beti ez, baiña. Argi beteko gauetan, iretargiaren asperenak ustiatuz, Irupé Araguaia ibaira biurtzen zan, eta onen ertzetan jesarrita, billoak orrazten ebazan goizalderarte, ibarreko laiñoak ostera be iretargiraiño eroan arte. Bein baten, Itakú eritxan Urueu-Wau-Wau'tarren nagusi batek Irupé ikusi eban billo-orrazketeari emotsanean. Itakú maitemindu zan, eta Urueu-Wau-Wau'tarren lurraldera berarekin eroan nai izan eban, baiña une aretan bertan, ibarreko laiñoak inguratuta, Irupé gora egiten asi zan, baiña ostendu aurretik, neskatilleak,

– Entzun, Itakú –oiu egin eutsan–, urrango iretargi betean itxaron egistazu emen, zidarrezko gezi batekin.

Urrango iretargi beteko gaberdian, Irupé Araguaia ibaiaren ertzeratsi jatsi zan, oi eban lez billoak orrazteko. Eskatuta lez, Itakú zidarrezko geziarekin etorri zan. Irupé'k billoak orraztu ebazan goizalderarte, eta argitzen asten zanean, ibaiko laiñoak neskatillea inguratu eban eroateko asmoz. Orduantxe, Itakú'k zidarrezko gezia iretargirantz jaurti eban. Dizdirak jaurtika igon zan gezia, eta Irupé berbera zalakoan, goizaldeko laiñoak iretargiraiño lagundu eutsan. Aaalik ariñen, Irupé ta Itakú lurralde oiantsu onetara etorri ta ementxe babestu ziran, gure erriari asiera emonez. Irupé, Xingu leiñukoa izanik, eta Itakú Urueu-Wau-Wau'koa, xingureu erria sortu eben.

– Noiz jazo zan ori...?

– Araguaia ibaiaren ur-tantoak beste iretargi barriak igaro dira ordutik.

– Ez zarie atzoko ba... !

– Ondo diñozu, Karai Ete, baiña gure basoak antxiñagokoak dira, eta egunen baten arrotzaren aizkorak moztuko ba'leuz, areikin batean gure azkena litzake. Au dala-ta, Karai Ete, gizon zuzen eta zuurra zaran aldetik, arrotzen atzaparretatik onik urtetan lagundu egiskuzu.

Mbarete'ren niganako uste onak biotza ikutu eustan. Zer egikean, baiña, neu lako ezain batek, bere erriaren alde...? Ezer gitxi, izan be, baiña xingureutarren nagusiak neugan ipiñita eban uste on umekoiak, zarrastada aztu-eziña egin eustan.

– Aizu, Mbarete, ani nde poxy (ez zaitex asarratu), baiña ni ezgauza naz zuek kinka larri orretatik atarateko. Neu lako arrotz batek zer dagike zuen alde...?

– Zu ez zara beste arrotzak lakoa. Xe pyty vosépa (lagunduko daustazu...?)

– Pene ndive (pozik nago zuekin) Mbarete. Ezaiña nozu, baiña indar guztiakaz zure erriaren alde aaleginduko naz.

Orduan Mbarete'k eskua nire biotzean jarrita,

– Karai Ete –esan eustan–, eskertzen dautsut benetan. Irakatsi egiskuzu arrotzaren aurka burrukan egiten.

Zarrastada andipean baietz esan neutsan. Ordu gitxi ziran xingureu erria ezagutzen nebala, baiña neurea bai'litzan maite izaten asten nintzan. Orduko, iretargia zugaitzen adaburuen atzetik ostentzen zan, eta lo-gurak artutako ikusleak txaboletara abiatzen ziran, zelaia utsik lagutzen ebela.

– Biar arte, Mbarete –esan neutsan– ordua da lo egiteko.

– Biar arte, Karai Ete.

Gure txabolara joan gintzazan Piru ta biok, eta luzaro barik, loak artu ninduan urrango goizalderarte. Itxartu nintzanean, gosaritzat Piru'k igali ta intxaurrak eskiñi eustazan. Gero, erriko enparantzara urten nintzan, eta ibairaiño joanda, onen ur baketsuetan bustialdi atsedengarria izan neban. Piru ta biok errira biurtzen gintzazanean, mezulari bat etorri yatan, Mbarete'k ikusi gura ninduala esanez. Mezulariak basoil-batera eroan ginduzan, eta Mbarete'ren inguruan kukurio jesarrita, Jasi Moroty'ren buruzagiak ikusi nebazan. Ni ikustean jagi ziran agurka, eta barriro jesarrita, nire alde itzaldi sutua jaurti eban Mbarete'k ni odeiteraiño goratuz. Jarraian, xinguerutarrai zemaitzen eutsien arrotzen ekintzak azaldu ebazan, eta guztien izenpean laguntza eskatu eustan. Jagi nintzan, eta,

– Xingureutar maiteok –esan neutsen–, zuen lurraldeak jare iraun dagian, erritar guztien laguntza bearreko baldintza da. Zuek, Jasi Moroty'ko erritarrek laguntza eskatzen daustazue, baiña dalako laguntza alperrikoa izango da, zuek erri bakartzat indarrak ez ba'dozue batzen. Etsaia mugatik-at gorde bear izango dozue, eta orretarako arrotzari erakutsi bear izango yako, ez dautsazuela ezelan be onartuko itun-auspenik txikiena be, eta FUNAI'ren laguntzaz erabagitatuko zuen erriko mugak, itundu ziran legetxe, iraun-erazoteko gerturik zagozela. Olan bakarrik ikasiko dabe arrotzek zuekiko begirunea gordeten.

– Berba zuurrak zureak, Karai Ete –esan eustan Tape Puku'k–, baiña zelan lortu gure arteko batasuna...? Begira, arrotz batek, zeuk alegia, “fazenda”koen atzaparretatik atara bear ninduan. Gure erria lo egon ez ba'litz...

– Lo dagoanari iratzarri bear yako, eta zeuok, xingureutarrok, lo-zorro onetan jarraitzen ba'dozue, arrotzek banan-banan ezereztuko zaitue.

Isilladi bat, eta gero onetaraxe jarraitu neban:

– Aizue, Mbarete, Tape Puku, eta Jasi Moroty'ko buruzagiok: zein luzaro bear izango dozue, lurraldeko nagusi guztiak leku onetan batzeko...?

Beste isillune bat, eta gero Mbarete'k,

– Mezulariak oraintxe bertan bialtzekotan, bost egunen buruan emen bildu geintkez.

– Zenbat baserri dagoz zuen lurraldean...?

– Amalau, Karai Ete –buruzagi batek erantzun eustan–.

– Tape Puku –agindu neutsan Mbarete'ren anaiari–, amalau gudari gazte igorri egizuz oraintxe bertan, Mbarete Xingureutarren nagusiaren alde, bost egunen buruan ementxe batzarra izango dogula iragarteko.

Onenbestez batzarra amaitu zan, eta an bertan, Yvoty Ñu'ren zaintzapean, neskatilla batzuk erreki ta igaliakaz jaten emon euskuen. Onein artean, nagusiaren alabea, Yvoty Moroty'ren edertasuna bereizten zan. Izan be, jatekoari baiña ardura geiago emotsan Piru'k neskatilla zoragarriari.

Batzar-egunerarte peitzen ziran bost egun areitan, Mbarete'rekin Jasy Moroty'ko inguru-mariak ezagutu nebazan, baita erabilten ebezan iskilloen barri emon eustan Mbarete'k. Aztamakil eta uztai-geziakaz gaiñera, xingureutarrek, kaiñabera-zati luzeakaz "curare"z edenduriko zotzak putzka jaurtiten ebezan, ur egozan eizakiak bereganatzeko. Era onetan, egaztiak eta abere txikiak eizatzen ebezan. bi edo iru metroko aztamakillak erabillezan baita be, baiña nireztat arrigarriena, gezi-jaurtiketan erakusten ebezan trebetasun eta indarra zan. Basa-inditar areik, izadiarekiko egunoroko arremonak zirala-ta, siñistu-eziñeko indar eta arintasuna lortu izan ebezan. Uztaiak egur malgu bereizikoak ziran, eta aguntzat oreiñen kirioak erabiltzezan. Geziak adar zimelezkoak ziran, zorrozitutako muturra sutan gogorturik. Nik eskaturik, gudari batzuk jaurti-erakusketa bat egin eben, eta arein aparta bikaiñak txunditu ninduan. Gezien muturrak gudarako ziranetan, "curare"z be busti oi ebezan.

Bein baten, txalupa luze baten Itaiporá (Arrieder) ibaitik egun osoko bidaldia egin genduan. Txalupea ariña izanik, indar andi barik igitzen zan uretan zear. Mbarete'k azaldu eustanez, zugaitz-enbor bat az egiten ziran. Enbor-gaiñean su egiten eben, eta barrukoa trebetasunaz erreta, nai eben utsunea lortzen eben. Izan be, txalupa areik maisulanak ziran.

Egun aretan Itaiporá'n gora ta beera egin genduan txangoa, aztu-eziña azaldu yatan. Arraiñetan guztiz aberatsa zan ibaia, eta ertzetako baso usuetan, guztitariko eizakiak ikusi zeitekezan. Sare txiki baten bidez, surubí izeneko arrain gozoak arrapatu genduzan berreun metro zabaleko ibai eder aretan. Itaiporá'ren ur otzanak basoan zear sigi-saga joiazan, etenbarik txorien txintak eta tximiñoen oiua aditzen zirala. Eguberdian legorreraturik, artutako arraiñakaz gure biziko bazkaria ospatu genduan, eta onen ostean "mate" edari gozoa zurruputzen genduala, Mbarete'ri auxe esan neutsan:

– Aizu, adiskide, ibai eder eta aberats au zuentzat doai andia da, eta gaiñera, bide erraza zuen lurraldea alkartzeko.

– Egia diñozu, Karai Ete, baiña era berean arrotzak sartu dakiguzan biderik errazena be. Arrotzek basoari bildur andia dautsoe, eta oneri esker, oraiñarte aske bizi aal izan gara, baiña azken aldiotan urrearen goseak eraginda, gero ta urrago etorten asi yakuz gure askatasuna zemaituz.

– Baiña ertzetako basoetatik uxatu dagikezue.

– Ez da orren erraza. Azken aldiotan metraillagailuak jarri dabez ontzietan, eta gure geziak nekez eldu daitekezan ibaiaren erdian diardue. Azken aldietan gizon batzuk il dauskuez.

Mbarete'k iñostanak arrenkuraz bete ninduan. Ezin nengikean siñistu "Garimpeiro"ak edo urre-billariak euren bizilekueetatik orren urrun joan zeitekezanik, baiña dirugoseak mugarik ezagutzen ez dauala, ondo bai ondo nekian.

– Aizu, Mbarete –itaundu neutsan–, ibai onetako zuen muga non dago...?
– Emendik iru eguneko txalupa-bidaldira, Ytakú (Ur Beroa) izeneko urak ibai onekin bat egiten dan tokian.

Nire zenbakien arauz, orrek berreun bat kilometro adierazoten eban ibaian beera.

– Eta muga ori FUNAI'koekin itundu zenduen...?

– Ez, baiña betidanik geurea dalakoan bizi izan gara, eta nmano meve (eriotzararte) geurea izaten jarraituko dau.

Une luze batez isillean iraun genduan, bakotzak bere oldozkunai emonda. gero, besterik esan bage, ibaian gora Jasy Moroty'ra biurtu gintzazan, "garimpeiro" areik burutik kendu eziñik. Urrearen billa doazanak zitalkeririk andienak egiteko gai izan oi dira, eta iñoren bizitzeari ez dautsoe jaramonik egiten...

Asko ikasi neban bost egun areitan xingureutarri buruz, eta gero ta maiteago nebazan, gizaki xotil, tolesbakoak ziran-eta. Urietako biziera larria ez eben ezagutzen, ez ziran asko-nai, ez kanpo-eder, ezta kuntze edo seksuaren jopuak be, arrotzen artean jazoten dan lez. Ezkontzeko garaia etorkiñean, gurasoek atondutako ezkontza, betirako lokarria zan. Soiñez garbiak, lanaz kanpo orduak eta orduak ugeri egiteari emotsoen, edo jolas egiteari barre ta algaraka. Izan be, ez eben ezagutzen, euren anaiek arrotzen pean jasaten eben patu zoribakoa, otseñak biurtuta betirako.

Arin igaro ziran egunak, eta noizbait, batzarrerako garaia etorri zan. Aurregunean euri-jasa lodia izanik, bedar eta zugaitzetan euri-tantak bitxien antzera dizdiraka ikusten ziran, Mbarete, Tope Puku, eta Piru'rekin batzar-lekura abiatzen nintzanean. Baso-soilla xingureutarren gudariakaz beterik egoan, adi-adi begiratzen euskuela. Danak zutunik egozan, eta Mbarete jesarri zanean, onetaraxe mintzatu zan:

– Adiskideok, xingureutar nagusi ta gudariok, jesarri zaiteze. Gaur, gurekin, maite gaituan atzerritar bat dogu. Batzar au dei egin dot, gure erriaren kinka larria aztertu dagigun, eta Karai Ete'ren laguntzaz, dagokigun bidea aurkitzeko. Dakizueenez, Karai Ete'k nire anaia Tope Puku onik atara eban arrotzen atxilloa zanean. Olakorik egiten dauana xingureutarren anaia da, eta sentipenez anaia izanez gaiñera, gizon zuur onek arrotzen ekinbideak ondo bai ondo ezagutzen dauzan ezker, iñor ez bera baizen egokia, gure ateka larriari urtenbidea emoteko. Entzun egiozue, beraz, ardurarik andienaz.

An egozan xingureutarren zurrumurrua, erlauntzaren burrunbaren antzera aditu neban, zelaiaren erdira abiatzen nintzanean. Basa-inditar arein margozturiko aurpegiak niganantz zuzendurik, arretarik andienaz begizatzen ninduen, euren buruari itauntzen eutsuela, urrean, zelako onurea atarako leukien arrotz bategandik. Euretariko geienentzat arrotz bat lenengoz ikusten eben eretia izango zan. Aize bigun batek nagusi arein burugaiñeko luma luze, ñabarrak, astintzen ebazan, onetaraxe mintzatu nintzakiñean:

– Xingureutarrok... ! Basa-inditarren lurak arrotzaren jabetze-goseak zemaitzen ditu. Batzutan, zuen alaguneak kentzen dautsuez, bestetan, zenbatu eziñeko urteetan zear zeureak izan diran baso ederrak, moztu ta erretzen dabez, emendik iparrerantz, Errondonia'n zear zuen anaiai Urueu-Wau-Wau basa-inditarrai jazoten yaken lez, egindako bidezabalak dirala-ta, euren egoerea gero ta larriago biurtuz. Bestetan, galtzoria urre-billaria-

kandik yatortzue, ibaietan gora ta beera zuen baserrietaraiño iritxi daitekez-eta, ondapena ekarririk. Isildu nintzan une batez, eta gero,

– Entzun egistazue ondo –jarraitu neban–. Ezin zaitekeze kinka larri onetatik urten, alkarturik ez ba’dozue burrukan egiten, bestelan, arrotzak banan-banan garaituko ta ankapetuko zaitue, azkenean zuen burujabetasuna galduta, jopuak billakatzeko. Batu zaitez, beraz, arrotzari aurre egiteko, olan bakarrik aske izango zarie-ta.

Xingureutar nagusiek, adikunerik andienaz niñotsenari jarraitzen eutsoen, zaratarik txikiena be entzuten ez zala.

Areitariko nagusi batek isillunea eten egin eban, onetaraxe mintzatuz:

– Tesa Ete (Begi Andia) naz, Tape Py (Bide Zabala) deritxan baserriaren nagusia, eta Karai Ete arrotzaren berbak aña’e pora (itz ederrak) izan dira. Bein baten mutikoa nintzala, aitarekin Gran Pantanal edo Istinga Andia’n zear niñoala, arai ete (odei lodia) agertu zan ortzian. Sasoi aretan legorte andia jasaten genduan gure lurraldean, eta aitari: “Aizu, aita, zergaitik ez eroan odei andi ori etxera...?” esan neutsan. Orduan ru (aitak): “Burutapen bikaiña, mutil, lotu egizu agun batatz, eta eroan etxera. Barre egin genduan aita eta biok. Orixe bera otu yat orain Karai Ete’ren berba zuurrak entzutean. Gure erriak ez dau iñoiz batasunik ezagutu, eta zelan lortu ori eskurik abora...? Gure baserriak, gaiñera, alkarren artetik oso urrunduta dagoz, egun batzuen bitartera oiñez egiteko, izan be. Arrotzek kaiñabera trumoitsuak (errifleak) darabillez, eta geuk, ostera, uztai-geziak eta aztamakillak baiño ez. Karai Ete, mba’epa ere nde (zer diñozu...?)

– Auxe diñotsut, Tesa Ete –erantzun neutsan-: zuen baserriak oso bananduta ba’dagoz, eta zuen iskilluak ezaiñak arrotzari aurre egiteko, orra or zio andia, zuen indar sakanatuak sendotzeko. Ori ez ba’dozue egiten, xingureutar leiñua urte gitxien buruan, be-tirako suntzituko da. Zuur eta alkarturik arrotzari jarkiten ba’zaiakoze, abagune bakarra izango dozue erri-endatzat irauteko. Gaiñera, ona etorri nintzanean, kaiñabera trumoitsu bi ekarri nebazan, eta ondo erabiltekotan, lagungarriak azalduko yakuz.

Isillaldia edatu zan batzarrean, inditar nagusiek aboeko alkarrizketa bateri emotsoela. Noizbait, zurrumurrua amaitu zanean,

– Karai Ete –itaundu eustan Tesa Ete’k– mba’eixapa (zelako jokabidea) esondatzen dauskuzu...?

– Ara... xingureutar gazte guztiek zaintza-talde baten jardungo dabe. Talde onen betekizuna, ibaiak eta baso-mugak kuku egitea izango da. Orretarako, amarreko saldotan alkarturik, gure mugak, bideak, eta ibaiak barrandatu dabez, oneitan zear etenbarik txalupak erabilliz, ia garimpeiroen edo urre-billarien zantzuak ikusten diran. Amarreko orrean egitekoa ez da arrotzen aurka burrukan egitea, arein egoereari, indarrata iskilluoi buruz, lurralde onen nagusiak jakitun ipinteko baiño. Orduan, nagusien batzordeak gora-beera orreik jakinda gero, zenbat gudari ta nora bialdu erabagiko dau. Ez dozue burrukan egingo talde txikika, andika baiño, eta basoko babespean etenbarik jazartuko dozue, lo egiteko be aukerarik emon bage. Oso garrantzitsua da auxe: edozein baserri edo muga galtzoripean izanik, norberarenagandik urrundua izan arren be, berea zemaitutakotzat artuko dau, eta danok, erriaren deiari jarraituz, arrotzaren aurka jagiko zarie.

Onen ostean, isiltasun osoa edatu zan, danek adi-adi begizatzen ninduela azken itzak entzutean. Gero, Nagusien batzordeari mintzatuz,

– Aizue, Mbarete ta beste nagusiok –jarraitu neban–, zenbat gazte dozue amabost eta ogei urte bitartean...?

Aboeko zurrumurrua aditu zan, nagusiek ainbaketa bateri emotsoela, eta gero Mbarete’k:

– Laureun bat gazte

– Berreun gazteakaz osoturiko ogei txalupek, erri onen ibai-sarea aztertuko dabe. eta beste amarreko ogei taldek, lurraldearen mugak barrandatu dabez. Zerbait jakingarri izatean, taldeetako arinlaririk onenak arin-arinka, Jasa Moroty’n jarrita egongo dan nagusien batzordea jakitun ipiñiko dau, dalako batzordeak dagokiozan erabagiak artu dagiazan. Zenbat gizon dozue ogei urtetik gora gudaritzat jarduteko...?

Beste ainbaketa baten ostean, Mbarete’k,

– Gure ustez, bi milla gudari-edo.

– Ara ba... bi milla gudariok baserri-nagusiaren agintzapean jardungo dabe, baiña agintza gorena Mbarete’ri egokituko yako, gudaroste bateri buru bakar bat dagokion antzera. Mbarete’k, orraitaiño, edozein erabagi artu aurretik baserrietako beste nagusiekin batuta, arazoa eztabaidatu dau, eta onen ostean, berak izango dau azken erabagia. Batzar-lekua Jasi Moroty izango da, errialde-erdian kokatua izanez gaiñera, baserririk andiena dalako. Gaur aratsaldean bakotxa bere baserrira biurtuko da, len aipaturiko zaintza-amarrekoak eta iskilluak gertuteko, eta umi pytu yvága (Zeruko espirituek) gorde zagiezala.

Orduan Tesa Ete (Begi Andia) jagi zan, eta auxe esan eustan:

– Upéixa oje’e Karai Ete (Ondo esan dozu Jaun Andia). Zure berbai jakituria darie. Zeuk esana lez egingo dogu, eta mbovy-mbovy (taldeka) etsaia garaituko dogu.

Onen ostean, batzarkideai arrain erreak ekarri euskuezan, baserriko emakume ta neskatillek, baita oiko tropikar igali gozoak be, eta arratserdia barik, nagusiak euren baserrietara biurtu ziran. Joan aurretik, adiskide-ezaugarritzat euren eskuak nire biotzaren gaiñean ipiñi eustezan. Amarreko zaintza iru egunen buruan asiko litzakela abo batez baieztu zan. Bakarrik geratu gintzazanean,

– Karai Ete –esan eustan Mbarete’k–, umi pytu Yvága (Zeruko espirituek) zure aboz mintzatu dira. Gure erriak gaur lenengoz batu dira, eta ekintza andi ori zeuri zor dautsugu, eta nire buruari itauntzen dautsat, batasun ori inguruko inditar erriai eskiñiko ez ete dautsegun...

– Ori bigarren ekitaldia izango da. Lenengo xingureutar erria batu bear, eta gero zein onuragarria dan ikusi dagizuenean, batasun ori inguruko errietara zabaldu. Orduan garaiteziñak billakatuko zarie, baldintza bi oneikin, baiña: zuen ibaien jabeak izan, eta zuen basoak zutunika irauñ-erazo dagizuezala.

Edu onetan jardun genduan luzaro samar, eta bero zanez, illundu aurretik, bustialdi atsedengarria artu genduan ibaian.

Urrengo iru egunetan, Jasy Moroty’n, beste baserrietan lez, iskillu-gertuteari emon

eutsoen, gezi barriak egiñez, “curare” egiteko zugaitz-azal bereziak batuz, aztamakillen metalezko muturrak zorrotzuz, eta txalupak egokituz. Irugarren eguna amaitu zaneko, dana gerturik egoan, eta Jasy Moroty’tik amarreko lau talde urten ziran. Bi oiñezko baso-mugak zaintzeko, eta beste bi txalupa banatan Itaiporá ibaia ta onen bazterrak barrandatzearren.

Egunak gora-beera andi barik igaroten ziran, gudariak iskilloen gertu-lanari ta gezen jaurtiketeari emotsiela, apara obatzearren. Ordu ta orduak emoten nebazan gudarien gezi-jaurtiketea begiztatuz, erakusten eben apara bikaiña ederretsiz. Une batez jo-mugari begiratu, eta ara bertara egan joian gezia apara-erdiunetik ur-ur untzateko. Bein baten arratsaldean, txalupetatik arinlari bat etorri zan esanez, eun ta ogei kilometrora, Itaiporá ibaian beera garimpeiroen txalupa batzuk ibai-oetik lur-atarateari emotsoela.

Ori jakitean, naikoa luze jardun genduan Mbarete’k eta biok. Inditarren nagusiaren eritxiz, gudatalde bat igorri, eta urre-billariak andik kanpora jaurtitea, onena litzake. Nik, ostera, onez-onean areikana joan, eta areik xingureutarren lurak zirala azaldu ostean, mesedez andik joan zeitezala eskatu. Gure eskaerea aintzakotzat artu ezean, orduan bai, ezinbestez, indarra erabilliko genduke. Ederrespen andia eustanez, Mbarete’k baietza emon eutsan nire asmoari, eta urrengo goizean txalupa bitan ogei ta amar lagun ibaian beera joan gintzazan. Etenbako arraunen eragiñez, eun bat kilometro egin genduzan, eta illuntzean ertzer joanda, artutako arrainkiaz apaldu, eta burusietan bilduta, gaba emon genduan basoko eresiek lagunduta. Urrengo egunean gosaria izanda gero, ibaian beerako ur-ildokatzeari emon geutsan barrero. Eguberdia barik, ibai-okergune bat igarorik, ontzi andi samarra begiztatu genduan zarataka ziarduala. Orduan txalupa biak ertzer eroanda, legorreratu gintzazan, eta Mbarete’k, eta biok egoerea azertu genduan. Erabagi zan ontzikoakana ni joango nintzakiela berba egitera, garimpeiroen izkuntza menperatzen nebalako, eta Piru laguntzat artuta, biok ontzira joan gintzazan.

Ontzitik, gomazko odiak ibai-ondoraiño jaisten ziran, eta urpeko lokatza ur-aga andiaren bidez xurgatuta, ontziraiño igoten zan. Emen ur-txarrastada indartsuak artuta, lokatzaren gaiak pisuaren giñoan kokatzen ziran. Urrea astunena izanik, lenengoa kokatzen zan kutxa baten biltzen zala, geroago beste bigarren erabiltea jasateko. Noizean bein, urpekari batzuk murgil egiten eben, gomazko muturren jarrerea aldatzeko. Urpekariak balzak edo erdi-balzak ziran, Brasil’en ain ugariak diran orreitariko morroiak.

Arraunak astiro ta isillean eragiñez, ontzira urreratu gintzazan, eta nire olesari erantzunez, morroi erdi-baltza brankan agertu zan, eta gu ikustean,

– Zer nai dozue...? – itaundu euskun–.

– Entzun, lagun ori –esan neutsan–, ontzi-nagusia ikusi gura dot.

Morroia didarka asi zan onetaraxe:

– Senhor Lourenço, Senhor Lourenço... !

Andik laster, gizon andi bizarduna agertu zan, eta mintzo zakarrez,

– Zer nai dozue...? –itaundu euskun–.

– Ara, Jauna –esan neutsan adeitsu–, zeuk ez dozu jakingo, urrean, baiña leku au xingureutarren barrutia da.

– Eta niri zer, zorritsu ori...?

– Xingureutarren nagusia dan Mbarete'ren izenean, emendik alde egin dagizuela eskatzen dautsut. Beste lekutan badago zenbat-gura urre, Jauna. Arren, eskatzen dautsut lekua ustu dagizuela.

– Eta nai ez ba'dot...?

– Zuurra ba'zintzaz, erregutzen dautsudana egingo zenduke. Bakea beti oba burrukea baiño.

– Ken zaitetz nire aurretik, inditarrai salduta zagozan etoi ori... !

Au esanik, gerritik su-iskillo bat atara eban, eta guztitariko birao ta madarikaziñoak jaurtiten euskuzala, aren danborrean jaurtikiak (balak) sartzen asi zan.

– Biurtu gaitzezan aalik ariñen –oiu egin neutsan Piru'ri–.

Arraunean egiñez, urruntzen asi gintzazan, baiña alako baten Senhor Lourenço su egiten asi zan. Ustekabez, Piru'ri didar bat iges egiten yakola iruditu yatan.

– Zer, Piru...?

– Ezer ez, Jauna. Urrundu gaitzezan aalik ariñen.

Arraunean bizkor egiñez, eta Lourenço'ren oiuek jazarten ginduezala, andik laster ertzera eldu gintzazan. Legorreatzean, Piru'k alboka egiten ebalu oartu nintzan, eta orduan besaburutik odola eriola ikusi neban. Odol-isurtzeagaitik zurbil aurkitzen zan, eta Mbarete'ren laguntzaz etzanda jarri genduan. Astirik galtzeke, Tape Puku'k zauria aztertu, eta txaplasta bat ipiñi eutsan. Zauriak ez eban itxura txarra erakusten, baiña asarre gorrian aurkitzen nintzan, jazotakoaren errua nire buruari egotzirik. Maite neban benetan Piru zintzoa, ezagutuago ta geiago, izan be, eta nire buruarekin asarratuta orren arin jokatuz izateagaitik, zin egin neban, beste urrengo baten olakorik ez litzakela jazoko.

– Ezin dagikegu –esan eustan Mbarete'k– uste onik jarri arrotzagan.

– Oker jokatuz dot ardurarik artu ez izateagaitik, baiña arrotz guztiak ez dira orren zitalak.

– Xingureutarren lurra zapaltzen daben arrotz guztiak, mba'e jerahy yva'era (gure gorrotoa merezi dabe). Biurtu gaitzezan Jasy Moroty'ra guda-batzarra ospatzeko, eta Piru'ri zaintza egokia emotearren.

Olan egin genduan, eta urrengo eguneko illuntzean Jasy Moroty'ra eldu gintzazan. Piru sukarrak artuta egoan, eta Yvoty Ñu'ren eta onen alabea Yvoty Moroty'ren zaintzapean laga genduan.

Astirik galtzeke, mezulariak bialdu ziran baserri guztietara, eta andik iru egunetara guda-batzarra ospatu zan, buruzagi ta nagusi guztiak tartekoak izanik. Gora-beera guztiak ondo ausnartuta, astiro ta zeatz ekintza atondu zan. Guda-taldea Mbarete'k berak aginduko leuke, eta bere alboan onularizat jardungo neuke.

Andik egin bitara, irurogei txalupa batu ziran, eta biaramonean Mbarete'ren guda-

rostea Itaiporá'n beera abiatu zan, gurekin geziketa andia muturrak “curare” edenaz igurtzita geroiazala. Iru egun igarorik, ibai-okergune bat igarotzean, garimpeiroen ontzia ikusi genduan, ibaiaren erdian lokatza-atarateari emotsala ur-agaren burrunbaren eta gizonen oiuen artean.

Laureun inditar gudari eskoi-aldean, eta beste ainbeste ezkerrekoan legorreatu ziran, eta jarraian txalupak ertzetako sastrakan gordeta, kapardia eraiki genduan gaba emoteko.

Urrengo eguneko goiztirian, ontzitiko morroien didarrak eta ur-agaren erabiltea aditu ziranean, ontziaren albo banatan jarri ziran inditar gezilariak. Leku aretan ibaia berreun metro zabal izanik, ontzia eun metroko elmenean egoan, eta gure talde biek gezi-jaurtiketeari emon eutsoen, ez arrapalada baten, noizean bein banan-banan jaurtiz, ordea.

Luzaro barik, Senhor Lourenço berbera brankan agertu zan oiuz bizitan, eta errifle bat az su-egiten asi yakun. Noizbeinkako gezi-jaurtiketeak jarraitu eban, naikoa izanik ontzi-gaiñeko lanak eragozteko. Ontziko erdi-baltzek basa-inditarren “curare”z igurtzitako geziai bildur itzela eutsien, eta augaitik ontzi-barruko babes billatu eben. Au ikusirik, “Manaus” eritxan ontzia gugandik urrunduta, bestaldeko ertzera urreratu zan, baiña ango gezikadak artuta, barriro be ibaiaren erdian jarri zan. Lantzean bein, ontzi-zubiko leiatilla batetik, errifle-baten dunbotsak aditzen ziran, Lourenço Jaunaren asarrea agirian ipiñirik.

Noizbait, etsiak artuta-edo, ontzia Itaiporá ibaian beera abiatzen asi zan, alde bietatik xingureu gudariak erraikiola, noizbeinkako gezien jaurtiketeari emonez. Orduan, urre-billarien ontzia galdararen zapa andiagotuz, ibaian beera galdu zan. Eguberdia zan orduko, eta Mbarete'k oiuz berezia jaurtita, alde bietako gudariak txalupatara biurtu, eta arraunean egiñez aren jarraian asi gintzazan. Arratsalde osoan zear ibaian beera abiatu gintzazan, eta eguzkia basoko zugaitzez arandian odolezko oatzean ilten zala, ibaiaren erdian jarrita, “Manaus” ontzia begiz jo genduan. Berandu samar izanik, legorreatu, eta apalduta gero lotara joan gintzazan, urrengo egunaren begira. Argitu ta laster, “Manaus”en erabiltea aditu zan, eta aurregunean lez gezien jaurtiketeari jarraitu geutsan. Arratsalde aretan aspertuta, garimpeiroen ontzia aingura jasorik, aalik ariñen gure begimenetik galdu zan. Jarraitu geutsan Itakú (Ur Beroa) ibaia Itaiporá'rekin batzen dan tokiraiño, baiña “Manaus”en zantzurik ez.

Pozik gengoan, eta xingureutarrek gurendaren irrintzia iru bidar jaurti eben. Ez nekian orduan, Itaiporá'ren adar baten ezkutauta, urre-billarien ontzia gure atzean geratu izan zala, guri ziri ederra sartuta.

Etsaia garaituta uste izanik, etxera biurtu gintzazan, eta iru egunetz arraun-erabilteari etenbarik emonda, Jasy Moroty'ra eldu gintzazan, eta astirik galtzeke Mbarete'ren txabolara joan nintzan Piru ikustearren. Pozik be pozik artu ninduan nire morroiak, eta atsegiñez egiztatu aal izan neban, bere zauria osatzeko zorian zala. Yvoty Ñu'ren eta onen alabearen zaintzari esker batez be, osakuntza-bidean aurrerakada andia egin izan eban. Agiri zan baita be, Yvoty Moroty'ganako Piru'ren ederrespena, neskatillearen erabilteari erraikiola, beragandik begiak kendu barik. Au ikustean, nire buruari esan neutsan, axe

baiño bikote zintzo ta ederragorik, nekez idoro zeitekeala, eta arein zorionak nire aalegi-
ñak ondo merezi ebazala. Yvoty Ñu'k, neskatillearen amak, begi onez artzen ebalaz gazte
bien alkarrekiko erakarpena begitandu yatan. Izan be, Yvoty Moroty zoragarria, ezkon-
tzeko garaira eldu izan zan, eta nire ustez, iñor gitxi Piru baizen egokiak neskatillearen
ederra irabazteko.

Urre-billariak lurraldetik-at jaurtita (olan uste izaten genduan), eta mugak bake be-
tean, Mbarete'rekin eta onen gudarietan eizaldi ta ibaitiko txangoai emon neutsen. Xin-
gureutarren oiturak eta aberria sakonago ezagutzen nebazala. Izan be, aspaldi zoragarria
azaldu yatan. Noizean bein, baiña, nire oroimenaren atean oles bat aditzen nebala irudi-
tzen yatan, lengo bizitzaldi baten egunsentia lakoa zana, baiña agertu baizen arin eta us-
tekebez, ezabatzen zan, etsiak artuta izten ninduala.

Amabost bat egun igarorik, arratsalde baten inditar gazte bat Jasy Moroty'ra eldu
zan albiste-txarrak ekarkiguzala. Kyse (aiztoa) izeneko gazte onek esan euskun Ituná be-
re baserrira garimpeiro baztuk sartu izan zirala, eta gudarietan eizan ziarduela ustiatuz, iru
neskatilla ostu, eta aalik ariñen basoan zear ostendu izan zirala.

Mbarete'k eta bere buruzagiek bereala batzarraren deia egin eben, eta arazoa azter-
turik, guztien aburua izan zan, beste baserriai dei egiteko astirik ez egoanez, Jasy Mo-
roty'ko gudarietan garimpeiroen jazarpenari arin baten emon bear izango leukiela. Ordu-
erdi geroago, gudariak urteteko gerturik egoteko agintza emon eban Mbarete'k. Ekintza
aretarako errifle biak eroatea otu yatan, eta Mbarete'ren txabolara joan nintzan. Piru ta
Yvoty Moroty atean egozan, eta nire morroia jakitun ipiñi neban gertatzen zanari buruz.
Errifleak artuta urteteten nintzanean, Piru'k bat kendu eustan, eta,

- Baiña Piru -arrituta esan neutsan-, zertan zabiz...?
- Zurekin joango naz, Jauna
- Geratu zaitetz, Piru, makal zagoz-eta.
- Jauna, onezkero ondo nago.

Bere jarkipena ikustean, ez neban beste biderik izan, amor emon baiño, eta negarrak
begietan, Yvoty Moroty bakarrik geratu zan, itz bat bera be esateko gauza ez zala.

Ibai-ertzean sei txalupa gure begira egozan, eta bereala ibaian beera abiatu gin-
tazan. Andik laster gautu zan, baiña arraun-eragiñez aurrera jo genduan aalik isillean
illargi zuritan. Orduak igaro ziran, eta goizaldea barik, gure aurrelaria zan Kyse'k ba-
so-soil baten ertzean legorreatzeko agindu euskun, eta txalupak sastrakaren artean
ezkutaturik, basabide batetik Ituná'rantz joan gintzazan. Argitzen asten zanean, base-
rria agertu-zan, eta ango gudariak eldu-barriak izanik, astirik galtzeke urbillarien ja-
zarkundea asi genduan. Urten baiño len, Ituná'ko atsekabeturiko emakumeek jaten
emon euskuen, eta onen bitartean, baserriko nagusiarekin egitekoa eztabaidatu gen-
duan. Berreun bat xingureutar gudariak iru lerrotan bananduko gintzakez, bakotxa
Ituná'ko aurrelari batek zuzendutakoa. Garimpeiroak aurkituta, inguratuko gintzakiez,
eta zelan edo alan bizirik arrapatuko gendukez. Azken zeatz onek arritu ninduan, eta
Mbarete'ri,

- Aizu -itaundu neutsan-, zergaitik "zelan edo alan" bizirik arrapatu bear ori...?

- Karai Ete -itxura bereiziaz erantzun eustan-, ori gure erriaren ekandua da. Yvutu
ko'eojoy kyi -jykyva ysapy (intza ezabatzen dauan aize goiztarak) areikana eroango gaitu.

Eta izan be, egun aretan "intza ezabatzen dauan aize goiztarra" gure alde azaldu
zan. Erdiko taldean niñean Mbarete'rekin aurrelariaren atzetik. Onek, baso aretako zeatz
guztiak ondo bai ondo ezagutzen ebazan, eta noizean bein geldi-uneak egiñik, basabidea
adi-adi aztertzen eban zantzuren baten billa. Ezustez gelditu zan bide-gurutze baten, eta
ezkerreko zidorra erakutsirik,

- Ortik joan dira.
- Mbovÿpa oi (zenbat dira...?) -itaundu eutsan Mbarete'k-.
- Ndaikuaái gueteri (ez dakit oraindiño)

Erakutsirik zidorretik jarraitu genduan, eta alako baten aurrelaria gelditu zan auxe
zirauskuala,

- Motordun txalupa bat bide dantzut.

Au esanik, ibillera arindu, zidorra itzi, eta basoko sastraka usutik abiatu zan. Aurre-
ratu-ala, motordun txaluparen otsa gero ta argiago entzuten asi nintzan, eta noizbait, Itai-
porá'ren ibai-adar baten ur baketsuetan zear, txalupea ikusi genduan iradu barik eskuma-
tara abiatzen zala. Mbarete'k geldi-erazo ginduzan, eta gure taldea bilduta, auxe agindu
euskun:

- Jarraitu dagiguzan ertzeko zugaitzen artean ezkutaturik.

- Ez ete dabe iges egingo...? -itaundu neutsan-. Piru'k eta biok errifleakaz eraso
dagikiegu, baita zuek be geziakaz, ur dagoz-eta.

- Ani (ez) Karai Ete. Beste biderik ezean, bai, erasoko dautsegu, baiña zelan edo
alan bizirik nai doguz.

Txalupea astiro samar joian ezketiño, ertzeko zugaitzen eta sastrakaren atzetik errai-
kiogun. Alako baten, eragingailluaren otsa beeraturik, txalupea ertzeko kolko txiki batera
urreratu zan. Au ikustean, kolkoaren inguruan banandu ginduzan Mbarete'k, eta isillean,
jazotekoaren begira sakabanatu gintzazan. Txalupea urreratu-ala, ikusi aal izan nebazan
bost garimpeiro ta lau inditar neskatilla zirala. Gizonetariko lau, enda zurikoa ziran, eta
erdi-baltza zan boskarrenak, besoz-beso lotutako neskatillak errifle bat az zemaizten eba-
zan uretara murgil ez egien, antza. Ertzeko zugaziño batera txalupea estekaturik, legorre-
ratu ziran. Neskatillak zugaitz batera lotu ezkerre, sua piztu, okel-zati bat sutondoan ipiñi,
eta autu bateri emon eutsoen. Errifleak txalupetan laga izan ebezan, baiña bakotxaren ge-
rritik errebolber bana eskegita ikusi zeitekean.

Esan-eziñeko etsipena aurpegietan ebela, xingureutar neskatillak buru-makur ego-
zan, gogoratuz, urrean, arrotzen gaiztakeri ta lizunkeripean jasandako geren izugarria.
Oba eriotza... Bitartean, nagusia zirudian garimpeiro batek,

- Bai, mutillak -esaten eban-, ziri ederra sartu eutsen inditarrei lengo egunean Lou-
renço gure nagusiak. "Manaus" aalik ariñen ibaian beera zuzendu, eta inditar zikiñok,
betirako uxatu ginduezala uste izaten ebenean, ibai-adar bat artu, eta ezkutatu...

- Sari andia emongo dausku Senhor Lourenço'k -eten egin eutsan beste lagun ba-
tek-, berak eskaturiko inditar neskatillak ikusi dagiazanean...

Itz oneiri barre-santzo zaratatsuek jarraitu eutsien, eta okela orduko gerturik, jaten asi ziran. Une aretan Mbarete urreratu yatan, eta abopeka,

– Karai Ete –esan eustan–, ñande resa (gure begiak) nekatu dira orrenbeste gaiztakeri ikusi ondoren. Gertuizu erriflea, eta besoa estutu dagitsudanean, eztanda egin.

– Gerturik dago, Mbarete.

Une aretan, tukan baten didar erlatsa aditu zan, eta orduantxe Mbarete'ren eskua ni-re besoan kokaturik, su-egin neban. Xingureutar gudarien eraso-didar zauskagarria aditu zan, eta uin geldi-eziñaren antzera, berrogei ta amar gudarik arrotzak inguratu, eta begien itxi-edegi baten, ezustean arrapaturiko urre-billariak lotuta egozan. Garimpeiroen talde-buruak ezagutu ninduan, antza, eta bildurrez,

– Aizu, lagun –esan eustan–, zer billakatuko gara basa-inditar orrein eskuetan...? Lengo egunean Lourenço gure nagusiarekin berbatan ikusi zindudazan, eta gizon zuzentzat zaitudan ezker, esaiezu, adiskidetzat erabilli gagezala.

– Baserrian gudariak ez egozanean, lau neskatillok eroan zenduezan zuen lizunke-riaren jopu egiteko, eta adiskidetsu erabilli zagiezala nai dozu...?

Une aretan Mbarete urreratu yatan, eta,

– Aizu, Karai Ete –esan eustan–, jagua-hasy (txakur amorratu) orreri esaiozu, gure-tara, xingureutarretara epaituak izango dirala, eta anartean gorde dagiazala bere aboko berba saskelak.

Gero, atxilloak baserrira eroateko gudari batzua agindurik, neskatillakana biurtu zan. Basa-inditar oitureari jarraituz, gaixok ez eben negarrik egiten, baiña euron begi illunetan, jasandako geren izugarriaren aztarnak agiri ebezan, utsari begira geldi ta isil-lik. Mbarete'k arein adats eta aurpegiak samur-samur laztandu eutsezan, eta mintzo mai-tekorrak,

– Neskatillok –esan eutsen–, nasaitu zaitzeze, luzaro barik etxean izango zarie-ta. Aztu egizue jazorikoa. Laster senar bana emongo yatsue jasandako izugarria oroimenetik ezabatu dakizuen. Goazen eta biotz on... !

Biurtu gintzazan ba, eta arratsaldean Ituná baserriak poz baten abetaldu ginduzan. Andik laster apaldu genduan, eta azken egun aretako jazokunak nekatuta, lo atsedengar-riak artu ninduan. Urrengo eguna argitu zanean,

– Jauna –esan eustan Piru'k–, Jasy Moroty'ren gudariak gerturik dagoz euren base-rrira biurtzeko. Mbarete'k jakiñerazoten dautsu, nai dozunean abiatuko gareala.

Arin baten jagi nintzan, eta Ituná'ko nagusiari agur esanda, txalupetan Itaporá'n go-ra iradu barik urak ildokatuz, etxerakoa egin genduan. Geldi-aldi laburraren ostean, illuntzean kapardia eraiki zan, eta tapir baten erreki gozoari ekinda gero, izarren argi aul-pean, mate bedarraren ur bero ta atsedengarria edan bitartean,

– Aizu Mbarete –xingureutar nagusiari itandu neutsan–, gaur goizean “Manaus” on-tziko bost arrotzak Ituná'n atxillo geratu dira. Zer billakatuko ete... ?

– Baserriko nagusiek epaituko dabe. Izan be, Ituná itzi genduan, epaiketea aste-ko zorian zan.

– Zelako epaiketea...?

– Guretara izango da. Jazoerearen lekukoak deitu izango dira, gizostu ta gerenduta-ko neskatillak batez be, eta lekukoen edeskiak entzunda gero, erabagia jakiñerazo, eta bereala burutuko...

– Zelako erabagia izango da...? –eten egin neutsan–.

– Ereti onetan erabagia argi dago: lau garimpeirok eriotz-zigorra artuko dabe.

– Ez dira, baiña, gaizkilleak bost izan...?

– Bai, baiña boskarrena aske lagako dabe, beretarrakana biurtu daiten.

Berba oneik nigan sorturiko arritasuna, aurpegian irakurri eustan Mbarete'k, eta,

– Begira, Karai Ete, onezker, Ituná'ren inguruko basoan dana amaitu izango da.

Ara...

Isillune bat ur beroa mate-ontzitzura isurtzearen, eta,

– Azaldu dautsudan lez –jarraitu eban–, lau arrotzek eriotz-zigorra artuko dabe, eta boskarrena, erdi-baltza, urrean, bizirik askatu izango da “Manaus” ontzira biurtu daiten. Bost atxilloak gerriz-gerri lotuta, gudariak aztamakillakaz draka-draka basoan zear irauñ-erazoko dabez. Nekearen-nekez urre-billariak ibillera lazotu dakienean, gu-re gudariak iskillu-muturrakaz zirikatuko dabez, draka-drakaren neurria galdu ez da-gien. Eta olan orduetan zear, lerrenak eginda atxilloak makaltasun utsaz lurrera amil-du arte.

– Eta orduan...?

– Dakizunez, gure basoetan jausitako zugaitz-enborretan, erlauntz asko dagoz, eta oneitariko bat aukeraturik, inguruko lau zugaitzetan gaizkille bana lotu izango da, eta bi-llusturik, aiztoakaz narruan ebate luzeak egingo yakez odola isuri arte. Jarraian, aztama-killakaz erlauntza joko dabe. Gure baserleak guztiz asarrekoiak diranez, sumin gorriak eraginda, opari baten billa asiko dira, eta atxilloen odolak erakarrita, arein soiñak eztenaz josiko dabez.

– Izugarria izango da... !

– Bai benetan. Erle-eztenaren edenak erremiña sortzen dau, eta asmatu egizu milla ta milla eztenek zelako oiñazea sortukodaben. Ordu-lauren bat irauten dau baserleek sor-tutako nekaldia, baiña luze-luzea egingo yake alamen izugarrien artean.

Latz-ikara batek astindu ninduan, urrebillariak jasango eben eriotzaldia gogora-tzean, eta une luze batez isillik iraunda gero,

– Aizu, Mbarete –itaundu neutsan–, eta boskarren atxilloa zer billakatuko zan...?

Mate-edariari zurrutada luzea emonda gero, auxe esan eustan:

– Ara... iren biurturik, aske lagako eben, bere lagunakana biurtuta, jazorikoa edestu dagitsen.

– Ori izugarria da... ! – latz ikara bateri eutsi eziñik jaurti neutsan.

– Bai, urrean, Karai Ete, baiña izugarriagoa izango zan Ituná baserriko neskatillek jasango ebena gaizkille arein erabilte zantarpean. Zigor ori, gure erriko oitura izan da an-txiñatik, baita zuurra be, arrotzek ikusi dagien zelako ondorea ekarriko dautsien olako zi-talakeriek. Gure alabak ez dira jaio, arrotzen jostailuak billakatzeko, gure erriari jarraipe-na emoteko baiño. Begira, Karai Ete, urrengo baten arrotzek gora-beera guztiak gogoan

erabilliko dabez, olako ekintza bateri emon aurretik. Ez, gaurko jazokizuna ez yake orren erraz aztu egingo, ez orixe... !

– Eta zer billakatuko dira gerendutako neskatillak...?

– Pohā ka'aguy (basoko sendagaiak) osatuko ditu, eta bakotxari senar ona ta egokia emongo yako laster. Anartean, baserri osoaren maitasun eta txerak inguratuko dabez.

Izarren argi makalpean, Mbarete'ren burua lurrerantz makurtuta ikusi neban, betosko illunaz gogoeta sakonari emotsala, urrean. Gero, burua jaso, eta itxura arraiaz,

– Karai Ete –esan eustan–, iporā ñane retā (gure aberria ederra da) eta jendea ona, umi pytu yvāga (zeruko espirituak) nire erria babestuko dabe. Orain berandu da, adiskide maite ori, tereho eke (zoaz lotara).

Zugaitzen abar eta orriakaz egiñiko txabolara sartzeko zorian nintzala, Mbarete'k,

– Jakiñerazo bear dautsut, Karai Ete –esan eustan–, urrebiliarren bost errebolber ta errifleak, gurekin daroaguzala Jasy Moroty'ra, baita katanarru bete urre be. Au zergatzat artuko dogu, ekarri dauskuen kalteakaitik.

Gau aretan guztiz nekatuta egon arren, ezin nengikean burutik kendu, “Manaus” ontziko nagusiak, Lourenço Jaunak, zelako aldarte artuko leukezan irendutako mezulariaren albisteak... Amorruez irakiten eta biraoka.

Urrengo egunean, gora-beera andi barik xingureutarren uriburura eldu gintzazan. Piru ta biok ikustean, arrapalada baten urreratu yakun Yvoty Moroty zoragarria, eta Piru'ri lotsaz begiratu,

– Mba'epa ere nde (zer diñostazu, Piru...?)

– Xe rory rohexa'vo. (atsegiñez ikusten zaitut).

Alkarri begiratu eutsoen maitasunez, eta euren zoriona bakean gozatu egien, txabolara sartu, eta andik laster, ugerialdi atsedengarria izatearren, ibaira joan nintzan.

Arrezkero, aspaldi zoragarria igaro neban xingureutarren artean, gero ta maiteago nebazala. Mbarete'k inguruko ikusgarriak erakutsi eustazan, eta oroz gain, erreka baten jaiotza zan mendi batetik beera amiltzen zan ur-jauste zauskarria. Zaratea gortugarria zan, eta eguzkiak eraginda, ortzadarra sortzen zan zipritziñak argitzean. Gero urak arribillen artean galtzen ziran suzmurka, Itaiporā ibairaiño.

Aspaldi aretan, uztai-geziak erabilli nengizan aalegindu zan Mbarate, baiña oso zaila azaldu yatan inditarrekin burua bat egitea. zenbait aurrerapen egin arren be, ez neuke iñoiz, arein trebetasuna lortuko, ez urrik emon be... ! Eurok urteetan zear jaritsitako apara bikaiña, ezin atzerritar batek eskutik abora lortu.

Piru ta bion errifleaz gaiñera, bagenduzan urrebiliariei kendutako bost errifle ta beste ainbeste errebolber. Augaitik ba, iskillu orre in erabiltea irakatsi neutsen Mbarete'ri ta gudari urtenenai. Laster ikasi eben iskilluoen zatiak askatzen, eta barrero alkartzen. Zoritarrez, baiña, ez genduzan nai izandako beste jaurtiki (balak), eta apara-iñar-kunai eten egin bear izan geuntsen, benetako burrukan erabilteko. Ikustekoa zan, zelako begirune ta maitasunaz erabilten ebezan xingutarrek iskilluok. “Kaiñabera trumoitsuak” oso urrundik apara egiteko gai ziralako oldozkun utsak, zoriona ekarkien. Bein baten Mbarete'k,

– Karai Ete –esan eustan– “kaiñabera trumoitsu” asko ba'genduz, nire erriak ez leuskie bildurrik izango arrotzai, ezta beste iñongo galtzoriari be.

– Zuzen zagoz, adiskide. Oldozkun oneri ardura andia emon dautsat, eta egunen baten eretia aurkeztuko ba'litzakigu...

Bakealdia, baiña, ezusteko jazokizun batek ezereztu euskun. Bein baten, Iñakuá (Arinlaria) etorri zan esanez, garimpeiroen ontzi bat barrero ziarduala Ytakú (Urberoa) ibaitik onantza, au da, xingureutarren barrutian, eta gaiñera, lengoa baiño askozaz sendoagoa. Barri onek kezkatu ninduan, eta augaitik izan be: Senhor Lourenço ta bere gizonak, len artutako zigorraren ostean, gure barrutira azartzen ba'ziran, txit indartsuak oartzten zirala adierazoten eban. Mbarete'k batzar bat dei egin eban, eta urrebiliariei erasotea erabagi zan abo batez, eta zortzireuneko gudari-taldea bilduta, Itaiporā ibaian beera abiatu gintzazan oiko txalupetan. Bigarren egunean, ibai-erdian ondoko lokatza ataraten ziarduala, ontzia ikusi genduan, eta izan be, onen itxurak kezkatu ninduan. Burdiñezkoa izanez gaiñera, lengo “Manaus” baiño askozaz andiagoa zan.

Ontzia ikusi baiño ez, gure gudarostea erdibanatu zan, eta talde biok ertzetako zugaitzetan ezkutaturik, urreratu gintzakiozan. Urretik ikustean, biotz-ikara batek artu ninduan. Ontziko zubi-saiets biak altzairuzko xafalakaz babestuta egozan, eta oneitan zulo txiki batzuk ikusten ziran, su-egiteko leiatillak, izan be. Ontziko jendeak, beraz, kanpotiko erasoai jaramonik egiteke lan egiten eben. Bazan, baiña, beste zerbaite arrenkuraz bete ninduan: brankan eta txopan metrailagaillu bana ikusten zan, burdiñezko babeskiak orniduta. Alperrik zan, beraz, ontziari geziak jaurtitea, eta au ikusirik, Mbarete'k eta biok egoera barria aztertu genduan.

– Karai Ete –itaundu eustan Mbarete'k– zer deritxazu egoereari...?

– Aukerarik ez dogula gure gezi ta errifleakaz.

– Zer egingo dogu, Karai Ete...?

– Zubiko leioen leiarrak eta argi-ontziak errifleakaz apurtutea gure aukera bakarra da, baiña ori gurenda kaxkarra deritxat.

– Apurtu dagiguzan ba, leiarbako leiatillak egokiak ez dira-ta.

Mbarete'k, Tape Puku'k, Piru'k, eta laurok errifle bana artuta, su-egiteari emon geutsan, eta begien itxi-edegi baten, leiarri guztiak apurtu genduzan. Andik laster, ozengaillu (altavoz) baten bidez, Lourenço Jaunaren mintzo trumoitsua onetaraxe aditu zan:

– Inditar zorritsu ta ezkabitsuok... ! Ez dot aztuteko gure gizonai egin zeutsiena, eta orren ondorioz, ona emen “Manaus” II'gna ontzi bikain eta garaiteziña, arrapatu aal dagigun urre guztia geureganatzeko. Ez deritxat ondo, baiña, zuen agur maitetsu ta zaratastua artu ondoren, nire Ongi-etorririk maitetsuena artu barik geratu zaitezzen...

Au esanik, metrailagaillu biak su-egiten asi ziran, tximistären arintasunaz. Ezinbestez, zugaitzen babesa billatu bear izan genduan, danbadak amaitu arte. Orduan, Lourenço'ren barre-zantzo trumoitsuak aditu ziran onetaraxe:

– Aztu egin baiño len gure aparirako deituak zarie. Bearrezkoa da jai-janzkiak erabiltea, bestelan ez dozue sartzetik izango.

Lourenço ta bere lagunen barre-santzoak barrero aditu ziran, ertzetik urruntzen gin-

tzazala toki ziurrago baten billa. Kapardia eraikita gero, apaldu ondoren mate-edariari zurrutadak emoten geutsazala, gogoeta sakonetan murgilduta, ez neutsen inguruko autuai jaramonik egiten. Ezinbestekoa zan “Manaus” II’gna basa-inditarren barrutitik uxatzea. Zelan, baiña...? An, ibai-erdian ainguratuta, zemai izugarria zan xinguretarrentzat, eta andik kanpora botateko gai ez izatekotan, gureak egingo leuke... Ezin nengikean ontziaren anditasuna gogotik kendu, branka goitsutik kate lodia uretaraiño jausten yakola... eta gero metraillagailuak... Izan be, atzera beartzen ez ba’genduan, senda-eziñeko minbizia- ren antzera billakatuko zan luzaro barik... Alako baten, Mbarete’ren mintzoa aditu neban auxe ziraustala:

– Karai Ete, zertan zabiz...?

– Arrotza atzera jaurti bear dogu, baiña ez dakit zelan. Gure gezi ta “kaiñabera trumoitsuak” ez dira gauza oraingo onetan.

– Umi pytu yvága (Zeruko espirituak) gugana biali zinduezan xingureutar erria laguntzeko, eta oraingo onetan be, lagunduko dauskuzu.

– Ez dakit zelan.

– Tereho eke (lo egin) Karai Ete. Yvytu ko’ẽ oý kyí-jyky’iva ysapy (intza garatzen dauan goizeko aizeak) bidea argituko dautsu.

Lotara joan gintzazan, eta ames egin neban “Manaus” II’gnen ainguraren katean goira igoten nintzala... eta alako baten, burutapen batek jota itxartu nintzan. Jagi, eta suaren ondoan jesarrita Mbarete ikusi neban, pecari-zati bat gosarirako erretzen ziardua.

– Mba’eixapa reiko (zelan zagoz) Karai Ete...? –agurtu ninduan– goizeko aizeak bidea argitu dautsu...?

– Esan, Mbarete –itaundu neutsan–, gordeten dozu egun aretan garimpeiro arei kendutako urre-ziskua...?

– Bai, nire etxean gordeta daukat.

– Ara... urre ori bear dot, baita zuen gudari bien laguntza be. Biurtu gaitezkan Jasy Moroty’ra lenbailen, eta bidetik azalduko dautsut buruan yabildan asmoa.

Bereala, Mbarete’k gudariai etxera biurtzeko agindua emon eutsen, eta txalupetan itzuli gintzazan. Etxerakoa egiten genduala, nire asmoari buruz jakitun ipiñi neban, eta pozez gaiñezka ontzat emon eban.

Baserrira eldu ta urrengo egunean, gudari bikin, Piru ta biok, Corumbá uri nagusirantz abiaturik gintzazan, errifle bana geroiala, eta nik sakelean ondo gordeta, urre-ziskua. Xingureutar gudari biek txalupa arin bat eroien sorbalda-gaiñean, eta iru egun igarorik, Paraguai ibaiaren ertzera eldu gintzazan. Joiaran beera beste iru eguneko epean, Corumbá’ko ibai-kaiak begiztatu genduzan. Gudari bien zaintzapean txalupa ta errifleak ondo ezkutaturik sastraka-artean lagata, Piru ta biok urira abiaturik, eta iskillorik denda andi batera sartu gintzazan. Izan be, gure aukerea ona azaldu zan, an guztitariko iskillorik eta su-egitekoko gaiak salgai ziran-eta.

– Zer nai dozu, Jauna...? –itaundu eustan dendariak–.

– Ogeitamar kilo dinamitarik onenekoa.

– Begira, on-ona badaukat baiña karua be.

– Zenbatean...?

– Kiloa bost U. S. A. dolarretan.

– Ipiñi egistazuz ogei ta amar kilo.

Lotukia gerturik egoanean,

– Urretan ordainduko dautsut. Zenbatean dabil gramoa...?

– Ogei dolarretan.

– Ondo da, eta bidebatez amar errifle dagokiezan jaurtikiakaz.

Erakutsi eustazan errifle-mota batzuk, eta onenak autaturik, erositako guztia ordaindu neutsan. Zurezko kutxaren barruan egokituta, orgatxu batek kaira lorratu eban, eta gabeko itzalak ustiatuz txalupea ekarrita, onetara dana sartu, eta jarraian, ibaian gora abiatu gintzazan. Amar egun igarorik, Jasy Moroty’ra eldu zan gure jarraigoa.

Arratsalde aretan, Mbarete’k eta biok zeatzak aztertu genduzan, eta bat etorrita, auxe erabagi genduan: “Manaus” Ignaren lerketea egiteko eretik onena, zazpi egun geroagoko ilbeeran izango zan, eta ordua goizaldeko irurretan, ontziaren zaintza geien lazotuko zan garaian. Gero, egillea nor izango eztabaidatu genduan. Geienen eritxiz ugerilaririk yaioena Kyse (Aiztoa) izanik, etorri ekidan agindu neban, eta aurkeztu yata- nean,

– Aizu, Kyse –esan neutsan–, ugerilaririk onena zaralakoan aukeratu zaitugu, ekin- tza aintzagarria egiteko. Ona emen zure egitekoa: illuntasunik osoanean, “Manaus” Iig- na, garimpeiroen ontziraiño ugerika joango zara, zurekin ogei ta amar kilo lerkai eroango dozuzala. Aboan, piztutako zotza eroango dozu, lerkaiaren almutxari su emoteko. Lerkaiaren lotukia kako batz oriduta dago, eta ontziko brankatik jaisten dan kate-begi baten sartuko dozu kakoa, lotukia kate ta ontzi-oskolaren artean jarriko dozula doi-doi uren azalean. Au egiñik, zotzaz almutxa piztuko dozu, eta jarraian, aalik isillen ertzera biurtu- ko zara.

Laster ulertu eban Kyse argiak bere egitekoa, eta ekintzarako peitzen ziran zazpi egun areitan, gabea inñarkunak egin ebazan Kyse’k, piztutako zotza aboan eroiala, eta dinamitea iizko otzara baten uren gaiñetik bultzatuz. Otzararen azala bustin bereiziaz igurtzia zan ura sartu ez ekion. Kyse’ren aurpegia baltzez margoztua, eta aalik arduratsu ta isillen otzarea bultzatuz, ikusteziña zan.

Boskarren egunean, Itaporá ibaian beera eun bat gudariekin, oiko txalupetan abiatu gintzazan, eta zazpigarren eguneko illuntzean urrebiliaren ontzia begiz jo genduan, nasa- i ta ezereen bildur barik, ur-azpiko lokatz-atarateari emotsala. Legorreratu, eta ertzeko zuagaitzen artetik ontziaren buruz-buru jarri gintzazan. Ontzitik ikusi ez gengiezan, kap- dia ertzetik urrun samar eraiki izan zan, eta apalostean, burusietan bilduta, ekintza-or- duari itxaron geutsan. Lo-aldi ariñetik Mbarete’k iratzarri ninduan, auxe inñostala:

– Karai Ete, ordua da, goazen.

Joan gintzazan ertzera, eta lerkai otzarara sartuta, piztutako zotza aboan eroiala, Kyse uretan murgildu zan palastada isillaz. Begiz jarraitu geutsan gau illunean zear, bere egoerea nekez bereizten zala. Uneak luze-luze iruditu yakuzan, ezereen zantzurik artu ba- rik. Alako baten, Kyse’ren irudia ikusi genduan ertzera eltzen zanean, eta,

– Aizu, Kyse –itaundu neutsan–, lerkaia ipiñi dozu kate ta ontziaren artean ozta-ozta uren gaiñetik...?

– Bai, Jauna.

– Almutxa ondo piztu al-dozu...?

– Bai, Jauna, baiña luze izanik...

Une aretan bertan, “Manaus” II’gn brankatik suzko biribilki andia sortu zan eztanda gortugarriaz lagunduta. Aidean zear jaurtitako burdiñezko zatiak egan egiten eben, sortu-tako suak argituta, eta orduan oartu nintzan, ontziko erre-gaia sutan egoala eztrandak piz-tuta, egun-argipean bai’litzan ontzian jazoten zana ikusi zeitekeala. Ango astrapala ta ka-rriasiak... ! Ango aida bateko aalegiñak ontziko txalupak uretara jaistearren... ! Izan be, arin ibilli bear, brankako zulo anditzarretik urak parrastaka sartzen ziralako, eta brankaz beera ontzia murgiltzen zan txopea jagiten yakola. Noizbait, txalupa bat uretara jaisten lortu eben, eta arraunen eragiñez, oi bizitan ibaian beera illunditan galdu ziran urrebilla-riak, igarri barik, eurok ibaiari kendutako urreak ontziari ondapena ekarri eutsala.

Bitartean, xingureutar gudariak, ontziaren suak argituta ta oi basatiek lagunduta, ertzetik dantza gudakoiari emotsoen aztamakilla esku baten, eta bestean uztaia erabille-zala, bein eta barriro oiuka,

– ho’a kikuái ipo guype kuéra... ! (ondatuta dagoz... !)

Olan jardun eben luzaro samar. Alako baten, xafla goriek urak irakin-erazoten ebe-zala, gora jarritako “Manaus” Ignaren txopa beerantza egiten asi, eta ibaiko errai illune-tan ostendu zan betirako. Era batean sua itzungita, ibai ta basoa lengo bake ta illunera biurtu ziran, urrebillariak izuak jota ibaian beera arraunen eragiñez galtzen ziralaba-ga-ren altzoan.

Biamamonean, lortutako gurendak adorea goren maillaraíño piztuta, baserrira biurtu gintzazan, eta garaipen-jaiek iru egun iraun eben Jasy Moroty’n baita beste baserrietan be. Azken arrakasta onek erri guztiaren begi ona ekarri eustan, eta danek alkarren leian ziarduen ni gorestearren. Banekian urrebillarien zemaia betirako uxatu izan genduala, baiña oraindiño sortaldeko muga baretu barik, buruauste ugariak ekarri leikiguzala bildur nintzan. Nenkusan bide bakarra, Nossa Senhora do Rosario “fazenda”rekin bake-ituna egitea zan. Ez edozein ituna, baiña, bidezkoa izango litzakena baiño, bestelan bakerik ez.

Aspaldi baketsu aretan, barruko eragintza bakanak artuta oartzen nintzan, eta oroz gain auxe ziurtzat emoten neban: ezin negikeala luzaro iraun xingureutarren lurraldean. Zerbait ezkutuak beste leku batera nindaroan, gero ta argiago dei jorantsu batek dei egis-tala urrundik. Nire atzokoaz jabetu gura neban, eta ori estalgetu arte ez neukela bakerik ezagutuko, mintzo ezkutu batek iñostan. Sarri askotan, amesetan begi maiteek dei egiten eustela begitantzen yatan, baiña etorriak baizen ustekabez, ezabatzen ziran, larri ta atse-kabeturik izten ninduela... Eta bein baten, dalako ikuskizuna izanda gero, munduan zear ez nekian zeren billa joatea erabagi neban, baiña orren aurretik, xingureutarren etorkia ziurtatu bear...

Ori lortzeko, Mbarete’ri burutara ekarri bear izango neuskio, nai-ta-ezkoa zala sor-taldeko mugan bake-itun egokia jaristea. Nik uste baiño lenago oartu zan xingureutarren nagusia, asmoaren egokitasunaz, gizon zuurra ta argia zan-eta. Andik laster itunaren bal-dintzak ondo azterturik, Mbarete’k batzar bat dei egin eban, eta mintzo argiaz baserrien nagusiai itunaren zeatzak azaldu eta eztabaidatu ondoren, abo batez ontzat artu zan.

Urrengo egunean Piru’k lagunduta, aurrelari baten laguntzaz Corumbá’ra abiatu nintzan, eta sosterrik bage andik astebete batera eldu gintzazan. Egun bi geroago, urre-ziskua erabilliz Piru ta biok Cuiabá’rakoa egazkiñez egin genduan eta ostatu baten koka-turik, urrengo egunean FUNAI erakundearen idaztegira joan nintzan, nagusiarekin alka-rrizketa bat izateko asmotan. Alfredo eritxan erakunde orren nagusiak arraitsu abetaldu ninduan. Nossa Senhora do Rosario’ri buruz jakitun ipiñi neban, eta entzun ondoren, apal baten aztertuta gero, “fazenda”ren lur-marrazkia mai-gaiñean zabaldu eban; onetan zeatz-zeatz, Joao Souza de Araujo Jaunak egindako lur-lapurreta azaldu neutsan. Arazoa bere eskuetan jarri nengiola eskatu eustan, eta andik iru egunetara biurtu neintela. Pi-ru’rekin uriaren ikusgarriak ezagutzen emon neban, eta epea igarorik, FUNAI erakun-dearen idaztegira biurtu nintzan.

Alfredo’k oi eban ederrespenaz abetaldu ninduan, eta,

– Atzo Joao Souza de Araujo ementxe izan zan –esan eustan–, eta nire burubideak entzunda gero, dana guzurra zala esanik, zure aurka iñon diran iñondikoak jaurtita, aton-terik ez egoala adierazo ostean, joan zan. Onezkero, “fazenda”ra biurtuko zan.

– Zer egin geinke...? –itaundu neutsan lur-jota–.

– Ezer gitxi, Antoni, Auzi bat Joao Jaunaren aurka aurkeztu, baiña...

– Baiña zer...?

– Ez genduke gauza andirik aurreratuko. Ara... urteetan zear auzitegian batetik bes-tera iraungo leuke, edo-ta lo-zorroan aztuta. Emen, laterriko erakundeek ganora gitxi da-rakuste, eta gaiñera, Joao Jauna ukondo andikoa izanik, bere ezaguerak ustiatuz, auziak ez leuke azkenik ikusiko.

– Ez al-da beste urtenbiderik izango... ?

– Bai, baiña FUNAI ‘koa izanik, ezin dagiketsut argiago esan.

Jarraian, Alfredo’k berarekin bazkaltzera dei egin eustan, eta lurralde aretako jakirik jatorrenak txastatzen genduzala, urrebillarien ontziaren ondapena edestu neutsan. Amaitu nebanean, Alfredo’k,

– Zuk ez dozu ezagutzen ekintza orren jarraipena –esan eustan–, baiña lengo baten ezuguerara eldu yatan, Lourenço Aveiro izeneko garimpeiro-talde bateko nagusiak, ziñez esaten eutsala nire adiskide bateri, ontzia galdu izan ostean, ez leukela urre-billaketeari emongo barriro, munduko urre guztiagaitik be, eta Sao Paulo'ra joateko zorian zan jardun ziurragoren billa.

Izan be, poztu ninduan barri onek, adierazoten ebalako urrebillariak ez litzakezala azartuko xingureutarren ibaietan zear. Bazkalostean, alkarrri agur esateko garaian, auxe esan neutsan:

– Oraingo egoera “fazenda”n aldatuko ba'litz, zelan jakiñerazoko neuskizu ...? Izan be, ona etorteko bide luzea dot .

– Ara, Antoni, “fazenda”tik ur samar dagoan Iturakú erritik, dei egistazu urrutizkiñez idaztegiara.

Alkarrri bostekoa emonik agurtu genduan. Alfredo guztiz begikoa billakatu izan yatan, eta beragan nire uste on osoa ipintea erabagi neban . Urrengo egunean etxerakoa egin genduan Piru'k eta biok. Amar egun igarorik, Jasy Moroty'ra eldu gintzazan. Itzulbide onetan, baiña, naikoa astirik izan neban egitekoa ausnartzeko. Argi egoan Alfredo'ren itzetan, berak esan ez arren, baegoala urtenbiderik, eta nire ustez ezin zeitekean indarrezkoa baiño. Au dala-ta Jasy Moroty'ra eltzean, Corumbá'n erosiriko beste sei errifle genkarrezan.

Baserrietako nagusiai batzar baterako deia igorri eutsen Mbarete'k, Cuiabá' n gertaturikoaren barri emon neutsanean, eta dalako batzarrean danok indar-bidearen alde azaldu ziran. Orduan, Mbarete'k nirekin erabagitako ekintzaren gora-beerak azaldu ebazan, eta abo batez ontzat emonda, aalik ariñen egi biurtzea erabagi zan. “Fazenda”ren aurkako ekintza ori ilbarrian izango litzake, eta eretia itxaron bitartean, gudariiek errifle-erabiltzearen ikasketak artu ebazan. Izan be, laster azaldu ziran jaurtilari bikaiñak .

Noizbait, goiz baten “fazenda”ko mugarantz abiatu, iru egunen buruan baso-erzetetik Nossa Senhora do Rosario'ko alagune bikaiñak begiztatu genduzan, eta Mbarete'k eta biok gertu-lanen aztertzeari emon geutsan azkenengoz. Gautu zanean begirari-dorreen argiak piztu ziran, eta aurre osoan sakabanaturik, errifledun gudariiek bakotxa bere dorrea aukeraturik, etzanda jarrita bedartzan zear narraz ibiltzen asi ziran, adarrakak estalduta. Eun bat metroko bitartera, errifle baten eztanda zan ezaugarria jaurti neban, eta beingoan ogei erriflek begirari-dorreen argi-ontzien aurka su-egiteari emon eutsoen. Begirariiek erasoari erantzun eutsoen, baiña adarrakak estaldutako basa-inditarrak ez ziran ondo bereizten. Laster, banan-banan dorreen argiak itzungiten asi ziran, gabaren illunpetan ustai-geziakaz ornidutako gudarien bigarren erreskadea aurreratzen zala, geziai lotutako amelu-antzeko gai bat piztuta jaurtiten ebela. Gau berotsua izanik, geziakaz jositako olezko dorreak sutan asi ziran, zuzi erraldoiak biurtu arte, begirarien izu-karrasiak iges egitean aditzen zirala.

Orduan, bosteun xingureutar gudarik, aurreko arantzadun esia aztamakillakaz eten egin, eta uin geldi-eziñaren antzera, atzean geraturiko begirari-dorreak zatika amiltzen zirala, Yporá ibaiia zearkatu, eta bestaldean gelditu ziran. Une aretan, erraza izango zan

“fazenda”z jabetzea, triskantza izugarria egin ondoren, baiña ori ez zan gure asmoa, eta gaiñera, ondorio txarrak ekarri egikeazan xingureutarrak, jendearen gorrotoa bereganatuz.

Yporá'z bestaldean alkartu gintzazanean, gudariiek abelgorriaren inguraketa bateri emon eutsoen, eta egunsentia asten zaneke, irureun bat abelburu bilduta, ibaia zearkatu, eta basoko bideetan zear xingureutar baserrietara banandu ziran. Badaezpadakoan, amabi errifledun gudari baso-mugan begirari jarri ziran. Jazotakoaren ostean, ez neban uste andirik, Joao Jauna aldarterik onenean egongo zanik inditarrak jazarteko, eta izan be, zuzen nengoala azaldu zan.

Gurenda au xingureutar baserri guztiek andikiro ospatu eben, eta Jasy Moroty'n iru egunez jai andiak egin ziran, zekorren errekiak eta basa-garau bereizi batetik egiñiko edari biziaz. Gero, betiko bizierari emon geutsan, au da, arraintza ta eizeari, astu barik oiko bustialdi atsegiñak ibaian. Olan eta guzti be, asti ugari izanik, Piru'ren irakasteari emon neutsan, baita onura andiaz be. Arrigarria zan mutillaren gaitasuna gauzak ikasteko, eta bein entzunda soillik, gauza zan gogoan ondo tinkatzeko. Irakurten eta idazten ondo ekianez, jakintza-gaiak irakasten asi nintzakion, eta lur idorrek euria artzen dauan irrika berberaz, mutillak gaiak ondo egosten ebazan.

Bitartean, muga ipiñitako gure begirariak, bazterrak bakean egozala jakiñerazoten euskuen, eta bake-giroa ustiatuz, bein baten Iturakú'ra joan nintzan Piru'rekin. Mutillak ondo ezagutzen eban erri ori, eta mugatik urrun ez egoan ezkerro, bigarren egunean eldu gintzazan. Iritxi ta bereala, urrutizkiñez Cuiabá'ko FUNAI idaztegiara dei egiñik, laster entzun aal izan neban Alfredo'ren mintzo atsegiña. Asikerako agur-itzak alkarrri esanda gero,

– Aizu, Antoni –esan eustan–, badakit Yporá ibai-ondoko alagunetan lengo egunean jazo zana, Joao Souza de Araujo Jaunak berak esana.

Nire idaztegiara sartu zanean, mintzo negartsuz jazorikoa edestu eustan. Ederra egin dautsazue, arraioa... ! Ezin bide eraginkorago artu, eta izan be, ondorioek agiri jarten dabe zuzen egon zariela. Ara... mutil on-onaren itxuraz auxe eskatu eustan: ia epaikitat xingureutarrekin itun bat lortzeko gerturik ete nagoan... Nik baitetz, baiña zuzen eta garbi jokatzekotan. Zer deritxazu eskintzeari...?

– Oba ez, Alfredo... !

– Zer-eta gaur amabost “fazenda”n bertan alkartzen ba'gara dalako ituna egitearren...?

– Ederto.

– Beste zer bat, Antoni. Nire ustez egokia izango litzake alderdi bietakuok, iskillu barik agertu zaitezela edozein ezbear jazo ez daiten.

– Zuurra deritxat orreri. Xingureutarren nagusia dan Mbarete, eta beste baserrietako nagusiak batzarrera joango dira neuk lagunduta. Guaniera-biurtzailletzat nire morroia etorriko da.

– Ederto, Antoni. Gaur amabost, beraz, Nossa Senhora do Rosario “fazenda”n alkartuko gara.

– Bai, Alfredo, eta biotz-biotzez eskerrikasko.

– Agur ba, eta laster arte.

Etixerakoan, nire poztasuna menperatu eziñik, Piru jakitun ipiñi neban, eta mutilla benetan ederresten nebanez, eritxia eskatu neutsan.

– Jauna –erantzun eustan–, bake-ituna bearrezkoa da, bai gureztat bai “fazenda”koentzat. Gudea azken urtenbidetzat artu bear da, eta azkenean danak galtzaille. Onezaz gairera, ituna zeuk ontzat emoten ba’dozu, neuk be ontzat emon bear, beti zuzen zagoz-eta.

Piru’re niganako oneritxiak biotza ukutu eustan, eta bera lako morroi bat izatea, zorion andia zala nire buruari autortu neutsan.

Jasy Moroty’ra elduta, Mbarete’ri jazorikoa edestu neutsan, eta bere itxuraz agiri zan, dalako asmoak poztuten ebala. Gero, auxe irautsi eustan:

– Karai Ete, gure ibaietan bakea lortu da, eta orain “fazenda”ko mugan beste ainteste jaristen ba’dogu, gure erria zoriotsua izango da. Mba’e jerohy’yva’era (joputasuna gorrotagarria da). Opa mba’e oho porami, ha’e ou peve (ondo joian dana arrotza etorri arte).

Urrengo egunean, Mbarete’k mezulariak igorri ebazan baserri guztietara, batzar batera dei egiñez bost egunen buruan. Epea igarota, nagusi guztiak tartekoak izanik, azkenengo gertakizunak eztabaidatu ziran, eta batzarkideen eritxiak eskatu ebazan Mbarete’k, bake-itun egokia jaristeko. Luzaro mintzatu zan arazoari buruz, noizean bein eritxia eskatzen eustela, eta noizbait, alde guztiak aztertuta, bat etorri ziran. Xingureutarren eritxiemoillea Mbarete izango zan, eta biurtzaillea, Piru.

Itunaren aurreguneko gaban, basoko mugan alkartu gintzazan bake-itunean tartekoak izango gintzazanok, eta zabaldiko bakean lo-egin ondoren, “fazenda” aldeko ortzia zuri-gorritzen asten zanean, gure taldea abiatu zan. Ipora ibaia zearkatzean, begirari-dorreak azkenengoz ikusita lez egozala egiztatu neban, eta onek poztu ninduan, aurrerantzean Joao Jaunak begirari-dorretzat erabilteari uko egiten eutsala, adierazoten ebalako.

Erabagia lez, ez genduan iskillorik erabilten, eta ibillera nasaiatz goizeko amarretan, “fazenda”ren aurrean gengoan. Eguraldia ederra izanik, etxetik ur egoan beresi baten kokatu gintzazan, inditarrak oi eben antzera kukurio jarten zirala. Andik laster, etxeko morroi batek barrura dei egin euskun, eta atean Alfredo’re n Ongi-etorria arturik, etxeko jatoki ederrera sartu, eta mai-inguruan jesarri gintzazan. Maipuru baten Alfredo egoan, eskoi-ezkerretan On Joao ta Amaro ebazala. Beste maipuruan Mbarete, alde banatan neu ta Piru gengoala. Areto apain aretan inditar nagusiek itxura bakana eskitzen eben, bizitzaren lenengoz besaulki dotore ta erosoak ezagutzen ebezala.

Batzarrari asiera emon eutsan Alfredo’k itzaldi arraitsuz, noizean bein etenaldiak egiñez, Piru’k guaranieraz inditarrak biurtu egitsen. Gero, Joao Jauna itz egiten asi zan, Ypora’raiñoko lurak beretzat autortuz. Ibaiko alde biak inditarrak zirala, erantzun eutsan Mbarete’k, eta ori egiztatuko leukela, bere garaian izenpeturiko lur-marrazkiak. Orduan, Alfredo’k dalako marrazkia mai gairera zabaldu eban, eta abo-bete agiñakaz geraturiko Joao Jaunak, nai-ta-ez autortu bear izan eban ibaiko alde biak inditarrak zirala. Ez dot irakurlea aspertu gura, eztabaida aren gora-beerakaz, baiña ordubete bi ta erdi igarorik,

Mbarete’k nire laguntzaz atondutako itun-asmoa abo batez onartu zan, amaika eztabaida jasan ondoren. Ona emen bake-itunaren zeatzak:

1 – Dalako marrazkiak erakusten ebanez, Ypora’ ibaiaren alde biak xingureutarren jabetasuna ziran.

2 – Xingureutarrek “fazenda”ri emoten eutsoen alde bietako algunen erabilte-eskubidea, basoraiño.

3 – Onen ordaiñez, Nossa Senhora do Rosario’k iru illabetero ogei ta amasei zekor gizen eskuratuko leuskiez xingureutarrai, au da, urtean eun eta berrogei ta lau zekor.

4 – Ez litzakez ezetariko begirari-dorreak jasoko.

5 – “Fazenda”ko zerbitzariak ez leukie su-iskillorik erabiliko ibai-ertzetan.

6 – Edozein eztabaida sortzekotan, Cuiabá’ko FUNAI erakundeak ezinbesteko erabagia emongo leuke.

Agiri onen beekaldean, Alfredo’k eta Joao Jaunak izenpetu eben.

Mbarete’k idazten ez ekian ezkerero, bere orde z Piru’k izenpetu eban, eta jarraian, batzarkideak jagi eta, kanpoan atondutako zekor-errei bikaiña jatera joan gintzazan.

Bake-itunaren eztabaidak irauan bitartean, Amaro Matozinhos’en begi gogorak, gorrotoz beterik neugan untzatuak oartu izan nebazan. Ez nintzakion iñoiz gogokoa izan, baiña oraingo bere erra itzungi-eziña, iñoizkorik bizien sentitzen neban. Etxetik urteteko zorian, nire atzetik Joao Jaunaren itzok aditu nebazan:

– Zatoz, Amaro, erreka bake-ezagarrian jateko.

– Ez, Jauna, norbaiten urretasunak gora-galeak emongo leuskidaz-eta.

Ez neban besterik entzun aal, baiña mingostasuna nitzaz jabetu zan. Bake-itunaren egun aretan, nire inguruan alaitasuna baiño ez neban ikusi gura, Amaro’re niganako gorrotoak ondoeza bakana ekarkidala. Oarpen au nigandik uxatu eziñik, otordu-lekura joan nintzan. Bazkaria aldarerik onenean ospatzen zala, Alfredo’k eta biok erreki gozoari ekiten geutsanean, Mbarete ta bere anaia Tape Puku urreratu yakuzan. Tape Puku’k eraspen andia eustan Amaro’re n eskuetatik jaregin nebanetik, eta aal ebanetan bere atxikitasuna erakusten eustan irribarre zabalaz. Eskuan, geziñoak jaurtiteko putz-kaiñabera (zerbatana) luzea eroian, eta barre-antzean,

– Aizu, Tape Puku –esan neutsan–, erabagia zan batzar onetara iskillu barik etortea.

– Ani eretei pe’va (ez olakorik esan) Karai Ete –berak irribarrez–, eskuan iskilloren bat beti eroaten oituta, kaiñabera onek ibiltzen laguntzen daust.

Alfredo’k gure keiñuakaitik autuaren mamiña ulertu eban, eta niri zuzenduz,

– Izan be, Antoni –esan eustan–, munduko gudarosteek kaiñaberak erabiliko ba’lebez, ez litzake odol andirik isuriko.

Barre egin genduan, eta gero,

– Alfredo –esan neutsan–, ez dakit noiz, baiña egunen baten emendik alde egin bear izango dot, eta auxe eskatzen dautsut bene-benetan: Basa-inditar oneik zure anaiak bai’litzazan babestu dagizuzala. Biotz onekoa dira, garbi ta alaiak, ume antzekoak, arrotzen kutsutik urrun bizi izan diralako. Zaindu egizuz, bai, zaindu egizuz gure anai txikiak bai’litzazan...!

– Nasaitu zaituz, Antoni. Basa-inditarrok izaki ezaiñak billakatuko litzakez arrotzen buztarripean. Zin dagitsut, aaleginduko nazala orain arte lez jarraitu dagien. Bai, nire anai txikiak bai’litzazan FUNAI erakundetik jagon egingo dodaz.

Eskerronez irribarre egin neutsan, eta gero, pozez gainezka egoan Mbarete’rekin aua bateri emon neutsan. Errekiaren ostean guztitariko tropikar igaliak jan genduzan, eta ezinbestekoa zana, mate edari beroari ekin geutsan. Alako baten, Amaro’ren mintzo garratza aditu neban, gorrotoa aurpegian irarrita, ibillera astirotsuz urreratzen yatala. Gero, gelditurik,

– Ona emen Antoni Jauna –esan eustan lurrera txu egiñez–, etoi galanta, mundu onetan etoirik izan ba’da. Asiera batetik suzmo txarrak eragin ninduan inditar zikin onein alde aalegintzen zala ikustean, baiña gau aretan illuntasuna ustiatuz, bere alboan dagoan inditar lapur ezkabitsu ori jareituta, basa-inditarren artean bizi izatera joan zanetik, nire gorrotoak ez dau mugarik ezagutzen. Benetako gizaki batek egingo leukena, gaur egitera nator, bai, inpernurako txartela emotera... !

Au esanik, errebolberrari eutsita, su-egin eban... eta illundietako itzaletan murgildu nintzan. Ez dakit zein luzaro iraungo neban egoera onetan, baiña nire senetara biurtu nintzanean, buruko min itzela oartu neban. Ustekabez, azken aldietako errezel baltza joanda, nire atzokoa argi-argi agertu yatan, mintzo ezkutu batek auxe iñostala.”Baiña Patxi, zer egiten dozu emen, etxetik urrun...?”. Oe baten etzanda nengoan, Mbarete’k eta Piru’k ur otzaz bekokia igurtziten eustela. Poztasun neurribakoak artuta, Mirentxu nire alabearen oroitza etorri yatan, bere begi andiek maitasunez dei egiten eustela... eta gero izeko Yokiñe ikusi neban niri deika be.

– Mbarete –oiu egin eban Piru’k– bizirik dago, bizirik dago... !

– Karai Ete oiuegin eban Mbarete’k–, nda xe kuaáipa nde (ez nozu ezagutzen...?)

– Bai, adiskide, baiña zer jazo da...?

Orduan dana azaldu eusten. Amaro’k su egiteko errebolberrari eusten eustan une berean, Tape Puku’k kaiñaberan beti sartuta eroian geziñoa (dardoa), putz egin eban, eta Amaro’ren idunean untzatu zan, onek su-egiten ebanean. Amaro’ren jaurtikiak apara galduta, lokia zauritu eustan irazezan, eta konortea galduta jausi nintzan nire buruak arrizko mailla bat joaz. Tape Puku’k putz egiñiko geziñoa, baiña, “curare”z igurtzita egoanez, edena soiñaren odol-zirkiñera igaro yakon, eta andik ordu-lauren batera il egin zan Amaro. “Curare”k eragindako eriotza gogoratzean, latz-ikara batek astindu ninduan. Eden orrek kutsuturiko eizakien eriotza sari askotan ikusi izan neban, eta zelan kirioen eragintza apurka-apurka galdurik, soiñaren bizitza itzungiten dan, baiña zentzumen osoaren jabe izanik, eriotza unerik-une urreratzen da, larritasun izugarripean elbarritzen dala.

Mbarete’ren eta Piru’ren laguntzaz, jagi ta leiorea joan nintzan.

“Fazenda”n bertan aurkitzen nintzan, eta Amaro’k zauritu ninduanetik urrengo eguneko goiza zala esan eusten nire adiskideek. Andik laster, Alfredo’k besarkatu ninduan pozez gainezka, eta iradu larriak artuta, bazkaldu ondoren indarrak irabazita, Jasy Moroty’ra biurtzeko gertatu nintzan. Urten aurretik, Alfredo’ri nire eskerrik beroenak

emon neutsazan basa-inditarren alde egiñagaitik. Ez neban gura, baiña, etxe aretatik urten, Joao Souza de Araujo’rekin onezkoak egin barik, eta idaztegiara sartu nintzan. An egoan “fazenda”ko jabea katillu bete kafearen aurrean, zigarro lodi ta usaintsuari must egiñez. Urreratu nintzakion, eta,

– Agur Joao Jauna –esan neutsan–, banoa emendik betirako. Ez neuke, baiña, etsaitzat aldendu nai. Ondo erabilli nozu beti, eta emen zurekin jarraituko neukean, basa-inditarren egoera larria ezagutu ez ba’neu. Gizonak biotzaren eragiñari jarraitu bear dautso, eta nire naimena baiña andiagoo zan areikanako errukiak, “fazenda” onetatik aldendu ninduan. Agur, Joao Jauna, etorteko dan bake-aldian, guztitariko zorion eta onurak opa izaten dautsudaz, eta zezortan iraindu ba’zaitut, barkapena eskatzen dautsut.

– Agur, Antoni, eta joanak joan. Asiera baten gorroto izan neutsun... baiña orain arazoa argiagoo ikusten asi naz. Bake-itunak onura ta nasaitasuna ekarriko dautsoz “fazenda”ri, eta txikiena ez da izango pistolaririk erabilli bear-eza, onek len alperriko diruketa iruntsi eustan-eta. Bai, gero ta argiagoo dakust bake-itunaren alde ona, eta nire emazteak be onartuko dau, bakezale andia da-ta. Itun orren gertukizunetan esku-sartze andia izan dozula begitantzen yat, eta izan be, zuzentzat daukat atal guztietan.

Jagi zan Joao Jauna, eta eskua niri luzatuz,

– Tamal dot joan zaituzala –esan eustan–, Nossa Senhora do Rosario’k arduradun on bat bear dau-ta. Esan bear dautsut, niketz itunaren atal guztiak beteko dodazala. Uste al-doza, ostera, basa-inditarrek beteteko gerturik dagozala...?

– Bai, benetan, ondo ezagutzen dodaz-eta. Gaiñera, betekizun ori euron onerako izango da. Agur, Jaungoikoak lagun.

Bostekoo emon geutsan alkarri, eta lekorean nire adiskideekin batuta, alagunetan zear basorako zuzenbidea artu genduan. Iru egunen buruan Jasy Moroty’ra eldu gintzazan, eta biaramonean, jai andi bataz bake-ituna ospatu genduan.

Ezin nengikean, baiña, maite-maite izan arren xingureutarrekin jarraitu. Ezin egon larripean bizi izaten nintzan, Mirentxu ta izeko Yokiñe ikusteko irrikak menperatuta. Jai izanda ta urrengo egunean, nire egoerea Mbarete’ri azaldu neutsan, eta aalik ariñen etxera biurtu nai nebala. Orduan Mbarete’k,

– Zoaz lenbailen, Karai Ete –esan eustan–, eta ekarrizuz ona gurekin bizi izatera, gure erriak bear zaitu-ta.

– Aizu, Mbarete, zeu gerturik al-zagoz, emendik urrun bizi izateko...?

– Ez.

– Ba, neu bardin.

Nireak eta asto baltzarenak jasan bear izan nebazan, Mbarete’ri burura ekarteko nire asmoak benetakoak zirala, eta noizbait, amor emonda, auxe itaundu eustan:

– Noiz joango zara, Karai Ete...?

– Iru egunen buruan, baiña orren aurretik mezede bat eskatu gura dautsut, eta auxe alegia: Piru nire zerbitzariari baimena emon dagiozun, zure alaba Yvoty Moroty emazteztat artzeko. Benetan diñotsut, adiskide ori, bera lako onulari eskolatua bear dau zure erriak, dagokiozan erabakiak artzeko, eta edonora joateko xingureutarren ordezkariatzat.

– Yvoty Moroty, inditar neskarik ederrena Piru'rentzat izango da, arek zure zerbitzaria maite ba'dau.

– Biontzat ona izango da alkartasun ori, baiña zuretzat batez be, errirako onulari argia izango dozulako, eta gaiñera semetzat irabazi.

Gau aretan jakiñerazo eustan Mbarete'k, urrengo egunean gazte bien ezkontza izango litzakela, eta egundoko jaiak jarraituko leuskioela. Biaramonean goizean, xingureutarrren erataraz ezkondu ziran Piru ta Yvoty Moroty. Enparantzaren inguraketea eskuz-esku egiten ebela, neskatillek lora-atalak burura jaurtiten eutsiezan, inditar eresi samur zoragarriak abestuz. Enparantzaren erdian, Mbarete ta biok jesarrita gengoan, baserriko nagusiek inguratuta. Lora-atalen jaurtiketearen ostean, ezkongaiak eskuari oratuta urreratu yakuzan, eta Mbarete'ren aurrean buru-makur geratu ziran. Orduan Mbarete'k Piru'ri

– Mamoy guápa nde (nongoa zara...?)

– Guaraniarra nozu

– Mba' eixapa ne ko'e (ze izena dozu...?)

– Piru.

– Tuvixa (andia da) guarani erria. Mba'epa reipota (zer nai dozu...?)

– Yvoty Moroty emaztetzat maite dot.

Orduan bere alabeari mintzatuz,

– Mba'epa eve nde (eta zeuk zer diñozu?)

– Neuk be maite dot.

– Benetan...?

– Xe py'aite guive (biotz-biotzez)

Orduan Piru'ri,

– Eta zeuk...?

– Ñamano meve (eriotzararte)

Au entzunik, Mbarete'k gazte bien eskuak berenetan artu, eta aurpegia zerurantz jasorik, auxe aldarrikatu eban:

– Jasy Moroty remaña mombyr'yva xerehe rehóvo (urrundik begizatzen nozun iretargi zuria), buztartu egizuz gazte biok betirako.

Au entzutean, zaar-gazte-umeak didar bizitan asi ziran, eta orduan Mbarete'k ezkon-barrien buruetan lorazko burestun bana jarri eutsen, eta jarraian,

– Ugaldu zaitze –esan eutsen– basoko ostoen edo txorikumeen antzera, xingureutarrren erria iraunerazoteko.

Orduan ikusleek didar baten:

– Ko'ê po'a (goiz zoriontsua... !), ko'ê po'a

Onen ostean, eztegu-oturuntza ugariak ospakizunari amaia emon yakon, eta illuntzean, ezkon-barriak eurontzako berariz eraikitako txabolara sartu ziran. Aurrerantzean, txabolaz gaiñera, erriko baso-soil andian, lur-zati bat jabetuko eben, mandioka, lur-sagararak, eta artoa azteko.

Biaramonean, Mbarete'k eta Tape Puku'k lagunduta, Jasy Moroty'ko inguru zoragarriak ikertu nebazan azkenengoz. Irurok ezin gengikean ezkutatu menperatzen gindu-

zan kadena, eta biotzaren naigabea zala-ta, ez genduan berba askorik esan. Gabean, apostolean, Mbarete'k auxe irautsi eustan:

– Karai Ete, gure lurraldearen egoko mugaraiño lagunduko dautsut. Andik aurrera gidari batek Corumbá'raiño. Badaezpadakoan on izango yatzu errifle bat eroatea.

– Ez, Mbarete, ez dot iñongo erriflerik eroango. Dozuzan ogetak bearrezkoak dozuez arrotzakandik etorri daitekezan erasoai jarkiteko. Errebolber bat naikoa izango da niretzat. Auxe diñotsut baita be: jaurtikiak (balak) ez erabilli arrotzen aurka baiño. Erria eizakiakaz janaritzeko, erabilli egizuez aztamakillak eta uztai-geziak, orain arte egin dozuen lez, baiña gorde “kaiñabera durundutsuak” benetako burrukarako. Reikuaápa ha'ea (ulertu daustazu...?)

– Ha'e (bai) Karai Ete. Itxaron apur baten.

Au esanik, txabolara sartu, eta barriro agertu zan eskuan urre-katanarrua ekarrela.

– Eutsi bidegiterako, Karai Ete.

Alperrikoa izan zan nire jarkipena berarentzat gorde egian, eta ez neban beste bideirik izan, amor emon baiño.

– Gabon, Karai Ete –agurtzat esan eustan–, ondo lo egin azkenengoz basa-inditarren ortzi ederraren pean.

Eztarrian korapillo bat eratzen yatala, ez nintzan gauza izan ezer esateko, eta nire txabolara sartu nintzan.

Biamonean, zeru oztin gardenpean, Mbarete, Tape Puku, eta beste inditar nagusiekin egorantza abiatzeko zorian nintzala, Piru agertu zan, eta,

– Agur, Piru –esan neutsan–, zorian bete-betea opa izaten dautsut. Goraintziak Yvoty Moroty'ri zure emazte zoragarriari.

– Ez Jauna, agur ez, zeurekin noa-ta.

– Badaukat aurrelari edo gidaria Corumbá'raiño. Geratu zaitetz Yvoty Moroty'rekin.

– Berarekin geratuko naz, zu laguntzetik natorrenean. Jauna, ez dautsut iñoiz gauzarik eskatu, baiña gaur zurekin joaten lagateko, erregutzen dautsut.

— Tira ba, Piru. Izan be, zure laguntza niretzat pozgarria da.

Une aretan, arrapalada baten Yvoty Moroty etorri yatan, eta nire eskuari mun egiñik,

– Agur, Karai Ete –esan eustan txeratsu–, zoriona zor dautsut, Piru senartzat emon daustazulako. Bere biurpenaren zain egongo naz. Agur, eta bidegite on...!

– Agur, Yvoty Moroty, tropikar lora bardinbakoa –esan neutsan–. Guaraniar zeruko izarrak zure aldean zurbiltzen dira. Juru pukavy poty porā (loraren irribarreko abo ederra), senarra besoetara biurtuko yatzu– Agur...!

Eta Jasy Moroty'ko nagusiekin, orpoz-orpo Piru'k erraikidala, egorantza bideratu gintzazan. Andik iru egunetara mugara elduta, alkarri agur esateko garaia eldu zan. Gure aurrean, Brasil'go bitxia zan zingirategia (El Gran Pantanal) begimenaren muga baiño arantzago edatzen zan. Mbarete'k eta bere lagunek, euren bidaldia amaitu izan zala ezaugarritzat, aztamakillak lurrean sartu, eta geldi-geldi geratu ziran. Orduan Tape Puku'k,

– Agur, Karai Ete –esan eustan–, beti-beti biotz eta gogoan izango zaitugu, neuk batez be, bizitza zor dautsut-eta.

– Baita neuk be zor dautsut, Tape Puku, zure putz-kaiñaberari esker.

Gero, Mbarete urreratu yatan zeozer esateko naiaz, baiña ezin, biotz-ikara batek jo-ta egoan-eta. Barruko eragintza bateri jarraituz, xingureutar nagusia estu-estu besarkatu neban une luze batez. Orduan oartu neban, berak isuritako malko batek matrailla bustiten eustala. Izan be, Mbarete'ren zarrastadea itzela izan bear, basa-inditarrek malkoak ez dabez ezagutzen-eta. Aurpegian beera negar-arpuluak eridazan mara-mara, eta neu be, berba egin eziñik, ustekabez besarkadea lazotuz, egorantz, nire jo-mugarantz abiatu

nintzan, eta andik laster, ganetxu batetik atzera so egin neban. Orduan bertan, xingureu-
tarren taldea basora sartu-agiñean zan, eta biotzean gora, negar-zotin bat etorri yatan,
nire maite areik, nire anai txikiak azkenengoz ikustean...

Zingirategia edo "El Gran Pantanal" Brasil laterriak babestutako lurralde andi ta
zoragarria da, guztitariko egaztiak bizi dirala, baita jacarék (kokodriloak), oreiñak, uga-
derak, boak, tximiñoak, jaguarak, pumak eta abar. Bagenduzan, beraz, guztitariko eiza-
kiak gure aukeran, eta uztaiaz oso trebea zan Piru'k, bear izaten genduan beste janaria
arrapatzen eban.

Arratsalde baten, lo-egiteko ibai baten ertzean geratu gintzazan, eta arrats -beera
aretan eguzkia odol eta urrezko aintzan ostendu-agiñean zala, gugandik irurogei bat me-
trora egoan atx txiki baten erpiñean, puma yaukal baten irudia islatu zan. Oldez, eiztari
porrokatua zan Piru uztaian gezi bat ipiñita, jaurtiteko gertatu zan. Pumaren irudi yauka-
lak lilluratu ninduan, eta abopeka,

– Aizu, Piru –esan neutsan–, lagaizu bakean, aske ta zoriotsua bizi daiten, zuek in-
ditarrok bizi izatea merezi dozuen lez. Olako abere bikaiña erailtea, zuen lurretik bitxi
eder bat ostutea lakoa da. Puma bikain ori, zuen endaren ikurra deritxat.

– Egia diraustazu, Jauna–. Aurrerantzean ez dot olako basabererik ilgo.

Eta egunik-egun, bagiñoazan lurralde zoragarri aren zear beti egorantza. Bein baten,
eguzkiak bero-bero joten ebala, beresi bateko gerizpean atsedenaldia artzea erabagi neban.

– Jauna –esan eustan Piru'k–, zuk atsedean artu bitartean, eizakiren baten billa joan-
go naz bazkaria atontzeko.

– Entzun, Piru, badaezpadakoan eroan egizu nire errebolberra, orain bearrekoa ez
dot-eta.

Joan zan, eta erdi-lo geratu nintzan. Alako baten, zaldien lauazkaren otsak iratzarri
ninduen, zaldizko bi urreratzen yatazanean. Nire ondora elduta, gelditu ziran, eta areita-
riko batek,

– Zertan diarduzu emen, lagun –itaundu eustan–.

– Berotik igesi.

Ez yatan bape atsegin gizon bi arein itxura zakarra, eta uts emon neutsan errebol-
berrari. Orduko, zalditik jatsita,

– Aizu, lagun –esan eustan begitarte gaiztoaz–, alagala zatozkigu, Corumbá'n gure
biziko jolasa izan nai dogu, baiña ezkurrik gabe gagoz.

– Nik ez daukat dirurik –esan neutsan–.

– Ori laster ikusiko dogu. Aizu, Pedro –lagunari zuzenduz–, lotu zugaitz orretara,
eta arakatu dagigun.

Ez neban jarkiterik, su-iskilloaz zemaitzen ninduan-eta. Enborrean lotu ninduen,
eta dalako Pedro'k nire sakelean urre-ziskua idoro eban.

– Ez dau txarto emoten urre-pillo onek.

Orduan, gaizkille areik txutxumuka asi ziran. Niretzat argi egoan autuaren gaia: ni
erail ala ez. Ziur nintzan garbituko nindukiela ostuketea salatu ez nengian, eta ezinbes-
tez, Piru'ren arreta irabaztearren karrasika asi nintzan:

– Ez egidazue kalterik egin, eta erakutsiko dautsuet non aurkitu dodan urre-pillo
au...! Eurrez aurkituko dozue zenbat-gura urre, bizitzaldi guztian aberats izateko beste.
Arren, lagunok, ez egidazue kalterik egin...!

Gaizkilleek euren arteko txutxumutxuari jarraitu eutsoen, nik didar egiteari emoten
neutsala, izuak jotakoa egiñez, bein eta barriro urre-pillo andiak eskintzen neutsezala.
Noizbait, dalako Pedro errebolberra eskuan ebala urreratu yatan, eta,

– Nire lagunak eta biok zu erailtea erabagi dogu, ostantzean, Corumbá'ra eltzean
salatuko gindukezuz.

Nik, baiña, karrasika ta arrenka erail ez nengien gero ta ozenago. Alako baten, au-
rreko sastrakaren artean, zerbaitek zirkin egiten ebala begitandu yatan. Pedro niganantz
biurtzen zanean su-egiteko asmoz, danbada bat aditu zan, eta tximistak jota lez, gaizki-
llea amildu zan. Onen laguna zapart egiñez biurtu zan, aurpegian zear izua agiri ebala,
eta ezer egin aurretik, bigarren danbadaz batean, bere lagunaren gorpuaren ondoan illik
jausi zan. Iskilloari oratuz urreratu yatan Piru, eta zauskada andipean,

– Mugonez agertu zara –esan neutsan–, neureak egin ebala uste nebanean...!

– Orein baten atzetik niñoanean, zure didarrak aditurik arrapalada baten etorri naia-
tzu, baita garaiz be dirudianez.

Au esanik askatu ninduan, eta,

– Garaiz eldu zara, Piru –eskerronez esan neutsan–. Alde egin dagigun toki gorro-
tagarri onetatik. Izan be, jateko gogoak kendu yataz. Eroan dagiguzan ildako bion iski-
lloak xingureutarrentzat.

Urre-ziskua ta gaizkilleen iskilloak artuta, bidegiteari jarraitu geutsan. Orduko,
eguzkia sartalderantz makurtzen zan, eta beroa zeozer arinduta, beresi aretatik urrundu
gintzazan. Gau betean Corumbá'ra eldu, eta ostatu baten kokaturik, aparti ugaria izan
genduan, eguneko baraua aztuteko beste. Amaitzean,

– Aizu, Piru –esan neutsan–, biar goizean goizik Paraguai ta Arjentiña'rako izango
naz. Iraduak artuta, ez naz gauza izango nire oldozkunak taiutzeko. Orregaitik, auxe da
unerik egokiena alkarrizketa bat izateko.

Isildu nintzan une batez, eta katanarrutik urre garau gitxi batzuk niretzat artuta, en-
paraua eskuratu neutsan auxe niñotsala:

– Eutsi urre-ziskua, Piru. Niretzat garau batzuk artu dodaz etxerakoa egiteko, eta
enparaua Mbarete'ri eroango dautsazu. Xingureutarrek ez dabe iñoiz dirurik erabilli,
baiña aurrerantzean bearrezkoa izango yake errifleak eta jaurtikiak erosteko. Su-iski-
lloak, baiña, ez dozuez erabilliko, arrotza zuen lurraldetik uxatzeko baiño. Egunoroko
janaria lortzeko uzta-geziak erabilliko dozuez. Eskolatu zaitut, Mbarete'ri ta ta onen
erriari laguntza emon dagiezun estualdietan. Zerbaitek badiñost egunen baten xingureu-
tarren nagusia billakatuko zarala, iñor ez da-ta zu baizen ondo gerturik betekizun orreta-
rako. Oso garrantzitsua da baita be, inditar guztiak batuta jokatu dagizuela beti, batas-
nak indarra baidakar, eta orretarako aalegiñik andienak erabilliko dozuz, zuen askatasu-
na orretan datza-ta. Berez onak dira xingureutarrak, eta bai arimaz bai soiñez beti garbi
iraun dagien saiatuko zara.

Isildu nintzan une batez, eta gero,

– Maite-maite zendualako –jarraitu neban–, Mbarete’ri eskatu neutsan bere alabea emaztetzat emon egitsun. Neskatilla orrek lore baten izena dau, eta lora ori baizen ederra ta apala da. Maite egizu beti, gizon batek bere seme-alaben ama maite bear dauan lez, eta ordainez aren maitasun bizia zuretzat izango da betirako. Egunen baten zure semetarik bateri Patxi dan nire izena emon dagiozula eskertuko neuskizu...

– Zin dagitsut, Jauna –eten egin eustan Piru’k–, nire lensemeari, Patxi zure izena emongo dautsadala.

Orduko dana esanda egoan, eta,

– Agur, Piru –esan neutsan–. Biar egunsentiaz batean jagiko gara, ni egorantz joateko, eta zu iparrerantz, ostera.

– Agur, Jauna, zure Jaungoikoak gorde zagizala.

Ames pozgarriak izan nebazan gau aretan etxean nintzalakoan, eta egunsentian ezifnegonak artuta, jagi, eta arrapalada baten garbituta, gosaria izateko ta Piru’ri azken agurra esatearren, jatokira jatsi nintzan. Mai-aurrean Piru’ren begira nengoala, maitzain bat urreraturik, eskutitz bat emon eustan esanez,

– Bart zu oera joanda gero, idazki auxe emon eustan zure morroiak, gaur goizean emon nengizun.

Sentipen bakanak artuta, estalkia urratu, eta auxe irakurri neban: “Jaun maitia, au irakurri orduko, ordubete asko izango dira etxerako bidean noala. Gaur, alkarri agur esateko eguna zan, baiña naiago izan dot beste barik ostentzea, nire bizitzaren lenengoz, emondako berba janez. Aurpegiz-aurpegi zeuri agur esatean, negarrari emongo neutsan, eta neu lako inditar batek ez dau malkorik isuri bear. Badakit semetzat izan nozula, baiña niketz esango dautsut, aita maitekortzat izan zaitudala, eta alkarrekin bizi izandako aspaldi luzean, nire aurka itz bat bera be ez dautsut entzun. Eskolatuz gaiñera, jakituriz jantzi nozu, eta zin dagitsut ori dana xingureutar erriaren onerako erabilliko dodala, zure gurariari jarrituz.

Eta azken unean, nire zoriona oroz gain kontuan arturik, maite dodan lorea emaztetzat lortu daustazu. Umi pytu yvága (Zeruko espirituek) gorde zagiezala, eta zoriona ekarri dagizuela. Egunen baten, basa-inditarren zerupean, nire lensemeari, Patxi’ri, zutzaz mintzatuko natzaio, eta zeuk niri irakatsia bere ariman ereinduko dot.

Agur, Karai Ete, ez dot gura izan nire begietan malkoak ikusi zengidazan, baiña nire biotzean, eta xingureutarrenetan iraungo dozu betirako. Ani nde resarái xehégui (Ez zaitez nitzaz aztu).

Piru”

Idazkia irakurri nebanean, malco isillak aurpegian beera jausten yatazan, eta idazkia arduraz tolestuta, arkondararen sakelera sartu neban, eta astirik galtzeke abiatu nintzan. Paraguai’ren uriburua dan Asuncion’era joan nintzan, eta gero Paraná ibaian beera Rosario’ra eta emendik burdinbidez Buenos Aires’eraíño. Bataz beste, amabost eguneko bidegitea Corumbá’tik. Arjentiña’ko uriburura eldu ta urrengo egunean, “Mendigarai” itsasontziaren ordezkariakana joan nintzan, eta emengo arduradun nagusia nor nin-

tzan jakitean, “aitearenka” asi zan beste munduko agerpena bai’nintzan. Ordubete bateko alkarrizketa berarekin izanda gero, andik bost egunera “Mendigarai” ontzia an bertan kairatuko litzakela jakiñerazo eustan. Ordezkarien idaztegitik urten baiño ez, bidalgo etxe baten, urrutidazki bat igorri neban etxera, jakiñerazoz, iru astebeeten burura elduko nintzakela.

Bost egun areitan, aspaldiz ezagaturiko bazterrek ikertu nebazan, aztu barik, jakiña, Moises, La Boca’ko antxiñako adiskide ta dendari judutarra. Eldu baiño ez, pozez gaiñezka alkar besarkatu genduan, eta eguberdia izanik, inguruko jatetxe batera dei egin eustan.

– Izan be –bein eta barriro esaten eustan–, beste mundutik etorritako zure mamua ikusten nebala begitandu yat ikusi zaitudanean. Baiña nondik demoniño ibilli zara azken urteotan...?

Bazkaldu bitartean, jasandako gora-beerak edestu neutsazan, berak abo-zabalik begizatzen ninduala. Gero, edeskiari jarraitu neutsan illuntzerarte, eta joateko–zorian nintzanean, urrea zorrean emongo leuskidala eskiñi eustan, baiña nik ezetz, oraindiño ez nekiala zeri ekin-eta. Besarkada estu bataz agurtuta, “urrengorarte” alkarri esan geutsan, eta ostatura biurtzean, nire buruari niñotsan, Moises judutarra benetako adiskide nebala.

Aginduta lez, boskarren egunean Mendigarai kairatu zan, eta zurubia ipiñi baiño ez, arrapalada baten igon, eta Leontzi elantxobetar adiskide ta ontzi-nagusia pozez gaiñezka besarkatu neban.

– Patxi, denganiño ori...! –irribarrez esan eustan–. Neure poza ontzi-jabeen urrutidazkia lengo egunean artu nebanean, emen zengozala jakiñerazoz...! Gerturik dozu logela ontzi onetan, etxerakoa egiteko. Azken urteotan iltzat izan zaitugu, baiña izan be, beti egosgogorra izan zara, arlote ori...!

Berarekin eta ontziko beste nagusiekin bazkaldu neban aldarterik onenean, eta gau aretan nire bide-zorroa ostatutik ekarrita, ontzian lo egin neban. Iru egunez, kairatuta iraun genduan, eta noizbait, Rio de la Plata’n beera abiatu gintzazan, zubian iraun nebala Ego-Amerikako lurra ezabatu arte. Etxerako bidegitea guztiz atsegiña azaldu zan, otorduetan maikideak nire ezpanetatik dilindan nebazala, jasandako nire gora-beerak entzunez. Arin joiazan egunak, eta arratsalde baten aberriko itsasaldea ikusirik, urrengo goizean ibaian gora, ondo ezagutzen neban naxan ontzia kairatu zan.

Zurubia jarri baiño ez, nire begira egozan Mirentxu ta izeko Yokiñe besarkatu nebazan. Iru urte areitan Mirentxu biurtu zan ederra...! Orduan itzitako pipilla larrosa yaukala billakatua zan, eta bere begiak ikustean, biotz-ikara batek artuta, nire Gaizkane aztu-eziñaren betsein eder-ederrak aurrean nebazala iruditut yatan. Bein eta barriro, nekatu barik begizatzen neban, eta nire buruari esan bear neutsan, ez egoala munduan bera lako neskatillarik, ez urrik emon be...! Gero, Yokiñe’gana biurtu nintzan, eta zauskada batek artuta, urteen igarotze zakarraren aztarnak agiri ebazala egiztatu neban. Aurpegiaren zimela, eta begi nekatuen inguruko zimurrak...! Azken urte areik berarentzat ez ziran zoriontsuak izango, lobearentzat aaleginduz ikasketak burutu egiazan, eta nire eriotzaren mamua gogotik kendu eziñik. Onezaz gaiñera, begiratutxuan edo apapuan bizi bea-

rra... Bere aurpegi nekatuaren itxurea ikustean, iñoizkorik argien ikusi neban emakume andi aren buru-ukapena neskatiilla zanetik ona. Asiera baten, amabako billakaturiko bere loba Gaizkane zainduz, gero bere anai Yulen geisotu zanean, eta geroago Gaizkane joan zanean, nire alaba Mirentxu bere ardurapean artu bearra... Bizitzaldi osoa, lagun-urkoari emonda iraun izan eban, eta zer esanik ez, azken iru urteotan jasandako nekaldia...!

Baiña axe ez zan jasandako zorigatxak burura ekarteko unea, eta taxi bat artuta, pozez gaiñezka Klare Done enparantzako gure etxera joan gintzazan. Zauskada andipean sartu nintzan biotzean bizi-bizi neban egoitza maitiara, eta itz bat bera be esateko gauza ez nintzala, etxe aretako txoko guztiak begiztatu nebazan, biotz-ikara esan-eziñak artuta. Orduan izeko Yokiñe'ri auxe esaten entzun neutsan:

– Gau luze-luzearen ostean badirudi, noizbait, zorionak etxe au ikertzen dauala...!

– Bai, izeko, munduan geien maite dodazanak, Jaungoikoak atzera emon daustaz.

Neugana erakarri neban Mirentxu, eta besarkatzen nebala,

– Zeu ta izekorekin –esan neutsan– iñoizkorik zorionsuen oartzen naz, eta dana ontzat emoten dot, zuek barrero ikustean.

Jarraian bazkaldu genduan, eta izeko Yokiñe'ri jasandakoaren barriak eskatu neutsazan.

– Ara, Patxi –esan eustan–, zeuk itzitako diruaz, eta etxea gure jabetasuna zan ezker, diruari begiratzuz iru urteok igaro aal izan doguz, kontuan artuta, gaiñera, Mirentxu'k ikasketak zelan edo alan jarraitu bear ebazala. Baiña Jaunak estualdi onetan lagundu dausku, bear genduan joste-lana etorri yat-eta. Olan ba apapuan bizi izan gara, baiña esan dagiketsut, iru illabete barruan Mirentxu'k andereiñoaren agiria lortuko daua-la, baita eritxirik onenakaz lortu be.

– Izeko–esan neutsan–, zelan ordainduko dautsugu zeuk egindakoa...?

– Jaungoikoak ordaindu daust onezkero, zeu bizirik ikustean batez be.

Orduan gomutara etorri yatan, iru urte lenagoko azken itsasaldiaren aurretik, diruketa polita jabetasun-zatietan (akziñotan) erabilli izan nebala, eta orduan,

– Entzun izeko –gogora ekarri neutsan–, azken itsasaldia egiteko zorian nintzala jabetasun-zati batzuk erosi nebazan, eta bizi izateko lagungarriak izango yatzuzan, ezta...?

– Ezelan be ez, Patxi, ogasun ori egunen baten Mirentxu'rentzat izango da, eta ukutu barik dago.

– Baiña izeko...! Ogasun ori larrialdi bateri aurre egiteko zan, eta ez apapuan bizi zeintezan...!

– Jaungoikoari esker, polito konpondu gara aurrezki batzukaz eta bezeroek agindutako lanakaz.

Ederrespenez begiztatu neban, eta nire buruari esan neutsan, nekez ordaindu aal izango neukela emakume andi arek gure alde egiñikoa.

Egun zoragarriak igaro nebazan Mirentxu ta izekorekin. Nire alabea egunoro ikastegira joian, laster baimenduko (lizenziatuko) zan-eta.

Zer egiterik ez neban ezker, uriko bazterrak ikertu oi nebazan, lengo aldiak gogoratzuz, ogei urte lenago Gaizkane'rekin ibillitakoak batez be. Jabetasun-zatien egoerea-

ren argibideak eskatu nebazan, eta arrituta egiztatu be, diruaren kopurua neuk uste izandako baiño andiagoa zala. Zati batzuk saldu nebazan, eta dirua izekori emon neutsan esanez,

– Begira, izeko Yokiñe, datorren astean itsasoratuko naz ostera be, baiña ordua da joste-lanari uko egin dagiozula, zure begiak orretarako orain ez dira gauza-ta. Ona emen diru au aspaldi baterako.

– Orren laster joango zara...?

– Bai, gaur zortzi “Mendigarai” itsasoratuko da, eta ornitzaille edo mayordomoaren jarduna eskiñi daustenez ostera be, ezin eskintza orreri uko egin. Augaitik ba, eta nire irabazteak etxera bialdu artean, diru onen bidez nasai bizi izango zarie.

– Eta Mirentxu'rentzakoa...?

– Ez larritu, izeko, zeuk uste dozun baiño askozaz geiago daukagu.

Urrengo egunetan, itsasontziaren orniketeari emon neutsan, eta luzaro barik, urtete-ko eguna etorri yatan. Goiz aretan Mirentxu ikastegira joan-agiñean zala,

– Agur, aita –esan eustan–, noiz arte...?

– Bost astebeteko itsasaldia izango da.

Besarkatu ninduan estu-estu, eta,

– Ez aztu, aita, iru illabete barik nire ikaste-agiria jaritsiko dodala, eta jai orretarako emen bear zaitut.

– Bai, Mirentxu, ereti orretarako emen izango naz.

Eta ostera be, itsasoaren ur kresaltsuak ildokatu nebazan, oiko jardunari emonda, eta betikoa oartzen nintzala.

Egunak joan egunak etorri, uste izan baiño len, iru illabeteok igaro ziran, eta mai-su-andereiñoen ikastegian Mirentxu'k bere ikaste-agiria artuko eban garaiari nire atsedena naldi bat egokiturik, udabarriko goiz eguzkitsu aretan, izeko Yokiñe, Mirentxu, eta irurok ikastegira abiatu gintzazan.

Ikusleakaz beteriko areto andian, gure Mirentxu bere agiria artzeko maipurura urreratzen zanean, ederrespen suzmurra aditu zan, eta agiria artuta bere lekura biurtzen zanean, aren jasa ta edertasunak ikusle guztien txalo ta begikadak bereganatu zituan. Mirentxu zan ederra...! Arrotasunak menperatuta besarkatu neban guztien adikunea gurgana josita egoala, eta ain zuzen be, nirekiko autortu bear izan neban, neskatilla gitxi, iñor ba'zan, berarekin kidetu zeitekean.

Jatetxe on baten gure biziko bazkaria izan genduan, eta gero, egurastegitik osteratxu bat eginda, etxeratu gintzazan. Eguraldi epel eta eguzkitsua izanik, Klare Done enparantzara begiratzen eban sapaillaren ondoan jesarri gintzazan, eguneko gora-beerak aututzat artuta. Alako baten, aspalditik miiñaren muturrean yabildan itauna jaurti neutsan nire alabeari.

– Aizu, Mirentxu, orain agiria lortu dozun ezker, zein asmo darabiltzu...?

– Aspalditik asmo bat yabilt gogoan, aita, baiña bildur naz...

– Zeren bildur, alabatxua...?

– Zure bildur naz, aitatxu.

Itxura ez-oiuaz begizatzen ninduan, eta arrenkurak artuta,

– Ez dot ezelan be gura –esan neutsan–, nire bildur izan zaitezala, zure zoriona oroz gain gura dot-eta. Esan, Mirentxu, zein da zure asmoa...?

– Lekaime mixiolaria sartu gura dot.

Itzok entzutean, oiñaze larria nitzaz jabetu zan, eta zer esan ez nekiala, aurpegia eskuen artean une luzea iraun neban etsiak artuta, nire ames kutunak ondatuta ikustean. Mirentxu'ren izaerea garatzen zala, ames bat nire baitan eratzen asi izan zan, eta auxe alegia: garaia etorrita, mutil on batekin ezkondata, zartzarora alaituko leuskiden billobatxuak ezagutuko neukez, eta aitita Patxi'ren gora-beerak entzuteko abo-zabalik nire inguruan izango neukez, zartzarora udabarria biurtuta... Orain, ordea, ez billobatxurik, ez etxeko sute epelik, ezta alabarik be, nigandik urrun mixiolaria joango zan-eta. Bakartasuna barrero be... noiz ezagutuko neuke zoriona...? Zorion bidaide bakana...

Une aretan Mirentxu'k nire billoak laztanduz,

– Aita –itaundu eustan –zer deritxazu nire asmoari...?

Burua jaso neban, eta nire begietan, antza, meperatzen ninduan atsekabe bizia irakurtean,

– Ez zaitut olan ikusi gura, aita, zure alde otoi egingo dot bakartasuna arindu dakizun.

– Bakartasuna... Orra or nire bizitzaren patua...! Beti bakarrik bizi bear au...! Ume-tandik oraiñarte ez dot besterik ezagutu orixe baiño. ! Txinpartak lez noizean bein zorion-apurrak ezagutu dodaz, baiña etorri baizen arin ezabatu yatazan. Nire azken itxaropena zeugan ipiñita neban, baiña ori be galdu dot.

– Aita, ez olakorik esan...! Ara... zurekin geratuko naz zeuk nai dozun arte. Ezin dot jaritsi nire zoriona, zure naigabearen ordaiñez. Ez, aita, ori ezelan be ez...!

Negar-zotin eutsi-eziña biotzetik begietara yatordala oartu neban, eta Mirentxu'k ikusi ez egidan, jagi, eta atxakiren bat emonez, kalera urten nintzan.

Ez naz gogoratzen nondik izan nintzan ibillaldi alderrai aretan, baiña noizbait, patuaren eragiñak, ondo ezagutzen neban egurastegiko aulki batera eroan ninduan. An bertan, ogei urte lenago, zorion-uneak ezagutu nebazan Gaizkane'rekin egurasten niñoala. Illuntzeko itzalak bazterrak ezabatzen ebazan, eta oiñazeari bide emonez, zer egin ez nekiala, barru-miñak eraginda nire emazte aztu-eziña gogoratu neban,

– Gaizkane, nire maitia –dei egin neutsan–, lagun egidazu gaurko ereti larri onetan. Zoriona ekarri zeustan bein, baiña une laburraren ostean, bakartasuna. Joan aurretik laga zeustan gure alaba maitagarria, ordutik itxaropena izan dot, eta orain berak be bakarrik itziko nau. Noiz amaituko au nire ibillaldi mingotsa...? Noiz alkartuko naiatzu, nire maitemaitia...?

Itzalek dana irusten ebenean, mintzo maitagarria entzuten nebala iruditu yatan, ogei urte lenago eriotzak kendu eustan mintzo aztueziña.

– Patxi nire maitia –esaten bide eustan Gaizkane'k–, danok gure edontzi bete edan bear dogu. Zeuri etorri yatzu bakartasun-ontzitik edatea, baiña zure alde aaleginduko naz mingostasun ori gozotasuna biurtu dakizun. Jaunaren deia oartzean, Mirentxu'k ez dau beste zorionik ezagutuko, bide orretatik datorkiona baiño. Laga egizu dei orreri jarraitu dagion, ez ito maitasun-lora baten amesok. Eta oroz gain ez aztu auxe: zure buruaren ukapen orretatik, egunen baten zoriona etorriko yatzu, mundu onetatiko bidegitea amaitu dakizunean batez be...

Etxera biurtzen nintzanean, oiñazea baretzen joiakidala begitandu yatan, eta apalostean, Mirentxu banazean artuta, auxe esan neutsan:

– Gogoan erabilli dot zeuk niri gaur esanikoa, eta nire baietza dozu asmo ori egi biurtzeko. Mixiotara joan zaitekez noizgura.

– Baiña aitatxu, ez zara bakarrik oartuko...?

– Ez, Mirentxu. Gaur asiera baten nik esandakoak, arintasunak eraginda izan dira. Gero, otzean ikusi dot, zeure deiari jarraitzea onena izango dala, eta ziur nago, zure ama zanak nire erabagi au ontzat emongo dauala. Sartu zaitekez mixiolari, beraz, nai dozunean.

– Au nire poza, aita...!

Atsegiñez gaiñezka besarkatu ninduan, begi eder illunetan zorion-txinpartak agiri ebazala.

– Gaiñera, Mirentxu –esan neutsan–, zure doterako beste ta geiago badaukagu. Alde onetatik beraz, ez larritu. Noiz joango zara mixiotara...?

– Lenengo, aita, sei illabete, lekaime-gaitzat emon bear izango dodaz, eta epe au amaituta, mixiolari joango naz, eta garaia yatordanean, ziñitz nagusiak an bertan egingo dodaz.

Mirentxu lekaimetxera sartu arte, etxean geratzea erabagi neban, eta astirik gal-tzeke bere arrioa atontzen asi zan. Illabete bi geroago, Andoni Deunaren egunean, sarrera egiteko egun berezia izanik, izeko Yokiñe'k eta biok lagundu geutsan, eta alkar besarkatu ondoren, atea itxi zanean itun eta atsekabeturik etxera biurtu gintzazan izeko ta biok. Ez genduan berba askorik esan, baiña gau aretan apalostean, izekok,

– Orain, Patxi –itaundu eustan–, zer dozu gogoan...?

– Begira, izeko, nire atsekabea arintzearen, ontziko nire jardunari emotea biderik egokiena derist.

– Ondo esanda, Patxi, neu be bat nator zurekin.

Olantxe ba, urrengo eretian itsasoratu nintzan, eta oiko nire jardunari emon neutsan, aberri ta Ameriketako arteko joan-etorriak egiñez. Orain ez neutsan urre-salerosteari emoten, naikoa ondo irabazten nebalako, eta gaiñera urrearen arazoa ez zan lengo beste onuragarria.

Sei illabete igaro ziran, eta nire alabeari lekaimearen soiñeko-artze etorri yakon. Egun gogoangarria guztiontzat. Jaunaren emazte bateri egokionez zuriz jantzita, bere edertasun dizdiratsua iñoizkorik agirien bereizten zan. Ospakizuna amaituta, besarkatu ginduzan, eta berarekin ordu batzuk emon ostean, etxera biurtu gintzazan. Amar egun geroago, Afrika'ko mixio batera beste iru lagunekin abiatu zan. Ega-zelairaiño izeko Yokiñe ta biok lagundu geutsan, eta egazkiña abiatu zanean, oiñaze latza jabetu eziñik, biok negar etsi bateri emon geutsan.

Etxeko isilla ta ituntasuna eroangatxa billakatu yatan, eta itsasoari laster emongo neutsan barriro, baiña izeko bapatean ogei urtez zaarragoa iruditu yatan, eta bere itxura neketsua oartzean, erruki esan-eziñak menperatu ninduan. Izan be irurogei ta amar urteko zan, etxekoen onari beti emonda, bere buruaz aztuta, beti iñorentzat aaleginduz. Orduan barruko eragiñari jarraituz,

– Izeko –esan neutsan–, aurrerantzean ez dot ezelan be gura, lan egin dagizula, naikoa ta lar aalegindu zara gure alde-ta. Ordua da atsedean artu dagizun, eta gaiñera, ez da bearrezkorik, diruaren aldetik ondo gagoz-eta.

Asperen bat urten yakon izekoari, eta,

– Zer egingo dot, baiña, etxe onetan bakarrik, nire ondoan utsa ta isilla baiño ez izanik...?

– Egurastu, eta eleizkizunetara joan zaitez.

– Ori ez litzake naikorik izango. Zeozer egin bear dot, ez dirurik irabazteko, baiña, naigabeak arintzeko baiño. Augaitik ba, txiroentzat josiko dot.

Zuzen egoan izeko. Neuk be lanari emoten neutsan, ez bakarrik illeko saria jasoteko, bakartasuna arintzeko baiño.

– Zuzen zagoz izeko –esan neutsan–, baiña astia emoteko bakarrik, neuk be lanean aringarria aurkitzen dot-ta.

IPANEMA'KO ATSOA BARRIRO

Bajoiazan illabeteak aurrera, eta bein baten, Rio de Janeiro'ko portuan gure itsasontzia egoala, naikoa astirik nire aukeran izanik, gogokoa nebazan Copacabana ta Ipanema'ko ondartzak ikertzea erabagi neban. Ipanema'ko ondartza bikaiñean zear egurasten niñoala, alako baten, baltzez jantziriko irudi batek erakarri ninduan, eta tximistak jota lez geratu nintzan. Bai, bera zan, Branca erdi-baltza, lapur eta gaizkillea, ezbear izugarria ekarri eustana nire on-egitearen ordaiñez. Aspaldian lez, itsasoari artuta egur-sointxu bat eroian, etxeko suterako, baita neu lako kokoloai ziria sartzeko be. Ustekabez, aspaldi aretan jazo yatana gogoratzean, sumin gorriak artuta, merezi ebana emotea erabagi neban, eta atzetik jarraitu neutsan. Andik laster, Rodrigo de Freitas Lagoa edo intzirako ertzetik abiatu zan, eta gero bide aldapatsuan gora, goiko favelara. Orduan urreratu nintzakion, eta berarekin buru egiñez,

– Izan be, amama –esan neutsan–, ezin dagiket jasan zeu lako bat olan zamatuta ikustea.

– Ai ene bada...! Itzela da benetan bizi bear au...! Esan, semetxu orrek, emekoa al-zara...?

– Ez, atzerritarra naz.

– Biotz onekoa emoten dozu.

– Ori ez dakit, baiña ezin dagiket zu olan ikusi. Non bizi zara...?

– Or, goiko favelan bizi da Branca gaixoa, bizitzaren garraztasunari aurre egiñez.

– Ekarri egur-sointxu ori. Etxera eroango dautsut nekatu ez zaitez.

Emon eustan sendorra, eta nire albotik ebillela, bere etxekoen ezbearrak jakiñerazo eustazan. Bai, bere seme Sebastiao drogazale billakatua zan, eta onen seme-alaben ardurara, bere kasa artu bear izan eban. Au entzutean, nire buruari itaundu neutsan dalako Sebastiao izango ez ete zan buruan zauritu ninduana oroimena galdu-erazoteraiño... Eta edu onetan, Branca erdi-baltzak etxeko bearrian eta ezbearrak edesten eustazala, txabolara eldu gintzazan. Bai, lengo berbera zan; gogora etorri yatan bide-ertzeko ur-arroil zikiña, eta ateko ol ustelak.

– Sartu, Jauna, eta jesarri zaitez.

Mai kolokaren ondoko aulki bat eskiñi eustan, eta nire izerdia txukatu ondoren, ondo ezagutzen neban bonbil batekoa edontzi batera isurita gero, Branca'k eskiñi eustan esanez,

– Bero andia da, eta artu edari ozgarri au, ondo etorriko yatzu-ta, etxerako aldapa igon ondoren batez be.

Orduko, egitekoa ondo ausnartu izan neban, eta asieran edan gura ez nebalakoa egin, baiña berak, baietz, beartsua izan arren, nire alde zozter egitea pozgarria izango litzakiola. Noizbait, eta nire asmoari jarraituz, edaten nebalakoa egiñez edaria lurrera isuri, eta alako baten, konortebakoarena egiñez, sorura jausi nintzan. Aida baten atso urreratu yatan, eta sakelak arakatzen eustazala, neroian dirua kendu eustan, eta ormako arri bat lazoturik, ara sartu eban auxe iñoala:

– Gaurkoa egin dogu. Onen moduko iñuzenteek Branca’ri erruki izan artean, gure itsulapikoa lodituko da, bai orixe...!

Itz oneik esanik, Branca biurtu zan, eta ni ikustean aurpegia margultzen yakola,

– Zeu, zeu...! –oiu egin eban–, arrotzaren mamua al-zara...?

– Ez, atso madarikatua, ez naz iñongo mamurik, orain lau bat urte nire errukia usiatuz, ona ekarri zenduan arrotza baiño. Ez al-zara gumutatzen...? Ez, urrean... ainbeste artean zelan gogoratu...? Begira, inpernuko sorgin madarikatua: zure edari orrek nire zentzumena galdu-erazorik, diru ta nortasun-agiria kendu zeustazan, eta zauri ilgarria buruan artuta, Ipanema-atzetiko kale batera eroan ninduzuen. Onen ondorioz, iru urte emon dodaz batetik bestera oroimena galduta etxera biurtu barik, eta orain kontuak eskatzera natortzu.

Zutunik ia egon eziñik, Branca aulki baten jesarri zan, eta mintzo negartsuz,

– Jauna –esan eustan–, barkatu egistazu dirua kendu ba’neutsun, baiña jakingo ba’zenduz etxe onetako bearrizan gorriak... Bost billobatxu janaritu ta zaindu bear dodaz, eta eskean batutakoaz naikorik ezean, zeuk dakizun zitalkerira bearrizanak bultzatu nau. Jauna, zeuk ez dakizu zelako inpernua jasaten dot, ai ene bada...!

– Ostu zeustan dirua gitxiena da, baiña zergaitik nortasun-agiria niri kendu, eta onen ostean ia eriotzaraiño zaurituta gero, kalean iltzat jaurti...?

– Ziñez diñotsut, Jauna, dirua kendu neutsula, baiña zorrotxuko paperak eta nortasun-agiria ez neutsazan kendu, eta au Jaungoikoarren zin dagitsut. Gau aretan, nire seme Sebastiao droga-zalea, droga-barauak zoratuta etorri zan, askotan jazo oi dan lez, eta umeak lotan egozala, zu etxetik atara zengizan eskatu neutsan. Bera da atzipeturiko arrotzak etxetik ataraten dauzana, orretarako makal naz-eta. Esan dautsudanez, gau aretan Sebastiao droga-ebak zoraturik, deabruak artuta egoan, eta aiñen-biraen artean dirurik emon bear izan neutsan etxetik atara zengizan. Gero, ez dakit jazo zana...

Isildu zan Branca, Ipanema’ko atso lapurra, aurpegi zimurtsuan beera malkoak eriozala. Orduan, ormako zulora joanda, an egoan dirua artu, eta,

– Aizu, atso zikiña –jaurti neutsan–, lapur-zulo au erre bear izango neuke, darabilzuen gaiztakeria amaitu daiten, baiña erabatean alboko txabolak be erreko litzakez. Au dala-ta, beste barik joango naz.

– Jauna, Jaungoikoarren, ez egidazu kendu diru guztia, eroan zeurea dana soillik, enparaua, len zuloan egoana, nirea da-ta. Arren Jauna...! Zeuk ez dakizu nire bost billobatxu gaixoak zelan maite dodazan, bost zeru-zati errubakoak egunoro kalerik-kale eskean... Arein begi andi gosetiek edozertara eragiten nabe. Bildur naz egunen baten, eu-

ren aita lakorik billakatuko ez ete diran, edo-ta espetxe baten sartuta ikusi... Laga egistazuz diru-apur batzuk biarko janariarentzat bederik...!

Nire aurrean belauniko egoan eskuak batuta, eta aurpegi zurbilletik malkoak mara-mara eriozala, eskutik abora, ez dakit zelan, nire asarre gorria erruki biurtu yatan, atso zoribakoa ikustean. Bera zan Afrika’ko basa-lurraldeetatik indarrez ekarritako jopu arein ondorengo bat, arrotz zurien lurra izerdiaren-izerdiz aberastu egiezan, joputaldeburuan zigorraren zemaitez lanean, lerrenak egin arte... Bera zan anai txiki bat, inditarren antzekoa, iñoren jopu billakatuak euren arbasoen lurra eta oiturak itzi ebezantetik...

– Jagi zaitetz, Branca –esan neutsan–.

Zutundu zanean, bere dirua atzera emon neutsan, eta gero... barruko eragiñari jarraituz, nire dirua be eskuraturik,

– Entzun egistazu –esan neutsan–, zeurea biurtzen dautsut, baita neurea be, billobatxuek goserik jasan ez dagien, baldintza bataz, baiña: aurrerantzean ez dozula beste ostuketarik egingo. Gaiñera –guzurrez esan neutsan–, Ipanema’tik egunoro ibilli nabil, eta ostuteko asmotan ba’zakust, dagokizun salakuntza egingo dot ertzaindegian.

– Jaungoikoak bedeinkatu zagizala, Jauna. Ez zaitut egundo be aztuko, eta egunoro Branca’ren otoitzek lagunduko dautsue.

Eta benetan iñoala adierazoteko, edari logarriko bonbilla artuta, kalera jaurti eban amaika zatitan apurtzen zala. Gero, atsoaren guztitariko benedikaziño ta ongi-naiek laguntzen eustela, bidean beera Ipanema ondartzara jatsi nintzan, eta erri-berebillez itsasontzira biurtu. Arratsalde aretan besoak “Mendigarai”ko eskudelan kokatuta, nire buruari niñotsan zein arrigarriak diran bizitzaren bideak. Goiz aretan, lau urte lenago niri egiñiko iraiña garbitzera joan izan nintzan gogoa gorrotoz irakiten, eta erruduna aurkituta, nire apentza egi biurtzera gertatzen nintzanean, aborik eskura, Paul Deuna’ri jazo yakonez zalditik jausi zanean, argi bizi bat nitzaz jabetu izan zan, menperatzen ninduan gorrotoa maitasuna biurturik. Sor Ane’k aspaldiko nire aingeru jagoleak, ori ikusi ba’leu, irribarrez berekiko esango leukean: “Nire Patxi arlotearen gauzak dira”, eta au bururatzean, neuk be irribarre egin neban gogoa bake bakanaz jabetuta.

Aztu egin yat aipatzea, itsasotik etxera biurtzen nintzanean, Sor Ane aztu-eziñari ikerraldi bat egiten neutsala, eta an, umezurtztegiko aulki baten jesarrita, edo astigarren pean egurastuz, nire gora-beerak edestu oi neutsazan, eta berak bai pozik entzuten eustazala...! Ama baten antzekoa yatan, eta nire poz eta naigabeak ondo ezagutzen ebazan, aalegin guztiakaz adoretzen ninduala.

Amabostero Mirentxu'ren idazkiak yatorkuzan, eta geureak joiakiozan. Etxera nentorrenetan, nire lenengo egitekoa aren barriak irakurtea zan, eta jarraian nire albisteak eta izekoarenak egazkiñez igorten geuntsazan.

Pozik egoan Mirentxu ango jendeaz, umeen artean batez be. Irakasle baimendua izanik, neska-mutikoak eskolatzen ebazan egun osoan, ango erritarren izkuntza ikasi ondoren. Ez eban atsedenaldirik, baiña bera zorionsua zan, gero ta geiago izan be, lagun-urkoarekiko maitasunak edonoren arimea bete dagikean beste.

Geugandik joatean sortu yatan zauri ta atsekabea, apurka-apurka arintzen asten yatazan, eta aldiaren bidean gero ta pozago sentitzen nintzan bere deiari oztoporik ipiñi ez izateagaitik. Bein baten, ez dakit noren aboz entzun neban, bere alabaren bat lekaike biltakatu ba'litz, eriotzak eroanda lakoa izango litzakiola. Nik ostera, alabea Jaungoikoari emon dautsadala oartzen dot, eta urrun izan arren be, biotz-arimetan iñoizkorik bizien daukat, eta oraingo uko-egiteak egunen baten zorionsuago biurtuko nauala uste dot.

Itsasontziko nire jardunari emoten nerraikean, eta olan, egunoroko lanak neurri baten bizi izatera laguntzen eustan. Len aipatu dodan lez, urre-salerosteari uko egin izan neutsan, batetik, lengo beste onuragarria ez zalako, eta bestetik, nire jarduna zala-ta, oso ondo irabazten nebalako. Esan bearrean naz, eta au arrokerizat ez artu, ontziko nagusiek uste osoa neugan jarrita ebela, eta nire erabilteaz pozik egozan. Orduko, Leontzi'k Elantxobe'ko nagusi edo kapitanak adiñera eldurik, zaar-saridunen bizitza nasaiari emotsan jaioterrian. Aren orde, mundakar batek nagusizat ziarduan, eta aspaldiko ezaguna izanik, nire jardunean ez neban iñongo oztoporik.

Urte batzuk igaro ziran bizimodu onetan, izeko ta biontzat Mirentxu'ren barriak, artu geinken zorionik andiena izanik. Bost urte igaro ziran nire alabea lekaike mixiolari joan zanetik, eta bere irudi zoragarria gero ta biotzeanago genduan. Sarri askotan nire buruari itauntzen neutsan, egunen baten ikusiko ete neban, auxe nire zorionik andiena izango zan-eta... Orduko, baiña, izeko Yokiñe'ren osasun-beerakadea, gero ta agiriago nenkusan. Irurogei ta amabost urtekoa zan, eta ikusmena ia galduta, etxetik tatarrez ebillen, eta argi gitxi zanean, gauzak aztamuka billatzen ebazan. Augaitik ba, itsasoratzen nintzanetan, atsekabeturik urtetan nintzan etxetik, biurtzean zelau aurkituko neuken, nire arrenkura bizia izanik.

Bein baten, baiña, Ameriketatik biurtzean, izeko bakarrik biziteko gai ez zala oartu nintzan, eta nire jardunari betirako uko egitea erabagi neban. Azken urteetan irabazi-

takoaz, eta artuko neuken zaar-sariaz ondo baiño obeto bizi izateko beste bagenduan. Bidezkoa zan, beraz, bizitzaldi osoan etxekoen onurari emonda iraun ebanak, atsedean artu egian. Baziran berrogi ta amar urtetik gora, lagun-urkoari bete-bete emonda bizi izan zala, eta ainbeste maite izandakoen alde dana eskiñi ebanari, egokia zan neuk aal neban guztia emon nengion, eta nire bizitzaren zati bat izeko Yokiñe'ri emotea erabagi neban.

Bearrezko agiriak ta gora-beerak beteta etxera biurtu nintzanean, izekori auxe esan neutsan:

– Izeko, aurrerantzean ez dot lanik egingo, naikoa egin dot-eta. Zeuk eta biok bizi izateko beste ta areago izanik, bidezkoa deritxat lanari uko egitea.

Izekoaren begi moteletan argi antzeko dizdira kokatzen zala ikusi neban, auxe iñostanean:

– Au nire poza, Patxi...! –esan eustan adorez beterik–. Ez dakizu zelan itxaroten neban ereti au. Ordua da bizitzeari onura atara dagiozula, nire gaixo orrek...!

– Bai, izeko, eta etxean nozun ezkerero, biar bertan osagilleak ikertuko doguz, begilari on bat izan be, ia begi orreik konpontzen dautsuzan.

Esan eta egin. Lenengo, begilari bategana joan gintzazan, eta azterketa zeatzaren ostean, begi biak lausotuta ebazala esan euskun, eta aalik lasterren esku-sartzea onena izango litzakela. Astirik galtzeke, lenengo bat, eta gero bestearen esku-sartzea egin zan, eta andik illabete bitara, izekoa bere kasa ibilteko gai izan zan. Ezin siñistu, baiña, orren ondo billakatu zeitekeanik, eta etxera biurtu gintzazanean,

– Aizu, Patxi –esan eustan–, begilari ori primerakoa da. Ez neban iñoiz uste izango, onen ederto ikusteko gai izango nintzakenik. Diru-pillo andia eralgiko zenduan, Patxi, operaziño bi izan dirala kontuan arturik batez be.

– Ze diru ta diru oste...! Ikusmena ezin daiteke diruaz kidetu. Gaiñera, esan neutsunez diru-aldetik ondo gagoz.

– Idatzi dagiogun Mirentxu'ri. Nire ikusmena zala-ta, ezin izan dausat idatzi, baiña gaur bertan arloari emongo dausat. Mirentxu'ren poztasuna...!

Eta pozez gaiñezka dalako eskutitza idatzi geutsan, izekoari egiñiko eskusartzeari buruz, guztitariko zeatzak emonez.

Luzaro barik ikusi neban, baiña, izekoaren gatxa ez zala begi-lausoarena bakarrik. Ikusmena irabazirik, aztamuka ibilli barik iñondik joateko gai zan, baiña andik urtebete batera-edo, asiera baten nekatzen zala, eta gero oin-narrazka ebillela oartu nintzan. Uriko geisotegira eroan neban, emen gzutitariko aztergaiñuak aukeran egozalako, eta geiso-sail batetik bestera joanez, amaikagarren azterketaren-ostean, banazean ni artuta, bereizlariak auxe esan eustan:

– Zure izekok urdaillean minbizia erakusten dau, eta aurreratu samarra, izan be.

Naigabe latzak artuta, auxe itaundu neutsan:

– Zer egin geinke...?

– Esku-sartzea saiatu daiteke, baiña nire ustez, orrek ez leuke makurra uxatuko, geroratu baiño, eta ez luzarorako. Nire senitartekorik ba'litz, ez neuke operatuko, bai oste-

ra, oiñazeak baretu, eta gaur orretarako osakai on asko dago. Baiña zeu zara arazo onetan erabagitekoa, eta zeuk aukeratua egingo dogu.

Luzaro iraun neban zer egin ez nekiala, eta bereizlariarekin beste autu bat izanda gero, izeko bakean izteko erabagi neban, aren nekaldia alperrik ez luzatzearren. Olan ba, berarekin egun osoa emoten neban, eta etxetik batetik bestera laguntzen asi nintzacion, ibiltea neketsua billakatu yakonean, baita kaleetan zear be, eguraldi eguzkitsua zanean, baiña gatxaren kaltea aurrera joian etenbarik, eta bein baten oetik jagiteari uko egin bear izan eutsan. Ikertzen eban oeburu-osagilleak aurka ez egitea agindu eustan, luzarorako ez litzake izango-ta. Au jakiñik, andra bat laguntzailletzat artu neban goizetik bazkalosterarte, eta emakume orren laguntzea ustiatuz, eguberdian ordubete biko egurasteari emoten neutsan, nire betebearra zelanbait arintzearren. Arrastian oe-ondoan niraun etenbarik, eta aringarritzat nire gora-beerak edestu oi neutsazan guztitariko zeatzakaz. Poztuten eben nire edeskiek, eta sarri askotan,

– Patxi –esan eroian–, zure bizitzaren gora-beera orreik entzutean, ondo-ezak arintzen yataz. Izan be, asko jasan dozu, baiña bizitzaldi zirikagarria izan dozu, garratza, baiña ez aspergarria.

Mirentxu'gandiko eskutitzak oroz gain irrikatzen ebazan, eta augaitik, izekoaren geisotasunaz jakitun ipiñi ondoren, sarriago idatzi egiskun eskatu neutsan, baiña aren geisotasunari buruz ez ekialakoa egiñez. Olan ba, Mirentxu'k astean birritan idatzi oi euskun, izekoren poz andirako. Aldiaren bidean, baiña, oiñazeak andiagotzen asi yakozan, eta osagilleak morfiñazko zitzakiak (inyekziñoak) erabilten irakatsi eustan. Laster ikasi neban, eta miña joten asten yakonetan, astirik galtzeke zitzaki bat sartzen neutsan, eta au zala-ta ez eban min andirik jasaten. Gatxa aurrera joan-ala, ordu biro sartu bear izaten neutsan, eta augaitik, besaulki baten jesarrita gabaz bere oe-buruan irauten neban. Eriotzaren arnas illun, otza, oe-ondoan sentitzen zan, uxa-eziñeko urrats isilletan urrertzen zala bere opariaren billa.

Arrasti baten, bidalgotik arako idazkia irakurten asi nintzakion ozen eta astiro, entzumena makaltzen asi izan yakon-eta. Irakurketea amaitu nebanean, irribarre gozoa ezipanetan izeko geldi-geldi egoala oartu nintzan. Makurtu, eta eskua artuta, illik zetzala egiztatu neban. Eiagora garaiteziñak astindu ninduan, eta umezurtz baten etsipenaz negar mingotsari emon neutsan. Ez dakit zein luzaro iraun neban, baiña zentzumena irabazita, emakume laguntzailleari dei egin neutsan, il-janzkia jarri egion.

Biaramoneko eguberdian eleizkizunak izan ziran. Aurreneko aulkian bakarrik nengoan, izeko Yokiñe'ri aal nebana eskintzeko: oroipen samurra ta otoitzak. Urrengo egunean lurperatu izan zan, bere neba zanaren eta Gaizkane nire emazte aztu-eziñaren ondoan. Irurok alkarren ondoan datzaz eriotzak eroanda, eta azkenean eriotzak batuta. Klare Done enparantzako etxe uts bakartira biurtu nintzanean, nire buruari niñotsan, ez nebala luzaroagorik bizi nai, itxarokiden egun luze, mingotsetan, iñoren maitasunik bage. Mirentxu, nire alabearen oroitza geratzen yatan, baiña urruntasunaren utsa...!

Arrezkero, iñoren eragintzari men egiñez, nire bizitzaren gora-beeren idazteari emon dausat, eta neurri baten, ez osoro baiña, egunen jarraigo utsari aurre egiteko la-

gundu daust. Sor Ane ikertu neban bein baten jazo zan; nire bakartasun eta neroian bigitearen larritasuna, bese inork baiño obeto ikusten eban, maite nindualako. Larunbateko arratsalde aretan, astero ikertzen neban-eta, alkarri agur esateko garaian, auxe irautsi eustan:

– Aizu, Patxi, zergaitik ez idatzi zure bizitzearen gora-beerak...?

Esan eta egin. Urrengo egunean nire barruan bilduta, aspaldiko jazoerak gogora ekarten asi, eta gero idazteari emon neutsan. Ez neban somatzen, ez urrik emon be, olako jardunak nire bakartasunaren utsa orren ondo beteko leuskidanik, baiña arrezkero bizitzaren ezerezkeria nigandik urruntzen asi zan, zeri eldu baneban-eta. Eta olan iradu barik, antxiñako ta ez ain urrun jazotako gora-beerak idazten asi naz, eta banan-banan nire aurretik igaroten asi dira aspaldiko jazoerak eta aurpegiak, batzuk atsegiñak, besteak mingotsak, bizitzaldia olan da-ta, malkoz eta irribarrez egiña.

ANTXIÑAKO EZAGUNAK

Nire bizitzatik betirako joanak zirudien ezagun batzuk barriro be sartu dira, eta egoki deritxat, beraz, eraspén baten antzera arein barriak emon dagidazan.

Izeko Yokiñe ilda gero, kaleetan zear niñoan bein baten, andra bat urreratu yatan, eta besarkatu ninduan oiuka,

– Patxi, Patxi, noizbait ikusten zaitut...!

Nor eta Arrate, Markiñalde'ko neskato zoragarria andra dotorea biurtuta...!

Lau itzetan alkarri barriak emon geutsazan. Arrate iraduz joian, betebear laga-eziña egiteko zan-eta, baiña etxeko norabidea emon eustan, urrengo Igandean bazkaltzera joateko arrenkatuz.

Urrengo Igandean, beraz, aren egoitzaren atean oles eginda, neskato politikak edegi eustan, eta,

– Ama, ama –didar egin eban–, Patxi etorri da.

Bereala agertu zan Arrate, eta etxekoen aurkezpena egin eustan bazkariari itxaron bitartean. Gero, mai-aurrean jateari emoten geutsala, senarraren begiratu maitetsuen artean, bere bizitzearen zertzeladak edestu eustazan. Ona emen ba, Arrate zoragariaren edeskia:

Amazortzi urteko zanean, Eibar'ko osagille batenera neskame sartu zan. Neskatilla maratza izanik, laster irabazi eban etxekoen begi andia, baiña maratza baizen zoragari izanik, etxeko mutillaren maitasuna be. Onek osalaritzaren ikasketak amaitu ebazanean, gure uriburura lan egitera etorri zan, eta andik urtebete batera, Arrate emaztetzat artu eban. Sei seme-alaba ebezan, eta etxeko apaintasunak agirian jarten eban, diruaren alde-tik egoera nasaian aurkitzen zirala.

Arrezkero, senar-emazteek arrenkatuta jaiegun guztietan bazkalkide nabe, eta agiri da, etxe aretan danok maite nabela, bai gurasoek bai seme-alabek. Etxera eldu baiño ez, alkarren leian agur egitera datozkit, eta dakardazan gozokiak Arrate'ri emonda, mai-inguruan jesarrita, abo batez edeski bat eskatzen dauste, eta oroimenean billatuz aspaldiko gertaeraren bat edestu bear izaten dautset. Onena, baiña, bazkalostean dator. Arrate'k bertsozalea irauten dau, eta kafea txastau bitartean, bertso-tara zirikatzen nau. Nire zale-tasunak eraginda, edozein arazoa gaitzat artuta, bertso-tan luzaro diardut. Arrate'k, baiña bere joera jabetu eziñik, laster asten da niri erantzuten, eztabaida adiskidetsua sortuz guztien atsegiñerako.

Olan jarraitzen dau gure arteko adiskidetasun andiak. Arrats-erdian etxekoai urren-

go Iganderarte agur esanik biurtzen nazanean, nire biotz bakartian, bero epelaren antzera oartzten dot. Izan be, nire bizitza bakartiaren ortzian, astean bein izar batzuk niretzat dargie.

Lengo baten illunabarrean kaleetan zear niñoala, oso apain jantziriko jaun bat gelditu zan, eta adi-adi begiztatzen ninduala,

– Patxi –didar egin eustan–, Ez nozu ezagutzen, baiña...?

– Ez zaitut ezagutuko ba...? –poz-pozik erantzun neutsan –Zelan aztu antxiña bateko Txiritxu, nire lagun maitia...?

Txiritxu berbera zan, baiña orain jaun dotore biurtuta. Kapusai ederraz jantzita, buruan kopaleta bikaiña erabilien, eskuan zidarrezko kirtendun makilla, oiñetako dizdiratsuak, eta aboan txokor luzea, antxiña bateko Txiritxu ugerdoak markesa emoten eban. Zirikoazko kapusaia kanpotik oztziña, eta barrutik gorria zan. Bere itxura apaiña ikustean, ezin izan neban adarra joteko guraria menperatu, eta,

– Baiña Txiritxu –esan neutsan–, uri onetako alkatea biurtu zaitue-ala...?

– Orixe gura izango eben askok, baiña Txiritxu, orain Abisinia'ko Aztia, Europa'ko uri nagusi guztietatik dei egiña da, bere eskuen antze gorena ikusi dagien. Ez, Patxi –irribarrez jarraitu eban–, ez uste, edozein traskillaren aurrean zagozala, bai zera...! Baiña apalordua dan ezker, eta nire gora-beerak entzun dagizuzan, goazen uri onetako jatetxerik onenara.

Joan gintzazan ba, "Urrezko Basaoillar" jatetxera, eta biontzako apari bikaiña agindurik eta eskaturikoa itxaron bitartean, edontzi bete ardao txastatzen genduala, nire itaunai erantzunez, onetaraxe asi zan:

– Banandu gintzazanean, uri onetako uren zerbitzuan niarduan, baiña andik laster, aldirako zan nire lana amaituta, kalean ikusi neban nire burua. Or-emenka arrapatari ibilli ondoren, bein baten, txerpolari batzuk morroi bat bear ebela-ta, nire burua eskiñi, eta urrengo egunean lanean asi nintzan. Nire jarduna beetariko maillakoa zan, baiña besterik ezean, goseak eraginda onartu neban. Bazan zirko aretan esku-jokari bikaiña, eta aldiaren bidean onen lagun-mutilla billakatu nintzan. Laster ikasi nebazan nire maisuaren inki-makoak, baita neronek asmatutako beste batzuk be. Nire maisua naikoa zaarra izanik, geisotu zan bein baten aren jarduna nire gain artu neban, eta jendeak iñoanez, ez neutsan ari ezertan zor. Egunak joan egunak etorri, baiña, nire esku izatea erabagi neban, eta Abisinia'ko Azti edo Magoaren izenpean, antxiñako Txiritxu ezaiña esku-jokariaren maisua billakatu zan, eta emen nozu irurogei urteko izanik, Europa'ko uri nagusietatik nire ganora bardinbakoa ederresteko, alkarren leian dabiltzela nork ni erakarri. Orain Donosti'ra noa gero Bordele'tik Paris'era joateko, eta gero European zear jardungo dot...

– Izan be Txiritxu –eten egin neutsan–, umetandik esku-trebetasun andikoa izan zara.

– Bai, Patxi, iñoren ateak zabaltzeko geienbaten.

Barre egin genduan aspaldi bateko gure ekintzak gogoratzean, eta,

– Ezkondu al-zara, Txiritxu...? –itaundu neutsan–.

– Ez, adiskide. Nire bizimodua aukeratzen dauana oba mutilzar geratu. Idi askatua bere buruaren jabe. Laster, baiña, lan egiteari uko egingo dautsat, diru-pillo polita aurreztu dodalako. Eta zeuk zer diñostazu...?

Orduan andi-andika nire gora-beeren barriak emon neutsazan. Amaitu nebanean, auxe esan eustan:

– Orain apalosteko ekitaldia dagokit. Arratsaldekoa egin dot, eta orain gabeko ta garrantzitsua datorkit. Zatoz nirekin, eta ikusiko dozu Abisinia'ko Aztiaren ekitaldi arrigarria.

Uriko antzokirik ederrenera joan gintzazan, eta besaulki eroso baten jesarrita, Txiritxu'ren antze gorena gozatu neban, guztitariko egaztiak, zapiñoak eta abar bere kopale-tatik ataraten ebazala; ikusleen belarrietatik piztutako zigarrotxuak; andereiño bat zerra bat az erditik ebagi, eta gero osorik agertu; karta jokuko urrezko batekoa amaika zatitan urratu, eta gero andra baten okozpetik osorik atara, eta abar. Bai neuk, bai beste ikusleek abo-zabalik begiztatzen genduan Txiritxu'ren jarduna, ulertu eziñik, zelan egin zeitekezan olako deabrukeriak. Izan be, ekitaldi atsegiña azaldu zan.

Amaitu zanean, uriko ostaturik dotoreenera lagundu neutsan, ume ta gaztaroko ekintzak alkarri gomuterazoz. Biaramonean Donosti'rako zan,

Eta beste urrengo baterako, nire etxeko norabidea emon neutsan, besarkada anaikorreraz alkarregandik agurtu ondoren. Etxera biurtzen nintzala, nire buruari niñotsan, maite izandako Txiritxu ezain eta ganorabakoa, aldiaren bidean bizitzaren burrukatik garaille billakatu zala.

Beñola, egurastegiko aulki baten jesarrita umeen jolasak begiztatzen nebazala, gizon bat aurrean gelditu yatan, eta,

– Kaixo, Patxi –esan eustan–, ez dozu aspaldiko lagun bat ezagutzen...?

Une batez ezpaitsu iraun neban, eta gero,

– Ez zaitut ezagutuko ba, antxiñako Toribio...?

Bai, bera zan, mutikoa nintzala ikastetxean ezagutu neban "Tori", eta orain ogetak urte-edo, "Etxegille" izeneko baltzuaren jabea zanean, an izandako lapurketa baten egiltzetat, kalera bialdu ninduana ezkon-barria nintzala. Bai, ondo gogoratu neban, ezagutzen ninduan ertzain baten argibideakaitik, iñongo egiztapen barik, eta nire eskaera biziai jaramonik egiteke, zeJan jaurti ninduan kalera, etxe aretako jarduna iñoizkorik bearezkoen yatanean.

Nire aurrean neban, garai aretan ustel urten yatan ikaskidea. Bere itxurak, baiña, aurretiaz agureturiko gizonarena emoten eban, eta Parkinson dalako gatxa zala-ta, eskuak etenbarik dardarikatzen yakozan, baita burua be noizean bein.

– Jesarri naiteke zure alboan, Patxi...? –apal-apal esan eustan–.

– Bai, Tori, jesarri zaitez.

Alboan makillea lagata jesarri zan, eta eskuak belaunen gainean ipiñita, zelanbait dardarra menperatzeko, urrean, auxe esan eustan:

– Garaia da, Patxi, ikusi zagidazan, zeuri egun aretan egiñikoak madarikaziño baten antzera jazarten nau-ta.

Isildu zan une batez oldozkunak taiutzeko, antza, eta gero,

– Zu kanpora igorri ta illabete batera-edo, "Etxegille"n jazoriko lapurretea, etxeko morroi batek kanpoko beste gaizkillearen laguntzaz, egin izan ebala argitu zan, eta zu, beraz, erubakoa zintzazala. Zuri egiñiko bidebagekeriak ez ninduan bakean izten, eta bein baten zure etxera joan nintzan nire burua zuritzearren. Atea edegi eustan andreak, zure izekok izan be, emaztea galduta gero, itsasontzi baten ziarduala esan eustan, noiz etorriko zintzazanik ez ekiala. Orduan, nire oker-egiña azalduta, eta neurri baten egindako kaltea ordaintzeko asmoz, diru-pillo bat eskiñi neutsan. Berak, baiña, ez eban artu gura, etxe aretara ekarritako makurra ordaintzerik ez nebala, eta oba betirako joan, barrero ez agertzeko, esan eustan.

– Bai, Tori, izeko Yokiñe'k esan eustan zurekin jazorikoa. Ez uste, baiña, emakume zorrotza zanik, ez orixe...! Baiña bere loba galdu-barria eban, eta ni itsasoratua etsiaren-etsiz. Ona zan izeko, mundu onetan inor ona izan ba'da, bere burua etxekoen on-izateari eskiñita eriotzararte.

Isildu gintzazan une batez, eta gero,

– Ori jazo ta laster –jarraitu eban Tori'k–, Parkinson makurrak jo ninduan, eta ordutik atsedetik ez. Kanpora igorri zindudazanean, mintzoak eta eskuak ez eusten ikararik egiten, baiña andik laster, gatx orrek artu ninduan, eta nirekin etenbarik daroat mardikaziño baten antzera.

Eta gero begi larriakaz niri begiraturik,

– Patxi –esan eustan–, Jaungoikoaren zigorra da, eta ez dakit noiz barkatuko dautan...

– Tori –esan neutsan errukiak artuta–, ez olakorik esan. Begira... emaztea il yata-anean, barkatu neutsun dana berak eskatuta. Neuk ori egin ba'neban, zelan Jaungoikoak ez barkatu, erruki ta maitasun utsa izanik...?

– Zeuk diñozu ori, baiña batek-baki...

– Begira, Tori, Jaungoikoak egingo daskun epaiketea beste munduan izango da, ez onetan. Ordurarte, beraz, ez larritu. Auxe nai izango neuke gogora ekarri dagizula: aspaldiko jazoera ori aztuta daukat, eta nire ederrespena irabazi gura ba'dozu, zeuk be axe aztu bear izango dozu. Gaiñera, nork ziurtatu nire onerako ez zala jazo...? Arrezkero gertatu yatana egunen baten edestuko dautsut.

Eta izan be, agindu ori bete egin dot. Eguberdi askotan, eguraldia ona danean, Tori ta biok egurastegiko aulki baten jesarrita, guztitariko gaiak darabilguz, eta berak eskatuta "Etxegille"n jazotakoaren arrezkeroko nire gora-beerak edestu oi dautsaz, eta badi-rudi bere arrenkurak aldiaren bidean ostentzen yakozala.

Bizitzaren egutegiko orriak banan-banan jalgiten dira, eta nire izaeraren liburuko orriek areikin batean egan dagie, atzokoaren lañoan galduriko orbelak bai'litzazan...

Astean bein, larunbatetan izan be, nire biotzari ainbat oroitz dakarkion umezurtz-tegira noa, Sor Ane ikustera. Aspalditik ez dau lan egiten, larogetak urtekoa da-ta, baiña betiko ontasun eta maitasuna agiri dira beragan, lora bateri darion usain zoragarriaren antzera.

Badaki berak, bostetan inguru ikustera joango natzakiola, eta zerbait mizkiña dan ezkerro, gozaki batzuk dakartsadaz, oneik txastatzeko ereti andirik ez dau-ta. Nire begira dago atadian, eta eguraldi txarra danean iker-aretora goaz, besaulki banatan jesarrita, joandako aldiak gogoratzearen.

Udagoiko arratsalde zoragarri onetan, nire besoari eutsita astigarren arteko bidetik astiro goaz, urre biurtzen asten diran zugaitzen adaburuen artean. Gure azken alkarri-kuste onetan, ez dogu berba askorik esaten, gure biotzak samurtasun bakanak artuta. Noizean bein gelditzen da, eta aspaldiko jazoeren bat gogoratzu,

– Oroitzen zara, Patxi –badiraust aurpegia niganantz biurturik–.

– Bai, Sor Ane, gogoan dot...

Eta barrero be ibilteari darraikiogu berba askorik esan barik, baiña gure biotzak inoizkorik alkartuen udagoiko sorgindurak atxillo. Alako baten,

– Goazen barrura, Patxi -diñost–, otz naz-eta.

Iker-aretora biurtzen gara, eta onen epeltasunean berak auxe diraust:

– Emendik urrun zaitezanean, beti lez nire otoitzek lagunduko dautsue. Izan be, Patxi, ume izanik ona ekarri zinduezanetik, nire kutuna izan zara.

– Badakit ori, Sor Ane. Neurri baten, zeuk nire ama zanaren utsa bete zenduan, eta ez dakit zeu barik zer billakatuko nintzan.

– Izan be, Patxi, arlote andia izan zara, baiña arlote zoragarria ta biotz onekoa. Gaur esan dagikezut, ainbeste ezbear, zoritxar eta bakartasunaren artean, bizitzaren bi-degitean garaille azaldu zarala. Asko pairatu dozu, emaztea galdu zenduanetik batez be...

– Bidegite orretan bera nire ondoan izan ba'neu...!

– Nork ezagutu Jaunaren bideak...!

Isillak menperatzen gaitu barrero, eta lekorean udazkeneko aize zoroak bere urrez-ko eresia aldarrikatzen dau, illunpetara abiatzen dan gorrimiñezko ozkorriean. Alkarri agur esateko garaia da, eta barruko naigabea arintzearen,

– Eutsi, Sor Ane –diñotsat–, emen dozuz oiko gozakiak.

– Zu nire zirikatzailea zara, ondo baidakizu nire auleria zein dan-eta...

– Zure pekatua ez da andirik izango, Sor Ane, orreitariko geienak etxe onetako umerik zorigaitoen artean bananduko dozuz-eta.

Irribarre egiten dau, begien ituntasuna ezabatzen yakola une batez. Alkarri agur esateko ordua da, eta biok ateraiño goaz.

– Agur, Patxi –mintzu itoaz diraust–, Jaungoikoak bedeinkatu zagizala. Laster Jaunaren aurrean izango naz, baiña anartean nire biotz eta otoitzetan izango zaitut.

– Agur, Sor Ane –diñotsat malkoai nekez eutsirik– neuk be gogoan izango zaitut.

– Egun Andirarte, Patxi.

Eta gure sentipen kutunak eraginda, besarkada luzea damotsagu alkarri, eta Sor Ane'ri malkoak mara-mara dariozala, aalik ariñen urruntzen naz, niri be malkoak dari-dazalako, ume txikia izanik etxe aretara sartzean isuri nebazanen antzekoak.

Egurastegiko aulki baten azkenengoz jesarrita nago, biar aberritik urrutira joango naz-eta. Udagoiaren eragiñaz, zugaitzen ostoaak urrezko asperenak bai' litzazan, orain orbel bihurturik, euren azken bidaldian zear egan doaz zirikozko suzmurretan. Nire biotzetik be, urrezko bitxiak lez amesak egan joadaz udazken onetan, udabarri itxaropentsuak erakarrita, eta atzoko itzalen artean argi bizi batek urrutira naroa, iñoizkorik zorionsuen oartzen nazala. Ego-aize bidari epelak, lurralde urruntsu bateko dei jorantsua dakarkit gogora, nire ariman sentipen barriak sortuz.

Lengo gau baten, Gaizkane amesetan agertu yatan, eta oe-buruko aulkian jesarrita, begi ederrak neugan jarrita nire eskuari oratu eutsan. Sarri askotan agertzen yat amesetan nire emazte maite aztu-eziña, baiña gau aretan argi bereizia yatordan aren betseiñetatik. Luzaro ta samur niri begiratu ondoren,

– Zer diñostazu, Patxi...? –itaundu eustan–.

– Zurekin bizi gura dot, Gaizkane. Geratu zaitez nirekin betirako, bakartasunak jota nagotzu-ta. Joan zintzakidazanetik, ez dot zorionik ezagutu.

– Eta Mirentxu...?

– Berak be bakarrik itzi ninduan...

– Dei bateri jarraituz erbestera joan zan, baiña biotzean zaitu.

– Esan, zorionsua al-da...?

– Benetako zoriona, Patxi, maitasunean datza, eta ezeuki ta zoribakoekiko maitasunaren bidez, Mirentxu'k zoriona jaritsi dau.

Tximistaren antzera burutapen bat etorri yatan, eta,

– Uste al-do zu, ni an onartuko nindukienik...?

– Bai benetan, mixiolari-laguntzaille gitxi dago-ta. Gaiñera, orixe izango litzake Mirentxu'ri emon zengikion pozik andiena, eta zure bakartasuna uxaturik, txioren zerbitzuan, iges dagitsun zoriona aurkituko zenduke...

Ezustean, oean jesarrita itxartu nintzan, biotza taupada bizitan ebilkidala. Arrezkerro ezin lo egin, eta goizean jagita, amesa egi bihurtzera gertatu nintzan. Egun aretan bertan, Mirentxu'ren lekaimakana joan nintzan, eta egokidan eskaerea gotzaindegian egiñik, andik illabete batera, Afrika'ko lurralde aretatik baimena etorri yatan.

Biar egazkiñez abiatuko naz, eta orain egurastegiko aulki baten jesarrita, zoriontxinpartak dakarkidazan egoko aizearen putz epelek inguraturik, bakartasuna joanda, itxaropenaren irribarrea neugan oartzen dot. Nire biotzean kokatu yat argi bat, Peru-

txu'ren ipuiñean Belen'erako bidean, idiaren begietan kokatu zan izarraren antzekoa. Eta Perutxu aipatu dodan ezker, gogora yator, berak esanda, azken portura abiatzean, gidari on bat artu gura ebala, eta niretzat zein portu-gidari obarik, mixiolari-ekintzetan bizitzaren azken zatia emon baiño...?

Zoriona, bidaide bakana... Bai, bide-lagun bakana da, baiña bakartasun utsean nengoanean, maitasuna zorionaren giltza dala ikasi dot. Maite dot laster besarkatuko dodan Mirentxu nire alaba mixiolaria; maite dodaz, Afrika'ko lekuren baten laguntzaren begira dagozan izaki ezeuki, geiso, eta ez-jakiñak, eta arein alde geisotegian edo ikastegian aalegiñak egiteko gerturik nago. Nire anai txikiak... maite dodaz jadanik, Brasil'go xingureutarrak maite dodazan lez, nire laztan kutunak...! Nazan guztia arein alde emoteko gerturik noa, eta euren arteko txikienaren zerbitzaria izan nai dot.

Ego aizeak orbelak sakabanatzen ditu, nire biotzeko eresiak bai'litzazan, eta maitasunak nire arimaren ateetan dei egiten dau urrezko itxaropenak dakarkidazala. Niri be, orbela biurtzeko garaia yatoranean, bidez bestaldean Gaizkane izango dot nire begira, eta betikotasunean, ames egindako besarkadea alkarri emongo dautsagu...